

# EUSKAL EKONOMIA

2023ko txostena

LABORAL kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa

ISBN: 978-84-125750-1-9

LABORAL
kutxa

1. LABURPEN EXEKUTIBOA .... 13
    1. URTEKO LABURPENA .... 14
    2. LABURPEN SEKTORIALA .... 18

2. ESPARRU OROKORRA .... 31
    1. LABURPEN-BALANTZEA .... 32
    2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA) .... 41
        2.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA .... 41
        2.2 ESPAINIAKO EKONOMIA .... 50
    3. IKUSPEGI OROKORRA .... 59
        3.1 PRODUKZIOA .... 60
        3.2 ESKARIA .... 64
        3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK .... 69
        3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA .... 71

3. INDUSTRIA .... 79
    1. IKUSPEGI OROKORRA .... 80
    2. ENERGIA .... 87
        2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA .... 88
        2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA .... 93
    3. SIDERURGIA .... 96
        3.1 IKUSPEGI OROKORRA .... 96
        3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA .... 98
        3.3 EUSKAL SIDERURGIA .... 101
    4. ONTZIGINTZA .... 110
        4.1 NAZIOARTEKO EGOERA .... 110
        4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN .... 112
        4.3 ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN .... 114
    5. AUTOMOBILGINTZA .... 119
        5.1 NAZIOARTEKO EGOERA .... 120
        5.2 SEKTOREA ESPAINIAN .... 123
        5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAEN .... 130
    6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK .... 133
        6.1 MAKINA-ERREMINTEN EUROPAKO INDUSTRIA .... 133
        6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK .... 133
        6.3 MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN .... 135
        6.4 ESKUZKO ERREMINTAK ETA INDUSTRIA-HORNIDURA .... 137
    7. PAPERA .... 139
        7.1 NAZIOARTEKO EGOERA .... 139
        7.2 SEKTOREA ESPAINIAN .... 141
        7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN .... 144
    8. KAUTXUA .... 146
        8.1 NAZIOARTEKO EGOERA .... 146
        8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN .... 146
        8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA .... 148
    9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA .... 151
        9.1 JOERA TEKNOLOGIKO BERRIAK .... 151
        9.2 SEKTOREA EAEN .... 152
    10. ERAIKUNTZA .... 155




LABORAL kutxa

**11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA ... 169**
11.1 SARRERA ... 169
11.2 METODOLOGIA ... 169
11.3 RATIOEN PIRAMIDEA ... 179
11.4 FUNTSEN ITURRIEN ETA ERABILEREN EGOERA ... 187
**12. EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA ... 220**
12.1 SARRERA ... 220
12.2 ENPRESEN KOPURUA ... 220
12.3 SEKTORE EKONOMIKOAK ... 222
12.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK ... 224

**4. LEHEN SEKTOREA ... 226**
**1. IKUSPEGI OROKORRA ... 227**
1.1 BILAKAERA ESTATU MAILAN ... 227
1.2 BILAKAERA EUSKAL HERRIAN ... 230
**2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA ... 238**
2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK ... 239
2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ... 245
**3. ABELTZAINTZA-AZPISEKTOREA ... 248**
3.1 ABELTZAINTZA-ERROLDA ... 250
3.2 ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK ... 252
**4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA ... 263**
**5. ARRANTZA-SEKTOREA ... 267**
5.1 IKUSPEGI OROKORRA ... 267
5.2 BAXURAKO ARRANTZA ... 269
5.3 ALTURAKO ARRANTZA ... 278

**5. ZERBITZUAK ... 280**
**1. IKUSPEGI OROKORRA ... 281**
**2. HEZKUNTZA ... 282**
2.1 UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA ... 282
2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA ... 292
**3. GARRAIOA ... 302**
3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA ... 302
3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA ... 304
3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA ... 308
3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA ... 316
**4. TURISMOA ... 320**
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA ... 320
4.2 TURISMOA ESPAINIAN ... 322
4.3 TURISMOA EAEN ... 328

**6. FINANTZA SEKTOREA ... 339**
**1. IKUSPEGI OROKORRA ... 340**
**2. KREDITU-ERAKUNDEAK ... 344**
2.1 KREDITUAREN BILAKAERA ... 344
2.2 GORDAILUEN BILAKAERA ... 356
**3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK ... 362**
**4. BURTSA-MERKATUA ... 367**
4.1 IKUSPEGI OROKORRA ... 368
4.2 BILBOKO BURTSA ... 371

## Koadro aurkibidea


| | | |
|---|---|---|
| 1. koadroa | BPGaren eta enpleguaren bilakaera | 32 |
| 2. koadroa | Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta erregistratutako kontratazioaren bilakaera | 33 |
| 3. koadroa | Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregimenaren arabera | 35 |
| 4. koadroa | Gizarte Segurantzako afiliazioa, jarduera arloen arabera. EAE | 35 |
| 5. koadroa | Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera | 36 |
| 6. koadroa | Prezioen bilakaeraren testuingurua | 39 |
| 7. koadroa | Egindako ekonomia-aurreikuspenak. | 40 |
| 8. koadroa | Barne Produktu Gordinaren bilakaera | 41 |
| 9. koadroa | Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera | 42 |
| 10. koadroa | Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak | 43 |
| 11. koadroa | Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera | 43 |
| 12. koadroa | Langabezia-tasa | 44 |
| 13. koadroa | Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera) | 44 |
| 14. koadroa | Adierazle nagusiak (EB) | 46 |
| 15. koadroa | Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna) | 47 |
| 16. koadroa | Europar Batasuneko *per capita* BPGa (PPS) 2023 | 48 |
| 17. koadroa | Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak) | 49 |
| 18. koadroa | Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza) | 51 |
| 19. koadroa | Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta) | 52 |
| 20. koadroa | Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI) | 53 |
| 21. koadroa | Errenten eta soldata-kostuen adierazleak | 54 |
| 22. koadroa | Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak | 55 |
| 23. koadroa | Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak | 56 |
| 24. koadroa | Defizit publikoa | 56 |
| 25. koadroa | Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2024) | 58 |
| 26. koadroa | Bilakaera orokorra | 59 |
| 27. koadroa | Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera | 61 |
| 28. koadroa | Industria Sektoreko Adierazleak | 62 |
| 29. koadroa | Eraikuntza Sektoreko Adierazleak | 63 |
| 30. koadroa | Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak | 64 |
| 31. koadroa | Barne-eskariaren adierazleak | 65 |
| 32. koadroa | Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak | 65 |
| 33. koadroa | Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian | 66 |
| 34. koadroa | EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera | 67 |
| 35. koadroa | Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera | 68 |
| 36. koadroa | Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan | 69 |
| 37. koadroa | Soldata-adierazleak | 70 |
| 38. koadroa | Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia | 72 |
| 39. koadroa | Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak | 73 |
| 40. koadroa | Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak | 74 |
| 41. koadroa | SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak | 75 |
| 42. koadroa | Hitzarmen kolektiboak eta grebak | 76 |
| 43. koadroa | Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2022, | 77 |
| 44. koadroa | Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera | 77 |
| 45. koadroa | Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera | 81 |
| 46. koadroa | Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera | 81 |
| 47. koadroa | EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera* | 82 |




LABORAL kutxa

48. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera ..... 83
49. koadroa Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako ..... 83
50. koadroa Xehetasunak, jardueraren eta tamainaren arabera ..... 85
51. koadroa Xehetasunak, jardueraren eta tamainaren arabera ..... 86
52. koadroa EAEko balantze energetikoa (2023) ..... 89
53. koadroa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera ..... 89
54. koadroa EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera ..... 91
55. koadroa Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian ..... 94
56. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera ..... 94
57. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena ..... 97
58. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa ..... 98
59. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak* ..... 99
60. koadroa Inportatutako lehengaiak ..... 100
61. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza ..... 102
62. koadroa Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena ..... 103
63. koadroa Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera ..... 103
64. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena* ..... 104
65. koadroa Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritza ..... 105
66. koadroa Soldadurarik gabeko hodien esportazioak, helmugako herrialdeen arabera ..... 106
67. koadroa Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2023 ..... 109
68. koadroa Munduko merkataritza-flota ..... 110
69. koadroa Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera ..... 111
70. koadroa Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera ..... 112
71. koadroa Espainiako itsasontzien ekoizpena ..... 113
72. koadroa Eskarien zorroa urtearen amaieran ..... 113
73. koadroa Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2023 ..... 114
74. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian ..... 115
75. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua ..... 115
76. koadroa Eskarien zorroa Euskal Herrian ..... 117
77. koadroa Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera ..... 117
78. koadroa Ibilgailuen ekoizpena Herrialde nagusiak ..... 121
79. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak ..... 123
80. koadroa Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza ..... 125
81. koadroa Ibilgailuen ekoizpena, energia-iturriaren arabera, 2023* ..... 125
82. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa, energia-iturriaren arabera, 2023* ..... 126
83. koadroa Turismoen matrikulazioa marken arabera ..... 127
84. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak ..... 128
85. koadroa Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportazioak (ibilgailuak gehi osagarriak) ..... 129
86. koadroa Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak ..... 130
87. koadroa Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera ..... 131
88. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen ekoizpena ..... 134
89. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen esportazioa ..... 135
90. koadroa Makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera ..... 136
91. koadroa Sektorearen magnitude nagusien bilakaera ..... 138
92. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak) ..... 139
93. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka ..... 140
94. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera ..... 141
95. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira ..... 142
96. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera ..... 143
97. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera ..... 143
98. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian ..... 144
99. koadroa Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak ..... 145

100. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa ........ 146
101. koadroa Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarrizko datuak [0] Espainian........ 147
102. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera........ 147
103. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera........ 148
104. koadroa Pneumatikoen eta birkautxututatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza........ 149
105. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian........ 149
106. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn........ 153
107. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn........ 153
108. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn........ 154
109. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn........ 154
110. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera........ 156
111. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE)........ 157
112. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa (2022-2023)........ 157
113. koadroa. Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2023)........ 158
114. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2023)........ 159
115. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak*........ 161
116. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*........ 164
117. koadroa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria........ 164
118. koadroa Eraikuntzako lehengaien prezioen bilakaera........ 166
119. koadroa Eraikuntzako lehengaien-materialen prezioen urte arteko hazkundea (2023/2022), taldearen arabera........ 167
120. koadroa Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera (EAE)........ 168
121. koadroa Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua........ 179
122. koadroa Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan........ 181
123. koadroa Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan........ 181
124. koadroa Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan........ 183
125. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2022........ 184
126. koadroa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan........ 187
127. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2022........ 189
128. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea........ 192
129. koadroa Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko ratioen piramidea........ 193
130. koadroa Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea........ 194
131. koadroa Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea........ 195
132. koadroa Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea........ 196
133. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea........ 197
134. koadroa Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa)........ 198
135. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik)........ 199
136. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea........ 200
137. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea........ 201
138. koadroa Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea........ 202
139. koadroa Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea........ 203



LABORAL kutxa

140. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea ..... 204
141. koadroa Industria osoaren ratioen piramidea ..... 205
142. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 206
143. koadroa Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 207
144. koadroa Paperaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 208
145. koadroa Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 209
146. koadroa Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 210
147. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 211
148. koadroa Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera ..... 212
149. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera ..... 213
150. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 214
151. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 215
152. koadroa Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 216
153. koadroa Altzarien fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera. Beste manufaktura-industria batzuk ..... 217
154. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera ..... 218
155. koadroa Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera ..... 219
156. koadroa Enpresak, sektore ekonomikoaren arabera. 2023 ..... 222
157. koadroa Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2023 ..... 223
158. koadroa Enpresak, soldatapekoen tarteen arabera. 2023 ..... 224
159. koadroa Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2023 ..... 225
160. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak ..... 229
161 koadroa EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak ..... 231
162. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria ..... 235
163. koadroa Enplegua lehen sektorean* ..... 236
164. koadroa Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak* ..... 241
165. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera* ..... 243
166. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak* ..... 245
167. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*) ..... 246
168. koadroa Abeltzaintza-errolda (urte bakoitzeko azaroaren 30ean) ..... 251
169. koadroa Esne-ekoizpena ..... 252
170. koadroa EAEn ekoitzitako esnearen erabilera ..... 253
171. koadroa Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak ..... 254
172. koadroa ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak ..... 256
173. koadroa Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak ..... 258
174. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak ..... 259
175. koadroa Euskal Herrian hildako aziendaren kanaleko pisua ..... 261
176. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak ..... 264
177. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak ..... 265
178. koadroa Euskal Herriko ontzidiaren egitura ..... 268
179. koadroa EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera (2023) ..... 269
180. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2023 ..... 271
181. koadroa Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira ..... 273

182. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2023 ... 274
183. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2023 ... 276
184. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera ... 277
185. koadroa Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2023 ... 279
186. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza ... 282
187. koadroa Euskaldunt ze maila Haur Hezkuntza ... 283
188. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza ... 284
189. koadroa Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza ... 285
190. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH ... 286
191. koadroa Euskalduntze maila DBH ... 287
192. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa ... 289
193. koadroa Euskalduntze maila Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa ... 290
194. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa ... 291
195. koadroa Euskalduntze maila Batxilergoa ... 291
196. koadroa Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan ... 293
197. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHUn ... 294
198. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean ... 296
199. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA) ... 297
200. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean ... 298
201. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean ... 300
202. koadroa EuskoTrenen adierazle nagusien bilakaera ... 302
207. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan ... 303
208. koadroa Ibilgailuen parkea* ... 305
209. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia* ... 305
210. koadroa Motorizazio-indizeak ... 306
211. koadroa Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera ... 307
212. koadroa Hiri-garraioa. Sektorearen oinarrizko datuak ... 307
213. koadroa Hiri-garraioaren bilakaera ... 308
214. koadroa Itsaso bidezko munduko merkataritza ... 309
215. koadroa Espainiako itsas merkataritza ... 309
216. koadroa Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa ... 310
217. koadroa Merkantzien guztizko trafikoaren osaera ... 311
218. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea ... 311
219. koadroa Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2023 ... 312
220. koadroa Pasaiako Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2023 ... 313
221. koadroa Bilboko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa, 2023 ... 313
222. koadroa Pasaiako Portua. Herrialdeen araberako trafikoa, 2023 ... 314
223. koadroa Euskal Herriko aire bidezko garraioa* ... 316
224. koadroa Aireportuko aireontzien trafikoa* ... 317
225. koadroa Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera* ... 317
226. koadroa Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera* ... 318
227. koadroa Aireportuko trafikoaren hazkundea (2023/2022)* ... 318
228. koadroa Nazioarteko turistak ... 321
229. koadroa Espainiara datozen bidaiariak, jatorriaren arabera ... 323
230. koadroa Eskari turistikoaren bilakaera Espainian ... 324
231. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa) ... 326
232. koadroa Eskaintza turistikoaren bilakaera Espainian ... 327
233. koadroa Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa) ... 328
234. koadroa Hotelen sareko eskaera turistikoaren bilakaera, EAEn eta Estatuan (2023) ... 329



LABORAL kutxa

| | | |
|---|---|---|
| 235. koadroa | Bidaiarien sarrera, gaualdiak eta batezbesteko egonaldia, jatorriaren arabera (EAE 2023) *(hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak)* | 330 |
| 236. koadroa | EAEko turismo-eskariaren bilakaera, hoteletan, lurraldearen arabera (2023) | 331 |
| 237. koadroa | EAEko eta lurralde historikoetako establezimenduen eta plazen bilakaera | 334 |
| 238. koadroa | EAEko eta lurralde historikoetako eskaintza turistikoaren bilakaera (2019 eta 2023) | 336 |
| 239. koadroa | Hoteletako batez besteko egonaldia eta okupazio maila, zonalde geografikoaren arabera. 2019 eta 2023 | 337 |
| 240. koadroa | Eguneko batez besteko tarifa (ADR) EAEko hotel-establezimenduetan, lurralde historikoaren eta kategoriaren arabera, eurotan | 338 |
| 241. koadroa | Burtsa-indize nagusien bilakaera | 341 |
| 242. koadroa | Kreditu-erakundeak eta EFC | 341 |
| 243. koadroa | Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua | 342 |
| 244. koadroa | Afiliazioa(1) finantza-jardueretan | 343 |
| 245. koadroa | Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera | 344 |
| 246. koadroa | Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera | 345 |
| 247. koadroa | Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk | 346 |
| 248. koadroa | Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk | 347 |
| 249. koadroa | Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera | 349 |
| 250. koadroa | Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa | 351 |
| 251. koadroa | Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzen gaineko hipotekak | 352 |
| 252. koadroa | Hipoteka-betearazpena hasita duten etxebizitza partikularrak | 353 |
| 253. koadroa | Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera  Turismoak | 353 |
| 254. koadroa | Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera.  Beste sektore egoiliar batzuk | 354 |
| 255. koadroa | Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk | 355 |
| 256. koadroa | Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk | 356 |
| 257. koadroa | Kreditu-erakundeak. Gordailua, eragileen arabera | 357 |
| 258. koadroa | Kreditu-erakundeak. Gordailua, moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk | 357 |
| 259. koadroa | Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailuak. | 358 |
| 260. koadroa | Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia | 360 |
| 261. koadroa | Kreditu-erakundeak. Familietarako(2) eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)(1) | 361 |
| 262. koadroa | Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua | 362 |
| 263. koadroa | Inbertsio-funtsen eta -sozietateen ondare-banaketa | 364 |
| 264. koadroa | Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa[1,2], zorroaren osaeraren arabera | 366 |
| 265. koadroa | Burtsa-indize nagusien bilakaera | 367 |
| 266. koadroa | Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak | 368 |
| 267. koadroa | Burtsa-merkatua Negoziatutako bolumenen balio efektiboa(akzioak) | 369 |
| 268. koadroa | Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra (1) | 371 |
| 269. koadroa | Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua* | 371 |
| 270. koadroa | Bilboko Burtsaren Indize Orokorra. Azken balioa, maximoa eta minimoa | 372 |

## Grafiko aurkibidea


1. grafikoa Gizarte Segurantzako afiliazioa eta erregistratutako kontratuak. Hileko bilakaera ..... 34
2. grafikoa Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE ..... 37
3. grafikoa Euskadiko ekonomiaren termometroa ..... 37
4. grafikoa Familien konfiantza-indizea. EAE ..... 38
5. grafikoa BPGaren hiruhilekoko bilakaera. EAE ..... 38
6. grafikoa Interes-tasen aldakuntza ..... 45
7. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala ..... 57
8. grafikoa BPGaren bilakaera ..... 60
9. grafikoa Industria-errentagarritasuna ..... 84
10. grafikoa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep) ..... 90
11. grafikoa Altzairuaren mundu mailako ekoizpena ..... 97
12. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak ..... 99
13. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena ..... 101
14. grafikoa Salmenten banaketa geografikoa 2023an ..... 107
15. grafikoa Ontzigintzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT) ..... 116
16. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera ..... 132
17. grafikoa Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza ..... 136
18. grafikoa Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako herrialde nagusien pisua (2022 eta 2023) ..... 137
19. grafikoa Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian ..... 142
20. grafikoa Lizitazio ofiziala ..... 160
21. grafikoa Amaitutako etxebizitza kopurua ..... 163
22. grafikoa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria ..... 165
23. grafikoa Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2022 ..... 185
24. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2022 ..... 186
25. grafikoa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2022 ..... 190
26. grafikoa Euskal Herriko eta Estatuko industria sektoreen inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa, 2022 ..... 191
27. grafikoa Enpresa kopurua ..... 221
28. grafikoa Estatuko guztizkoaren gaineko pisua (%) (Estatua=100) 2023 ..... 222
29. grafikoa Balio erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura ..... 232
30. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean* ..... 237
31. grafikoa Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen araberako bilakaera ..... 262
32. grafikoa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2023 ..... 272
33. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak ..... 278
34. grafikoa Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian ..... 288
35. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan ..... 315
36. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2021-2023) Hotel-establezimenduak ..... 325
37. grafikoa Bidaiarien eta gaualdien ekarpena hiru lurralde historikoetan, (%), hotelen sarea ..... 332
38. grafikoa Bidaiariak eta gaualdiak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%), hotelen sarea (2023) ..... 333
39. grafikoa Bidaiari kopuruaren eta gaualdien hileko bilakaera, hoteletan ..... 333
40. grafikoa Lurralde bakoitzak EAEn eskainitako plazen guztizkoari egindako ekarpena ostatu motaren arabera, 2019an eta 2023an ..... 336
41. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra* ..... 340

42. grafikoa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk ... 347
43. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera ... 350
44. grafikoa Euriborraren bilakaera(*) (hamabi hilabetera) ... 352
45. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak ... 359
46. grafikoa Euriborraren bilakaera(1) (hamabi hilabetera) ... 360
47. grafikoa Higigarrietako Inbertsio Funtsen lau taldeak bereizten dituzten hiru aldagaien urte arteko bilakaera ... 366
48. grafikoa Burtsa-indize nagusien bilakaera ... 367
49. grafikoa VIBEXen aldakortasun-indizea ... 370
50. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra Bilboko burtsa ... 372
51. grafikoa Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak* ... 373



# 1. LABURPEN EXEKUTIBOA



# URTEKO LABURPENA

2023. urtearen ezaugarri nagusia inflazioaren aurkako borroka izan da. Izan ere, pandemiaren ostean eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra hasi ondoren sortutako inflazioari egin behar izan dio aurre euroguneko ekonomiak. Europako Banku Zentralak 10 aldiz igo behar izan ditu interes-tasak 2022az geroztik —6 aldiz 2023an—, eta % 4raino eraman du gordailu-erraztasunaren tasa. Horren ondorioz, prezioen hazkunde-tasak zuzenketa handia izan du urtean zehar, eta 2023ko urtarrilean azpiko inflazioak zuen % 7,1eko urteko tasatik % 3,9ra jaitsi da 2023ko abenduan. Diru-politika murriztaileak euroguneko ekonomia-jardueran ere izan du eragina, barne-produktu gordinaren hiruhilekoko batez besteko hazkunde-tasak ia nuluak izateraino. Horrenbestez, ia atzeraldi teknikoan amaitu da urtea. Azpimarratzekoa da industria-sektorearen portaera apala, bai maila globalean, bai, zehazki, eurogunean. Adibidez, manufaktura-sektoreko erosketa-kudeatzaileen indizea edo manufaktura-sektoreko PMIa uzkurtze-eremuan (50etik behera) dago 2022ko uztailaz geroztik. Bi dira industria-sektorearen apaltasunaren arrazoiak: batetik, gerra hasi ondoren sortutako energia-krisia eta, bestetik, hornidura-katearen arazoak. Gauzak horrela, sektoreak erronka garrantzitsuei egin beharko die aurre epe laburrera eta ertainera.

Gure erreferentziako eremu geografikoetan, ordea, ekonomiaren dinamismoa eurogunekoa baino askoz handiagoa izan da, eta hala erakusten dute jarraian labur-labur azalduko ditugun adierazle nagusiek:

- 2023an, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-produktu gordinak % 1,8 egin du gora. Nafarroako Foru Erkidegoan ere antzeko portaera izan du, % 1,9 hazi baita. Estatuan, berriz, nabarmen handiagoa izan da barne-produktu gordinaren hazkundea: % 2,5ekoa, hain zuzen.

- Lan-merkatuko magnitude nagusiek 2023an izandako bilakaera bat dator aipatutako barne-produktu gordinaren datuekin: enpleguaren hazkunde-tasa % 2,9koa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan, % 1,1ekoa Nafarroan eta % 3,1ekoa Estatuan.

- Era berean, eraginik handiena duen magnitudea, langabezia-tasa, % 7,7koa izan da EAEn —2022koa baino portzentajezko 1,2 puntu txikiagoa—. Nafarroako Foru Erkidegoan, berriz, % 9,9koa izan da langabezia-tasa, 2 hamarren igo ondoren, eta Espainian, % 12,2koa, 2022koa baino 8 hamarren txikiagoa.

- Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztietako balio erantsi gordinaren hazkundea positiboa izan da aztertutako hiru eremu geografikoetan; Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko lehen sektorea da salbuespen bakarra.

- Prezioetan, urteko batez besteko hazkunde-tasa % 3,1ekoa izan da abenduan EAEn, % 2,9koa Nafarroako Foru Erkidegoan eta % 3,1ekoa Estatuan. Dena den, bada aipatu beharreko datu bat: urtetik urterako zifraren atzean inflazioak urtean zehar izan duen beheranzko joera ezkutatzen da. Hala, Estatuan, % 6 inguruko urteko tasekin hasi da urtea, eta % 3,1eko urtetik urterako tasarekin amaitu.

| BPG-aren bilakaera (%) | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 5,8 | 1,9 | 2,5 |
| Japonia | 2,6 | 1,0 | 1,9 |
| Alemania | 3,1 | 1,9 | -0,1 |
| Frantzia | 6,4 | 2,5 | 0,9 |
| Italia | 8,3 | 4,1 | 1,0 |
| Erresuma Batua | 8,7 | 4,3 | 0,1 |
| Kanada | 5,3 | 3,8 | 1,1 |
| **Eurogunea** | **5,8** | **3,5** | **0,5** |
| **ELGA GUZTIRA** | **6,0** | **3,0** | **1,7** |

*Iturria: ELGA. Aurreikuspen ekonomikoak, 2024ko maitza.*




*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.*

| BPG-aren bilakaera sektoreka (%) | | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|
| EAE | • Nekazaritza | 15,1 | -8,7 | -3,0 |
| | • Industria | 5,3 | 4,7 | 0,3 |
| | • Eraikuntza | 1,0 | 6,7 | 2,1 |
| | • Zerbitzuak | 6,6 | 5,9 | 2,4 |
| | **Guztira** | **6,0** | **5,4** | **1,8** |
| Nafarroa | • Nekazaritza | 2,1 | 2,3 | 3,4 |
| | • Industria | 6,5 | 3,5 | 0,4 |
| | • Eraikuntza | 4,3 | 4,3 | 0,9 |
| | • Zerbitzuak | 6,1 | 5,2 | 2,6 |
| | **Guztira** | **5,9** | **4,3** | **1,9** |
| Estatua | • Nekazaritza | 4,2 | -19,8 | -1,9 |
| | • Industria | 5,4 | 2,6 | 1,8 |
| | • Eraikuntza | -1,0 | 3,2 | 2,3 |
| | • Zerbitzuak | 6,8 | 8,0 | 3,2 |
| | **Guztira** | **6,4** | **5,8** | **2,5** |

*Iturria: EIN, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

**Enpleguaren bilakaera sektoreka (milaka pertsona)**

| | | Lehen Sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2022 | 10,4 | 199,2 | 53,6 | 704,1 |
| | 2023 | ▲ 10,8 | ▲ 200,0 | ▲ 56,7 | ▲ 728,3 |
| Nafarroa | 2022 | 8,2 | 76,1 | 20,7 | 190,5 |
| | 2023 | ▲ 10,3 | ▼ 74,9 | ▼ 17,2 | ▲ 196,4 |
| Estatua | 2022 | 798,5 | 2.779,1 | 1.355,0 | 15.614,9 |
| | 2023 | ▼ 767,3 | ▲ 2.814,5 | ▲ 1.398,0 | ▲ 16.202,4 |

*Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2021ko biztanleria-oinarria).*

## NAZIOARTEKO HAZKUNDEA

2023an ere munduko ekonomiari moteldu egin zaio hedapen-erritmoa, nazioarteko tentsio geopolitiko handien ondorioz. Hala, % 3,2koa izan da hazkunde-tasa (% 6,5koa izan zen 2021ean eta % 3,5koa 2022an).

Kontuan hartu behar da, gainera, ziurgabetasunak oso handia izaten jarraitzen duela gaur egun, besteak beste arrazoi hauek tarteko: gatazka belikoak, tentsio geopolitikoak, inflazioaren bilakaera eta interes-tasak.

## HAZKUNDEA
### Estatua

Dinamismo ekonomiko txikiagoko nazioarteko testuinguru honetan, Estatuko barne produktu gordinaren hazkundea % 2,5era mugatu da 2023an — oso tasa apala aurreko bi ekitaldietako % 6 ingurukoekin alderatuta—. Hiruhileko batetik bestera, profilak dezelerazio argia erakusten du, nahiz eta ekitaldiaren azken hiruhilekoan igoera txiki bat izan.

Hala eta guztiz ere, Estatuko lan-merkatuak bilakaera positiboa izan du 2023an, eta biztanleria okupatuak % 3,1 egin du gora.

## BILAKAERA SEKTORIALA
### EAE, Nafarroa eta Estatua

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari ere aurreko ekitaldian baino indar txikiagoa antzeman zaio, eta % 1,8ko hazkunde-tasa izan du 2023an (% 5,4koa 2022an). Lehen sektorea izan da jarduera-maila murriztu zaion bakarra.

Estatu osoarekin alderatuta, sektore guztiek izan dute bilakaera okerragoa Euskal Autonomia Erkidegoan (lehen sektoreak atzeraldi handiagoa izan du, eta gainerako sektoreek dinamismo txikiagoa).

## LAN-MERKATUA
### EAE, Nafarroa eta Estatua

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa 2022ko % 8,9tik 2023ko % 7,7ra jaitsi da, eta biztanleria okupatuak gora egin du, 995,7 mila pertsonaraino.

Estatuan, berriz, langabezia-tasa 2022ko % 13tik 2023ko % 12,2ra jaitsi da.



LABORAL kutxa

Euskal ekonomiak urtetik urterako % 1,8ko hazkundea lortu du barne-produktu gordinean 2023an. Hiruhilekoko profilari begira, hazkundea lauagoa izan da ekitaldiaren bigarren erdialdean (urtetik urterako hazkunde-tasak % 2,4, % 1,5, % 1,7 eta % 1,7 izan dira, hurrenez hurren, lau hiruhilekoetan).




***Oharra: Bolumen-indize kateatua; urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak.***
***Iturria: Hiruhilerako Kontu Ekonomikoak. Eustat.***

Dinamismo sektorialaren indizeek berretsi egiten dituzte emaitza horiek, baina profilak desberdinak dira sektore batetik bestera: industria-jarduerak dezeleraziorako joera izan du urtearen lehen zatian, baina onera egin du ekitaldiaren amaieran; eraikuntzak aldakuntza-tasarik eta hegakortasunik handienak izan ditu, eta zerbitzuetako bi osagaiek portaera lauagoak izan dituzte —suspertzeko joera izan dute merkatuko bestelako zerbitzuek, eta, txikizkako merkataritzan, jardueraren dezelerazioa izan da nagusi—.




***Oharra: Industria Ekoizpenaren Indizea, Eraikuntzaren Koiunturako Indizea, Merkatuko Beste Zerbitzuen Indizea eta Txikizkako Merkataritzaren Indizea zerbitzugunerik gabe (biak, prezio konstanteetan).***
***Iturria: Eustat.***

Afiliazioaren hileko bilakaeran, iraunkortasuna da nagusi Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Estatuko enplegu-hazkundean. Bilakaera hori urrun dago 2022ko gorakadatik, ekitaldi horretan apartekoak izan baitziren enpleguaren urtetik urterako hazkunde-tasak —2021eko datuekin alderatuta kalkulatu ziren, hau da, jarduera suspertzen ari zeneko urtearekin—, pandemiaren osteko susperraldiaren ondorioz.




***Iturria: Gizarte Segurantza.***

Aitzitik, kontratazioaren hileko bilakaerak agerian uzten du arau-aldaketak eragindako doikuntza. Urtetik urterako aldakuntza-tasak oraindik negatiboak badira ere, poliki-poliki arintzen ari da kontratazioan izandako atzerakada. Gertaera hori bat dator modalitate mugagabearen garrantziarekin, urteko kontratazioaren % 25ekoa baita gutxienez; hortaz, enpleguaren oinarria finkatu egin da, eta kontratu potentzialak murriztu egin dira (etorkizunera begira).




***Iturria: SEPE.***

Gauzak horrela, konfiantzari dagokionez, euskal familiek zuhurtziari eutsi diote, eta nolabaiteko ezkortasuna ageri da. Hala erakusten dute kontsumitzailearen konfiantza-indizearen emaitzek, balio negatiboetan jarraitzen baitute. Urrun daude, hala ere, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako emaitzetatik (–22koa eta –23koa, hurrenez hurren), inflazioaren gorakadaren ondorioz hondoa jo baitzuen konfiantza-indizeak.

Hala, urteko batez besteko emaitzak hobera egin du (–11koa izan zen 2022an eta –9koa 2023an). Hauek dira indizerik ezkorrenak: ekonomia orokorraren egoerari buruzko 12 hilerako aurreikuspenak (–21) eta etxeko ekonomiaren egoerari buruzkoak (–12). Ez dira hain txarrak edo ia positiboak dira, berriz, langabeziaren bilakaerari buruzkoak (–4) eta familiek aurrezteko duten gaitasunari buruzkoak (–2).




***Oharra: Lortutako emaitzak honela interpretatu dira: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.***
***Iturria: Laboral Kutxa.***

LABORAL kutxa

# 2024RAKO AURREIKUSPENAK

**BPG 2024**




**Enplegua 2024**




**Prezioak (KPI) 2024**




**Langabezia-tasa 2024**




*Iturria: Laboral Kutxa.*

Esan bezala, euroguneko ekonomia ia geldialdian zegoen 2023aren amaieran. Hala ere, 2024 honetarako aurreikuspenak nahiko baikorrak ziren, eta, urtearen hasieran hazkunde-tasa txikiak espero baziren ere, urtearen bigarren erdialderako tasa handiagoak aurreikusten ziren. Ekonomiaren barne-indarra zen aurreikuspen baikorren oinarria; zehazki, zerbitzu-sektore sendoa, langabezia-tasa minimoetan zuen lan-merkatua eta inflazioaren gainetik igotzen hasiak ziren soldatak, familien kontsumoaren portaera ona iragartzen zutenak. Errealitateak ustekabe positiboa ekarri du, ordea: 2024ko lehen hiruhilekoan aurrekoaren aldean izandako % 0,3ko hazkundea esperotakoa baino hobea izan da; areago, industria-sektorean ere antzeman da hobekuntza, eta horrek sendotu egin ditu hazkunde-aurreikuspenak.

Gure erreferentziako eremuei dagokienez, are nabarmenagoa izan da hobekuntza, % 0,5 eta % 1 bitarteko hazkunde-tasak izan baitira lehen hiruhilekoan bi eremu geografikoetan. Ekonomiaren susperraldi zikliko horrek aukera emango digu joan den abenduan egindako estimazioak gorantz zuzentzeko. Bestalde, Europako Banku Zentralak inflazioa kudeatzeko etapa berriari ekin zion joan den ekainean, interes-tasak % 0,25 jaitsita. Lehen jaitsiera hori seinale bat besterik ez bada ere, urtearen bigarren erdialderako espero diren beste bi jaitsierek eta aurreikusten diren laurek nolabaiteko bultzada emango diote hazkundeari, eta datorren urtean antzemango da batez ere.

Eta horixe da, funtsean, 2024rako aurreikusten dugun egoera. Zehazki, txosten hau amaitzean dugun informazioa kontuan hartuta, % 2,4ko hazkunde-tasa espero dugu Estatu osorako eta % 2,1ekoa Nafarroako Foru Erkidegorako. Datu horiek nabarmen egin dute gora pasa den abenduan eman genituenekin alderatuta.

Nolanahi ere, esan beharra dago inflazioaren aurkako borroka ezin dugula inola ere amaitutzat eman oraindik, nahiz eta beheranzko bide luzea egin dugun dagoeneko. Euroguneko urtetik urterako indize harmonizatua % 2,6koa izan da maiatzean, eta azpiko inflazioa, % 2,9koa. Datu horiek ikusita, luze joko du, itxuraz, Europako Baku Zentralak lortu nahi duen % 2ko helburua erdiesteak. Hori dela eta, Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak arretaz jarraituko dio soldaten bilakaerari, euroguneko ekonomiaren barne-indarra ikusita, eta unean uneko datuetan oinarrituko ditu erabakiak.

# IRIZPIDE METODOLOGIKOAK

Infografia honek Laboral Kutxak egindako eta Euskal Ekonomia txostenean jasotako jarduera-sektoreen bilakaera labur-labur aztertzen du, 2017-2023 aldian.

Aurkeztutako datuak EAEko eremu geografikoari dagozkio, eta aipatutako txostenetik atera dira, sektore bakoitzaren aldagai adierazgarriak hautatu direlarik. Hala ere, kasu honetan, azterketa azken ekitaldian lortutako jarduera sektorialaren maila aurreko sei urterekin alderatzean zentratzen da, honako hauek kontuan hartuta: aldiaren batez bestekoa, lortutako gutxieneko eta gehieneko mailak eta aldakuntza-tasak, bai oinarri-urteari dagokionez, bai aurreko ekitaldiari dagokionez.

Zehazki, honako kasu hauek gerta daitezke:

- Sektorea aldiko gehieneko jarduera-mailan dago. Balorazioa oso ona da.
- Sektorea ez dago aldiko gehieneko jarduera-mailan, baina aldi horretako batez bestekoa gainditzen du. Balorazioa aldekoa da.
- Sektorea ez dago aldiko gehieneko jarduera-mailan, eta ez du aldi horretako batez bestekoa gainditzen, baina bi aldakuntza-tasa horiek positiboak dira. Balorazioa nahiko ona da.
- Sektoreak aldi horretako gutxieneko jarduera-maila eta batez bestekoa gainditzen ditu, baina bi aldakuntza-tasa horiek negatiboak dira. Balorazioa nahiko txarra da.
- Sektorea ez dago aldiko gutxieneko jarduera-mailan, baina ez du aldiaren batez bestekoa gainditzen. Balorazioa txarra da.
- Sektorea aldiko gutxieneko jarduera-mailan dago. Balorazioa oso txarra da.

Jarraian, sintesi-taula honek kolore bat esleitzen die aurretik adierazitako irizpideak betetzen diren ala ez kontuan hartuta egindako balorazioei:

| **Kolore kodea** | **Aldiaren bilakaera** | **Irizpidea** |
|---|---|---|
| | Oso ona | Azken datua=Maila maximoa |
| | Ona | Azken datua < Maila maximoa; Azken datua >bataz bestekoa |
| | Nahiko ona | Azken datua < Maila maximoa; Azken datua < bataz bestekoa; Urteko aldakuntza tasa>0; Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa>0 |
| | Nahiko txarra | Azken datua > Maila minimoa; Azken datua > bataz bestekoa; Urteko aldakuntza tasa <0; Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa <0 |
| | Txarra | Azken datua > Maila minimoa; Azken datua < bataz bestekoa |
| | Oso txarra | Azken datua =Maila minimoa |

Azkenik, kontuan hartu behar da sektore bakoitzerako aurkeztutako balioak zenbaki indizeei dagozkiela, eta sektore bakoitzean 100 maila aztertutako aldiaren lehen ekitaldiko datuari dagokiola.

# INDUSTRIA



## ENERGIA

### Energia elektrikoaren ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 81,0 | Oso ona |
| Gehieneko maila | 191,7 | |
| Bataz besteko maila | 120,5 | |
| Azken datua | 81,0 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-57,7** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-19,0** | |

### Energia elektrikoaren kontsumoa




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 91,8 | Txarra |
| Gehieneko maila | 105,8 | |
| Bataz besteko maila | 96,7 | |
| Azken datua | 95,1 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-1,7** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-4,9** | |

## SIDERURGIA

### Siderometalurgia taldeko BEG (FK)




| 2017-2022* aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 86,8 | Oso ona |
| Gehieneko maila | 120,1 | |
| Bataz besteko maila | 103,5 | |
| Azken datua | 120,1 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **10,6** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **20,1** | |

*** Kasu honetan, eskuragarri dagoen azken informazioa 2022ko ekitaldiari dagokio.**



LABORAL kutxa

# INDUSTRIA



## ONTZIGINTZA

### Ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 82,9 | | Txarra |
| Gehieneko maila | 134,3 | | |
| Bataz besteko maila | 103,3 | | |
| Azken datua | 85,7 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-36,2** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-14,3** | | |

## AUTOMOBILGINTZA

### Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen fakturazioa




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 90,3 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 136,1 | | |
| Bataz besteko maila | 109,1 | | |
| Azken datua | 136,1 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **11,6** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **36,1** | | |



LABORAL kutxa

# INDUSTRIA



## MAKINA-ERREMINTA ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIKOAK

### Makina - Erremintako ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 77,2 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 126,0 | | |
| Bataz besteko maila | 98,9 | | |
| Azken datua | 126,0 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **25,4** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **26,0** | | |

### Eskuzko erremintaren eta industria-horniduraren akoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 127,2 | | |
| Bataz besteko maila | 112,1 | | |
| Azken datua | 127,2 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **2,8** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **27,2** | | |



LABORAL kutxa

# INDUSTRIA



## PAPERA

### Papera eta Kartoiaren ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 86,1 | | Oso txarra |
| Gehieneko maila | 101,6 | | |
| Bataz besteko maila | 96,9 | | |
| Azken datua | 86,1 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-11,1** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-13,9** | | |

## KAUTXUA

### IPI Kautxua eta Plastikoa




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 88,2 | | Txarra |
| Gehieneko maila | 102,0 | | |
| Bataz besteko maila | 97,4 | | |
| Azken datua | 95,7 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-1,9** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-4,3** | | |

## ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA

### Ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 132,3 | | |
| Bataz besteko maila | 113,1 | | |
| Azken datua | 132,3 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **6,6** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **32,3** | | |



LABORAL kutxa

# ERAIKUNTZA



## EKI Guztira




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 138,3 | | |
| Bataz besteko maila | 119,5 | | |
| Azken datua | 138,3 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **5,6** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **38,3** | | |

## EKI Eraikinak




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 137,3 | | |
| Bataz besteko maila | 120,1 | | |
| Azken datua | 137,3 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **5,1** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **37,3** | | |

## EKI Obra Zibila




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 144,1 | | |
| Bataz besteko maila | 116,0 | | |
| Azken datua | 144,1 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **8,8** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **44,1** | | |



LABORAL kutxa

# LEHEN SEKTOREA



## Lehen sektoreko amaierako ekoizpena guztira




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 92,7 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 131,5 | | |
| Bataz besteko maila | 108,4 | | |
| Azken datua | 131,5 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **4,6** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **31,5** | | |

## Nekazaritzako amaierako ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 84,3 | | Txarra |
| Gehieneko maila | 101,5 | | |
| Bataz besteko maila | 95,4 | | |
| Azken datua | 95,0 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-1,9** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-5,0** | | |

## Abeltzaintzako amaierako ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 95,9 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 139,7 | | |
| Bataz besteko maila | 106,5 | | |
| Azken datua | 139,7 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **19,6** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **39,7** | | |

# LEHEN SEKTOREA



## Basogintza-sektorearen amaierako ekoizpena




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | Ona |
| Gehieneko maila | 323,1 | |
| Bataz besteko maila | 182,5 | |
| Azken datua | 312,5 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-3,3** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **212,5** | |

## Ekoizpen gordina fabrikako irteeran (baxurako + alturako arrantza)




| 2017-2022* aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 90,2 | Ona |
| Gehieneko maila | 127,3 | |
| Bataz besteko maila | 106,2 | |
| Azken datua | 120,6 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **30,4** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **20,6** | |

*** Kasu honetan, eskuragarri dagoen azken informazioa 2022ko ekitaldiari dagokio.**

# ZERBITZUAK



## HEZKUNTZA

### Unibertsitateko ikasleak




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | Oso ona |
| Gehieneko maila | 109,7 | |
| Bataz besteko maila | 103,2 | |
| Azken datua | 109,7 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **4,3** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **9,7** | |

### Unibertsitatekoak ez diren ikasleak




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 96,6 | Oso txarra |
| Gehieneko maila | 100,1 | |
| Bataz besteko maila | 98,7 | |
| Azken datua | 96,6 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-0,6** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-3,4** | |



LABORAL kutxa



# ZERBITZUAK

## GARRAIOA

### Errepideko garraioa - Garraiatutako merkantziak




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 96,7 | Ona |
| Gehieneko maila | 108,5 | |
| Bataz besteko maila | 103,6 | |
| Azken datua | 107,2 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-1,2** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **7,2** | |

### Itsas garraioa - Garraiatutako merkantziak Bilboko portua




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 86,4 | Txarra |
| Gehieneko maila | 104,0 | |
| Bataz besteko maila | 96,7 | |
| Azken datua | 96,0 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **0,1** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-4,0** | |

### Itsas garraioa - Garraiatutako merkantziak Pasaiako portua




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala |
|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | Ona |
| Gehieneko maila | 118,9 | |
| Bataz besteko maila | 109,2 | |
| Azken datua | 117,4 | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **5,5** | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **17,4** | |



# ZERBITZUAK

## Aireko garraioa - Garraiatutako merkantziak




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Ona |
| Gehieneko maila | 119,0 | | |
| Bataz besteko maila | 108,8 | | |
| Azken datua | 116,0 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-2,5** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **16,0** | | |

## Aireko garraioa - Bidaiariak




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 34,1 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 133,5 | | |
| Bataz besteko maila | 94,2 | | |
| Azken datua | 133,5 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **24,0** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **33,5** | | |

# ZERBITZUAK



## TURISMOA

### Bidaiari kopurua




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 42,6 | | |
| Gehieneko maila | 134,2 | | |
| Bataz besteko maila | 98,0 | | |
| Azken datua | 134,2 | | Oso ona |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **10,4** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **34,2** | | |

### Gaualdiak




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 44,8 | | |
| Gehieneko maila | 138,1 | | |
| Bataz besteko maila | 100,6 | | |
| Azken datua | 138,1 | | Oso ona |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **11,5** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **38,1** | | |



LABORAL kutxa

# FINANTZA SEKTOREA



## Kredituak guztira




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 93,8 | | Oso txarra |
| Gehieneko maila | 100,0 | | |
| Bataz besteko maila | 97,7 | | |
| Azken datua | 93,8 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-4,9** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **-6,2** | | |

## Gordailuak guztira




| 2017-2023 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Ona |
| Gehieneko maila | 122,6 | | |
| Bataz besteko maila | 113,0 | | |
| Azken datua | 120,9 | | |
| **Urte arteko aldakuntza tasa (%)** | **-1,4** | | |
| **Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%)** | **20,9** | | |



LABORAL kutxa



# 2. ESPARRU OROKORRA

# 1. LABURPEN-BALANTZEA

Ziurgabetasunez betetako laurtekoa osatu zuen 2023. urteak (2020-2023). Orokorrean, transnazionalak eta salbuespenekoak izan ziren ziurgabetasun horiek. Testuinguruaren aldakortasunak eragina izan zuen esperotako hazkunde ekonomikoaren gaineko aurreikuspenetan eta, orokorrean, aurreikusi baino baxuagoa izan zen hazkundea. Faktore erabakigarria 2021eko bigarren zatian hasitako espiral inflazionista izan zen, baina 2023an zehar, espero baino handiagoa eta azkarragoa izan zen inflazioaren zuzenketa.

Agertoki horretan, EAEko eta Nafarroako BPGak urte arteko % 1,8 eta % 1,9ko hazkundea izan zuen, hurrenez hurren. Estatuko hazkundea dezente handiagoa izan zen (+% 2,5), baina, hiru kasuetan, bilakaera oso positiboa izan zela esan daiteke. Hiru hazkundeen arteko aldea, neurri handi batean, ekoizpen-egitura ezberdinak azaltzen du. Izan ere, EAEko eta Nafarroako ekonomian industriak du pisu handiena -bilakaera lauagoa izan zuen sektore horrek-; aldiz, Estatuan espezializazio handiagoa dute zerbitzuetan -sektore horrek hazkunde handia izan zuen-.

**1. koadroa BPGaren eta enpleguaren bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Lurraldea | BPG | | Enplegua (LOB) | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| EAE | 5,4 | 1,8 | 2,8 | 1,7 |
| Nafarroa | 4,3 | 1,9 | 3,4 | 1,4 |
| Estatua | 5,8 | 2,5 | 3,7 | 3,2 |

*Oharra: BPGa, kateatutako bolumenaren indizean oinarrituta; eta, enplegua, lanaldi osoko baliokidetasunean.*
*Iturria: EIN, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua. Geuk egina.*

Bestetik, enpleguarekin lotutako adierazleek agerian uzten dute une ekonomiko ona, historiako balio handienak erregistratu baitzituzten aztertutako hiru eremuetan. Gainera, 2023an alde handiarekin gainditu ziren 2008an erregistratutako gehieneko afiliazio-datuak, orain arte une bakar batean ere gainditu gabeak. Zehazki, EAEn milioi bat pertsona baino gehiago zeuden Gizarte Segurantzan afiliatuta (urte arteko +% 2,1eko hazkundea). Nafarroan are handiagoa izan zen hazkundea (+% 2,4), eta 300 mila afiliaturen muga gainditu zuen. Estatuan (+% 2,8), berriz, 20 milioi afiliatu baino gehiago izan ziren. Funtsean, enpleguaren suspertzea finkatu zen 2023an, pandemiak eragindako galeraren ondoren. Gainera, aurreko urtean baino handiagoa izan zen urte arteko hazkunde-tasa.

Kontratazioaren bilakaerari dagokionez, araudiaren aldaketa nabarmentzen da (2022ko martxoaren 30etik aplikatzen da), hark mugatu egin baitzuen aldi baterako kontratazioa. Aldaketaren inpaktua bi magnituderen bilakaeran islatzen da: batetik, kontratazioaren bolumenak behera egin zuen, eta, bestetik, hazi egin zen modalitate mugagabearen garrantzia. Modu horretan, EAEn, Nafarroan eta Estatuan erregistratutako kontratazioak

urte arteko beherakada handia izan zuen (-% 10,5, -% 13,8 eta -% 15,7, hurrenez hurren). Aitzitik, modalitate mugagabearen garrantzia nabarmen hazi zen (% 25,5, % 23,1 eta % 42,9), ezarritako arau-aldaketaren aurretik izan ohi zuen % 10eko ekarpena gaindituz[1].

Logikoki, kontratazio mugagabearen pisua hazteak gutxitu egingo ditu etorkizuneko kontratazioak (enpleguaren bolumena finkatuko delako), eta horren eragina progresiboa eta metagarria da. Hortaz, datozen ekitaldietan kontratazioak behera egiten jarraituko duela espero da (ziklo ekonomikoko aldaketa baten ondorioz lan-merkatuaren murrizketa gertatu ezean). Ondorioz, guztizko kontratazioaren urte arteko bilakaera alderatzea dagoeneko ez da esanguratsua enpleguaren bilakaera aztertzeko. Aldiz, garrantzia hartu du modalitate mugagabeak kontratazio osoaren gainean duen pisu erlatiboak.

**2. koadroa** **Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta erregistratutako kontratazioaren bilakaera**

| Kontzeptua | Datua | | | Urte arteko aldakuntza (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| **Afiliazioa** | | | | | | |
| EAE | 975.229 | 987.718 | 1.008.687 | 2,3 | 1,3 | 2,1 |
| Nafarroa | 292.235 | 296.178 | 303.200 | 3,0 | 1,3 | 2,4 |
| Estatua | 19.703.812 | 20.159.317 | 20.733.042 | 4,2 | 2,3 | 2,8 |
| **Kontratazioa** | | | | | | |
| EAE | 861.726 | 815.719 | 730.146 | 22,5 | -5,3 | -10,5 |
| Nafarroa | 362.337 | 334.321 | 288.064 | 18,8 | -7,7 | -13,8 |
| Estatua | 19.384.359 | 18.310.343 | 15.444.205 | 21,6 | -5,5 | -15,7 |

*Oharra: Urte bakoitzeko abenduaren 31ko afiliatu kopurua (erregimen guztietan) eta urte bakoitzaren itxieran metatutako kontratuak.*

*Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.*

Afiliazioaren hileko bilakaerak erakusten duenez, enpleguaren hazkundea jarraitua izan zen, bai EAEn, bai Nafarroan, bai Estatuan. Ez zuen 2022koaren adineko igoerarik izan; izan ere, 2022ko urte arteko tasak ezohikoak ziren oraindik, 2021aren gainean kalkulatzen zirelako, eta 2021ean oraindik jarduera ez zegoelako guztiz berreskuratuta. Hain zuzen ere, pandemiaren osteko suspertzea islatzen zuten 2022ko zifrek.

Aitzitik, kontratazioaren hileko bilakaerak agerian uzten du araudi-aldaketak eragindako doiketa. Izan ere, araudia indarrean sartu zenetik, nabarmen jaitsi zen erregistratutako kontratu kopurua. Gertakari hori bat dator modalitate mugagabearen garrantziarekin. Urteko kontratuen % 25, gutxienez, mugagabeak izan ziren. Hortaz, sendotu egin zen enpleguaren oinarria, eta behera egin zuten kontratu potentzialek[2] (etorkizunera begira).

[1] Alderdi hori oso ohikoa zen inguruko lan-merkatuan (EAE, Nafarroa eta Estatua), langileen ratio altu batek aldi baterako kontratuak baitzituen. Hain zuzen ere, hainbat erakundek eta forok behin baino gehiagotan eskatu zuten aldi baterako kontratazioa mugatzeko neurriak ezartzea, modu horretan haren pisu erlatiboa beste herrialde aurreratu batzuetako pisu erlatibora gerturatzeko.

[2] Hori gertatzen zen erreformaren aurretik, enpleguaren zati bat aldi baterakoa baitzen. Hala, lanpostuaren estaldura-beharrekin zerikusirik ez zuten arrazoiak medio, "sartu-irtenak egiten zituzten lan-merkatuan".

**1. grafikoa Gizarte Segurantzako afiliazioa eta erregistratutako kontratuak. Hileko bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

**Afiliazioa**




**Erregistratutako kontratuak**




*Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.*

Afiliazioaren bilakaera erregimenen arabera aztertuta, Erregimen Orokorrak gora egin zuela ikus daiteke; EAEn eta Estatuan izan zuen urte arteko hazkunderik handiena (+% 2,9 eta +% 3,7). Aldiz, Autonomoen Erregimenak behera egin zuen edo mantendu egin zen (-% 1,1 eta +% 0,5, hurrenez hurren). Hala, soldatapeko enpleguak gero eta pisu handiagoa du. Izan ere, Erregimen Orokorreko afiliazioak guztizko afiliazioaren gainean duen pisua % 80,2koa eta % 78,5ekoa da EAEn eta Estatuan. Aitzitik, enplegu autonomoa pisua galtzen ari da[1] (% 16,5 eta % 16,1 EAEn eta Estatuan). Izan ere, bilakaera okerragoa izan zuen Erregimen Orokorrak baino, eta joera hori mantendu egingo da[2].

---

[1] 2022an % 17,1 eta % 16,5 EAEn eta Estatuan.

[2] Langile autonomoak haien lan-bizitza amaitzen ari dira, ordezkatzeko zailak diren jardueretan (familia-negozioak, ostalaritza, txikizkako merkataritza...) eta, gainera, lanpostuen eskaintza handia dago (profil eta lanpostu berriak, baina, gainera, erretiroagatiko birjartzeak). Hori dela eta, gehienek besteren kontura lan egitea erabakitzen dute, norbere konturako enpleguaren kaltetan (soldatapeko enpleguak ematen duen segurtasuna dela eta).

**3. koadroa** **Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregimenaren arabera**

| | EAE | | | Estatua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | % | ∆ 23/22 | 2023 | % | ∆ 23/22 |
| Erregimen orokorra | 808.541 | 80,2 | 2,9 | 16.276.315 | 78,5 | 3,7 |
| Autonomoak | 166.806 | 16,5 | -1,1 | 3.339.845 | 16,1 | 0,5 |
| Gainerakoak[1] | 33.340 | 3,3 | 0,4 | 1.116.882 | 5,4 | -2,3 |
| **Afiliazioa, guztira** | **1.008.687** | **100,0** | **2,1** | **20.733.042** | **100,0** | **2,8** |

*[1] Barnean hartzen ditu: Itsasoko Langileen Erregimen Berezia, Etxeko Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra, Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra.*

*Oharra: Afiliatuak, urte bakoitzeko abenduaren 31n.*

*Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.*

Ia jarduera-adar guztietan hobetu zen afiliazioa, baina honakoek izandako urte arteko hazkundea nabarmendu zen: hezkuntza (+% 4,8 eta +3.768 afiliazio), ostalaritza (+% 4,6 eta +3.055), osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak (+% 2,4 eta +2.745) eta manufaktura-industria (+% 1,6 eta +2.700). Enplegua galdu zuten jarduera-adar bakarrak lehen sektorea (-% 0,4 eta -45 afiliazio) eta erauzketa-industriak (-% 0,6 eta -3) izan ziren. Horiek hondarreko pisua dute EAEko guztizko afiliazioaren gainean (% 1,1 eta % 0,1).

**4. koadroa** **Gizarte Segurantzako afiliazioa, jarduera arloen arabera. EAE**

| | 2022 | 2023 | | |
|---|---|---|---|---|
| | Afiliazioa | Afiliazioa | % | ∆ 23/22 |
| Lehen sektorea | 11.168 | 11.123 | 1,1 | -0,4 |
| Erauzketa-industriak | 533 | 530 | 0,1 | -0,6 |
| Manufaktura-industria | 170.656 | 173.356 | 17,2 | 1,6 |
| Energia-hornidura | 1.618 | 1.756 | 0,2 | 8,5 |
| Ur-hornidura eta hondakinak | 6.464 | 6.524 | 0,6 | 0,9 |
| Eraikuntza | 57.675 | 57.817 | 5,7 | 0,2 |
| Ibilgailuen merkataritza eta konponketa | 135.878 | 136.657 | 13,5 | 0,6 |
| Garraioa eta biltegiratzea | 44.538 | 45.795 | 4,5 | 2,8 |
| Ostalaritza | 66.809 | 69.864 | 6,9 | 4,6 |
| Informazioa eta komunikazioa | 25.574 | 27.056 | 2,7 | 5,8 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak | 16.780 | 16.971 | 1,7 | 1,1 |
| Higiezinen arloko jarduerak | 4.290 | 4.368 | 0,4 | 1,8 |
| Jarduera profesional zientifiko-teknikoak | 60.781 | 62.717 | 6,2 | 3,2 |
| Administrazio-jard. eta zerbitzu osagarriak | 65.715 | 66.140 | 6,6 | 0,6 |
| Administrazio Publikoa, Gizarte Segurantza | 51.416 | 52.651 | 5,2 | 2,4 |
| Hezkuntza | 79.255 | 83.023 | 8,2 | 4,8 |
| Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak | 113.427 | 116.172 | 11,5 | 2,4 |
| Artea, aisia eta entretenimendua | 18.820 | 19.731 | 2,0 | 4,8 |
| Beste zerbitzu batzuk | 27.276 | 27.291 | 2,7 | 0,1 |
| Etxeko langileak | 28.967 | 29.064 | 2,9 | 0,3 |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 78 | 81 | 0,0 | 3,8 |
| **Afiliazioa, guztira** | **987.718** | **1.008.687** | **100,0** | **2,1** |

*Oharra: Afiliatuak, urte bakoitzeko abenduaren 31n.*

*Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

Lan-merkatuaren momentu positiboa baieztatzen dute erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaerak. Zehazki, erregistratutako langabeziak behera egiten jarraitu zuen 2023an (-% 2,7, -% 5,1 eta -% 4,6 EAEn, Nafarroan eta Estatuan), 2015ean hasitako enplegua berreskuratzeko joeraren barruan (2008ko krisiaren ondoren). Hala, erregistratutako langabeziaren zifrarik txikienera, 2007kora (74.582, 29.988 eta 2.707.456 EAEn, Nafarroan eta Estatuan), gerturatzen ari dira hiru eremuak. Langabezia-tasak ere behera egiten jarraitu zuen, eta EAEk (% 6,5) eta Nafarroak (% 9,3) bi digitutik beherako balioekin amaitu zuten 2023an; Estatuan (% 11,9) ez zuten lortu muga horretatik jaisterik.

**5. koadroa** **Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera**

| | Datua | | | Urte arteko aldakuntza (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| **Langabe kopurua** | | | | | | |
| EAE | 114.845 | 110.798 | 107.779 | -11,1 | -3,5 | -2,7 |
| Nafarroa | 32.026 | 31.610 | 29.998 | -21,2 | -1,3 | -5,1 |
| Estatua | 3.105.905 | 2.837.653 | 2.707.465 | -20,1 | -8,6 | -4,6 |
| **Langabezia-tasa (%)** | | | | | | |
| EAE | 9,3 | 9,1 | 6,5 | -0,8 | -0,2 | -2,6 |
| Nafarroa | 10,1 | 10,3 | 9,3 | -1,4 | 0,2 | -1,0 |
| Estatua | 13,6 | 13,1 | 11,9 | -2,7 | -0,5 | -1,2 |

*Oharra: urte bakoitzeko abenduan erregistratutako langabezia eta urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa (16 - 64 urte). Langabezia-tasaren aldakuntza ehuneko puntutan adierazi dugu.*
*Iturria: SEPE eta EIN (BAI, Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Geuk egina.*

Sektoreko hazkunde-indizeek berretsi egiten dituzte azaldutako emaitzak, baina profil apur bat ezberdinekin: industria-jarduerak desazeleratzen hasi zuen urteko lehen zatia, baina ekitaldiaren amaieran suspertu egin zen; aldiz, eraikuntza-jarduerak aldakuntza-tasarik handienak eta aldakortasunik handiena izan zituen. Zerbitzuen bi osagaiek bilakaera lauagoa izan zuten. Dena den, merkatuko beste zerbitzu batzuek igoera izan zuten, eta, txikizkako merkataritzaren kasuan, jardueraren desazelerazioa gailendu zen. Halaber, euskal termometroak profil egonkorra izan zuen urtean zehar, eta horrek hazkunde ekonomikoaren geldotze arin bat erakusten du.

**2. grafikoa Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Oharra: Industria Ekoizpenaren Indizea, Eraikuntza Indize Koiunturala, Merkatuko Beste Zerbitzu Batzuen Indizea eta Txikizkako Merkataritzaren Indizea zerbitzugunerik gabe (biak, prezio konstanteetan).*
*Iturria: Eustat. Geuk egina.*

**3. grafikoa Euskadiko ekonomiaren termometroa**




*Oharra: Adierazlea 50 baino baxuagoa bada, ekonomiak behera egin duela esan nahi du; 50 eta 100 artean kokatzen bada, apur bat hazi dela; eta 100etik gorakoa bada, ekonomiak hazkunde sendoa izan duela.*
*Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza).*

Agertoki horretan, EAEko familien konfiantzari dagokionez, zuhurtzia mantendu zuten eta nolabaiteko ezkortasuna gailendu zen; hain zuzen ere, kontsumitzailearen konfiantza-indizearen emaitzek balio negatiboak izaten jarraitu zuten, baina ez 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoan bezainbeste (-22 eta -23, hurrenez hurren); aldi horretan hondoratu egin zen konfiantza, espiral inflazionistaren ondorioz. Hala, urteko batez besteko emaitza hobetu egin zen[1] (-11 eta -9, 2022an eta 2023an). Indizerik ezkorrenak ekonomia orokorraren bilakaeraren gaineko igurikimenena (-21) eta familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko igurikimenena (-12) izan ziren. Aldiz, pertzepzioa ia positiboa izan zen langabeziaren bilakaerari (-4) eta familien aurrezteko gaitasunari (-2) dagokienez.

[1] 2024aren hasieran berriz ere hobetu da (-5; +4 puntu 2024ko lehenengo hiruhilekoan), langabeziaren bilakaeraren balorazio positiboak (2) eta aurrezteko gaitasunarekiko neutraltasunak (0) eraginda. Horiek konpentsatu egin behar dute ekonomia orokorraren gainean gailentzen den mesfidantza (-18).

**4. grafikoa Familien konfiantza-indizea. EAE**




*Oharra: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.*
*Iturria: Laboral Kutxa. Geuk egina.*

Ildo horretatik, deigarria da behin eta berriz ekonomia orokorraren bilakaeraren gaineko igurikimenak izatea familiek okerren baloratzen duten adierazlea. Argi dago 2023an hala izan zela, ziurgabetasun-egoera eta hari batu zitzaion inflazioa kontuan hartuta. Hala, ekitaldiaren hasiera (+% 2,4) apaldu egin zen ondoz ondoko hiruhilekoetan, baina bigarren zatian nabarmen hobetu zen egoera, aurreikuspen okerrenekin alderatuta (+% 1,7).

**5. grafikoa BPGaren hiruhilekoko bilakaera. EAE**

*(Aldakuntza-tasa)*




*Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.*
*Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak. Eustat. Geuk egina.*

2024rako eta 2025erako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak berriz ere doitu beharko dira, mundu mailako tentsio geopolitikoek[1] eragindako ziurgabetasuna dela eta, horiek inpaktu argia baitute tokiko mailan. Baina, gainera, 2024an motel hasi da Europako

[1] Konpontzen ez diren (Errusiak Ukraina indarrez hartzea) edo berraktibatzen diren (Gaza) edo nazioarteko terrorismoko ekintzen bidez kanalizatzen diren (Moskuko atentatua) gerra-gatazkak eta gobernu-aldaketek (AEB, adibidez) eragindako gatazkak...

ekonomia. Aldi berean, Euroguneak % 2tik beherako inflazioa izan lezakeela aurreikusten da. Faktore horiek guztiak direla eta, adierazi dute[1] litekeena dela interes-tasak murrizten hastea. Horrek on egingo dio jarduera ekonomikoaren berraktibazioari.

Egoeraren konplexutasuna eta aurreikuspenak egiten diren unea direla eta, logikoa den moduan, EAEko ekonomiarentzat egindako aurreikuspenak ere etengabe doitu behar dira. Gaur egun, 2024rako, Eusko Jaurlaritzak egindako aurreikuspenak[2] (+% 1,9), Laboral Kutxak proposatutakoak[3] (+% 1,4), Confebaskenak[4] (+% 1,6) edota BBVA Researchenak[5] (+% 2,3) daude; azken hori da interes-tasen jaitsieraren efektua txertatu duen bakarra.

Aurreikuspen horiek guztiak, une bakoitzean eskuragarri zegoen informazioan oinarrituta eraiki dira. Bereziki nabarmentzekoa da inflazioaren erritmoaren desazelerazioa aurreikusi baino handiagoa eta azkarragoa izan dela. Hala, inflazioaren bilakaerak erakusten duenez, 2022a bereziki inflazionista izan zen, eta urte arteko hazkundeak ezohikoak izan ziren. 2023an, berriz, egoera hobea izan zen, eta Eurogune osoko balantzea % 2,9koa izan zen. Dena den, Europako hiru ekonomia handiak, hau da, Alemania (% 3,8), Frantzia (% 4,1) eta Espainia (% 3,3), oraindik ere urrun daude % 2ko atalasetik. Hala, hazkunde ekonomikoa oztopatzen duen elementua azpiko osagaia da, orokorrean % 3tik gora jarraitzen baitu.

**6. koadroa** **Prezioen bilakaeraren testuingurua**

| | KPI orokorra[1] | | | Azpiko KPI[2] | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| **Eurogunea** | **5,0** | **9,2** | **2,9** | **2,7** | **6,9** | **3,9** |
| Alemania | 5,7 | 9,6 | 3,8 | 4,0 | 7,3 | 3,7 |
| Frantzia | 3,4 | 6,7 | 4,1 | 1,9 | 5,4 | 3,8 |
| Italia | 4,2 | 12,3 | 0,5 | 1,5 | 6,5 | 3,2 |
| Danimarka | 3,4 | 9,6 | 0,4 | 1,5 | 7,4 | 2,5 |
| Herbehereak | 6,4 | 11,0 | 1,0 | 2,3 | 8,4 | 3,7 |
| Portugal | 2,8 | 9,8 | 1,9 | 1,9 | 8,0 | 3,1 |
| Suedia | 4,5 | 10,8 | 1,9 | 1,8 | 8,2 | 5,0 |
| Espainia | 6,6 | 5,5 | 3,3 | 2,2 | 6,7 | 4,0 |
| EAE | 6,4 | 5,4 | 3,1 | 2,2 | 6,7 | 3,9 |
| Nafarroa | 6,6 | 6,4 | 2,9 | 2,1 | 7,3 | 3,5 |

*[1] (HICP) – KPI orokor bateratua [2] (HICP) – KPI, prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak barne hartu gabe.*
*Oharra: Urte arteko aldakuntza-tasa, urte bakoitzeko abendutik abendura.*
*Iturria: Eurostat eta EIN. Geuk egina.*

Euroguneari eta munduko ekonomiari buruzko hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenen arabera, 2024a, orokorrean, nahiko laua izango da. Hala, aurreikuspen horiek 2025era atzeratzen dute suspertzerik handiena. Ekonomia handien artean, Espainia da

[1] EBZ, 2024ko martxoak 7.
[2] 2024ko apirilak 2.
[3] 2023ko abenduak 19.
[4] 2023ko abenduak 22.
[5] 2024ko martxoak 22.

salbuespena. Izan ere, erritmo hobea mantendu zuen (2023), eta datorren biurtekorako aurreikusitako ibilbidea hobea da Alemaniarena edo Frantziarena baino, esaterako.

**7. koadroa Egindako ekonomia-aurreikuspenak.**

*(%)*

| | Europako Batzordea | | | NDF | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | 2024 | 2025 | 2023 | 2024 | 2025 |
| **Eurogunea** | **0,5** | **0,8** | **1,5** | **0,4** | **0,8** | **1,5** |
| Alemania | -0,3 | 0,3 | 1,2 | -0,3 | 0,2 | 1,3 |
| Frantzia | 0,9 | 0,9 | 1,3 | 0,9 | 0,7 | 1,4 |
| Italia | 0,6 | 0,7 | 1,2 | 0,9 | 0,7 | 0,7 |
| Espainia | 2,5 | 1,7 | 2,0 | 2,5 | 1,9 | 2,1 |
| **Munduko ekonomia** | **-** | **-** | **-** | **3,2** | **3,2** | **3,2** |
| AEB | - | - | - | 2,5 | 2,7 | 1,9 |
| Txina | - | - | - | 5,2 | 4,6 | 4,1 |

*Iturria: Europako Batzordea (2024ko otsaila) eta NDF (2024ko apirila). Geuk egina.*

# 2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

## 2.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

**Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera**

Tentsio geopolitiko handiek nabarmen oztopatutako nazioarteko testuinguruan, munduko ekonomiaren hazkunde-erritmoak behera egiten jarraitu zuen 2023an, eta % 3,2ra jaitsi zen (2021ean eta 2022an % 6,5 eta % 3,5, hurrenez hurren).

Testuinguru horretan, dinamismoaren galera ia orokorra izan zen. Ekonomia aurreratuen hazkunde-erritmoak behera egin zuen (2023an % 1,6 eta aurreko ekitaldian % 2,6) eta merkatu berrien eta garapen-bidean zeuden merkatuen hazkundea apur bat indartu zen (% 4,3, eta 2022an % 4,1). Dena den, merkatu berrien eta garapen-bideko merkatuen ekonomiek 2021an (% 7) baino erregistro askoz ere baxuagoak izan zituzten; izan ere, pandemiaren osteko suspertzea izan zen 2021ean.

Herrialde industrializatuei dagokienez, ELGAren maiatzeko aurreikuspenen arabera, 2023an % 1,7ra jaitsi zen herrialde horien hazkundea (aurreko ekitaldian % 3koa izan zen), ekonomia nagusi gehienek bultzada galdu baitzuten.

**8. koadroa Barne Produktu Gordinaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 5,8 | 1,9 | 2,5 |
| Japonia | 2,6 | 1,0 | 1,9 |
| Alemania | 3,1 | 1,9 | -0,1 |
| Frantzia | 6,4 | 2,5 | 0,9 |
| Italia | 8,3 | 4,1 | 1,0 |
| Erresuma Batua | 8,7 | 4,3 | 0,1 |
| Kanada | 5,3 | 3,8 | 1,1 |
| **Eurogunea** | **5,8** | **3,5** | **0,5** |
| **ELGA, guztira** | **6,0** | **3,0** | **1,7** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

Lehenik eta behin, Ipar Amerikako ekonomia aztertuko dugu. 2023an % 2,5 hazi zen, eta, aztertutako ekonomien artean, aurreko ekitaldian baino gehiago hazi zen ekonomia handi bakarra izan zen, Japoniarekin batera (Ipar Amerikako ekonomia % 1,9 hazi zen 2022an). Horrekin lotuta, Estatu Batuetako kontsumo publikoa eta inbertsioa oso indartsu mantendu zirela nabarmendu behar da (2023an % 2,7ko eta % 2,1eko hazkundeak, hurrenez hurren).

Japonian ere indartu egin zen hazkunde-erritmoa (2023an % 1,9 eta 2022an % 1), baina kontsumo pribatuaren eta publikoaren hazkundeak ahuldu egin ziren (2023an % 0,6 eta % 0,9ko hazkundeak, eta 2022an % 2,2 eta % 1,7koak, hurrenez hurren).

Merkatu berrien eta garapen-bideko merkatuen testuinguruan, Indiaren hazkundea nabarmendu zen (% 7,8ko aurrerapena 2023an), eta Brasilen hazkunde-erritmoa ia mantendu egin zen (% 3ko eta % 2,9ko hazkundeak 2022an eta 2023an, hurrenez hurren). Errusiak, berriz, hazkunde-ibilbidea berrartu zuen, 2022an atzera egin ondoren (Ukrainaren aurkako inbasioa zela eta nazioartean ezarritako neurri gogorren ondorioz).

**9. koadroa** **Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | Kontsumo pribatua | | | Kontsumo publikoa | | | Inbertsioa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| Estatu Batuak | 8,4 | 2,5 | 2,2 | 0,3 | -0,9 | 2,7 | 5,3 | 0,9 | 2,1 |
| Japonia | 0,8 | 2,2 | 0,6 | 3,4 | 1,7 | 0,9 | -0,1 | -1,4 | 2,1 |
| Alemania | 1,5 | 3,9 | -0,6 | 3,1 | 1,6 | -1,5 | -0,3 | 0,2 | -0,2 |
| Frantzia | 5,1 | 2,3 | 0,7 | 6,5 | 2,6 | 0,5 | 10,2 | 2,3 | 1,1 |
| Italia | 5,5 | 4,9 | 1,2 | 1,4 | 1,0 | 1,2 | 20,3 | 8,9 | 4,9 |
| Erresuma Batua | 7,5 | 5,0 | 0,3 | 14,9 | 2,3 | 0,5 | 7,4 | 8,0 | 2,2 |
| Kanada | 5,1 | 5,1 | 1,7 | 5,4 | 3,2 | 1,5 | 9,3 | -2,4 | -3,2 |
| **Eurogunea** | **4,4** | **4,2** | **0,5** | **4,2** | **1,6** | **0,7** | **3,4** | **2,6** | **1,4** |
| **ELGA, guztira** | **6,8** | **4,1** | **1,8** | **3,8** | **1,2** | **1,7** | **5,0** | **2,0** | **2,6** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

Europari dagokionez, Ukrainako gerrak bereziki eragin zion eremu horri. 2023an Euroguneak % 0,5eko hazkunde apala baino ez zuen izan (aurreko ekitaldian baino ehuneko hiru puntu gutxiago), Alemaniako ekonomiaren atzerapenak eraginda (2023an -% 0,1). Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da kontsumo pribatuak, kontsumo publikoak eta inbertsioak 2022an baino bilakaera orokorragoa izan zutela moneta bakarreko eremuan.

## Kanpo-merkataritza

Hazkunde ekonomikoa txikiagoa izanik, 2023an indarra galdu zuen kanpo-merkataritzak. Izan ere, ELGAko herrialdeetan esportazioen hazkundea nabarmen jaitsi zen eta inportazioek behera egin zuten. Zehazki, kanpo-salmenten hazkundea % 0,8ra mugatu zen (2022an % 6,9) eta kanpo-erosketek -% 0,5 egin zuten behera (aurreko ekitaldian % 8,4).

Herrialdeen arabera, Kanadako esportazioen hazkundea indartu egin zen (2023an % 5,7 eta 2022an % 3,2), baina, gainerako kasu guztietan, kanpo-salmentek eta kanpo-erosketek aurreko ekitaldian baino portaera okerragoa izan zuten, oro har. Hain zuzen ere, Alemaniako eta Erresuma Batuko esportazioen hazkundea eten egin zen (-% 1,7 eta -% 0,5, hurrenez hurren) eta, inportazioei dagokienez, Kanadakoek bakarrik egin zuten gora, % 1 apal bat (2022an % 7,6); aztertutako gainerako kasuetan, behera egin zuten, orokorrean.

**10. koadroa Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak**

*(% Δ)*

| Herrialdea | Inportazioak | | | Esportazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| Estatu Batuak | 14,5 | 8,6 | -1,7 | 6,3 | 7,0 | 2,6 |
| Japonia | 5,1 | 7,9 | -1,3 | 11,9 | 5,3 | 3,0 |
| Alemania | 8,8 | 6,8 | -3,0 | 9,5 | 3,4 | -1,7 |
| Frantzia | 9,2 | 8,8 | -0,1 | 10,7 | 7,4 | 1,5 |
| Italia | 15,6 | 13,5 | -0,2 | 14,1 | 11,0 | 0,5 |
| Erresuma Batua | 6,1 | 14,6 | -1,5 | 4,9 | 9,0 | -0,5 |
| Kanada | 8,1 | 7,6 | 1,0 | 2,7 | 3,2 | 5,7 |
| **ELGA, guztira** | **10,2** | **8,4** | **-0,5** | **9,5** | **6,9** | **0,8** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

## Prezioak

Petrolioaren prezioak behera egin zuen (Brent upelak 101,5 dolar balio zuen 2022an, eta 92,4 dolar 2023an) eta lehengai jakin batzuen prezioak ere bai. Ondorioz, aztertutako herrialde guztietan, kontsumo-prezioen hazkundea desazeleratu egin zen, ia modu orokorrean.

Hala, ELGAren arabera, 2023an kontsumoko prezio-indizearen hazkundea % 4,1ra jaitsi zen Estatu Batuetan, eta % 5,4ra Eurogunean (% 8ko eta % 8,4ko hazkundeak, hurrenez hurren, 2022an).

**11. koadroa Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 4,7 | 8,0 | 4,1 |
| Japonia | -0,3 | 2,5 | 3,3 |
| Alemania | 3,2 | 8,7 | 6,0 |
| Frantzia | 2,1 | 5,9 | 5,7 |
| Italia | 1,9 | 8,7 | 5,9 |
| Erresuma Batua | 2,6 | 9,1 | 7,3 |
| Kanada | 3,4 | 6,8 | 3,9 |
| **Eurogunea** | **2,6** | **8,4** | **5,4** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

Horrekin lotuta, aipatzekoa da Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak hainbat esku-hartze egin zituztela 2023an euren interes-tasetan, prezioei euste aldera. Hala, ekitaldia ixtean, interes-tasak % 4,5ekoak ziren bi kasuetan. Europako Banku Zentralaren kasuan, interes-tasa ehuneko bi puntu igo zen 2022arekiko.

### Lan-merkatua

Ekonomiaren hazkundea mantsotu zen arren, herrialde industrializatuetako lan-merkatuak nahiko sendo agertu ziren 2023an. Hala, aztertutako kasu gehienetan, langabezia-tasa mantendu egin zen edo apur bat jaitsi zen. Hala, 2023an, langabezia-tasa % 3,6an mantendu zen Estatu Batuetan, % 6,5era jaitsi zen Eurogunean (2022an % 6,7) eta % 5etik % 4,8ra jaitsi zen ELGAko herrialde kideetan.

**12. koadroa Langabezia-tasa**

*(biztanleria aktiboaren %)*

| Herrialdea | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 5,4 | 3,6 | 3,6 |
| Japonia | 2,8 | 2,6 | 2,6 |
| Alemania | 3,6 | 3,1 | 3,0 |
| Frantzia | 7,9 | 7,3 | 7,3 |
| Italia | 9,5 | 8,1 | 7,6 |
| Erresuma Batua | 4,6 | 3,9 | 4,0 |
| Kanada | 7,5 | 5,3 | 5,4 |
| **Eurogunea** | **7,7** | **6,7** | **6,5** |
| **ELGA, guztira** | **6,2** | **5,0** | **4,8** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

### Diru- eta aurrekontu-politika

2023an Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrek bilakaera ezberdina izan zuten. Estatu Batuetan, BPG nominalaren -% 8ra arte hazi zen defizita 2023an (2022an -% 4). Aldiz, Eurogunean -% 3,5era jaitsi zen (aurreko ekitaldian -% 3,7), eta -% 4,8ra hazi zen ELGAn (aurreko ekitaldian -% 3,3).

**13. koadroa Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)**

*(BPGaren %)*

| Herrialdea | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | -11,5 | -4,0 | -8,0 |
| Japonia | -6,2 | -4,2 | -3,9 |
| Alemania | -3,6 | -2,5 | -2,1 |
| Frantzia | -6,6 | -4,8 | -5,5 |
| Italia | -8,7 | -8,6 | -7,4 |
| Erresuma Batua | -7,9 | -4,6 | -5,4 |
| Kanada | -2,9 | 0,1 | -0,6 |
| **Eurogunea** | **-5,3** | **-3,7** | **-3,5** |
| **ELGA, guztira** | **-7,1** | **-3,3** | **-4,8** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

Moneta-politikari dagokionez, eta aurrez esan dugun moduan, 2023an egokitzapen ugari izan zituzten Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren erreferentziazko interes-tasek (Europan goranzkoak izan ziren aldaketa guztiak, eta, Ipar Amerikan, goranzkoak zein beheranzkoak), eta ekitaldiaren amaieran % 4,5ean kokatu ziren biak.

**6. grafikoa Interes-tasen aldakuntza**




*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

### Europar Batasuna

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren hazkundea % 0,4ra jaitsi zen 2023an (% 6ko eta % 3,5eko hazkundeak 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren), tentsio geopolitikoek nabarmen oztopatu baitzuten nazioarteko testuinguruа. Hain zuzen ere, barne-eskaria -% 0,2 murriztu zen (aurreko ekitaldian % 3,5eko hazkundea). Aldi berean, esportazioek eta inportazioek ere behera egin zuten (2023an -% 0,2 eta -% 1,4 eta 2022an % 7,4 eta % 8, hurrenez hurren). Dena den, inportazioak neurri handiagoan murriztu ziren, hortaz, kanpo-sektorearen ekarpena positiboa izan zen, eta hazkunde eskasaren motorra izan zen.

Barne eskariari dagokionez, kontsumo pribatua, kontsumo publikoa eta inbertsioa aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi ziren: 2023an % 0,4, % 0,9 eta % 1,5eko hazkundeak, eta 2022an % 4,1, % 1,3 eta % 2,7ko hazkundeak, hurrenez hurren.

**14. koadroa Adierazle nagusiak (EB)**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **Jarduera** | | | |
| – Kontsumo pribatua | 4,6 | 4,1 | 0,4 |
| – Kontsumo publikoa | 4,1 | 1,3 | 0,9 |
| – Kapital Finkoaren Eraketa Gordina | 3,5 | 2,7 | 1,5 |
| – Barne-eskaria | 5,1 | 3,5 | -0,2 |
| – Esportazioak | 11,3 | 7,4 | -0,2 |
| – Inportazioak | 9,7 | 8,0 | -1,4 |
| – BPG | 6,0 | 3,5 | 0,4 |
| **Prezioak eta soldatak** | | | |
| – BPGaren deflatorea | 2,5 | 5,4 | 6,2 |
| – Kontsumo pribatuaren deflatorea | 2,5 | 7,5 | 6,4 |
| – Banakako lan-kostu errealak | -2,6 | -1,7 | 0,4 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2024ko udaberria).*

Batasuneko kide guztiak kontuan hartuta, 2023an aurreko ekitaldian baino portaera okerragoa izan zuten guztiek. Horietatik hamaikatan, ekonomiak behera egin zuen; adibidez, Alemanian, Batasuneko traktore ekonomiko nagusian. Hazkunderik handiena Maltak izan zuen (% 5,6; 2022an baino nabarmen txikiagoa, orduan % 8,1eko hazkundea izan baitzuen), eta, beherakada handiena, Irlandak (-% 3,2).

**15. koadroa** **Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna)**

*(Urte arteko aldakuntzaren %)*

| Herrialdea | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Malta | 12,5 | 8,1 | 5,6 |
| Kroazia | 13,0 | 7,0 | 3,1 |
| Zipre | 9,9 | 5,1 | 2,5 |
| Espainia | 6,4 | 5,8 | 2,5 |
| Portugal | 5,7 | 6,8 | 2,3 |
| Errumania | 5,7 | 4,1 | 2,1 |
| Grezia | 8,4 | 5,6 | 2,0 |
| Danimarka | 6,8 | 2,7 | 1,9 |
| Bulgaria | 7,7 | 3,9 | 1,8 |
| Eslovenia | 8,2 | 2,5 | 1,6 |
| Eslovakia | 4,8 | 1,9 | 1,6 |
| Belgika | 6,9 | 3,0 | 1,4 |
| Italia | 8,3 | 4,0 | 0,9 |
| Frantzia | 6,4 | 2,5 | 0,7 |
| **EB** | **6,0** | **3,5** | **0,4** |
| Polonia | 6,9 | 5,6 | 0,2 |
| Herbehereak | 6,2 | 4,3 | 0,1 |
| Suedia | 6,1 | 2,7 | -0,2 |
| Letonia | 6,7 | 3,0 | -0,3 |
| Txekiar Errepublika | 3,6 | 2,4 | -0,3 |
| Lituania | 6,3 | 2,4 | -0,3 |
| Alemania | 3,2 | 1,8 | -0,3 |
| Austria | 4,2 | 4,8 | -0,8 |
| Hungaria | 7,1 | 4,6 | -0,9 |
| Finlandia | 2,8 | 1,3 | -1,0 |
| Luxenburgo | 7,2 | 1,4 | -1,1 |
| Estonia | 7,2 | -0,5 | -3,0 |
| Irlanda | 15,1 | 9,4 | -3,2 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2024ko udaberria).*

Per capita BPGari dagokionez, erosketa-ahalmenaren parekotasuna kontuan hartuta, 2023an oraindik ere ezberdintasun handiak zeuden Batasuneko herrialdeen artean. Hala, Luxenburgok zuen mailarik altuena (240; EB-27 osoari dagokion indizea 100 da), eta Bulgariak txikiena (64); hala, bata bestea baino ia lau aldiz handiagoa zen. Herrialde hauek gainditu zuten Batasuneko batezbestekoa (neurri ezberdinetan): Irlanda (212), Herbehereak (130), Danimarka (128), Austria (123), Belgika eta Suedia (117 bi kasuetan), Alemania (115), Finlandia (108), Malta (105) eta Frantzia (101). Gainerako herrialdeak batezbestekotik behera geratu ziren. Horrekin lotuta, aipatzekoa da EBn bata bestearen segidan kide berriak sartzearen ondorioz nabarmen jaitsi zela Batasuneko batez besteko per capita BPGa, beste urte batez.



LABORAL kutxa

16. koadroa Europar Batasuneko *per capita* BPGa (PPS) 2023

| Herrialdea | EB-27=100 |
|---|---|
| Luxenburgo | 240 |
| Irlanda | 212 |
| Herbehereak | 130 |
| Danimarka | 128 |
| Austria | 123 |
| Belgika | 117 |
| Suedia | 117 |
| Alemania | 115 |
| Finlandia | 108 |
| Malta | 105 |
| Frantzia | 101 |
| **EB-27 guztira** | **100** |
| Italia | 97 |
| Zipre | 95 |
| Eslovenia | 91 |
| Txekiar Errepublika | 91 |
| Espainia | 89 |
| Lituania | 87 |
| Portugal | 83 |
| Estonia | 81 |
| Polonia | 80 |
| Errumania | 78 |
| Hungaria | 76 |
| Kroazia | 76 |
| Eslovakia | 73 |
| Letonia | 71 |
| Grezia | 67 |
| Bulgaria | 64 |

*Iturria: Eurostat (2024ko maiatza).*

### Aurreikuspenak

Ukrainako gerra (Errusiak egindako inbasioa) denboran luzatu izanak eta 2023an Israelen eta Hamasen artean hasitako gerra-gatazkak ziurgabetasun eta nazioarteko tentsio geopolitiko handiak sortzen jarraitu dute. Ondorioz, agertoki ziurgabea dugu ekitaldi honetan.

Testuinguru honetan, nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspen ekonomikoen arabera, hazkundea txikia izango da. NDFk 2024ko apirilean aurreikusi zuenez, munduko ekonomia % 3,2 haziko da ekitaldi honetan eta 2025ean.

ELGAren maiatzeko aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuen hazkundea % 1,7ra mugatuko da 2024an, eta % 1,8ra 2025ean. Aldiz, inflazio-tasek behera egiten jarraituko dute, antza denez (2024an Estatu Batuetan prezioak % 3 haziko direla aurreikusten da, eta Eurogunean % 2,3).

Nolanahi ere, aipatu dugun moduan, egungo ziurgabetasun maila altuak nabarmen alda dezake aurreikusitako agertoki ekonomikoa.

**17. koadroa Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)**

*(%)*

| Kontzeptua | 2024 | 2025 |
|---|---|---|
| – BPG erreala (% Δ) | | |
| Estatu Batuak | 2,6 | 1,8 |
| Japonia | 0,5 | 1,1 |
| Eurogunea | 0,7 | 1,5 |
| ELGA, guztira | 1,7 | 1,8 |
| – Inflazioa (kontsumoaren prezio-indizea) (%Δ) | | |
| Estatu Batuak | 3,0 | 2,2 |
| Japonia | 2,1 | 2,0 |
| Eurogunea | 2,3 | 2,2 |
| – Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %) | | |
| Estatu Batuak | 3,9 | 4,0 |
| Japonia | 2,5 | 2,4 |
| Eurogunea | 6,6 | 6,4 |
| ELGA, guztira | 5,0 | 5,0 |
| – Defizit publikoa (BPGaren %) | | |
| Estatu Batuak | -7,6 | -7,7 |
| Japonia | -3,0 | -2,2 |
| Eurogunea | -2,9 | -2,3 |
| ELGA, guztira | -4,5 | -4,1 |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2024ko maiatza).*

## 2.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

### Ezaugarri nagusiak

2023an hazkunde-erritmoa jaisten jarraitu zuen Espainiako ekonomiak, eta % 2,5era mugatu zen. Aldiz, 2021ean eta 2022an % 6,4 eta % 5,8 hazi zen, hurrenez hurren.

Eskariaren ikuspegitik, 2023an Espainiako ekonomiaren hazkundeari ekarpen positiboa egin zioten barne-eskariak zein kanpo-sektoreak. Barne-eskaria ehuneko 1,7 puntutan kokatu zen (aurreko ekitaldian ehuneko 2,9 puntu positibo), eta kanpo-sektorea ehuneko 0,8 puntu positibotan (2022an ehuneko 2,9 puntu positibo).

Lan-merkatuari dagokionez, lehen sektorean izan ezik, gainerako sektore handietan enpleguak gora egin zuen 2023an, eta, ondorioz, biztanleria okupatua % 3,1 hazi zen (aurreko ekitaldian, % 3,6). Bestetik, langabetuen kopurua -% 4,6 murriztu zen; hala, 2.937.500 pertsona langabetu zenbatu ziren 2023an, hau da, langabezia-tasa % 12,2koa izan zen (2022an % 13koa).

Prezioei dagokienez, 2023aren itxieran (abendutik abendura), KPIaren urte arteko aldakuntza % 3,1ekoa izan zen (aurreko ekitaldiaren itxieran, % 5,7koa zen). Urteko batezbestekoa, berriz, % 3,5ra jaitsi zen (2022ko batezbestekoa % 8,4koa izan zen).

Azkenik, aurrekontuen gauzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoek BPGaren -% 3,66ko defizita izan zuten 2023an (finantza-erakundeei emandako laguntza barne), aurreko ekitaldiko emaitza baino ehuneko puntu bat baxuagoa (2022an -% 4,73ko defizita izan zen).

### Agregatu makroekonomiko nagusiak

2023ko ondoz ondoko hiruhilekoetan zehar, Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa apaltzen joan zen pixkanaka, baina azken hiruhilekoan apur bat igo zen. Estatuko BPGaren urte arteko aldakuntza % 4koa izan zen lehen hiruhilekoan, % 2koa bigarrenean, % 1,9koa hirugarrenean eta % 2,1ekoa laugarrenean.

Txosten honen aurreko edizioetan egin bezala, jarraian ikuspegi hauen arabera aztertuko dugu jardueraren bilakaera: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2023an, Estatuko guztizko BPGa 1.461.889 milioi eurokoa[1] izan zen. Azkeneko kontsumoari dagozkio 1.104.693 milioi (797.480 familiena, 15.586 familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 291.627

[1] Prezio korronteak.

administrazio publikoena), inbertsioari 281.917 (152.675 eraikuntzan, 78.504 ekipo-ondasunetan, 3.590 landatutako baliabide biologikoetan eta 47.148 jabetza intelektualaren produktuetan) eta izakinen aldakuntzari 14.998. Hala, barne-eskaria 1.401.608 milioi eurokoa izan zen. Esportazioak (569.493 milioi euro) eta inportazioak (509.212 milioi euro) ere kontuan izanda, haien arteko aldea kanpo-eskaria izanik, guztizko eskaria kalkulatzen da.

- Barne-eskariak hazkunde orokorrari egindako ehuneko 1,7 puntuko ekarpen positiboari, kanpo-eskariak egindako ehuneko 0,8 puntuko ekarpen positiboa gehitu behar zaio. Barne-eskariari dagokionez, kontsumo pribatuaren hazkundea nabarmen apaldu zen (2023an % 1,8ko hazkundea eta 2022an % 4,8koa), kontsumo publikoa hazi egin zen (% 3,8, eta aurreko ekitaldian -% 0,2) eta inbertsioaren hazkundea % 0,8ra jaitsi zen (2022an % 2,4koa izan zen).
- Sektorearen araberako banaketari erreparatuta, 34.240 milioi euro dagozkio lehen sektoreari, 222.578 milioi euro industriari, 73.322 milioi euro eraikuntzari eta 1.001.822 milioi euro hirugarren sektoreari. Zifra horiei zerga garbiak (129.927 milioi euro) gehituta, guztizko ekoizpena kalkulatzen da.
- Lehenengo sektorea izan zen 2023 behera egin zuen bakarra, -% 1,9 (2022an -% 19,8ko jaitsiera). Lau sektore handietako gainerako hirurak hazi egin ziren, baina aurreko ekitaldian baino neurri txikiagoan. Industriaren kasuan, 2022an % 2,6 hazi zen, eta 2023an % 1,8; eraikuntzaren hazkundea % 3,2tik % 2,3ra pasatu zen, eta, zerbitzuena, % 8tik % 3,2ra.

**18. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)**

*(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)*

| | Eragiketak | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| ESKARIA | Azken kontsumoaren gastua | 3,4 | 2,3 |
| | – Etxebizitzena | 4,8 | 1,8 |
| | – EZIAGGE-ena | -0,2 | 2,2 |
| | – Administrazio publikoena | -0,2 | 3,8 |
| | Kapital finkoaren eraketa gordina | 2,4 | 0,8 |
| | – Eraikuntza | 2,6 | 2,3 |
| | – Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak | 1,9 | -1,6 |
| | Izakinen aldakuntza* | -0,2 | -0,3 |
| | Barne-eskaria* | 2,9 | 1,7 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 15,2 | 2,3 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 7,0 | 0,3 |
| **Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan** | | **5,8** | **2,5** |
| ESKAINTZA | Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | -19,8 | -1,9 |
| | Industria | 2,6 | 1,8 |
| | Eraikuntza | 3,2 | 2,3 |
| | Zerbitzuak | 8,0 | 3,2 |
| | Produktuen gaineko zerga garbiak | 4,1 | -0,2 |

*(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.*
*Iturria: EIN.*

Errentaren ikuspegitik, 2023an, guztizko BPGaren % 47,9 hartu zuen soldatapekoen ordainketak, % 42,4 ustiapenaren soberakin gordinak eta, gainerako % 9,7a, ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek.

**19. koadroa Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)**

*(% Δ nominala)*

| Eragiketak | 2021 | 2022 | 2023 | 2023 (M eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| Soldatapekoen ordainketa [(1)] | 6,9 | 7,3 | 8,8 | 699.684 |
| Ustiapenaren soberakin gordina[(2)] | 8,8 | 15,1 | 8,4 | 619.254 |
| Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak[(3)] | 24,0 | 4,4 | 8,4 | 142.951 |
| Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan[(4)] | 9,2 | 10,2 | 8,6 | 1.461.889 |

*(4) =(1)+(2)+(3).*
*Iturria: EIN.*

## Kanpo-merkataritza

Ziurgabetasunez betetako nazioarteko testuinguruan, Estatuko esportazioen eta inportazioen hazkundea nabarmen jaitsi zen. Zehazki, kanpo-salmenten hazkundea % 15,2koa izan zen 2022an, eta % 2,3koa izatera pasatu zen 2023an. Kanpo-erosketen hazkundea, berriz, % 7tik % 0,3ra jaitsi zen.

Hala, esportazioen hazkundea inportazioena baino gehiago murriztu zela kontuan izanda, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egindako ekarpena ehuneko 0,8 puntu positibora jaitsi zen (2022an ehuneko 2,9 puntu positibokoa izan zen). Hiruhilekoaren arabera, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egindako ekarpen positiboa ehuneko 2,7 puntukoa izan zen lehen hiruhilekoan, 0,1ekoa bigarrenean, 0,5ekoa hirugarrenean eta hutsa laugarrenean.

## Laneko prezioak eta kostuak

2023an zehar, prezioen hazkundeak beheranzko joera izan zuen estatu mailan, baina bi fase bereizi ziren (lehenengo eta bigarren seihilekoa). Hala, honako hauek izan zien Estatuko KPIaren urte arteko aldakuntzak: urtarrilean % 5,9, otsailean % 6, martxoan % 3,3, apirilean % 4,1, maiatzean % 3,2, ekainean % 1,9, uztailean % 2,3, abuztuan % 2,6, irailean eta urrian % 3,5, azaroan % 3,2 eta abenduan % 3,1.

Gauzak hala, 2023aren amaieran (abendutik abendurako urte arteko tasa) % 3,1era jaitsi zen inflazioa (2022aren amaieran, % 5,7). Aldi berean, prezioen batez besteko hazkundea % 3,5ra murriztu zen 2023an (aurreko ekitaldian % 8,4). Dena den, kontuan izan behar da azpiko inflazioak igotzen jarraitu zuela, % 6ra arte (2021ean % 0,8 eta 2022an % 5,2). Hain zuzen ere, elikaduraren kategoriako prezioen hazkundea % 11,1era igo zen.

ELGAren arabera, 2023an Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumo-prezioen indizearen aldakuntzaren bidez neurtua) % 5,4koa izan zela kontuan izanda (2022an % 8,4koa), euroa duten herrialdeen blokea baino ehuneko -1,9 puntu baxuagoa izan zen Espainiako ekonomia (aurreko ekitaldian ez zen alderik izan).

Ondasunen taldeei dagokienez, honako hauek bereziki inflazio handia izan zuten: elikagaiak eta alkoholik gabeko elikagaiak, alkoholdun edariak eta tabakoa, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (% 11,7, % 7,6 eta % 6,8, hurrenez hurren). Jarraian, honakoak kokatu ziren: etxeko tresneria (% 5), beste batzuk (% 4,7), aisialdia eta kultura (% 4,4), komunikazioak (% 3,1), jantziak eta oinetakoak (% 2,2) irakaskuntza (% 2) eta osasuna (% 1,9). Aitzitik, 2023an behera egin zuten garraioaren eta, bereziki, etxebizitzaren prezioek (-% 0,4 eta -% 11, hurrenez hurren).

**20. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI)**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| KPI | | | |
| – Indize Orokorra(1) | 6,5 | 5,7 | 3,1 |
| – Indize Orokorra(2) | 3,1 | 8,4 | 3,5 |
| Elikagaiak | 1,7 | 10,7 | 11,1 |
| Elikagaiak ez direnak | 3,6 | 7,6 | 1,0 |
| Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak | 1,8 | 11,6 | 11,7 |
| Alkoholdun edariak, tabakoa | 0,3 | 3,9 | 7,6 |
| Jantziak eta oinetakoak | 1,0 | 2,7 | 2,2 |
| Etxebizitza | 11,1 | 15,5 | -11,0 |
| Etxeko tresneria | 0,9 | 6,3 | 5,0 |
| Osasuna | 0,7 | 1,1 | 1,9 |
| Garraioak | 7,3 | 12,1 | -0,4 |
| Komunikazioak | -3,0 | -1,3 | 3,1 |
| Aisialdia eta Kultura | 0,2 | 2,8 | 4,4 |
| Irakaskuntza | 0,2 | 1,2 | 2,0 |
| Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 0,9 | 6,4 | 6,8 |
| Beste batzuk | 1,0 | 3,5 | 4,7 |
| Azpikoa | 0,8 | 5,2 | 6,0 |
| IPRI | | | |
| – Indize orokorra | 17,3 | 35,5 | -4,7 |
| Kontsumo-ondasunak | 3,3 | 10,8 | 10,3 |
| Ekipo-ondasunak | 2,1 | 5,4 | 3,3 |
| Bitarteko ondasunak | 13,2 | 20,0 | -2,2 |
| Energia | 42,7 | 84,8 | -19,9 |

*(1): Abendutik abendura.*
*(2): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*Iturria: EIN.*

Industriako prezioei dagokienez, 2023an -% 4,7 murriztu zen indize orokorra, aurreko ekitaldian hazkunde handia izan ondoren (% 35,5). Energiaren prezioek (-% 19,9) eta, neurri txikiagoan, bitarteko ondasunek (-% 2,2) izandako jaitsierek eragin zuten indize orokorra jaistea. Izan ere, kontsumo-ondasunen eta ekipo-ondasunen prezioek gora egin zuten,

baina aurreko ekitaldian baino gutxiago (2023an % 10,3 eta % 3,3 eta 2022an % 10,8 eta % 5,4, hurrenez hurren).

2023an laneko kostuek izandako bilakaerari dagokionez, laneko kostu unitarioa nabarmen hazi zen, % 6,1 (2022an % 0,9ko hazkundea). Izan ere, produktibitatea -% 0,7 jaitsi zen, enplegu baliokidea (% 3,2) gehiago hazi zelako jarduera baino (% 2,5), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketa % 5,4 hazi zen.

**21. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| BPG erreala | 6,4 | 5,8 | 2,5 |
| Enplegua guztira* | 7,1 | 3,7 | 3,2 |
| Produktibitatea | -0,7 | 2,1 | -0,7 |
| Soldatapekoen ordainketa | 6,9 | 7,3 | 8,8 |
| Soldatapeko enplegua* | 6,4 | 4,3 | 3,4 |
| Soldatapeko bakoitzeko ordainketa | 0,5 | 3,0 | 5,4 |
| Lan-kostu unitarioa | 1,2 | 0,9 | 6,1 |

*(*): Kontabilitate Nazionaleko enpleguaren datuak erabili dira: Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.*
*Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.*

## Lan-merkatua

Hazkunde ekonomikoa desazeleratu bazen ere, 2023an gora egin zuen okupazioak, eta behera langabeziak. Ondorioz, langabezia-tasa murriztu egin zen.

Zehazki, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboa Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria okupatuak % 3,1 egin zuen gora 2023an (2022an, % 3,6). Biztanleria aktiboaren guztizkoak, berriz, % 2,1 egin zuen gora.

Hala, jarduera-tasa apur bat hazi zen: 2022an % 58,5ekoa zen, eta 2023an % 58,9koa. Gizonen tasa ez zen aldatu (% 63,9 bi ekitaldietan), eta emakumeenak gora egin zuen (% 53,4tik % 54ra).

Sektorearen arabera, 2023an % 3,1 hazi zen okupazioa, 21.182.200 langilera iritsi arte. Sektore guztiek egin zuten gora, lehen sektoreak izan ezik (-% 3,9). Zerbitzuen sektoreko langile kopuruak % 3,8 egin zuen gora, eraikuntzakoak % 3,2 eta industriakoak % 1,3.

Horrekin lotuta, kontuan izan behar da, termino absolutuei dagokienez, zerbitzuek izan zutela sektoreko enpleguaren hazkunderik handiena (2022an baino 587.500 pertsona okupatu gehiago). Hala, 2023an sortutako enpleguaren % 90 baino gehiago zerbitzuen sektoreari zegokion.

**22. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2023 | % ∆ 2021 | % ∆ 2022 | % ∆ 2023 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa | 24.119,7 | 2,5 | 1,4 | 2,1 |
| Biztanleria okupatua | 21.182,2 | 3,3 | 3,6 | 3,1 |
| – Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza | 767,3 | 6,9 | -2,4 | -3,9 |
| – Industria | 2.814,5 | 0,5 | 2,5 | 1,3 |
| – Eraikuntza | 1.398,0 | 5,7 | 3,0 | 3,2 |
| – Zerbitzuak | 16.202,4 | 3,4 | 4,2 | 3,8 |
| Biztanleria langabetua | 2.937,5 | -1,5 | -11,4 | -4,6 |
| Langabezia-tasa* | 12,2 | -4,0 | -12,6 | -6,5 |

*(*): Biztanleria aktiboaren %.*
*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2024ko maiatzeko datuak).*

Biztanleria okupatuaren esparruan, soldatapeko langileak % 3,4 ugaritu ziren, eta soldatapekoak ez zirenak, % 1,3. Kontratu motaren arabera, 2023an % 8,8 hazi zen kontratu mugagabea zuten soldatapeko pertsonen kopurua. Aldiz, aldi baterako kontratua zuten pertsonen kopurua -% 16,4 jaitsi zen. Hori lotuta dago lanean egonkortasun handiagoa bilatzen duen lan-merkatuaren erreformarekin. Lanaldi motaren arabera, hazkunde handiagoa izan zuen lanaldi oso enpleguak (% 3,4) lanaldi partzialekoak baino (% 1,2). Bilakaera hori ere lotuta dago aipatutako erreformarekin.

Biztanleria langabetua -% 4,6 murriztu zen 2023an, eta 2.937.500 langabetu zenbatu zituzten. Hala, langabezia-tasa % 12,2ra jaitsi zen 2023an (2022ean % 13koa zen), baina Europako altuenetakoa izaten jarraitu zuen.

**23. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2023 | % Δ 2021 | % Δ 2022 | % Δ 2023 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria okupatua | 21.182,2 | 3,3 | 3,6 | 3,1 |
| Soldatapekoak | 17.963,0 | 3,4 | 4,3 | 3,4 |
| – Sektore pribatua | 14.440,0 | 3,3 | 5,0 | 3,9 |
| – Sektore publikoa | 3.522,9 | 3,8 | 1,3 | 1,6 |
| Soldatapekoak ez direnak* | 3.219,2 | 2,6 | 0,2 | 1,3 |
| – Enplegu-emaileak | 1.019,8 | 7,2 | 4,4 | 2,6 |
| – Autonomoak | 3.212,2 | 2,3 | 0,2 | 1,5 |
| – Kooperatibistak | 24,6 | 17,5 | 2,7 | -8,6 |
| – Familia-laguntza | 63,4 | 18,9 | -7,2 | -18,2 |
| Soldatapekoak, kontratu mugagabea | 14.865,6 | 1,8 | 9,7 | 8,8 |
| Soldatapekoak, aldi baterako kontratua | 3.097,4 | 8,5 | -11,9 | -16,4 |
| Lanaldi osoko okupazioa | 18.363,6 | 3,5 | 4,0 | 3,4 |
| Lanaldi partzialeko okupazioa | 2.818,6 | 2,0 | 1,2 | 1,2 |

*(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.*
*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2024ko maiatzeko datuak).*

### Sektore publikoa eta interes-tasak

2024ko martxoaren amaieran Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak emandako informazioaren arabera, 2023an BPGaren -% 3,66 adinako defizita erregistratu zuten administrazio publikoek (finantza-erakundeei emandako laguntzak kontuan hartuta). Hala, ehuneko puntu bat baino gehiago hobetu zen aurreko ekitaldian erregistratutako saldo negatiboa: -% 4,73ko defizita 2022an.

Erakundeak kontuan hartuta, 2023an denek izan zuten saldo defizitarioa haien kontuetan. Administrazio Zentralak izan zuen defizit handiena (-% 2,11) eta, jarraian, Autonomia Erkidegoek (-% 0,91), Gizarte Segurantzak (-% 0,56) eta Tokiko Udalbatzek (-% 0,09). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, saldo defizitarioa murriztu egin zuten Administrazio Zentralak, Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Udalbatzek. Aldiz, Gizarte Segurantzaren saldo defizitarioa hazi egin zen.

**24. koadroa Defizit publikoa**

*(BPGaren %)*

| Kontzeptua | 2022 | 2023 |
|---|---|---|
| Administrazio zentrala | -3,06 | -2,11 |
| Autonomia-erkidegoak | -1,12 | -0,91 |
| Tokiko udalbatzak | -0,11 | -0,09 |
| Gizarte Segurantza | -0,44 | -0,56 |
| **Finantza-laguntza duten Administrazio Publikoak guztira** | **-4,73** | **-3,66** |

*Iturria: Ogasun Ministerioa (2024ko martxoak 21).*

Azkenik, gogoratu 2023aren itxieran Europako Banku Zentralaren eta Erreserba Federalaren erreferentziazko tasak % 4,5era igo zirela, bi kasuetan, inflazioa gelditzeko egindako jarduketa ugarien ondoren.

**7. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala**




*Iturria: EBZ, Erreserba Federala*

### Aurreikuspenak

Egungo ziurgabetasun maila altuak, batez ere gerra gatazken luzapenak (Errusia-Ukraina eta Israel-Hamas) eta horien ondoriozko tentsio geopolitikoek eragindakoak, zalantzazko agertokia uzten digute etorkizunerako. Gainera, inflazioaren aurkako borroka ezin da amaitutzat jo. Hortaz, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak 2024ko apirilaren erdialdean argitaratutako agertoki makroekonomikoaren arabera, Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoak jaisten jarraituko du 2024an eta 2025ean.

Hala, aurreikuspenen arabera, 2024an BPGa % 2 haziko da (2025ean % 1,9), lanaldi osoko enplegu baliokidea % 2,4 haziko da (2025ean % 1,7) eta langabezia-tasa % 11 ingurura jaitsiko da (2024an % 11,2 eta 2025ean % 10,7).

**25. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2024)**

| Kontzeptua | Urte arteko aldakuntza-tasa |
|---|---|
| **BPG eta ESKARI-AGREGATUAK** | |
| Nazio mailako azken kontsumo pribatuaren gastua | 2,4 |
| Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua. | 1,3 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina | 2,8 |
| – Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | 2,1 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 1,7 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 2,7 |
| – Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | -0,1 |
| – BPG | 2,0 |
| **LAN MERKATUA** | |
| – Enpleguaren aldakuntza %-tan(*) | 2,4 |
| – Langabezia-tasa | 11,2 |

*(*): Lanaldi osoko enplegua edo baliokidea*
*Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa (2024ko apirilak 16).*

# 3. IKUSPEGI OROKORRA

Nazioartean apaldu egin zen hazkunde ekonomikoaren erritmoa eta, testuinguru horretan, EAEko BPGaren hazkunde-erritmoa % 1,8ra jaitsi zen 2023an, aurreko bi urteetan erregistratutako igoera nabarmenen ondoren: 2021ean % 6 eta 2022an % 5,4.

**26. koadroa Bilakaera orokorra**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | | |
| – BPG | 2,2 | -9,6 | 6,0 | 5,4 | 1,8 |
| – Enplegua | 1,4 | -2,0 | 3,2 | 2,2 | 2,9 |
| – Langabezia-tasa(1) | 9,2 | 9,5 | 10,3 | 8,9 | 7,7 |
| – KPI(2) | 1,2 | -0,3 | 6,4 | 5,4 | 3,1 |
| **NAFARROA** | | | | | |
| – BPG | 2,7 | -8,3 | 5,9 | 4,3 | 1,9 |
| – Enplegua | 2,4 | -3,6 | 2,7 | 3,4 | 1,1 |
| – Langabezia-tasa(1) | 8,2 | 10,1 | 10,7 | 9,7 | 9,9 |
| – KPI(2) | 1,3 | -0,6 | 6,6 | 6,4 | 2,9 |
| **ESPAINIA** | | | | | |
| – BPG | 2,0 | -11,2 | 6,4 | 5,8 | 2,5 |
| – Enplegua | 2,3 | -2,9 | 3,3 | 3,6 | 3,1 |
| – Langabezia-tasa(1) | 14,1 | 15,5 | 14,9 | 13,0 | 12,2 |
| – KPI(2) | 0,8 | -0,5 | 6,5 | 5,7 | 3,1 |

*(1): Biztanleria aktiboaren %.*
*(2): Aldakuntza abendutik abendura.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria Oinarria, 2021).*

Hala, aintzat hartuta EAEko hazkundea handiagoa izan zela Eurogunekoa baino (% 0,5eko hazkunde txikia, ELGAren arabera), 2023an aurrera jarraitu zuen Europako ekonomia nagusiekin bat etortzeko prozesuak.

Bestetik, BBVA Research behatokiak 2024ko martxoan egindako aurreikuspenen arabera, 2023an Espainiako autonomia-erkidego guztiak hazi ziren, modu orokortuan. Hazkunde handienak Madrilgo Erkidegoak (% 3,3), Balear eta Kanariar Uharteek (% 3 bi kasuetan) eta Kataluniak (% 2,9) izan zituzten. Aitzitik, Gaztela eta Mantxako (% 1,9), Kantabriako (% 1,8) eta Nafarroako (% 1,6; Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, % 1,9) ekonomiak hazi ziren gutxien.

Lan-merkatuari dagokionez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2023an % 2,5 igo zen okupazio-tasa Euskal Herrian (% 2,9 EAEn eta % 1,1 Nafarroan). Estatuan apur bat handiagoa izan zen hazkundea (% 3,1).

Agertoki horretan, Foru Erkidegoan izan ezik, langabezia-tasak behera egin zuen oro har: Euskal Herriko langabezia-tasa % 9,1ekoa zen 2022an eta % 8,3ra jaitsi zen 2023an (% 8,9tik % 7,7ra jaitsi EAEn, baina % 9,7tik % 9,9ra igo zen Nafarroan). Estatu mailan, berriz, 2022an % 13koa izatetik 2023an % 12,2koa izatera igaro zen.



LABORAL kutxa

8. grafikoa BPGaren bilakaera




*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.*

Prezioei dagokienez, 2021aren amaieran gora egiten hasi ziren, eta igoera hori indartu egin zen 2022an, Errusiak Ukraina inbaditu izanaren eta horrek sortu zituen tentsio geopolitikoen ondorioz. 2023an, berriz, prezioen hazkunde-erritmoa apaldu egin zen. Hala, 2023an, inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) % 3,1era jaitsi EAEn eta Estatuan, eta % 2,9ra Nafarroan (2022aren itxieran % 5,4, % 5,7 eta % 6,4, hurrenez hurren).

Azkenik, aipatzekoa da 2024ko lehen hiruhilekoan EAEko BPGak urte arteko % 1,7ko hazkundea izan zuela. Hala, mantendu egin zen aurreko bi hiruhilekoetan izandako hazkunde-erritmoa (% 1,7koa, 2023ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan). Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2024ko ekainean egindako aurreikuspenetan % 1,9ko hazkundea aurreikusi du ekitaldi honetarako, eta hazkunde handiagoa, % 2,1ekoa, 2025erako.

## 3.1 PRODUKZIOA

2023an hazkunde ekonomikoa murriztu egin zen EAEn, Nafarroan eta Estatuan. BPGaren hazkundea % 1,8ra mugatu zen EAEn (aurreko ekitaldian % 5,4), % 1,9ra Foru Erkidegoan (aurreko ekitaldian % 4,3) eta % 2,5era Estatuan (aurreko ekitaldian % 5,8).

**27. koadroa Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **EAE (*)** | | | |
| – Nekazaritza | 15,1 | -8,7 | -3,0 |
| – Industria | 5,3 | 4,7 | 0,3 |
| – Eraikuntza | 1,0 | 6,7 | 2,1 |
| – Zerbitzuak | 6,6 | 5,9 | 2,4 |
| – Guztira | 6,0 | 5,4 | 1,8 |
| **NAFARROA(*)** | | | |
| – Nekazaritza | 2,1 | 2,3 | 3,4 |
| – Industria | 6,5 | 3,5 | 0,4 |
| – Eraikuntza | 4,3 | 4,3 | 0,9 |
| – Zerbitzuak | 6,1 | 5,2 | 2,6 |
| – Guztira | 5,9 | 4,3 | 1,9 |
| **ESPAINIA(*)** | | | |
| – Nekazaritza | 4,2 | -19,8 | -1,9 |
| – Industria | 5,4 | 2,6 | 1,8 |
| – Eraikuntza | -1,0 | 3,2 | 2,3 |
| – Zerbitzuak | 6,8 | 8,0 | 3,2 |
| – Guztira | 6,4 | 5,8 | 2,5 |

*(*): Oinarrizko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Hiruhilekoen arabera aztertuz gero, EAEko ekonomia hiruhilekoz hiruhileko indarra galtzen joan zela ikus daiteke. Hala, urte arteko aldakuntza-tasa % 2,4koa izan zen lehen hiruhilekoan, % 1,5ekoa bigarrenean eta % 1,7koa hirugarrenean eta laugarrenean. Era berean, Nafarroako BPGaren hazkunde-erritmoa ere jaisten joan zen pixkanaka. Honako urte arteko hazkundeak izan ziren, hiruhilekoz hiruhileko: % 2,4, % 2, % 1,7 eta % 1,5, hurrenez hurren.

Eskaintzaren ikuspegitik, aintzat hartutako hiru eremu geografikoetan lau sektore handiek gora egin zuten 2023an, modu orokortuan, EAEko eta Estatuko lehen sektorearen kasuan izan ezik.

EAEn, lehen sektorea -% 3 murriztu zen (2022an -% 8,7). Aldiz, zerbitzuak % 2,4 hazi ziren (aurreko ekitaldian % 5,9), eraikuntza % 2,1 (aurreko ekitaldian % 6,7) eta industria-sektorea oso gutxi hazi zen, % 0,3 (aurreko urtean % 4,7).

Nafarroan (eremu honetan orokorra izan zen hazkundea), lehen sektoreak izan zuen hazkunderik handiena, eta zerbitzuak, eraikuntza eta industria izan ziren hurrengoak. Hurrenez hurren, % 3,4, % 2,6, % 0,9 eta % 0,4ko hazkundeak izan zituzten (% 2,3, % 5,2, % 4,3 eta % 3,5eko hazkundeak 2022an, hurrenez hurren).



LABORAL kutxa

Industria-sektoreari dagokionez, 2023an oso gutxi hazi zen Industria Produkzioaren Indizea (IPI) EAEn (% 0,2, eta aurreko ekitaldian % 5,7). Nafarroan, berriz, -% 5,5 murriztu zen (% 4,3ko hazkundea 2022an).

Hala, industriako enpleguak % 0,4ko igoera apala izan zuen EAEn (Eustaten BJAren arabera, -% 0,1) eta jaitsiera-erritmoa -% 1,6ra murriztu zen Foru Erkidegoan (-% 3,1 aurreko ekitaldian). Halaber, aipatu beharrekoa da azken eremu horretan industria-giroaren saldo negatiboa murriztu egin zela apur bat (2023an -1 eta 2022an -2). Dena den, egungo eskaeren saldo negatiboa hazi egin zen (-8, eta aurreko ekitaldian -6) eta aurreikusitako eskaeren saldo positiboak gora egin zuen (11, eta 2022an 3).

**28. koadroa Industria Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (1) | 10,4 | 5,7 | 0,2 |
| – Industria-enplegua(2) | 8,4 | -3,3 | 0,4 |
| – Industria-enplegua(3) | 0,3 | -2,4 | -0,1 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (1) | 10,5 | 4,3 | -5,5 |
| – Industria-giroa(4) | 1 | -2 | -1 |
| – Egungo eskaerak(4) | -4 | -6 | -8 |
| – Aurreikusitako eskaerak(4) | 10 | 3 | 11 |
| – Industria-enplegua(2) | 3,7 | -3,1 | -1,6 |

*(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*(2): EIN.*
*(3): BJA (Eustat)*
*(4): Erantzunen saldoak.*
*Iturria: Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

Eraikuntzari dagokionez, EAEko ekoizpen-indizearen hazkunde-erritmoa % 5,6ra jaitsi zen 2023an (aurreko ekitaldian % 8,3), hazkunde txikiagoa izan zutelako etxegintzak (% 5,1eko hazkundea, eta 2022an % 6,5ekoa) eta, bereziki, obra zibilak (% 8,8ko hazkundea, eta aurreko ekitaldian % 19,9koa). Bestetik, lizitazio ofiziala, hasitako etxebizitzak eta amaitutako etxebizitzak nabarmen jaitsi ziren (-% 27,6, -% 30,6 eta -% 47,7, hurrenez hurren). Hala ere, sektoreko enplegua % 5,8 hazi zen (Eustaten BJAren arabera, -% 2,9ko jaitsiera).

Nafarroan, hasitako eta amaitutako etxebizitzen jaitsiera-erritmoa areagotu egin zen 2023an (-% 40,5 eta -% 28,7; eta 2022an -% 10 eta -% 18,5). Aldiz, lizitazio ofizialaren hazkunde-erritmoa murriztu egin zen (% 15,1, eta aurreko ekitaldian % 19,9). Hala, Nafarroako sektoreko enpleguaren hazkundea eten egin zen, eta -% 16,9 murriztu zen.

**29. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Ekoizpen-indizea [1] | 7,8 | 8,3 | 5,6 |
| – Etxegintza | 8,4 | 6,5 | 5,1 |
| – Obra zibila | 4,3 | 19,9 | 8,8 |
| – Zementuaren itxurazko kontsumoa* | 10,6 | 2,8 | -4,3 |
| – Lizitazio ofiziala[2] | 89,6 | 54,2 | -27,6 |
| – Hasitako etxebizitzak[3] | 6,3 | 25,6 | -30,6 |
| – Amaitutako etxebizitzak[3] | 12,9 | 15,0 | -47,7 |
| – Enplegua[4] | -9,2 | 15,3 | 5,8 |
| – Enplegua[5] | 5,8 | 9,2 | -2,9 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Zementuaren itxurazko kontsumoa* | 10,6 | 2,8 | -4,3 |
| – Lizitazio ofiziala[2] | 61,3 | 19,9 | 15,1 |
| – Hasitako etxebizitzak[3] | 12,6 | -10,0 | -40,5 |
| – Amaitutako etxebizitzak[3] | 22,6 | -18,5 | -28,7 |
| – Enplegua[4] | 19,2 | 11,3 | -16,9 |

*(*): Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

*(1): Eraikuntzaren koiunturazko indizea (EUSTAT). Oinarria 2015=100*

*(2): SEOPAN.*

*(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.*

*(4): EIN.*

*(5): BJA (Eustat)*

*Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Nafarroako Gobernua.*

Zerbitzuekin lotuta, gogoratu sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektorearen analisi bateratua egitea. Dena den, 2023an hazkundea nagusitu zen.

EAEn, aurreko urteetan baino hazkunde txikiagoa izan zuten aire-trafikoko bidaiariek, txikizkako merkataritzako salmentek eta portuetako salgaiek (% 24, % 0,9 eta % 0,6ko hazkundeak 2023an, eta % 100,7, % 2,9 eta % 3,9ko hazkundeak 2022an, hurrenez hurren). Dena den, sektoreko enplegua % 3,4 hazi zen 2023an (% 1,6 Eustaten BJAren arabera).

Era berean, Nafarroan, aire-trafikoko bidaiariek ere aurreko urtean baino hazkunde apalagoa izan zuten (% 14,5eko hazkundea, eta 2022an % 53,3koa). Nolanahi ere, Nafarroako sektoreko enplegua % 3,1 hazi zen.

**30. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Hoteletako gaualdiak | 73,4 | 54,2 | 12,0 |
| – Aire-trafikoko bidaiariak | 57,5 | 100,7 | 24,0 |
| – Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea | 3,5 | 2,9 | 0,9 |
| – Portuetako salgaiak | 6,6 | 3,9 | 0,6 |
| – Enplegua(1) | 2,7 | 2,7 | 3,4 |
| – Enplegua(2) | 1,3 | 3,3 | 1,6 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Hoteletako gaualdiak | 79,8 | 37,5 | 5,3 |
| – Aire-trafikoko bidaiariak | 33,9 | 53,3 | 14,5 |
| – Enplegua(1) | 1,1 | 6,0 | 3,1 |

*(1): EIN.*
*(2): BJA (Eustat)*
*turria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

## 3.2 ESKARIA

### Barne-eskaria

Hazkunde ekonomiko txikiagoko agertoki honetan (2023an % 1,8ra jaitsi zen EAEko BPGaren hazkunde-erritmoa; aurreko ekitaldian % 5,4koa izan zen), barne-eskariaren hazkundea % 1,7ra jaitsi zen (2022an % 6,7ko hazkundea).

Osagaien arabera, kontsumo pribatuaren zein inbertsioaren hazkunde-erritmoak egin zuen behera; % 1,5eko eta % 2,1eko hazkundeak izan zituzten horiek, eta 2022an % 7,7 eta % 8,7koak, hurrenez hurren. Aldiz, kontsumo publikoaren hazkundea % 1,8ra igo zen (aurreko ekitaldian % 0,7ko hazkundea).

**31. koadroa Barne-eskariaren adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo pribatua | 5,8 | 7,7 | 1,5 |
| – Kontsumo publikoa | 3,2 | 0,7 | 1,8 |
| – Kapital Eraketa Gordina | 5,9 | 8,7 | 2,1 |
| – Barne-eskaria | 5,3 | 6,7 | 1,7 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Kontsumo pribatua | 4,9 | 4,0 | 3,2 |
| – Kontsumo publikoa | 2,9 | -0,1 | 1,8 |
| – Kapital Eraketa Gordina | 8,0 | 4,6 | 1,4 |
| – Barne-eskaria* | 4,9 | 3,2 | 2,4 |

**Hazkunde orokorrari egindako ekarpena.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua.*

Era berean, Nafarroako ekonomiaren hazkunde-erritmoa ere apaldu egin zen 2023an (% 1,9, eta aurreko ekitaldian % 4,3). Barne-eskariak ehuneko 2,4 puntuko ekarpen positiboa egin zion hazkunde globalari (2022an ehuneko 3,2 puntu positiboko ekarpena). Osagaiei dagokienez, kontsumo pribatuaren eta, bereziki, inbertsioaren hazkunde-erritmoa murriztu egin zen (2023an % 3,2 eta % 1,4, eta aurreko ekitaldian % 4 eta % 4,6, hurrenez hurren). Kontsumo publikoak, berriz, goranzko joera berreskuratu zuen (2023an % 1,8, eta 2022an -% 0,1).

**32. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo-ondasunen IPIa(1) | 12,0 | 4,5 | 0,2 |
| – Turismoen matrikulazioa | -19,8 | -8,8 | 6,0 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | 6,8 | -13,1 | 15,6 |
| – KPI(2) | 6,4 | 5,4 | 3,1 |
| – Soldata-igoera(3) | 0,87 | 5,40 | 5,00 |
| – Ekipo-ondasunen IPIa(1) | 13,3 | 9,4 | 4,1 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Turismoen matrikulazioa | -18,7 | -7,0 | -0,8 |
| – KPI(2) | 6,6 | 6,4 | 2,9 |
| – Soldata-igoera(3) | 1,56 | 4,39 | 4,28 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | 8,9 | -13,0 | 11,4 |

*(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.*
*(3): Hitzarmenetan itundua.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa.*

## Kanpo-merkataritza

Hazkunde-ekonomikoaren moteltzearen aurrean, 2023an EAEko kanpo-merkataritzaren hazkundea eten egin zen: -% 0,2 jaitsi ziren esportazioak eta -% 9,7 inportazioak (% 25,7ko eta % 39,4ko hazkundeak aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Osagaien arabera, bilakaera nahiko ezberdina izan zen. Izan ere, kanpo-salmenta energetikoak



LABORAL kutxa

nabarmen jaitsi ziren (-% 31,8), eta ez-energetikoek gora egin zuten (% 2,8). Aldi berean, kanpo-erosketek, energetikoek zein ez-energetikoek, behera egin zuten; dena den, energetikoak neurri handiagoan jaitsi ziren (-% 20,2 eta -% 5,4, hurrenez hurren).

Zehazki, guztizko esportazioak 32.644,9 milioi eurokoak izan ziren (1.962,4 milioi euro energia-esportazioei dagozkie); hau da, urte arteko -% 0,2ko jaitsiera izan zuten. Guztizko inportazioak, berriz, 26.796,5 milioi eurokoak izan ziren (horietatik 6.825,4 milioi euro energia-inportazioei dagozkie), hau da, urte arteko -% 9,7ko beherakada izan zuten, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 5.848,4 milioi eurora arte hazi zen 2023an (2022an 3.059,8 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, nabarmen igo zen (% 121,8, eta aurreko ekitaldian % 110,3).

**33. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023* | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK, guztira | 26.021,9 | 32.721,4 | 32.644,9 | -0,2 |
| – Energia-esportazioak, guztira | 1.393,0 | 2.877,6 | 1.962,4 | -31,8 |
| – Esportazio ez-energetikoak, guztira | 24.628,9 | 29.843,7 | 30.682,6 | 2,8 |
| – INPORTAZIOAK, guztira | 21.282,4 | 29.661,6 | 26.796,5 | -9,7 |
| – Energia-inportazioak, guztira | 4.656,8 | 8.548,9 | 6.825,4 | -20,2 |
| – Inportazio ez-energetikoak, guztira | 16.625,6 | 21.112,7 | 19.971,1 | -5,4 |
| – SALDOA, GUZTIRA | 4.739,5 | 3.059,8 | 5.848,4 | 91,1 |
| **NAFARROA** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK, guztira | 9.620,8 | 10.769,5 | 10.174,6 | -5,5 |
| – INPORTAZIOAK, guztira | 5.742,1 | 7.360,8 | 6.999,4 | -4,9 |
| – SALDOA, GUZTIRA | 3.878,6 | 3.408,7 | 3.175,3 | -6,8 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

Merkataritza-bloke handiei dagokienez, Eurogunea jarraitu zuen EAEko kanpo-sektorearen merkataritza-bazkide nagusia izaten. Eurogunera egin ziren esportazioen % 54,2, eta handik egin ziren inportazioen % 44,7. Kontuan izan beharrekoa da Alemaniara eta Frantziara saltzen dela guztizkoaren % 30,7, eta handik erosten dela guztizkoaren % 22,8.

2023an trukatutako produktuei dagokienez, esportazioen % 47,4 makineria eta garraio-ekipamendua izan zen, eta % 30, berriz, manufaktura-artikuluak. Inportazioei dagokienez ere nabarmendu zen makineria eta garraio-ekipamendua (guztizkoaren % 25,7). Dena den, kasu honetan, honakoak kokatu ziren atzetik, oso gertu: erregai eta lubrikatzaile mineralak (% 25,5) eta manufaktura-artikuluak (% 22,1).

**34. koadroa** **EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023* | % | % Δ 23/22 | 2021 | 2022 | 2023* | % | % Δ 23/22 |
| **GUZTIRA (guztizkoak)** | **26.021,9** | **32.721,4** | **32.644,9** | **100,0** | **-0,2** | **21.282,4** | **29.661,6** | **26.796,5** | **100,0** | **-9,7** |
| HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 4.168,7 | 5.016,0 | 4.876,0 | 14,9 | -2,8 | 2.057,5 | 2.616,8 | 2.143,0 | 8,0 | -18,1 |
| – Alemania | 4.131,8 | 5.022,8 | 5.143,2 | 15,8 | 2,4 | 3.131,7 | 3.770,1 | 3.970,8 | 14,8 | 5,3 |
| – Italia | 1.377,2 | 1.757,2 | 1.830,6 | 5,6 | 4,2 | 1.148,3 | 1.348,8 | 1.326,5 | 5,0 | -1,7 |
| – Erresuma Batua | 1.701,7 | 1.979,4 | 2.042,1 | 6,3 | 3,2 | 680,6 | 985,3 | 581,1 | 2,2 | -41,0 |
| – Eurogunea | 14.669,8 | 18.456,3 | 17.704,6 | 54,2 | -4,1 | 9.723,5 | 11.987,7 | 11.973,9 | 44,7 | -0,1 |
| – ELGA | 22.094,0 | 27.719,8 | 27.910,3 | 85,5 | 0,7 | 14.376,5 | 19.087,2 | 18.443,9 | 68,8 | -3,4 |
| – Beste helmuga batzuk | 3.927,9 | 5.001,6 | 4.734,6 | 14,5 | -5,3 | 6.905,9 | 10.574,4 | 8.352,6 | 31,2 | -21,0 |
| SEKZIOEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Elikagaiak eta animalia biziak | 962,2 | 1.314,6 | 1.333,3 | 4,1 | 1,4 | 1.000,2 | 1.310,2 | 1.362,0 | 5,1 | 4,0 |
| – Edariak eta tabakoak | 270,4 | 293,0 | 278,2 | 0,9 | -5,1 | 49,4 | 39,3 | 50,0 | 0,2 | 27,2 |
| – Jateko ez diren erregai gordinak, erregaiak salbu | 385,7 | 450,0 | 364,4 | 1,1 | -19,0 | 2.005,5 | 2.352,2 | 1.902,2 | 7,1 | -19,1 |
| – Erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak | 1.393,0 | 2.877,6 | 1.962,4 | 6,0 | -31,8 | 4.656,8 | 8.548,9 | 6.825,4 | 25,5 | -20,2 |
| – Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak eta landareenak) | 258,0 | 406,4 | 447,1 | 1,4 | 10,0 | 271,2 | 457,5 | 337,3 | 1,3 | -26,3 |
| – Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak | 1.143,6 | 1.454,2 | 1.258,1 | 3,9 | -13,5 | 1.750,1 | 2.334,5 | 2.115,9 | 7,9 | -9,4 |
| – Artikulu manufakturatuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak | 8.529,6 | 10.692,8 | 9.787,0 | 30,0 | -8,5 | 5.081,0 | 6.694,4 | 5.919,6 | 22,1 | -11,6 |
| – Makineria eta garraio-ekipamendua | 11.862,4 | 13.530,8 | 15.481,3 | 47,4 | 14,4 | 5.213,1 | 6.280,7 | 6.881,3 | 25,7 | 9,6 |
| – Hainbat artikulu manufakturatu | 942,0 | 1.123,9 | 1.155,4 | 3,5 | 2,8 | 1.238,4 | 1.564,1 | 1.335,7 | 5,0 | -14,6 |
| – NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta elikagaiak | 275,0 | 578,1 | 577,7 | 1,8 | -0,1 | 16,8 | 79,9 | 66,9 | 0,2 | -16,3 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).*

Nafarroako kanpo-merkataritzaren kasuan ere, 2023ko joera nagusia atzerakada izan zen. Hala, kanpo-salmentek zein kanpo-erosketek egin zuten behera (-% 5,5eko eta -% 4,9ko beherakadak, eta aurreko ekitaldian % 11,9ko eta % 28,2ko hazkundeak, hurrenez hurren). Zehazki, Nafarroako esportazioak -% 5,5 murriztu ziren 2023an, 10.174,6 milioi eurora arte. Nafarroako inportazioak, berriz, -% 4,9 gutxitu ziren, 6.999,4 milioi eurora arte.

Gauzak hala, Nafarroako merkataritza-balantzaren saldo positiboa 3.175,3 milioi eurora murriztu zen 2023an (2022an 3.408,7 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, apur bat jaitsi zen (% 145,4, eta aurreko ekitaldian % 146,3). EAEren kasuan bezala, Nafarroarentzat ere Europa (EB-27) izan zen kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia. 2023an, Europara egin zituzten esportazioen % 73, eta handik inportatu zuten guztizkoaren % 74,5.

Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da Frantziara eta Alemaniara egin zirela kanpo-salmenten % 20,3 eta % 15,1, eta handik egin ziren kanpoko erosketen % 11,8 eta % 22,5, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2023an garraiorako materiala izan zen esanguratsuena, esportazioen % 36,2 eta inportazioen % 18,2 hartu baitzuen. Horrek neurri handian baldintzatu zuen Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera.

**35. koadroa** **Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023* | % | % ∆ 23/22 | 2021 | 2022 | 2023* | % | % ∆ 23/22 |
| **GUZTIRA (guztizkoak)** | **9.620,8** | **10.769,5** | **10.174,6** | **100,0** | **-5,5** | **5.742,1** | **7.360,8** | **6.999,4** | **100,0** | **-4,9** |
| HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 1.768,3 | 2.037,5 | 2.064,2 | 20,3 | 1,3 | 655,2 | 776,2 | 828,8 | 11,8 | 6,8 |
| – Alemania | 1.348,3 | 1.654,2 | 1.534,5 | 15,1 | -7,2 | 1.500,2 | 1.703,7 | 1.571,4 | 22,5 | -7,8 |
| – Italia | 757,2 | 971,4 | 872,0 | 8,6 | -10,2 | 368,8 | 456,9 | 461,3 | 6,6 | 1,0 |
| – Erresuma Batua | 603,1 | 599,1 | 490,3 | 4,8 | -18,2 | 69,8 | 117,0 | 96,5 | 1,4 | -17,5 |
| – Portugal | 471,0 | 605,3 | 637,9 | 6,3 | 5,4 | 250,8 | 314,3 | 275,0 | 3,9 | -12,5 |
| – EB-27 guztira | 6.033,3 | 7.611,5 | 7.428,0 | 73,0 | -2,4 | 4.292,8 | 5.334,3 | 5.214,8 | 74,5 | -2,2 |
| – Europako gainerakoak | 1.138,2 | 1.030,5 | 822,2 | 8,1 | -20,2 | 239,9 | 340,8 | 331,0 | 4,7 | -2,9 |
| – Estatu Batuak | 737,6 | 480,5 | 416,8 | 4,1 | -13,3 | 135,0 | 187,6 | 96,7 | 1,4 | -48,5 |
| – Beste helmuga batzuk | 1.711,7 | 1.647,0 | 1.507,6 | 14,8 | -8,5 | 1.074,4 | 1.498,1 | 1.356,9 | 19,4 | -9,4 |
| SEKTOREEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Lehen sektorea | 883,4 | 995,3 | 985,7 | 9,7 | -1,0 | 425,2 | 614,3 | 756,9 | 10,8 | 23,2 |
| – Nekazaritzako elikagaien industria | 609,5 | 656,6 | 726,3 | 7,1 | 10,6 | 225,3 | 251,9 | 249,0 | 3,6 | -1,2 |
| – Industria kimikoa | 178,2 | 265,8 | 211,9 | 2,1 | -20,3 | 637,7 | 798,1 | 587,0 | 8,4 | -26,5 |
| – Material plastikoak, kautxua | 393,2 | 460,1 | 439,9 | 4,3 | -4,4 | 322,4 | 386,5 | 368,4 | 5,3 | -4,7 |
| – Metal komunen manufaktura | 908,0 | 1.101,3 | 1.025,6 | 10,1 | -6,9 | 754,1 | 934,7 | 846,1 | 12,1 | -9,5 |
| – Makinak, material elektrikoa | 2.162,9 | 2.252,9 | 2.189,2 | 21,5 | -2,8 | 1.743,0 | 2.288,9 | 2.222,7 | 31,8 | -2,9 |
| – Garraiorako materiala | 3.739,2 | 4.110,6 | 3.681,2 | 36,2 | -10,4 | 999,8 | 1.227,8 | 1.271,0 | 18,2 | 3,5 |
| – Gainerakoak | 746,4 | 926,9 | 914,8 | 9,0 | -1,3 | 634,6 | 858,6 | 698,3 | 10,0 | -18,7 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

## 3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

2021aren amaieran hasitako prezioen goranzko dinamika nabarmen indartu zen 2022an zehar; bereziki, Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik eta horrek eragindako tentsio geopolitikoak agertu zirenetik. 2023an, ordea, prezioen hazkundearen erritmoa apaldu egin zen.

Hala, Brent upelaren prezioa % 19,2 jaitsi zen 2023an zehar. Prezioen urte arteko hazkundea jaitsi egin zen EAEn eta Nafarroan; ekitaldiaren hasieran ia % 6ko tasak zituzten, eta amaieran ia % 3koak.

Gauzak hala, 2023an metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 3,1ra jaitsi zen EAEn eta % 2,9ra Nafarroan (% 5,4 eta % 6,4 aurreko ekitaldiaren itxieran, hurrenez hurren). Ekitaldi osoko urteko batez besteko tasa % 3,6ra jaitsi zen bi eremu geografikoetan (2022an % 8koa izan zen EAEn eta % 8,8koa Foru Erkidegoan).

**36. koadroa Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| EAE | 2021 | 2022 | 2023 | NAFARROA | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KPI** | | | | **KPI** | | | |
| Orokorra(1) | 3,1 | 8,0 | 3,6 | Orokorra(1) | 3,4 | 8,8 | 3,6 |
| Orokorra(2) | 6,4 | 5,4 | 3,1 | Orokorra(2) | 6,6 | 6,4 | 2,9 |
| – Elik. eta alkoh. gabeko edariak | 4,7 | 15,1 | 6,8 | – Elik. eta alkoh. gabeko edariak | 5,1 | 15,9 | 7,3 |
| – Alkoholdun edariak, tabakoa | 1,7 | 6,9 | 2,8 | – Alkoholdun edariak, tabakoa | 0,7 | 7,7 | 3,5 |
| – Jantziak eta oinetakoak | 1,1 | 1,9 | 1,9 | – Jantziak eta oinetakoak | 1,1 | 3,5 | 1,7 |
| – Etxebizitza | 24,1 | -5,3 | -6,8 | – Etxebizitza | 24,6 | 0,1 | -6,3 |
| – Etxeko tresneria | 3,2 | 8,6 | 2,8 | – Etxeko tresneria | 3,0 | 9,8 | 1,8 |
| – Osasuna | 1,3 | 0,8 | 2,4 | – Osasuna | 1,9 | 1,2 | 2,2 |
| – Garraioak | 10,2 | 3,0 | 4,6 | – Garraioak | 10,2 | 4,6 | 4,1 |
| – Komunikazioak | -0,3 | -1,8 | 3,2 | – Komunikazioak | -0,4 | -2,0 | 2,7 |
| – Aisialdia eta Kultura | 1,5 | 4,3 | 3,0 | – Aisialdia eta Kultura | 4,0 | 4,3 | 2,0 |
| – Irakaskuntza | 1,6 | 1,9 | 2,2 | – Irakaskuntza | -5,5 | 2,4 | 3,2 |
| – Hotelak eta jatetxeak | 3,0 | 6,3 | 5,4 | – Hotelak eta jatetxeak | 3,1 | 6,2 | 5,4 |
| – Beste batzuk | 2,3 | 4,6 | 4,3 | – Beste batzuk | 2,0 | 4,1 | 3,2 |
| **Industria Prezioen Indizea (IPRI)** | | | | **Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea** | | | |
| Orokorra | 7,3 | 21,8 | -1,7 | Orokorra | 1,5 | 18,3 | 16,7 |
| Kontsumoa | 2,8 | 9,5 | 9,1 | Nekazaritza-produktuak | 5,2 | 22,9 | 9,4 |
| Ekipamendua | 0,1 | 4,2 | 5,1 | Baso-produktuak | 5,8 | 21,5 | 43,2 |
| Bitartekoak | 7,1 | 18,5 | 4,7 | Animalia-produktuak | -4,3 | 11,5 | 29,7 |
| Energia | 20,6 | 52,4 | -18,8 | | | | |

*(1): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*(2): Abendutik abendura.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Azterketa 2023ko abenduko urte arteko aldakuntzan zentratuta eta ondasunen taldeak kontuan hartuta, EAEn eta Nafarroan elikagaien eta alkoholik gabeko edarien prezioa igo



LABORAL kutxa

zen gehien (% 6,8 eta % 7,3, hurrenez hurren), eta jarraian, bi kasuetan hotelek eta jatetxeek (% 5,4 bietan) eta garraioek (% 4,6 eta % 4,1eko igoerak, hurrenez hurren) izan zituzten igoera handienak. Aitzitik, etxebizitzaren prezioaren hazkundea murriztu egin zen bi eremu geografikoetan (-% 6,8 eta -% 6,3, hurrenez hurren); hazkundea murriztu zuen talde bakarra izan zen.

Bestetik, EAEko prezio industrialek bilakaera homogeneoa izan zuten 2023an, jomuga ekonomikoaren arabera. Hala, indize orokorrak hazkunde negatiboa izan zuen (-% 1,7, eta aurreko ekitaldian % 21,8). Aldi berean, kontsumo-ondasunen eta bereziki bitarteko ondasunen prezioen hazkundea murriztu egin zen (2023an % 9,1 eta % 4,7, eta 2022an % 9,5 eta % 18,5, hurrenez hurren). Aldiz, ekipo ondasunen prezioaren hazkundea areagotu egin zen (% 5,1, eta aurreko urtean % 4,2). Energiaren prezioak, bestetik, hazkunde negatiboa izan zuen (-% 18,8, eta aurreko ekitaldian % 52,4).

Nafarroako nekazariek 2023an eskuratutako prezioei dagokienez, baso-produktuen eta animalia-produktuen prezioak aurreko urtean baino gehiago hazi ziren (% 43,2 eta % 29,7; eta 2022an % 21,5 eta % 11,5, hurrenez hurren). Aldiz, nekazaritza-produktuen prezioen hazkundea apaldu egin zen (% 9,4; eta aurreko ekitaldian % 22,9), baita indize orokorrarena ere (% 16,7ko eta % 18,3ko hazkundeak 2023an eta 2022an, hurrenez hurren).

**37. koadroa Soldata-adierazleak**

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | -2,4 | 2,8 | 4,2 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | 4,9 | 2,9 | 3,7 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 529 | 536 | 490 |
| – Eragina jasandako langileak | 256.449 | 294.091 | 313.823 |
| – Adostutako soldata-igoera | 0,87 | 5,40 | 5,00 |
| **NAFARROA** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | -1,9 | 2,5 | 5,5 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | 2,3 | 3,8 | 6,3 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 192 | 182 | 154 |
| – Eragina jasandako langileak | 97.424 | 116.777 | 108.271 |
| – Adostutako soldata-igoera | 1,56 | 4,39 | 4,28 |

*Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa (2024ko otsaileko hitzarmenetako datuak).*

Azkenik, laneko kostuei dagokienez, 2023an EAEn eta Foru Erkidegoan hazi egin zen soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko, baita soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko ere. Zehazki, lehenengoa % 4,2 eta % 5,5 hazi zen, hurrenez hurren, eta bigarrena % 3,7 eta % 6,3 hazi zen, hurrenez hurren. Tasa horiek, kasu guztietan, 2022koak baino handiagoak izan ziren.

## 3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

**Lan-merkatua Euskal Herrian**

2021ean eta 2022an erregistratutako jardueraren gorakada nabarmenaren ondoren, 2023an orokorra izan zen hazkunde ekonomikoa, baina aurreko ekitaldian baino nahiko txikiagoa. Nolanahi ere, okupazioak gora egin zuen EAEn, Nafarroan eta Estatuan. Langabetuen kopuruak, berriz, behera egin zuen eremu horietan, Nafarroan izan ezik, han hazi egin baitzen.

Lehenik eta behin, biztanleria aktiboa aztertuko dugu. 2023an % 1,6 hazi zen biztanleria aktiboa Euskal Herrian, eta 1.410.800 pertsonara iritsi zen. Horietatik 1.294,5 mila pertsona okupatuak ziren (aurreko ekitaldian baino % 2,5 gehiago) eta 116,4 mila pertsona langabezian zeuden (aurreko urtean baino -% 7,8 gutxiago). Halaber, estatu mailan ere hazi egin ziren biztanleria aktiboa (% 3,1) eta okupazioa (% 3) 2023an, eta langabetuen kopurua jaitsi egin zen (-% 4,6).

Sexuaren arabera, 2023an Euskal Herrian okupatuen igoeraren intentsitatea nahiko antzekoa izan zen gizonen eta emakumeen artean (% 2,7 eta % 2,3, hurrenez hurren). Estatu mailan, aldiz, emakume okupatuen kopurua gehiago hazi zen gizonena baino (% 4 eta % 2,4). Langabetu kopuruari dagokionez, Euskal Herrian zein Estatuan modu orokortuan egin zuen behera, bi sexuen kasuan. Gizonen artean gehiago jaitsi zen emakumeen artean baino, bai Euskal Herrian (-% 14,9 gizonak eta -% 0,2 emakumeak), bai Estatu osoan. Dena den, estatu mailan, aldea askoz ere txikiagoa izan zen (-% 5 eta -% 4,3, hurrenez hurren). Modu horretan, gizonen eta emakumeen artean hazi egin da biztanleria aktiboa, bai Euskal Herrian (% 1,2 eta % 2), bai estatu mailan (% 1,5 eta % 2,7, hurrenez hurren).

Gauzak hala, 2023an apur bat igo zen jarduera-tasa Euskal Herrian, % 57,3ra (aurreko ekitaldian % 57ekoa zen), EAEko hazkundeak eraginda (% 56,9, eta 2022an % 56,5). Izan ere, Nafarroan ia ez zen aldatu (% 58,7 2022an; %58,8 2023an). Estatu mailan, jarduera-tasa % 58,5tik (2022) % 58,9ra igo zen 2023an. Hala, 2023an apur bat hazi zen Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko aldea (2023an ehuneko 1,6 puntukoa zen, eta 2022an 1,5ekoa).

Sexua kontutan hartuta, Euskal Herrian jaitsi egin zen gizonen jarduera-tasa (% 62,1 2022an eta 2023an), eta igo egin zen emakumeena (% 52,8, eta 2022an % 52,2) eta Estatuan ere (% 63,9 2022an eta 2023an, eta % 54 eta % 53,4; hurrenez hurren). Sakonago aztertuta, Foru Erkidegoko jarduera-tasa EAEkoa baino handiagoa izan zela ikus daiteke, gizonen zein emakumeen kasuan. Estatuan, bestalde, gizonen eta emakumeen jarduera-tasak (% 63,9 eta % 54, hurrenez hurren) Euskal Herriakoak baino handiagoak izan ziren (% 62,1 eta % 52,8, hurrenez hurren).



LABORAL kutxa

Euskal Herriko langabetu kopurua aztertuko dugu orain. 2023an -% 7,8 murriztu zen, eta 116,4 mila pertsonara iritsi zen. Hala, jarraitu egin zuen 2022an hasitako murrizketa-ibilbideak, 2020an eta 2021ean pandemiaren eraginez erregistratutako igoera handien ostean. Zehazki, 2023an langabetuen kopurua -% 11,6 jaitsi zen EAEn, eta % 3,4 hazi zen Nafarroan. Bestetik, estatu mailan -% 4,6 murriztu zen langabetu kopurua.

Testuinguru horretan, 2023an jaitsi egin zen langabezia-tasa EAEn (% 8,9tik % 7,7era) eta Estatuan (% 13tik % 12,2ra). Nafarroan, berriz, hazi egin zen, (% 9,7tik % 9,9ra). Eta Euskal Herrian % 9,1etik % 8,3ra jaitsi zen. Gainera, Nafarroan izan ezik, aintzat hartutako eremu guztietan gizonen zein emakumeen artean egin zuen behera langabezia-tasak.

**38. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia**

*(urteko batezbestekoak, milakotan)*

| Eremua | | 2022 | | | 2023 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gizonak | Emakumeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
| EAE | Potentzialki aktiboak | 906,3 | 974,0 | 1.880,3 | 915,7 | 982,1 | 1.897,8 |
| | Aktiboak | 558,5 | 503,0 | 1.061,6 | 565,1 | 514,0 | 1.079,1 |
| | Okupatuak | 509,6 | 457,7 | 967,3 | 525,9 | 469,9 | 995,7 |
| | Langabeak | 48,9 | 45,4 | 94,3 | 39,2 | 44,2 | 83,4 |
| | Jarduera-tasa | 61,6 | 51,6 | 56,5 | 61,7 | 52,3 | 56,9 |
| | Langabezia-tasa | 8,8 | 9,0 | 8,9 | 6,9 | 8,6 | 7,7 |
| | Erregistratutako langabezia* | 47,8 | 63,0 | 110,8 | 46,5 | 61,3 | 107,8 |
| Nafarroa | Potentzialki aktiboak | 274,4 | 283,2 | 557,6 | 277,8 | 286,5 | 564,3 |
| | Aktiboak | 174,5 | 152,9 | 327,4 | 176,4 | 155,3 | 331,7 |
| | Okupatuak | 158,3 | 137,2 | 295,5 | 160,2 | 138,5 | 298,8 |
| | Langabeak | 16,2 | 15,7 | 31,9 | 16,2 | 16,8 | 33,0 |
| | Jarduera-tasa | 63,6 | 54,0 | 58,7 | 63,5 | 54,2 | 58,8 |
| | Langabezia-tasa | 9,3 | 10,3 | 9,7 | 9,2 | 10,8 | 9,9 |
| | Erregistratutako langabezia* | 12,7 | 18,9 | 31,6 | 12,0 | 18,0 | 30,0 |
| Euskal Herria | Potentzialki aktiboak | 1.180,7 | 1.257,2 | 2.437,9 | 1.193,5 | 1.268,6 | 2.462,1 |
| | Aktiboak | 733,0 | 655,9 | 1.389,0 | 741,5 | 669,3 | 1.410,8 |
| | Okupatuak | 667,9 | 594,9 | 1.262,8 | 686,1 | 608,4 | 1.294,5 |
| | Langabeak | 65,1 | 61,1 | 126,2 | 55,4 | 61,0 | 116,4 |
| | Jarduera-tasa | 62,1 | 52,2 | 57,0 | 62,1 | 52,8 | 57,3 |
| | Langabezia-tasa | 8,9 | 9,3 | 9,1 | 7,5 | 9,1 | 8,3 |
| | Erregistratutako langabezia* | 60,5 | 81,9 | 142,4 | 58,5 | 79,3 | 137,8 |
| Espainia | Potentzialki aktiboak | 19.620,4 | 20.746,9 | 40.367,3 | 19.914,2 | 21.068,5 | 40.982,7 |
| | Aktiboak | 12.543,9 | 11.082,8 | 23.626,7 | 12.734,8 | 11.384,9 | 24.119,7 |
| | Okupatuak | 11.114,6 | 9.432,9 | 20.547,5 | 11.376,7 | 9.805,5 | 21.182,2 |
| | Langabeak | 1.429,3 | 1.649,9 | 3.079,2 | 1.358,1 | 1.579,4 | 2.937,5 |
| | Jarduera-tasa | 63,9 | 53,4 | 58,5 | 63,9 | 54,0 | 58,9 |
| | Langabezia-tasa | 11,4 | 14,9 | 13,0 | 10,7 | 13,9 | 12,2 |
| | Erregistratutako langabezia* | 1.147,5 | 1.690,1 | 2.837,7 | 1.090,5 | 1.617,0 | 2.707,5 |

*(*): Abendua.*
*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2024ko maiatzeko datuak) eta SEPE.*

Puntu honetara iritsita, txostenaren aurreko edizioetan bezala, jarraian langabeziaren bilakaera aztertuko dugu, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, eskainitako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Horrekin lotuta, aipatutako iturriaren arabera, SEPEren Euskal Herriko bulegoetan 137,8 mila pertsona langabetu zeuden erregistratuta 2023ko abenduan, hau da, 2022ko amaieran baino % 3,2 gutxiago. Horietatik 107,8 mila pertsona EAEkoak ziren (urte arteko -% 2,7ko jaitsiera) eta 30 mila pertsona Nafarroakoak (urte arteko -% 5,1eko jaitsiera). Era berean, estatu mailan, 2023ko abenduan erregistratutako langabeziak -% 4,6 egin zuen behera, 2.707,5 mila pertsonara iritsi arte.

**39. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak**

*(%)*

| Eremua | Urtea | 16-19 | 20-24 | 25-54 | 55 eta gehiago | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2021 | 54,2 | 30,0 | 8,9 | 8,4 | 10,3 |
| | 2022 | 34,6 | 23,6 | 8,0 | 7,3 | 8,9 |
| | 2023 | 33,3 | 22,1 | 6,1 | 8,2 | 7,7 |
| Nafarroa | 2021 | 36,4 | 20,1 | 10,5 | 7,8 | 10,7 |
| | 2022 | 43,8 | 19,1 | 9,4 | 6,6 | 9,7 |
| | 2023 | 45,0 | 21,9 | 9,3 | 6,9 | 9,9 |
| Euskal Herria | 2021 | 51,2 | 27,4 | 9,2 | 8,3 | 10,4 |
| | 2022 | 36,7 | 22,4 | 8,3 | 7,1 | 9,1 |
| | 2023 | 36,6 | 22,0 | 6,9 | 7,9 | 8,3 |
| Espainia | 2021 | 50,8 | 31,8 | 13,7 | 12,9 | 14,9 |
| | 2022 | 45,0 | 26,3 | 11,9 | 11,4 | 13,0 |
| | 2023 | 43,1 | 25,6 | 10,9 | 11,1 | 12,2 |

*turria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2024ko maiatzeko datuak).*

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batez besteko datuak), kontuan hartu behar da langabezia-tasa nabarmen aldatzen dela adinaren arabera; hala, gazteenek dituzte maila altuenak. Hain zuzen, Euskal Herrian, 16 eta 19 urte artekoen artean langabezia-tasa % 36,6koa zen 2023an. Zerrendan hurrengoak 20 eta 24 urte artekoak izan ziren (% 22), ondoren 55 urte edo gehiago zituztenak (% 7,9) eta, azkenik, 25 eta 54 urte artekoak (% 6,9).

Urte arteko datuei dagokienez, bilakaera nahiko antzekoa izan da Euskal Herrian eta Estatu osoan; izan ere, Estatuan, langabezia-tasak beheranzko bilakaera orokorra izan du, eta Euskal Herrian, berriz, adineko pertsonen kasuan bakarrik egin du gora (% 7,1etik % 7,9ra). Zehazki, Euskal Herrian, gazteenen langabezia-tasa % 36,7tik % 36,6ra jaitsi da, 20-24 urtekoena % 22,4tik % 22ra eta 25-54 urtekoena % 8,3tik % 6,9ra.



LABORAL kutxa

**40. koadroa Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak**

*(m pertsona)*

| Eremua | Urtea | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2021 | 8,6 | 205,9 | 46,5 | 685,8 |
| | 2022 | 10,4 | 199,2 | 53,6 | 704,1 |
| | 2023 | 10,8 | 200,0 | 56,7 | 728,3 |
| Nafarroa | 2021 | 8,9 | 78,5 | 18,6 | 179,8 |
| | 2022 | 8,2 | 76,1 | 20,7 | 190,5 |
| | 2023 | 10,3 | 74,9 | 17,2 | 196,4 |
| Euskal Herria | 2021 | 17,5 | 284,4 | 65,1 | 865,6 |
| | 2022 | 18,6 | 275,3 | 74,3 | 894,6 |
| | 2023 | 21,1 | 274,9 | 73,9 | 924,7 |
| Espainia | 2021 | 818,0 | 2.710,6 | 1.315,2 | 14.989,7 |
| | 2022 | 798,5 | 2.779,1 | 1.355,0 | 15.614,9 |
| | 2023 | 767,3 | 2.814,5 | 1.398,0 | 16.202,4 |

*turria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2024ko maiatzeko datuak). (EJSN-09).*

Biztanleria okupatuaren bilakaera sektoreen arabera aztertuta, 2023an Euskal Herrian hazi egin zen sektoreko enpleguaren bolumena lehen sektorean eta zerbitzuetan (% 13,4 eta % 3,4, hurrenez hurren). Industrian eta eraikuntzan, berriz, behera egin zuen (-% 0,1 eta -% 0,5, hurrenez hurren). Kopuru absolutuei dagokienez, hirugarren sektorean igo zen gehien enplegua (2022an baino 30.100 pertsona okupatu gehiago). Euskal Herriko enpleguaren % 71,4 dagokio sektore horri.

Estatu mailan, 2023an lehenengo sektorean baino ez zen murriztu enplegua. Gainerako sektoreetan gora egin zuen: zerbitzuetan % 3,8, eraikuntzan % 3,2 eta industrian % 1,3. Kasu honetan ere, hirugarren zerbitzuan izan zen hazkunde absoluturik handiena (aurreko ekitaldian baino 587.500 okupatu gehiago).

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2023an jaitsi egin zen, oro har, aztertu ditugun geografia-eremu guztietan. Hala, ekitaldi horretan 1.018.210 kontratu jakinarazi zituzten Euskal Herrian, aurreko ekitaldian baino -% 11,5 gutxiago (-% 10,5 EAEn eta -% 13,8 Foru Erkidegoan). Estatuan, berriz, 15.444.205 kontratu jakinarazi zituzten, aurreko ekitaldian baino -% 15,7 gutxiago.

Kontratu motaren arabera, orokorrean, kontratu mugagabeak zein aldi baterako kontratuak murriztu ziren 2023an (lehenengoak -% 7,4 Euskal Herrian eta -% 5,8 estatu mailan, eta bigarrenak -% 12,7 eta -% 21,8, hurrenez hurren). Dena den, aldi baterako kontratazioa gehiago murriztu zenez kontratazio mugagabea baino, hazi egin zen kontratazio mugagabeak kontratazio osoaren gainean zuen pisu erlatiboa. Halaber, gogoratu 2022an indarrean sartu zela lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua, eta horrek eragin zuela urte horretan kontratazio mugagabea horrenbeste haztea. Haren bidez, arau berriak ezarri zituzten aldi baterako kontratazioetarako, eta mugatu egin zuten.

**41. koadroa SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak**

| Eremua | Urtea | Mugagabeak | | | Aldi baterakoak | | | | KONTRATUAK, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Mugagabea | Konbertsioak | Guztira | Obra eta Zerbitzua | Produkzio-baldintzak | Gainerakoak | Guztira | |
| EAE | 2021 | 46.829 | 33.716 | 80.545 | 210.160 | 404.749 | 166.272 | 781.181 | 861.726 |
| | 2022 | 155.518 | 44.477 | 199.995 | 37.517 | 397.762 | 180.445 | 615.724 | 815.719 |
| | 2023 | 162.617 | 23.875 | 186.492 | 0 | 361.286 | 182.368 | 543.654 | 730.146 |
| Nafarroa | 2021 | 12.644 | 12.164 | 24.808 | 78.036 | 183.447 | 76.046 | 337.529 | 362.337 |
| | 2022 | 56.455 | 16.682 | 73.137 | 12.869 | 158.570 | 89.745 | 261.184 | 334.321 |
| | 2023 | 58.201 | 8.241 | 66.442 | 0 | 134.509 | 87.113 | 221.622 | 288.064 |
| Euskal Herria | 2021 | 59.473 | 45.880 | 105.353 | 288.196 | 588.196 | 242.318 | 1.118.710 | 1.224.063 |
| | 2022 | 211.973 | 61.159 | 273.132 | 50.386 | 556.332 | 270.190 | 876.908 | 1.150.040 |
| | 2023 | 220.818 | 32.116 | 252.934 | 0 | 495.795 | 269.481 | 765.276 | 1.018.210 |
| Espainia | 2021 | 1.235.476 | 877.865 | 2.113.341 | 6.998.685 | 8.683.539 | 1.588.794 | 17.271.018 | 19.384.359 |
| | 2022 | 5.694.246 | 1.332.914 | 7.027.160 | 1.305.148 | 7.746.692 | 2.231.343 | 11.283.183 | 18.310.343 |
| | 2023 | 6.130.189 | 490.794 | 6.620.983 | 0 | 6.484.917 | 2.338.305 | 8.823.222 | 15.444.205 |

*turria: SEPE.*

Bestetik, aipamen txiki bat egin behar dugu autonomoei buruz. Horrekin lotuta, EINek egindako BAIren arabera, Estatuan 47.700 pertsonako igoera izan zuen norberaren konturako langileen kopuruak 2022 eta 2023 artean (urteko batezbestekoak kontuan hartuta). Euskal Herrian, aldiz, 200 pertsonako jaitsiera izan zuen kopuru horrek.

EAEn ugaritu egin ziren negoziazio kolektiboaren eraginpeko langileak (% 6,7), baina, orokorrean, 2023an hitzarmen gutxiago negoziatu ziren eta horiek langile gutxiagori eragin zieten. Zehazki, 2023an negoziatutako hitzarmenek urte arteko jaitsiera hauek izan zituzten: EAEn -% 8,6, Nafarroan -% 15,4 eta estatu mailan -% 12,1. Bestalde, hitzarmen horien eraginpeko langileak -% 7,3 murriztu ziren Foru Erkidegoan eta -% 9,4 Estatu osoan. EAEn, berriz, % 6,7 hazi ziren. Bestetik, inflazio apur bat zegoenez (halere, aurreko ekitaldian baino askoz ere baxuagoa), hitzartutako soldata-igoera hazi egin zen estatu mailan (2022an % 3,19koa izatetik 2023an % 3,56koa izatera). Aldiz, jaitsi egin zen EAEn (% 5ekoa, eta aurreko ekitaldian % 5,4koa) eta Nafarroan (% 4,28koa, eta 2022an % 4,39koa).

**42. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak**

| Eremua | Urtea | Hitzarmen kolektiboak: Kopurua | Hitzarmen kolektiboak: Eragindako langileak | Hitzarmen kolektiboak: Adostutako soldata-igoera | Grebak*: Kopurua | Grebak*: Parte hartu zuten langileak | Grebak*: Greba bakoitzeko langileak | Grebak*: Lan egin gabeko lanaldiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2021 | 529 | 256.449 | 0,87 | 224 | 14.051 | 63 | 141.267 |
| | 2022 | 536 | 294.091 | 5,40 | 320 | 107.125 | 335 | 385.128 |
| | 2023 | 490 | 313.823 | 5,00 | 306 | 58.865 | 192 | 169.400 |
| Nafarroa | 2021 | 192 | 97.424 | 1,56 | 59 | 2.130 | 36 | 5.068 |
| | 2022 | 182 | 116.777 | 4,39 | 58 | 2.911 | 50 | 11.964 |
| | 2023 | 154 | 108.271 | 4,28 | 53 | 6.129 | 116 | 11.673 |
| Espainia | 2021 | 4.727 | 11.543.242 | 1,61 | 606 | 199.026 | 328 | 422.815 |
| | 2022 | 4.416 | 12.524.607 | 3,19 | 679 | 192.751 | 284 | 709.099 |
| | 2023 | 3.883 | 11.345.868 | 3,56 | 777 | 294.750 | 379 | 987.956 |

** 2021 eta 2022 ekitaldiek ez dituzte barne hartzen greba orokorretako datuak. 2023ko datuak urtarrila-abendua bitarteko aurrerapenari dagozkio.*

*Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. 2024ko otsaileko hitzarmenen datuak. 2024ko otsaileko greben datuak.*

Laneko gatazkei dagokienez, 2023an grebak murriztu egin ziren EAEn zein Foru Erkidegoan (-% 4,4 eta -% 8,6, hurrenez hurren), baina gora egin zuten Estatuan (%14,4). Bestetik, horien eraginpeko pertsonak EAEn bakarrik murriztu ziren (-% 45,1). Izan ere, gora egin zuten Nafarroan eta estatu mailan (hurrenez hurren, % 110,5eko eta % 52,9ko hazkundeak). Lan egin gabeko lanaldiak, berriz, estatu mailan bakarrik hazi ziren (% 39,3), eta behera egin zuten EAEn (-% 56) eta Nafarroan (-% 2,4).

## Biztanleria

Eskuragarri dagoen azkeneko behin betiko informazioaren arabera, 2022an -% 0,1 murriztu zen Euskal Herriko biztanleria; EAEn behera egin zuen (-% 0,3), eta Nafarroan gora (% 0,4). Zehazki, 2.872.291 biztanlera iritsi ziren ekitaldi horretan: 2.208.174 biztanle EAEn eta gainerako 664.117ak Foru Erkidegoan. Aitzitik, Estatuan biztanleria hazi egin zen 2022an (% 0,2), 47.475.420 biztanlera arte.

2022an 18.422 jaiotza (urte arteko -% 5eko jaitsiera) eta 30.520 heriotza (aurreko ekitaldian baino % 5,8 gehiago) erregistratu ziren Euskal Herrian. Hori kontuan hartuta, saldo begetatiboa negatiboa izan zen, -12.098 pertsonakoa. Hala, 2014an hasitako hazkunde begetatibo negatiboen ibilbidea indartu egin zen.

**43. koadroa** **Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2022,**

| Eremua | Jaiotzak | Heriotzak | Hazkunde begetatiboa | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotza-tasa (‰) |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 2.273 | 3.172 | -899 | 6,8 | 9,5 |
| Bizkaia | 6.878 | 13.159 | -6.281 | 6,0 | 11,4 |
| Gipuzkoa | 4.512 | 7.872 | -3.360 | 6,2 | 10,9 |
| EAE | 13.663 | 24.203 | -10.540 | 6,2 | 11,0 |
| Nafarroa | 4.759 | 6.317 | -1558 | 7,2 | 9,5 |
| Euskal Herria | 18.422 | 30.520 | -12.098 | 6,4 | 10,6 |
| Espainia | 329.251 | 464.417 | -135.166 | 6,9 | 9,8 |

*turria: Biztanleriaren mugimendu naturala eta Errolda (EIN). 2023ko azaroko eta 2023ko urtarrileko datuak.*

Hala, Euskal Herrian jaisten jarraitu zuen jaiotza-tasak (2022an ‰ 6,4 eta 2021ean ‰ 6,7). Heriotza-tasa, berriz, hazi egin zen (2022an ‰ 10,6 eta aurreko ekitaldian ‰ 10). Estatuko jaiotza-tasa handiagoa izan zen (‰ 6,9), eta heriotza-tasa apur bat txikiagoa (‰ 9,8).

Ezkontza kopurua hazi egin zen 2022an Euskal Herrian; urte arteko % 24,3ko hazkundea izan zuen eta 9.639 ezkontza izan ziren. Estatuan, berriz, 172.871 erregistratu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 20,5 gehiago.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da ezkontzak ezin izan zirela normaltasunez gauzatu 2020an eta 2021aren zati batean, pandemiaren mugen ondorioz. Hortaz, 2022ko ezkontza batzuk aurreko bi ekitaldietan gauzatu gabe geratu zirenak izan ziren.

**44. koadroa** **Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera**

| Urtea | Biztanleria | Ezkontzak | Jaiotzak | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotzak | Heriotza-tasa (‰) | Hazkunde begetatiboa | Migrazio-saldoa (autonomia artekoa) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2012 | 2.837.659 | 10.171 | 27.264 | 9,6 | 25.657 | 9,0 | 1.607 | 3.875 |
| 2013 | 2.836.159 | 9.286 | 25.191 | 8,9 | 25.043 | 8,8 | 148 | 2.920 |
| 2014 | 2.829.775 | 9.595 | 25.562 | 9,0 | 25.677 | 9,1 | -115 | 4.078 |
| 2015 | 2.829.733 | 9.861 | 24.856 | 8,8 | 27.191 | 9,6 | -2.335 | 3.138 |
| 2016 | 2.830.181 | 9.763 | 24.141 | 8,5 | 26.951 | 9,5 | -2.810 | 3.305 |
| 2017 | 2.837.392 | 9.733 | 22.823 | 8,0 | 27.478 | 9,7 | -4.655 | 1.052 |
| 2018 | 2.846.642 | 9.187 | 21.498 | 7,6 | 27.582 | 9,7 | -6.084 | 682 |
| 2019 | 2.861.990 | 9.079 | 20.820 | 7,3 | 27.134 | 9,5 | -6.314 | 147 |
| 2020 | 2.881.701 | 5.008 | 19.779 | 6,9 | 30.914 | 10,7 | -11.135 | -539 |
| 2021 | 2.875.530 | 7.756 | 19.389 | 6,7 | 28.857 | 10,0 | -9.468 | -699 |
| 2022 | 2.872.291 | 9.639 | 18.422 | 6,4 | 30.520 | 10,6 | -12.098 | -1.353 |

*turria: Biztanleriaren mugimendu naturala, errolda eta migrazio-saldoak (EIN). 2023ko azaroko, 2023ko urtarrileko eta 2023ko abenduko datuak.*

Azkenik, nabarmendu behar da 2022an Euskal Herriak migrazio-saldo (autonomia artekoa) negatiboa izan zuela, -1.353 pertsonakoa, immigrazio kopurua txikiagoa izan zelako emigrazio kopurua baino. Zehazki, EAEk -1.413 pertsonako migrazio-saldo negatiboa izan zuen, eta Nafarroak, berriz, 60 pertsonako migrazio-saldo positiboa.



# 3.INDUSTRIA

LABORAL kutxa

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

Aztertutako datu nagusiek erakusten duten moduan, EAEko industria-sektoreko enpresen jarduerak behera egin zuen 2023an, 2022an (pandemiaren ondoren) izandako susperraldiaren ondoren.

Eremu geografikoak kontuan hartuta, EAEn zein Nafarroan sektoreko balio erantsi gordina hazi egin zen 2023an, baina aurreko ekitaldian baino gutxiago. Zehazki, 2023an % 0,3 hazi zen EAEn (2022an % 4,7) eta, Nafarroan, apur bat gehiago, % 0,4 (2022an % 3,5).

2023ko hiruhilekoei dagokienez, EAEk ongi hasi zuen urtea, lehen hiruhilekoan % 1,2 hazi baitzen. Bigarren hiruhilekoa negatiboa izan zen, eta hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako hazkundeak ez ziren hain handiak izan (-% 0,7, % 0,5, % 0,1). Nafarroako bilakaera apur bat hobea izan zen. Urtea ongi hasi zuen, baina okertu egin zen ekitaldiko bigarren seihilekoan (% 0,6, % 1,3, % 0,5, -% 0,7).

EAEn eta Nafarroan bezalaxe, 2023an Estatuan ere behera egin zuen balio erantsi gordinaren hazkunde-erritmoak 2022arekiko (2023an % 3,3 eta 2022an % 4,4). Dena den, Estatuko portaera nabarmen hobea izan zen. Urtea ongi hasi zuen, eta, ondoren, hazkunde txikiagoak izan zituen (% 5,0, % 2,1, % 2,9, % 3,0).

### Ekoizpen-indizeak

Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) EAEn, Nafarroan eta Estatuan izandako bilakaeraren analisiak erakusten duenez, ekoizpen-jarduera nabarmen okertu zen 2023an, 2022arekin alderatuta. Izan ere, urte horretan enpresek suspertze argia izan zuten, pandemiaren ostean.

EAEren kasuan, IPIa % 0,2 hazi zen 2023an (2022an % 5,7), Nafarroan -% 5,5 jaitsi zen ekoizpena (2022an % 4,3) eta Estatuan antzeko bilakaera izan zuen, baina apalagoa: IPIa % 1,4 jaitsi zen (2022an % 2,5).

**45. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

(%)

| Urtea | EAE IPI(*) | Nafarroa IPI(*) | Estatua IPI(*) |
|---|---|---|---|
| 2016 | 2,9 | 2,0 | 1,6 |
| 2017 | 5,9 | 1,5 | 2,9 |
| 2018 | 2,2 | -0,1 | 0,7 |
| 2019 | 1,6 | 9,8 | 0,7 |
| 2020 | -13,4 | -11,4 | -9,2 |
| 2021 | 10,5 | 10,5 | 7,1 |
| 2022 | 5,7 | 4,3 | 2,5 |
| 2023 | 0,2 | -5,5 | -1,4 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.*

Jomuga ekonomikoaren arabera, Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) izandako bilakaera baieztatu zen. Hala, kasu guztietan moteldu egin zen ekoizpen-jardueraren hazkunde-erritmoa, EAEn zein Nafarroan. EAEko ekipo-ondasunen eta kontsumo-ondasunen kasuan bakarrik mantendu ziren balio positiboak.

**46. koadroa Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera**

(%)

| Urtea | Bitarteko ondasunak | | Ekipo-ondasunak | | Kontsumo-ondasunak | | Energia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa |
| 2019 | 0,1 | -2,1 | 2,0 | 18,4 | 2,8 | 0,0 | 5,6 | 47,2 |
| 2020 | -15,4 | -6,7 | -12,5 | -18,0 | -6,6 | -7,6 | -11,9 | -12,5 |
| 2021 | 10,4 | 6,6 | 13,3 | 13,8 | 12,0 | 5,5 | 0,3 | 20,1 |
| 2022 | 2,1 | -3,9 | 9,4 | 12,5 | 4,5 | 2,7 | 11,2 | 6,6 |
| 2023 | -0,2 | -6,5 | 4,1 | -1,4 | 0,2 | -3,0 | -9,1 | -18,4 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.*

EAEren kasu zehatzean, IPIa % 0,2 jaitsi zen bitarteko ondasunetan (2022an % 2,1), % 4,1 hazi zen ekipo-ondasunetan (2022an % 9,4) eta % 0,2 hazi zen kontsumo-ondasunetan (2022an % 4,5). Energiaren ekoizpenak izandako okertze nabarmena azpimarratu behar da, 2022an % 11,2koa izatetik 2023an -% 9,1ekoa izatera igaro baitzen.

Nafarroaren kasuan, ekoizpenaren bilakaera EAEn baino are okerragoa izan zen jomuga ekonomiko guztien kasuan, eta ekoizpen-erritmoa nabarmen jaitsi zen, 2022arekin alderatuta.

Kasu honetan ere energia nabarmendu zen, 2022an % 6,6koa izatetik 2023an -% 18,4koa izatera igaro baitzen. Gainera, bitarteko ondasunen kasuan, ekoizpenak behera egiten jarraitu zuen 2023an (-% 6,5, eta 2022an -% 3,9). Bestetik, ekipo-ondasunen ekoizpena

% 1,4 murriztu zen (2022an % 12,5) eta kontsumo-ondasunen ekoizpena % 3,0 jaitsi zen (2022an % 2,7).

Industria Ekoizpenaren Indizearen (IPI) bilakaera EAEko jarduera-adarren arabera aztertuta, sektore gehienetan ekoizpenak bilakaera negatiboa izan zuela ikus daiteke.

Dena den, informatika- eta elektronika-produktuen ekoizpenak izandako hazkunde handia nabarmendu zen (2023an % 21,9 eta 2022an % 7,0), baita farmaziako produktuen ekoizpenaren hazkundea ere (2023an % 15,8); hala ere, azken hori ez zen iritsi urtebete lehenago erregistratutako zifretara (2022an % 18,2).

Kontrakoa gertatu zitzaien honakoei: Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza (-% 3,5), Zura, papera eta arte grafikoak (-% 8,0), Industria kimikoa (-% 3,4), Kautxua eta plastikoak (-% 2,6) eta Metalurgia (-% 2,1); horien ekoizpen-erritmoa nabarmen jaitsi zen 2022arekiko. Dena den, ekoizpena are gehiago jaitsi zen Koke-fabrikak eta petrolio-finketa (-% 4,7) eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (-% 11,5) sektoreetan; balio oso negatiboetara jaitsi ziren horiek, 2022ko balioekin alderatuta.

**47. koadroa EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera***

*(%)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Erauzketa-industriak | 3,9 | 0,2 | 4,1 |
| Elikagai, edari eta tabakoaren industriak | 7,0 | 1,6 | 0,3 |
| Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza | 33,7 | -0,1 | -3,5 |
| Zura, papera eta arte grafikoak | 3,8 | -0,7 | -8,0 |
| Koke-fabrikak eta petrolio-finketa | -0,1 | 16,5 | -4,7 |
| Industria kimikoa | 13,7 | -2,8 | -3,4 |
| Farmaziako produktuak | 15,1 | 18,2 | 15,8 |
| Kautxua eta plastikoak | 11,0 | -0,4 | -2,6 |
| Metalurgia | 12,0 | 4,9 | -2,1 |
| Informatika- eta elektronika-produktuak | -4,4 | 7,0 | 21,9 |
| Material eta ekipo elektrikoa | 5,9 | 4,1 | 0,0 |
| Makineria eta ekipamendua | 14,8 | 11,0 | 2,6 |
| Garraiorako materiala | 10,5 | 10,3 | 5,7 |
| Altzariak eta beste manufaktura batzuk | 27,0 | 0,2 | 0,7 |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna | 0,7 | 10,8 | -11,5 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Eustat.*

**48. koadroa** **Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera**

*(%)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaien industria | 3,6 | 1,4 | -2,1 |
| Metalurgia eta produktu metalikoak | 16,4 | 3,0 | -7,2 |
| Papera, zura eta altzariak | 13,9 | -2,4 | -8,8 |
| Garraiorako materiala | -5,1 | 13,5 | 3,2 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | 4,6 | -1,4 | -5,1 |

*turria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).*

Nafarroan 2023an erregistratutako bilakaera EAEkoaren antzekoa izan zen, eta industriako sektore gehienetan behera egin zuen ekoizpenaren hazkunde-erritmoak. Bereziki, ekoizpen-jarduerak behera egin zuen honako hauetan: Metalurgia eta produktu metalikoak (2022an % 3,0ko IPIa, eta 2023an -% 7,2koa) eta Papera, zura eta altzariak (-% 2,4tik -% 8,8ra).

Garraiorako materialaren sektorean bakarrik egin zuen gora ekoizpenak (% 3,2), baina 2022an baino gutxiago (% 13,5).

### Enpresen emaitzak

Industria-jarduerak izandako moteltzearen eragina oraindik ere ez da islatu euskal enpresa nagusien emaitzen kontuan, jarraian ikus daitekeen moduan:

**49. koadroa** **Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako**

*(%)*

| Ratioak | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| Bitarteko kontsumoak/salmentak | 58,8 | 59,0 | 60,1 | 60,4 | 55,2 |
| Langileen kostuak/salmentak | 19,9 | 20,0 | 21,1 | 20,6 | 21,6 |
| Finantza-karga garbia/salmentak | 0,8 | -0,6 | -0,9 | -0,6 | -1,2 |
| Mozkinak/salmentak | 5,7 | -0,2 | 3,0 | 2,0 | 8,1 |
| Mozkinak/berezko funtsak | 10,5 | -0,4 | 6,3 | 4,7 | 18,3 |
| Cash flow/salmentak | 9,7 | 5,3 | 7,7 | 6,3 | 4,3 |
| Salmentak/langileak (m euro) | 230,9 | 214,4 | 226,9 | 166,2 | 212,4 |

*Iturria: CNMV eta geuk egina.*

Aztertutako euskal enpresa industrial nagusien jardueraren analisiak erakusten duenez, jarduera hobetu egin zen 2022arekiko. Hala, bitarteko kontsumoak/salmentak ratioa jaitsi egin zen 2023an, eta % 55,2an kokatu zen (2022an % 60,4); mozkinak/salmentak ratioa eta mozkinak/berezko funtsak ratioa hazi egin ziren aurreko ekitaldiarekiko, eta % 8,1ean (2022an % 2,0) eta % 18,3an (% 4,7) kokatu ziren, hurrenez hurren; eta salmentak/langileak (m euro) ratioa hazi egin zen, eta 212,4 milioi eurokoa izan zen 2023an (2022an 166,2 milioikoa).

Aitzitik, gora egin zuten langileen kostuak/salmentak ratioak (2023an % 21,6 eta 2022an % 20,6) eta finantza-karga/salmentak ratioak (2023an -% 1,2 eta 2022an -% 0,6). Ondorioz, azkenean, Cash flow/salmentak ratioak okerrera egin zuen, eta % 4,3ra jaitsi zen 2023an (2022an % 6,3).

**9. grafikoa Industria-errentagarritasuna**




*Iturria: Geuk egina.*

Aurrez aipatutako euskal industria-enpresa nagusien laginaren emaitzetan ikusten den bilakaera bat dator Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak emandako emaitzekin. Emaitza horiek Espainiako 965 enpresa ez-finantzariok osatutako lagin batetik ateratakoak dira, 2023ko datuen araberakoak. Enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 11,4 ordezkatzen dute.

Balantzeen Zentralaren hiruhilekoko laginean jasotako informazioak erakusten dunez, Balantzeen Zentralaren lagineko enpresa ez-finantzarioen ohiko emaitza garbiak hazten jarraitu zuen 2023an, aurreko ekitaldian baino erritmo apalagoan hazi arren. Zehazki, 2023an % 6,5 hazi zen ohiko emaitza garbia, 2022arekiko. Horri esker, aurreko ekitaldian baino handiagoak izan ziren errentagarritasunak. Negozio-zifra murriztu egin zen, energiarekin lotutako sektoreen (energia, finketa eta erregai energetikoen merkaturatzea) salmenta-prezioek behera egin zutelako; izan ere, sektore horiek pisu handia dute Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren laginean.

50. koadroa Xehetasunak, jardueraren eta tamainaren arabera

| | Negozio-zifra (aldakuntza-tasak) | | | | Balio erantsi gordina faktoreen kostuarekiko (aldakuntza-tasak) | | | | Emaitza ekonomiko gordina (aldakuntza-tasak) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | CBI | | CBT (*) | | CBI | | CBT (*) | | CBI | | CBT (*) | |
| | 2021 | 2022 | 2022ko I. hiruhilekotik IV.era | 2023ko I. hiruhilekotik IV.era | 2021 | 2022 | 2022ko I. hiruhilekotik IV.era | 2023ko I. hiruhilekotik IV.era | 2021 | 2022 | 2022ko I. hiruhilekotik IV.era | 2023ko I. hiruhilekotik IV.era |
| **GUZTIRA** | **15,4** | **20,6** | **33,6** | **-8,1** | **13,6** | **13,4** | **22,1** | **5,6** | **26,6** | **21,6** | **40,7** | **2,9** |
| Tamainak | | | | | | | | | | | | |
| Txikiak | 11,5 | 13,4 | -- | -- | 17,8 | 11,5 | -- | -- | 34,2 | 10,4 | -- | -- |
| Ertainak | 11,8 | 13,4 | 14,1 | 7,8 | 10,8 | 9,6 | 8,0 | 13,1 | 18,9 | 11,7 | 2,8 | 21,7 |
| Handiak | 15,9 | 23,9 | 33,8 | -8,2 | 12,0 | 14,9 | 22,2 | 5,5 | 24,9 | 26,5 | 41,0 | 2,8 |
| Jardueraren arabera zehaztuta | | | | | | | | | | | | |
| Energia | 28,0 | 41,4 | 43,8 | -20,7 | 8,1 | 27,7 | 27,5 | 2,7 | 10,6 | 36,8 | 34,3 | 2,1 |
| Industria | 15,7 | 22,0 | 37,5 | -6,5 | 12,3 | 9,5 | 27,1 | -6,6 | 27,4 | 13,6 | 53,5 | -19,0 |
| Komertzioa eta ostalaritza | 16,5 | 19,7 | 31,8 | -8,8 | 20,6 | 13,3 | 15,5 | 4,0 | 51,3 | 17,0 | 28,6 | -4,2 |
| Informazioa eta komunikazioak | 6,2 | 7,5 | 6,6 | 4,6 | 4,4 | 8,0 | 6,2 | 8,3 | -0,6 | 7,1 | 9,1 | 7,5 |
| Gainerako jarduerak | 11,7 | 15,6 | 29,6 | 11,9 | 13,3 | 14,3 | 30,2 | 20,5 | 30,0 | 30,1 | 152,9 | 50,8 |

*(*) Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.*

*Iturria: Espainiako Bankua.*

**51. koadroa Xehetasunak, jardueraren eta tamainaren arabera**

| | Ohiko emaitza garbia (aldakuntza-tasak) | | | | Aktiboaren ohiko errentagarritasuna (R.1) (ratioak) | | | | Aldea: errentagarritasuna – kostu finantzarioa (R.1. - R.2.) (ratioak) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | CBI | | CBT (*) | | CBI | | CBT (*) | | CBI | | CBT (*) | |
| | 2021 | 2022 | 2022ko I. hiruhilekotik IV.era | 2023ko I. hiruhilekotik IV.era | 2021 | 2022 | 2022ko I. hiruhilekotik IV.era | 2023ko I. hiruhilekotik IV.era | 2021 | 2022 | 2022ko I. hiruhilekotik IV.era | 2023ko I. hiruhilekotik IV.era |
| **GUZTIRA** | **30,0** | **42,6** | **87,2** | **6,5** | **4,1** | **5,0** | **5,2** | **7,0** | **2,2** | **2,8** | **3,4** | **4,1** |
| Tamainak | | | | | | | | | | | | |
| Txikiak | 59,5 | 12,4 | -- | -- | 3,8 | 4,0 | -- | -- | 1,9 | 2,0 | -- | -- |
| Ertainak | 28,9 | 15,1 | 4,9 | 30,7 | 6,9 | 7,4 | 6,1 | 8,8 | 4,7 | 5,1 | 4,6 | 6,2 |
| Handiak | 21,4 | 57,2 | 88,1 | 6,3 | 4,0 | 5,2 | 5,2 | 7,0 | 2,1 | 3,0 | 3,4 | 4,1 |
| Jardueraren arabera zehaztuta | | | | | | | | | | | | |
| Energia | 16,2 | 56,8 | 44,5 | 0,3 | 6,1 | 8,1 | 7,7 | 10,2 | 4,5 | 6,5 | 6,6 | 8,0 |
| Industria | 37,3 | 22,6 | 128,6 | -35,9 | 7,0 | 8,1 | 10,9 | 7,9 | 4,9 | 5,8 | 8,6 | 3,8 |
| Komertzioa eta ostalaritza | 79,5 | 27,5 | 68,8 | 7,1 | 7,1 | 8,4 | 10,0 | 11,5 | 4,9 | 6,0 | 7,6 | 7,3 |
| Informazioa eta komunikazioak | -7,0 | 41,9 | 27,6 | 5,9 | 5,6 | 6,8 | 9,7 | 9,9 | 3,6 | 4,4 | 8,1 | 6,7 |
| Gainerako jarduerak | -10,4 | 49,0 | 93,9 | 98,0 | 2,7 | 3,4 | 3,0 | 5,3 | 0,8 | 1,2 | 1,0 | 2,5 |

*(*) Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.*

*Iturria: Espainiako Bankua.*

## 2. ENERGIA

2023ko abenduan Dubain egin zuten 28. Kideen Konferentzia (COP28) orain arteko handiena izan zen, ia 85 mila partaiderekin. Horietatik 150 baino gehiago estatuburuak eta gobernuburuak ziren. Gainera, delegazio nazionalen, gizarte zibilaren, enpresen, herri indigenen, gazteen eta nazioarteko erakundeen ordezkariek ere parte hartu zuten.

COP28 akordio historiko batekin itxi zuten: modu progresiboan erregai fosilak deuseztatzea, horiek baitira krisi klimatikoaren eragile nagusiak. 2050erako zero emisio garbi lortzea da helburua. Goi-bileran parte hartu zuten ia 200 herrialdeetako ordezkariek, lehen aldiz, ikatza, petrolioa eta gasa erabiltzeari utzi behar zaiola aitortu zuten, eta trantsizio energetiko justua, ordenatua eta ekitatiboa martxan jartzeko konpromisoa erakutsi zuten. Halaber, 2030erako energia berriztagarrien mundu mailako ahalmena hirukoiztera eta karbonoa atzematea eta gordetzea ahalbidetuko duten teknologiak azeleratzera bermatzen du akordioak.

COP28aren beste emaitza nagusietako bat "galeren eta kalteen" funts klimatiko bat sortzea izan zen, dagoeneko aldaketa klimatikoaren ondorioak (muturreko fenomeno meteorologikoak, itsas mailaren igoera edo biodibertsitatearen galera) jasaten ari diren garapen bideko herrialdeei laguntza finantzarioa emateko. Kideen arabera, funts horrek "gutxienez" urteko 100.000 milioi dolar bildu beharko lituzke 2030erako, baina, garapen-bideko herrialdeen arabera, benetako beharra zifra horren laukoitza baino handiagoa da. Herrialde aberatsek herrialde zaurgarriei "konpentsazio" bat emateko modua litzateke, haien isuri maila altua dela eta.

Horrez gain, aurrekaririk gabeko bultzada eman zuen COP28ak, krisi klimatikoari aurre egitera eta biodibertsitatearen galera gelditzera bideratutako ahaleginak bateratzeko. Klimaren aldeko ekintza-plan nazionalak prestatzeko orduan, ekosistemak, biodibertsitatea eta karbono-biltegiak (adibidez, basoak) kontuan hartzeko eskatu zieten gobernuei, hamarkadaren amaiera baino lehen ekintza klimatikoak indartzeko. Izan ere, mundu tenperaturaren igoera 1,5 ºC-ra mugatzea da helburua.

Pizgarriak, araudiak eta baldintzak ezartzen ari dira, inbertsioa trantsizio energetikoa lortzera bideratzeko. Eta, aldi berean, enpresek aldaketa klimatikoa gelditzeko duten funtzioa aitortzen da, prestakuntzaren, ezagutzak partekatzearen, laguntza teknikoaren eta adimen artifizialaren erabileraren bidez.

Dena den, herrialde igorle nagusietako batzuek (hala nola Txina, India eta Errusia) erakutsitako anbizio- eta larritasun-faltak, beste faktore batzuen artean, lausotu egin zituen goi-bileraren emaitzak

## 2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) arduratzen da jarraian aurkeztuko dugun balantze energetikoa egiteaz. Eurostaten metodologia erabiltzen du EAEko balantze energetikoa kalkulatzeko. Balantze horretan, energia mota ezberdinen jarraipen xehea azaltzen da: jatorria (erauzketa edo inportazioa), eraldaketa eta kontsumoa. Hala, balantzea bi ataletan bereizten da. Lehenengo atalean (1-5 puntuak) lehen mailako iturrien energia-hornikuntza jasotzen da, erauzketak (1. Lehen mailako energiaren ekoizpena) eta inportazioak (2. Sarrera guztiak) kontuan izanda. Kopuru horien guztizkoa stocken mugimenduarekin (3), esportazioekin (4) eta itsas-garraioarekin (5) doitzen du, eta emaitza barne-kontsumorako eskuragarri dagoen energia da (6. puntua=1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren atalak energiaren eraldaketa-prozesuak eta kontsumorako erabilgarri dagoen energia hartzen ditu kontuan (12=6-7+8+9-10-11), konbertsio-prozesuen (7 eta 8), trukeen (9), energia-sektorearen kontsumoaren (10) eta galeren (11) ostean. Kontsumorako eskuragarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren, azken kontsumo energetikoa geratzen zaigu (14).

### 52. koadroa EAEko balantze energetikoa (2023)

(ktep)

| Sektorea | Ikatza eta deribatuak | Petrolioa eta deribatuak | Gas naturala | Energia deribatuak | Energia berriztagarriak | Energia elektrikoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Lehen mailako energiaren ekoizpena | 0 | 0 | 0 | 23 | 546 | 0 | 569 |
| 2. Sarrera guztiak | 0 | 8.172 | 4.925 | 0 | 3 | 763 | 13.883 |
| 3. Stocken mugimendua | 0 | 40 | 177 | 0 | 0 | 0 | 217 |
| 4. Irteera guztiak | 0 | 5.404 | 3.364 | 0 | 57 | 0 | 8.826 |
| 5. Bunkerrak (itsas-garraioa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| *6. Barne-kontsumo gordin erabilgarria | 19 | 2.807 | 1.738 | 23 | 510 | 763 | 5.860 |
| 7. Eraldaketara sarrerak | 0 | 8.264 | 798 | 9 | 118 | 0 | 9.190 |
| 7.1. Zentral termoelektrikoak | 0 | 31 | 516 | 0 | 43 | 0 | 590 |
| 7.2. Kogenerazioa | 0 | 21 | 194 | 9 | 74 | 0 | 299 |
| 7.3. Koke-fabrikak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 7.4. Findegiak | 0 | 8.212 | 88 | 0 | 0 | 0 | 8.300 |
| 8. Eraldaketatik irteerak | 0 | 8.138 | 0 | 0 | 0 | 439 | 8.577 |
| 8.1. Zentral termoelektrikoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 288 | 288 |
| 8.2. Kogenerazioa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 150 | 150 |
| 8.3. Koke-fabrikak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8.4. Findegiak | 0 | 8.138 | 0 | 0 | 0 | 0 | 8.138 |
| 9. Trukeak | 0 | 0 | 0 | 0 | -57 | 57 | 0 |
| 10. Sektore energetikoaren kontsumoa | 0 | 351 | 101 | 0 | 0 | 88 | 540 |
| 11. Garraio eta banaketako galerak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 41 | 41 |
| **12. Azken kontsumorako erabilgarri dagoena | 19 | 2.330 | 838 | 14 | 335 | 1.130 | 4.666 |
| 13. Azken kontsumo ez-energetikoa | 0 | 139 | 0 | 0 | 0 | 0 | 139 |
| *****14. Azken kontsumo energetikoa** | **19** | **2.192** | **838** | **14** | **335** | **1.130** | **4.527** |

*Behin-behineko datuak.*
** 6=1+2+3-4-5*
*** 12=6-7+8+9-10-11*
****14=12-13*
*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)*

Analisia EAEra mugatuta, 2023ko balantze energetikoak erakusten duenez (EEEk emandako behin-behineko datuak), balioek behera egin zuten 2022arekiko: energiaren amaierako kontsumoa 4.527 mila tepera jaitsi zen (-% 7,7), eta barneko kontsumo gordina 5.860 mila tepera (-% 10,7).

### 53. koadroa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera

(ktep)

| Sektorea | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Ikatza eta deribatuak | 26 | 18 | 19 | 5,6 |
| Petrolioa eta deribatuak | 2.198 | 2.340 | 2.192 | -6,3 |
| Gas naturala | 1.067 | 970 | 838 | -13,6 |
| Energia deribatuak | 12 | 14 | 14 | 0,0 |
| Energia berriztagarriak | 408 | 404 | 335 | -17,1 |
| Energia elektrikoa | 1.212 | 1.156 | 1.130 | -2,2 |
| **Guztira** | **4.923** | **4.903** | **4.527** | **-7,7** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

Energia-kontsumoa energia motaren arabera aztertuz gero, 2023an beherakadak nagusitu ziren. Ikatzaren eta deribatuen kontsumoa bakarrik igo zen (+% 5,6), baina horiek EAEko balantze energetikoari egiten dioten ekarpena oso txikia da (% 0,4). Energia deribatuen kontsumoa egonkor mantendu zen 2023an, baina horien ordezkaritza ere oso txikia da (% 0,3).

Bestetik, petrolioaren eta deribatuen kontsumo maila % 6,3 murriztu zen 2023an; horiek guztizkoaren gainean duten partaidetza % 48,4koa da. Bilakaera bera izan zuten EAEko bigarren eta hirugarren energia-iturriek, hau da, energia elektrikoak (guztizkoaren % 25) eta gas naturalak (% 18,5); horiek % 2,2ko eta % 13,6ko murrizketa izan zuten, hurrenez hurren. Energia berriztagarriek osatu zuten mapa, % 7,4ko partaidetzarekin, eta kontsumoaren murrizketa handiarekin (-% 17,1), 2023ko patroiari jarraituz.

**10. grafikoa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep)**




*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)*

Sektoreen ikuspegitik aztertuta, 2023an aldaketa gutxi izan ziren aurreko urteekiko, eta sektoreen araberako kontsumoaren banaketa ia berdin mantendu zen. Garraio-sektorea mantendu zen buruan. Energiaren kontsumo osoaren ia erdia zegokion sektore horri (% 47,1), baina behera egin zuen haren kontsumo mailak (-% 2,1), ohiko goranzko joera alderantzikatuta. Industriak % 33,8ko pisu erlatiboa zuen, eta berriz ere behera egin zuen haren kontsumo energetikoak; oraingoan, gainera, 2022an baino neurri handiagoan (2022an -% 4,7 eta 2023an -% 12,4). Halaber, antzeko portaera izan zuen etxebizitza-sektoreak, haren kontsumoa % 14 murriztu baitzen (2022an -% 7,5); amaierako kontsumoaren % 10,6 dagokio sektore horri. Zerbitzuen sektoreari dagokionez, haren energia-kontsumoak ere behera egin zuen, eta guztizko kontsumoaren % 7,9 zegokion.

Azkenik, lehen sektorearen kontsumoa % 7,2 hazi zen 2023an, joera nagusiaren aurka. Dena den, sektore horren partaidetza askoz txikiagoa da (% 0,6).

**54. koadroa EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera**

*(ktep)*

| Sektorea | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 39 | 27 | 29 | 7,2 |
| Industria | 1.830 | 1.745 | 1.528 | -12,4 |
| Garraioa | 2.050 | 2.179 | 2.133 | -2,1 |
| Zerbitzuak | 400 | 394 | 358 | -9,2 |
| Etxebizitzak | 604 | 558 | 480 | -14,0 |
| **Guztira** | **4.923** | **4.903** | **4.527** | **-7,7** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

Hori esanda, eta EAEko trantsizio energetikoari dagokionez, 2016-2030 aldirako Eusko Jaurlaritzaren politika energetikoaren helburuak eta oinarrizko ildoak definitzen ditu Euskadiko Energia Estrategia 2030ek.

Estrategia horren epe luzerako helburua geroz eta jasangarriagoa izango den sistema energetikoa lortzea da: lehiakorragoa, hornidura bermatzen duena eta karbono maila baxukoa.

Zehazki, honako hauek dira aipatutako estrategiak 2030erako ezartzen dituen helburuak:

- Lehen mailako energiaren urteko 1.250.000 tepeko aurrezpena lortzea 2016-2030 artean, hau da, % 17ko aurrezpena 2030erako. Hala, intentsitate energetikoa % 33 hobetuko litzateke aldi horretan.
- Energia berriztagarrien erabilera % 126 handitzea, 2030. urterako 966.000 tepeko aprobetxamendua lortzeko; modu horretan, energia berriztagarriek % 21eko kuota izango lukete amaierako kontsumoan.
- EAEko administrazio publikoaren konpromiso eredugarria sustatzea, haren instalazioetako kontsumo energetikoa 10 urtetan % 25 murrizteko; administrazioaren eraikinen % 25ean energia berriztagarria aprobetxatzeko instalazioak jartzea; eta, gainera, zerbitzu publikoaren parke mugikorrean eta flotetan ibilgailu alternatiboak txertatzea.
- Errepide bidezko garraioan energia alternatiboen % 25eko kuotara iristea, modu progresiboan petrolioa erabiltzeari utziz eta ibilgailu jasangarriagoak erabiliz.
- Kogenerazioaren eta energia berriztagarrien partaidetza handitzea elektrizitatea sortzeko, 2030ean partaidetza % 40koa izan dadin (2015ean % 20koa zen).
- EAEko enpresen, teknologia-zentroen eta eragile zientifikoen sarearen lehiakortasuna indartzea, ikerketaren, garapen teknologikoaren eta industriaren arloko lehentasunezko 9 arloak bultzatuz, Euskadiko espezializazio adimendunerako RIS3 estrategiaren ildotik.



LABORAL kutxa

- Aldaketa klimatikoari aurre egiten laguntzea, berotegi-efektuko gasak urtean 3 Mt murriztearen bidez, neurri energetikoak aplikatuta; hala, jatorri energetikoa duten berotegi-efektuko gasen isurpenak % 35 murriztuko lirateke 2005. urtearekiko.

Halaber, sektorekako jarduketa-ildoak ere zehazten ditu Euskadiko Energia Estrategia 2030ek. Honako helburuak dituzte:

- EAEko industriaren lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea.
- Garraio-sektorean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea.
- Eraikinetan eta etxebizitzetan kontsumoa murriztea eta energia berriztagarrien erabilera handitzea.
- EAEko administrazio publikoa energetikoki eraginkorragoa izan dadin sustatzea.
- Eraginkortasuna sustatzea eta lehen sektoreko baliabideak aprobetxatzea.
- Energia elektriko berriztagarriaren ekoizpena bultzatzea.
- Hornidura energetikoko azpiegiturak eta merkatuak gainbegiratzea.
- Garapen teknologiko energetikoa bideratzea.

Aldi berean, 2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana garatu dute. Euskadin lau urte horietan energiaren eta aldaketa klimatikoaren eremuan jarraitu beharreko bidea markatzen du planak, badakitelako euskal gizarteak batera heldu behar diela trantsizio energetikoaren eta aldaketa klimatikoaren erronkei, inpaktu negatibo posibleei aurre hartzeko eta sortzen diren aukerak aprobetxatzeko. Azken finean, oinarrian ekonomia lehiakorra duen gizarte neutroa eta erresilientea osatzea da xedea.

2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 3 ardatz estrategikotan oinarritzen da. Horiek 9 jarduketa-ildo hartzen dituzte barne, eta ildo horiek 27 lan-eremutan banatzen dira.

1. ardatza: Neutraltasunerako bidea
   1. Energia-trantsizioko eredu baterantz
   2. Ekonomia zirkularraren ezarpena sustatzea eta hondakinen sorrera murriztea eta tratamendua hobetzea
   3. Lehen sektoreko isurketak murriztea, nekazaritza-ekoizpen integratu, ekologiko eta lokala sustatuz, eta karbono-hustubide gisa duen potentziala handitzea

2. ardatza: Erresilientzia areagotzea
   1. Lurraldearen kudeaketa egokitzailerantz
   2. Arriskuei aurrea hartzea

3. ardatza: Ekintza klimatikoaren eta energia-trantsizioaren zeharkakotasuna.
   1. Energia-trantsizioarekin eta klima-aldaketarekin lotutako kudeaketa-tresnak garatzea, eguneratzea eta hobetzea
   2. Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea

3. Bidezko energia- eta klima-trantsizioa bermatzea
4. Euskal Administrazio Publiko eredugarria eta herritar arduratsuak

## 2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Analisiarekin jarraituz, Estatuko energia elektrikoaren kontsumoa aztertuko dugu orain. 2023an tentsio makroekonomiko berriak izan ziren, eta horiek ekonomiaren erresilientzia probatu zuten berriz ere. Testuinguru horretan, energia elektrikoaren eskariak berriz ere behera egin zuen Espainian (2022arekiko -% 2,3), eta 244.665 GWh-ra iritsi zen: datuen segidako daturik baxuena (2007koak dira lehenengo datuak).

Bilakaera bera izan zuen energia elektrikoaren ekoizpenak ere. Ondoz ondoko bi urtez gora egin ondoren (2021ean +% 3,4 eta 2022an +% 6,3), urte arteko % 3,5eko jaitsiera izan zuen, eta 266.807 GWh-ra iritsi zen ekoizpena.

Ekoizpenak energia motaren arabera izandako bilakaerari dagokionez, energia berriztagarrien ekoizpena asko hazi zen (+% 15,1), eta 134.321 GWh-ra iritsi zen, inoizko zifrarik altuenera. Hala, lehen aldiz, gehiengoa lortu zuen Estatuko osaeran (% 50,3ko partaidetza; ehuneko +8,1 puntu 2022arekiko). Bilakaera positibo horren eragile nagusiak ekoizpen hidraulikoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa izan ziren. Izan ere, horien ekoizpen-erritmoa hazi egin zen 2023an (+% 41,1 eta +% 33,8, hurrenez hurren). Ekoitzitako guztizkoaren % 9,5 eta % 14,0 ordezkatzen zuten horiek, hurrenez hurren. Hala, energia eolikoa nabarmendu zen berriztagarrien artean, guztizkoari % 23,5eko ekarpena egin baitzion. Izan ere, energia berriztagarrien ekoizpenaren ia erdia dagokio energia eolikoari (% 46,6).

Aldiz, energia ez-berriztagarriaren ekoizpena murriztu egin zen 2023an (-% 17), eta pisu erlatiboa galdu zuen Estatuko sistema elektrikoan. 2022an ekoitzitako energia guztiaren % 57,8 zegokion, eta 2023an % 49,7. 2022an pisu handiena izan zuen energiaren, hau da, ziklo konbinatuaren, ekoizpen maila asko jaitsi zen 2023an (-% 32,4), eta hirugarren postura pasatu zen, eolikoaren (% 23,5) eta nuklearraren (% 20,3) atzetik; azken horren ekoizpena ere murriztu zen, baina neurri txikiagoan (-% 3,1).

Hala, 2023an % 5,2 hazi zen Estatuko ekoizpen-parkeetako instalazioen ahalmena, eta 125.620 MW-ra iritsi zen. Instalatutako ekoizpen-iturri berriztagarrien potentziaren ehunekoa % 61,3koa da dagoeneko.

Analisi hori bera Euskal Herriko energia-ingurunera ekarrita, eta Iberdrolak emandako informazioaren arabera, 2023. urtean jaitsi egin ziren energiaren kontsumoa (-% 3,7) eta, batez ere, ekoizpena (-% 36,5). Auto-sorkuntza, berriz, % 22,5ekoa izan zen.

Energia elektrikoaren ekoizpenari dagokionez, ekoizpen termikoak (% 43,1) eta ekoizpen eolikoak (% 31,6) jarraitu zuten Euskal Herrian ekoitzitako energia-iturri nagusiak izaten. Kogenerazioa (% 16,2), hidraulikoa (% 7,5) eta minihidraulikoa (% 1,6) izan ziren hurrengoak. Ekoizpena jaitsi egin zen, orokorrean. Testuinguru horretan, minihidraulikoaren ekoizpenaren gorakada nabarmendu zen, 2022arekiko modu esponentzialean hazi baitzen, eta hala besteetatik bereizi zen. Dena den, balio normalizatuagoetara itzuli zen, 2020-2021 biurteko balioen antzekoetara.

**55. koadroa Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian**

*(M kWh)*

| Urtea | Ekoizpena, guztira | | | | | | Kontsumo guztia 7 | Auto-sorkuntzaren % (6/7) x 100 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hidraulikoa 1 | Termikoa 2 | Eolikoa 3 | Mini hidraulikoa 4 | Kogenerazioa 5 | Guztira: (1+2+3+4+5) 6 | | |
| 2020 | 283,3 | 664,5 | 347,9 | 23,8 | 370,0 | 1.689,6 | 7.090,5 | 23,8 |
| 2021 | 297,7 | 1.267,9 | 555,1 | 26,6 | 415,3 | 2.562,6 | 7.160,1 | 35,8 |
| 2022 | 218,1 | 1.378,8 | 571,0 | 8,3 | 368,9 | 2.545,2 | 7.458,9 | 34,1 |
| 2023 | 120,8 | 696,6 | 510,8 | 26,2 | 262,3 | 1.616,8 | 7.183,5 | 22,5 |

*turria: Iberdrola.*

Lurralde bakoitzak ekoizpen-mapari egiten dion ekarpenarekin lotuta, 2023an Nafarroa nabarmendu zen, Euskal Herriko guztizko ekoizpenari egindako ekarpenarengatik (% 49,3). Haren ekarpena nabarmena izan zen energia eolikoari (guztizkoaren % 49,6), minihidraulikoari (% 45,8) eta termikoari (% 73,1) dagokienez. Arabak guztizko ekoizpenaren gaineko % 27ko partaidetza izan zuen. Esanguratsua izan zen ekoizpen hidraulikoari (% 52,8) egin zion ekarpena, eta kogenerazio ia osoa hari zegokion (% 88,6). Bizkaiaren pisu erlatiboa % 18 ingurukoa izan zen, ekoizpen osoarekiko. Hari zegokion ekoizpen hidraulikoaren % 47,2 eta termikoaren % 26,9. Azkenik, Gipuzkoak % 5,5eko ekarpena egin zion ekoizpenari; hari zegokion energia minihidraulikoaren % 37,4 eta energia eolikoaren % 14,2.

**56. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera**

*(M kWh)*

| Lurraldea | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023(1) | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 1.166,3 | 977,1 | 1.069,6 | 1.188,8 | 1.023,7 | -13,9 |
| Bizkaia | 2.410,1 | 2.532,1 | 2.514,8 | 2.549,5 | 2.528,4 | -0,8 |
| Gipuzkoa | 1.710,8 | 1.661,4 | 1.687,6 | 1.712,7 | 1.806,5 | 5,5 |
| EAE | 5.287,3 | 5.170,6 | 5.272,0 | 5.451,0 | 5.358,6 | -1,7 |
| Nafarroa | 1.902,4 | 1.919,9 | 1.888,1 | 2.007,9 | 1.824,9 | -9,1 |
| Euskal Herria(2) | 7.189,7 | 7.090,5 | 7.160,1 | 7.458,9 | 7.183,5 | -3,7 |

*(1): Behin-behineko datuak.*

*(2): Fakturatutako energia elektrikoa. Ez da kontuan hartzen Iberdrola ez den beste hornitzailerik, ezta Iberdrolaren kontsumoa ere.*

*turria: Iberdrola.*

Kontsumoak izandako bilakaera lurraldearen arabera aztertuta, Gipuzkoan bakarrik egin zuen gora energiaren kontsumoak 2023an (+% 5,5). Gainerako eremu geografikoetan behera egin zuen. Arabak izan zuen jaitsierarik handiena (-% 13,9), eta Nafarroa izan zen hurrengoa (-% 9,1). Eta Bizkaian aurreko ekitaldiko maila ia berean mantendu zen kontsumoa (-% 0,8). Ondorioz, kontsumoa 7.183,5 milioi kWh-koa izan zen, 2022an baino % 3,7 baxuagoa.

Azkenik, kapitulua ixteko, Iberdrola Taldearen emaitza nagusiak jaso ditugu jarraian. Enpresak argitaratutako informazioaren arabera, 2023aren itxiera historikoa izan zen. Izan ere, 4.803 milioi euroko etekin garbiak izan zituen, aurreko ekitaldian baino % 10,7 gehiago.

Gainera, enpresaren inbertsioa hazi egin zen, eta inoiz baino handiagoa izan zen kasu honetan ere, 11.382 milioi eurokoa, hau da, 2022an baino % 6 handiagoa. Hala, inbertsio-ahalegin horrek bultzatuta, taldearen etekin garbia 4.803 milioi eurokoa izan zen 2023an. Bestetik, ustiapenaren etekin gordina (Ebitda) 14.417 milioi eurokoa izan zen, 2022an erregistratua baino % 9 handiagoa.

2023an, era berean, gora egin zuen enpleguak, eta 4.700 langile berri kontratatu zituen mundu osoan. Hala, ekitaldiaren amaieran 42.300 langile zituen.

2024ko aurreikuspenei dagokienez, 12.000 milioi euroko inbertsioa egiteko konpromisoa hartu du enpresak, trantsizio energetikoaren buruan jarraitzeko helburuz. Inbertsio horri esker, lurrean instalatutako iturri berriztagarrien ahalmena 2.000 MW haziko da, eta egun eraikitzen ari den itsasoko proiektu eoliko berrien ekarpena gehitu behar zaio horri. Halaber, 2024an etekin garbia % 5-7 inguru haztea aurreikusten du taldeak.

# 3. SIDERURGIA

## 3.1 IKUSPEGI OROKORRA

2023an hainbat oztopo izan zituen mundu mailako sektore siderurgikoak. Oztopo horiek ekitaldia baldintzatu zuten, bai siderurgiari dagokionez, bai industria osoari dagokionez. Batetik, inflazioa eta kontsumitzaileen sektoreen mesfidantza gailendu ziren, eta, ondorioz, jaitsi egin zen altzairuaren eskaria. Gainera, Europak kanpoko merkataritza babesteko legedia duen arren, hirugarrenek Europara egindako inportazioak ugaritu egin ziren, eta horrek eragin negatiboa izan zuen prezioetan. Eta, azkenik, Europako (Errusia-Ukraina gerra) edo gertuko herrialdeetako (Gazako gerra) nazioarteko gatazkek baldintzatu egin zituzten merkatuak eta gizartea, oro har.

Aldi berean, siderurgia-sektoreak erronka garrantzitsuak ditu eta izaten jarraituko du, hala nola deskarbonizazioa, talentua erakartzea eta langileen segurtasuna.

Testuinguru horretan, eta World Steel Association elkarteak argitaratutako azken datuen arabera, 2023an 1.892 milioi tonakoa izan zen altzairu gordinaren mundu mailako ekoizpena; altzairuaren kontsumoa, berriz, 1.763 miloi tonakoa izan zen. Zifra horiek erakusten dutenez, altzairuaren mundu mailako ekoizpena egonkor mantendu zen (+% 0,1) eta kontsumoak behera egin zuen (-% 1,1).

Altzairuaren ekoizpenaren bilakaera herrialdearen arabera aztertuz gero, Txinak jarraitu zuen altzairuaren ekoizle nagusia izaten (guztizkoaren % 53,9); herrialde horretan, altzairuaren ekoizpenaren balioa ez zen ia aldatu 2022arekiko. Bestetik, Indian —bigarren herrialderik garrantzitsuena, altzairuaren ekoizpenari dagokionez— eta AEB eta Kanadan hazi egin zen ekoizpena azken urtean (+% 12,3 eta +% 1). Dena den, gainerako herrialde ekoizle nagusiek dinamikotasuna galdu zuten, eta 2022an baino ekoizpen-balio baxuagoekin amaitu zuten urtea. Zehazki, Japoniak (-% 2,5), Alemaniak (-% 3,8), Italiak (-% 2,8), Frantziak (-% 17,4), Erresuma Batuak (-% 6,7) edo Espainiak (-% 0,9) behera egin zuten, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hala, EB-27 multzoaren altzairuaren ekoizpenak % 7,4 egin zuen behera.

**57. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena**

| Herrialdea | 2022 | | | 2023 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | % Δ | % | M Tm | % Δ | % |
| AEB eta Kanada | 92,6 | -6,3 | 4,9 | 93,5 | 1,0 | 4,9 |
| Japonia | 89,2 | -7,4 | 4,7 | 87,0 | -2,5 | 4,6 |
| Txina | 1.018,0 | -1,7 | 54,0 | 1.019,1 | 0,1 | 53,9 |
| India | 125,3 | 6,0 | 6,6 | 140,7 | 12,3 | 7,4 |
| Alemania | 36,8 | -8,5 | 2,0 | 35,4 | -3,8 | 1,9 |
| Italia | 21,6 | -11,5 | 1,1 | 21,0 | -2,8 | 1,1 |
| Frantzia | 12,1 | -12,9 | 0,6 | 10,0 | -17,4 | 0,5 |
| Erresuma Batua | 6,0 | -16,7 | 0,3 | 5,6 | -6,7 | 0,3 |
| Espainia | 11,5 | -19,0 | 0,6 | 11,4 | -0,9 | 0,6 |
| EB-27 | 136,2 | -10,8 | 7,2 | 126,3 | -7,4 | 6,7 |
| **Mundu osoa** | **1.885,4** | **-3,9** | **100,0** | **1.892,0** | **0,1** | **100,0** |

*turria: World Steel Association*

Grafiko honetan ikus daitekeen moduan, altzairu gordinaren mundu mailako ekoizpenaren banaketa egonkor mantendu zen, aurreko ekitaldiekiko ia aldakuntzarik gabe. Horrekin lotuta, 2023an Europako herrialdeek ekoitzi zuten mundu mailako altzairuaren % 11,5, Amerikak % 8 eta Asiak % 72,3; mundu mailako ekoizlerik handiena izan zen Asia.

**11. grafikoa Altzairuaren mundu mailako ekoizpena**




*Iturria: World Steel Association.*

Altzairuaren mundu mailako kontsumoak, orokorrean, behera egin zuen 2023an (-% 1,1), baina herrialde batzuetan 2022ko kontsumo-zifrak gainditu zituzten. Zehazki, Indian (guztizko kontsumoaren % 7,6; +% 14,9) eta Espainian (kontsumoaren % 0,7; +% 1,6) gora egin zuen kontsumoak 2023an. Dena den, honako herrialdeetan behera egin zuen

altzairuaren kontsumoak: Txina (guztizkoaren % 50,8; -% 3,3), AEB eta Kanada (kontsumoaren % 5,9; -% 4,4) eta Japonia (guztizkoaren % 3; -% 3,1), eta Europako herrialde batzuk, hala nola Alemania (kontsumoaren % 1,6; -% 13,8), Italia (guztizkoaren % 1,3; -% 6,4), Frantzia (guztizkoaren % 0,6; -% 15,3) edo Erresuma Batua (kontsumoaren % 0,5; -% 3,2). Testuinguru horretan, EB-27n % 10,5 murriztu zen altzairuaren kontsumoa urte horretan.

**58. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa**

| | 2022 | | | 2023 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | % ∆ | % | M Tm | % ∆ | % |
| AEB eta Kanada | 108,0 | -3,1 | 6,1 | 103,2 | -4,4 | 5,9 |
| Japonia | 55,0 | -4,2 | 3,1 | 53,3 | -3,1 | 3,0 |
| Txina | 920,9 | -3,5 | 52,1 | 895,7 | -3,3 | 50,8 |
| India | 114,9 | 8,2 | 6,5 | 133,4 | 14,9 | 7,6 |
| Alemania | 31,6 | -11,0 | 1,8 | 28 | -13,8 | 1,6 |
| Italia | 24,9 | -6,4 | 1,4 | 23,5 | -6,4 | 1,3 |
| Frantzia | 10,1 | -26,8 | 0,6 | 10 | -15,3 | 0,6 |
| Erresuma Batua | 9,2 | -14,8 | 0,5 | 9,1 | -3,2 | 0,5 |
| Espainia | 12,4 | -4,6 | 0,7 | 12,7 | 1,6 | 0,7 |
| EB-27 | 138,8 | -9,9 | 7,8 | 127,6 | -10,5 | 7,2 |
| **Mundu osoa** | **1.768,2** | **-4,0** | **100,0** | **1.763,0** | **-1,1** | **100,0** |

*Iturria: World Steel Association*

## 3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

2023an karbonoaren muga doitzeko mekanismoa (CBAM, ingelesezko siglak) jarri zuten martxan, eta horrek Espainiako siderurgia-sektorea markatu zuen. Dena den, aipatutako mekanismoaren ondorioak ez dira agerikoak izango 2030era arte. Gainera, eta sektoreari eragiten dioten "*arauen olatua*" dela eta, enpresa siderurgikoen jarduera erraztuko duen arau-esparru bat behar da. Azkenik, aipatu beharrekoa da oraindik ez direla esleitu deskarbonizaziorako PERTE-en lehenengo deialdiko laguntzak, Europako funtsak astiro kudeatzen ari direlako eta burokrazia handia eskatzen dutelako.

**59. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak***

*(mila Tm)*

| Urtea | Produkzioa | Esportazioa | Inportazioa | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2016 | 13.658 | 9.415 | 9.447 | 12.957 |
| 2017 | 14.441 | 9.710 | 9.972 | 13.258 |
| 2018 | 14.320 | 9.649 | 10.761 | 13.838 |
| 2019 | 13.588 | 9.494 | 10.286 | 13.236 |
| 2020 | 11.141 | 7.974 | 8.988 | 11.691 |
| 2021 | 14.205 | 9.461 | 10.070 | 13.009 |
| 2022 | 11.573 | 8.106 | 9.819 | 12.501 |
| 2023 | 11.435 | 7.636 | 10.144 | 12.647 |

*(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza, berriz, siderurgia-produktu guztiei.*

*Iturria: Unesid.*

Espainiako siderurgia-sektorearen magnitude nagusiei dagokienez, 2023an 11.435 mila tona altzairu ekoitzi zuten Espainian, 2022an baino apur bat gutxiago (aurreko urtean baino 138 mila tona gutxiago), eta 2007ko zifratik oso urrun (5.411 mila tona gutxiago), urte hartan erregistratu baitzuten altzairuaren inoizko ekoizpen mailarik altuena Espainian.

Bestetik, 10.144 mila tona altzairu inportatu ziren, 2022an baino 325 tona gehiago. Dena den, zifrak gora egin bazuen ere, kasu honetan ere 2007koa baino askoz txikiagoa zen oraindik (4.894 mila tona gutxiago). Esportazioekin lotuta, kanpo-salmentak 7.636 mila tonakoak izan ziren (2022an baino 470 mila tona gutxiago). Azkenik, ageriko kontsumoa 12.647 mila tonakoa izan zen, aurreko ekitaldian baino 146 mila tona handiagoa.

**12. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak**




*Iturria: Unesid.*

Inportatutako lehengai nagusien bilakaerarekin lotutako datuek erakusten dutenez, aztertutako hiru lehengai moten kasuan egin zuen gora kontsumoak, baina prezioa (euroak/tonako) urtebete lehenago baino baxuagoa zen hiru kasuetan. Zehazki, koke bihur daitekeen harrikatzaren kontsumoa % 16,6 hazi zen 2022arekiko, eta 2.000 mila tona gainditu zituen. Burdin-mearen eta pelletaren kontsumoak 5.000 mila tona gainditu zituen, eta urte arteko % 5,4ko hazkundea izan zuen. Txatarraren kontsumoa, berriz, 3.203 mila tonara igo zen (urte arteko +% 4,9).

Dena den, lehengai bakoitzaren prezioa 2022koa baino baxuagoa izan zen. Koke bihur daitekeen harrikatzaren prezioak urte arteko % 26,2ko beherakada izan zuen, burdin-mearen eta pelletaren prezioak % 21,8koa eta txatarrarenak % 14,5ekoa. Hala, lehengaien prezioek jaitsiera handiekin itxi zuten ekitaldia.

**60. koadroa Inportatutako lehengaiak**

| Urtea | Koke bihur daitekeen harrikatza | | Burdin-mea eta pelleta | | Txatarra | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) |
| 2014 | 1.632 | 105,2 | 5.699 | 73,7 | 4.960 | 331,7 |
| 2015 | 1.720 | 102,0 | 6.288 | 50,7 | 5.144 | 292,2 |
| 2016 | 1.768 | 107,5 | 6.010 | 52,0 | 4.004 | 263,5 |
| 2017 | 1.767 | 207,3 | 6.572 | 76,3 | 4.242 | 321,0 |
| 2018 | 1.621 | 191,7 | 6.556 | 74,5 | 4.040 | 345,1 |
| 2019 | 780 | 188,2 | 5.557 | 91,6 | 4.024 | 304,4 |
| 2020 | 360 | 118,8 | 3.564 | 101,9 | 3.385 | 298,0 |
| 2021 | 1.421 | 177,9 | 5.650 | 155,3 | 4.122 | 444,3 |
| 2022 | 1.728 | 372,3 | 4.759 | 134,7 | 3.052 | 495,0 |
| 2023 | 2.014 | 274,9 | 5.013 | 105,3 | 3.203 | 423,3 |
| Hazkundea % 23-22 | 16,6 | -26,2 | 5,4 | -21,8 | 4,9 | -14,5 |

*turria: Unesid.*

2023an, siderurgia-sektorearekin eta lehenengo eraldaketarekin lotutako enpresen langile kopurua % 3,3 hazi zen aurreko urtearekiko, eta zuzeneko 21.871 langilera iritsi ziren. Dena den, ekitaldian zehar onartutako lan arloko erregulazioek mugatu egin zuten aldi baterako kontratazioa. Horrez gain, gora egin zuten ordaindutako baimenek eta gaixotasunagatiko edo lanekoak ez diren istripuengatiko absentismoak. Horrek guztiak baldintzatu egin zuen jarduera.

Siderurgia-sektoreak datozen urteetarako dituen erronkei dagokienez, Unesiden arabera, deskarbonizazio-planak diseinatzea eta ezartzea eta laneko malgutasuna sustatzea dira erronketako batzuk. Halaber, kanpo-merkatuaren aurrean lehiakortasuna galtzeko arriskua aipatzen dute. Izan ere, kanpo-merkatua erakargarriagoa izan liteke, egungo arau zurrunen ondorioz, eta horrek arriskuan jarriko lituzke egungo enpresak eta merkatua.

Bestetik, UNESIDek elkarlanean jarraitu zuen PLATEArekin (Altzairuaren Espainiako Plataforma Teknologikoa), eta aurrera jarraitu zuen I+G sustatzeko konpromisoarekin, Estatuko siderurgia-industriaren lehiakortasuna, jasangarritasuna eta hazkundea ziurtatzeko. Testuinguru horretan, Manuel Heredia sariaren (bi urtean behingoa) bigarren edizioa elkarrekin antolatu zuten bi erakunde horiek 2023an. Siderurgia-sektoreko ikertzaile gazteei zuzenduta dago saria, eta sektorean ospe ona duen egitasmoa bilakatu da.

## 3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Euskal siderurgiak hainbat zailtasun eta erronka izan zituen 2023an zehar, hala nola inflazioa, nazioarteko gatazkak eta ingurumen-erronkak. Dena den, jarraian aurkezten diren emaitzetan ikusten den moduan, euskal enpresa siderurgikoek emaitza positiboekin itxi zuten ekitaldia, eta erronkak gaindituta.

**13. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena**

**BIZKAIA**
- Arcelor Mittal
- Nervacero (Celsa)
- Befesa Aluminio Bilbao
- Tubos Reunidos
- Layde Steel slu
- Aurubis
- Aceros Inoxidables Olarra
- Sidenor

**GIPUZKOA**
- Arcelor Mittal
- Ampo
- Hijos de Juan de Garay
- Lasaomallas (Grupo Industrial CL)
- Fagor Ederlan
- Sidenor



**ALAVA**
- Sidenor
- Tubos Reunidos
- Tubacex Tubos Inoxidables
- Celsa Atlantic
- Arcelor Mittal
- I.E.S.A. (Inoxidables de Euskadi)
- Aratubo

**NAVARRA**
- Arcelor Mittal
- Schmidt-Clemens Spain
- Fagor Ederlan
- Hydro estruded solutions Navarra

*Iturria: Geuk egina.*

Euskal Herriko sektore siderurgikoaren kanpo-merkataritzak 2023an izan zuen bilakaerari dagokionez, euskal enpresek 1.814 mila tona esportatu zituzten, aurreko urtean baino % 8,9 gutxiago (178 mila tona, termino absolutuetan). Termino monetarioetan, berriz, murrizketa are handiagoa izan zen: -% 20,8 eta 586,9 mila euro gutxiago 2022an baino.

Siderurgia-sektorearen inportazioak % 2,3 hazi ziren azken urtean, bolumenari dagokionez (3.147,7 mila tonara arte); aldiz, termino monetarioetan, bilakaera negatiboa izan zen (-% 10,8 eta 325,1 mila tona gutxiago).

**61. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza**

| Urtea | Inportazioak | | Esportazioak | |
|---|---|---|---|---|
| | m Tm | M euro | m Tm | M euro |
| 2014 | 4.330,5 | 1.951,4 | 2.791,9 | 1.852,9 |
| 2015 | 4.595,9 | 1.879,8 | 2.810,3 | 1.745,3 |
| 2016 | 3.375,0 | 1.467,3 | 2.436,7 | 1.406,0 |
| 2017 | 3.540,5 | 1.831,4 | 2.114,2 | 1.497,4 |
| 2018 | 3.430,9 | 2.012,2 | 2.237,3 | 1.829,6 |
| 2019 | 3.493,3 | 1.933,6 | 2.187,7 | 1.663,0 |
| 2020 | 2.763,0 | 1.425,2 | 1.798,1 | 1.270,6 |
| 2021 | 3.409,4 | 2.441,3 | 2.243,2 | 2.162,6 |
| 2022 | 3.077,1 | 3.021,0 | 1.992,1 | 2.816,8 |
| 2023 | 3.147,7 | 2.696,0 | 1.814,0 | 2.229,9 |

*turria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.*

Siderurgia-jarduerak duen garrantzi ekonomikoa Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dugu. Aurreko txostenetan bezala, garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza eta/edo produktuen sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez-integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiei dagokie.

Hala, ekitaldiko emaitzak aurreko urteetako emaitzak baino hobeak izan zirela erakusten dute eskura ditugun azken datuek (2022koak). Hori horrela, euskal siderurgia-jarduerak, galdaketak eta forjaketak eta estanpazioak sortutako BEGa (Balio Erantsi Gordina) 2.256,8 milioi eurokoa izan zen, aurreko aldian baino % 10,6 handiagoa (2.041 milioi euro gehiago), eta metalezko eraikuntzaren, ingeniaritza metalikoaren eta metalezko artikuluen jarduerek 2.696 milioi euroko ekarpena egin zuten, 2021ean baino % 10,7 handiagoa (2.435,3 milioi euro gehiago). Modu horretan, euskal industriak sortutako BEGaren % 29,7 jarduera siderometalurgikoen multzoaren ekarpena izan zen, eta 67.280 pertsonari eman zien enplegua.

**62. koadroa** **Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena**

| Kontzeptua | BEGa (M euro) | | | Enplegua (pertsona kopurua) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 |
| Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia | 603 | 1.171 | 1.296 | 9.296 | 9.718 | 9.863 |
| Galdaketa | 359 | 385 | 430 | 6.532 | 6.697 | 6.552 |
| Metalezko eraikuntzak | 429 | 477 | 539 | 9.444 | 9.517 | 9.731 |
| Forjaketa eta estanpazioa | 429 | 486 | 531 | 6.757 | 6.769 | 6.841 |
| Ingeniaritza mekanikoa | 965 | 1.097 | 1.201 | 20.161 | 20.289 | 20.351 |
| Metalezko artikuluak | 791 | 861 | 955 | 14.476 | 14.040 | 13.942 |
| **Multzo siderometalurgikoa, guztira** | **3.577** | **4.476** | **4.953** | **66.666** | **67.030** | **67.280** |
| **Industria** | **13.073** | **14.455** | **16.650** | **200.699** | **201.950** | **204.774** |
| Partaidetza (%) | | | | | | |
| – *Siderurgia/Industria* | *4,6* | *8,1* | 7,8 | *4,6* | *4,8* | *4,8* |
| – *Siderometalurgia/Industria* | *27,4* | *31,0* | *29,7* | *33,2* | *33,2* | *32,9* |

*Iturria: Industria Kontuak (Eustat).*

## Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

Altzairuaren ageriko kontsumoa produktu motaren arabera aztertuta, behera egin zuten aztertutako lau produktuetatik hiruk, eta horrek eragin zuen altzairuaren kontsumoa modu orokortuan jaistea, aurrez aipatu dugun moduan (-% 1,1). Hala, produktu luze amaituen kontsumoak bakarrik egin zuen gora azken urtean (+% 4,3). Aldiz, behera egin zuen honakoen kontsumoak: lingoteak eta amaitugabeak (-% 0,8), produktu lau beroak (-% 0,6) eta produktu lau hotzak eta estaliak (-% 0,5).

**63. koadroa** **Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera**

*(m Tm)*

| Produktuak | Ageriko kontsumoa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
| Amaitutako produktu motaren arabera* | | | | |
| – Lingoteak eta amaitugabeak | 381 | 458 | 454 | -0,8 |
| – Produktu luze amaituak | 3.357 | 4.358 | 4.546 | 4,3 |
| – Produktu lau beroak | 4.591 | 3.329 | 3.310 | -0,6 |
| – Produktu lau hotzak eta estaliak | 4.679 | 4.357 | 4.334 | -0,5 |

*(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.*
*Iturria: Unesid.*

Bestetik, beroan ijeztutako produktuen ekoizpenari dagokionez, bilakaera ezberdina izan zen produktuen arabera. Egiturazko profilen (+% 13,5), trenbideetako materialaren (+% 7,1) eta beste merkataritza-profil batzuen (+% 7,1) ekoizpena igo egin zen aurreko urtearekin alderatuta. Alanbre-burdin biribilduaren (-% 9,5) eta hormigoirako biribilen (-% 5,1) ekoizpenak, berriz, behera egin zuen.

**64. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena***

*(m Tm)*

| Produktuak | Produkzioa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
| **Beroan ijeztutako produktu luzeak** | **8.847** | **7.406** | **7.509** | **1,4** |
| – Trenbideetako materiala | 251 | 226 | 242 | 7,1 |
| – Egiturazko profilak | 2.668 | 2.205 | 2.502 | 13,5 |
| – Alanbre-burdin biribildua | 3.029 | 2.227 | 2.016 | -9,5 |
| – Hormigoirako biribilak | 1.464 | 1.380 | 1.309 | -5,1 |
| – Beste merkataritza-profil batzuk | 1.435 | 1.346 | 1.441 | 7,1 |
| **Beroan ijeztutako produktu lauak** | **4.686** | **3.520** | **3.300** | **-6,3** |

*(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.*
*Iturria: Unesid.*

### *CIE Automotive*

CIE Automotive 2002an jaio zen, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresak batu zirenean. Euskal siderurgia-sektoreko enpresa garrantzitsuenetako bat da, eta produktu lauek osatzen dute haren jarduera-ardatz nagusia. Enpresak, sortu zenetik, erreferentziazko taldea bilakatu nahi izan du automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan. Enpresak berak dioen moduan, "*gure enpresaren eta sektorearen aldaketa gidatzeko behar den guztia dugu: pertsonekiko eta planetarekiko konpromiso sendoa, erronkak gainditzeko eredu erresilientea, gure helburuak lortzeko estrategia eraginkorra eta horiek errealitate bihurtzeko gaitasun teknologikoa*". Horretarako, presente dago mundu mailan, ordezkaritzak baititu honako herrialde hauetan : Amerika (Brasil, Mexiko eta AEB), Europa (Espainia, Frantzia, Portugal, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika, Errumania, Lituania, Errusia, Eslovakia), Asia (India eta Txina) eta Afrika (Maroko). Fabrika horietan banatuta, 25.294 langile ditu.

CIE Automotivek 320,2 milioi euroko mozkin garbiarekin itxi zuen 2023a, aurreko urtean baino % 6,7 gehiagorekin. Gainera, salmentek gora egin zuten berriz (2022arekiko +% 3,1), eta 3.959,5 milioi euro jaso zituzten salmentetatik. Ondorioz, 713,2 milioi euroko EBITDArekin itxi zituen urteko kontuak (% 12,6ko hazkundea).

2023ko erronka nagusien artean, desazelerazio ekonomikoa eta finantza-kostuen hazkundea nabarmendu ziren, baita kotxe elektrikoekin lotutako bi gai ere: mugikortasun elektrikorako trantsizioaren esparruan egindako inbertsio handiak eta kotxe elektrikoaren prezioen gerra, merkatuan lekua hartzeko. Ziur asko, datozen urteetan ere jarraituko dute erronka horiek, eta indartu egingo dira.

Enpresak Jokabide Profesionalaren Kode bat du zehaztuta, erantzukizun fiskalarekiko duen konpromisoa dela eta. Kode horretan, debekatu egiten du ordainketak saihestea eta tokatzen ez diren etekin fiskalak eskuratzea, baita gizarte segurantzaren kuotak ez ordaintzea ere. Konpromiso horren ondorioz, 2023an Haz Fundazioaren gardentasun

fiskalaren zigilua eskuratu zuen CIE Automotivek. Ibexen ez dagoen eta aitortza hori jaso duen enpresa bakarra da.

2050erako neutraltasun klimatikoa lortzeko ingurumen-helburuarekin, haren ingurumen-aztarna gutxitzen duten teknologiak txertatzen jarraitzen du CIE Automotivek. Hala, baliabideen erabilera eraginkorra sustatzen du, eta balio-katearekin batera lan egiten du deskarbonizazio-prozesua azkartzeko. Ildo horretatik, neutraltasun klimatikoko helburua lortzeko, funtsezkoa da hornitzaileen kolaborazioa. Hain zuzen ere, kolaborazio hori indartzeko, Supply Chain Race 2 Zero programa jarri du martxan. Egitasmo horren bidez, hornitzaileek deskarbonizazioari aurre egiteko moduari buruzko datuak jakinarazten dizkiote CIE Automotiveri. Aldi berean, konpainiak mentoretza eta soluzio teknikoak eskaintzen dizkie zailtasunak sortzen badira. Horri esker, oztopo tekniko posibleak aurreikus daitezke hornidura-katean, eta deskarbonizatutako eskaintza gauzatzeko epeak finka daitezke.

Azkenik, CIE Automotiveren ekintza sozialaren barruan, presente dagoen komunitateen beharrei soluzioak eskaintzeko duen konpromisoa nabarmentzen da. Horretarako, dohaintzak, babesletza, mezenasgoa eta inbertsioak egiten ditu komunitateetan. Horrekin lotuta, 2023an zehar milioi bat eurotik gora jarri zituen egitasmo mota horietarako, plantillako 5.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, eta 12.000 lanordu baino gehiago behar izan ziren.

### Soldadurarik gabeko hodiak

Unesidek 2023ko ekitaldiaren gainean emandako datuen arabera, soldadurarik gabeko hodien esportazioek behera egin zuten, eta inportazioek ez zuten aldaketarik izan. Zehazki, 2022. urtearekin alderatuta, esportazioak % 11,7 jaitsi ziren, eta inportazioak, % 0,4.

**65. koadroa Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritza**

*(m Tm)*

| Urtea | Esportazioa | Inportazioa |
|---|---|---|
| 2014 | 275 | 120 |
| 2015 | 226 | 113 |
| 2016 | 196 | 117 |
| 2017 | 271 | 130 |
| 2018 | 280 | 170 |
| 2019 | 228 | 159 |
| 2020 | 173 | 109 |
| 2021 | 195 | 121 |
| 2022 | 278 | 130 |
| 2023 | 246 | 130 |

*turria: Unesid.*



LABORAL kutxa

2022an asko hazi ondoren, soldadurarik gabeko hodien azpisektoreko esportazioek beherakada handia izan zuten 2023an (-% 14,4). Gainera, kanpora egindako salmenten jomugako herrialdeei dagokienez, Estatu Batuek jarraitu zuten lehen postuan, esportazioen % 43,9 hara egin baitziren. Hurrengoa EB-27 (% 33,2) izan zen. Bilakaera ezberdina izan zen herrialdearen arabera, baina soldadurarik gabeko hodien esportazioen jomugako herrialde nagusiek behera egin zuten: Estatu Batuak (urte arteko -% 32,1), EB-27 (urte arteko -% 12,6), Alemania (-% 31,3), Italia (-% 32,9).

Aitzitik, azken urtean gora egin zuten Frantziara (+% 8,4), Belgikara (+% 534,1), Mexikora (+% 521,2) edo Saudi Arabiara (+% 49,6) egindako esportazioek. Kontuan izan behar da pisu erlatibo txikia duten jomugako herrialdeetan erregistratu direla esportazioaren hazkunde handienak, eta herrialde horien balioak oso aldakorrak izaten direla.

**66. koadroa** **Soldadurarik gabeko hodien esportazioak, helmugako herrialdeen arabera**

*(m Tm)*

| Eremua | 2021 | 2022 | 2023 | % | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 53,0 | 138,5 | 94,1 | 43,9 | -32,1 |
| Alemania | 21,1 | 25,5 | 17,5 | 8,2 | -31,3 |
| Frantzia | 13,9 | 14,0 | 15,2 | 7,1 | 8,4 |
| Italia | 22,1 | 20,8 | 13,9 | 6,5 | -32,9 |
| Belgika | 2,7 | 1,7 | 10,6 | 4,9 | 534,1 |
| Mexiko | 4,0 | 1,0 | 6,0 | 2,8 | 521,2 |
| Erresuma Batua | 2,3 | 2,7 | 5,7 | 2,7 | 110,0 |
| Saudi Arabia | 1,3 | 3,2 | 4,8 | 2,2 | 49,6 |
| Arabiar Emirerri Batuak | 5,0 | 2,5 | 4,6 | 2,1 | 82,8 |
| Aljeria | 0,2 | 0,1 | 4,4 | 2,1 | 6.211,0 |
| Portugal | 4,4 | 4,5 | 4,2 | 1,9 | -8,6 |
| Herbehereak | 3,3 | 5,3 | 3,5 | 1,6 | -34,9 |
| Qatar | 0,4 | 0,0 | 2,9 | 1,4 | 18.757,2 |
| Hego Korea | 6,2 | 3,6 | 2,9 | 1,3 | -20,9 |
| Austria | 1,0 | 1,1 | 2,8 | 1,3 | 145,1 |
| EB-27 guztira | 73,7 | 81,5 | 71,2 | 33,2 | -12,6 |
| **Mundua, guztira** | **166,3** | **250,6** | **214,5** | **100,0** | **-14,4** |

*turria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.*

### *Tubacex*

Tubacexek, 2023ko memorian adierazten duen moduan, mundu mailako erreferentea eta liderra izan nahi du material aurreratuekin lotutako soluzio industrial berritzaileetan. Horretarako, kudeaketa eta bezeroaren arreta bikaina eskaini nahi ditu, bezeroen beharrei eta nahiei erantzun egokia emateko eta ezarritako errentagarritasun-, hobekuntza- eta garapen-helburuak betetzeko. Enpresa-proiektuaren lidergo-balioen, emaitzetara bideratutako ikuspegiaren, etengabeko hobekuntzaren eta etika enpresarialaren emaitza bezeroen asebetetzea da. Langileak askotarikoak dira, eta horrek laneko duintasuna

ziurtatzen du. Eta enpresak taldeko lana, sormena eta berrikuntza sustatzen ditu, eta balioa eta errentagarritasuna sortzen ditu taldearentzat eta inguruarentzat.

2023an emaitza eta lorpen historikoak eskuratu zituen Tubacex taldeak. 852,4 milioi euroko fakturazioa izan zuen (urte arteko % 19,3ko hazkundea), eta 125,2 milioi euroko EBITDA (urte arteko +% 35,6). Ondorioz, ustiapenaren etekin gordinaren gaineko marjina (% 14,7) Tubacexen historiako handiena izan zen. Jarduera aurrera eraman ahal izateko, Tubacex taldeak 2.503 pertsonari eman zien enplegua mundu osoan 2023. urtean zehar hainbat lantegitan, aurreko ekitaldian baino % 6,1 gehiagori (143 pertsona gehiago).

TUBACEX taldearen kanpo-salmenten banaketa geografikoari dagokionez, Asiak eta Ekialde Ertainak bildu zuten salmenten % 43, 2022an galdutako dinamikotasuna berreskuratu ondoren. Amerika bigarren lekuan kokatu zen, salmenten % 33arekin, hau da, pandemiaren aurreko kuotaren bikoitzarekin. Europak, berriz, merkatuko kuota galdu zuen, eta salmenten % 21 zegokion (2022an % 31). Mundu mailan presentzia dibertsifikatua izateak nolabaiteko segurtasuna eta babesa ematen dizkio Tubacexi, tentsio geopolitiko posibleen aurrean.

**14. grafikoa Salmenten banaketa geografikoa 2023an**




*Iturria: Tubacex taldea.*

Jasangarritasunaren arloan, Nazio Batuen Munduko Ituna babesten du Tubacexek, duela hogei urtetik. Giza Eskubideen, ingurumenaren eta lanaren aldeko eta ustelkeriaren aurkako borondatezko egitasmorik garrantzitsuena da aipatutako ituna. Testuinguru horretan, itunean jasotako 10 printzipio unibertsalak sustatzen ditu Tubacexek. Horrez gain, 2030 Agendan jasotzen diren garapen-jasangarrirako erronkak eta GJHak babesten ditu.

Azkenik, Tubacexek fundazio bat du 2016az geroztik. Haren bidez, enpresa kokatuta dagoen komunitateen aniztasuna eta garapena bultzatzen ditu, kalitatezko prestakuntzarekin, aniztasun korporatiboarekin eta tokiko komunitateen garapenarekin lotutako proiektuak martxan jartzearen bitartez. 2023an zehar, gizarte-ekintzaren arloan, Tubacex Fundazioak eraikin berri bat eraikitzea planteatu zuen Colabora Birmania GKEaren bidez, Bigarren Hezkuntzako haur gehiago hartu ahal izateko. Hezkuntzaren eremuan, honako hauek nabarmentzen dira: Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean ematen dituen bekak; ikasketa-programa dualak, ikastetxeak eta enpresak tartekatzen dituztenak; eta nazioarteko talentua erakartzeko programa berri bat. Azkenik, 2022an Ukrainako enpresa kolaboratzaile bateko langileei eta familiei zuzendutako laguntza-programa bat jarri zuen martxan, Errusiak Ukrainari egindako inbasioaren harira. Programa horren baitan, aldi baterako Euskal Herrian egon ziren lau familia Ukrainako mugatik gertu dauden eskualdeetara itzuli ziren 2023an. Dena den, bi familia Tubacex Fundazioak finantzatutako alokairuko pisuetan bizi dira oraindik, eta euskal gizartean integratuta daude.

*Tubos Reunidos*

2023ko ekitaldia positiboa izan zen Tubos Reunidos enpresarentzat, baina hainbat aldaketa eta erronka izan zituen, nazioarteko gatazken eta ekoizpen-kostuen gorakadaren ondorioz. Energiaren prezioaren igoerak, hornigaien eskasiak eta zailtasun logistikoek eragin zuten ekoizpen-kostuen gorakada.

Horrekin lotuta, Sestaoko eta Amurrioko altzairu-fabrikak kokapen bakar batean elkartzea izan zen 2023ko erronketako bat, optimizatzeko eta indartzeko estrategiaren barruan. Horri esker, enpresaren ekoizpen-gaitasuna handitu zen, eta sinergiak aprobetxatu zituen.

Urteko zifra gakoei dagokienez, 2023an, 532,9 milioi euroko negozio-zifrarekin itxi zuen ekitaldia Tubos Reunidos taldeak (+% 3,7, 2022arekin alderatuta), eta ustiapenaren emaitza 84,3 milioi eurokoa izan zen (2022an baino 30,3 milioi euro gehiago). Jarduera aurrera eramateko, Tubos Reunidosek 4 ekoizpen-lantegi ditu, eta 1.399 langile. Zifra hori ez zen apenas aldatu 2022ko langile kopuruarekiko (-6 pertsona).

Ekoizpen-lantegiez gain, Tubos Reunidos taldeak presentzia handia du nazioartean. I+G arloko 3 zentro ditu, 6 herrialdetan bulego komertzialak eta 15 herrialdetan agentzia komertzialak.

**67. koadroa Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2023**

| Negozio arloak | Unitateak/establezimenduak |
|---|---|
| Lantegiak | Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba)<br>Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia)<br>Tubos Reunidos Premium Threads (Iruña Oka, Araba)<br>RDT, Inc (Beasley, Texas) |
| Bulegoak | Madrid (Madril, Espainia)<br>Bilbao (Bilbo, Espainia) |
| Nazioartekoa | TR América (Houston, Ameriketako Estatu Batuak)<br>TR Beijing Office (Pekin, Txina)<br>TR Malasia (Malaysia, Asia)<br>TR Italia (Milan, Italia)<br>TR Alemania (Alemania)<br>TR Dubai Office (Dubai)<br>TR Seúl (Hego Korea)<br>TR México (Mexiko)<br>TR Colombia (Kolonbia) |

*turria: Urteko Txostena-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea*

# 4. ONTZIGINTZA

## 4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Nazioartean hazkunde ekonomikoa desazeleratu egin bazen ere, 2023an % 4,4 hazi zen mundu mailako itsasoko merkataritza, tona-milia terminoetan. Txinaren hazkundeak, jatorriko eta helmugako matrizeen aldaketek (Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka armatuaren ondorioz), Panamako kanaleko lehorteak eta, urtearen amaieran, Itsaso Gorriko krisiak eragin zuten hazkunde hori. Izan ere, faktore horiek luzatu egiten dituzte garraio-ibilbideak.

Itsasontzi berrien mundu mailako kontratazioari dagokionez, 2023an 115,8 miloi tona pisu hil zenbatu ziren, aurreko urtean baino % 11,3 gehiago. Aldi berean, entregak % 6,9 hazi ziren, 87,8 milioi tona pisu hil izateraino.

**68. koadroa Munduko merkataritza-flota**

*(MGT)*

| Urtea | Tonak | % Δ |
|---|---|---|
| 2013 | 1.027,0 | 3,6 |
| 2014 | 1.067,1 | 3,9 |
| 2015 | 1.107,8 | 3,8 |
| 2016 | 1.148,0 | 3,6 |
| 2017 | 1.182,8 | 3,0 |
| 2018 | 1.221,3 | 3,3 |
| 2019 | 1.263,0 | 3,4 |
| 2020 | 1.324,7 | 4,9 |
| 2021 | 1.353,8 | 2,2 |
| 2022 | 1.400,0 | 3,4 |
| 2023 | 1.438,7 | 2,8 |

*Iturria: ANAVE.*

Gauzak hala, mundu mailako merkataritzako ontzidia 1.438,7 milioi tona gordinekoa izan zen 2023an, aurreko urtean baino % 2,8 handiagoa. 2022ko hazkundea (% 3,4) baino txikiagoa izan zen, baina 2021ekoa (% 2,2) baino handiagoa.

Arreta ontzidiaren jatorrizko herrialdeetan jarrita, ohiko moduan, Panama izan zen aktore nagusia, eta munduko merkataritzako ontzidiaren % 16,2 bildu zuen 2023an. Liberia eta Marshall Uharteak izan ziren hurrengoak, % 15,9ko eta % 12,1eko kuotekin, hurrenez hurren. Europa mailan Malta nabarmendu zen, guztizkoaren gaineko % 5,5eko pisu erlatiboarekin. Hala, alde handiarekin gainditu zituen Greziaren (% 2,4) eta Zipreren (% 1,5) kuotak.

**69. koadroa Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera**

| Herrialdea | 2021 MGT | 2021 % | 2022 MGT | 2022 % | 2023 MGT | 2023 % | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Panama | 221,4 | 16,4 | 222,9 | 15,9 | 232,7 | 16,2 | 4,4 |
| Liberia | 184,0 | 13,6 | 203,5 | 14,5 | 229,0 | 15,9 | 12,5 |
| Marshall Uharteak | 159,6 | 11,8 | 169,7 | 12,1 | 174,5 | 12,1 | 2,8 |
| Hong Kong | 128,8 | 9,5 | 129,8 | 9,3 | 126,0 | 8,8 | -3,0 |
| Singapur | 84,9 | 6,3 | 83,9 | 6,0 | 87,8 | 6,1 | 4,6 |
| Malta | 79,4 | 5,9 | 81,2 | 5,8 | 78,6 | 5,5 | -3,1 |
| Txina | 57,2 | 4,2 | 61,2 | 4,4 | 64,3 | 4,5 | 5,0 |
| Bahamak | 53,3 | 3,9 | 52,0 | 3,7 | 51,7 | 3,6 | -0,5 |
| Grezia | 37,1 | 2,7 | 35,4 | 2,5 | 34,1 | 2,4 | -3,7 |
| Japonia | 27,9 | 2,1 | 27,9 | 2,0 | 30,6 | 2,1 | 9,4 |
| Danimarka | 22,1 | 1,6 | 22,8 | 1,6 | 22,3 | 1,6 | -2,2 |
| Zipre | 21,3 | 1,6 | 21,4 | 1,5 | 21,1 | 1,5 | -1,3 |
| Erresuma Batua | 17,1 | 1,3 | 19,5 | 1,4 | 20,1 | 1,4 | 3,4 |
| Portugal | 22,5 | 1,7 | 22,5 | 1,6 | 19,8 | 1,4 | -11,7 |
| Indonesia | 18,0 | 1,3 | 17,3 | 1,2 | 18,1 | 1,3 | 4,9 |
| Norvegia | 16,8 | 1,2 | 16,2 | 1,2 | 16,3 | 1,1 | 0,7 |
| Italia | 12,2 | 0,9 | 12,6 | 0,9 | 15,0 | 1,0 | 19,2 |
| Hego Korea | 13,7 | 1,0 | 13,3 | 0,9 | 12,7 | 0,9 | -4,2 |
| Iran | 11,6 | 0,9 | 11,4 | 0,8 | 11,6 | 0,8 | 1,3 |
| Bermuda | 9,1 | 0,7 | 9,2 | 0,7 | 9,8 | 0,7 | 6,1 |
| India | 10,2 | 0,8 | 10,0 | 0,7 | 9,6 | 0,7 | -4,3 |
| Estatu Batuak | 8,9 | 0,7 | 8,7 | 0,6 | 8,8 | 0,6 | 1,0 |
| Frantzia | 6,3 | 0,5 | 7,2 | 0,5 | 8,1 | 0,6 | 12,2 |
| Alemania | 7,0 | 0,5 | 6,4 | 0,5 | 7,1 | 0,5 | 9,6 |
| Holanda | 6,1 | 0,4 | 5,9 | 0,4 | 6,0 | 0,4 | 0,9 |
| Belgika | 4,4 | 0,3 | 4,5 | 0,3 | 4,4 | 0,3 | -0,8 |
| Espainia | 2,4 | 0,2 | 2,4 | 0,2 | 2,4 | 0,2 | 0,5 |
| Suedia | 2,1 | 0,2 | 2,1 | 0,2 | 2,2 | 0,2 | 3,9 |
| Finlandia | 1,6 | 0,1 | 1,6 | 0,1 | 1,7 | 0,1 | 7,5 |
| Kroazia | 1,0 | 0,1 | 1,0 | 0,1 | 1,0 | 0,1 | -2,4 |
| Gainerako herrialdeak | 106,0 | 7,8 | 116,4 | 8,3 | 111,3 | 7,7 | -4,4 |
| **EB, guztira** | **224,3** | **16,6** | **227,4** | **16,2** | **221,1** | **15,4** | **-2,8** |
| **Mundu osoa** | **1.353,8** | **100,0** | **1.400,0** | **100,0** | **1.438,7** | **100,0** | **2,8** |

*turria: ANAVE.*

Itsasontzi motari dagokionez, aurreko urteetan bezala, 2023an solteko salgaien itsasontziak ziren munduko merkataritzako ontzidiaren herena baino gehiago (% 35,8). Honakoak izan ziren hurrengoak, ordena honetan: petrolio-ontziak, edukiontziak garraiatzekoak, beste merkataritzako ontzi batzuk, gasa garraiatzekoak eta kargaontziak, % 21,3ko, % 18,9ko, % 12,4ko, % 6,6ko eta % 4,9ko partaidetzekin, hurrenez hurren.

Urte arteko aldakuntzei dagokienez, aurreko ekitaldian ez bezala (2022an gasa garraiatzeko ontziek izan zuten hazkunderik handiena, % 7,6koa), 2023an kargaontziek izan zuten hazkunderik handiena (% 4,1). Dena den, kontuan izan behar da ontzi mota horiek munduko ontzidiaren % 4,9 bakarrik ordezkatzen zutela.

**70. koadroa Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera**

*(MGT)*

| Itsasontzi mota | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|
| Petrolioa garraiatzekoak | 287,5 | 292,3 | 297,7 | 306,0 |
| Gasa garraiatzekoak | 82,3 | 85,9 | 92,4 | 95,2 |
| Solteko salgaienak | 473,8 | 484,0 | 502,8 | 514,9 |
| Kargaontziak | 64,8 | 67,3 | 68,3 | 71,1 |
| Edukiontziak garraiatzekoak | 246,9 | 252,8 | 263,5 | 272,5 |
| Beste merkataritzako ontzi batzuk | 169,3 | 171,6 | 175,3 | 178,9 |
| **Merkataritzako ontziak guztira** | **1.324,7** | **1.353,8** | **1.400,0** | **1.438,7** |

*turria: ANAVE.*

Azkenik, aipatzekoa da 2023an gora egiten jarraitu zuela munduko merkataritzako ontzidiaren batez besteko adinak, eta 20 urtera igo zen berriz ere (2022an 19,7), behera egin baitzuten desegiteko salmentek (-% 10,4). Ontzi motaren arabera, metanoa garraiatzeko ontziak izan ziren ontzidiko gazteenak (10,4 urte), eta hozkailuak, berriz, zaharrenak (33,1 urte).

## 4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

2023an, Estatuko ontzi berrien ekoizpenak aurreko urtean baino beherakada handiagoa izan zuen, -% 10,8koa (2022an -% 5,1eko jaitsiera). Hala, 99 mila tona konpentsatukoa izan zen ekoizpena[1]. Gainera, ekoizpen-faseen arabera, entregatutako tonajea bakarrik hazi zen (% 12,8). Aldiz, behera egin zuten hasitako tonajeak eta ureratutakoak (-% 11,8 eta -% 20,7, hurrenez hurren).

[1] Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan jasotzen da, kontrakoa adierazi ezean.

### 71. koadroa — Espainiako itsasontzien ekoizpena

*(mCGT) (1)*

| Urtea | Tonaje haztatua(2) | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea | Konpentsazio-koefizientea(3) |
|---|---|---|---|---|---|
| 2014 | 154 | 181 | 137 | 159 | 0,43 |
| 2015 | 179 | 280 | 169 | 99 | 0,92 |
| 2016 | 103 | 84 | 103 | 124 | 0,48 |
| 2017 | 130 | 142 | 122 | 133 | 0,75 |
| 2018 | 201 | 136 | 246 | 178 | 0,98 |
| 2019 | 160 | 188 | 123 | 207 | 0,87 |
| 2020 | 101 | 92 | 124 | 64 | 0,48 |
| 2021 | 117 | 101 | 92 | 182 | 0,49 |
| 2022 | 111 | 119 | 116 | 94 | 0,48 |
| 2023 | 99 | 105 | 92 | 106 | 0,52 |

*(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitzeko konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.*

*(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.*

*(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).*

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Espainiako ontziolen eskari-zorroari dagokionez, 2023an beheranzko joera berrartu zuen, 2022an hazkunde puntual bat izan ondoren (% 5,2ko hazkundea ekitaldi horretan). Hala, -% 18,3 murriztu zen, 250 mila tonara arte. Izan ere, behera egin zuten zorro nazionalak (-% 6,1) eta, bereziki, esportazioen zorroak (-% 22,8). Gauzak hala, kanpo-merkatuak Estatuko guztizko zorroarekiko zuen partaidetza-kuotak jaisten jarraitu zuen (2023an guztizkoaren % 69, eta aurreko ekitaldian % 73).

### 72. koadroa — Eskarien zorroa urtearen amaieran

| Urtea | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | mCGT | % | mCGT | % | mCGT |
| 2014 | 19 | 7 | 271 | 93 | 290 |
| 2015 | 171 | 37 | 288 | 63 | 459 |
| 2016 | 209 | 45 | 259 | 55 | 468 |
| 2017 | 233 | 46 | 273 | 54 | 506 |
| 2018 | 126 | 28 | 322 | 72 | 448 |
| 2019 | 27 | 7 | 350 | 93 | 377 |
| 2020 | 38 | 11 | 318 | 89 | 356 |
| 2021 | 39 | 13 | 252 | 87 | 291 |
| 2022 | 82 | 27 | 224 | 73 | 306 |
| 2023 | 77 | 31 | 173 | 69 | 250 |

*Iturria: Geuk egina, Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Ontziei dagokienez, 2023aren amaieran Estatuko guztizko eskaera-zorroa osatzen zuten 48 itsasontzietatik 12 merkatu nazionalera bideratutakoak ziren, eta gainerako 36ak kanpo-merkatura bideratutako itsasontziak ziren.

**73. koadroa Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2023**

| Itsasontzi mota | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Itsasontzi kopurua | CGT | Itsasontzi kopurua | CGT | Itsasontzi kopurua | CGT |
| Petrolio gordina garraiatzekoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Petrolio- eta kimika-produktuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Kargaontziak | 3 | 16.932 | 0 | 0 | 3 | 16.932 |
| Hozkailuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ferryak | 1 | 16.608 | 9 | 10.332 | 10 | 26.940 |
| Bidaiariak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Arrantza-ontziak | 2 | 14.267 | 8 | 60.964 | 10 | 75.231 |
| Beste itsasontzi batzuk | 6 | 29.390 | 19 | 101.918 | 25 | 131.308 |
| **Guztira** | **12** | **77.197** | **36** | **173.214** | **48** | **250.411** |

*turria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Estatuko eskari-zorroa itsasontzi motaren arabera sakon aztertuta, 2023aren amaieran honakoek osatzen zuten barne-merkatua: hiru kargaontzi, ferry bat, bi arrantza-ontzi eta beste mota bateko sei ontzi. Kanpo-zorroa, berriz, honakoek osatzen zuten: bederatzi ferry, zortzi arrantza-ontzi eta beste mota bateko hemeretzi ontzi.

Azkenik, Estatuko ontziolekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Navantiak 2023ko Europako Defentsarako Funtseko sei proiektutan (520 milioi euroko balioa) parte hartu zuela, eta, hala, Europan zuen posizioa hobetu zuela. Zehazki, Europako Batzordeak aukeratutako I+G arloko honako sei proiektu hauetan parte hartu zuen: EPC2 (Europako patruila-korbetaren bigarren fasea), OPTIMAS (laser-komunikazioen sistemaren prototipo baten diseinua eta garapena, abiadura handiko espazio librean), ADMIRABLE (berrikuntza fabrikazio aurreratuko teknologietan eta konpositean oinarritutako materialetan), E=MCM (minen gerrarako sistemen sistema eskalagarri baten garapena), SEACURE (azpiegitura kritikoak babesteko eragiketetarako gidaririk gabeko ibilgailuetan oinarritutako sistemen sistema integratu baten diseinua eta garapena) eta E-CUAS (I motako aireko gidaririk gabeko ibilgailuen kontrako sistema baten garapena).

## 4.3 ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN

Estatu mailan bezala (ekoizpenak behera egin zuen), 2023an -% 30,8 murriztu zen Euskal Herriko ontzigintza-sektoreko ekoizpena, 18 mila tona gordinera arte. Ekoizpen-fase guztietan egin zuen behera jarduerak, entregatutako tonajearen kasuan izan ezik, gora egin baitzuen (% 26,3). Zehazki, ureratutako tonajea -% 38,7 murriztu zen, eta hasitako tonajea -% 66,7.

**74. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian**

*(mGT)*

| Urtea | Tonaje haztatua | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea |
|---|---|---|---|---|
| 2014 | 27 | 36 | 24 | 23 |
| 2015 | 42 | 77 | 35 | 19 |
| 2016 | 23 | 13 | 26 | 28 |
| 2017 | 25 | 15 | 30 | 26 |
| 2018 | 23 | 17 | 20 | 35 |
| 2019 | 18 | 16 | 17 | 20 |
| 2020 | 15 | 21 | 16 | 5 |
| 2021 | 17 | 22 | 13 | 19 |
| 2022 | 26 | 24 | 31 | 19 |
| 2023 | 18 | 8 | 19 | 24 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Halaber, tonaje konpentsatuaren ikuspegitik, Euskal Herriko ontzi-ekoizpenak ere behera egin zuen 2023an (-% 36,2). Ondorioz, Euskal Herriko ontzigintza-sektoreak Estatuko guztizkoaren gainean zuen partaidetza-kuota gutxitu egin zen (2023an % 30 eta 2022an % 42).

**75. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua**

| Kontzeptua | 2022 | | 2023 | |
|---|---|---|---|---|
| | mCGT | Espainiako % | mCGT | Espainiako % |
| Tonaje haztatua | 47 | 42 | 30 | 30 |
| Hasitako tonajea | 41 | 34 | 11 | 11 |
| Uretaratutako tonajea | 57 | 49 | 31 | 34 |
| Entregatutako tonajea | 34 | 35 | 46 | 43 |

*turria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Tonaje konpentsatuaren ikuspegiarekin jarraituz, 2023an behera egin zuten hasitako tonajeak eta ureratutako tonajeak (-% 73,2 eta -% 45,6, hurrenez hurren). Aldiz, entregatutako tonajea % 35,3 hazi zen.

Hala, dinamika hori estatu mailakoarekin alderatuta, Euskal Herriak Estatuko guztizkoaren gainean zuen partaidetza gutxitu egin zen hasitako tonajearen kasuan (2022an % 34koa izatetik 2023an % 11koa izatera) eta ureratutako tonajearen kasuan (% 49tik % 34ra, hurrenez hurren). Entregatutako tonajearen kasuan, berriz, hazi egin zen partaidetza (% 43koa 2023an, eta % 35ekoa aurreko ekitaldian).



LABORAL kutxa

15. grafikoa **Ontzigintzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)**




*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Euskal ontziolen eskarien zorroari dagokionez, 2023aren itxieran 59 mila tona konpentsatukoa zen, hau da, haren jaitsiera-erritmoa -% 40,4ra arte hazi zen (2022an -% 8,3).

**76. koadroa Eskarien zorroa Euskal Herrian**

| Urtea | mCGT |
|---|---|
| 2014 | 119 |
| 2015 | 148 |
| 2016 | 161 |
| 2017 | 171 |
| 2018 | 73 |
| 2019 | 65 |
| 2020 | 100 |
| 2021 | 108 |
| 2022 | 99 |
| 2023 | 59 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Euskal Herriko ontzigintza-sektoreko enpresen egoera aztertzeko, lehenik eta behin, Sestaoko La Naval enpresa (dagoeneko ez da existitzen) hartuko dugu kontuan. 2024aren erdialdean, martxan dago haren lursailen eraldaketa, eta Belgikako VGP enpresa (higiezin logistikoen eta industrialen jabea eta kudeatzailea) 2025ean hasiko da *VGP Park La Naval* delakoan nabe berriak eraikitzen. Ontziola historikoak lehen hartzen zituen 300.000 m$^2$-etan garatuko da proiektua, eremua biziberritzeko eta interesgune industrial eta logistiko bilakatzeko helburuz.

**77. koadroa Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera**

*(CGT unitateak)*

| Enpresa | Eskarien zorroa | | Amaitutako itsasontziak | | Hasitako itsasontziak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Astilleros Murueta | 44.440 | 27.864 | 5.948 | 22.220 | 27.864 | 11.288 |
| Astilleros Balenciaga | 19.405 | 9.455 | 9.455 | 9.950 | 0 | 0 |
| Astilleros Zamakona | 34.934 | 21.436 | 18.168 | 13.498 | 13.216 | 0 |
| CNN Sestao | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Euskal ontziola txikiagoekin lotuta, Astilleros Muruetaren kasuan, nabarmentzekoa da 2024aren hasieran 'Arteaga NM' ontzi berritzailea eraikitzen amaitu zuela, Busturialdeko haren instalazioetan. Bertan aurreikusten da Guggenheim museo berriaren bigarren egoitza eraikitzea. Hortaz, Urdaibaiko Guggenheim berriaren proiektuak aurrera egiten badu, museoa ireki aurretik biosfera-erreserbaren erdian eraikitako azken ontzia izan daiteke 'Arteaga NM'.

Astilleros Balenciagari dagokionez, nabarmentzekoa da 2024aren hasieran "Edda Goelo" ontzia uretaratu zutela. Siemens Gamesa konpainiarentzat eraiki dute, eta Iberdrolak Saint-Brieuc badian (Frantzia) duen parke eolikoan erabiliko dute.

Astilleros Zamakonari dagokionez, bi ontzi hibrido eraikiko dituzte Norvegiako Eidsvaag AS ontzi-enpresa familiarrarentzat. Hark, ozeanoko arrain-haztegietako arrainei jatekoa eramateko erabiliko ditu. Azken belaunaldiko bi ontzi berri horiek (euskal ontziolaren 806. eta 807. ontziak) 2026an entregatuko dizkiete jabeari.

Azkenik, amaitzeko, aipatu beharrekoa da Euskal Herriko Itsas Foroa azterketa hau egiteko unean 2025-2028 aldirako Plan Estrategiko berriaren gainean hausnartzen ari dela. Honako helburuak izango ditu planak: itsas sektoreko enpresen arteko elkarlana indartzea, berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea, eta industriaren barruan prestakuntza eta talentua bultzatzea. Hala, Euskal Herriko Itsas Foroa estatu mailako eta nazioarteko erreferentea izan dadin lagunduko litzateke.

## 5. AUTOMOBILGINTZA

Hainbat gertakarik markatutako urte batzuen ostean (pandemia, erdieroaleen gabezia, hornidura-arazoak edota inflazio handia), 2023an nolabaiteko normaltasun-egoerara itzuli zen automobilgintza-sektorea.

Dena den, automobilgintza-sektoreak elektrifikazioaren bidetik jarraitu zuen, ibilgailu elektrikoak errekuntzako motorrak dituzten ibilgailuen alternatiba bilakatzeko helburu argiarekin. Testuinguru horretan, Txina mehatxu bilakatu zen Europako ekoizleentzat. Izan ere, Txinak ekoizten dituen ibilgailu elektrikoen prezioa % 20 baxuagoa da EBn ekoizten direnena baino; beste faktore batzuen artean, gobernuaren dirulaguntzei esker. Ondorioz, europarrentzat zaila da Txinarekin lehiatzea. Egoera horrek desabantaila-egoeran uzten ditu Europako fabrikatzaileak, eta erraldoi txinatarra lekua irabazten ari da. Aldiz, Europako herrialde askotan tradizioz hazkunde ekonomikoaren motor garrantzitsua izan den industriaren oinarriak kolokan daude.

Egoera horretan, Europako Batzordeak, AEBen urratsei jarraituz, dagoeneko planteatzen du ibilgailu elektriko txinatarren gaineko zergak % 25 igotzea, neurri protekzionista gisa, Europako automobil-industria indarra galtzen ari da eta, eta eredu elektrikoen prezioak produktu txinatarrarenak baino askoz handiagoak dira eta, baita errekuntza-homologoenak ere.

Bien bitartean, Europako Batzordeak handitu egin ditu zero emisiora iristeko eskakizunak. 2030erako turismo berrien CO2 emisioak % 55 murriztea eta 2035erako turismo eta furgoneta berrien emisioak % 100 murriztea dira helburuak. Ondorioz, Europako fabrikatzaileek bikoiztu egin behar dituzte euren ahaleginak, sektorea elektrifikatzeko eta deskarbonizatzeko.

Europan, ibilgailu elektrikoetarako trantsizioa geldo doa. Ibilgailu elektrikoaren ezarpen masiboa urrun dago oraindik. Faktore askok eragiten dute hori. Prezioaz gain, beste aldagai batzuk daude tartean, hala nola kontsumitzaileek motorren gainean duten nahastea, kargatzeko puntu nahikorik ez egotea eta erosteko pizgarriak oso erakargarriak ez izatea.

Aldibereko zirkunstantzia horien ondorioz, automobilgintza-industriaren egoera konplikatua da, eta inbertsio handiak egiten jarraitzen du; batetik, eskari elektriko handiari aurre egiteko, eta, bestetik, ibilgailuen segurtasuna eta zibersegurtasuna handitzeko.

## 5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

2023an gora egin zuen mundu mailako ibilgailuen ekoizpenak, eta covidaren aurreko balioak gainditu zituen. Neurri handi batean, Asiako fabriken bilakaerak eragin zuen hori, nabarmen igo baitzen horien ekoizpen-erritmoa. Zehazki, 93,5 milioi ibilgailu ekoitzi ziren munduan, hau da, 2022an baino % 10,3 gehiago, eta 2019an erregistratutako kopurua baino gehiago (+% 1,8).

Europan, ibilgailuen ekoizpenak % 13,0ko urte arteko hazkundea izan zuen. Guztira, 18,1 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten Europako herrialdeek. Dena den, hazkunde hori ez zen nahikoa izan 2019an ekoitzitako bolumena gainditzeko (-% 14,8). Hala, mundu mailako ekoizpenari egindako ekarpena % 20koa izan zen (2019an % 23,2koa). Alemania eta Espainia kokatu ziren Europako ekoizpen-maparen buruan; 4,1 milioi ibilgailu eta 2,4 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten horiek, hurrenez hurren, eta emaitza positiboarekin amaitu zuten urtea (+% 18,1 eta +% 10,4). Era berean, emaitza positiboa izan zuten Erresuma Batuak (+% 17,0), Italiak (+% 10,5) eta Frantziak (+% 8,8) ere. Dena den, horien ekoizpen-gaitasuna txikiagoa izan zen: Italiak 880.085 ibilgailu ekoitzi zituen, eta Frantziak milioi bat eta erdi.

Europako herrialdeen artean, ekoizpena handia izan zen Txekiar Errepublikan (1.404.501 unitate eta +% 14,7) eta Eslovakian (1.080.000 unitate eta +% 10,0); ondorioz, Europako ekoizle nagusien hirugarren eta bosgarren postuan kokatu ziren.

Europako fabrikatzaile nagusiek urte arteko bilakaera ona izan bazuten ere, emaitzak denboraren ikuspegi zabalagotik aztertuta, bakar batek ere ez zuen berreskuratu pandemiaren aurreko ekoizpen-gaitasuna % 100ean.

Amerikako ekoizpena % 7,8 hazi zen 2023an, eta 19,1 milioi unitate ekoitzi zituzten. Emaitza hori baxuagoa izan zen 2019koa baino (-% 5,1), eta guztizkoaren gaineko ekarpena murriztu egin zen: 2023an % 20,5 eta 2019an % 21,9. AEBn 10,6 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten, aurreko urtean baino % 5,6 gehiago. Aldiz, Mexikon eta Kanadan 4 milioi eta 1,5 milioi ibilgailu fabrikatu zituzten, hurrenez hurren, eta nabarmen hobetu zuten 2022ko zifra (+% 14,0 eta % 25,9). Brasilgo automobilgintza-industriak 2,3 milioi ibilgailu baino apur bat gehiago ekoitzi zituen, 2022an baino gutxiago, baina alde txikiarekin (-% 1,9). Lau herrialde horiei dagokie Amerikako ekoizpen osoaren ia guztia (% 96,6).

Asia-Ozeaniari dagokionez, ibilgailuen fabrikatzaile gehienek bilakaera sendoa izan zuten, eta are gehiago indartu zen nazioartean zuten posizioa. Hala, munduan ekoitzitako 10 ibilgailutik ia 6 ekoitzi ziren han.

Asiako erraldoiarekin hasita, Txinako ibilgailu-fabrikek 30 milioi unitate baino gehiago ekoitzi zituzten, aurreko urtean baino % 11,6 gehiago. Txinak munduko ekoizpen-mapan zuen lidergoa indartu zuen emaitza horrek: % 32,5eko merkatuko kuota (2019an baino

ehuneko +4,2 puntu gehiago). Gainera, Asiako erraldoiak bere ekoizpen-errekorra gainditu zuen 2023an. Japoniaren ekoizpena % 14,8 hazi zen, eta ia 9 milioi unitate fabrikatu zituen. Dena den, aipatu beharrekoa da 2022an erregistratutako ekoizpen-bolumena ohikoa baino baxuagoa izan zela, eta horrek eragin zuela 2023ko bilakaera horren ona izatea. Hego Korearako ekoizpenak bilakaera bera izan zuen, eta 4,2 milioi unitatera iritsi zen, % 13,0 hazita. Esportazioek eragin zuten, gehienbat, hazkunde hori. Indiak hazkunde txikiagoa izan zuen (+% 7,2), baina ekoizpen handiagoa, ia 6 milioi unitatekoa. Horren guztiaren ondorioz, Txinak munduko ekoizpen-mapan izan zuen presentzia handia albo batera utzita, Asiako hiru herrialde horien posizionamendua nabarmendu zen; AEBrekin batera, munduko ekoizpen-rankingaren lehenengo 5 lekuak dagozkie.

**78. koadroa Ibilgailuen ekoizpena Herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialde nagusiak | 2019 | 2021 | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Txina | 25.750.650 | 26.121.712 | 27.020.615 | 30.160.966 | 11,6 | 17,1 |
| AEB | 10.892.884 | 9.157.205 | 10.052.958 | 10.611.555 | 5,6 | -2,6 |
| Japonia | 9.684.507 | 7.836.908 | 7.835.539 | 8.997.440 | 14,8 | -7,1 |
| India | 4.524.366 | 4.399.112 | 5.457.242 | 5.851.507 | 7,2 | 29,3 |
| Hego Korea | 3.950.614 | 3.462.404 | 3.757.049 | 4.243.597 | 13,0 | 7,4 |
| Alemania (1) | 4.663.749 | 3.096.165 | 3.480.357 | 4.109.371 | 18,1 | -11,9 |
| Mexiko | 4.013.137 | 3.194.858 | 3.509.101 | 4.002.047 | 14,0 | -0,3 |
| Espainia | 2.822.632 | 2.098.133 | 2.219.436 | 2.451.221 | 10,4 | -13,2 |
| Brasil | 2.944.988 | 2.248.253 | 2.369.769 | 2.324.838 | -1,9 | -21,1 |
| Thailandia | 2.013.710 | 1.685.705 | 1.883.515 | 1.841.663 | -2,2 | -8,5 |
| Kanada | 1.916.585 | 1.115.002 | 1.233.360 | 1.553.026 | 25,9 | -19,0 |
| Txekiar Errep. | 1.433.961 | 1.111.432 | 1.224.456 | 1.404.501 | 14,7 | -2,1 |
| Frantzia(1) | 2.172.515 | 1.352.226 | 1.383.173 | 1.505.076 | 8,8 | -30,7 |
| Indonesia | 1.286.848 | 1.121.967 | 1.121.967 | 1.121.967 | 0,0 | -12,8 |
| Iran | 821.060 | 894.298 | 1.064.215 | 1.188.471 | 11,7 | 44,7 |
| Eslovakia | 1.107.902 | 1.030.000 | 982.194 | 1.080.000 | 10,0 | -2,5 |
| Erresuma Batua | 1.381.405 | 932.488 | 876.614 | 1.025.474 | 17,0 | -25,8 |
| Italia | 915.291 | 797.243 | 796.394 | 880.085 | 10,5 | -3,8 |
| Europa | 21.268.772 | 16.137.638 | 16.032.840 | 18.122.449 | 13,0 | -14,8 |
| Amerika | 20.160.401 | 16.190.835 | 17.753.536 | 19.136.891 | 7,8 | -5,1 |
| Asia-Ozeania | 49.333.841 | 46.768.800 | 50.021.217 | 55.115.837 | 10,2 | 11,7 |
| Afrika (2) | 1.095.151 | 907.302 | 1.022.783 | 1.171.422 | 14,5 | 7,0 |
| **Mundua, guztira** | **91.858.165** | **80.004.575** | **84.830.376** | **93.546.599** | **10,3** | **1,8** |

*(1): Turismoak eta ibilgailu komertzial arinak bakarrik.*
*(2): Afrika, Egipto aintzat hartu gabe.*
*Iturria: OICA*

Azkenik, Afrikako ibilgailu-ekoizpenak osatzen du panoramika hau. Azken ekitaldian nabarmen hazi ziren haren balioak (+% 14,5), baina gainerako lurraldeek baino pisu espezifiko askoz ere txikiagoa du (% 1,3).



LABORAL kutxa

Analisiarekin jarraituz, eta matrikulazioaren bilakaerari dagokionez, 2023an guztiz berreskuratu ziren covidaren aurreko balioak (+% 0,7). Munduko ibilgailuen merkatua 92.724.668 unitatek osatu zuten.

Ekoizpenaren atalean bezala, hemen ere Txina gailendu zen, hari baitzegokion munduko ibilgailuen merkatuaren herena (% 32,5). Hala, 2023an, 30 milioi ibilgailu baino gehiago matrikulatu zituzten Txinan, 2022an baino % 12 gehiago eta covidaren aurreko balioak baino % 16,7 gehiago. Indian ia 5,1 milioi matrikulazio izan ziren (2022arekiko +% 7,5), Japonian 4,8 milioi (+% 13,8) eta Hego Korean 1,7 milioi (+% 3,9); Asia-Ozeaniako merkatu nagusiak izan ziren. Horiei esker, kontinenteak munduko guztizkoaren gainean zuen kuota % 54,5era igo zen. Gainera, nabarmendu beharrekoa da Asia-Ozeaniak gainerako lurraldeetatik bereiztea lortu zuela, 2023an gainditu egin zuelako 2019ko matrikulazioa (+% 13,4).

Europak % 19,3ko pisu erlatiboa izan zuen, eta urte arteko % 18,7ko hazkundea. Alemania izan zen Europako merkaturik handiena: 3,2 milioi ibilgailu matrikulatu ziren bertan 2023an. Jarraian kokatu ziren Erresuma Batua eta Frantzia, 2,2 milioi matrikulazio ingururekin, eta Italia, ia 1,8 milioi matrikulaziorekin. Turkiak eta Espainiak merkatu txikiagoa izan zuten, eta elkarren antzekoa (1,3 milioi eta 1,1 milioi, hurrenez hurren). Bilakaerari dagokionez, denek egin zuten hobera, neurri handiagoan edo txikiagoan, 2022arekin alderatuta. Dena den, ez ziren covidaren aurreko balioetara iritsi, Turkiaren kasuan izan ezik: iristeaz gain, gainditu egin zituen herrialde horrek.

Amerikako kontinenteari matrikulazioen % 25,1 egokitu zitzaizkion 2023an (2022arekiko +% 11,4), munduko bigarren merkaturik garrantzitsuenak bultzatuta: AEB. 2023an 16 milioi matrikulazio zenbatu ziren AEBn (+% 12,5), guztizkoaren % 17,3. Merkatu handi horri honakoen ekarpenak batu zitzaizkion: Brasil, 2,3 milioi unitate salduta (+% 9,7); Kanada, ia 1,8 milioi unitaterekin (+% 12,9) eta Mexiko, 1,4 milioi unitaterekin (+% 24,6). 2023an Mexikok bakarrik gainditu zituen covidaren aurreko balioak (+% 4). Hala, kontinenteko guztizko matrikulazioak 2019an baino % 8,4 gutxiago izan ziren.

**79. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialde nagusiak | 2019 | 2021 | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Txina | 25.796.931 | 26.314.263 | 26.863.745 | 30.093.698 | 12,0 | 16,7 |
| AEB | 17.488.154 | 15.408.565 | 14.230.324 | 16.009.268 | 12,5 | -8,5 |
| India | 3.816.858 | 3.759.398 | 4.725.560 | 5.079.985 | 7,5 | 33,1 |
| Japonia | 5.195.216 | 4.448.340 | 4.201.320 | 4.779.086 | 13,8 | -8,0 |
| Alemania | 4.017.059 | 2.973.319 | 2.963.748 | 3.204.298 | 8,1 | -20,2 |
| Brasil | 2.787.850 | 2.119.851 | 2.104.461 | 2.308.689 | 9,7 | -17,2 |
| Erresuma Batua | 2.736.559 | 2.049.005 | 1.943.572 | 2.263.666 | 16,5 | -17,3 |
| Frantzia | 2.755.728 | 2.142.284 | 1.926.554 | 2.209.102 | 14,7 | -19,8 |
| Italia | 2.132.630 | 1.669.855 | 1.505.052 | 1.794.655 | 19,2 | -15,8 |
| Kanada | 1.976.440 | 1.704.850 | 1.562.965 | 1.764.516 | 12,9 | -10,7 |
| Hego Korea | 1.795.134 | 1.734.581 | 1.683.657 | 1.749.729 | 3,9 | -2,5 |
| Mexiko | 1.360.008 | 1.046.732 | 1.134.443 | 1.413.921 | 24,6 | 4,0 |
| Errusia | 1.778.841 | 1.741.965 | 808.604 | 1.317.438 | 62,9 | -25,9 |
| Turkia | 491.947 | 772.850 | 831.220 | 1.288.678 | 55,0 | 162,0 |
| Australia | 1.062.867 | 1.049.831 | 1.081.429 | 1.216.780 | 12,5 | 14,5 |
| Espainia | 1.501.244 | 1.034.084 | 958.978 | 1.127.868 | 17,6 | -24,9 |
| Indonesia | 1.030.486 | 887.205 | 1.048.040 | 1.005.802 | -4,0 | -2,4 |
| Thailandia | 1.007.552 | 748.580 | 849.388 | 775.780 | -8,7 | -23,0 |
| Europa | 20.930.134 | 16.882.486 | 15.079.901 | 17.898.967 | 18,7 | -14,5 |
| Amerika | 25.389.730 | 22.003.539 | 20.876.860 | 23.247.296 | 11,4 | -8,4 |
| Asia-Ozeania | 44.545.103 | 43.618.875 | 45.838.945 | 50.528.563 | 10,2 | 13,4 |
| Afrika | 1.200.291 | 1.133.520 | 1.075.388 | 1.049.842 | -2,4 | -12,5 |
| **Mundua, guztira** | **92.065.258** | **83.638.420** | **82.871.094** | **92.724.668** | **11,9** | **0,7** |

*Iturria: OICA.*

## 5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatuko automobilgintza-ekoizpena munduko rankingeko zortzigarren postuan kokatu zen. Haren bilakaera aztertzeko, lehenik eta behin, argi utzi behar da sektoreak Estatuko ekonomian duen pisu espezifikoa. Anfac-en[1] arabera, ibilgailuen fabrikatzaileek Estatuko BPGaren % 4,8 ordezkatzen dute, eta zuzeneko lana ematen die 600.000 pertsonari baino gehiagori. Automobilgintzako osagarrien sektorea kontuan hartuta, BPGari egindako ekarpena % 8 baino handiagoa litzateke; eta, automobilgintzarekin lotutako gainerako sektoreen (banaketa, aseguruak, finantzariak...) ekarpena batuz gero, % 10 ingurukoa.

Hori esanda, 2023an konplexua izan zen automobilgintza-sektorearen testuingurua, 2022koa baino hobea izan bazen ere. Sektorearen beraren zailtasunei (adibidez, hornidura-kateen tentsioa; behera egin zuen arren, mantendu egin zelako), mundu mailako beste zailtasun batzuk gehitu zitzaizkien, hala nola Ekialde Ertaineko gatazkarekin indartu ziren tentsio geopolitikoak edota inflazioa (hobetu bazen ere, kontsumitzaileen

[1] Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea

konfiantzari eragiten jarraitu zuen). Zailtasun horiek ziurgabetasun handia eragin zuten merkatuetan.

Gainera, Estatuan, ibilgailu elektrikoen ekoizpena aurreikusi baino txikiagoa izan zen, eta horrek kezka sortu zuen. Izan ere, kontsumitzaileek zalantzak dituzte, eta, hainbat arrazoi direla eta, atzeratu egiten dute erosteko erabakia. Lehenengo arrazoia eskaintzen diren askotariko motor motek sortutako nahastea da; bigarrena, oraindik ere kargatzeko puntu nahikorik ez egotea (2023an 29.301); eta, azkenik, erosten laguntzeko neurriak oso erakargarriak ez izatea, kontuan hartuta modelo elektrikoak dezente garestiagoak direla errekuntzako motorra duten ibilgailuak baino. Gauzak hala, Espainian 113.784 turismo elektriko matrikulatu zituzten 2023an. Aldiz, Europako Batzordearen bide-orria bete ahal izateko, urteko helburua 190.000 unitate matrikulatzea zen.

Hala, 2023an, industria elektrifikaziorantz aldatzeko prozesu betean, lehengaien hornidura hobetu egin zen eta hornidura-kateak egonkortasun handiagoa lortu zuen. Hala, ibilgailuen fabrikatzaileek arnasa hartu ahal izan zuten, eta ekoizpen-erritmoa igo egin zen (+% 10,4); hala ere, 2019ko mailatik behera jarraitu zuen (-% 13).

Zehatzago esanda, 2023an 2.451.243 ibilgailu fabrikatu zituzten Espainian. Fabrikazioaren zatirik handiena turismoei eta lur orotakoei zegokien (guztizkoaren % 77,8). Merkataritza-ibilgailu arinak (% 19,7) eta industria-ibilgailuak (% 2,3) izan ziren hurrengoak. 2023an hiru kategoriek gora egin zuten, baina merkataritza-ibilgailu arinek izan zuten hazkunderik handiena (+% 28,3). Hazkunde txikiagoa izan zuten turismoek eta lur orotakoek (+% 6,7) eta industria-ibilgailuek (+% 9,8).

Aurrekoarekin lotuta, esportazioak % 14,4 hazi ziren 2023an, eta 2.211.467 unitate saldu ziren Estatuaren mugetatik kanpo. Esportatutako hamar ibilgailutik ia zortzi turismoak edo lur orotakoak izan ziren (% 77), eta hamarretik bi (% 20,7) merkataritza-ibilgailuak. Industria-ibilgailuen partaidetza oso txikia izan zen (% 2,3). Bilakaerarik dagokionez, kasu honetan ere, merkataritza-ibilgailuen hazkundea nabarmendu zen (+% 52,2). Gainerako kategoriek hazkunde apalagoak izan zituzten: +% 7,5 eta +% 5,5 turismoek eta industria-ibilgailuek, hurrenez hurren.

Azkenik, matrikulazioekin lotuta, 2023an 1.127.868 ibilgailu matrikulatu zituzten, 2022an baino % 17,6 gehiago. Hiru segmentuetan igo zen matrikulazio kopurua: turismoen eta lur orotakoen matrikulazioek (guztizkoaren % 84,2) urte arteko % 16,7ko hazkundea izan zuten, eta urtea emaitza positiboarekin amaitu zuten merkataritza-ibilgailuek (% 12,9ko partaidetza) zein industria-ibilgailuek (% 2,9ko kuota): +% 22 eta +% 25,2.

**80. koadroa Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza**

*(unitateak)*

| Azpisektorea | Produkzioa | | | Esportazioak | | | Matrikulazioak* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | %∆ | 2022 | 2023 | %∆ | 2022 | 2023 | %∆ |
| Turismoak eta lur orotakoak | 1.787.197 | 1.907.072 | 6,7 | 1.583.558 | 1.702.678 | 7,5 | 813.376 | 949.359 | 16,7 |
| Merkataritza-ibilgailuak | 375.988 | 482.395 | 28,3 | 300.973 | 458.054 | 52,2 | 119.672 | 146.052 | 22,0 |
| Industria-ibilgailuak | 56.251 | 61.776 | 9,8 | 48.098 | 50.735 | 5,5 | 25.930 | 32.457 | 25,2 |
| **Guztira** | **2.219.436** | **2.451.243** | **10,4** | **1.932.629** | **2.211.467** | **14,4** | **958.978** | **1.127.868** | **17,6** |

*(*): Industria-ibilgailuen matrikulazioen zifrak barne hartzen du autobusen matrikulazioa ere (2022an 2.468 eta 2023an 3.769).*
*turria: Anfac.*

Bestetik, emisiorik gabeko eta emisio baxuko ibilgailuen (ibilgailu elektrikoak, gas naturala eta PGL) fabrikazioak gora egiten jarraitzen du etengabe. 2023an 509.219 ibilgailu alternatibo ekoitzi zituzten, eta horietatik 323.255 elektrikoak izan ziren, aurreko urtean baino % 21,3 gehiago. Espainiako fabriketan ekoizten dituzten modeloak elektriko bilakatzeko prozesuak aurrera jarraitzen du, eta dagoeneko 20 modelo elektriko ekoizten dituzte Estatuan.

Emaitza horiek erakusten dutenez, segmentu elektrikoaren presentzia handitzen ari da ekoizpen arloan. Ekoitzitako ibilgailuen % 13,2 elektrikoak dira, eta % 20,8 alternatiboak. Gasolina erabiltzen duten modeloek eta diesel ibilgailuek osatzen dute fabrikazioa, % 54,8ko eta % 24,4ko pisu erlatiboarekin, hurrenez hurren. Analisia turismoetara ekarrita, emaitza oso antzekoa izan zen modelo elektrikoen kasuan, ia % 14ko kuotarekin. Hala, ibilgailu alternatibo guztien kuota % 23,4koa izan zen. Aitzitik, pisu handiagoa izan zuten gasolinazko motorra zuten ibilgailuek (% 66,3), eta txikiagoa diesel ibilgailuek (% 10,3).

**81. koadroa Ibilgailuen ekoizpena, energia-iturriaren arabera, 2023***

*(unitateak)*

| Energia-iturriak | Turismoak | | | Ibilgailuak guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | Kuota (%) | %∆ | 2023 | Kuota (%) | %∆ |
| Gasolina | 1.263.505 | 66,3 | 8,1 | 1.343.616 | 54,8 | 6,6 |
| Diesela | 196.810 | 10,3 | -32,0 | 598.386 | 24,4 | 1,6 |
| HEV (hibrido ez-entxufagarria) | 158.702 | 8,3 | 114,3 | 158.702 | 6,5 | 114,3 |
| PGL | 23.274 | 1,2 | 8,6 | 23.274 | 0,9 | 8,6 |
| Gasa | 1.962 | 0,1 | -54,3 | 3.988 | 0,2 | -52,2 |
| Elektrikoak | *262.797* | *13,8* | *14,8* | *323.255* | *13,2* | *21,3* |
| *Hibrido entxufagarria-PHEV* | *165.504* | *8,7* | *18,7* | *165.504* | *6,8* | *18,7* |
| *Bateria elektrikoa-BEV* | *97.293* | *5,1* | *8,7* | *157.751* | *6,4* | *24,2* |
| **Alternatiboak, guztira** | **446.735** | **23,4** | **40,5** | **509.219** | **20,8** | **41,6** |
| **Guztira** | **1.907.050** | **100,0** | **6,7** | **2.451.221** | **100,0** | **10,4** |

**): Behin-behineko datuak.*
*turria: Anfac.*

Matrikulazioak energia-iturriaren arabera aztertuta, gasolinazko ibilgailuek (% 40,8) eta hibrido ez-entxufagarriek (% 31,9) izan zuten pisu handiena Estatuko merkatuan. Diesel ibilgailuen eta ibilgailu elektrikoen partaidetza % 12 ingurukoa izan zen, eta beheranzko bilakaera izan zuten. Hala, urtean zehar 113.784 turismo elektriko saldu ziren, hau da, guztizkoaren % 12. Ibilgailu guztiak kontuan hartuz gero, saldutako unitate elektrikoen kuota % 11koa izan zen. Hortaz, Estatuko emaitzak askoz ere baxuagoak izan ziren Europak mugikortasunaren deskarbonizazioarekin lotuta ezarritako helburuak baino.

**82. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa, energia-iturriaren arabera, 2023***

*(unitateak)*

| Energia-iturriak | Turismoak | | | Ibilgailuak guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | Kuota (%) | %∆ | 2023 | Kuota (%) | %∆ |
| Gasolina | 387.748 | 40,8 | 13,8 | 393.230 | 34,9 | 13,7 |
| Diesela | 118.646 | 12,5 | -15,0 | 273.834 | 24,3 | 1,9 |
| Gasa | 26.335 | 2,8 | 76,4 | 28.333 | 2,5 | 67,7 |
| Hibrido ez-entxufagarria-HEV | 302.846 | 31,9 | 26,4 | 307.842 | 27,3 | 26,4 |
| Elektrikoak | *113.784* | *12,0* | *45,3* | *124.628* | *11,0* | *49,1* |
| *Hibrido entxufagarria-PHEV* | *62.164* | *6,5* | *30,1* | *62.829* | *5,6* | *30,3* |
| *Bateria elektrikoa-BEV* | *51.612* | *5,4* | *69,1* | *61.778* | *5,5* | *74,5* |
| *Erregai-zelula-FCEV* | *8* | *0,0* | *100,0* | *21* | *0,0* | *90,9* |
| **Alternatiboak, guztira** | **442.964** | **46,7** | **33,1** | **460.804** | **40,9** | **34,0** |
| **Guztira** | **949.359** | **100,0** | **16,7** | **1.127.867** | **100,0** | **17,6** |

**): Behin-behineko datuak*
*turria: Anfac.*

Merkatuaren banaketa marken arabera aztertuko dugu orain. 2023an, 18 markaren artean banatu zuten matrikulazioen % 83,6. Dena den, horien partaidetzak ez ziren batere homogeneoak izan. Toyotak 79.883 unitate saldu zituen Estatuan, aurreko urtetik matrikulazio kopurua % 8,7 hazita. Hala, rankingeko lehen postuan kokatu zen. Bigarren lekuan Kia kokatu zen. Urte arteko % 4,6ko hazkundea izan zuen, eta 66.245 unitate saldu zituen. Gertutik jarraitu zion Volkswagenek, 63.871 matrikulaziorekin eta urte arteko % 8,5eko hazkundearekin. Laugarren lekuan Hyundai marka korearra kokatu zen, 58.874 matrikulaziorekin (-% 1,1). 2022arekin alderatuta aldakuntza negatiboa izan zuten marka bakarretakoa izan zen.

2019ko datuekin alderatuta, Toyotak eta Kiak alde handiz gainditu zituzten orduko balioak. Hyundai eta Volkswagen, ordea, 2019ko balioak baino beherago zeuden oraindik; hortaz, presentzia galdu zuten Estatuko rankingean.

Volkswagen Taldea osatzen duten gainerako markentzat, ekitaldiko balantzea positiboa izan zen. Cuprak izan zuen urte arteko bilakaerarik onena (+% 40,6), eta Škoda izan zen 2019ko emaitzak gainditu zituen Taldeko marka bakarra (+% 8,1). Hala, Volkswagen Taldeak eta hura osatzen duten 5 marka nagusiek 213.845 matrikulaziorekin itxi zuten 2023ko ekitaldia, hau da, 2022an baino % 18,9 gehiagorekin.

Analisiarekin jarraituz eta Stellantis Taldeari dagokionez, 161.633 unitate saldu zituen 2023an zehar. Peugeot kokatu zen lehen postuan, 58.488 matrikularekin, eta gero Citroën, 42.213 unitaterekin. Dena den, batek goranzko bilakaera izan zuen, eta besteak beheranzkoa (+% 6,9 eta -% 2,2, hurrenez hurren).

Halaber, beste marka frantses batek, Renaultek, 56.176 matrikulazio erregistratu zituen 2023an, urte arteko hazkunde nabarmena izan ondoren (+% 23,4). Estatuko rankingeko lehen postuetan kokatu ziren gainerako markek ere handitu egin zituzten salmentak, baina neurri ezberdinetan: Dacia (48.844 unitate, +% 29,6), Mercedes (42.972 unitate, +% 17,8), BMW (34.970 unitate, +% 14,0) eta Ford (30.683 unitate, +% 5,9).

**83. koadroa Turismoen matrikulazioa marken arabera**

*(unitateak)*

| Marka nagusiak | 2019 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 | %∆ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Toyota | 71.696 | 73.505 | 79.883 | 8,7 | 11,4 |
| KIA | 59.523 | 63.345 | 66.245 | 4,6 | 11,3 |
| Volkswagen | 94.328 | 58.853 | 63.871 | 8,5 | -32,3 |
| Seat | 111.982 | 49.200 | 58.586 | 19,1 | -47,7 |
| Audi | 51.114 | 35.137 | 40.663 | 15,7 | -20,4 |
| Škoda | 29.388 | 23.254 | 31.778 | 36,7 | 8,1 |
| Cupra | 0 | 13.476 | 18.947 | 40,6 | -- |
| *Volkswagen taldea* | *286.812* | *179.920* | *213.845* | *18,9* | *-25,4* |
| Hyundai | 62.766 | 59.503 | 58.874 | -1,1 | -6,2 |
| Peugeot | 97.936 | 54.737 | 58.488 | 6,9 | -40,3 |
| Citroën | 67.149 | 43.161 | 42.213 | -2,2 | -37,1 |
| Opel | 69.101 | 26.583 | 27.522 | 3,5 | -60,2 |
| Fiat | 47.115 | 24.332 | 22.332 | -8,2 | -52,6 |
| Jeep | 18.545 | 8.806 | 11.078 | 25,8 | -40,3 |
| *Stellantis Taldea:* | *299.846* | *157.619* | *161.633* | *2,5* | *-46,1* |
| Renault | 86.420 | 45.515 | 56.176 | 23,4 | -35,0 |
| Dacia | 55.692 | 37.682 | 48.844 | 29,6 | -12,3 |
| Mercedes | 53.719 | 36.480 | 42.972 | 17,8 | -20,0 |
| BMW | 46.887 | 30.682 | 34.970 | 14,0 | -25,4 |
| Ford | 57.168 | 28.963 | 30.683 | 5,9 | -46,3 |
| **Marka nagusiak, guztira** | **1.080.529** | **713.214** | **794.125** | **11,3** | **-26,5** |
| Gainerako markak | 177.722 | 100.162 | 155.234 | 55,0 | -12,7 |
| **Matrikulazioak, guztira** | **1.258.251** | **813.376** | **949.359** | **16,7** | **-24,5** |

*(*) Taldeko marka nagusiak soilik daude sartuta.*
*Iturria: Anfac.*

Analisiarekin jarraituz, eta kanpoko merkataritza-jarduerarekin lotuta, Estatuko automobilgintza-industriak esportatzeko joera handia du. Hala, 2023an 2.211.467 ibilgailu saldu ziren nazioarteko merkatuetan, 2022an baino % 14,4 gehiago. Horietatik 1.738.034 unitate, % 80 inguru, 10 herrialderen artean banatu ziren.

Europak jarraitu zuen Estatuko produktuen jomuga nagusia izaten: salmenten % 90 bildu zuen (2022arekiko +% 13,4). Amerikarekiko eta Ozeaniarekiko merkataritza-harremanak

ere hazi egin ziren (% 5,2ko eta % 0,8ko partaidetzak, hurrenez hurren). Aldiz, behera egin zuten Asiarekiko eta Afrikarekiko harremanek (% 1,5eko eta % 2,5eko pisu erlatiboak, hurrenez hurren).

Ohiko moduan, Alemania eta Frantzia kokatu ziren rankingaren buruan, lehenengo eta bigarren postuetan, antzeko merkatu-bolumenekin: 369.981 unitate eta 361.172 unitate. Jarraian hauek kokatu ziren, garrantziaren araberako ordenan: Erresuma Batua, 281.450 unitaterekin; Italia, 253.784 unitaterekin, eta Turkia, 206.760 unitaterekin. Azken horrek hazkunde esponentziala izan zuen 2022arekiko (+% 111,7), eta are handiagoa 2019arekiko (+% 481,4). Elkarrekin, 5 herrialde horiei dagokie Estatuko automobilgintza-industriaren merkataritza-fluxuen % 67 inguru.

Hala, azken urteko bilakaera aztertuta, eta Turkiaren hazkunde nabarmena albo batera utzita, Erresuma Batuaren erregistroen hazkunde handia ikus daiteke (2022arekiko +% 22,6), eta Frantziaren kasuan ere esanguratsua izan zen hazkundea (+% 11,3). Aldiz, bilakaera apalagoak izan zituzten Alemaniak (+% 2,2) eta Italiak (+% 5,1). Halaber, Europatik kanpo, AEBk urte arteko hazkunde esponentziala izan zuen (+% 142,5), eta 51.703 ibilgailu inportatu zituen; 2019ko balioak ere alde handiz gainditu zituen (+% 120,7).

Nabarmendu beharrekoa da Estatuko industriaren bezeroak diren merkatu nagusietako askok ez dituztela oraindik pandemiaren aurreko balioak berreskuratu, Estatuan gertatzen den moduan.

**84. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialdea | 2019 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 | %∆ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Alemania | 480.687 | 361.906 | 369.981 | 2,2 | -23,0 |
| Frantzia | 437.550 | 324.549 | 361.172 | 11,3 | -17,5 |
| Erresuma Batua | 327.186 | 229.534 | 281.450 | 22,6 | -14,0 |
| Italia | 250.455 | 241.534 | 253.784 | 5,1 | 1,3 |
| Turkia | 35.560 | 97.676 | 206.760 | 111,7 | 481,4 |
| Belgika | 87.695 | 61.140 | 67.164 | 9,9 | -23,4 |
| Polonia | 55.702 | 42.764 | 50.060 | 17,1 | -10,1 |
| AEB | 23.430 | 21.322 | 51.703 | 142,5 | 120,7 |
| Herbehereak | 53.573 | 46.498 | 48.251 | 3,8 | -9,9 |
| Portugal | 47.194 | 39.838 | 47.709 | 19,8 | 1,1 |
| **10 herrialde nagusiak, guztira** | **1.799.032** | **1.466.761** | **1.738.034** | **18,5** | **-3,4** |
| Gainerakoak | 511.038 | 465.868 | 473.433 | 1,6 | -7,4 |
| **Esportazioak, guztira** | **2.310.070** | **1.932.629** | **2.211.467** | **14,4** | **-4,3** |

*Iturria: Anfac.*

Sektorearen 2023ko balantza komertzialaren emaitzei dagokienez, esportazioen balioa % 29,2 hazi zen eta 59.475 milioi eurora iritsi zen. Turismoei eta lur orotakoei zegokien baliorik handiena, 37.498 milioi euro. Aldiz, merkataritza-ibilgailuek, industria-ibilgailuek eta autobusek izan zuten hazkunderik handiena (+% 50,5).

Ildo berekoa izan zen inportazioen bilakaera ere. Guztira, 45.004 milioi euroko baliora iritsi ziren, urte arteko % 23,2ko hazkundea erregistratu ondoren. Kasu honetan ere merkataritza-ibilgailuek, industria-ibilgailuek eta autobusek izan zuten hazkunderik handiena (+% 57,8), eta turismoek eta lur orotakoek egin zuten ekarpenik handiena (21.473 milioi euro).

Gauzak hala, 14.471 milioi euroko saldo garbiarekin itxi zen ekitaldia, hau da, % 52,4ko urte arteko hazkundearekin.

**85. koadroa Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak)**

*(M euro)*

| Kontzeptua | Esportazioak | | | Inportazioak | | | Saldoa: Esportazioak - Inportazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | %∆ | 2022 | 2023 | %∆ | 2022 | 2023 | %∆ |
| Turismoak eta lur orotakoak | 30.462 | 37.498 | 23,1 | 16.008 | 21.473 | 34,1 | 14.454 | 16.025 | 10,9 |
| Merkataritza-ibilgailuak, industria-ibilgailuak eta autobusak | 4.702 | 7.077 | 50,5 | 2.699 | 4.259 | 57,8 | 2.003 | 2.818 | 40,7 |
| Zatiak, piezak eta osagarriak | 9.377 | 10.715 | 14,3 | 13.318 | 13.131 | -1,4 | -3.941 | -2.416 | 38,7 |
| Motorrak eta abiadura-kaxak | 1.477 | 2.162 | 46,4 | 4.496 | 6.141 | 36,6 | -3.019 | -3.978 | -31,8 |
| **Guztira** | **46.018** | **59.475** | **29,2** | **36.521** | **45.004** | **23,2** | **9.497** | **14.471** | **52,4** |

*Iturria: Anfac.*

Sektorearen bilakaerarekin jarraituz, eta analisia automobilgintza-sektorearen Estatuko hornidura-industriara mugatuta, 2023ko ekitaldia oso positiboa izan zen osagarrien sektorearentzat, eta errekor historikoa lortu zuen fakturazioan. Urte arteko % 10,3ko hazkundea izan ondoren, fakturazioa 41.529 milioi eurora iritsi zen. Emaitza horrek urteko bilakaera ona erakusten du, baina, neurri batean, inflazioaren inpaktuaren emaitza ere bada.

Hala, automobilgintzako osagarrien sektoreak haren erresilientzia erakusten jarraitu zuen, hainbat krisi eta ziurgabetasun-egoera gainditu baititu; eta, horrez gain, etengabeko inbertsioari esker, mundu mailako industria oso lehiakorra izaten jarraitzeko apustua egiten jarraitu zuen. 2023an sektoreak mantendu egin zuen I+G+b arloko inbertsioa, 1.271 milioi eurokoa. Eta ekoizpen-prozesuak hobetzera zuzendutako 1.670 milioi euroko beste partida bat gehitu behar zaio horri.

**86. koadroa Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Fakturazioa | 32.085 | 37.668 | 41.529 | 10,3 |
| Merkatu nazionaleko salmentak | 12.416 | 14.999 | 16.389 | 9,3 |
| – Ekipo originala | 7.291 | 9.110 | 10.094 | 10,8 |
| – Ordezkoak | 5.125 | 5.889 | 6.295 | 6,9 |
| Esportazioak | 19.669 | 22.669 | 25.140 | 10,9 |
| I+G+b inbertsioa | 1.164 | 1.231 | 1.271 | 3,2 |
| Zuzeneko enplegua (langile kopurua) | 201.450 | 203.000 | 204.650 | 0,8 |

*Iturria: Sernauto.*

Esportazioen atalean, fakturazioan bezala, emaitza historikoa lortu zen 2023an, 25.140 milioi eurokoa. 2022arekin alderatuta, % 10,9 hazi ziren balioak. Hala, fakturazioaren % 60,5 zegokien esportazioei 2023an. Neurri handi batean, esportazioek eragin zuten sektoreko jarduera haztea.

Etxeko merkatuari dagokionez, ibilgailuen fabrikatzaileei saldutako ekipoek eta osagaiek bolumen handiagoa eta bilakaera hobea izan zuten ordezko piezek baino. Zehatzago esanda, 2023ko balantzean 10.094 milioi euro (+% 10,8) zegozkion ekipo originalaren segmentuari, eta 6.295 milioi ordezkoen merkatuari (+% 6,9).

Enplegua finkatu egin zen 2023an (+% 0,8), eta zuzeneko 204.650 enplegu sortu zituen sektoreak. Zifra hori 332.550 pertsonara igoko litzateke, zeharkako enplegua kontuan hartuz gero.

Emaitza horiek gorabehera, Sernautoren[1] arabera, 2024an moteldu egin zen fakturazioaren hazkunde-erritmoa. Hazkundea % 3 ingurukoa izan zen, hau da, aurreko urteetan baino dezente baxuagoa. Honako hauek izan ziren arrazoi nagusietako batzuk: marjinen maila baxuak, mundu mailan ekoizpena geldituta egotea eta merkatuaren ziurgabetasuna. Dena den, zailtasunak zailtasun, enplegu maila mantendu egingo dela aurreikusten da, % 1eko hazkunde apalarekin. Izan ere, profil gero eta digitalagoak eta teknologikoagoak sartzen jarraitzeko beharra dago.

## 5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAEN

2023an, EAEko automobilgintzako hornidura-industriaren emaitzak, neurri handi batean, bat etorri ziren Estatuko industriari buruz aipatu ditugun gakoekin. Izan ere, kontuan hartu behar da Espainiako automobilgintzako osagarrien enpresen erdiak, gutxi gorabehera, EAEn kokatzen direla.

[1] Automobilgintzako Hornitzaileen Espainiako Elkartea.

Hala, 2023ko ekitaldian zifra historikoa lortu zuen EAEko automobilgintzako hornidura-industriak haren fakturazioan: 25.000 milioi euro baino gehiago. 2022ko emaitza baino % 11,5 handiagoa izan zen. Horrek agerian utzi zuen sektorearen bilakaera ona. Sektorea oso lehiakorra da, eta hainbat profiletako 300 enpresa inguruk osatzen dute: atzerriko kapitala duten multinazionalak, tokiko multinazionalak, kooperatibak edota familia-enpresak.

2023an sektoreko zuzeneko langile kopura 38.480 pertsonara igo zen EAEn. Balio hori aurreko ekitaldikoaren ia berdina izan zen (+% 0,2). Dena den, kopuru hori nabarmen handiagoa da (140 mila pertsona mundu osoan), sektorearen fabrikazio-jarduera osoa kontuan hartuz gero, hau da, 740 ekoizpen-lantegi guztira (345 lantegi 32 herrialdetan).

Era berean, automobilgintzako osagarrien industriak esportatzeko joera handia du. Fakturazioaren % 90 nazioarteko proiektuei lotuta dago, eta horien erdiak baino gehiago Europatik kanpokoak dira.

**87. koadroa Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera**

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023(*) |
|---|---|---|---|---|---|
| Fakturazioa (M euro) | 20.375 | 16.605 | 18.351 | 22.423 | 25.023 |
| Enplegua (pertsona kopurua) | 40.488 | 39.255 | 38.142 | 38.414 | 38.480 |

**): Behin-behineko datuak.*
*turria: ACICAE.*

**16. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera**

*(M euro)*




*Iturria: ACICAE*

Gasteizen dagoen Mercedes-Benz enpresaren ekarpena gehitu behar zaie zifra horiei. Gasteizko fabrikaren jarduera oso garrantzitsua da euskal ekonomiarentzat, EAEko BPGaren % 5 inguruko ekarpena egiten baitu. Gainera, enpresa horri dagozkio EAEko esportazioen % 14 inguru. Gainera, ekarpen handia egiten dio enpleguari: zuzeneko 5.000 langile inguru ditu, eta zeharkako 30.000 inguru. Izan ere, kontuan izan behar da haren hornitzaileen parkea: Estatuan 800 hornitzaile dituela kalkulatzen da.

2023an 157.000 unitate fabrikatu zituen euskal enpresak, eta haren 70 urteko ibilbideko ekoizpen maila gorenera iritsi zen. Halaber, 2023a urte ona izan zen inbertsioei dagokienez ere. Ekoizpenaren elektrifikazioarekin lotuta, Industria eta Turismo Ministerioak 129,6 milioi euro esleitu zizkion Gasteizko Mercedes Benz enpresari, Ibilgailu Elektrikoen eta Konektatuen II. Perteko B lerrotik eratorrita. Enpresari 2026. urterako modelo elektrikoen belaunaldi berriak bultzatzeko gaitasun handiagoa emateko helburuz, fabrika handitzeko lanak 2024an hasiko dituztela aurreikusten da. Horrek, Gasteizko fabrikaren lehiakortasuna hobetzen laguntzeaz gain, EAEko sektore osoari ere lagunduko dio.

Azkenik, sektorearen etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, ACICAEren arabera, 2024rako aurreikuspenak nahiko baikorrak dira. Dena den, ikusi egin beharko da nola finkatzen diren ibilgailuen fabrikatzaileen proiektuak, eta nolakoa den kontsumitzaileen indar ekonomikoa.

# 6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

## 6.1 MAKINA-ERREMINTEN EUROPAKO INDUSTRIA

CECIMOk (Makina-erreminten eta lotutako Fabrikazio Teknologien Industrien Europako Elkartea) argitaratutako informazioaren arabera, CECIMOk barne hartzen dituen herrialdeetako makina-erreminten ekoizpena % 7,0 hazi zen 2023an. Hala, 27.200 milioi eurora iritsi zen, eta munduko jardueraren gaineko pisu erlatiboa % 33 inguruan mantendu zen.

Emaitza ona bada ere, elkarteak aurreikusi baino baxuagoa izan zen hobekuntza. Izan ere, nazioarteko erronkek eta erronka ekonomikoek moteldu egin zuten hobekuntza: tentsio geopolitikoak, hornidura-katearen etenak eta merkatuen aldakortasuna, beste batzuen artean.

Bestetik, esportazioek 21.300 milioi euroko balioa izan zuten, eta CECIMOtik kanpoko herrialdeen ekarpena handiagoa izan zen (% 56,8). Inportazioek, berriz, 13.000 milioi euroko balioa izan zuten, eta atal honetan pisu handiagoa izan zuten CECIMOko herrialdeek (% 56,3).

Herrialdeen arabera, esportazioen atalean AEB eta Txina nabarmendu ziren, horiek izan baitziren Europako fabrikatzaileen lehenengo eta bigarren merkatuak. Aldiz, Japonia, Txina eta Taiwan izan ziren CECIMOko herrialdeei makina-erreminta gehien hornitu zizkieten herrialdeak.

Azkenik, etorkizun hurbilarekin lotuta, 2024. urtearen lehenengo aldian CECIMOko herrialdeen kontsumoa eta ekoizpena apur bat murriztuko direla aurreikusten du elkarteak, baina 2024ko laugarren hiruhilekoan alderantzikatu egin liteke egoera. Hala, enpresen konfiantzan eragin positiboa izan lezakete egoera ekonomikoaren hobekuntzak, gas-eskariaren arriskua murrizteak eta inflazio-tasak txikitzeak; eta, ondorioz, eskariak gora egin lezake.

## 6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

AFMk[1] (Espainiako makina-erreminta eta fabrikazio-teknologia aurreratuen sektoreko enpresen % 90 ordezkatzen dituen elkartea) argitaratutako informazioaren arabera, ziurgabetasunez betetako ekitaldi horretako oztopoei aurre egiten jakin zuten enpresek.

---

[1] Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.



LABORAL kutxa

Gauzak hala, makina-erreminten eta teknologia aurreratuen ekoizpenak zifra historikoa eskuratu zuen 2023an: 2.157,3 milioi euro, aurreko urtean baino % 23,7 gehiago. Neurri handi batean, azken bi ekitaldietan metatutako eskariek eragin zuten hazkunde hori.

Esportazioen atalak ere balio maximoak eskuratu zituen (1.611,9 milioi euro), eta % 21,8 hazi zen 2022arekiko. Gauzak hala, barne-kontsumoa 600 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta, gainerako adierazleek bezala, urte arteko hazkunde handia izan zuen (+% 23).

Informazioa azpisektoreen arabera banakatuta, makina-erreminten ekoizpenak jarraitu zuen sektoreko jardueraren zatirik handiena ordezkatzen (% 66 inguru); 2023an 1.420,3 milioi eurokoa izan zen horien ekoizpena.

Segmentu bakoitzak sektorearen jarduerari egin zion ekarpenari dagokionez, abioko makineriak 918,4 milioi euro fakturatu zituen, eta deformazioko makineriak 501,9 miloi euro. Bi segmentuen emaitzak hobetu ziren ekitaldian zehar, baina erritmo ezberdinekin. Hala, deformazioaren azpisektorearen balioek 2023an erregistratutako hazkunde handia nabarmendu zen (+% 54,4); neurri handi batean, automobilgintza-sektoreko inbertsioaren gorakadak eta bezero-merkatuen hazkundeak (adibidez, AEB eta Mexiko) eragin zuten aipatutako igoera. Abioaren azpisektoreak ere goranzko bilakaera izan zuen, baina apalagoa (+% 13,7). Eskaria osatu zuten bezero-segmentuak askotarikoak izan ziren, eta sektore aeronautikoa eta energetikoa nabarmendu ziren.

Emaitza bera izan zuten gainerako azpisektoreek, baina neurri ezberdinetako aldakuntzekin. Osagaiak, ekipoak eta softwarea kategoriak eta beste makina batzuen kategoriak izan zituzten hazkunderik handienak (+% 21,8 eta +% 28,3, hurrenez hurren). Dena den, horien pisu espezifikoa oso ezberdina izan zen (% 17,7 eta % 6,1). Mozteko eta deformatzeko tresnek (+% 9,4) eta beste zerbitzu batzuek (+% 2,5) ere ekoizpen maila handitu zuten 2023an; sektoreko ekoizpenaren % 6,8 eta % 4,2 zegokien horiei.

**88. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen ekoizpena**

*(M euro)*

| Produkzioa | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|
| Makina-erremintak | 1.132,8 | 1.420,3 | 25,4 |
| – Abioa | 807,8 | 918,4 | 13,7 |
| – Deformazioa | 325,0 | 501,9 | 54,4 |
| Osagaiak, ekipoak eta softwarea | 313,1 | 381,5 | 21,8 |
| Mozteko eta deformatzeko tresnak | 134,1 | 146,7 | 9,4 |
| Beste makina batzuk | 107,8 | 138,3 | 28,3 |
| Beste zerbitzu batzuk | 88,4 | 90,6 | 2,5 |
| **Ekoizpenaren guztizkoa(*)** | **1.776,1** | **2.157,3** | **23,7** |

*(*): Makina-erreminta nazionaletan txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.*
*Iturria: AFM.*

Aurrez aipatutakoarekin bat, kanpoko merkatuen gorakadaren ondorioz (+% 21,8), esportazioen zifra historiko handienetakoa izan zen. Azpisektoreen arabera, hiru partida nagusien bilakaera nabarmendu zen. Hala, urte arteko bi digituko hazkundeak izan zituzten abioko makineriak (+% 21), osagaien, ekipoen eta softwarearen kategoriak (+% 12,0) eta, neurri handiagoan, deformazio-makineriak (+% 58,3). Hazkunde horien ondorioz, esportazioen balioa 835,6 milioi eurokoa, 234,8 milioi eurokoa eta 316,5 milioi eurokoa izan zen, hurrenez hurren.

Erremintei eta beste makina batzuei dagokienez, antzeko bolumenak esportatu zituzten (83,1 milioi euro eta 88,4 milioi euro), baina alderantzizko bilakaerak izan zituzten: eremintek % 9,1eko hazkundea izan zuten, eta beste makina batzuek % 6,1eko jaitsiera. Azkenik, zerbitzuen kasuan, 2023an ez zen ia aldatu esportazio-fluxua, eta 53 milioi euroren bueltan mantendu zen (+% 1,2).

**89. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen esportazioa**

*(M euro)*

| Esportazioa | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|
| Makina-erremintak | 890,3 | 1.152,1 | 29,4 |
| – Abioa | 690,4 | 835,6 | 21,0 |
| – Deformazioa | 199,9 | 316,5 | 58,3 |
| Osagaiak, ekipoak eta softwarea | 174,7 | 234,8 | 12,0 |
| Mozteko eta deformatzeko tresnak | 76,2 | 83,1 | 9,1 |
| Beste makina batzuk | 94,2 | 88,4 | -6,1 |
| Beste zerbitzu batzuk | 52,9 | 53,6 | 1,2 |
| **Esportazioen guztizkoa** | **1.288,30** | **1.611,9** | **21,8** |

*Iturria: AFM.*

## 6.3 MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN

Europar Batasuneko makina-erreminten hirugarren ekoizlerik eta esportatzailerik handiena da Espainia; eta munduko bederatzigarrena. Industria horrek esportatzeko joera handia du. Sektoreko ekoizpenaren % 80 baino gehiago, batez beste, nazioarteko merkatuetara bideratzen da.

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, AFMren datuen arabera, makina-erremintaren sektoreko adierazle nagusiek bilakaera oso ona izan zuten azken ekitaldian.

Hala, makina-erreminten sektorearen ekoizpen-jarduera eta esportazioaren hazkundea nabarmendu ziren, 2023an urte arteko hazkunde handiak izan baitzituzten (+% 25,4 eta +% 29,4). Barne-salmentak ere hazi ziren, eta 303,8 milioi eurora iritsi ziren, baina hazkundea txikiagoa izan zen (+% 9,3). Tarteko posizioan kokatu ziren inportazioak; hazkundearekin (+% 13,4) itxi zuten ekitaldia, eta ia 560 milioi eurora iritsi ziren. Horren guztiaren ondorioz, ageriko kontsumoa 888,5 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 15,2 handiagoa.



LABORAL kutxa

Aldagaiak elkarrekin erlazionatuta, esportazioen proportzioa (esportazioak/ekoizpena) eta inportazioen proportzioa (inportazioak/ageriko kontsumoa) kalkula daitezke. Azaldutako datuak kontuan hartuta, 2023an hazi egin zen sektorearen esportazio-joera, eta esportazioen proportzioa ia % 82koa izan zen. Aldiz, inportazioen proportzioa apur bat jaitsi zen, 2022arekiko ia aldaketarik gabe (% 63 inguru).

**90. koadroa Makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 977,9 | 1.132,80 | 1.420,3 | 25,4 |
| 2. Barne-salmentak | 239,3 | 278,1 | 303,8 | 9,3 |
| 3. Esportazioak | 831,5 | 890,3 | 1.152,1 | 29,4 |
| 4. Inportazioak | 332,6 | 493,0 | 558,9 | 13,4 |
| 5. Ageriko kontsumoa(*) | 510,8 | 771,1 | 888,5 | 15,2 |
| 6. Esportazio-proportzioa = 3/1 | % 85,03 | % 78,60 | % 81,12 | 3,2 |
| 7. Inportazio-proportzioa = 4/5 | % 65,11 | % 63,93 | % 62,90 | -1,6 |

**): Ekoizpena – esportazioak (erabilitako makineria salbu, 61,4 m€) + inportazioak.*
*turria: AFM.*

**17. grafikoa Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza**

*(M euro)*




*Iturria: AFM.*

Esportazio-datuetan sakonduta, eta Estatuko produktuen jomugako herrialde nagusiei dagokienez, Estatuko makina-erremintaren industriarekiko harreman komertzialetan AEBk, Italiak eta Alemaniak duten garrantzia berretsi zuten 2023ko datuek. Dena den, rankingeko posizioak aldatu egin ziren. 2023an, esportazio-maparen buruan kokatu zen AEB, lehen aldiz. Italia bigarren lekuan finkatu zen (inbertsiorako pizgarri publikoek mesede egin zioten haren eskariari). Eta Alemania hirugarren postura jaitsi zen, tradizioz Estatuko industriaren lehenengo merkatua izan bada ere.

Bestetik, Txina laugarren postuan mantendu zen, % 8,2ko kuotarekin, haren pisu erlatiboa 2022arekiko apur bat handitu ondoren. Mexikoren pisu erlatiboa ere apur bat handitu zen,

eta esportazioren guztizkoaren % 7,4 hartu zuen. Frantziak (% 7), Portugalek (% 4,9) eta Turkiak (% 3,4) osatu zuten merkatu nagusien mapa. Hiru horien presentziak behera egi zuen, pixka bat.

**18. grafikoa Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako herrialde nagusien pisua (2022 eta 2023)**

*(%)*




*Iturria: AFM.*

Sektorearen jardueraren balorazioari eta etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, hau esan du AFMk: "2023rako espero genuen eskarien beherakada, makina-erremintak ekoizten dituzten Europako beste herrialde batzuek dagoeneko jasan dutena, atzeratzea lortu dugu. Une honetan, ziurgabetasuna handia da, eta, merkatuko egoera, nahasgarria. Hiru erakartze-urte on izan ondoren, ekitaldi honetako fakturazioak sendoa izaten jarraituko du. Zaila izango da 2023ko zifrak berdintzea, baina gertu ibiliko gara".

## 6.4 ESKUZKO ERREMINTAK ETA INDUSTRIA-HORNIDURA

ESKUIN Burdindegi eta Industria Hornikuntzaren Klusterreko bazkide diren enpresen fakturazioak maximo historikoa eskuratu zuen 2023an: 455 milioi euro (2022arekiko +% 2,8). Eskuzko erreminten eta sarrailen 22 enpresa fabrikatzailek osatzen dute klusterra, eta 1.900 pertsonari ematen diete lana.

2023an, eskuzko erreminten eta industria-hornigaien sektorearen esportazio-bolumena (232,6 milioi euro) 2022koaren oso antzekoa izan zen (234,7 milioi euro). Testuinguru horretan, barne-merkatuaren bilakaera askoz ere hobea izan zen (+% 6,9), eta, egiaz, horrek eragin zuen sektorearen emaitza ona. Barne-merkatua 222,7 milioi eurora arte hazi zen, eta, hala, bi merkatuen pisu espezifikoa berdindu egin zen.



LABORAL kutxa

Sektorearen bezero-segmentuen bilakaerari dagokionez, industriak (% 47ko pisu espezifikoa) eta eraikuntzak (% 45,7ko partaidetza) bilakaera oso ona izan zuten, eta haien balioak % 10,8 eta % 5,5 hazi ziren, hurrenez hurren, 2022arekiko. Nekazaritza-sektoreak osatu zuen barne-sektorea; salmenten % 7,2 egokitu zitzaion sektore horri, haren balioak aurreko ekitaldiarekiko % 6,9 murriztu ondoren.

Esportazioen atalean, egoera ezegonkorra izan zen. Europar Batasunak jarraitu zuen Estatuko produktuen jomugako merkatu nagusia izaten, guztizkoaren % 75arekin. Eta hauek izan ziren hurrengoak: Amerika (% 12), Ekialde Ertaina (% 6), Afrika (% 3), Ekialdeko Europa (% 2) eta Asia eta Ozeania (% 2). Herrialdeka aztertuta, Frantzia kokatu zen lehen postuan, bertara bideratu baitziren kanpo-salmenten % 8,4. AEB (% 6), Portugal (% 4,6) eta Alemania (% 3) izan ziren hurrengoak.

**91. koadroa Sektorearen magnitude nagusien bilakaera.**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023(*) | % 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Produkzioa | 443,8 | 443,1 | 455,3 | 2,8 |
| Barne-salmentak | 202,5 | 208,3 | 222,7 | 6,9 |
| -Industria | 96,4 | 94,5 | 104,7 | 10,8 |
| -Eraikuntza | 89,0 | 96,5 | 101,8 | 5,5 |
| -Nekazaritza | 17,0 | 17,3 | 16,1 | -6,9 |
| Esportazioak | 241,2 | 234,7 | 232,6 | -0,9 |

**): Behin-behineko datuak.*
*turria: ESKUIN –Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterra–.*

Sektoreko jardueraren etorkizunari dagokionez, 2024a ongi hasi dela adierazi du ESKUINek, eta datozen hilabeteetarako aurreikuspen onak daude. Salmentak mantentzea edo aurreko hiruhilekoarekiko apur bat hobetzea aurreikusten da. Dena den, azken ekitaldietan murriztu ziren marjinak berreskuratzea izango da 2024ko helburu nagusietako bat.

# 7. PAPERA

## 7.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Confederation of European Paper Industries-ek (CEPI) emandako datuetatik abiatuta, Paper eta Ore Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ASPAPEL) emandako informazioaren arabera, 2023an 73.933 mila tonara jaitsi zen nazioartean ekoitzitako paper eta kartoi kopurua; hau da, aurreko urtean baino -% 13 gutxiago ekoitzi zen. Hala, areagotu egin zen aurreko ekitaldian erregistratutako jaitsiera (-% 6,2).

**92. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)**

| Urtea | m Tm | % Δ |
|---|---|---|
| 2018 | 92.200 | 0,0 |
| 2019 | 89.581 | -2,8 |
| 2020 | 85.208 | -4,9 |
| 2021 | 90.531 | 6,2 |
| 2022 | 84.933 | -6,2 |
| 2023* | 73.933 | -13,0 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetan oinarrituta.*

Mundu mailako paperaren ekoizpena herrialdearen arabera aztertuta, eta kasu honetan eskura dugun azken informazioa 2022koa dela kontuan hartuta, Txinak eta Estatu Batuek bereganatu zuten ekoizpen osoaren erdia baino gehiago (% 54,3). Aldiz, Alemania, Italia eta Suedia nabarmendu ziren Europan, baina parte-hartze askoz ere txikiagoekin (% 6,4, % 2,6 eta % 2,5, hurrenez hurren).

**93. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2022* | % ∆ |
|---|---|---|
| Alemania | 21.632 | -6,4 |
| Austria | 4.633 | -8,6 |
| Belgika | 1.767 | -1,7 |
| Bulgaria | 234 | -4,1 |
| Danimarka | 72 | -1,4 |
| Espainia | 6.351 | -4,6 |
| Finlandia | 7.207 | -16,8 |
| Frantzia | 7.092 | -3,6 |
| Grezia | 314 | 9,0 |
| Hungaria | 798 | -0,5 |
| Italia | 8.825 | -8,7 |
| Holanda | 2.884 | -1,9 |
| Polonia | 5.218 | 0,0 |
| Portugal | 2.416 | 3,3 |
| Erresuma Batua | 3.457 | -5,0 |
| Txekiar Errepublika | 938 | 4,1 |
| Eslovakiako Errepublika | 954 | 2,3 |
| Suedia | 8.534 | -4,4 |
| Norvegia | 1.036 | 2,8 |
| Suitza | 994 | -2,9 |
| Brasil | 11.113 | 3,2 |
| Kanada | 8.651 | -0,2 |
| Txina | 117.889 | 2,0 |
| Estatu Batuak | 66.932 | -3,2 |
| India | 17.119 | 4,9 |
| Japonia | 23.677 | -1,2 |
| Errusia | 9.508 | -5,7 |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2022ko informazioa baino ez dago eskuragarri.*
*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Arreta orearen ekoizpenean jarrita, 2022an Estatu Batuak, Brasil, Txina eta Kanada izan ziren protagonista nagusiak; horien artean osatu zituzten ekoizpen osoaren ia bi heren (% 65,4). Europan, Suediak eta Finlandiak % 7,6ko eta % 6,1eko kuotak izan zituzten, hurrenez hurren.

**94. koadroa** **Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2022* | % Δ |
|---|---|---|
| Alemania | 2.172 | -6,7 |
| Austria | 1.558 | -3,8 |
| Belgika | 480 | -2,0 |
| Bulgaria | 196 | 0,0 |
| Espainia | 1.544 | -13,1 |
| Finlandia | 9.240 | -13,7 |
| Frantzia | 1.558 | -3,4 |
| Italia | 146 | -27,4 |
| Holanda | 30 | -14,3 |
| Polonia | 1.177 | -2,0 |
| Portugal | 2.687 | 2,4 |
| Erresuma Batua | 195 | -11,4 |
| Txekiar Errepublika | 615 | 0,7 |
| Eslovakiako Errepublika | 763 | -4,9 |
| Suedia | 11.381 | 0,7 |
| Norvegia | 951 | 7,0 |
| Suitza | 87 | -27,5 |
| Brasil | 24.458 | 8,7 |
| Kanada | 13.405 | -5,0 |
| Txina | 19.673 | 18,5 |
| Estatu Batuak | 40.770 | -5,3 |
| India | 2.135 | 2,9 |
| Japonia | 7.554 | -0,8 |
| Errusia | 7.565 | -5,8 |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2022ko informazioa baino ez dago eskuragarri.*
*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

## 7.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPELen Txosten Estatistikoaren arabera, 2023an paperaren eta kartoiaren ekoizpena -% 4,6 jaitsi zen Espainian, 6.049,4 mila tonara arte. CEPIren eremuan are handiagoa izan zen jaitsiera (paperaren eta kartoiaren ekoizpena -% 13 murriztu zen).

Halaber, 2023an, Espainian, paperaren esportazioek (2.449,9 mila tona), inportazioek (2.743,1 mila tona) eta ageriko kontsumoak (6.342,7 mila tona) urte arteko jaitsierak izan zituzten urtean zehar (-% 1,7, -% 13,7 eta -% 9,9, hurrenez hurren). Hala, 2023an Estatuko paperaren merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -293,2 mila tonara murriztu zen (aurreko ekitaldian -684,3 mila tonakoa izan zen saldo negatiboa).



LABORAL kutxa

**95. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.**

*(m Tm)*

| Urtea | Produkzioa | Inportazioa | Esportazioak | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2014 | 6.035,7 | 3.136,7 | 2.915,1 | 6.257,4 |
| 2015 | 6.195,2 | 3.208,3 | 2.796,2 | 6.607,3 |
| 2016 | 6.218,6 | 3.256,0 | 2.830,1 | 6.644,5 |
| 2017 | 6.217,8 | 3.266,6 | 2.681,4 | 6.802,9 |
| 2018 | 6.156,6 | 3.288,4 | 2.584,9 | 6.860,1 |
| 2019 | 6.436,6 | 3.088,4 | 2.651,1 | 6.873,9 |
| 2020 | 6.268,5 | 2.877,3 | 2.592,9 | 6.552,9 |
| 2021 | 6.658,9 | 3.067,7 | 2.823,3 | 6.903,3 |
| 2022 | 6.342,4 | 3.176,9 | 2.492,6 | 7.038,9 |
| 2023 | 6.049,4 | 2.743,1 | 2.449,9 | 6.342,7 |

*'turria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

**19. grafikoa Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian**

*(Indizea: 1985= 100)*




*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Termino geografikoetan, aurreko ekitaldietan bezala, 2023an ere EB izan zen Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia. EBtik egin ziren kanpo-erosketen % 87,6, eta EBra egin ziren kanpo-salmenten % 67,8. Zehatzago esanda, Frantziari dagokio inportazioen % 15,9, Alemaniari % 14,6 eta Finlandiari % 12,4. Bestetik, Frantziari, Portugali eta Italiari dagozkie esportazioen % 20,2, % 19,9 eta % 7,2, hurrenez hurren.

Paper motari dagokionez, 2023an behera egin zuten mota guztiek, uhin-kartoirako paperak izan ezik. Zehazki, beste ontzi batzuetarako eta kartoi iztukaturako papera -% 18,1 jaitsi zen; beste paper batzuetara eta berezietara bideratua -% 14,9; prentsa, inprimatzea eta idazketara bideratua -% 10,7; eta paper higieniko eta sanitarioa -% 4,1.

Aitzitik, uhin-kartoia egiteko paperaren ekoizpena % 1,5 hazi zein, Test Liner eta Kraft Linerren hazkundearen ondorioz.

**96. koadroa** **Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Produkzioa | | Inportazioa | | Esportazioak | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | % ∆ 23/22 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2023 | % ∆ 23/22 |
| Prentsa eta inprimatzea eta idazketa | 666,8 | -10,7 | 690,3 | -17,7 | 691,6 | -15,8 | 665,5 | -17,7 |
| Higienikoak eta sanitarioak | 809,9 | -4,1 | 158,9 | -2,4 | 210,0 | -6,1 | 758,7 | -2,4 |
| Uhin-kartoirako | 3.453,4 | 1,5 | 881,7 | -9,2 | 1.038,5 | 27,9 | 3.296,5 | -9,2 |
| – Uhinetarako | 1.533,1 | -1,2 | 262,3 | -9,8 | 379,1 | 26,2 | 1.416,3 | -9,8 |
| – Test Liner eta Kraft Liner | 1.564,2 | 8,7 | 600,4 | -7,0 | 597,8 | 33,3 | 1.566,9 | -7,0 |
| – Bikoak eta larruak | 356,0 | -13,8 | 18,9 | -16,1 | 61,6 | -2,6 | 313,3 | -16,1 |
| Beste ontzi batzuk eta kartoi iztukatua | 712,7 | -18,1 | 849,3 | -14,5 | 455,5 | -20,3 | 1.106,6 | -14,5 |
| Beste paper batzuk eta bereziak | 406,7 | -14,9 | 163,0 | -1,1 | 54,2 | -15,4 | 515,4 | -1,1 |
| **Papera eta kartoia, guztira** | **6.049,4** | **-4,6** | **2.743,1** | **-9,8** | **2.449,9** | **-1,7** | **6.342,7** | **-9,8** |

*turria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2023an % 4,3 hazi zen haren ekoizpena, 1.611,1 mila tonara arte. Eta esportazioak ere hazi egin ziren (% 23,8), 1.001,7 mila tonara arte. Bestetik, jaitsi egin ziren paperaren inportazioak eta ageriko kontsumoa (-% 14 eta -% 15,1, hurrenez hurren), 1.051,2 eta 1.660,5 mila tonara arte, hurrenez hurren.

Gauzak horrela, orearen Estatuko merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -49,5 mila tonara murriztu zen 2023an (-412,6 mila tonako saldo negatiboa zuen 2022an), eta estaldura-tasa % 95,3koa izan zen (aurreko ekitaldian % 66,2koa).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa -% 4,5 jaitsi zen 2023an eta 4.829,6 mila tonatan kokatu zen.

**97. koadroa** **Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Produkzioa | | Inportazioa | | Esportazioak | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | % ∆ 23/22 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2023 | % ∆ 23/22 |
| Ore birjinak, guztira | 1.611,1 | 4,3 | 1.051,2 | -14,0 | 1.001,7 | 23,8 | 1.660,5 | -15,1 |
| Paper zaharra (ageriko bilketa) | 4.240,1 | -2,5 | 1.484,5 | -0,3 | 906,0 | 16,5 | 4.829,6 | -4,5 |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Txosten honen aurreko edizioetan bezala, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu jarraian, adierazle hauen arabera: ageriko bilketa-tasa, erabilera-tasa eta birziklapen-tasa. Ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2023an % 73,2 (2022an % 69,5). Erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): 2023an % 79,8 (aurreko ekitaldian % 79,6). Birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2023an % 83,4 (aurreko ekitaldian % 80,9).

## 7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

CEPIren eremuan (-% 13) eta Estatuan (-% 4,6) erregistratutako jaitsieren ildotik, Euskal Herrian ere behera egin zuen paperaren sektoreko paperaren eta kartoiaren ekoizpenak 2023an. Izan ere, -% 12,2ko jaitsiera erregistratu zen; hala, 1.260,6 mila tonara egin zuen atzera ekoizpenak. Hala, termino erlatiboetan, Euskal Herriko murrizketa handiagoa izan zen Estatukoa baino, eta, ondorioz, Euskal Herriko paperaren sektorearen partaidetza-kuota murriztu egin zen (2023an Espainiako ekoizpenaren % 20,8, eta aurreko ekitaldian, % 22,6).

**98. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Papera eta kartoia, guztira | 1.478,8 | 1.435,2 | 1.260,6 | -12,2 |
| Orea, guztira | 510,9 | 492,8 | 448,9 | -8,9 |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Oreari dagokionez, Estatuan gora egin zuen ekoizpenak (% 4,3) 2023an, baina Euskal Herrian -% 8,9 jaitsi zen, eta 448,9 mila tonara murriztu zen. Ondorioz, Estatuko ekoizpenaren gaineko kuota txikitu egin zen: 2023an % 27,9 eta 2022an eta % 31,9.

Kanpo-merkataritzako elkartrukeei dagokienez, eta kasu honetan aurkezten diren zifrak monetarioak direla aintzat hartuta, 2023an behera egin zuten Euskal Herriko paperaren eta orearen esportazioek zein inportazioek. Hala, kanpora egindako salmentak -% 18,7 murriztu ziren, 1.070.038 mila eurora arte, eta kanpotik egindako erosketak -% 20,2 murriztu ziren, 754.302 mila eurora arte. Gauzak hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 315.736 mila eurora arte jaitsi zen (aurreko ekitaldian 370.358 mila eurokoa zen).

Azkenik, paperaren sektoreko Euskal Herriko enpresa nagusiak ageri dira jarraian, modu sintetikoan, eta bakoitza non dagoen eta zer paper mota ekoizten duen adierazten da.

**99. koadroa Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak**

| Enpresak | Kokapena | Produkzioa |
|---|---|---|
| Papresa | Errenteria | Prentsarako papera |
| Smurfit Kappa Nervión | Iurreta | Orea, kraft papera |
| Smurfit Kappa Navarra | Zangoza, Cordovilla | Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak |
| Essity Operations Allo (Sca Hygiene Spain) | Allo | Tisu papera |
| Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel) | Hernani | Inprimatzeko eta idazteko orea eta papera |
| Munksjö Tolosa (Munksjö Paper DECOR) | Berastegi | Laminatuetarako oinarri-papera |
| Papelera del Oria | Zizurkil | Inprimatzeko eta idazteko papera |
| Papelera del Ebro | Viana | Uhin-papera eta -kartoia |
| Bertako | Uharte | Uhin-papera eta -kartoia |
| Newark San Andrés (Solidus Solutions San Andrés) | Atarrabia | Uhin-kartoia |
| Sonoco Tudela (Papertech) | Tutera | Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa |
| Papeles El Carmen | Altzuza | Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa |
| Ibertissue (Sofidel Spain) | Buñuel | Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa |
| Videcart (Solidus Solutions Videcart) | Atarrabia | Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa |

*turria: "Sabi INFORMA" enpresen datu-basea.*

# 8. KAUTXUA

## 8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

International Rubber Study Group taldearen arabera, merkatu berrien hazkundearen ondorioz (bereziki, Txina eta India), 2023an % 3,1 hazi zen kautxuaren mundu mailako kontsumoa, 30,5 milioi tonara arte. Kautxu motaren arabera, kautxu naturalaren kontsumoa % 1,4 hazi zen, eta kautxu sintetikoarena % 4,7 (14,8 eta 15,7 milioi tona, hurrenez hurren).

**100. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa**

*(M Tm)*

| Kontzeptua | Kautxu naturala | | | Kautxu sintetikoa | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 |
| Guztira | 14,6 | 14,8 | 1,4 | 15,0 | 15,7 | 4,7 | 29,6 | 30,5 | 3,1 |

*Iturria: International Rubber Study Group.*

## 8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN

2022an apur bat jaitsi zen kautxuaren eratorrien ekoizpena (-% 0,3) eta igo egin zen ageriko kontsumoa (% 6,1). 2023an, berriz, bi magnitudeek behera egin zuten (-% 9,7 eta -% 4,4, hurrenez hurren). Izan ere, hazkunde ekonomikoa murriztu egin zen, eta bilakaera ezberdina izan zuten pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektoreak eta pieza teknikoaren (kautxu industriala) eta kautxuaren eratorrien azpisektoreak.

Zehazki, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak emandako informazioaren arabera, 2023an 776.491 tonara jaitsi zen sektorearen ekoizpena Estatuan, hau da, -% 9,7ko jaitsiera izan zuen. Ageriko kontsumoa, berriz, -% 4,4 murriztu zen, 641.384 tonara arte.

Dena den, sektoreko fakturazioa apur bat igo zen, % 0,3, eta 5.842,1 milioi eurora iritsi zen, pieza teknikoaren azpisektoreko salmenten igoeraren (% 5,4) ondorioz. Izan ere, pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektoreko salmentek behera egin zuten (-% 1,9).

Bestetik, kautxuaren eraldatze-sektore osoari dagokionez, sektoreko ekoizpena -% 9,7 jaitsi zen eta sektoreko enplegua apur bat murriztu zen, -% 0,5. Testuinguru horretan, 2023an, kautxuaren sektore nazionalaren produktibitatea -% 9,3 murriztu zen, langile bakoitzeko 37,1 tonara arte.

Automobilgintza-sektoreak kautxuaren eraldaketa-industrian duen garrantzi nabarmena kontuan izanik, aipatzekoa da kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta

birkautxutatuaren azpisektorearen gaineko epigrafean) sektore horren azterketa labur bat egingo dugula.

**101. koadroa    Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarrizko datuak (1) Espainian**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 860.125 | 776.491 | -9,7 |
| 2. Ageriko kontsumoa | 670.619 | 641.384 | -4,4 |
| 3. Esportazioa | 825.989 | 768.533 | -7,0 |
| 4. Inportazioa | 636.483 | 633.426 | -0,5 |
| 5. Saldo komertziala | 189.506 | 135.107 | -28,7 |
| 6. Esportazioaren batez besteko prezioa(2) | 4,69 | 6,12 | 30,4 |
| 7. Inportazioaren batez besteko prezioa(2) | 5,38 | 5,56 | 3,3 |
| 8. Esportazioa/Ekoizpena (%) | % 96,0 | % 99,0 | 3,1 |
| 9. Inportazioa/Ageriko kontsumoa (%) | % 94,9 | % 98,8 | 4,1 |
| 10. Enplegua | 21.053 | 20.950 | -0,5 |
| 11. Produktibitatea (1/10)(3) | 40,9 | 37,1 | -9,3 |

*(1): Honako hauek barne: EJSN 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutatua) eta EJSN 22.19 (kautxuzko beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexezko pieza teknikoa).*
*(2): Euro/kg.*
*(3): Tm/Enplegatu/urte.*
*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kanpo-merkataritza aztertuz gero, bolumenari dagokionez, kautxuaren eratorrien kanpoko salmentak -% 7 jaitsi ziren, 768.533 tonara arte. Kanpo-erosketak, berriz, -% 0,5 jaitsi ziren, 633.426 tonara arte. Hala, merkataritza-superabita -% 28,7 jaitsi zen, 135.107 tonara arte.

Azpisektoreei dagokienez, pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioak -% 8,6 murriztu ziren, baina pieza teknikoen esportazioak apur bat igo ziren, % 0,4. Bestetik, pneumatikoen eta birkautxutatuaren inportazioak ez ziren aldatu (% 0), eta pieza teknikoen inportazioak -% 1,8 murriztu ziren.

**102. koadroa    Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera**

*(Tm)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
| Pneumatikoak eta birkautxutatua | 672.362 | 614.308 | -8,6 | 462.760 | 462.874 | 0,0 | 209.602 | 151.434 | -27,8 |
| Pieza teknikoa | 153.627 | 154.225 | 0,4 | 173.723 | 170.552 | -1,8 | -20.096 | -16.327 | -18,8 |
| **Guztira** | **825.989** | **768.533** | **-7,0** | **636.483** | **633.426** | **-0,5** | **189.506** | **135.107** | **-28,7** |

*turria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*



LABORAL kutxa

Nolanahi ere, termino monetarioetan, kautxuaren eratorrien kanporako salmentak eta kanpotik egindako erosketak hazi egin ziren 2023an (% 21,3 eta % 2,8, hurrenez hurren).

**103. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera**

*(M euro)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 |
| Pneumatikoak eta birkautxutatua | 2.741,8 | 3.502,3 | 27,7 | 2.025,5 | 2.219,4 | 9,6 | 716,3 | 1.282,9 | 79,1 |
| Pieza teknikoa | 1.134,8 | 1.200,9 | 5,8 | 1.397,6 | 1.300,7 | -6,9 | -262,7 | -99,8 | -62,0 |
| **Guztira** | **3.876,6** | **4.703,2** | **21,3** | **3.423,0** | **3.520,1** | **2,8** | **453,6** | **1.183,1** | **160,8** |

*turria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

EAEko kautxuaren eraldaketa-sektoreari dagokionez, kautxuari eta plastikoari dagokien Eustaten Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) jaitsiera-erritmoa -% 1,9era arte hazi zen 2023an (2022an -% 0,4).

Kanpoko trukeei dagokienez, 2023an % 12,9 hazi ziren kautxuaren eta haren manufakturen esportazioak EAEn, 1.801.605 mila eurora arte. Aldiz, inportazioak -% 15,6 murriztu ziren, 524.359 mila eurora arte. Hala, kautxuaren eta haren manufakturen merkataritza-balantzaren saldo positiboa % 31,1 hazi zen 2023an.

Zifra horiek Estatuko datuekin alderatuta, ikuspegi monetariotik, Estatuko guztizkoaren gaineko EAEko kanpo-merkataritzaren partaidetza jaitsi egin zen esportazioen (2023an guztizkoaren % 38,3 eta aurreko ekitaldian, berriz, % 41,2) zein inportazioen kasuan (2023an guztizkoaren % 14,9 eta 2022an, aldiz, % 18,1).

## 8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA

Azterketa pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorera mugatuta, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalaren arabera, 2023an -% 11,7 egin zuen behera sektoreko ekoizpenak, 583.297 tonara arte. Ageriko kontsumoa, berriz, -% 4,3 murriztu zen eta 431.863 tonatan kokatu zen.

Kanpo-merkataritzak bilakaera ezberdina izan zuen 2023an. Izan ere, esportazioak -% 8,6 jaitsi ziren eta 614.308 tonara iritsi ziren. Inportazioak, berriz, ez ziren aldatu, eta 462.874 tonatan kokatu ziren. Hala, esportatzeko joera % 105,3koa izan zen eta inportatzeko joera % 107,2koa.

**104. koadroa Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 660.888 | 583.297 | -% 11,7 |
| 2. Esportazioa | 672.362 | 614.308 | -% 8,6 |
| 3. Inportazioa | 462.760 | 462.874 | % 0,0 |
| 4. Ageriko kontsumoa | 451.286 | 431.863 | -% 4,3 |
| 5. 2/1 x 100 | % 101,7 | % 105,3 | % 3,5 |
| 6. 3/4 x 100 | % 102,5 | % 107,2 | % 4,5 |

*turria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kautxuaren sektorearen eta automobilgintza-sektorearen arteko lotura estua kontuan izanda, azken horren bilakaera aztertuko dugu jarraian, labur. Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ANFAC) arabera, 2023an 1.127.868 ibilgailu matrikulatu zituzten, aurreko urtean baino % 17,6 gehiago. Ibilgailuen ekoizpena eta esportazioak (2.451.243 eta 2.211.467 unitate, hurrenez hurren), berriz, % 10,4 eta % 14,4 hazi ziren, hurrenez hurren.

**105. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian**

*(unitateak)*

| Kontzeptua | Produkzioa | | | Esportazioa | | | Matrikulazioak(1) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
| Turismoak | 1.787.197 | 1.907.072 | 6,7 | 1.583.558 | 1.702.678 | 7,5 | 813.376 | 949.359 | 16,7 |
| Merkataritza- eta industria-ibilgailuak | 432.239 | 544.171 | 25,9 | 349.071 | 508.789 | 45,8 | 143.134 | 174.740 | 22,1 |
| Mikrobusak eta autobusak | 0 | 0 | -- | 0 | 0 | -- | 2.468 | 3.769 | 52,7 |
| **Guztira** | **2.219.436** | **2.451.243** | **10,4** | **1.932.629** | **2.211.467** | **14,4** | **958.978** | **1.127.868** | **17,6** |

*(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne hartzen ditu. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako ibilgailuen matrikulazioak ere aintzat hartzen ditu.*

*Iturria: ANFAC eta IDEAUTO.*

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, Euskal Herrian kokatzen diren pneumatikoen fabrikatzaile nagusien inguruko aipamen labur bat egingo dugu: Michelin eta Bridgestone.

Michelinek hiru lantegi ditu Euskal Herrian: Gasteizen, Araian (Araba; egiaz, haren zentro logistikoa da) eta Lasarten (Gipuzkoa). 2023an 1.983 milioi euroko irabazi garbiak eskuratu zituen enpresa taldeak, aurreko ekitaldian baino % 1,3 txikiagoak (2022an 2.009 milioi euro). Beste faktore batzuen artean, itsaso gorriko krisia (merkantzien garraioari eragiten dio) eta kautxu falta nabarmendu ziren. Euskal Herriari dagokionez, multinazional frantsesak 2023ko azaroaren amaieran iragarri zuenez, Gasteizko lantegiko 150 langile eta Lasarteko lantegiko beste 26 langile kaleratzea erabaki du, eta inbertsio batzuk



LABORAL kutxa

bertan behera uztea. Hala, azken 20 urteetako baxuena da 2024rako aurreikusten den ekoizpena.

Bridgestoneri dagokionez, bi lantegi ditu Euskal Herrian, bata Basaurin eta bestea Usansolon. 2023an, enpresa-talde osoak 2.047 milioi euroko irabazi garbiak eskuratu zituen, aurreko ekitaldian baino % 10,3 gehiago. Premium arloko ikuspegia indartu zuen eta prezioen kudeaketa estrategikoa sustatu zuen, eta, aldi berean, galerak eta errentagarriak ez ziren arloak murrizteko lan egin zuen. Gure hurbileko ingurunera etorrita, nabarmendu beharrekoa da 2023ko abenduaz geroztik murrizketak jasaten ari direla Basauriko eta Galdakaoko lantegietako langileak (Puente San Migueleko —Kantabria— eta Burgoseko langileak ere bai), eta murrizketa horiek mantendu egingo dira 2024an zehar. Dena den, Bridgestoneko Langileen Sindikatu Independenteak (STIB) demanda bat aurkeztu du Auzitegi Nazionaleko Gizarte arloko Salan, eta Lan Kontratuak Aldi Baterako Eteteko Espediente Kolektiboa inpugnatzeko eskatu du.

# 9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA

## 9.1 JOERA TEKNOLOGIKO BERRIAK[1]

Sarrera gisa, lehenik eta behin, garrantzitsutzat jotzen dugu datozen ekitaldietan enpresen eraldaketa digitala bultzatuko duten makrojoera teknologiko berri nagusien laburpen bat eskaintzea.

**Interakzioa: konputazio espaziala eta metabertso industriala**

Metabertsoa tresna enpresarial bilakatzen den heinean, teknologia espazialak lekua irabazten joango dira aplikazio industrialetan, eta datuak eta adimen artifiziala erabiliko dira bizitza errealeko prozesuak kopiatzeko.

**Informazioa: AA sortzailea, hazkundearen katalizatzaile gisa**

Enpresen ikuspegi estrategikoaren baitan, arazoak konpontzen eta besteen aurrean bereizten laguntzeko erabiliko dute AA sortzailea. Horretarako, beharrezkoa izango da enpresen azpiegiturak hobetzea, aplikazioak programatzeko interfazeen, kontrol-sistemen, gobernantza-hesi eraginkorren eta datuentzako arkitektura egokiaren bidez.

**Konputazioa. Adimendunagoa, ez zailagoa**

Eragiketa teknologiko konplexu batzuk (AA ereduen entrenamendua, simulazio konplexuak, biki digitalak sortzea…) gauzatzea zaila da, tokiko azpiegitura estandarra izanez gero. Horrekin lotuta, kodetze adimenduna eta baliabide informatikoen erabilera hobea lagungarriak izan daitezke enpresentzat, prozesu asko azkartzeko. Halaber, ordenagailu kuantikoek eta neuromorfikoek definituko dute informatikaren hurrengo aroa.

**DevOps-etik (garapena-eragiketak) DevEx-era (garapena-esperientzia). Ingeniaritzaren esperientzia indartzea**

Gaur egun, software-garatzaileek 250 aplikazio baino gehiago eta beste ingurune tekniko batzuk dituzte aurrean. Horiek gaizki integratuta egoten dira, eta ezagutza zatitzea eragiten dute. Horrekin lotuta, ikuspegi berriek, hala nola DevEx-ek (garatzailearen esperientzia), etorkizunean tresna integratu eta intuitiboak izatea ahalbidetuko dute, eta horiek enpresen balio teknologikoa bultzatuko dute.

[1] Azterlan honetan oinarrituta prestatutako informazioa: "*2024ko joera teknologikoak*", Deloittek egina.

### Corearen modernizazioa: zor teknologikotik ongizate teknologikora

Zor teknologikoa traba bat da berrikuntzarako, eta enpresek produktibitatea galtzea eragiten duen arrazoi nagusia. Testuinguru horretan, beharrezkoa da enpresen gabezia teknologikoak identifikatzea, eta gastu eta aukera handienak dituzten bost arloei arreta jartzea: azpiegitura, datuak, aplikazioak, lan-indarra eta zibersegurtasuna eta konfiantza. Hala, datozen urteetan, teknologia erresilientea lortzeko aurrerapausoak emango dira. Teknologia horrek bere kode propioa edo sistema zaharkitua sendatuko ditu, sistema zentraletan integratutako AAren bidez. AA horrek zor teknologikoaren pilaketa diagnostikatuko du, eta modernizatzen lagunduko die ingeniariei. Eta, etorkizunean, modu autonomoan egiteko gai ere izango da.

### Zibersegurtasuna eta konfiantza: errealitatea defendatzea

Enpresen segurtasunerako arriskuak biderkatu egiten dira edukiak sortzeko tresna berri bat agertzen den bakoitzean. Gainera, egungo arriskuak (phishinga, deepfakes, desinformazioa, promptak txertatzea...) larriagotu egingo dira etorkizunean, eta, erronka horiei aurre egiteko, enpresek politikak eta teknologiak konbinatu beharko dituzte, eduki kaltegarria identifikatzeko eta langileek ziberarriskuen gainean duten kontzientzia maila handitzeko.

## 9.2 SEKTOREA EAEN[1]

Epigrafe hau garatu aurretik, aurten ere komeni da gogoratzea Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuen Industrien Elkarteak (GAIA) berrantolaketa bat egin zuela 2019an, lehentasunezko teknologia bideratzaileetan fokua jarrita. Ikuspegi berri horretan, azpisektore horietako lidergoa honako teknologietan espezialistak diren enpresei dagokie: Adimen Bisuala, Zibersegurtasuna, Gauzen Internet (IoT) eta Adimen Artifiziala.

Ildo horretatik, GAIAk batzar nagusiaren harira argitaratutako informazioaren arabera, 2023an 313 enpresa bazkide zituen klusterrak, aurreko ekitaldiko antzeko kopurua (2022an 315). Lehengaiak, erdieroaleak eta salgaiak eskuratzeko eta langileak kontratatzeko gainkostuek baldintzatu zuten testuingurua, neurri batean.

---

[1] Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuen Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioarekin osatu dugu atal hau. Elkarteko kide diren eta EAEko sektorearen egoera orokorra azaltzen duten enpresei dagokie atal honetako informazioa.

**106. koadroa** **Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn**

| Urtea | Enpresak |
|---|---|
| 2014 | 245 |
| 2015 | 243 |
| 2016 | 254 |
| 2016* | 279 |
| 2017* | 258 |
| 2018* | 254 |
| 2019* | 267 |
| 2020* | 311 |
| 2021* | 300 |
| 2022* | 315 |
| 2023* | 313 |

**): GAIA+AVIC.*
*turria: GAIA. Geuk egina.*

Ekoizpen sektorialari dagokionez, 2023an % 6,6 hazi zen, eta 6.560 milioi eurora iritsi zen. Hala, jarraipena eman zitzaion 2021ean, 2020ko etenaldiaren ondoren, hasitako suspertzeari.

**107. koadroa** **Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Produkzioa M eurotan | % Δ |
|---|---|---|
| 2014 | 2.768,0 | 2,4 |
| 2015 | 2.909,0 | 5,1 |
| 2016 | 3.530,0 | 21,3 |
| 2016* | 4.742,0 | -- |
| 2017* | 4.958,0 | 4,6 |
| 2018* | 5.171,0 | 4,3 |
| 2019* | 5.352,0 | 3,5 |
| 2020* | 5.350,0 | 0,0 |
| 2021* | 5.724,0 | 7,0 |
| 2022* | 6.153,3 | 7,5 |
| 2023* | 6.560,0 | 6,6 |

**): GAIA+AVIC.*
*turria: GAIA. Geuk egina.*

Sektoreko esportazioei dagokienez, euroaren eta dolarraren arteko parekotasunak zuzeneko eragina izan zuen horien gainean, eta lehiakortasun handiagoa ahalbidetu zuen. Hala, esportazioak % 7,1 hazi ziren 2023an, 2.770 milioi eurora arte.



LABORAL kutxa

**108. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn**

| Urtea | Esportazioak (M euro) | % ∆ | Esportazioak/ Ekoizpena |
|---|---|---|---|
| 2014 | 1.084,2 | 0,7 | 39,2 |
| 2015 | 1.117,0 | 3,0 | 38,4 |
| 2016 | 1.179,6 | 5,6 | 33,4 |
| 2016* | 1.966,0 | -- | 41,5 |
| 2017* | 2.045,4 | 4,0 | 41,3 |
| 2018* | 2.164,0 | 5,8 | 41,8 |
| 2019* | 2.350,0 | 8,6 | 43,9 |
| 2020* | 2.223,0 | -5,4 | 41,6 |
| 2021* | 2.373,0 | 6,7 | 41,5 |
| 2022* | 2.586,6 | 9,0 | 42,0 |
| 2023* | 2.770,0 | 7,1 | 42,2 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektoreko enpleguari dagokionez, 2023an % 5,1 hazi zen langile kopurua, eta 24.800 langilera iritsi zen (1.200 kontratazio berri). Hala, ondoz ondoko bederatzigarren urtez hazi zen langile kopurua. Halere, sektoreko enpresek zailtasunak dituzte behar profesionalak asetzeko; bereziki, teknologia bideratzaileekin eta disruptiboekin lotutako espezializazio-profilen kasuan (IoT, Adimen Artifiziala, zibersegurtasuna, kuantika, datuen egiturak…).

**109. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Langileak | % ∆ |
|---|---|---|
| 2014 | 10.564 | -2,2 |
| 2015 | 11.007 | 4,2 |
| 2016 | 11.447 | 4,0 |
| 2016* | 18.517 | -- |
| 2017* | 19.276 | 4,1 |
| 2018* | 20.030 | 3,9 |
| 2019* | 20.528 | 2,5 |
| 2020* | 20.732 | 1,0 |
| 2021* | 22.038 | 6,3 |
| 2022* | 23.600 | 7,1 |
| 2023* | 24.800 | 5,1 |

**): GAIA+AVIC.*
*turria: GAIA. Geuk egina.*

I+G arloan egindako inbertsioari dagokionez, 2023an % 10 hazi zen, 184 milioi eurora arte. Sektoreko enpresek etorkizunarekiko duten konpromisoa erakusten du horrek; izan ere, etorkizunean, eraldaketa digitala izango da garapenaren traktore nagusia.

Azkenik, aipatzekoa da datozen urteetan teknologia digitalak erabiltzeko eskaria asko haztea aurreikusten dela, eta erakundeak "datuaren ekonomia" delakorantz mugituko direla.

## 10. ERAIKUNTZA

2023an, pandemiaren hasieraren hirugarren urteurrenean, bere krisi propioan murgilduta jarraitu zuen eraikuntza-sektoreak. Prezioak oraindik ere askoz altuagoak dira 2019koak baino, eta, horrez gain, sektoreak bere erronka propioak ditu. Ekonomiarentzat gakoa den sektore honen garapena oztopatzen dute erronka horiek. Estatuko BPGari % 5 inguruko ekarpena egiten dio sektoreak.

Hortaz, sektorea guztiz suspertzea galarazten duen lehenengo faktorea materialen prezio altuekin dago lotuta (jaisten ari direla dirudien arren). Prezio horiek maximo historikoetara iritsi ziren aurreko hirurtekoan, eta sektorearen erresilientzia proban jartzen ari dira. 2023an arindu egin zen inflazioaren gorakada, baina, Seopanen[1] arabera, kostuen egituran pisurik handiena zuten material askoren prezioak covidaren aurretik baino askoz ere altuagoak ziren oraindik: altzairu korrugatua, zementua, kobrea eta aluminioa (+% 37, +% 43, +% 41 eta +% 29).

Hain zuzen ere, sektoreko agenteek eskatuta, kontratu publikoetan prezioak berrikusteko ezohiko erregimena arautu zuen Gobernuak 2022an, eskaintzak aurkezten direnetik lana egiten denera arte prezioek dituzten bat-bateko igoerak konpentsatzeko. Hala ere, sektoreko ordezkarien arabera, erregimen haren eragina oso mugatua izan zen. Hori dela eta, 2015era arte zegoen betebeharra leheneratzeko eskatzen dute, obra publikoen kontratuetan prezioak berrikustea derrigorrezkoa izan dadin.

Kontrako bigarren faktorea lan-merkatuko eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka da; faktore hori egiturazkoa da. Sektorea eraldaketa-prozesu betean dago, ikuspegi jasangarriagoarekin eta digitalagoarekin. Baina arazo larria du, ez baitu langile kualifikaturik eskura; gainera, langileak zahartzen ari dira, eta ez dute erreleborik topatzen.

Gainera, testuinguru horretan, azpiegituren gaineko inbertsioak ahulak dira. Seopanek ohartarazi duenez, administrazio publikoek aurrekontu nahikorik ez izateak baldintzatu egiten du eta arriskuan jartzen du 2022-2027 aldiko Plan Hidrologikoa (37.116 milioi euro) gauzatzea eta epeak betetzea. Eta beste esku-hartze batzuetan ere, inbertsio publikoaren maila ez da nahikoa.

2024rako, obra zibilen lizitazio publikoa desazeleratu egingo dela aurreikusten da, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitako lizitazioen programa amaitzen denean. 2021 eta 2023 artean, plan horri zegokion Estatuko obra zibilen lizitazioaren % 13,4.

---

[1] Enpresa eraikitzaileen eta azpiegituren lizitatzaileen elkartea.

Sektoreko jarduerari dagokionez eta 2023ko balantzeak erakusten duenez, sektoreko adierazle nagusiek bilakaera okerragoa izan zuten Euskal Herrian, Estatuan baino. Hala, aztertutako bost adierazleak baxuagoak izan ziren Euskal Herrian, Estatuan baino: biztanleria okupatua, zementuaren ageriko kontsumoa, amaitutako etxebizitzak, hasitako etxebizitzak eta lizitazio ofiziala.

Zehatzago esanda eta Euskal Herriari dagokionez, 2023ko ekitaldian beherakada nabarmenak izan zituzten lizitazio ofizialak (-% 20,2), amaitutako etxebizitzek (-% 42,3) eta hasitako etxebizitzek (-% 33,7). Neurri txikiagoan bada ere, behera egin zuen zementuaren ageriko kontsumoak (-% 4,3), eta enpleguak mantentzea lortu zuen (-% 0,5), ozta-ozta. Emaitza horiek urrundu egin ziren 2022an erregistratutako hobekuntzatik, urte hartan gora egin baitzuten adierazle guztiek.

**110. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | Euskal Herria | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Biztanleria okupatua | 14,1 | -0,5 | 3,0 | 3,2 |
| Zementuaren ageriko kontsumoa (*) | 2,8 | -4,3 | -1,0 | -2,9 |
| Amaitutako etxebizitzak | 2,9 | -42,3 | -5,5 | -0,3 |
| Hasitako etxebizitzak | 12,0 | -33,7 | -3,7 | 0,3 |
| Lizitazio ofiziala | 46,9 | -20,2 | 29,2 | -0,1 |

*(*): Oficemen-eko Ipar Eremuko (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

*Iturria: Guk geuk egina, EIN, Seopan eta Oficemen datuetatik abiatuta.*

Aldiz, Estatuan 2023ko ekitaldia egonkorra izan zen. Hala, enpleguak gora egin zuen (+% 3,2), eta hasitako etxebizitzek, amaitutako etxebizitzek eta lizitazio ofizialak aurreko ekitaldiko balioak errepikatu zituzten, ia (+% 0,3; -% 0,3; eta -% 0,1, hurrenez hurren). Zementuaren kontsumoari dagokionez (ekoizpenaren adierazle aurreratua da), aurreko urteetako kontsumo-patroia errepikatu zen, behera egin baitzuen berriro (-% 2,9).

EAEn, eraikuntza-sektoreko jarduerak bilakaera ona izan zuela erakusten du Eraikuntzako Indize Koiunturalak (ICC). Hala, erreferentziazko lau indizeek gora egin zuten, neurri ezberdinetan bada ere. Zehazki, obra zibilak izan zuen aldakuntzarik onena (+% 8,8), 2022an bezala. Ekoizpena (+% 5,6) eta etxegintza (+% 5,1) izan ziren hurrengoak. Dena den, 2022an baino gutxiago hazi ziren horiek guztiak. Azkenik, okupatutako langileen indizeak osatzen du panoramika. Ekitaldia balio positiboekin amaitu bazuen ere (+% 0,2), aurreko ekitaldian baino hazkunde txikiagoa izan zuen horrek ere (+% 1,1).

**111. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023(*) |
|---|---|---|---|
| Okupatutako langileen indizea | 0,5 | 1,1 | 0,2 |
| Ekoizpen-indizea | 7,8 | 8,3 | 5,6 |
| Etxegintza | 8,4 | 6,5 | 5,1 |
| Obra zibila | 4,3 | 19,9 | 8,8 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK) (2015eko oinarria).*

Lizitazio ofizialaren bilakaerari dagokionez, Estatuan lizitazioaren bolumena 28.160,7 milioi eurokoa izan zen 2023an, 2022an baino % 0,1 txikiagoa; izan ere, 2022an erregistratu zen azken hamarkadako baliorik handiena.

Aldiz, Euskal Herrian alderantzizko bilakaera izan zuen adierazleak, EAEko emaitzaren ondorioz. Izan ere, 2023an EAEn 1.610,7 milioi euro lizitatu ziren (-% 27,5)[1], eta Nafarroan 532,5 milioi euro (+% 15,1); bien artean, 2.143,2 milioi euro lizitatu zituzten (-% 20,2).

Hiru lurralde historikoek izan zuten eragina emaitza horretan. Gainera, lurraldearen pisu erlatiboa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta beherakada handiagoak izan zituzten[2]. Hala, Bizkaiak izan zuen jaitsierarik nabarmenena, eta partaidetzarik handiena (-% 37,1 eta % 34,2). Gipuzkoa izan zen hurrengoa (-% 29,2 eta % 26,9) eta, azkenik, Araba (-% 6,9 eta % 13,3). Aitzitik, Nafarroak ez zion joera nagusiari jarraitu eta haren lizitazio-bolumena % 15,1 hazi zen; hala, Euskal Herriaren gaineko % 25,6ko ordezkaritza izatera iritsi zen.

**112. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa (2022-2023)**

*(M euro)*

| Eremua | 2022 | | | | 2023 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira |
| Araba | 19,0 | 157,8 | 120,4 | 297,2 | 40,7 | 95,8 | 140,0 | 276,6 |
| Bizkaia | 110,5 | 521,0 | 501,8 | 1.133,3 | 62,6 | 278,1 | 372,1 | 712,8 |
| Gipuzkoa | 113,3 | 177,5 | 501,8 | 792,7 | 51,1 | 202,6 | 307,5 | 561,2 |
| EAE* | 242,8 | 856,4 | 1.124,0 | 2.223,2 | 154,4 | 576,6 | 819,7 | 1.550,6 |
| Nafarroa | 73,1 | 260,4 | 129,1 | 462,5 | 295,9 | 94,2 | 142,4 | 532,5 |
| Euskal Herria | 315,9 | 1.116,7 | 1.253,1 | 2.685,7 | 450,3 | 670,8 | 962,1 | 2.083,1 |
| Espainia | 8.037,2 | 9.603,5 | 10.542,0 | 28.182,7 | 10.580,3 | 7.943,3 | 9.637,0 | 28.160,7 |

*(*): 2023an erregionalizatu gabeko 60 milioi euroko partida bat zegoen EAEn. Hori ez dago taulan jasota; hortaz, hori kontuan hartuz gero, zifra 1.610,7 milioi eurokoa izango litzateke.*

*Iturria: Seopan.*

[1] eta [3] EAEko lurraldekako analisirako, Autonomia Erkidegoak esleitu baina lurralde bakar bati ere lotu ezin zaizkion 60 milioi euroak deskontatu ziren 2023an (erregionalizatu gabeak).

Agente inbertitzaile bakoitzaren ekarpen erlatiboari dagokionez, Estatuko hiru administrazioen inbertsioen mapa nahiko orekatua izan zen. Hala, Administrazio Zentralaren ekarpena kokatu zen lehen postuan, guztizkoaren gaineko % 37,6ko partaidetzarekin; gora egin zuen bakarra da (+%31,6). Gertutik jarraitu zion tokiko administrazioak (% 34,2), baina horren ekarpena txikitu egin zen (-% 8,6). Eta, azkenik, administrazio autonomikoari zegokion gainerako % 28,2a; haren balioak nabarmen jaitsi ziren (-% 17,3).

Analisia Euskal Herrira mugatuta, Estatuko patroi bera izan zuen bilakaerak. Administrazio Zentrala izan zen haren ekarpena handitu zuen bakarra (+% 42,5), Araban eta Nafarroan izandako jarduerari esker. Hortaz, Euskal Herrian, tokiko administrazioen eta administrazio autonomikoaren lizitazio-bolumenak handiagoak izan ziren administrazio zentralarenak baino (% 46,2, % 32,2 eta % 21,6, hurrenez hurren); halere, horien bolumena asko jaitsi zen (-% 23,2 eta -% 39,9, hurrenez hurren).

**113. koadroa. Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2023)**

| Eremua | % | | | | % ∆ 23/22 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira |
| Araba | 14,7 | 34,6 | 50,6 | 100,0 | 114,6 | -39,3 | 16,3 | -6,9 |
| Bizkaia | 8,8 | 39,0 | 52,2 | 100,0 | -43,4 | -46,6 | -25,8 | -37,1 |
| Gipuzkoa | 9,1 | 36,1 | 54,8 | 100,0 | -54,9 | 14,1 | -38,7 | -29,2 |
| EAE | 10,0 | 37,2 | 52,9 | 100,0 | -36,4 | -32,7 | -27,1 | -30,3 |
| Nafarroa | 55,6 | 17,7 | 26,7 | 100,0 | 304,9 | -63,8 | 10,3 | 15,1 |
| Euskal Herria | 21,6 | 32,2 | 46,2 | 100,0 | 42,5 | -39,9 | -23,2 | -22,4 |
| Espainia | 37,6 | 28,2 | 34,2 | 100,0 | 31,6 | -17,3 | -8,6 | -0,1 |

*Iturria: Seopan.*

Lurraldeen arabera, datuek erakusten dutenez, lizitazio ofizialak antzeko bilakaera izan zuen Araban eta Nafarroan. Zehatzago esanda, bi lurralde horietan, administrazio zentralaren lizitazio-jardueraren hazkunde handia nabarmendu zen (+% 114,6 eta +% 304,9, Araban eta Nafarroan). Tokiko administrazioen ekarpena gutxiago hazi zen (+% 16,3 eta +% 10,3), eta ekarpen autonomikoaren pisua jaitsi egin zen (-% 39,3 eta -% 63,8). Aitzitik, Gipuzkoan, alderantziz gertatu zen. Administrazio autonomikoaren ekarpena (+% 14,1) bakarrik hazi zen, eta behera egin zuten administrazio zentralaren eta tokiko administrazioaren ekarpenek (-% 54,9 eta -% 38,7). Bestetik, Bizkaian antzeko beherakadak izan zituzten administrazio zentralak eta autonomikoak (-% 43,4 eta -% 46,6). Tokiko administrazioak lizitatutako bolumenak ere behera egin zuen, baina neurri txikiagoan (-% 25,8).

Hala, hiru lurralde historikoen lizitazio-mapa oso antzekoa izan zen, eta tokiko administrazioari zegokion lizitatutako bolumenaren erdia baino zerbait gehiago hiru eremu geografikoetan. Administrazio autonomikoa bigarren lekuan kokatu zen, lizitazio-jardueraren herenarekin, gutxi gorabehera (% 34,6, % 39,0 eta % 36,1 Araban, Bizkaian eta

Gipuzkoan). Eta, azkenik, administrazio zentrala kokatu zen, askoz ere ekarpen txikiagoarekin: % 8,8 (Bizkaia) eta % 14,7 artekoa (Araba). Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, administrazio zentrala (% 55,6) zegoen lizitazio-maparen buruan, eta, ondoren, tokiko administrazioa (% 26,7) eta administrazio autonomikoa (% 17,7).

Obra motaren araberako zuzkidurari dagokionez, Estatuan eta Euskal Herrian obra zibilera bideratzen da lizitazio-jardueraren % 62 inguru. Lurraldeka, Nafarroa nabarmentzen da, zuzkiduraren zatirik handiena (% 77,4) partida horretara bideratu zuelako; ondoren, Bizkaia (% 63,7) eta Gipuzkoa (% 56,4) kokatu ziren. Araban, berriz, etxegintzaren azpisektoreko inbertsioa (% 55,2) handiagoa izan zen obra zibilei zegokiena baino (% 44,8); lurralde horretan bakarrik gertatu zen hori.

2022arekin alderatuta, Estatuan bakarrik hazi zen etxegintzara bideratutako lizitazio-jarduera, eta neurri txikian hazi zen (+% 0,3). Bestetik, obra zibilaren kasuan ere murrizketak nagusitu ziren, Nafarroan izan ezik; bertan, obra zibilaren balioak nabarmen hazi ziren 2023an (+% 144).

**114. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2023)**

| | Etxegintza | | | Obra zibila | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Obra mota | M euro | % ∆ 23/22 | % 2023 | M euro | % ∆ 23/22 | % 2023 |
| Araba | 152,6 | -9,7 | 55,2 | 124,0 | -3,3 | 44,8 |
| Bizkaia | 258,4 | -28,9 | 36,3 | 454,3 | -41,0 | 63,7 |
| Gipuzkoa | 244,8 | -30,1 | 43,6 | 316,4 | -28,5 | 56,4 |
| EAE | 655,9 | -25,7 | 42,3 | 894,7 | -33,3 | 57,7 |
| Nafarroa | 120,1 | -59,1 | 22,6 | 412,4 | 144,0 | 77,4 |
| Euskal Herria | 776,1 | -34,0 | 37,3 | 1.307,1 | -13,4 | 62,7 |
| Espainia | 10.916,2 | 0,3 | 38,8 | 17.244,5 | -0,3 | 61,2 |

*Iturria: Seopan.*

Aztertutako eremu geografiko bakoitzean lizitazio-jarduerak izandako ibilbidea jasotzen dute atxikitako grafikoek, denbora-ikuspegi zabalago batetik. Argi ikusten da lizitazio ofizialak behera egin zuela 2020an, eta 2017an hasitako hazkunde-ibilbidea eten zela. 2022ra arte suspertu egin zen jarduera. 2023an, grafikoa egonkortu egin zen Estatuan, eta behera egin zuen Euskal Herrian.

**20. grafikoa Lizitazio ofiziala**




*Iturria: Seopan*

Analisiarekin jarraituz eta hasitako etxebizitzen bilakaerari dagokionez, Estatuan 110.344 etxebizitzako errolda lortu zen (12.304 babestuak eta 98.040 libreak), % 0,3ko hazkunde txikia izan ondoren. Izan ere, sustapen libreko etxebizitzek bakarrik egin zuten gora (+% 1,1), eta horiek osatzen dute gehiengoa (% 88,8).

Analisia Euskal Herrira ekarrita, 2023an 5.587 hasitako etxebizitza zeuden. Izan ere, behera egin zuten babestuek (-% 12,2) zein libreek (-% 42,9); libreak ziren gehienak (% 60,1).

Lurraldearen araberako azterketan sakonduta, Araban kontrako bilakaerak izan ziren. Hasitako etxebizitza babestuen kopurua % 29,7 hazi zen, eta libreak nabarmen murriztu ziren (-% 67,1). Hala, 2023an hasitako 860 etxebizitza zenbatu ziren guztira, 2022an baino % 34,2 gutxiago; horietatik % 67 babestuak ziren.

Bestetik, Bizkaian behera egin zuen etxebizitza babestuen kopuruak (720; -% 37,1) zein libreenak (1.044; -% 29,6). Hala, hasitako etxebizitzen parkean 1.764 unitate zeuden (-% 32,9), eta horien artean gehiago ziren libreak (% 59,2).

Diagnostiko bera Gipuzkoaren kasuan. 1.420 hasitako etxebizitzarekin amaitu zuen 2023a (-% 24,9), behera egin baitzuten bi kategoriek (-% 17,7 libreek eta -% 35,7 babestuek). Etxebizitza libreen pisua askoz ere handiagoa izan zen (% 65,6).

Azkenik, Nafarroan babes ofizialeko etxebizitzen hazkunde handia nabarmendu zen (+% 131,1). Hasitako etxebizitza libreen bolumenak, berriz, behera egin zuen (-% 54,3). Hala, 2023an hasitako 1.543 etxebizitza zeuden guztira, eta horietatik % 71,1 libreak ziren.

**115. koadroa  Hasitako eta amaitutako etxebizitzak***

*(etxebizitza kopurua)*

| Eremua | Kontzeptua | Hasitako etxebizitzak | | | Amaitutako etxebizitzak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| Araba | Babestuak | 304 | 444 | 576 | 122 | 240 | 200 |
| | Libreak | 485 | 862 | 284 | 306 | 645 | 190 |
| Bizkaia | Babestuak | 868 | 1.145 | 720 | 783 | 804 | 398 |
| | Libreak | 1.320 | 1.484 | 1.044 | 1.735 | 1.376 | 844 |
| Gipuzkoa | Babestuak | 402 | 759 | 488 | 212 | 521 | 324 |
| | Libreak | 1.260 | 1.133 | 932 | 1.302 | 1.541 | 724 |
| EAE | Babestuak | 1.574 | 2.348 | 1.784 | 1.117 | 1.565 | 922 |
| | Libreak | 3.065 | 3.479 | 2.260 | 3.343 | 3.562 | 1.758 |
| Nafarroa | Babestuak | 541 | 193 | 446 | 360 | 243 | 187 |
| | Libreak | 2.340 | 2.401 | 1.097 | 2.160 | 1.810 | 1.277 |
| Euskal Herria | Babestuak | 2.115 | 2.541 | 2.230 | 1.477 | 1.808 | 1.109 |
| | Libreak | 5.405 | 5.880 | 3.357 | 5.503 | 5.372 | 3.035 |
| Espainia | Babestuak | 13.789 | 13.022 | 12.304 | 10.637 | 9.610 | 8.847 |
| | Libreak | 100.504 | 96.996 | 98.040 | 84.091 | 79.935 | 80.473 |

*(*): 2024ko uztaileko behin-behineko datuak.*

*Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.*

Amaitutako etxebizitzen bilakaerari dagokionez, Estatuan 89.320 etxebizitza zenbatu ziren 2023an (-% 0,3). Libreek bakarrik egin zuten gora (+% 0,7; babestuek -% 7,9), eta mota horretakoak ziren amaitutako 10 etxebizitzatik 9.

Euskal Herrian amaitutako 4.144 etxebizitza zeuden (-% 42,3), eta jardueraren zatirik handiena segmentu libreari zegokion (% 73,2). Bi kategorien kasuan, nabarmen jaitsi ziren balioak 2022arekiko (-% 43,5 libreen kasuan, eta -% 38,7 babestuen kasuan).



LABORAL kutxa

Hala, lurralde bakoitzeko jarduera aztertuta, eta Arabarekin hasita, amaitutako etxebizitzen parkearen osaera orekatuagoa zen (% 51,3 babestuak eta % 48,7 libreak). 390 amaitutako etxebizitza zenbatu ziren, bi kategoriek behera egin ondoren; hori bai, neurri ezberdinetako jaitsierak izan zituzten (-% 16,7 eta -% 70,5, hurrenez hurren).

Bizkaian 1.242 amaitutako etxebizitza zenbatu ziren, eta Gipuzkoan 1.048. Bi horien kasuan, etxebizitzen parkearen banaketa antzekoa zen, eta pisu espezifiko askoz handiagoa zuten babestuek, ia % 70ekoa bi lurraldeetan. Bilakaerari dagokionez, murrizketak izan ziren kasu guztietan. Bizkaian, jaitsiera handiagoa izan zuten etxebizitza babestuek (-% 50,5; eta libreek -% 38,7). Aldiz, Gipuzkoan bilakaera okerragoa izan zuten sustapen librekoek (-% 53,0 libreek eta -% 37,8 babestuek).

Nafarroan, non sustapen libreko etxebizitzak nagusitzen diren (% 87,2), etxebizitza libreen zein babestuen balioek egin zuten behera aurreko ekitaldiarekiko (-% 29,4 eta -% 23,0). Hala, amaitutako etxebizitzen parkea 1.464 unitatekoa zen.

**21. grafikoa** **Amaitutako etxebizitza kopurua**




*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamendua. Nafarroako Gobernua. EIN.*

**116. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn***

| Urtea | Birgaitutako etxebizitza kopurua | Birgaitutako lokal kopurua | Emandako diru-laguntzak (eurotan) |
|---|---|---|---|
| 2022 | 33.626 | 6.653 | 29.096.726 |
| 2023 | 22.161 | 4.823 | 33.889.693 |
| ∆ %23/22 | -34,1 | -27,5 | 16,5 |

*(*): Dirulaguntza jaso duten etxebizitzen eta birgaitutako lokalen kopurua. Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Halaber, etxebizitza babestuen birgaitze-jarduera ere moteldu egin zen, eta behera egin zuten birgaitutako etxebizitzen kopuruak (-% 34,1; 22.161 unitate) zein birgaitutako lokalen kopuruak (-% 27,5; 4.823 birgaitze). Antzeko urte arteko balantzea izan zuten biek. Aldiz, birgaitzearekin lotuta emandako dirulaguntzen adierazleak bakarrik egin zuen gora: 33.889.693 euro, 2022an baino % 16,5 gehiago. Ondorioz, emandako dirulaguntzen batez besteko zenbatekoa 1.255,9 eurokoa izan zen 2023an.

**117. koadroa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria**

*(m pertsona)*

| Eremua | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 4,7 | 5,6 | 8,3 | 48,2 |
| Bizkaia | 29,0 | 37,0 | 29,0 | -21,6 |
| Gipuzkoa | 10,9 | 14,8 | 16,8 | 13,5 |
| EAE | 44,6 | 57,4 | 54,1 | -5,7 |
| Nafarroa | 18,4 | 18,6 | 15,7 | -15,6 |
| Euskal Herria | 63,0 | 76,0 | 69,8 | -8,2 |
| Espainia | 1.315,2 | 1.355,0 | 1.398,0 | 3,2 |

*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2020ko oinarria).*

EINek argitaratutako datuak aintzat hartuta, eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EPA) informazioaren arabera, eremu geografiko bakoitzean bilakaera ezberdina izan zuen enpleguak.

Estatuan % 3,2 hazi zen biztanleria okupatua, eta balio positiboekin itxi zen ekitaldia. Gipuzkoan (+% 13,5) eta Araban (+% 48,2) ere gora egin zuen; azken lurralde horretan, erritmo askoz ere handiagoan. Aitzitik, Nafarroan (-% 15,6) eta, batez ere, Bizkaian (-% 21,6), eraikuntza-sektoreko biztanleria okupatua nabarmen murriztu zen eta bilakaera negatiboa izan zuen.

**22. grafikoa** **Eraikuntzan lanean ari den biztanleria**




*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2020ko oinarria).*

**118. koadroa Eraikuntzako lehengaien prezioen bilakaera**

| | 1. taldea | 2. taldea | 3. taldea | 4. taldea | 5. taldea |
|---|---|---|---|---|---|
| Urteko indizeak | | | | | |
| 2022 | 120,0 | 117,8 | 108,2 | 108,5 | 110,6 |
| 2023 | 132,0 | 122,0 | 113,2 | 112,0 | 114,8 |
| *% Δ, urtetik urterakoa* | 10,0 | 3,6 | 4,6 | 3,2 | 3,8 |

*1. taldea: agregatuak, zementua, karea, hormigoia, morteroa, zeramika, aurrefabrikatuak, igeltsua eta igeltsutik eratorritakoak*

*2. taldea: altzairua, egurra, sintetikoak, asfaltikoak, kautxua, beira laua, beira barnehutsa, egur-arotzeria, metal-arotzeria, burdineria*

*3. taldea: balbulak eta txorrotak, erradiadoreak eta galdarak, klimatizazioa eta aireztapena, etxetresna elektrikoak, elektrikoak ez diren etxetresnak, gailu eta osagarri elektrikoak, kable elektrikoak*

*4. taldea: beira-zuntza, zuntz optikoa, argiztapenerako gailuak, su-itzalgailu eta maukak, detektagailu eta alarmak, igogailuak, atezainak eta antenak, megafonia, elektronika, lehergailuak*

*5. taldea: pinturak, berniz eta masillak, lauza zeramikoak, harri apaingarria, sukaldeko eta bainugelako altzariak, kobrezko hodiak, plastikozko hodiak, zuntz-zementuzko hodiak, zeramikazko komun-ontziak*

*Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2021eko urtarrila).*

Analisiarekin jarraituz, eraikuntza-sektoreko lehengaien prezioek eta kostuek izandako bilakaera ikus daiteke atxikitako informazioan, inflazioak sektoreko jardueran izandako inpaktuaren emaitza gisa.

Eraikuntzako lehengaien eta materialen prezioen bilakaera erakusten du lehenengo koadroak. Horien bilakaera erabakigarria izan zen sektoreko jardueran, garrantzi handia baitute kostuen egituran[1].

[1] SEOPANen eta beste erakunde batzuen arabera, eraikuntza-sektorearen kostuen batez besteko egituraren % 67 bitarteko kontsumoei dagokie eta % 33 eskulanari.

**119. koadroa** **Eraikuntzako lehengaien-materialen prezioen urte arteko hazkundea (2023/2022), taldearen arabera**

*Δ %*

| 1. taldea | | 2. taldea | | 3. taldea | |
|---|---|---|---|---|---|
| Agregatuak | 8,4 | Altzairua | -15,5 | Balbulak eta txorrotak | 3,0 |
| Zementua | 20,7 | Egurra | 4,5 | Erradiadoreak eta galdarak | 9,1 |
| Karea | 4,3 | Sintetikoak | -4,2 | Klimatizazioa eta aireztapena | 3,9 |
| Hormigoia | 14,9 | Asfaltikoak | 12,4 | Etxetresna elektrikoak | 0,2 |
| Morteroa | 13,2 | Kautxua | 2,3 | Etxetresna ez-elektrikoak | 8,0 |
| Zeramika | 5,2 | Beira zapala | 0,4 | Gailu eta osagarri elektrikoak | 6,2 |
| Aurrefabrikatuak | 7,1 | Beira barnehutsa | 23,2 | Kable elektrikoak | 1,7 |
| Igeltsua | 4,3 | Egur-arotzeria | 4,5 | | |
| Igeltsutik eratorritakoak | 14,9 | Metal-arotzeria | 4,9 | | |
| | | Burdineria | 5,8 | | |

| 4. taldea | | 5. taldea | |
|---|---|---|---|
| Beira-zuntza | 12,4 | Pinturak, bernizak eta masillak | 1,4 |
| Zuntz optikoa | 1,7 | Lauza zeramikoak | 5,2 |
| Argiztapenerako gailuak | 5,5 | Harri apaingarria | 7,1 |
| Su-itzalgailuak-mahukak | 2,9 | Sukaldeko eta bainugelako altzariak | 3,5 |
| Detektagailuak eta alarmak | 0,3 | Kobrezko hodiak | -5,1 |
| Atezainak, antenak eta megafonia | 0,9 | Plastikozko hodiak | -4,2 |
| Igogailuak | 4,2 | Zuntz-zementuzko hodiak | 7,1 |
| Elektronika | 1,4 | Zeramikazko komun-ontziak | 16,3 |
| Lehergailuak | 0,0 | | |

*Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2021eko urtarrila).*

Hala, EINek jasotako datuen arabera, 2022 eta 2023 artean ia material eta lehengai guztien prezioak igo ziren. Aztertutako 43 materialetatik 4ren prezioek baino ez zuten izan urte arteko bilakaera negatiboa: altzairua (-% 15,5), sintetikoak (-% 4,2), kobrezko hodiak (-% 5,1) eta plastikozko hodiak (-% 4,2).

Aitzitik, hauek izan zituzten hazkunderik handienak: zementua (+% 20,7), beira barnehutsa (+% 23,2), zeramikazko komun-ontziak (+% 16,3), hormigoia (+% 14,9), igeltsutik eratorritakoak (+% 14,9), morteroa (+% 13,2), asfaltikoak (+% 12,4) eta beira-zuntza (+% 12,4).



LABORAL kutxa

**120. koadroa    Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera (EAE)**

| | Indizea | | | % ∆ | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021eko abe. | 2022ko abe. | 2023ko abe. | 2021eko abe. / 2020ko abe. | 2022ko abe. / 2021eko abe. | 2023ko abe. / 2022ko abe. |
| Kostuak, guztira | 109 | 119,9 | 126 | 2,7 | 10,0 | 5,1 |
| – Etxegintzako kostuak | 109,1 | 119,3 | 125,4 | 2,7 | 9,3 | 5,1 |
| – Obra zibileko kostuak | 108,8 | 122,7 | 128,7 | 3,0 | 12,8 | 4,9 |
| Lehengaien prezioa guztira | 108,7 | 120,9 | 128,2 | 3,1 | 11,2 | 6,0 |
| – Eraikuntzako lehengaien prezioa | 108,7 | 120,1 | 127,4 | 2,9 | 10,5 | 6,1 |
| – Obra zibileko lehengaien prezioa | 108,3 | 124,5 | 131,6 | 3,3 | 15,0 | 5,7 |
| Esku-lanaren kostua | 110,2 | 116,7 | 119,1 | 1,8 | 5,9 | 2,1 |

*Iturria: EUSTAT, Eraikuntzako kostuen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).*

Eraikuntzako kostuekin lotuta, adierazle guztiek gora egin zuten berriz ere. Hala, hainbat ekitalditako igoerak metatu zituzten, eta 2019ko balioetatik oso urrun kokatu ziren (% 20-30 gorago). Dena den, 2024an materialen prezioetan inflazioaren ondorioek iraungo dutela aurreikusten bada ere, Kontsentsu Ekonomiko Nazionalaren aurreikuspenen arabera, % 3koa izango da, batez beste.

Nolanahi ere, 2019ko maila berreskuratzeko prozesuan atzerapen handiena duen sektorea izaten jarraitzen du eraikuntza-sektoreak. Izan ere, 2020-2021 biurtekoan hainbat aurkako faktoreren ondorioak jasan zituen sektoreak, eta beste faktore batzuk gehitzen joan dira. Pandemian zehar geratu egin zen jarduera, eta horri beste oztopo batzuk gehitu zitzaizkion: garraio-sektorearen greba, Ukrainako gerrak energiaren eta metalen prezioan izandako inpaktua, eta sektorearen berezko beste faktore batzuk. Gainera, aintzat hartu behar da obra zibilaren arloko inbertsioa ahuldu egin dela, eta etxebizitzen eraikuntzak desiratutako mailatik urrun jarraitzen duela.

# 11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

## 11.1 SARRERA

Kapitulu honetan Euskal Herriko industria-sektoreak aztertuko ditugu, analisi finantzariorako erabili ohi diren bi tresnaren bidez: ratio bidezko analisia eta funtsen iturrien eta erabileren egoera. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa –balantzeak eta emaitzen kontuak– bildu dugu.

Sarreraz gain, kapitulu honek hiru atal nagusi ditu.  Lehenengo atala metodologikoa da. Oinarri gisa erabilitako informazioa zehazten du, eta analisirako bi tresnak aplikatzeko erabilitako irizpideak azaltzen ditu. Bigarren atalean, ratioen piramidearen aplikazioa azaltzen da, eta, hirugarrenean, funtsen iturrien eta erabileren egoera. Hala, Euskal Herriko industria-sektoreen azterketa ekonomiko-finantzarioa egingo dugu; sektoreen arteko alderaketa egingo dugu, baita Estatuko egoerarekiko alderaketa ere. Horretarako, piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartuko ditugu kontuan. Dena den, sektore bakoitzaren ratioen piramideak eta funtsen iturrien eta erabileren egoerak ere gehituko ditugu, bai Euskal Herrikoak, bai Estatu osokoak.

## 11.2 METODOLOGIA

**Datu-bankua**

Piramidea egiteko, kontabilitate-egoerari buruzko oinarrizko datuak behar dira: aztertu beharreko sektore bakoitzaren balantzeak eta emaitzen kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak galdetegi bidez jasotako informazioa hartu dugu oinarritzat, tratatu beharreko informazioa homogeneoa izan zedin. Galdetegi horiek enpresa kolaboratzaileek erantzun dituzte, bai Euskal Herrikoek (eskaera zehatza egin zaie egoitza soziala EAEn edo Nafarroan duten enpresei), bai Estatu osokoek (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak egindako urteroko txostenetako informazioa erabili dugu).

Kontuan izan behar da Balantzeen Zentralaren azken informazio-basea t-2 urtekoa dela (gainera, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa izaten du). Ondorioz, oinarritzat hartu dugun informazioak urtebeteko atzerapena du txosten honi dagokion urtearekiko. Zehazki, txosten hau egiteko erabilgarri dagoen azken basea 2022koa da, eta 2021ari eta 2022ari dagokien informazioa eskaintzen du.



LABORAL kutxa

Industria-jardueraren sektorekako banaketari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berria erabili dugu industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu dute. Sailkapen horrek honako sektore hauek bereizten ditu (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

Euskal Herriari dagokionez, 2022ko datu-basean aipatutako 19 sektore horietatik 13 sektoreren inguruko informazioa dago eskuragarri. Honako sektoreen inguruko informazioa ez dago eskuragarri: zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik; arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; koke-fabrikak eta petrolio-finketa; farmazia-produktuen fabrikazioa; produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa eta bestelako garraio-materialen fabrikazioa. Sektore horietan 5 enpresa kolaboratzaile baino gutxiago daudenez, datuak ez daude eskuragarri estatistika-sekretua dela-eta. 2021. urtean 13 sektoreri buruzko informazioa zegoen eskuragarri (ez zegoen honakoen gaineko daturik: Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; Zura eta kortxoa; Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; Koke-fabrikak eta petrolio-finketa; Farmazia-produktuen fabrikazioa; eta Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa). Hala, dagokion urtean eskuragarri dauden sektoreak batuta kalkulatzen da industria-sektore osoaren guztizkoa (bai Euskal Herrian, bai Estatuan).

Azkenik, kontuan izan behar da enpresek beren borondatez ematen dituztela sektore bakoitzaren azterketa egiteko erabiltzen diren datuak. Hori dela eta, ezerk ez du bermatzen datu-baseak denboran zehar irautea, ezta egindako azterketak sektorean inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa duenik ere.

### Ratioen piramidea[1]

*Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitzen kontua*

Piramidea egiteko abiapuntuko informazio gisa, oinarrizko kontabilitate-egoerak erabili ditugu: emaitzen kontua eta balantzea. Informazio hori oso modu sinplean azaldu dugu. Izan ere, aztertutako sektoreen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Azterketa sakonagoa egin ahal izateko eta ondorio sakonagoa ateratzeko, gehiago xehatutako informazioa behar da, eta edukietan aberatsagoa.

Emaitzen kontuari dagokionez, honako taula honetan ageri den egitura erabiliko dugu:

| | | |
|---|---|---|
| + | Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak | V |
| - | Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin | CV |
| - | Kostu finko operatiboak, ordainketarekin | CF |
| - | Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak) | AM |
| - | Interesak | I |
| ± | Ezohiko emaitzak | RE |
| - | Sozietateen gaineko zerga | IS |
| = | Mozkin garbia | BN |

Balantzearen pasiboari dagokionez, kostu esplizitua duten kanpoko funtsak eta ondare garbia bereiziko ditugu (2007 KPO kontabilitate-plan berriaren arabera). Aktiboari dagokionez, berriz, aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo zirkulatzaile garbia (aktibo korronte garbia) hartuko ditugu kontuan. Aktibo zirkulatzaile garbia kalkulatzeko, aktibo zirkulatzaileari kentzen zaizkio berezko pasiboak (negozioaren jardunak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua ordainketa bizkorragatiko deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia:

<table>
<tr><td rowspan="2">AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA</td><td>EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN</td></tr>
<tr><td>EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK</td></tr>
<tr><td>AKTIBO FINKOA</td><td>ONDARE GARBIA</td></tr>
</table>

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): “Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios”, *Boletín de Estudios Económicos*, 167. zenbakia, 1999ko abuztua; 329-359 orrialdeak.



LABORAL kutxa

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

*Leverage operatiboa*

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euro bakoitzeko marjina gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarri batzuk behar dira:

MB = Marjina gordina. Ohiko diru-sarreren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak uzten duen marjina adierazten du, kostu aldakorrak soilik ordaindu ondoren:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAII = Interesen eta zergen aurreko mozkina. Ohiko diru-sarreren eta kostu operatiboen (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAII = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAII = 0 egiten duen salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla pentsatuz gero (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAII = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko ginateke:

$$BAII = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAII = MBP\,(V + VPM)$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finkoak konstante mantenduz), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

*Leverage finantzarioa*

Funts Propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa neurtzen du. Formulazio matematikoa lortzeko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

t = Zerga-tasa

BAIdI = Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAIdI = BAII\,(1\text{-}t) = (V\text{-}CV\text{-}CF\text{-}AM)\,(1\text{-}t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez dagoela aintzat hartuta[1], BAIdI-i zergen interes garbiak kenduz lortzen da mozkin garbia:

$$BN = BAIdI - I\,(1\text{-}t)$$

Jarraian, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

r = Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, berau nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboaren zenbatekoa bat datorrela aktibo zirkulatzaile garbiaren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

i = Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagozkion interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezkia kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA}$$ [2]

e = Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:

[1] Aurrerago jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.

[2] FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPen batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogoratu FACPk kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia, eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.

$$e = r + (r - i)\frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i)\frac{FA}{PN}$$

e = Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo taulan, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarrizko piramidea ikus daiteke.




Goi-erpinean, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna ageri da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereizten ditu piramideak. Azken batean, “r” ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua edo finantza-egitura kontuan hartu gabe. Eskuineko adarrak,

berriz, leverage finantzarioaren bidez finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari egiten dion ekarpena kalkulatzen du.

Beste kontu bat ere aipatu beharra dago: piramidearen analisian ezohiko emaitzak nola tratatuko ditugun. Normalean, emaitza horiek errepikatzen diren ala ez aztertzen da enpresetan aplikatutako analisian. Emaitzak errepikakorrak eta, beraz, aurreikusteko modukoak badira, piramidearen "r" mailan txerta daitezke, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatuta edo bi kalkulatuta: ohiko errendimendua eta ezohiko errendimendua.

Dena den, emaitzak errepikakorrak diren ala ez zehazteko ezintasunaren aurrean, sektorekako azterketa egiteko garaian, atal honen amaieran jasotako irudian agertzen den soluzioa erabiliko dugu sektore bakoitzerako. Hau da, "e" mailan txertatuko ditugu, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereiziko ditugu: ohikoa –e1–, berezko ezohikoa –e2– eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa –e3–. Arrazoi sendo bat dugu azken adar hori erabiltzeko: zerga sektorialen (T) zifren agregatuak e1 ratioa distortsiona dezake. Sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen du e1 ratioak. Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komuna ezarri diegu sektore guztiei, eta tasa horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako ratioen piramideak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2021. eta 2022. urteei dagozkienak. Dena den, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, piramideko ratiorik garrantzitsuenak baino ez ditugu aukeratu hurrengo atalean azalduko dugun ekonomia- eta finantza-azterketa sektoriala egiteko.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien azterketa xehea egin dugu, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta haren osagaiak: BAIdI/V eta V/(AF+ACN)) eta leverage finantzarioarena ((r-i) x (FA/PN)) eta haren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Euskal Herriko eta Estatuko industria-sektoreen arteko alderaketa egiteko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta horren osagaiak hartu ditugu kontuan: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).


e
e3
+
e1
+
e2
T(t=0,285)-T(t efektiboa)
÷
PN
REdI
÷
PN
RE
x
(1-t)
r
+
(r – i) FA/PN
BAIdI/V
x
V/(AF + ACN)
(r-i)
x
FA/PN
BAIdI
÷
V
÷
AF+ACN
r
-
i
FA
÷
PN
(I-t)
x
BAII
I(I-t)
÷
FA
V-VPM
x
MBP
I
x
(1-t)
V
-
VPM
CF+AM
÷
MBP
MB
÷
V
V
-
CV

### Funtsen iturrien eta erabileren egoera[1]

Analisirako bigarren tresna alderdi finantzarioan oinarritzen da. Hau da, funtsen kutxa edo fluxuak hartzen ditu kontuan, ratioen piramideak ez bezala. Ratioen piramideak mozkinean oinarritutako azterketa ekonomikoa egiten du. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra ageri da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

– TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin bat datorrena –haren premiei erantzun ondoren, eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe–. "Free cash-flow" izen anglosaxoiaz ezagunagoa da. Erraz kalkulatzen da: ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatzaile garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.

– TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.

– TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen baditu (TINV>0), kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako da. Aktiboak bere kabuz bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokien diru kopurua jarri beharko dute. Laburtuz, balioa zero izateak finantza-egoera orekatua dela esan nahi du, baina inola ere ez du esan nahi sektorea osasuntsu dagoenik.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko garaian, kontuan hartu behar da ratioen piramidean zerga agregatuen zifrak nola tratatu diren. Hala, % 28,5eko tasa orokorra ezarriko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi horretan izandako funtsen ezohiko sorkuntzara (GFE) eramango ditugu. Aipatzekoa da, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatzen dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batera egiteko.

---

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): "El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero", *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zk., iraila-urria, 2002, 18-28 or.



LABORAL kutxa

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | $+ V_t$ | Ohiko salmentak |
| | | $- C_t$ | Kostu operatiboak, ordainketarekin |
| | | $- AM_t$ | Amortizazioa |
| | | $= BAII_t$ | Interesen eta zergen aurreko mozkina |
| | | * (1-t) | Zerga-eragina (t = zerga-tasa = 0,285) |
| | | $= BAIdI_t$ | Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina |
| | | $+ AM_t$ | Amortizazioa |
| | | $- IF_t$ | Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenen + ibilget. lanen dirulaguntzak) |
| | $+ GFO_t$ | | Funts operatiboak sortzea |
| | | $+ RE_t$ | Ezohiko emaitzak |
| | | * (1-t) | Zerga-eragina (t = 0,285) |
| | | $= REdI_t$ | Ezohiko emaitzak, zergen ondoren |
| | | $+EF_t$ | Zerga-ondorioa: (0,285 – t efektiboa) * Zergen aurreko mozkina |
| | $+ GFE_t$ | | Ezohiko funtsak sortzea |
| | | $+ ACN_{t-1}$ | Hasierako aktibo zirkulatzaile garbia |
| | | $- ACN_t$ | Amaierako aktibo zirkulatzaile garbia |
| | $- \Delta ACN_t$ | | Aktibo zirkulatzaile garbia areagotzea |
| | $- INV_t$ | | Aktibo finkoan inbertitzea (∆ AF garbia +AM - Ibilget. lanak) |
| $+ TINV_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, inbertsio-erabakiak |
| | $+ EFA_t - AFA_t$ | | Jaulkipena den kanpoko funtsen amortizazioa, kostuarekin |
| | | $+ I_t$ | Kanpoko funtsen interesak |
| | | * (1-t) | Zerga-eragina (t = 0,285) |
| | $- (1-t) * I_t$ | | Funtsak kentzea, interesengatik |
| $+ TFA_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak kanpoko funtsekin |
| $+ TPN_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak ondare garbiarekin (∆ PN –BN + ustiap. dirulaguntzak) |
| = 0 | | | = 0 |

Bestalde, aurrez aipatu dugun moduan, sektore baten inguruko informazioa ematen duen enpresen laginak ez du zertan denboran zehar berbera izan behar. Hortaz, urte ezberdinetarako multzo homogeneo bat eratze aldera, sektore bakoitzeko funtsen iturrien era erabileren batez besteko egoera azalduko dugu. Batezbestekoa kalkulatzeko, kontzeptu bakoitzaren eta lagina osatzen duten enpresa kopuruaren arteko zatiketa egin dugu

Kasu honetan ere, kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako funtsen iturrien era erabileren egoerak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2021. eta 2022. urteei dagozkienak. Dena den, funtsen iturrien eta erabileren egoeraren analisi sektorialari eskainitako azken atalean, eraginkortasun-arrazoiengatik, baliorik esanguratsuenak baino ez ditugu kontuan hartu: TINV, TFA eta TPN.

**121. koadroa Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua**

| SEKTOREA | EAE 2022 | Estatua 2022 |
|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaiak | 43 | 530 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | 5 | 173 |
| Papera | 5 | 72 |
| Kimika | 18 | 189 |
| Kautxua eta plastikoa | 10 | 144 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 7 | 107 |
| Metalurgia | 24 | 81 |
| Produktu metalikoak | 55 | 341 |
| Material eta ekipo elektrikoa | 11 | 61 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 46 | 207 |
| Ibilgailu motordunak | 19 | 113 |
| Altzarien fabrikazioa | 6 | 123 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 5 | 87 |
| **Industria, guztira** | **254** | **2.228** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

## 11.3 RATIOEN PIRAMIDEA

2022ko ekitaldiaren gainean eskuragarri dauden azken datuen arabera, eta ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, Euskal Herriko industria-sektoreen artean dauden alde hauek nabarmentzen dira:

- 2022an honako sektore hauek izan zuten ondare garbiaren errentagarritasunik handiena: Metalurgia (% 24,2), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 19,2), Papergintza (% 11,6) eta Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 11,3).
- Sektore hauetako ondare garbiaren errentagarritasuna ere industriako batezbestekoa (% 4,6) baino altuagoa izan zen, baina ez aurrekoena bezain altua: Kimika (% 9,3), Kautxua eta plastikoa (% 8,2), Produktu metalikoak (% 7,5) eta Ibilgailu motordunak (% 7,4).
- Gainerako sektoreen ondare garbiaren errentagarritasuna batezbestekoa baino baxuagoa izan zen honako sektore hauetan: Nekazaritzako elikagaiak (% 1,0), Beste makineria eta ekipo batzuk (-% 3,7), Altzarien fabrikazioa (-% 7,0), Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-% 18,4) eta, bereziki nabarmentzen dena, Material eta ekipo elektrikoa (-% 46,4).

Bestalde, ondare garbiaren errentagarritasun horren analisia eginez gero, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) bereizita, 2022ko ekitaldiko honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Esperotako moduan, ondare garbiaren errentagarritasuna, batez ere, ohiko errentagarritasunean (e1) oinarritzen da. Ezohikoek (e2 eta e3), berriz, osagarri gisa jokatzen dute.
- Batetik, nabarmentzekoa da honako sektoreek ondare garbiaren ohiko errentagarritasun (e1) maila positiboa eskuratu zutela: Metalurgia (% 19,1), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 18,0), Papera (% 12,2), Nekazaritzako elikagaiak (% 10,2) eta Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 10,1); sektore horiek industriaren batezbestekotik (% 7,2) gora geratu ziren, modu argian. Bestetik, sektore hauek maila negatiboa eskuratu zuen, industriaren batezbestekotik oso urrun: Material eta ekipo elektrikoa (-% 7,6), Altzarien fabrikazioa (-% 3,4) eta Beste makineria eta ekipo batzuk (-% 2,1).
- Ondare garbiaren ezohiko errentagarritasunari (e2) dagokionez, sektore hauek eskuratutako errentagarritasun maila baxua nabarmentzen da: Material eta ekipo elektrikoa (-% 20,4), Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-% 19,3) eta Nekazaritzako elikagaiak (-% 7,9); sektore horiek industriaren batezbestekotik (-% 2,6) behera geratu ziren. Kontrako aldean kokatu ziren Metalurgia (% 0,7), Altzarien fabrikazioa (% 0,2), Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 0,1) eta Kimika (% 0,1). Izan ere, sektore guztien artetik, horiek bakarrik izan zituzten errentagarritasun positiboak.
- Azkenik, nabarmentzekoa da sektoreen erdiek zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasuna (e3) lortu zutela, eta, kasu hauetan, batezbestekoa (% 0,0) baino altuagoa: Metalurgia (% 4,4), Kautxua eta plastikoa (% 2,7), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 2,0), Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 1,2), Kimika (% 0,9) eta Ibilgailu motordunak (% 0,7).

**122. koadroa** **Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | e (%) | | e1 (%) | | e2 (%) | | e3 (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Nekazaritzako elikagaiak | -3,9 | 1,0 | 3,0 | 10,2 | -5,3 | -7,9 | -1,5 | -1,3 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | -- | 11,3 | -- | 10,1 | -- | 0,1 | -- | 1,2 |
| Papera | 6,0 | 11,6 | 2,6 | 12,2 | 0,0 | -0,2 | 3,4 | -0,4 |
| Kimika | 10,1 | 9,3 | 9,2 | 8,3 | -0,2 | 0,1 | 1,1 | 0,9 |
| Kautxua eta plastikoa | 4,8 | 8,2 | 5,2 | 6,8 | -1,1 | -1,3 | 0,7 | 2,7 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 0,5 | -18,4 | 5,7 | 5,1 | -6,2 | -19,3 | 0,9 | -4,1 |
| Metalurgia | 17,9 | 24,2 | 11,0 | 19,1 | 4,8 | 0,7 | 2,1 | 4,4 |
| Produktu metalikoak | 8,1 | 7,5 | 7,9 | 7,7 | -0,3 | -0,1 | 0,5 | -0,1 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -16,1 | -46,4 | -5,1 | -7,6 | -6,1 | -20,4 | -4,9 | -18,4 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 5,9 | -3,7 | 3,1 | -2,1 | -0,4 | -0,2 | 3,3 | -1,4 |
| Ibilgailu motordunak | 6,8 | 7,4 | 6,8 | 6,9 | -0,3 | -0,1 | 0,3 | 0,7 |
| Altzarien fabrikazioa | 17,6 | -7,0 | 16,7 | -3,4 | -3,6 | 0,2 | 4,5 | -3,8 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 15,1 | 19,2 | 17,3 | 18,0 | -3,5 | -0,8 | 1,4 | 2,0 |
| **Industria, guztira** | **4,5** | **4,6** | **5,4** | **7,2** | **-1,8** | **-2,6** | **0,8** | **0,0** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren (ohikoa –e1– zein ezohikoa –e2 eta e3–), ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) osagaien analisi zehatzagoa egingo dugu: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).

**123. koadroa** **Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | r (%) | | BAIdI / V (%) | | V / (AF + ACN) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Nekazaritzako elikagaiak | 2,2 | 4,2 | 1,6 | 3,0 | 1,339 | 1,396 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | -- | 7,9 | -- | 4,2 | -- | 1,860 |
| Papera | 1,9 | 8,0 | 1,6 | 4,0 | 1,218 | 2,020 |
| Kimika | 8,0 | 7,6 | 5,4 | 6,0 | 1,497 | 1,265 |
| Kautxua eta plastikoa | 3,1 | 3,5 | 1,9 | 2,2 | 1,625 | 1,580 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 3,9 | 2,9 | 7,8 | 4,7 | 0,498 | 0,625 |
| Metalurgia | 6,8 | 11,8 | 3,7 | 4,8 | 1,862 | 2,482 |
| Produktu metalikoak | 5,8 | 5,5 | 5,5 | 4,0 | 1,061 | 1,371 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -0,3 | -0,4 | -0,6 | -0,5 | 0,544 | 0,871 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 3,2 | 0,3 | 2,5 | 0,3 | 1,258 | 1,289 |
| Ibilgailu motordunak | 5,3 | 5,6 | 2,2 | 1,9 | 2,373 | 2,891 |
| Altzarien fabrikazioa | 12,5 | -0,7 | 8,0 | -0,5 | 1,568 | 1,374 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 10,7 | 13,6 | 4,1 | 5,9 | 2,615 | 2,300 |
| **Industria, guztira** | **3,5** | **4,6** | **3,0** | **2,8** | **1,176** | **1,673** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, Euskal Herrian 2022 aztertutako industria-sektoreei buruzko alderdi hauek aipatu behar dira:

- Orokorrean, funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia aktibo garbiaren errentagarritasuna izan zen oraindik ere 2022an. Izan ere, leverage finantzarioaren garrantzia txikiagoa da (aurrerago sakonago aztertuko dugu hori).
- Sektore hauek eskuratu zuten aktibo garbiaren errentagarritasun handiena 2022an: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 13,6), Metalurgia (% 11,8), Papera (% 8,0), Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 7,9), Kimika (% 7,6), Ibilgailu motordunak (% 5,6) eta Produktu metalikoak (% 5,5). Sei sektore kokatu ziren batez besteko aktibo garbiaren errentagarritasunetik (% 4,6) behera: Nekazaritzako elikagaiak (% 4,2), Kautxua eta plastikoa (% 3,5), Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 2,9), Beste makineria eta ekipo batzuk (% 0,3), Material eta ekipo elektrikoa (-% 0,4) eta Altzarien fabrikazioa (-% 0,7).
- Aktibo garbiaren errentagarritasuna osatzen duten elementuei dagokienez, BAIdI/V ratioa (irabaziaren pisua interesen aurretik eta zergen ondoren, ustiapeneko ohiko diru-sarreren gainean) aztertuko dugu lehenik eta behin. Hala, sektore hauek eskuratutako maila altua nabarmendu behar da: Kimika (% 6,0), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 5,9), Metalurgia (% 4,8) eta Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 4,7), batezbestekotik (% 2,8) oso gora. Aitzitik, batezbestekoa baino askoz ere beherago kokatu ziren Beste makineria eta ekipo batzuk (% 0,3), Material eta ekipo elektrikoa eta Altzarien fabrikazioa, bi horiek -% 0,5ekin.
- Azkenik, ustiapeneko ohiko diru-sarreren eta aktibo garbiaren arteko erlazioa neurtzen duen V/(AF+ACN) ratioari dagokionez, nabarmentzekoa da honako sektore hauek lortu zuten maila altua: Ibilgailu motordunak (2,891), Metalurgia (2,482) Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (2,300), Papera (2,020) eta Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (1,860). Batezbestekoaren (1,673) gainetik kokatu ziren horiek guztiak. Gainerako sektoreak beste muturrean kokatu ziren. Horien artetik, Material eta ekipo elektrikoa (0,871) eta Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (0,625) nabarmendu behar dira.

**124. koadroa Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | (r - i) x (FA / PN) (%) | | (r - i) | | FA / PN (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Nekazaritzako elikagaiak | 0,9 | 6,0 | 0,007 | 0,025 | 127,9 | 242,0 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | -- | 2,2 | -- | 0,055 | -- | 39,8 |
| Papera | 0,7 | 4,2 | 0,008 | 0,072 | 83,7 | 58,3 |
| Kimika | 1,1 | 0,7 | 0,067 | 0,057 | 17,0 | 12,4 |
| Kautxua eta plastikoa | 2,1 | 3,3 | 0,021 | 0,027 | 99,0 | 122,9 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 1,8 | 2,1 | 0,025 | 0,022 | 73,2 | 98,2 |
| Metalurgia | 4,2 | 7,3 | 0,049 | 0,093 | 86,0 | 78,0 |
| Produktu metalikoak | 2,1 | 2,2 | 0,042 | 0,035 | 51,1 | 61,7 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -4,8 | -7,2 | -0,013 | -0,009 | 366,0 | 805,3 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | -0,1 | -2,5 | -0,001 | -0,030 | 72,9 | 81,9 |
| Ibilgailu motordunak | 1,5 | 1,3 | 0,040 | 0,035 | 37,0 | 37,6 |
| Altzarien fabrikazioa | 4,2 | -2,8 | 0,107 | -0,028 | 39,0 | 99,3 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 6,6 | 4,4 | 0,089 | 0,126 | 73,4 | 35,4 |
| **Industria, guztira** | **1,9** | **2,5** | **0,018** | **0,028** | **105,0** | **91,8** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez ((r - i) x (FA / PN)), 2022. urtean honako alderdi hauek azpimarra daitezke Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- Leverage finantzarioak, oro har, pisu txikia du aktibo garbiaren errentagarritasunean, ondare garbiaren errentagarritasuna zehazteko orduan. Testuinguru horretan, Metalurgiaren (% 7,3) eta Nekazaritzako elikagaien (% 6,0) sektoreek eskuratutako maila nabarmendu zen, industriaren batezbestekoa (% 2,5) baino altuagoa izan baitzen, argi eta garbi. Batez besteko mailatik behera kokatu ziren eta balio negatiboa izan zuten sektore hauek: Material eta ekipo elektrikoak (-% 7,2), Beste makineria eta ekipo batzuk (-% 2,5) eta Altzarien fabrikazioa (-% 2,8).
- Leverage finantzarioaren osagaiak kontuan izanda, eta aktibo garbiaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren (r-i) arteko ezberdintasuna aztertuta, azpimarratzekoa da sektore honek lortutako maila: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,126). Industria-sektoreko batez besteko mailatik (0,028) gora kokatu zen. Aitzitik, batezbestekoaren azpitik eta balio negatiboekin sektore hauek baino ez ziren kokatu: Beste makineria eta ekipo batzuk (-0,030), Altzarien fabrikazioa (-0,028) eta Material eta ekipo elektrikoa (-0,009).
- Azkenik, zorpetze maila neurtzen duen FA/PN ratioari dagokionez (kanpoko funtsek ondare garbian duten eragina), bereziki, sektore hauek nabarmendu ziren, eskuratutako maila altuagatik: Material eta ekipo elektrikoa (% 805,3; 2021ean erregistratutako mailatik, % 366,0tik, oso gora) eta Nekazaritzako elikagaiak

(% 242,0). Batezbestekoa (% 91,8) baino askoz gorago kokatu ziren biak. Aitzitik, beste muturrean kokatu ziren Kimika (% 12,4) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 35,4), batezbestekoa baino nahiko ratio baxuagoekin. Nolanahi ere, aipatzekoa da sektore gehienak (8) batez besteko zorpetze mailatik behera kokatu zirela.

**125. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2022**

| SEKTOREA | e1 (%) | | r (%) | | (r - i) x (FA / PN) (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua |
| Nekazaritzako elikagaiak | 10,2 | 8,3 | 4,2 | 5,3 | 6,0 | 3,0 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | 10,1 | 8,3 | 7,9 | 5,5 | 2,2 | 2,8 |
| Papera | 12,2 | 4,4 | 8,0 | 3,5 | 4,2 | 0,8 |
| Kimika | 8,3 | 10,9 | 7,6 | 8,0 | 0,7 | 3,0 |
| Kautxua eta plastikoa | 6,8 | 19,1 | 3,5 | 10,9 | 3,3 | 8,2 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 5,1 | 5,3 | 2,9 | 3,7 | 2,1 | 1,6 |
| Metalurgia | 19,1 | 5,0 | 11,8 | 3,8 | 7,3 | 1,2 |
| Produktu metalikoak | 7,7 | 13,7 | 5,5 | 9,7 | 2,2 | 4,0 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -7,6 | 12,1 | -0,4 | 7,1 | -7,2 | 5,0 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | -2,1 | 8,5 | 0,3 | 6,3 | -2,5 | 2,3 |
| Ibilgailu motordunak | 6,9 | 8,3 | 5,6 | 5,7 | 1,3 | 2,6 |
| Altzarien fabrikazioa | -3,4 | 8,2 | -0,7 | 6,6 | -2,8 | 1,7 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 18,0 | 9,9 | 13,6 | 5,0 | 4,4 | 4,8 |
| **Industria, guztira** | **7,2** | **8,6** | **4,6** | **5,9** | **2,5** | **2,8** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Amaitzeko, Euskal Herriko eta Estatuko industria-sektoreen egoera ekonomiko-finantzarioa alderatuta, honako hauek nabarmen daitezke:

- Nekazaritzako elikagaiak, Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza, Papera, Metalurgia eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa sektoreen kasuan, 2022an izan zuten funts propioen berezko errentagarritasuna (e1) altuagoa izan zen Euskal Herrian, Estatuan baino. Gainerako sektoreetan, ordea, kontrakoa pasa zen.
- Aktibo garbiaren errentagarritasunaren kasuan ere gauza bera gertatu zen sektore hauetan: Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza, Papera, Metalurgia eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Sektore horien kasuan, funts propioen ohiko errentagarritasuna Estatukoa baino altuagoa izan zen.
- Leverage finantzarioa ere altuagoa izan zen Euskal Herrian, ondorengo sektore hauetan: Nekazaritzako elikagaiak, Papera, Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk eta Metalurgia.

**23. grafikoa** **Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2022**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

24. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2022




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

## 11.4 FUNTSEN ITURRIEN ETA ERABILEREN EGOERA

Azterketa egiteko, eskuragarri dauden 2022 ekitaldiko azken datuak izan ditugu kontuan, baita inbertsio-diruzaintza (TINV) ere. Inbertsio diruzaintza bat dator aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin, haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe (free cash-flow). Hala, desberdintasun esanguratsuak topatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen artean. Zehazki, aipatzekoak dira alderdi hauek:

- 2022an inbertsio-diruzaintza handiena izan zuen sektorea Ibilgailu motordunen sektorea izan zen (5,29 milioi euro enpresako). Hurrengo sektorea Metalurgia (3,36 milioi euro enpresako) izan zen. Biak ere, industria-sektorearen batezbestekotik (-2,19 milioi euro enpresako) gora kokatu ziren.
- Batezbestekotik gertuago eta balio positiboetan, honako sektore hauek kokatu ziren: Kimika (1,27), Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (0,11) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,21). Aldiz, sektore hauek balio negatiboetan kokatu ziren: Kautxua eta plastikoa (-18,10), Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-13,89), Material eta ekipo elektrikoa (-10,35), Beste makineria eta ekipo batzuk (-5,25), Nekazaritzako elikagaiak (-2,12), Altzarien fabrikazioa (-1,24), Papera (-0,47) eta Produktu metalikoak (-0,40); bereziki, Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen kasuan, industriako batezbestekoa baino askoz ere beherago.

**126. koadroa** **Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan**

*(M euro)**

| SEKTOREA | TINV | | TFA | | TPN | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Nekazaritzako elikagaiak | 1,85 | -2,12 | -3,25 | 4,06 | 1,40 | -1,94 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | -- | 0,11 | -- | -0,02 | -- | -0,09 |
| Papera | 3,17 | -0,47 | -1,57 | 1,05 | -1,60 | -0,58 |
| Kimika | 0,28 | 1,27 | -0,35 | 0,21 | 0,07 | -1,48 |
| Kautxua eta plastikoa | -0,19 | -18,10 | 0,00 | 15,52 | 0,19 | 2,58 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 13,24 | -13,89 | -7,34 | 17,13 | -5,90 | -3,24 |
| Metalurgia | -1,15 | 3,36 | 4,26 | 1,88 | -3,11 | -5,24 |
| Produktu metalikoak | 1,88 | -0,40 | -1,42 | 0,81 | -0,46 | -0,41 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -84,14 | -10,35 | 83,76 | 10,33 | 0,38 | 0,02 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 9,29 | -5,25 | -5,48 | 1,91 | -3,81 | 3,34 |
| Ibilgailu motordunak | 5,99 | 5,29 | -2,50 | -0,23 | -3,50 | -5,07 |
| Altzarien fabrikazioa | 1,08 | -1,24 | -2,12 | -0,39 | 1,04 | 1,63 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | -0,05 | 0,21 | 0,21 | -0,01 | -0,15 | -0,20 |
| **Industria, guztira** | **0,86** | **-2,19** | **1,69** | **2,95** | **-2,56** | **-0,76** |

*(*): Sektoreko batezbestekoak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

Sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) erreparatuz gero, ondorengo hauek aipa daitezke:

- Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen (17,13), Kautxua eta plastikoaren (15,52) eta Material eta ekipo elektrikoaren (10,33) sektoreek izan zuten saldo handiena, hirurak ere industriaren batez besteko saldotik (2,95 milioi euro, enpresako) gora. Gainerako sektoreak batezbestekotik behera kokatu ziren, eta honakoak nabarmendu ziren, balio negatiboak erregistratu izanagatik: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-0,01), Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (-0,02), Ibilgailu motordunak (-0,23) eta Altzarien fabrikazioa (-0,39).

Azkenik, sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, honakoak aipatu behar dira 2022ari buruz:

- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen sektoreak izan zuen saldorik altuena, enpresako 3,34 milioi eurokoa. Hala, gainerako sektoreetatik urrun kokatu zen, eta industriaren batezbestekotik (-0,76 milioi euro enpresako) oso gora.
- Nabarmentzekoa da hiru sektorek bakarrik izan zutela saldo positiboa Beste makineria eta ekipo batzuen sektoreaz gain. Honako hauek dira: Kautxua eta plastikoa (2,58), Altzarien fabrikazioa (1,63) eta Material eta ekipo elektrikoa (0,02). Gainerakoek saldo negatiboa izan zuten, eta hauek nabarmendu ziren, bereziki: Metalurgia (-5,24), Ibilgailu motordunak (-5,07) eta Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-3,24).

**127. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2022**

*(M euro)**

| SEKTOREA | TINV | | TFA | | TPN | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua |
| Nekazaritzako elikagaiak | -2,12 | 1,85 | 4,06 | -3,25 | -1,94 | 1,40 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | 0,11 | -- | -0,02 | -- | -0,09 | -- |
| Papera | -0,47 | 3,17 | 1,05 | -1,57 | -0,58 | -1,60 |
| Kimika | 1,27 | 0,28 | 0,21 | -0,35 | -1,48 | 0,07 |
| Kautxua eta plastikoa | -18,10 | -0,19 | 15,52 | 0,00 | 2,58 | 0,19 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | -13,89 | 13,24 | 17,13 | -7,34 | -3,24 | -5,90 |
| Metalurgia | 3,36 | -1,15 | 1,88 | 4,26 | -5,24 | -3,11 |
| Produktu metalikoak | -0,40 | 1,88 | 0,81 | -1,42 | -0,41 | -0,46 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -10,35 | -84,14 | 10,33 | 83,76 | 0,02 | 0,38 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | -5,25 | 9,29 | 1,91 | -5,48 | 3,34 | -3,81 |
| Ibilgailu motordunak | 5,29 | 5,99 | -0,23 | -2,50 | -5,07 | -3,81 |
| Altzarien fabrikazioa | -1,24 | 1,08 | -0,39 | -2,12 | 1,63 | 1,04 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 0,21 | -0,05 | -0,01 | 0,21 | -0,20 | -0,15 |
| **Industria, guztira** | **-2,19** | **0,86** | **2,95** | **1,69** | **-0,76** | **-2,56** |

*(*): Sektoreko batezbestekoak.*

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoeraren eta Estatukoaren arteko alderaketari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu behar dira 2022. urtean:

- 2022an, aurreko urtean ez bezala, Euskal Herriko lau sektorek baino ez zuten izan inbertsio-diruzaintza (TINV) positiboa. Ildo horretatik, sektore hauek inbertsio-diruzaintza handiagoa izan zuten Euskal Herrian Estatuan baino: Kimika, Metalurgia eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Aztertutako gainerako sektoreen kasuan alderantziz gertatu zen.
- Kanpoko funtsen diruzaintzari dagokionez (TFA), Euskal Herriko sektore gehienek diruzaintza handiagoa izan zuten, Estatukoek baino. Bereziki, Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen sektorea nabarmendu zen, Euskal Herrian zuen kanpoko funtsen diruzaintza (17,13) askoz ere handiagoa zelako Estatukoa baino (-7,34).
- Azkenik, ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, nabarmentzekoa da sektore gehienek Estatuan baino ondare garbiaren diruzaintza txikiagoa izan zutela Euskal Herrian. Paperaren, Kautxua eta plastikoaren, Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen, Produktu metalikoen, Beste makineria eta ekipo batzuen eta Altzarien fabrikazioaren sektoreak bakarrik nabarmendu behar dira, Estatuan erregistratutako ondare garbiaren diruzaintza baino handiagoa izan baitzuten.



LABORAL kutxa

25. grafikoa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2022




*(*): Sektoreko batezbestekoak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

26. grafikoa Euskal Herriko eta Estatuko industria sektoreen inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa, 2022

*(M euro)**




*(*): Sektoreko batezbestekoak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**128. koadroa** **Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**129. koadroa** **Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko ratioen piramidea**




*Oharra: ez dago 2021eko ekitaldiko daturik.*

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**130. koadroa Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

### 131. koadroa Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**132. koadroa** **Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**133. koadroa** **Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**134. koadroa** **Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa)**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**135. koadroa** **Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik)**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

**136. koadroa** **Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

## 137. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**138. koadroa** **Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**139. koadroa** **Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**140. koadroa** **Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**141. koadroa Industria osoaren ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**142. koadroa** **Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 88,07 | 69,05 | 96,50 | 111,17 |
| | | - $C_t$ | 82,80 | 63,48 | 88,88 | 103,52 |
| | | - $AM_t$ | 3,27 | 2,67 | 2,64 | 2,71 |
| | | = $BAII_t$ | 2,00 | 2,89 | 4,98 | 4,94 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 1,43 | 2,07 | 3,56 | 3,53 |
| | | + $AM_t$ | 3,27 | 2,67 | 2,64 | 2,71 |
| | | - $IF_t$ | 0,21 | 0,23 | 0,18 | 0,20 |
| | + GFOt | | 4,49 | 4,51 | 6,02 | 6,04 |
| | | + REt | -2,16 | -1,59 | -0,39 | -0,15 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -1,54 | -1,14 | -0,28 | -0,11 |
| | | +EFt | -0,45 | -0,19 | 0,41 | 0,40 |
| | + GFEt | | -1,99 | -1,33 | 0,13 | 0,29 |
| | | + ACNt-1 | 21,00 | 16,70 | 21,74 | 22,48 |
| | | - ACNt | 19,49 | 18,55 | 22,14 | 24,17 |
| | - ΔACNt | | -1,51 | 1,85 | 0,40 | 1,69 |
| | - INVt | | 2,16 | 3,44 | -0,85 | 4,75 |
| + TINVt | | | 1,85 | -2,12 | 6,61 | -0,11 |
| | + EFAt - AFAt | | -2,70 | 4,66 | 0,40 | 1,48 |
| | | + It | 0,78 | 0,83 | 0,41 | 0,50 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,55 | 0,59 | 0,29 | 0,35 |
| + TFAt | | | -3,25 | 4,06 | 0,11 | 1,13 |
| + TPNt | | | 1,40 | -1,94 | -6,72 | -1,02 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**143. koadroa** **Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| + $V_t$ | -- | 5,03 | -- | 18,39 |
| - $C_t$ | -- | 4,63 | -- | 16,81 |
| - $AM_t$ | -- | 0,10 | -- | 0,59 |
| = $BAII_t$ | -- | 0,30 | -- | 0,99 |
| * (1-t) | -- | 0,715 | -- | 0,715 |
| = $BAIdI_t$ | -- | 0,21 | -- | 0,71 |
| + $AM_t$ | -- | 0,10 | -- | 0,59 |
| - $IF_t$ | -- | 0,01 | -- | 0,04 |
| + GFOt | -- | 0,30 | -- | 1,26 |
| + REt | -- | 0,00 | -- | -1,00 |
| * (1-t) | -- | 0,715 | -- | 0,715 |
| = REdIt | -- | 0,00 | -- | -0,72 |
| +EFt | -- | 0,02 | -- | -0,24 |
| + GFEt | -- | 0,02 | -- | -0,96 |
| + ACNt-1 | -- | 1,71 | -- | 6,41 |
| - ACNt | -- | 1,87 | -- | 6,63 |
| - ΔACNt | -- | 0,16 | -- | 0,22 |
| - INVt | -- | 0,06 | -- | -0,16 |
| + TINVt | -- | 0,11 | -- | 0,23 |
| + EFAt - AFAt | -- | 0,00 | -- | 0,16 |
| + It | -- | 0,03 | -- | 0,25 |
| * (1-t) | -- | 0,715 | -- | 0,715 |
| - (1-t) * It | -- | 0,02 | -- | 0,18 |
| + TFAt | -- | -0,02 | -- | -0,02 |
| + TPNt | -- | -0,09 | -- | -0,21 |
| = 0 | -- | 0,00 | -- | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

**144. koadroa** **Paperaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 115,13 | 57,19 | 87,16 | 107,41 |
| | | - $C_t$ | 107,17 | 52,04 | 78,34 | 98,21 |
| | | - $AM_t$ | 5,43 | 1,99 | 3,84 | 3,70 |
| | | = $BAII_t$ | 2,53 | 3,16 | 4,97 | 5,50 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 1,81 | 2,26 | 3,56 | 3,93 |
| | | + $AM_t$ | 5,43 | 1,99 | 3,84 | 3,70 |
| | | - $IF_t$ | 1,28 | 0,65 | 0,34 | 0,93 |
| | + GFOt | | 5,96 | 3,59 | 7,06 | 6,71 |
| | | + REt | -0,03 | -0,04 | -2,35 | 1,98 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -0,02 | -0,03 | -1,68 | 1,42 |
| | | +EFt | 1,73 | -0,08 | -0,72 | 1,17 |
| | + GFEt | | 1,71 | -0,11 | -2,40 | 2,58 |
| | | + ACNt-1 | 25,78 | 11,99 | 29,52 | 30,39 |
| | | - ACNt | 20,08 | 14,97 | 28,05 | 35,40 |
| | - ΔACNt | | -5,70 | 2,97 | -1,46 | 5,01 |
| | - INVt | | 10,19 | 0,98 | 1,93 | 9,91 |
| + TINVt | | | 3,17 | -0,47 | 4,18 | -5,64 |
| | + EFAt - AFAt | | -1,11 | 1,13 | -2,55 | 7,77 |
| | | + It | 0,64 | 0,11 | 0,88 | 0,95 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,46 | 0,08 | 0,63 | 0,68 |
| + TFAt | | | -1,57 | 1,05 | -3,18 | 7,09 |
| + TPNt | | | -1,60 | -0,58 | -1,00 | -1,46 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

### 145. koadroa Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| + $V_t$ | 38,17 | 37,25 | 131,04 | 171,84 |
| - $C_t$ | 34,28 | 33,24 | 115,62 | 158,64 |
| - $AM_t$ | 1,04 | 0,87 | 3,10 | 3,49 |
| = $BAII_t$ | 2,86 | 3,13 | 12,31 | 9,72 |
| * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| = $BAIdI_t$ | 2,05 | 2,24 | 8,80 | 6,95 |
| + $AM_t$ | 1,04 | 0,87 | 3,10 | 3,49 |
| - $IF_t$ | 0,13 | 0,07 | 0,66 | 0,89 |
| + GFOt | 2,95 | 3,05 | 11,24 | 9,54 |
| + REt | -0,06 | 0,05 | 0,34 | -2,67 |
| * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| = REdIt | -0,04 | 0,04 | 0,24 | -1,91 |
| +EFt | 0,24 | 0,23 | 0,84 | 0,49 |
| + GFEt | 0,19 | 0,27 | 1,08 | -1,42 |
| + ACNt-1 | 11,01 | 15,65 | 24,00 | 28,95 |
| - ACNt | 12,46 | 17,26 | 26,16 | 34,70 |
| - ΔACNt | 1,45 | 1,61 | 2,16 | 5,74 |
| - INVt | 1,41 | 0,44 | 2,74 | 4,94 |
| + TINVt | 0,28 | 1,27 | 7,43 | -2,56 |
| + EFAt - AFAt | -0,30 | 0,27 | 1,25 | 7,12 |
| + It | 0,07 | 0,09 | 0,55 | 0,90 |
| * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| - (1-t) * It | 0,05 | 0,06 | 0,39 | 0,65 |
| + TFAt | -0,35 | 0,21 | 0,86 | 6,47 |
| + TPNt | 0,07 | -1,48 | -8,28 | -3,91 |
| = 0 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

**146. koadroa Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 83,80 | 127,98 | 57,92 | 62,05 |
| | | - $C_t$ | 76,76 | 118,59 | 50,58 | 54,96 |
| | | - $AM_t$ | 4,81 | 5,42 | 2,58 | 2,41 |
| | | = $BAII_t$ | 2,23 | 3,96 | 4,76 | 4,68 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 1,60 | 2,83 | 3,40 | 3,35 |
| | | + $AM_t$ | 4,81 | 5,42 | 2,58 | 2,41 |
| | | - $IF_t$ | 0,22 | 0,26 | 0,20 | 0,16 |
| | + GFOt | | 6,19 | 7,99 | 5,79 | 5,60 |
| | | + REt | -0,38 | -0,67 | -0,05 | -0,18 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -0,27 | -0,48 | -0,04 | -0,13 |
| | | +EFt | 0,18 | 1,00 | 0,24 | 0,25 |
| | + GFEt | | -0,10 | 0,51 | 0,20 | 0,12 |
| | | + ACNt-1 | 11,94 | 13,70 | 9,65 | 10,01 |
| | | - ACNt | 10,87 | 31,91 | 10,13 | 12,61 |
| | - ΔACNt | | -1,07 | 18,21 | 0,48 | 2,60 |
| | - INVt | | 7,36 | 8,40 | 2,96 | 3,41 |
| + TINVt | | | -0,19 | -18,10 | 2,55 | -0,29 |
| | + EFAt - AFAt | | 0,26 | 15,89 | 0,43 | 2,75 |
| | | + It | 0,36 | 0,52 | 0,25 | 0,31 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,26 | 0,37 | 0,18 | 0,22 |
| + TFAt | | | 0,00 | 15,52 | 0,25 | 2,53 |
| + TPNt | | | 0,19 | 2,58 | -2,80 | -2,23 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**147. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 136,06 | 99,04 | 74,83 | 81,45 |
| | | - $C_t$ | 114,98 | 87,93 | 66,57 | 72,25 |
| | | - $AM_t$ | 6,15 | 4,58 | 2,27 | 3,79 |
| | | = $BAII_t$ | 14,93 | 6,52 | 5,99 | 5,41 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 10,68 | 4,66 | 4,28 | 3,87 |
| | | + $AM_t$ | 6,15 | 4,58 | 2,27 | 3,79 |
| | | - $IF_t$ | 2,04 | 0,42 | 0,36 | 0,57 |
| | + GFOt | | 14,78 | 8,82 | 6,19 | 7,08 |
| | | + REt | -13,63 | -21,60 | 3,07 | -0,13 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -9,75 | -15,44 | 2,19 | -0,09 |
| | | +EFt | 1,39 | -3,30 | 0,76 | 0,55 |
| | + GFEt | | -8,36 | -18,75 | 2,96 | 0,46 |
| | | + ACNt-1 | 49,64 | 33,14 | 27,53 | 25,87 |
| | | - ACNt | 54,59 | 54,95 | 30,21 | 29,65 |
| | - ΔACNt | | 4,95 | 21,81 | 2,68 | 3,79 |
| | - INVt | | -11,76 | -17,84 | 5,04 | 7,33 |
| + TINVt | | | 13,24 | -13,89 | 1,43 | -3,57 |
| | + EFAt - AFAt | | -5,73 | 17,73 | 1,89 | 5,37 |
| | | + It | 2,25 | 0,84 | 0,78 | 0,56 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 1,61 | 0,60 | 0,56 | 0,40 |
| + TFAt | | | -7,34 | 17,13 | 1,33 | 4,97 |
| + TPNt | | | -5,90 | -3,24 | 9,69 | -1,39 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

**148. koadroa  Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 146,84 | 192,19 | 218,35 | 261,48 |
| | | - $C_t$ | 134,89 | 175,05 | 206,09 | 249,91 |
| | | - $AM_t$ | 4,39 | 4,33 | 4,37 | 5,11 |
| | | = $BAII_t$ | 7,55 | 12,81 | 7,90 | 6,46 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 5,40 | 9,16 | 5,64 | 4,62 |
| | | + $AM_t$ | 4,39 | 4,33 | 4,37 | 5,11 |
| | | - $IF_t$ | 1,05 | 1,35 | 0,73 | 1,48 |
| | + GFOt | | 8,74 | 12,14 | 9,28 | 8,25 |
| | | + REt | 2,83 | 0,41 | -0,53 | -0,89 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | 2,02 | 0,29 | -0,38 | -0,64 |
| | | +EFt | 0,87 | 1,91 | 0,57 | 0,21 |
| | + GFEt | | 2,90 | 2,20 | 0,19 | -0,43 |
| | | + ACNt-1 | 29,03 | 31,42 | 34,64 | 52,64 |
| | | - ACNt | 35,90 | 38,87 | 48,01 | 61,83 |
| | - ΔACNt | | 6,87 | 7,45 | 13,37 | 9,19 |
| | - INVt | | 5,92 | 3,53 | 5,62 | 4,41 |
| + TINVt | | | -1,15 | 3,36 | -9,52 | -5,78 |
| | + EFAt - AFAt | | 4,98 | 2,73 | 11,15 | 8,21 |
| | | + It | 1,01 | 1,19 | 1,13 | 1,84 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,72 | 0,85 | 0,81 | 1,32 |
| + TFAt | | | 4,26 | 1,88 | 10,34 | 6,89 |
| + TPNt | | | -3,11 | -5,24 | -0,82 | -1,12 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**149. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 29,40 | 33,00 | 24,36 | 27,91 |
| | | - $C_t$ | 26,24 | 30,20 | 21,68 | 25,00 |
| | | - $AM_t$ | 0,91 | 0,93 | 0,63 | 0,67 |
| | | = $BAII_t$ | 2,25 | 1,86 | 2,05 | 2,24 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 1,61 | 1,33 | 1,46 | 1,60 |
| | | + $AM_t$ | 0,91 | 0,93 | 0,63 | 0,67 |
| | | - $IF_t$ | 0,10 | 0,17 | 0,08 | 0,09 |
| | + GFOt | | 2,42 | 2,10 | 2,02 | 2,18 |
| | | + REt | -0,08 | -0,02 | -0,09 | -0,04 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -0,06 | -0,01 | -0,06 | -0,03 |
| | | +EFt | 0,09 | -0,02 | 0,09 | 0,14 |
| | + GFEt | | 0,04 | -0,03 | 0,03 | 0,11 |
| | | + ACNt-1 | 14,30 | 13,19 | 8,41 | 7,66 |
| | | - ACNt | 13,91 | 14,72 | 7,73 | 8,78 |
| | - ΔACNt | | -0,39 | 1,54 | -0,68 | 1,12 |
| | - INVt | | 0,97 | 0,92 | 0,94 | 0,81 |
| + TINVt | | | 1,88 | -0,40 | 1,79 | 0,36 |
| | + EFAt - AFAt | | -1,27 | 0,99 | -2,08 | 0,57 |
| | | + It | 0,22 | 0,26 | 0,19 | 0,16 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,15 | 0,18 | 0,14 | 0,12 |
| + TFAt | | | -1,42 | 0,81 | -2,21 | 0,45 |
| + TPNt | | | -0,46 | -0,41 | 0,42 | -0,81 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**150. koadroa** **Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 230,33 | 66,87 | 123,14 | 124,82 |
| | | - $C_t$ | 210,96 | 62,22 | 113,72 | 116,59 |
| | | - $AM_t$ | 21,38 | 5,09 | 4,01 | 3,08 |
| | | = $BAII_t$ | -2,00 | -0,44 | 5,41 | 5,15 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | -1,43 | -0,31 | 3,87 | 3,68 |
| | | + $AM_t$ | 21,38 | 5,09 | 4,01 | 3,08 |
| | | - $IF_t$ | 9,02 | 7,32 | 1,42 | 1,50 |
| | + GFOt | | 10,92 | -2,54 | 6,46 | 5,27 |
| | | + REt | -7,80 | -2,42 | 0,64 | -1,04 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -5,58 | -1,73 | 0,46 | -0,74 |
| | | +EFt | -4,47 | -1,56 | 0,45 | 0,31 |
| | + GFEt | | -10,05 | -3,29 | 0,91 | -0,43 |
| | | + ACNt-1 | 117,92 | 34,16 | 31,21 | 23,30 |
| | | - ACNt | 178,95 | 34,74 | 38,82 | 24,63 |
| | - ΔACNt | | 61,03 | 0,58 | 7,61 | 1,33 |
| | - INVt | | 23,98 | 3,93 | 4,22 | 2,06 |
| + TINVt | | | -84,14 | -10,35 | -4,46 | 1,44 |
| | + EFAt - AFAt | | 86,95 | 10,66 | 12,85 | 2,26 |
| | | + It | 4,47 | 0,46 | 0,76 | 0,40 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 3,20 | 0,33 | 0,54 | 0,28 |
| + TFAt | | | 83,76 | 10,33 | 12,30 | 1,97 |
| + TPNt | | | 0,38 | 0,02 | -7,84 | -3,42 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

### 151. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 157,63 | 68,22 | 37,62 | 42,91 |
| | | - $C_t$ | 147,52 | 66,19 | 33,62 | 39,23 |
| | | - $AM_t$ | 4,57 | 1,79 | 0,89 | 1,03 |
| | | = $BAII_t$ | 5,55 | 0,24 | 3,11 | 2,66 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 3,97 | 0,17 | 2,22 | 1,90 |
| | | + $AM_t$ | 4,57 | 1,79 | 0,89 | 1,03 |
| | | - $IF_t$ | 1,82 | 0,62 | 0,27 | 0,22 |
| | + GFOt | | 6,71 | 1,34 | 2,84 | 2,70 |
| | | + REt | -0,45 | -0,08 | -0,33 | -0,07 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -0,32 | -0,06 | -0,24 | -0,05 |
| | | +EFt | 2,40 | -0,41 | 0,38 | 0,07 |
| | + GFEt | | 2,07 | -0,47 | 0,14 | 0,02 |
| | | + ACNt-1 | 77,88 | 28,24 | 13,40 | 12,96 |
| | | - ACNt | 75,48 | 31,53 | 13,57 | 14,79 |
| | - ΔACNt | | -2,40 | 3,29 | 0,17 | 1,82 |
| | - INVt | | 1,90 | 2,84 | 0,70 | 1,24 |
| + TINVt | | | 9,29 | -5,25 | 2,12 | -0,35 |
| | + EFAt - AFAt | | -3,73 | 2,70 | -0,48 | 1,00 |
| | | + It | 2,45 | 1,11 | 0,32 | 0,38 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 1,75 | 0,79 | 0,23 | 0,27 |
| + TFAt | | | -5,48 | 1,91 | -0,71 | 0,73 |
| + TPNt | | | -3,81 | 3,34 | -1,42 | -0,38 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**152. koadroa** **Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| + $V_t$ | 252,70 | 312,79 | 495,70 | 568,24 |
| - $C_t$ | 234,69 | 294,41 | 466,10 | 535,02 |
| - $AM_t$ | 10,10 | 9,97 | 22,19 | 21,43 |
| = $BAII_t$ | 7,91 | 8,40 | 7,41 | 11,79 |
| * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| = $BAIdI_t$ | 5,66 | 6,01 | 5,30 | 8,43 |
| + $AM_t$ | 10,10 | 9,97 | 22,19 | 21,43 |
| - $IF_t$ | 0,73 | 0,70 | 5,56 | 5,13 |
| + GFOt | 15,03 | 15,28 | 21,92 | 24,73 |
| + REt | -0,35 | -0,07 | 4,66 | -3,15 |
| * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| = REdIt | -0,25 | -0,05 | 3,33 | -2,25 |
| +EFt | 0,27 | 0,51 | 2,70 | 0,98 |
| + GFEt | 0,01 | 0,46 | 6,03 | -1,27 |
| + ACNt-1 | 26,03 | 25,73 | -4,13 | 9,29 |
| - ACNt | 31,20 | 31,07 | 9,52 | 17,52 |
| - ΔACNt | 5,17 | 5,34 | 13,64 | 8,23 |
| - INVt | 3,88 | 5,10 | 15,42 | -2,80 |
| + TINVt | 5,99 | 5,29 | -1,11 | 18,03 |
| + EFAt - AFAt | -2,11 | 0,39 | 1,80 | -11,14 |
| + It | 0,53 | 0,86 | 1,11 | 1,21 |
| * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| - (1-t) * It | 0,38 | 0,61 | 0,79 | 0,87 |
| + TFAt | -2,50 | -0,23 | 1,01 | -12,01 |
| + TPNt | -3,81 | -5,07 | 0,10 | -6,02 |
| = 0 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**153. koadroa** **Altzarien fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera. Beste manufaktura-industria batzuk**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria 2021 | Euskal Herria 2022 | Estatua 2021 | Estatua 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | + $V_t$ | 49,01 | 13,68 | 38,53 | 16,87 |
| | | - $C_t$ | 42,43 | 13,25 | 36,31 | 14,83 |
| | | - $AM_t$ | 1,13 | 0,53 | 0,61 | 0,72 |
| | | = $BAII_t$ | 5,45 | -0,10 | 1,62 | 1,32 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 3,90 | -0,07 | 1,15 | 0,95 |
| | | + $AM_t$ | 1,13 | 0,53 | 0,61 | 0,72 |
| | | - $IF_t$ | 0,28 | 0,24 | 0,07 | 0,11 |
| | + GFOt | | 4,75 | 0,23 | 1,69 | 1,56 |
| | | + REt | -1,12 | 0,02 | -0,06 | 0,16 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -0,80 | 0,01 | -0,04 | 0,11 |
| | | +EFt | 1,02 | -0,19 | 0,15 | 0,06 |
| | + GFEt | | 0,21 | -0,18 | 0,11 | 0,18 |
| | | + ACNt-1 | 10,92 | 5,10 | 5,54 | 6,56 |
| | | - ACNt | 13,79 | 5,70 | 6,56 | 6,09 |
| | - ΔACNt | | 2,87 | 0,60 | 1,02 | -0,47 |
| | - INVt | | 1,01 | 0,69 | 0,21 | 2,33 |
| + TINVt | | | 1,08 | -1,24 | 0,57 | -0,12 |
| | + EFAt - AFAt | | -1,97 | -0,29 | -1,02 | 0,34 |
| | | + It | 0,22 | 0,15 | 0,10 | 0,07 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,15 | 0,10 | 0,07 | 0,05 |
| + TFAt | | | -2,12 | -0,39 | -1,09 | 0,29 |
| + TPNt | | | 1,04 | 1,63 | 0,53 | -0,17 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

**154. koadroa** **Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 9,05 | 7,31 | 16,20 | 17,94 |
| | | - $C_t$ | 8,46 | 6,58 | 14,63 | 16,27 |
| | | - $AM_t$ | 0,08 | 0,12 | 0,50 | 0,65 |
| | | = $BAII_t$ | 0,52 | 0,60 | 1,07 | 1,02 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 0,37 | 0,43 | 0,76 | 0,73 |
| | | + $AM_t$ | 0,08 | 0,12 | 0,50 | 0,65 |
| | | - $IF_t$ | 0,06 | 0,00 | 0,15 | 0,13 |
| | + GFOt | | 0,39 | 0,56 | 1,11 | 1,25 |
| | | + REt | -0,10 | -0,03 | -0,23 | -0,28 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -0,07 | -0,02 | -0,16 | -0,20 |
| | | +EFt | 0,03 | 0,05 | 0,01 | -0,02 |
| | + GFEt | | -0,04 | 0,03 | -0,16 | -0,22 |
| | | + ACNt-1 | 2,24 | 2,01 | 2,30 | 3,70 |
| | | - ACNt | 2,58 | 2,33 | 3,64 | 3,45 |
| | - ΔACNt | | 0,34 | 0,31 | 1,35 | -0,25 |
| | - INVt | | 0,06 | 0,06 | 1,60 | 1,23 |
| + TINVt | | | -0,05 | 0,21 | -1,99 | 0,06 |
| | + EFAt - AFAt | | 0,23 | -0,01 | 2,07 | 0,19 |
| | | + It | 0,04 | 0,01 | 0,10 | 0,09 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,03 | 0,01 | 0,07 | 0,06 |
| + TFAt | | | 0,21 | -0,01 | 2,00 | 0,13 |
| + TPNt | | | -0,15 | -0,20 | -0,01 | -0,18 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**155. koadroa** **Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| | | + $V_t$ | 110,46 | 88,44 | 101,16 | 105,48 |
| | | - $C_t$ | 101,29 | 82,18 | 92,80 | 97,92 |
| | | - $AM_t$ | 4,58 | 2,83 | 3,20 | 3,06 |
| | | = $BAII_t$ | 4,59 | 3,42 | 5,16 | 4,49 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 3,28 | 2,44 | 3,69 | 3,21 |
| | | + $AM_t$ | 4,58 | 2,83 | 3,20 | 3,06 |
| | | - $IF_t$ | 0,92 | 0,74 | 0,62 | 0,60 |
| | + GFOt | | 6,95 | 4,54 | 6,27 | 5,68 |
| | | + REt | -1,15 | -0,99 | 0,18 | -0,53 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -0,82 | -0,71 | 0,13 | -0,38 |
| | | +EFt | 0,37 | 0,00 | 0,49 | 0,29 |
| | + GFEt | | -0,44 | -0,71 | 0,62 | -0,09 |
| | | + ACNt-1 | 33,32 | 20,32 | 18,96 | 17,08 |
| | | - ACNt | 36,15 | 24,24 | 20,74 | 19,59 |
| | - ΔACNt | | 2,83 | 3,92 | 1,78 | 2,51 |
| | - INVt | | 2,81 | 2,11 | 1,83 | 2,92 |
| + TINVt | | | 0,86 | -2,19 | 3,28 | 0,16 |
| | + EFAt - AFAt | | 2,49 | 3,42 | 0,45 | 1,66 |
| | | + It | 1,11 | 0,65 | 0,56 | 0,50 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,79 | 0,47 | 0,40 | 0,36 |
| + TFAt | | | 1,69 | 2,95 | 0,05 | 1,30 |
| + TPNt | | | -2,56 | -0,76 | -3,33 | -1,46 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

# 12. EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

## 12.1 SARRERA

Kapitulu honetan 2023ko enpresa-ehunaren egitura aztertuko dugu EAEn, Nafarroan eta Estatu osoan. Horretarako, sektore ekonomikoak eta soldatapekoen estratuak hartuko ditugu aintzat. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da EINeko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat, azterketa homogeneoagoa izateko. Ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1eko informazioa eskaintzen da bertan.

OHAR METODOLOGIKOA: iturri horri dagokionez, kontuan hartu behar da DIRCEren ustiapen estatistikoak aldaketa metodologiko batzuk izan dituela 2019/2152 EBS Erregelamendua eta haren 2020/1197 inplementazio-egintza indarrean sartu zirenetik. Izan ere, ekonomikoki aktibo dagoen enpresaren definizio berriak, 2022an ezarri zenak, enpresa aktiboen kopuru osoari eragiten dio. Hortaz, 2023ko datuak ezin dira alderatu aurreko ekitaldietako datuekin. Hori dela eta, jarraian egingo dugu analisia 2023ari buruzkoa da soilik.

## 12.2 ENPRESEN KOPURUA

Ezarritako definizio berriaren arabera, 2023an ekonomikoki aktibo zeuden enpresen kopurua 134.859koa zen EAEn, 41.152koa Nafarroan eta 3.207.580ekoa Estatuan. Zifra horiek ezin dira aurreko ekitaldikoekin alderatu, aipatu dugun aldaketa metodologikoa dela eta.

**27. grafikoa Enpresa kopurua**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Estatuko guztizkoaren gaineko pisu erlatiboari dagokionez, 2023an EAEn ekonomikoki aktibo zeuden enpresak Estatuko guztizkoaren % 4,2 ziren, eta, Foru Erkidegoan ekonomikoki aktibo zeuden enpresak, % 1,28.

**28. grafikoa Estatuko guztizkoaren gaineko pisua (%) (Estatua=100) 2023**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

## 12.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoen araberako azterketa egiteko, honela multzokatuko ditugu: industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak. 2023an, aztertutako hiru eremu geografikoetan, ekonomikoki aktibo zeuden enpresen % 60 inguru zegozkien gainerako zerbitzuei: EAEn % 59,3, Nafarroan % 58,3 eta Estatuan % 62,6.

**156. koadroa Enpresak, sektore ekonomikoaren arabera. 2023**

| Kontzeptua | EAE | | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| **Guztira** | **134.859** | **100,0** | **41.152** | **100,0** | **3.207.580** | **100,0** |
| Industria | 9.864 | 7,3 | 3.728 | 9,1 | 177.865 | 5,5 |
| Eraikuntza | 18.010 | 13,4 | 5.351 | 13,0 | 376.996 | 11,8 |
| Merkataritza | 27.022 | 20,0 | 8.069 | 19,6 | 646.339 | 20,2 |
| Gainerako zerbitzuak | 79.963 | 59,3 | 24.004 | 58,3 | 2.006.380 | 62,6 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Oro har, merkataritza izan zen hurrengoa. % 20 inguruko partaidetza izan zuen ekonomikoki aktiboak diren enpresen guztizkoaren gainean: EAEn % 20, Foru Erkidegoan % 19,6 eta Estatuan % 20,2. Hiru eremuetan, eraikuntza gertu kokatzen da, % 13 inguruko kuotekin: EAEn % 13,4, Nafarroan % 13 eta Estatuan % 11,8. Azkenik, eta distantzia nabarmenera, industria-sektoreak pisu erlatibo txikiagoa izan zuen 3 kasuetan: % 7,3 EAEn, % 9,1 Foru Erkidegoan eta % 5,5 Estatuan.

Modu horretan, Estatuarekin alderatuta, EAEn eta Nafarroan handiagoa zen industria-sektoreko eta eraikuntzako enpresa ekonomikoki aktiboen pisu erlatiboa. Aldiz, gainerako zerbitzuen pisu erlatiboa txikiagoa zen.

Jarduerak gehiago banakatuta (EJSN-2009ren sailkapena), 2023an, handizkako eta txikizkako merkataritzak eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketak eskuratu zituzten pisu erlatibo handienak hiru eremu geografikoetan, enpresa kopuruari dagokionez. Hala, 2023an jarduera horri zegozkion EAEko 27.022 enpresak erkidegoko guztizkoaren % 20 ziren. Jarduera horrek antzeko partaidetza izan zuen Nafarroan zein Estatuan (% 19,6 eta % 20,2, hurrenez hurren).

**157. koadroa Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2023**

| Kontzeptua | EAE | | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| **Guztira** | **134.859** | **100,0** | **41.152** | **100,0** | **3.207.580** | **100,0** |
| Erauzketa-industriak | 23 | 0,0 | 21 | 0,1 | 1.564 | 0,0 |
| Manufaktura-industria | 9.271 | 6,9 | 2.741 | 6,7 | 158.661 | 4,9 |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura. | 331 | 0,2 | 821 | 2,0 | 10.838 | 0,3 |
| Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa | 239 | 0,2 | 145 | 0,4 | 6.802 | 0,2 |
| Eraikuntza | 18.010 | 13,4 | 5.351 | 13,0 | 376.996 | 11,8 |
| Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa | 27.022 | 20,0 | 8.069 | 19,6 | 646.339 | 20,2 |
| Garraioa eta biltegiratzea | 9.198 | 6,8 | 3.200 | 7,8 | 198.091 | 6,2 |
| Ostalaritza | 12.358 | 9,2 | 3.080 | 7,5 | 261.160 | 8,1 |
| Informazioa eta komunikazioak | 2.980 | 2,2 | 718 | 1,7 | 69.573 | 2,2 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak | 2.552 | 1,9 | 770 | 1,9 | 75.673 | 2,4 |
| Higiezinekin lotutako jarduerak | 3.894 | 2,9 | 1.434 | 3,5 | 195.428 | 6,1 |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | 18.101 | 13,4 | 5.290 | 12,9 | 406.535 | 12,7 |
| Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak | 4.637 | 3,4 | 2.245 | 5,5 | 192.787 | 6,0 |
| Hezkuntza | 4.726 | 3,5 | 1.459 | 3,5 | 109.329 | 3,4 |
| Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak | 8.461 | 6,3 | 1.563 | 3,8 | 168.225 | 5,2 |
| Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak | 3.778 | 2,8 | 1.330 | 3,2 | 106.066 | 3,3 |
| Beste zerbitzu batzuk | 9.278 | 6,9 | 2.915 | 7,1 | 223.513 | 7,0 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren, EAEn eta Estatuan, honako hauek nabarmendu behar dira hurrenez hurren: jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, eta eraikuntza. Zehazki, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen arloko 18.101 enpresa zeuden 2023an EAEn; hau da, erkidegoko enpresen % 13,4 ziren arlo horretakoak. Estatuan, berriz, 406.535 enpresa zeuden, guztizkoaren % 12,7. Eraikuntzari dagokienez, 2023an 18.010 enpresa zeuden EAEn, hots, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,4. Eta Estatuan, 376.996 enpresa, guztizkoaren % 11,8.



LABORAL kutxa

Nafarroaren kasuan, eraikuntzaren eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen posizio erlatiboak alderantzizkoak ziren. Horiek 5.351 eta 5.290 enpresa zituzten, hurrenez hurren, Foru Erkidegoko guztizkoaren % 13 eta % 12,9.

## 12.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK

Soldatapekoen estratuen analisiari dagokionez, eta horiek gehiago banakatuta, 2023an, aztertutako hiru eremu geografikoetan, soldatapekorik gabeko enpresak ziren enpresa ekonomikoki aktiboen erdiak, gutxi gorabehera. % 50 EAEn, % 53,2 Nafarroan eta % 53,6 Estatuan (67.397, 21.911 eta 1.719.297 enpresa, hurrenez hurren).

Aztertutako hiru eremu geografikoetan, 1 edo 2 soldatapeko pertsona zituzten enpresak izan ziren hurrengo hauek, % 30 inguruko partaidetzekin: % 29,8 EAEn, % 27 Foru Erkidegoan eta % 28 Estatuan. Eta, hurrengoak, 3 eta 5 soldatapeko artean zituzten enpresak, % 10 inguruko kuotekin: EAEn % 10, Nafarroan % 9,7 eta Estatuan % 9,6.

Hortaz, 2023an, soldatapeko langilerik gabeko eta soldatapeko 5 langile arteko enpresak ziren guztizkoaren % 90 inguru EAEn, Nafarroan eta Estatuan.

**158. koadroa Enpresak, soldatapekoen tarteen arabera. 2023**

| Kontzeptua | EAE | | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| **Guztira** | **134.859** | **100,0** | **41.152** | **100,0** | **3.207.580** | **100,0** |
| Soldatapekorik gabe | 67.397 | 50,0 | 21.911 | 53,2 | 1.719.297 | 53,6 |
| 1-2 soldatapeko | 40.154 | 29,8 | 11.124 | 27,0 | 897.786 | 28,0 |
| 3-5 soldatapeko | 13.528 | 10,0 | 4.001 | 9,7 | 309.528 | 9,6 |
| 6-9 soldatapeko | 5.700 | 4,2 | 1.707 | 4,1 | 128.079 | 4,0 |
| 10-19 soldatapeko | 4.131 | 3,1 | 1.196 | 2,9 | 81.822 | 2,6 |
| 20 soldatapeko edo gehiago | 3.949 | 2,9 | 1.213 | 2,9 | 71.068 | 2,2 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Soldatapekoen estratuak are gehiago banakatuz gero, enpresen tamaina "txikiari" buruz aurrez esandakoa baieztatzen da. Izan ere, EAEn 48 enpresak baino ez dituzte 1.000 eta 4.999 soldatapeko artean, eta 7k bakarrik dituzte 5.000 soldatapeko edo gehiago. Nafarroan, neurri horietako 13 eta 3 enpresa daude, hurrenez hurren; eta Estatu osoan, 963 eta 190 enpresa, hurrenez hurren.

**159. koadroa Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2023**

| | EAE | | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| **Guztira** | **134.859** | **100,0** | **41.152** | **100,0** | **3.207.580** | **100,0** |
| Soldatapekorik gabe | 67.397 | 50,0 | 21.911 | 53,2 | 1.719.297 | 53,6 |
| 1-2 soldatapeko | 40.154 | 29,8 | 11.124 | 27,0 | 897.786 | 28,0 |
| 3-5 soldatapeko | 13.528 | 10,0 | 4.001 | 9,7 | 309.528 | 9,6 |
| 6-9 soldatapeko | 5.700 | 4,2 | 1.707 | 4,1 | 128.079 | 4,0 |
| 10-19 soldatapeko | 4.131 | 3,1 | 1.196 | 2,9 | 81.822 | 2,6 |
| 20-49 soldatapeko | 2.520 | 1,9 | 734 | 1,8 | 45.896 | 1,4 |
| 50-99 soldatapeko | 737 | 0,5 | 214 | 0,5 | 12.646 | 0,4 |
| 100-199 soldatapeko | 359 | 0,3 | 149 | 0,4 | 6.373 | 0,2 |
| 200-249 soldatapeko | 88 | 0,1 | 26 | 0,1 | 1.290 | 0,0 |
| 250-999 soldatapeko | 190 | 0,1 | 74 | 0,2 | 3.710 | 0,1 |
| 1.000-4.999 soldatapeko | 48 | 0,0 | 13 | 0,0 | 963 | 0,0 |
| 5.000 soldatapeko edo gehiago | 7 | 0,0 | 3 | 0,0 | 190 | 0,0 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*



LABORAL kutxa



# 4.LEHEN SEKTOREA

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

## 1.1 BILAKAERA ESTATU MAILAN

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen protagonismoa handitu egin zen maila geografiko guztietan 2023an. Izan ere, maila gorenera iritsi ziren sektoreko eraldaketak. EBko Nekazaritza Politika Erkide "berriaren" lehenengo urtea izan zen. Gainera, aldaketa klimatikoa eta eguraldia aurrez iragarri ezina espero baino gehiago areagotu ziren, eta aurreko urteetako beste zailtasun batzuei gehitu zitzaizkien: pandemia eta Ukrainako gerra. Horiek eragina izan zuten merkatu energetikoetan —2023an garestitzeak desazeleratzen joan baziren ere— eta, batez ere, labore belarkaren merkatuetan. Estatuan, azken horiek jasan zituzten kalterik handienak; bereziki, estentsiboenek. Izan ere, mendeko lehorterik okerrena eta aurreikusi gabeko fenomeno meteorologikoak izan ziren.

EBko lege-aldaketak mahai gainean zeuden ondoz ondoko krisien aurretik. Zehazki, 2019an hasitako agintaldi instituzionalean jarri ziren mahai gainean, sektoreko errealitate berriei aurre egiteko. Sortu diren askotariko beharretara egokitu behar izan dituzte lege-aldaketak, eta azeleratu egin behar izan dituzte bost urteko agintaldi horrek aurrera egin ahala, jomuga 2024an jarrita, errealitate klimatikoa gero eta larriagoa delako. Estatuan ere izan dira legegintzako berrikuntzak, hala nola Elikadura Katearen Legea, zeinak gardentasuna eskaintzen duen eta ekoizle txikiak babesten dituen. Gainera, baliabide ugari mobilizatu behar izan dira, laguntzen eta aseguruen bidez.

Araudiaren aldaketak arazo handiak sortzen ari dira, eta malgutasuna eskatzen da; batez ere, lurzoruaren erabilerarekin lotuta. Sektoreak ahalegin handia egiten du egokitzeko; esaterako, praktika ekologikoetara bideratutako ekoerregimenetara, araudietara eta laguntza berezietara batuta. Honako gaiak daude eztabaidaren erdian: ongarriak, pestizidak, alterazio genomikoa, karbono-isurpenak, kateak laburtzea ekoizpena lokalagoa izan dadin, animalien ongizatea edo biodibertsitatea. Hala, zaildu egin da Europako politika klasikoa, hektarea bakoitzeko laguntzetan oinarritua.

Estatuan, frutak, barazkiak, txerrikia eta esnea izan ziren nekazaritza-errentari tira egin ziotenak. Izan ere, hobeto egokitzea ari dira lortzen, prezioak mantenduta. Dena den, horiek ere jasan zuten eraldaketen inpaktua. Zehazki, nekazaritzari eragiten dioten gai askok eragiten diote abeltzaintza-sektoreari ere. Izan ere, gai garrantzitsua da animalia-azienden landare-elikadura. Zerealak eta mahastiak dira krisirik larrienak bizi izan zituzten ekoizpenak. Olibadien egoera arindu egin zen, olioaren prezioa asko igo ahal izan zelako.

Egoera nahasi horrek ezohiko oszilazio eta joerak ekarri zituen kasu askotan, estatu edo erkidego mailako produktu edo kategoria bakoitzaren datu mikroetan. Hala, agerikoa izan zen ezegonkortasuna.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen ekoizpena % 4 hazi zen Espainian 2023an. Aldiz, aurreko bi urteetan % 10 inguru haztea lortu zuen, gorabeherak izan arren, kostuen zati handi bat bezero-merkatuei kargatuta. Landare-ekoizpenari zegokion guztizkoaren % 55 inguru, eta animalia-ekoizpenari % 42. Gainerakoa zerbitzuei eta beste jarduera batzuei zegokien. Bilakaera ezberdina izan zen. Izan ere, landareen adarra % 15 baino gehiago hazi zen 2021ean, % 5 baino apur bat gehiago 2022an eta -% 2,2 murriztu zen 2023an. Animalia-ekoizpena, berriz, % 4,1 hazi zen 2021ean; 2022an, % 14,8, eta 2023an, % 9,7.

Landareen adarra 800 milioi euro inguru murriztu zen. Izan ere, barazkiek 1.000 milioi euro baino gehiago irabazi zuten, frutak 2.000 milioi eta bazkak 660 milioi, baina 3.000 milioi euro baino gehiago galdu zituzten zerealek (% 50 baino gehiago murriztu zen 2022arekiko) eta 1.000 baino gehiago oliba-olioak. Zerealen datua 2009az geroztiko okerrena izan zen. Dena den, egia da 2020an eta 2021ean aparteko igoerak izan zituela. Animalien adarrak 3.200 milioi baino gehiago irabazi zituen, batez ere, txerrikiaren (1.500), esnearen (936 milioi) eta oilo-arrautzen (+537) igoeragatik.

Estatuan indar handia zuten barazki eta fruten ekoizpenak eta txerrikiaren ekoizpenak (hamarkada batean bikoiztu egin ziren, gutxi gorabehera), eta esnea eta arrautzak susperraldian zeuden. Hori dela eta, sektore horiek ere zailtasunak izan zituzten arren, prezioak dezente igotzeko aukera izan zuten eta, horri esker, amaierako nekazaritza-errentaren hazkundea 2016az geroztiko onena izan zen, % 12,8koa (2022an -% 4,1 egin zuen behera). Baina kostuen murrizketak ere eragin zuen hori, aipatutako lehorteen eta ekoizpen batzuk murriztu dituzten beste faktore batzuen ondorioz. Aldi berean, jaitsi egin ziren erabilitako gaien prezioak. Balioari dagokionez, erdiak baino gehiago ganadua elikatzeko pentsuak izan ziren, eta horien prezioa oso gutxi jaitsi zen. Baina energiaren, lubrifikatzaileen eta ongarrien prezioak nabarmen jaitsi ziren. Salbuespen meteorologikoa dela eta aseguruetara jotzearen arazoa ministerioaren kontuan ere nabaritu zen, mendeko finantza-gastu altuenak izan baitzituen.

**160. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2022 | 2023* | % Δ 2023/2022 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Balioa | Balioa | Balioa | Kopurua | Prezioa |
| A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena | 62.997,7 | 65.513,4 | 4,0 | -8,0 | 13,1 |
| • Landare-ekoizpena | 37.009,4 | 36.196,2 | -2,2 | -12,2 | 11,3 |
| • Animalia-ekoizpena | 24.411,3 | 27.657,7 | 13,3 | -2,2 | 15,9 |
| • Zerbitzu-ekoizpena | 1.577,0 | 1.659,5 | 4,9 | -1,1 | 6,1 |
| • Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak | 873,0 | 920,9 | 5,5 | -0,1 | 5,6 |
| B.- Bitarteko kontsumoak | 33.723,1 | 32.268,9 | -4,3 | 1,4 | -5,6 |
| C.- (A-B) Balio erantsi gordina | 29.274,6 | 33.244,5 | 13,6 | -18,9 | 40,0 |
| D.- Amortizazioak | 6.100,0 | 6.586,1 | 8,0 | -0,5 | 8,5 |
| E.- Beste dirulaguntza batzuk | 6.053,1 | 6.266,5 | 3,5 | -- | -- |
| F.- Beste zerga batzuk | 480,8 | 491,5 | 2,2 | -- | -- |
| G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta | 28.746,9 | 32.433,4 | 12,8 | -- | -- |

*(*): 2024ko urtarrileko 2. estimazioa. Ekoizleak jasotako oinarrizko prezioen araberakoa.*
*Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.*

Guztira, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko gastuak % 4,3 murriztu ziren, baina ohi baino altuagoak izaten jarraitu zuten. 2024an antzeko beherakada bat gertatu beharko litzateke maila normalera itzultzeko, mendeko lehenengo bi hamarkadetan ikusitako batez besteko garestitze-erritmoa aintzat hartuta.

Nekazaritza Ministerioak, gainera, kantitateen urte arteko aldakuntzaren kalkuluak eskaintzen ditu. Datu horien arabera, nekazaritza eta abeltzaintzako kantitate orokorrak jaitsi egin ziren, bigarren urtez jarraian (-% 8, ia 2022an bezainbeste: -% 8,6). Landareen adarrean jaitsiera -% 12,2koa izan zen, eta aurreko urtean -% 11,4koa. Zerealetan jaitsiera handiak metatu dira azken urteetan (-% 6, -% 25,1 eta -% 34,8, azken hirurtekoan). Animalia adarrean, kantitateak -% 2,2 murriztu ziren.

Prezioei dagokienez, azken hiru urteetan prezioak % 7,6, % 20,2 eta % 13,1 igo ziren. 2023an % 11,3 garestitu zen landareen adarra, eta olioaren kategoriak izan zuen hazkunderik handiena; hurrengoa bazka izan zen. Aldiz, ardoak izan zuen hazkunderik txikiena. Zerealen kasuan, kantitateak behera egiteaz gain, prezioak -% 26,2 murriztu ziren. Dena den, aurreko bi urteetan prezioak asko igo ziren, urtean heren bat baino gehiago. Industria-laboreen kategorian ere prezioek behera egin zuten, baina neurri txikiagoan (-% 16,8). Bestetik, animalia-adarrean % 15,9 igo ziren prezioak, eta dagoeneko aipatu ditugun produktuak izan ziren horren eragileak, ordena honetan: arrautzak, esnea eta txerrikia. Aurreko urteko % 23,8ko igoerari batu zitzaion garestitze hori.



LABORAL kutxa

## 1.2 BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

**Sektorearen makromagnitudeak[1]**

Estatuaren kasuan aztertutako makromagnitudeak, EAErako ere kalkulatzen dira, ekitaldia itxi eta sei hilabete pasatzean. Hortaz, posible da bi eremuen arteko alderaketa egitea. Nafarroako datuetara hurbiltzeko beste adierazle batzuk har daitezke kontuan, aurrerago azalduko dugun moduan. Balio Erantsi Gordina, oinarrizko prezioen edo faktoreen kostuen arabera neurtuta, % 6,2 hazi zen, Estatuan (% 13,6) eta Nafarroan (% 11,7) baino gutxiago. Hiru datuen bilakaera ikusita, deigarria da EAEn pandemiaren zero urteko arazoek beherakada handia eragin zutela 2020an; beste eremuetan, berriz, ez zen apenas igarri. Hurrengo bi ekitaldietan, suspertzea Nafarroan eta Estatuan baino askoz ere handiagoa izan zen, eta horrek eragina izan dezake 2023ko emaitzan, ordurako ez baitzegoen hazteko horrenbesteko marjinarik. Ondorioz, EAEren hazkundea txikiagoa izan zen. Hala, nekazaritza-errenta (BEG ken ekitaldiko amortizazioak) % 5,9 hazi zen. Gobernuko departamentuaren arabera, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektore osoko ekoizpen gordina % 4,6 hazi zen. 2022ko datuekin alderatuta, nekazaritzako ekoizpen gordina -% 1,9 jaitsi zen, animalia-ekoizpena % 19,5 hazi zen eta basogintzako ekoizpena -% 3,3 gutxitu zen. Kostuak -% 5,1 jaitsi ziren.

Sektoreko kantitateak -% 0,1 murriztu ziren, nekazaritzako bolumen fisikoa +% 2,2 hazi zen, abeltzaintza-azpisektoreko bolumen fisikoa +% 2,6 hazi zen, basogintzako tonajea -% 7,8 murriztu zen eta bitarteko kontsumoen beharra -% 2,4 arindu zen kuantitatiboki. Prezioei dagokienez, guztizko indizea +% 4,7 garestitu zen: nekazaritza-azpisektorea -% 4 merkatu zen, abeltzaintza-adarrean % 16,6 igo ziren prezioak, basogintzan % 4,9 eta kontsumoetan -% 2,8.

Epe luzeko analisia eginda, EAEko nekazaritza-sektoreak mende honetako urte gehienetan gora egin duela ikus daiteke. 2018an eskuratu zuen gehienekoa, eta oraindik ez da balio horretara itzuli. 2019an behera egin zuen, baita 2020an ere, Covid-19aren krisiaren lehen urtean. 2021ean partzialki suspertu zen, baina hurrengo ekitaldietan ekoizpen maila metatua nahiko antzekoa izan zen, eta 2018-2020 biurtekoan izandako jaitsiera berreskuratzeko bidean geratu zen.

Landare-kategorien bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da mahastiak, barazkiak eta zerealak direla EAEko bolumen ekonomiko garrantzitsuenak, ordena horretan, eta gorabehera handienak izaten dituztenak (bigarrenak txikiagoak). Mahastiak jaitsiera handia izan zuen 2009an, indar handiz suspertu zen 2018ra arte, eta beste jaitsiera azkar bat izan zuen 2018 eta 2020 artean. Ondoren, ez ditu zifrak berreskuratu, baina aurreko bi

---

[1] EAEko nekazaritzako makromagnitudeen aurrerapena. Nafarroari buruzko informazio ofiziala beste denbora-eredu baten arabera argitaratzen da.

hamarkadetako batez besteko mailaren antzekoan mantendu da. Barazkien kasuan, igoera geldoa, progresiboa eta gorabeheratsua izan da, baina 2023an gehienekoa eskuratu zuten. Zerealen hazkunde-erritmoa handiagoa zen, baina 2021eko gehienekoaren ostean, beherantz egiten hasi zen eta beherakada areagotu egin zen 2023an. Basogintzako ekoizpenaren balioa pixkanaka hazten joan zen aurreko hamarkadan zehar, eta 2022an bikoiztu egin zen. Hala, 2023an maila altu hori mantentzea lortu zuen.

**161 koadroa EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023* |
|---|---|---|---|
| Amaierako nekazaritza-ekoizpena | 575,0 | 686,3 | 717,8 |
| Nekazaritza | 278,6 | 282,6 | 277,1 |
| Abeltzaintza | 182,8 | 216,1 | 258,4 |
| Basozaintza-sektorea | 85,9 | 162,5 | 157,2 |
| Norbere konturako beste ekoizpen eta hobekuntza batzuk | 27,7 | 25,1 | 25,1 |
| - Sektoretik kanpoko gastuak | 210,1 | 267,6 | 253,8 |
| = Merkatuko prezioei erantsitako balio gordina | 364,9 | 419,8 | 464,0 |
| + Saldoa: dirulaguntzak - zergak. | 65,5 | 93,0 | 79,7 |
| = faktoreen kostuari erantsitako balio gordina | 430,4 | 511,8 | 543,7 |
| - Amortizazioak | 88,6 | 96,9 | 104,2 |
| = Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekazaritza Errenta | 341,8 | 414,9 | 439,5 |

*(*): Aurrerapen-datuak; baliteke gerora aldatzea.*

*Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Kategoriaren arabera, lekaledun landareen balioa hazi zen gehien, % 43,2. Jauzi hori 2020 eta 2021 artekoaren antzekoa izan zen, esaterako. Baina, 2023an, Europako araudiak kategoria horretako produktu proteaginoso jakin batzuk landatzeko aukera irekitzeko bidea topatu zuen. Izan ere, lurzoruak leheneratzen laguntzen dute produktu horiek, ezinbestean lursail horiek atseden hartzen utzi beharrean. Patataren balioa % 41,4 hazi zen, barazkiena % 11,8, erremolatxarena % 10,6 eta beste industria-labore batzuena % 8,9. Frutaren balioa % 0,5 baino ez zen hazi, eta zerealen eta mahastien balioak -% 18,2 eta -% 10,4 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

Tonajeari dagokionez, % 52 hazi ziren lekaledunak, % 22,9 patatak, -% 25,6 jaitsi zen erremolatxa (jaitsiera handiko hamarkada bat kateatu zuen), -% 42 beste industria-labore batzuk, -% 6,1 mahastiak, +% 3,8 hazi ziren zerealak (2022ko jaitsiera oso gutxi berreskuratuta), % 4 barazkiak eta % 2 fruta. Prezioei lotuta, erremolatxaren prezioa asko igo zen, % 48,2. Aldiz, beste industria-labore batzuk (-% 31,1) eta zerealak (-% 21,1) nabarmen merkatu ziren. Barazkiak % 7,5 garestitu ziren, eta patatak % 15. Eta aldakuntza txikiagoak izan zituzten lekaledunek (-% 5,8), mahastiak (-% 4,5, baina maila

altuan mantendu zen) eta frutak (-% 1,5). Baliteke fruta eta barazkiak tona kopurua berreskuratzeko fasearen hasieran egotea.

Abeltzaintzaren azpisektorean, hamarkada hauetako bilakaera nahiko laua izan da orokorrean, 2022ko jauzi handira arte. Esnekien prezioen gorakada eta oilo-arrautzen garestitze handia izan ziren jauzi garrantzitsu horren eragile nagusiak. Produktu horren balioak ez zuen pixkanakako beheranzko presioa jasaten (esnearen kasuan gertatzen zen hori) baina aurreko bosturtekoetan hazkunde oso txikiak izan zituen. Behi-haragia hirugarren postuan geratu zen 2023an, abeltzaintzako produktuen artean. Dena den, aurreko urtean hasitako suspertzea finkatu zuen. Produktu horrek goranzko fase argia izan zuen (2010-2014), baina 2014 eta 2021 artean galdu egin zuen hazkunde hori.

Animalia-ekoizpenaren % 2,6ko hazkundea, batez ere, arrautzen inoizko hazkunderik handienean (% 19,2) eta behi-haragiaren % 5,1eko suspertzean oinarritu zen. Izan ere, beste kategoria batzuek behera egin zuten: ardi-haragia (-% 5,8), txerrikia (-% 20,6; aurreko urteko hazkunde handia zuzendu zuen), behi-esnea (-% 2,9; bigarren urtez egin zuen behera, ekitaldi askotan zehar egonkor mantendu ondoren) eta ardi-esnea (-% 7,8; urte asko daramatza behera egiten). Prezioei dagokienez, gorakadak orokorrak izan ziren. Txerrikiaren prezioa igo zen gehien (+% 40,5), baina EAEn ez zuen beste eremu batzuetan bezainbesteko inpakturik izan, presentzia txikiagoa duelako bertan. Behi-esnea % 21,4 garestitu ziren; aurreko hamarkadetan pentsaezina zitekeen ehuneko hori. Arrautzen prezioa % 18,2 igo zen, ardi-esnearena % 15,4, behi-haragiarena % 10 eta ardi-haragiarena % 9. Hala, azpisektoreko prezioak % 16,6 hazi ziren.

**29. grafikoa** **Balio erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura**

*(M euro)*




*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

**Bilakaera Nafarroan**

Nafarroan ere eragina izan zuen egoera nahasiak, eta hori erakusten dute 2023. urteari buruz eskuragarri dauden datuetako batzuek. Dena den, argitaratzen diren datuak ez dira Estatu mailan aipatu ditugunen baliokideak. Momentuz, kantitateen, prezioen edo balioaren bilakaera berreraiki egin behar dira, zeharka, datu mikroetan oinarrituta. Datu horiei bai, hileroko jarraipena egiten die Nafarroako Gobernuaren mendeko buletinak. Nekazaritza- eta abeltzaintza-azpisektoreei buruzko kapituluetan sakonago aztertuko ditugu, baina adierazle batzuk aurreratuko ditugu hemen.

Estatuan, nekazaritzako Balio Erantsi Gordinak honako bilakaera hau izan zuen, Ministerioaren arabera: 2020an -% 0,4, 2021ean +% 8,9, 2022an -% 3,5 eta 2023an +% 13,6. Nafarroan, Foru Gobernuaren hiru hilean behingo kontabilitate ekonomikoaren datuak aintzat hartuta, honako hauek izan ziren ehunekoak: -% 0,1, +% 0,9, +% 5,2 eta % 11,7. Hau da, erresilientzia eta egonkortasun handiagoak erakutsi ditu sektoreak urterik zailenetan. 4 ekitaldi horietan, Nafarroako ekonomiaren BEG orokorrak -% 7,5eko jaitsiera izan zuen pandemiaren zero urtean, % 8,6ko hazkundea 2021ean, % 9,6koa 2022an eta % 6koa 2023an. Hortaz, sektorearen portaera espezifikoa ez zen ziklikoa izan. Gaur egun, % 2,8ko pisua du Nafarroako ekonomian.

Azter dezakegun beste adierazle bat prezioena da; egungo egoeran, garrantzi berezia du adierazle horrek. Hemen, deigarria da nekazaritzako buletinak geldialdia kalkulatu duela landare-adarrarentzat. Hori ez dator bat Estatuko datuekin.

Ondorioz, interesgarria litzateke datua kategorien arabera berrikustea. Nafarroan, prezioak % 5,5 igo zirela kalkulatzen da (Estatuan % 13,1). Landare-adarrean -% 4,3 egin zuten behera: -% 22,2 zerealetan (Estatuan -% 26,2), -% 2,2 lekaledunetan, +% 0,2 patatetan (Estatuko % 15,5eko igoeratik oso urrun), -% 23,5 industria-laboreetan (Estatuan -% 16,8), +% 11,5 bazkan (Estatuko % 33,3ko igoera baino askoz gutxiago), % 1,6 frutan (Estatuko % 15,8tik urrun), -% 16,9 fruitu lehorretan, +% 16 mahastian (Estatuko % 5,9ko igoera baino handiagoa) eta +% 27,5 kategoria nagusian, barazkien kategorian; kasu honetan ere, Estatuko % 12,5eko igoera baino handiagoa izan zen. Basogintzan % 34,3 igo ziren prezioak, eta aurreko urteko igoera are handiagoari batu zitzaion. Zalantzarik gabe, barazkien kotizazioa handitu ahal izatea izan zen daturik nabarmenena. Nekazaritzari buruzko kapituluan sakonago aztertuko ditugu horien prezioak.

Nafarroako prezio-indizeen epe luzeagoko ikuspegitik, azken biurtekoan zerealen eta bazken prezioak asko igo zirela ikus daiteke, ordura arte egonkor mantendu ondoren. Zerealak, orain, gelditu egin dira bat-batean (industria-laboreen antzeko patroiarekin) eta bazkek igotzen jarraitu dute. Barazkien azelerazioa ere nabarmena izan zen urte horretan, aurreko urteetako datuekin alderatuta. Mahastiak, patatak edo fruitu lehorrak

egonkorrago mantendu ziren epe luzean, eta frutek gora egin zuten apur bat azken hiru urteetan.

Animalia-adarrari dagokionez, buletinaren arabera, % 20,4 garestitu zen azpisektore osoa. Kasu honetan, bultzada handiena izan zuten produktuak Estatukoen berdinak izan ziren. Txerrikia % 26,8 garestitu zen Nafarroan (Estatuan % 15), esnea % 26,5 (Estatuan gutxiago, % 21,7) eta arrautzak % 21,4 (Estatuan % 30,9). Ganadu biziaren prezioak are gehiago hazi ziren, % 41,1. Eta askoz ere gutxiago hazi ziren honako hauek: behi-azienda % 10,2 (Estatuan % 3,8 bakarrik), ahuntz-azienda (% 12,4) eta ardi-azienda (% 7,3). Aldiz, ardi- eta ahuntz-aziendaren balioa, biak batera aintzat hartuta, -% 5,8 murriztu zen Estatuan. Azkenik, untxiak aipatu behar dira (+% 1,4). Hegaztien prezioa, berriz, egonkor mantendu zen (Estatuan % 6,5 garestitu zen). Epe luzeko ikuspegitik begiratuta, txerrikiaren, esnearen eta arrautzen prezioen gorakada handiak eta ganadu biziaren edo ardi-aziendaren prezioen gorakada aurreko urteko igoerei batu zitzaizkiela ikusten da. Igoera horiek biurteko honi dagozkio, lehenago geldi baitzeuden. Hortaz, lorpen handia da Nafarroako etxaldeek pairatzen dituzten kostu altuak produktu horietan islatu ahal izatea, bigarren urtez.

#### Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

Bi urteko inflazioaren eragina berehala ikusten da kanpo-merkataritzaren adierazlean ere. Dena den, zalantzarik gabe, azpisektoreen dinamismo handiak eragina du horretan. Nafarroaren kasuan, dinamismo hori ezaugarri argia zen aspalditxotik, eta EAEn azkenaldian hasi da indartzen. Landare-, animalia- eta industria-azpisektoreen inportazioak eta esportazioak bereizten ditu analisi honek, baita hiru horien batura ere. Modu horretan, bi lurraldeetako baterako balantza ere eraiki daiteke. Joan den hamarkadatik, bi erkidegoen arteko aldeak handiak dira: EAEn, landare-azpisektorearen balantza inportatzailea izan zen, eta Nafarroan esportatzailea. Abeltzaintzaren kasuan, Nafarroan txikia izan zen balantza, irteerak eta sarrerak antzekoak zirelako; aldiz, EAEn negatiboa izan zen, gehiago inportatu zuelako esportatu baino. EAEko abeltzaintza-adarraren defizita egonkor mantendu zen, eta Nafarroakoaren suberabitak handitzen jarraitu zuen.

**162. koadroa** **Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria**

*(M euro)*

| Muga-zerga atala | Eremua | Esportazioak 2022 | Esportazioak 2023 | Inportazioak 2022 | Inportazioak 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak | EAE | 357,6 | 396,6 | 520,2 | 559,6 |
| | Nafarroa | 308,3 | 332,8 | 221,6 | 218,8 |
| | Euskal Herria | 665,9 | 729,4 | 741,8 | 778,4 |
| Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak | EAE | 658,4 | 658,6 | 1.317,3 | 1.464,8 |
| | Nafarroa | 571,0 | 585,2 | 392,7 | 538,1 |
| | Euskal Herria | 1.229,4 | 1.243,8 | 1.710,0 | 2.002,9 |
| Elikagaien industrietako produktuak | EAE | 996,5 | 1.015,4 | 569,7 | 658,5 |
| | Nafarroa | 656,6 | 726,3 | 251,9 | 249,0 |
| | Euskal Herria | 1.653,1 | 1.741,7 | 821,6 | 907,5 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorea | EAE | 2.012,5 | 2.070,7 | 2.407,1 | 2.682,9 |
| | Nafarroa | 1.535,9 | 1.644,3 | 866,2 | 1.005,9 |
| | Euskal Herria | 3.548,4 | 3.715,0 | 3.273,3 | 3.688,8 |
| Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio-inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren % | EAE | 6,2 | 6,4 | 8,2 | 9,1 |
| | Nafarroa | 14,4 | 15,4 | 11,9 | 13,8 |
| | Euskal Herria | 8,2 | 8,6 | 8,9 | 10,1 |

*turria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.*

Aldi horretan, landareen inportazioen hazkunde-erritmoa Nafarroan baino handiagoa izan zen EAEn, eta azken biurtekoan asko hazi zen. Baina berritasuna zera da, 2022 eta 2023an Nafarroako landareen inportazioa ere ezohiko moduan hazten hasi zela –baina ez EAEn bezainbeste–. Datorren urtean erritmo horrek jarraituko balu, baliteke lurralde eta azpisektore horretan balantza defizitarioa izatea. Era berean, 2023an animalia– eta industria-adarretako inportazioak asko hazten hasi ziren EAEn; Nafarroan ez da horrelakorik gertatu, oraingoz. Aitzitik, landare-adarraren eta industria-adarraren esportazioek EAEn aurreko urteetan hazkunde handiak izan bazituzten ere, 2023an gelditu egin ziren.

Nafarroan, landare-adarraren inportazioak eta produktu prozesatuen esportazioak izan zituzten jauzirik handienak. Baina, batez ere, lehenengoak. Izan ere, aurreko urteko atzerapenaren zuzenketa izan zen bigarrena, funtsean, eta jarraipena eman zion etengabeko igoeren ibilbideari. Landare-adarraren inportazioen gorakadak jarraitu egin zuen: 2021ean 650 milioi, eta 2023an 1.000 milioi baino gehiago.  Eta, kasu honetan, oso lagungarria da Coyuntura Agraria-ren buletina. Izan ere, Nafarroako inportazioak zehazten ditu, hilabetez hilabete, eta ondorioa argia da: igoeraren zatirik handiena zerealekin eta produktu oleaginosoekin lotuta dago; horietako batzuk dira ekilorea eta haren olioak, besteak beste. Nafarroako elikagaien sektoreak kanpoko lehengai merkeagoetara jo zuen. Hala, landare-adarraren balantza asko murriztu zen, eta animalia-adarraren balantza baino txikiagoa izan zen; halere, positiboa izaten jarraitu zuen. Aldaketa handi

horren ondorioz, erkidegoko nekazaritzako elikagaien kanpo-balantza positiboaren zati bat galdu zen.

Epe luzeko datuei begiratuta, nekazaritzako elikagaien inportazioek gorabehera handiagoak izan zituzten esportazioek baino, goranzko joeraren barruan, eta gutxi gorabehera modu berdinean banatuta zeuden hiru azpisektoreen artean. Esportazioek, duela hamarkada batetik, hazkunde-erritmo oso jarraitua zuten, nahiko homogeneoa 3 azpisektoreetan. Dena den, esportazio horretan askoz ere parte-hartze txikiagoa du animalia-adarrak. Orain, egoera aldatu egin da, inportazioen gorakada horrekin. Datozen urteetan ikusi egin beharko da gorakada egiturazko bilakatzen den.

### Biztanleria okupatua

Kapitulu honetan aztertu ditugun adierazleei dagokienez, Euskal Herriko 4 lurraldeetako datuak eta Estatuko datuak 2020koen oso antzekoak izan ziren, Nafarroan ohi baino datu baxuagoa (2022) edo Bizkaian ohi baino datu altuagoak (2021 eta 2022) izan ondoren.

**163. koadroa Enplegua lehen sektorean***

*(m pertsona)*

| Urtea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Nafarroa | Euskal Herria | Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2013 | 4,6 | 7,6 | 3,2 | 15,4 | 15,5 | 30,9 | 753,1 |
| 2014 | 3,0 | 6,2 | 4,4 | 13,6 | 13,4 | 27,0 | 739,3 |
| 2015 | 1,8 | 6,2 | 2,5 | 10,5 | 9,4 | 19,9 | 740,4 |
| 2016 | 3,7 | 5,4 | 1,9 | 11,0 | 9,8 | 20,8 | 760,2 |
| 2017 | 3,8 | 7,7 | 3,8 | 15,3 | 10,1 | 25,4 | 832,6 |
| 2018 | 3,2 | 2,9 | 2,8 | 8,9 | 14,2 | 23,1 | 822,5 |
| 2019 | 3,4 | 4,2 | 3,4 | 11,0 | 12,5 | 23,5 | 809,3 |
| 2020 | 3,6 | 2,2 | 2,6 | 8,4 | 9,6 | 18,0 | 763,4 |
| 2021 | 1,3 | 6,7 | 1,4 | 9,4 | 9,2 | 18,6 | 811,1 |
| 2022 | 2,0 | 6,2 | 2,0 | 10,2 | 6,9 | 17,1 | 789,3 |
| 2023 | 2,6 | 2,7 | 3,5 | 8,8 | 9,8 | 18,6 | 749,7 |

*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.*
*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.*

Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestak hiru hilean behingo datua eskaintzen du, lurralde bakoitzean nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan lan egiten duten pertsonen kopuruari buruz. Estatistika honetan, urtearen erdiko datua erregistratu izan dugu. Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen ekitaldi bakoitzeko une puntual baten argazkia erakusten du. Sektore hori, jakina den moduan, hainbat azpisektorek eta jarduerak osatzen dute. Gaur egun, gero eta zailagoa da labore bakoitza biltzeko une egokiena zein izango den aurreikustea (horretarako ohikoa izaten da sasoikako langileak kontratatzea). Egoera horretan, ulergarria da tamaina txikiko

laginetan —Estatuarekin alderatuta— gorabehera handiak izatea, adibidez, Nafarroako edo EAEko lurralde historikoetako laginetan.

Aipatu dugun moduan, 2022ko Nafarroako datua ez zen ohikoa izan, ziur asko zirkunstantzia horietakoren batengatik. Hala, adierazlea 2020ko eta 2021eko antzeko mailara itzuli zen. Nafarroak 2023ko ekainean eskuratu zuen datua 2019az geroztik hiruhileko horretan eskuratutako daturik altuena izan zen. Espainiak, berriz, 2015az geroztiko zifrarik onena lortu zuen. Aitzitik, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aurreko hamarkadako batezbestekoetara hurbildu zen datua. Bizkaian, Nafarroan eta Estatuan, nolabaiteko joerak ikus daitezke (apur bat beheranzkoak), gorabehera handien testuinguru horretan.

**30. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean***

*(m pertsona)*




*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.*

*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.*

# 2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA

EBren Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategiko berriaren lehenengo aplikazio-urteak markatu zuen nekazaritza-azpisektorea 2023an. Hark arautzen du azpisektorea eta gero eta eragin handiagoa du. 2019an hasitako bost urteko agintaldian zehar estatu kideak koordinatu dituen Europako Batzordeak eginak zituen prestaketak aurreko urteetan, aldaketa handiak egiteko, urte horiek salbuespenezkoak izan baziren ere; batetik, 2020an hasitako Covid-19arengatik, eta, bestetik, 2022an hasitako Ukrainako gerragatik. Bi gertakari horiek eragin handia izan zuten eta Batasunaren elikadura-ereduko landare arloan gertatzen ari diren eraldaketa erraldoiak azeleratu zituzten.

Europak kalitate altuko elikadura-hornidura ziurtatu nahi du, eta ingurumenarekin, paisaiarekin eta landa-inguruneko gizarte-ehunaren egiturarekin bateragarri egin nahi du. Horretarako, nekazaritza diruz laguntzen du eta oso modu zorrotzean kontrolatzen du, haren merkatua modu estrategikoan diseinatuta, baina munduko gainerako herrialdeekin salerosketan aritzeari utzi gabe. Irizpideak bateratu nahi ditu eta berdintasunez aplikatu nahi dizkie askotariko beharrak eta arazoak dituzten azpisektoreei, EBko lurraldean askotariko errealitateak baitaude. Une nahasia da oraingoa, osasun-krisiez eta krisi geopolitikoez gain ziurgabetasun meteorologikoa baitago. Hala, aldaketa klimatikoa gero eta zailagoa da aurreikusten.

Hori dela eta, zaila da baldintzapean bete beharreko arau komun batzuk antolatzea, behar adinako jasangarritasun ekonomikoa mantenduz, laguntzak ustiategi guztietara iritsi ahal izateko. Ustiategi gehienek familiaren jabetzako ustiategi txikiak izaten jarraitzen dute. Hori ezohiko protagonismo politikoa ematen ari zaio azpisektoreari, lurralde eta sektore mailako interes asko baitaude mahai gainean, oso konplexua den eztabaidan. Ahots asko hasi ziren 2023an aldaketak eta malgutasuna eskatzen; bereziki, hurrengo urterako aurreikusitako Europako ziklo politiko berriari begira.

Kausa eta efektuen kate berezi horrek banakako laboreei eragiten die, maila lokalean; kapitulu honetan aztertuko ditugu horiek. Eta, era berean, kategoria orokorrei ere eragiten die, lehen sektoreko panorama orokorraren baitan. Covid-19aren pandemiatik eratorritako murrizketek 2020. eta 2021. urteei eragin zieten, batez ere, eta hornidura-kateko eragileen elikadura-ohiturak eta ohitura logistikoak aldatu zituzten. Ezohiko baldintza horiek lasaitzen hasi zirenean, gerra-gatazka batek berriz ere astindu zituen nekazaritza arloko oinarrizko merkatuak. Izan ere, eremu kritikoan gertatu zen inbasio hura, eta hainbat produkturen (adibidez, zerealak edo landare oleaginosoak) eskaintzari eta eskariari eragin zien.

Merkatu energetikoak nahastu egin ziren denbora batez, eta horrek inpaktu handia izan zuen 2022ko kostu eta prezioetan. 2023an, oraindik ere, horren guztiaren albo-kalteak

nabari ziren, aipatutako epe luzeko eraldaketen eraginekin nahastuta. Aldi berean, ekoizpen batzuk bide normalizatura itzuli zirela adierazten dute aldakuntza batzuek.

Euskal Herrian ere eragina izaten ari da aldaketa klimatikoa. Hala, azpisektoreari beti eragin izan dion aldakortasuna areagotzen ari da, eta, ondorioz, beharrezkoa da inprobisatzea eta eskaintza epe egokienetan merkaturatzeko taktikak erabiltzea. Tenperaturen, eguzki-aldien eta euri-aldien ohiko patroiak gero eta aldatuago egoteak —ingurune biologikoaren, animalia-ingurunearen eta ingurune fungikoaren ekintza gehitu behar zaie horiei, izurrien gisako nahasmenduak eragiten baitituzte— gehiago eragiten die labore batzuei, beste batzuei baino. Hala, egokitzapen teknikoak egiten ari dira, hala nola ureztatzea eta beste batzuk, errealitate berri honen kalteak gutxitzeko, baina, hala ere, kategoria eta produktu guztiak ez dira berdin egokitzen horietara. Produktu batzuek, ikusiko dugun moduan, ez dute lortzen etengabeko beheranzko ibilbideari buelta ematerik. Dena den, beste eskualde batzuetako kanpo-lehia ere izan daiteke beherakada horren eragilea.

Kasu batzuetan, elikadura-industriako faktore teknologikoek eta irteera komertzial berriek, edo kanpoko merkatuetan agertzen diren aukerek, produktu tradizional baten errendimendua eta errentagarritasuna hobetzea eragin dezakete. Hortaz, aldaketak ez dira negatiboak izaten ari kasu guztietan. Hain zuzen ere, gure eremuko landaketa tradizional gehienek euren espazioa izaten jarraitzen dute, neurri handi batean haien izen onagatik eta kalitateagatik (kasu batzuetan, gero eta handiagoa). Dena den, banaketa-bideak aldian behin aldatu eta berritu behar izaten dituzte, eta joera gastronomiko eta ekologiko berrietara egokitu behar izaten dute. Kontsumitzaileari egiten zaion produktuaren amaierako aurkezpena eta besteengandik bereiztea funtsezkoak dira prezioei eusteko eta kostu handiak prezioei egozteko; adibidez, energiaren edo ongarrien kostuak.

Administrazioak, era berean, gero eta ahalegin handiagoa egiten ari dira giza baliabideei eta antolaketarako baliabideei dagokienez, belaunaldi-txanda falta izatearen arazoari aurre egiteko. Izan ere, arazo horren aurrean, ez dute nahi irtenbide bakarra industrializazioa eta ekoizpena enpresa handi gutxi batzuetan kontzentratzea izan dadin. Enpresa handi horiek, aldi berean, gai izan daitezke kanpo-merkatuko lehiakortasunak edo beste lurralde batzuetako ustiategien lehiakortasunak eragindako gorabeherei aurre egiteko.

## 2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

Tonajeak, kostuek eta prezioek urte arteko aldakuntza gero eta handiagoak dituzte, aurrez aipatutako guztiagatik. Lurraldearen erabileraren bilakaera geldoagoa da, baina hautematen da dagoeneko, azalera-adierazleek erakusten dutenez. Kategorien

araberako azalera eta tonajeek epe luzean duten bilakaera nabarmenagoa da. 2023an berritasun berezi bat izan zen kategoria horietako batean: lekaledunen tonajea. Kategoria horren barruan produktu proteaginosoak daude, hala nola ilar lehorra, proteina asko duena. EBren araudi berriak ilar lehorraren landaketa bultzatzen du alternatiba gisa, lursailak atseden hartzen duen bitartean ezer landatu gabe ez uzteko, lurzorua aberasteko gaitasuna baitu landare horrek.

Nafarroan, azaleraren urte arteko aldakuntzei dagokienez, lekaledunak nabarmendu ziren, % 168,6 hazi baitzen horien azalera. Aurreko seiurtekoan, berriz, hedaduraren erdia baino gehiago galdu zuen. Gainerako kategoriak askoz ere gutxiago aldatu ziren: -% 3,1 zerealak, -% 9,3 tuberkuluak, +% 0,5 industria-laboreak, -% 3,9 bazkak, +% 0,9 barazkiak, -% 2,6 labore zurkarak, -% 10,3 fruta-arbolak, -% 2,3 mahastiak eta +% 2,6 olibadiak. Hala, guztizkoa -% 0,2 murriztu zen, eta argi ikusi zen zer kategoriak zuen errentagarritasun handiena. Tonajeari dagokionez, lekaledunak % 142,5 hazi ziren eta hazkunde handiak izan zituzten olibadiek (% 43,7), industria-laboreek (% 38,6) eta fruta-arbolek (% 34,1); azken bi kasu horietan, erremolatxaren eta sagarraren zifrak normalizatu egin zirelako, batez ere. Labore zurkaren guztizkoa % 11,2 hazi zen, eta beherakadak izan zituzten zerealek (-% 13), tuberkuluek (-% 1,7), bazkak (-% 12,9), barazkiek (-% 8,7), mahastiek (-% 1,8) eta kategorien guztizkoak (-% 9,3). Urte batetik bestera 115.000 tona galdu zituzten barazkiek, eta zerbait gutxiago zerealek. Bi jaitsiera horiek, gutxi gorabehera, kategorien guztizkoak 2023an izandako atzerapen garbiaren baliokideak izan ziren.

**164. koadroa Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak***

*(m Tm)*

| Produktua | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 | % Euskal Herria / Espainia 2023 |
|---|---|---|---|---|
| Zerealak | | | | |
| – Garia | 438,7 | 427,0 | -2,7 | 10,7 |
| – Garagarra | 324,4 | 310,2 | -4,4 | 8,2 |
| – Oloa | 65,6 | 67,8 | 3,3 | 14,7 |
| – Artoa | 185,0 | 125,4 | -32,2 | 4,3 |
| Bazka-laboreak | | | | |
| – Artoa | 227,9 | 240,4 | 5,5 | 4,6 |
| – Alpapa | 209,8 | 187,3 | -10,7 | 2,8 |
| Barazkiak | | | | |
| – Zainzuria | 6,9 | 6,5 | -4,9 | 13,3 |
| – Letxuga | 21,7 | 19,5 | -10,1 | 2,1 |
| – Espinaka | 20,1 | 20,2 | 0,2 | 25,9 |
| – Tomatea | 186,4 | 164,3 | -11,9 | 4,7 |
| – Piperra | 39,4 | 29,2 | -25,9 | 2,4 |
| – Orburua | 9,5 | 8,4 | -11,8 | 4,4 |
| – Azalorea | 25,4 | 18,8 | -26,0 | 12,1 |
| – Brokolia | 70,4 | 71,4 | 1,4 | 14,2 |
| – Tipula | 23,9 | 23,4 | -2,1 | 2,0 |
| – Leka | 11,9 | 15,7 | 31,6 | 12,6 |
| – Ilar berdea | 18,3 | 18,7 | 2,0 | 15,0 |
| Fruta-arbolak | | | | |
| – Sagardo-sagarra | 9,0 | 11,3 | 24,9 | 10,9 |
| – Mahai-sagarra | 9,2 | 12,1 | 31,0 | 2,7 |
| – Udarea | 12,9 | 13,7 | 5,7 | 5,0 |
| – Mertxika | 6,4 | 6,8 | 6,3 | 4,6 |
| – Arbendola | 2,8 | 3,4 | 21,1 | 0,8 |
| Ardoa eta muztioa (m Hl) | 1.394,5 | 1.294,9 | -7,1 | 3,2 |
| Patata | 54,1 | 62,2 | 14,8 | 3,1 |
| Azukre-erremolatxa | 109,5 | 113,2 | -6,9 | 4,6 |

*(*): Balioespenak. Iturriak: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

EAEn, laboreen jarraipena egiteko modua ezberdina da, ez baitago erabilera publikoko hileroko buletinik. Dena den, eskuragarri daude landareen guztizkoaren aldakuntzaren kalkuluak, kantitateei, prezioei eta balio monetarioari dagokienez. Kalkulu horiek zehatzak dira, kategoria bakoitzean aintzat hartutako labore mota bakoitzarekin lotuta. Aldiz, Nafarroan, hektarea eta tona kopuruaren aldakuntzak produktu nagusien multzoei dagozkie.

2023an, Eusko Jaurlaritzako institutu eskudunak honako urte arteko aldakuntza hauek erregistratu zituen: -% 1,9 nekazaritzako guztizko diru-sarreretan, -% 18,2 zerealetan, % 43,2ko hazkundea lekaledunetan, % 41,4 tuberkuluetan (patata), % 10,6 erremolatxan, % 8,9 beste industria-labore batzuetan, % 11,8 barazkietan, % 0,5 frutetan, -% 10,4 mahastian eta -% 5,6 "beste batzuk" kapituluan.



LABORAL kutxa

Aldakuntza horiek, aldi berean, kantitateetan eta prezioetan izandako aldakuntzen ondorioak izan ziren. Tonajeari dagokionez, honako aldakuntza hauek izan ziren: % 2,2ko hazkundea nekazaritzako ekoizpenean, % 3,8 zerealetan, % 52 lekaledunetan, % 22,9 patatetan, -% 25,6ko jaitsiera erremolatxan, -% 42 beste industria-labore batzuetan, % 4ko hazkundea barazkietan, % 2 frutetan, -% 6,1 mahastian eta -% 9,4 ekoizpen txikiagoetan. Prezioen aldakuntzak kapituluaren amaieran aipatuko ditugu.

Kantitateen aldakuntza horiek epe luzeko ikuspegiarekin aztertuta (urtero ehunekoa eskuratzen da, datu garbia ezagutu gabe), nabarmentzekoa da ohikoa dela urte batetik bestera gorabeherak konpentsatzeko joera, kategoria askotan. Dena den, kategoria batzuetan, hala nola erremolatxaren edo “beste batzuk” kategorietan, epe luzeko beheranzko joera argia ikusten da, eta pisua galtzen ari dira.

Ondorioz, kategoria bakoitzaren guztizko diru-sarrerak ere baloratu daitezke; kasu honetan, eskuragarri daude EAEko balio garbiak, eurotan. Hainbat joera ikusten dira. Barazkiek goranzko joera progresiboa dute; zerealek ere, gorabehera handiagoekin, goranzko joera dute epe luzean, baina bigarren urtez behera egin zuten. Mahastien kasuan, balioa egonkortu egin zen duela bi hamarkada urtero izaten zen mailaren inguruan, hazkunde handiko fase baten (2010-2018) ondoren; ondorengo biurtekoan, bat-batean konpentsatu zen hazkunde hura. Gainerako kategorien kasuan, “beste industria-labore batzuk” kategoriak azken biurtekoan izandako gorakada bakarrik nabarmentzen da, dagoeneko aipatu ditugun arrazoiak direla eta. Horrez gain, patatak aurreko hamarkadan ez bezalako urte arteko hazkundea izan zuen 2023an.

Erkidego mailako erakundeek eta Ministerioak tonajeari eta azalerari buruz bildutako datuen bidez, Euskal Herrirako agregatu bat eraiki daiteke, bi autonomia-erkidegoetako zenbatekoak batuta. Kapitulu honetako lehenengo bi tauletan ikus daiteke datuen bilketa hori.

**165. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera***

(ha)

| Produktua | 2022 | 2023 | % Δ 23/22 | % Euskal Herria / Espainia 2023 |
|---|---|---|---|---|
| Zerealak | | | | |
| – Garia | 104.089 | 100.752 | -3,2 | 5,2 |
| – Garagarra | 81.044 | 83.383 | 2,9 | 3,5 |
| – Oloa | 17.646 | 16.514 | -6,4 | 3,6 |
| – Artoa | 17.529 | 11.724 | -33,1 | 4,7 |
| Bazka-laboreak | | | | |
| – Bazka-artoa | 6.456 | 5.875 | -9,0 | 5,3 |
| – Alpapa | 5.251 | 5.556 | 5,8 | 2,5 |
| Barazkiak | | | | |
| – Zainzuria | 1.723 | 1.648 | -4,4 | 12,9 |
| – Letxuga | 973 | 943 | -3,1 | 2,9 |
| – Espinaka | 998 | 1.024 | 2,6 | 19,6 |
| – Tomatea | 2.288 | 2.665 | 16,5 | 6,2 |
| – Piperra | 1.129 | 1.153 | 2,1 | 5,4 |
| – Orburua | 986 | 696 | -29,4 | 5,6 |
| – Azalorea | 1.287 | 1.026 | -20,3 | 14,7 |
| – Brokolia | 5.530 | 5.885 | 6,4 | 17,7 |
| – Tipula | 372 | 444 | 19,4 | 2,0 |
| – Leka | 1.233 | 1.632 | 32,4 | 23,7 |
| – Ilar berdea | 3.031 | 2.879 | -5,0 | 14,8 |
| Patata | 1.870 | 1.825 | -2,4 | 2,9 |
| Azukre-erremolatxa | 1.131 | 1.292 | 14,2 | 4,8 |

*(*): Balioespenak. Iturriak: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

*Oharra: Ez ditugu sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtetik behin).*

Kapituluko lehenengo taulan, EAEko eta Nafarroako produktu bakoitzaren tonajearen agregatua jasotzen zen. Bi digituko urte arteko hazkundeen artean, honakoak nabarmendu ziren: leka (% 31,6), sagardo-sagarra (% 24,9), mahai-sagarra (% 31), arbendola (% 21,1) eta patata (% 14,8). Aldiz, honakoen pisua jaitsi zen gehien: artoa (-% 32,2), piperra (-% 25,9), azalorea (-% 26) eta beste batzuk, % 10eko jaitsiera baino zerbait handiagoarekin (alpapa, letxuga, tomatea edo orburua). Epe luzeko analisia eginda, nabarmendu beharrekoa da finkatu egin zela garagarraren edo orburuaren jaitsiera, baita alpaparena ere (askoz ibilbide luzeagokoa). Aldiz, berritasuna izan zen artoaren kasua, goranzko joera izan baitzuen ordura arte. Era berean, finkatu egin ziren azalorearen eta ilar berdearen beherakada handiak ere, aurreko hamarkadan igoera handiak izan ondoren. Fruten artean, mahai-sagarraren, udarearen eta mertxikaren hazkunde apalek ez zuten hautsi epe luzeko beheranzko joera. Aldiz, gorantz jarraitu zuen sagardo-sagarraren erabilerak, duela urte batzuetatik finkatutako joerari jarraituz. Sagardo-sagarraren, patataren eta erremolatxaren ekoizpena handiagoa izan zen EAEn, Foru Erkidegoan baino; oso produktu gutxirekin gertatzen da hori.



LABORAL kutxa

Hektarea kopuruari erreparatuta, bigarren taularen arabera, hazkunde handienak honakoak izan ziren 2023an: leka (% 32,4), tipula (% 19,4), tomatea (% 16,5) eta erremolatxa (% 14,2). Aldiz, asko murriztu zen artoaren (-% 33,1), orburuaren (-% 29,4) eta azalorearen (-% 20,3) hedadura. Epe luzeagoko analisia eginda, 2020a bezala, 2023a ere ezohikoa izan zela esan dezakegu. Izan ere, garagarrak hektareak kendu zizkion gariari, eta artoak ezohiko beherakada izan zuen. Barazkien artean, tomateak, ekoizpen handiena duen barazkiak, goranzko joerari ekin zion berriz ere, eta hori izan zen garrantzitsuena. Era berean, deigarria da urte horretan lekak espazioa irabazi zuela, eta ilar berdeak, berriz, galdu. Beheranzko joera baieztatu zuten zainzuriak, azaloreak, orburuak eta patatak. EAEk eta Nafarroak, biek batera, Estatuaren gainean zuten ratioari dagokionez, berriz ere gora egin zuen lekak, gelditu egin zen espinakaren eta ilar berdearen ehuneko gorakada, eta pisua galtzen jarraitu zuen zainzuriak. Tonajearekin lotuta, espinakak kuota irabazten jarraitu zuen, erritmo bizian. Zainzuriak nolabaiteko goranzko joera mantendu zuen, eta Espainiarekiko pisua galtzen jarraitu zuten azaloreak eta ilarrak. Gehieneko berriak eskuratu zituzten gariak, oloak eta lekak. Aldiz, ezohiko gorakada izan zuen mertxikaren datuak, baina baliteke inguruabar koiunturalen batengatik izatea.

Adierazle horiek, aldi berean, kategoria bakoitzak erkidego bakoitzean landare-adarraren guztizkoari egiten dioten ekarpena ikusteko balio dute. EAEn, balio ekonomikoaren bidez ikus dezakegu: mahastia izan zen lehena, % 30,9rekin, eta barazkiak (% 28,3) eta zerealak (% 18,3) izan ziren hurrengoak. Distantzia handira, frutak (% 6,7), patata (% 6,1), beste batzuk (% 3,6), lekaledunak (% 2,5), erremolatxa ez diren industria-laboreak (% 2,2) eta erremolatxa (% 1,5) kokatu ziren. Azken hori, epe luzeko ikuspegiarekin, pisua galtzen joan zen. Aldiz, zerealek izan zuten irabazirik handiena epe luzean. Estatuan, landareen azpisektoreko diru-sarreren % 36,3 barazkiei zegokien 2023an, % 31,8 frutei, % 8,2 zerealei, % 7,8 bazka-laboreei, % 6,9 oliba-olioari, % 3,1 ardoari, % 3 industria-laboreei eta % 2,5 patatari. Alde horretatik, mendeko gehieneko ratiora iritsi ziren barazkiak 2023an, eta gutxienekora zerealak, ekitaldi bakar batean pisuaren erdia baino gehiago galdu baitzuten. Nafarroan, eskura dugu tonajearen araberako osaera. Dena den, kasu honetan ere, kategoriak ezberdinak dira. Bazka-laboreek izan zuten pisurik handiena, nekazaritzako buletinak aintzat hartzen dituen produktuen guztizko pisuaren % 34,6 baitzegokien. Eta honakoak izan ziren hurrengoak: zerealak (% 33,1), barazkiak (% 21), mahastia (% 4,5), industria-laboreak (% 2,8), fruta-arbolak (% 1,7), olibadiak (% 1,3), lekaledunak (% 0,6) eta patata (% 0,4).

Hirugarren taulan hektareei eta tonajeei buruzko datuak erabiltzen dira, errendimenduarekin lotutako ratioak kalkulatzeko. Gure eremuan, beherakaden artean, honakoak nabarmendu ziren: -% 26,4 piperra, -% 24,3 tomatea, -% 17,9 tipula eta -% 15,7 alpapa. Eta hobekuntzen artean, orburua (% 25), patata (% 20,2), bazka-artoa (% 16) eta oloa (% 11,9) nabarmendu ziren. Epe luzean, nabarmentzekoa da tomatearen, baliorik altuena duen barazkiaren, beheranzko joera. Eta tipulak ere, bigarren urtez, behera egin zuen. Estatuari dagokion taulan ere beherakadak gailendu ziren, batez ere, zerealetan:

-% 44,5 oloa, -% 42,4 garagarra, -% 29,1 garia, -% 17 piperra, -% 13,9 espinakak eta -% 11 brokolia. Aldiz, hobera egin zuten bazka-artoak (% 34,2) eta zainzuriak (% 11,6). Testuinguru horretan, bereziki gogorrak izan ziren bazka-artoaren eta piperraren joera-aldaketak. Hala, bi bilakaerak alderatuta, nabarmentzekoa da zerealen ekoizpenaren urteko balantzea hobea izan zela Euskal Herrian, Estatuan baino.

**166. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak***

*(Tm/ha)*

| Produktua | Euskal Herria | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Zerealak | | | | |
| – Garia | 4,2 | 4,2 | 2,9 | 2,0 |
| – Garagarra | 4,0 | 3,7 | 2,8 | 1,6 |
| – Oloa | 3,7 | 4,1 | 1,8 | 1,0 |
| – Artoa | 10,6 | 10,7 | 11,4 | 11,7 |
| Bazka-laboreak | | | | |
| – Bazka-artoa | 35,3 | 40,9 | 35,3 | 47,3 |
| – Alpapa | 40,0 | 33,7 | 33,7 | 30,8 |
| Barazkiak | | | | |
| – Zainzuria | 4,0 | 4,0 | 3,4 | 3,8 |
| – Letxuga | 22,0 | 20,7 | 28,9 | 28,2 |
| – Espinaka | 20,2 | 19,7 | 17,3 | 14,9 |
| – Tomatea | 81,4 | 61,6 | 80,2 | 81,7 |
| – Piperra | 34,5 | 25,4 | 69,8 | 58,0 |
| – Orburua | 9,6 | 12,0 | 13,8 | 15,1 |
| – Azalorea | 19,8 | 18,3 | 23,4 | 22,3 |
| – Brokolia | 12,7 | 12,1 | 17,0 | 15,1 |
| – Tipula | 64,2 | 52,7 | 52,9 | 50,9 |
| – Leka | 9,7 | 9,6 | 18,4 | 18,1 |
| – Ilar berdea | 6,1 | 6,5 | 6,5 | 6,4 |
| Patata | 28,3 | 34,1 | 31,3 | 31,9 |
| Azukre-erremolatxa | 95,6 | 87,6 | 90,9 | 91,5 |

*(*): Balioespenak. Iturriak: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

## 2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

EAEn, landare-ekoizpenaren guztizkoa -% 4 merkatu zela kalkulatzen da. Zerealen ekoizpenak -% 21,1 egin zuen behera, eta lekaleenak -% 5,8. Patata % 15 garestitu zen, eta erremolatxa % 48,6. Beste industria-labore batzuek -% 31,1 egin zuten behera, barazkiek % 7,5 irabazi zuten, frutak -% 1,5 jaitsi ziren, mahastiak -% 4,5 eta beste batzuen multzoa % 4,2 igo zen.

Prezioei dagokienez, EAEk ez du kategoria bakoitzeko indize bat argitaratzen, urtez urteko aldakuntza baizik. Dena den, hori nahikoa da kategoria bakoitzak azken bi urteetan izandako joera-aldaketak ikusteko. Nazioarteko merkatu energetikoen nahasmenak eta

kostu altuen eraginak markatu zituzten bi urte horiek. Irinak eta olioak izan ziren produktu motarik kaltetuenak, eta prezioen gorakadan ikusten da hori. Izan ere, 2022an eta 2023an gora egin zuten zerealen eta beste industria-labore batzuen (barne hartzen dituzte oleaginosoak, hala nola koltza eta ekilorea) kategorietako prezioek.

2023. urtean, "ezohikotasuna" baratzera zabaldu zen, gora egin baitzuten barazkien, fruten, patataren eta erremolatxaren prezioek. Aurreko hamarkadan, berriz, horien prezioek bestelako portaera izan zuten. Merkatze fase nahiko luzeen ondoren, finkatu egin zen erremolatxaren balioaren handitzea. Gainera, urte horretan, berritasun gisa, EAEko mahastiak gora egin zuen.

**167. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*)**

| Produktua | Nekazariek jasotako prezioak (euro/100 kg) | | |
|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
| Zerealak | | | |
| – Garia | 34,83 | 26,50 | -23,9 |
| – Garagarra | 32,17 | 23,71 | -26,3 |
| – Oloa | 32,03 | 26,65 | -16,8 |
| – Artoa | 31,80 | 26,29 | -17,3 |
| Bazka-laboreak | | | |
| – Alpapa | 16,87 | 19,02 | 12,7 |
| Barazkiak | | | |
| – Zainzuria | 273,01 | 277,15 | 1,5 |
| – Aza (burua) | 31,40 | 39,9 | 27,1 |
| – Letxuga | 73,07 | 85,48 | 17,0 |
| – Espinaka | 65,18 | 63,84 | -2,1 |
| – Tomatea | 15,24 | 15,97 | 4,8 |
| – Piperra | 86,93 | 90,40 | 4,0 |
| – Orburua | 84,57 | 103,80 | 22,7 |
| – Azalorea | 46,60 | 94,10 | 101,9 |
| – Brokolia | 59,80 | 82,50 | 38,0 |
| – Tipula | 18,29 | 21,50 | 17,6 |
| – Leka | 47,16 | 49,62 | 5,2 |
| – Ilar berdea | 27,09 | 27,47 | 1,4 |
| Fruta-arbolak | | | |
| – Sagarra | 48,48 | 66,20 | 36,6 |
| – Udarea | 66,18 | 72,44 | 9,5 |
| – Mertxika | 88,71 | 70,51 | -20,5 |
| – Arbendola | 108,45 | 90,08 | -16,9 |
| Ardoa (euro/Hl) | | | |
| – Ardo gorri berria | 82,21 | 80,13 | -2,5 |
| – Ardo beltz berria | 61,28 | 69,37 | 13,2 |
| Patata (sasoi erdikoa) | 36,28 | 35,33 | -2,6 |
| Patata (berantiarra) | 35,50 | 36,00 | 1,4 |

*(*): Balioespenak. Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

Bestetik, Nafarroan hileroko jarraipena egiten diete nekazaritzako buletinak jasotzen duen produktu sorta zabalaren prezioei. Ekoizleak 100 kilogramoko jasotzen dituen euroak zenbatzen dira.

Prezioen gorakaden artean, honakoak izan ziren deigarrienak: azalorea, prezioa bikoiztuta (% 101,9), brokolia (% 38), sagarra (% 36,6), azaburua (% 27,1), orburua (% 22,7), tipula (% 17,6), letxuga (% 17), ardo gorri berria (% 13,2) eta alpapa (% 12,7); azken horrek gehienekoa eskuratu zuen berriz, eskuragarri dauden datuetan. Aldiz behera egin zuten garagarrak (-%26,3), gariak (-% 23,9), mertxikak (-% 20,9), artoak (-% 17,3), arbendolak (-% 16,9) eta oloak (-% 16,8).

Fruta-arbolen kasuan, sagarraren eta udarearen prezioen igoerak goranzko joera baten baitan kokatu ziren. Arbendolaren jaitsiera, berriz, ohiko gorabeheren parte izan zen. Aldiz, mertxikaren beherakada zuzenketa bat izan zen, aurreko urtetan asko egin baitzuen gora.

Barazkien artean, azaloreaz gain, beste batzuek ere azken 15 urteetako gehienekoak eskuratu zituzten: brokoliak, letxugak eta orburuak. Zainzuria apur bat hazi zen, baina ez zuen berrartu urte batzuk lehenago izandako sekulako igoeren bidea (2018an lortu zuen gehienekoa). Piperra 2015eko gehieneko preziotik gertu geratu zen. Eta tomateak ez zuen lortu guztiz suspertzerik, 2017an erregistratutako beherakada handiaren ondoren.



LABORAL kutxa

## 3. ABELTZAINTZA-AZPISEKTOREA

Gure inguruneko sektore tradizionaletako bat da abeltzaintza, eta sustrai sakonak ditu, paisaia naturalarekin eta giza paisaiarekin lotuta. Biztanleriak balio handia ematen dio, baina gero eta zailtasun handiagoak ditu elikagaien ekoizpena merkaturatzeko, gero eta konplexuagoa eta globalagoa baita merkatua.

Azken urteetako joera batzuen ondorioz, hobera egin dute txerrikiak eta oilo-arrautzek; lehenengoaren kasuan, ekoizpena hazi da, eta, bigarrenaren kasuan, prezioak. Beste produktu batzuek, ordea, hala nola behi-aziendarekin edo ardi-aziendarekin lotuek, presio handiak izan dituzte, eta jardueraren dimentsio orokorrak murrizten ari dira. Etxaldeko abereak elikatzeko erabiltzen dituzten landare-jatorriko produktuen kostuekiko mendekotasun handia du abeltzaintzak —beste kostu esanguratsu batzuk ere badituzte, hala nola energetikoak edo albaitaritza-kostuak—, eta horiek nahaste handiak izan dituzte pandemiaren ondorioz eta Ukrainako gerrak 2022az geroztik merkatuetan eragindako eraldaketen ondorioz.

Sektorearen egoerak oso ziurgabea izaten jarraitzen du, nahiz eta produktu giltzarri batek, behi-esneak, ekoizleak jasotako prezioa malgutzen hastea lortu zuen duela bi urte, bosturteko askotan mugitu gabe egon ondoren. Gantza duten abere-produktuek zailtasunak dituzte elikadura-agertoki berrira egokitzeko, osagai mota horiek saihesteko joera baitago —gainera, hazi egin da abeltzaintza masiboak karbono-isurpenetan duen inpaktuaren gaineko kontzientzia, edo animalien ongizatearekiko kezka etikoa—. Hori dela eta, funtsezkoa da ekoitzitakoa biztanleriari bideratzeko modua berritzea; adibidez, produktu eraldatu erakargarriagoak eskainiz, tokiko jatorriaren berri ematen duten etiketen bidez edo prozesatu osasungarri edo ekologikoen bidez.

Banatzaileak, industria, administrazioak eta ekoizleak moldatzen ari dira urtez urte, tentsioekin eta interes gurutzatuekin, gertuko eta kalitatezko hornidura egokia izaten jarraitu ahal izateko, eta dirulaguntzak oso garrantzitsuak izaten ari dira. Egungo egoera, argi eta garbi, askoz nahasiagoa da duela hamar urtekoa baino. Hortaz, interesgarria da gure inguruko adierazleen aldakuntzak produktuaren arabera edo abeltzaintza motaren arabera monitorizatzea eta interpretatzea, aurreko urteetan txosten honetan egin bezala. Horretarako, azpisektoreari babesa ematen dioten zerbitzu publikoko sailen datuak erabili izan ditugu.

Egoeraren gaineko adierazle eguneratu gehienak estatu mailakoak dira. Esaterako, badakigu Espainiako animalia-ekoizpenaren balioa % 13,3 hazi zela 2023an, kantitateen batezbestekoa -% 2,2 jaitsi zela eta prezioen batezbestekoa % 15,9 hazi zela. Haragiaren eta ganadu biziaren atalean, balioa % 9,7 hazi zen, kantitatea -% 3 jaitsi eta prezioak % 13,1 igo. Behi-haragiaren diru-sarrerak % 3,8 hazi ziren, tona kopurua -% 5,3 jaitsi zen

eta % 9,6 garestitu zen. Txerri-haragiaren kasuan, ehuneko horiek % 15, -% 3,5 eta % 19,1ekoak izan ziren; zaldi-haragiaren kasuan, % 12,3, -% 0,9 eta % 13,2koak; ardi- eta ahuntz-haragiaren kasuan, -% 5,8, -% 11,9 eta % 6,9koak; eta, hegaztien kasuan, % 6,5, % 5,2 eta % 1,2koak. Beste animalia-produktu batzuen balioa % 23,7 hazi zen, kantitatea % 0,1 eta prezioak % 23,6. Esnearen kasuan, balioa % 21,7 hazi zen (eurotan), litro kopurua -% 0,7 murriztu zen eta litro bakoitzeko prezioa (eurotan) % 22,5 garestitu zen. Oilo-arrautzen zifrak % 30,9, % 2 eta % 28,3koak izan ziren. Behera egin zuten energiarekin (-% 30,9) eta pentsuekin (-% 1,5) lotutako gastuek.

Balioaren egiturari dagokionez, Estatuko guztizko nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenaren % 42,2 zegokion animalia-ekoizpenari: haragia eta ganadua % 30,4, animalia-produktuak % 11,8 eta “beste batzuk” % 0,3. Zenbaketa horretan, behi-haragiari zegokion % 5,9, txerrikiari % 17,4, zaldi-haragiari % 0,1, ardi- eta ahuntz-haragiari % 1,8, hegaztiei % 4,9, esneari % 8, arrautzei % 3,5 eta beste produktu batzuei % 0,3. Epe luzeko analisia eginda, txerrikiak hamar urte baino gehiago daramatza etengabe hazten, gainerako produktuetatik oso urrun. Hazkunde apalagoak izaten dituzten behi-haragiak eta hegaztiek, eta ez dute aldakuntzarik beste haragi mota batzuek. Gainera, arrautzek eta esneak goranzko jauzi handia eman dute.

EAEn, gobernuko agentziaren arabera, animalia-adarraren balioa % 19,5 hazi zen 2023an, kantitateak +% 2,6 eta prezioak +% 16,6. Indize horiek, behi-haragiari aplikatuta, % 15,6, % 5,1 eta % 10ekoak izan ziren; ardi- eta ahuntz-haragian, % 2,6, -% 5,8 eta % 9; txerri-haragian, % 2,6, -% 5,8 eta % 9; behi-esnean, % 17,9, -% 2,9 eta % 21,4; arrautzetan, % 40,8, % 19,2 eta % 18,2; ardi-esnean, % 7, % 1,5 eta % 5,5; eta, beste produktu batzuetan, % 7, % 1,5 eta % 5,5.

Estatuan, honako hauek dira abere-produktu nagusiak, balioaren araberako ordenan: txerrikia, esnea eta behi-haragia. Aldiz, EAEn behi-esnea dago buruan, eta arrautzak eta behi-haragia dira hurrengoak. Nafarroan txerrikia dago buruan; batez ere, lurraldearen hegoaldean ekoizten dute. Eta hurrengoak behi-esnea eta hegazti-haragia dira.

Foru Erkidegoan, kategorien bolumen ekonomikoak geroago argitaratzen dira, baina, datu historikoei begiratuta, egitura nahiko egonkor mantentzen dela ikus daiteke. Aipatutako hiru produktuak kokatzen dira buruan, eta ardi- eta ahuntz-haragia (nahiko ongi mantentzen du bolumena Foru Erkidegoan) eta arrautzak jarraian.

Nafarroako Nekazaritza Buletinaren arabera, Nafarroan % 20,4 igo ziren animalia-adarreko prezioak: % 26,8 txerrikia, % 26,5 esnea, % 21,4 arrautzak, % 41,1 ganadu bizia, % 10,2 behi-haragia, % 12,4 ahuntz-haragia, % 7,3 ardi-haragia eta % 1,4 untxia. Hegaztiek ez zuten aldaketa esanguratsurik izan, eta bazka-laboreen prezioa % 11,5 hazi zen.

Lehen sektorearen panorama orokorrari buruzko kapituluan, kanpo-merkataritzaren testuinguruan ere aipatzen da animalia-adarra. Esan beharra dago arlo horretan merkataritza-balantza positiboa eta nolabaiteko hazkundea izaten jarraitzen duela Nafarroak, landare-adarrak bezainbeste ez izan arren. Abeltzaintzaren adarreko inportazioek gora egin dute azken biurtekoan, baina esportazioen balioa ere hazten ari da. EAEn, defizitak egonkor jarraitzen du kategoria honetan. Dena den, 2023an inportazioak asko hazten hasi ziren.

## 3.1 ABELTZAINTZA-ERROLDA

Abelburu kopuruari dagokionez, ardi-aziendaren presentzia oso handia izan da Nafarroan historikoki, EAEn baino askoz ere handiagoa. Azienda horrek beheranzko bide lineala izan zuen hamarkada batez, eta 2022an bizkortu egin zuen jaitsiera-erritmoa. 2023an, jaitsiera ohiko batezbestekora itzuli zen (-% 2,4). Txerri-aziendaren bilakaera oso ezberdina da. Txerri-aziendak beste hiru ganadu motek batera baino buru gehiago ditu. Bilakaerak jauzi handiak izan ditu, eta 2014an, 2016an eta 2021ean etxalde osoak gehitu zirela ikusten da. 2023an, lehen aldiz egin zuen behera 2018az geroztik (-% 1,8), 2022an oso gutxi hazi ondoren (% 1,6). Ardi-aziendaren kopuruak behera egin zuen hirugarren urtez (-% 1,4); dena den, azken hamarkadetan ez du murrizketa nabarmenik izan. Ahuntz-aziendak gehieneko kopurua eskuratu zuen 2022an, azken biurtekoan % 20tik gora hazi ondoren. 2023an, berriz, % 1 murriztu zen.

**168. koadroa Abeltzaintza-errolda (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)**

*(abelburuak)*

| Eremua | Urtea | Behi-azienda | Ardi-azienda | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2019 | 136.126 | 219.080 | 26.058 | 35.801 |
| | 2020 | 136.502 | 217.300 | 26.801 | 36.053 |
| | 2021 | 133.917 | 213.788 | 27.351 | 36.965 |
| | 2022 | 127.739 | 210.041 | 27.841 | 34.697 |
| | 2023 | 123.919 | 201.831 | 26.906 | 30.135 |
| Nafarroa | 2019 | 120.170 | 475.306 | 13.012 | 650.029 |
| | 2020 | 123.450 | 467.020 | 12.755 | 685.605 |
| | 2021 | 123.384 | 460.620 | 14.270 | 828.608 |
| | 2022 | 120.404 | 419.842 | 15.354 | 841.662 |
| | 2023 | 118.760 | 409.599 | 15.195 | 826.141 |
| Euskal Herria | 2019 | 256.296 | 694.386 | 39.070 | 685.830 |
| | 2020 | 259.952 | 684.320 | 39.556 | 721.658 |
| | 2021 | 257.301 | 674.408 | 41.621 | 865.573 |
| | 2022 | 248.143 | 629.883 | 43.195 | 876.359 |
| | 2023 | 242.679 | 611.430 | 42.101 | 856.276 |
| Espainia | 2019 | 6.600.333 | 15.478.615 | 2.659.112 | 31.246.043 |
| | 2020 | 6.636.428 | 15.439.218 | 2.651.041 | 32.676.652 |
| | 2021 | 6.922.951 | 15.081.347 | 2.589.761 | 34.454.090 |
| | 2022 | 6.455.125 | 14.452.585 | 2.463.451 | 34.073.380 |
| | 2023 | 6.294.640 | 13.596.561 | 2.293.470 | 33.803.040 |
| Euskal Herria/Espainia % | 2023 | 3,9 | 4,5 | 1,8 | 2,5 |

*Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

EAEn ere 4 espezieek egin zuten behera: -% 3 behi-aziendak, -% 3,9 ardi-aziendak, -% 3,4 ahuntz-aziendak eta -% 13,1 txerri-aziendak. Lehenengoaren kasuan, jaitsiera 2022koa baino apur bat txikiagoa izan zen; bigarrenean, 2019az geroztiko handiena; ahuntz-aziendaren kasuan, 2017az geroztiko handiena; eta, txerri-aziendaren kasuan, 2016az geroztiko handiena.

4 aziendak batuta, EAEko abelburuen % 52,7 ardi-aziendari zegozkion, % 32,4 behi-aziendari, % 7,9 txerri-aziendari eta % 7 ahuntz-aziendari. Behi-aziendaren eta ardi-aziendaren jaitsierak linealak izan ziren, eta azkarragoa ardi-aziendaren kasuan; ahuntz-aziendaren bilakaera oso laua da; txerri-aziendaren kasuan, joan den hamarkadako lehen erdian gora egin zuen, bigarren erdian gelditu egin zen eta orain beherantz hasi da. EAEn, behi-aziendaren abelburu kopurua Nafarroakoaren antzekoa da; ardi-azienda, erdia inguru; txerri-aziendaren abelburu kopurua hondarrekoa da Foru Erkidegoarekin alderatuta; eta ahuntz-azienda ugariagoa da EAEn.



LABORAL kutxa

Estatuan, hamarkada osoan lehen aldiz egin zuen behera txerri-aziendaren buru kopuruak 2022an, eta 2023an finkatu egin zen beherakada, baina aldakuntza txikiagoarekin (-% 0,8; eta aurreko urtean -% 1,1). Era berean, 2022an ardi-azienda lehen aldiz murriztu zen 2013az geroztik, eta 2023an jaitsiera apalagoa izan zuen (-% 2,5; eta aurreko urtean -% 6,8). Ardi-aziendaren beheranzko joera areagotu egin zen (-% 5,9; azken 8 urteetako beherakadarik handiena), baita ahuntz-aziendarena ere, azken 6 urteetako jaitsierarik handiena izan baitzuen horrek (zehazki, -% 6,9koa). 2012az geroztik lehen aldiz, 4 aziendek behera egin zuten ondoz ondoko 2 urtez. Zalantzarik gabe, hori guztia lotuta dago azpisektoreak jasaten dituen ziurgabetasun eta mehatxuekin (koiunturalak zein epe luzekoak, etorkizunera begira), horiek gero eta handiagoak baitira.

## 3.2 ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

### Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

**169. koadroa Esne-ekoizpena**

*(m litro)*

| Urtea | Eremua | Behia | Ardia | Ahuntza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 2021 | Araba | 51.391 | 2.940 | 294 | 54.625 |
| | Bizkaia | 57.702 | 1.525 | 639 | 59.865 |
| | Gipuzkoa | 70.241 | 5.258 | 200 | 75.699 |
| | EAE | 179.334 | 9.723 | 1.133 | 190.190 |
| | Nafarroa | 247.830 | 15.905 | 368 | 264.103 |
| | Euskal Herria | 427.164 | 25.628 | 1.144 | 454.293 |
| 2022 | Araba | 50.725 | 2.897 | 362 | 53.984 |
| | Bizkaia | 52.529 | 1.644 | 658 | 54.831 |
| | Gipuzkoa | 65.120 | 5.330 | 204 | 70.654 |
| | EAE | 168.374 | 9.871 | 1.223 | 179.468 |
| | Nafarroa | 243.892 | 16.935 | 388 | 261.215 |
| | Euskal Herria | 412.266 | 26.806 | 1.611 | 440.683 |
| 2023 | Araba | 51.402 | 2.819 | 409 | 54.630 |
| | Bizkaia | 49.612 | 1.494 | 581 | 51.687 |
| | Gipuzkoa | 62.540 | 4.915 | 202 | 67.657 |
| | EAE | 163.554 | 9.228 | 1.192 | 173.974 |
| | Nafarroa | 253.579 | 16.530 | 322 | 270.430 |
| | Euskal Herria | 417.133 | 25.757 | 1.514 | 444.404 |

*Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritza. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Gobernua*

Aurreratu dugun moduan, esnearen ekoizpenak ez du goranzko aldakuntza nabarmenik izan azkenaldian, ziurgabetasunen, eskariaren zailtasunen eta kanpoko lehiaren ondorioz. Kontsumitzaileari esne likido osoa saldu beharrean, beste irteera batzuk bilatzeko joera areagotu da, esnekien bidez. Horiek gero eta protagonismo handiagoa ematen diete banatzaileei eta industriari. Bestetik, Europa iparraldeko esnearen prezioa Estatuko

merkatuko esnearena baino baxuagoa da, gero eta alde handiagoarekin, eta industria prozesadoreek inportazio horiek baliatzen dituzte. Hala, arriskuan jartzen dute tokiko ekoizpena. Dena den, duela bi urte indar handiagoz hasi ahal izan ziren kostuak preziora eramaten —gutxi gorabehera, agertoki geopolitikoak eragindako inflazio-krisia hasi zenean—, eta horrek momentuz salbatu egin du esnearen azpisektorea.

Nafarroan, 2016aren inguruan erregistratutako ekoizpenaren jauziaz geroztik, urteko litro kopuruaren aldakuntzak ez ziren ehuneko bi puntutik igaro 2017 eta 2022 artean. 4 urtez igoera oso txikiak izan ondoren, 2022an -% 1,6 murriztu zen behi-esnearen bolumena, eta, 2023an, azkenean, indar handiagoz hazi zen: % 4. Kointzidentzia izan edo ez, ardi-esneak eta ahuntz-esneak alderantzizko joera izan zuten, behera egin baitzuten (-% 2,4 eta -% 17,1), bi ekitalditan gorakada nabarmenak izan ondoren. Eskura dauden datuak aztertuta, argi ikusten da hiru ekoizpenen panorama: epe luzeko goranzko joera, baina oso erritmo geldokoa eta oszilazio txikiekin.

**170. koadroa EAEn ekoitzitako esnearen erabilera**

*(m litro)*

| Erabilera | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| **Behi-esnea** | **179.334** | **168.374** | **163.554** | **-2,9** |
| – Zekor-hazkuntza | 4.563 | 4.216 | **4.149** | **-1,6** |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 1.094 | 1.038 | **974** | **-6,2** |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 3.589 | 3.384 | **3.563** | **5,3** |
| – Salmenta esne-zentralei | 170.088 | 159.736 | **154.869** | **-3,0** |
| **Ardi-esnea** | **9.723** | **9.871** | **9.228** | **-6,5** |
| – Gazta | 4.572 | 4.715 | **4.587** | **-2,7** |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 32 | 33 | **32** | **-3,3** |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 444 | 452 | **417** | **-7,8** |
| – Salmenta esne-zentralei | 4.674 | 4.715 | **4.193** | **-11,1** |
| **Guztira** | **189.057** | **178.245** | **172.782** | **-3,1** |
| – Zekor-hazkuntza | 4.563 | 4.216 | **4.149** | **-1,6** |
| – Gazta | 4.572 | 4.715 | **4.587** | **-2,7** |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 1.126 | 1.071 | **1.006** | **-6,1** |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 4.033 | 3.836 | **3.980** | **3,7** |
| – Salmenta esne-zentralei | 174.762 | 164.451 | **159.062** | **-3,3** |

*Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

EAEn, behi-esnearen ekoizpenak ez zuen izan Nafarroan adinako gorakadarik, baina ekoizpena apur bat hazi zen 2013 eta 2017 artean, eta behera egin zuen gero, erritmo biziagoan 2021etik aurrera. Ondoz ondoko hiru urtetan egin zuen behera; batez ere, Gipuzkoan, gehien ekoizten den lurraldean, eta Bizkaian. 2023an, Araban litro gehiago ekoitzi ziren Bizkaian baino.

Arabaren bilakaera are lauagoa izan da, baina azken ekitaldietan gora egin du apur bat: Nafarroaren antzeko bilakaera izan du, azken bosturtekoan 2022an bakarrik egin zuelako behera.

Ardi-esnea lurralde guztietan murriztu zen: -% 2,7 Araban, -% 7,8 Gipuzkoan, -% 9,1 Bizkaian, -% 6,5 EAE osoan, -% 2,4 Nafarroan eta -% 3,9 Euskal Herri osoan. Izan ere, esne mota honen irteera nagusia gazta da, eta gaztak lehia handia izan zuen, nazioarteko prezioengatik eta, hortaz, inportazioen presioarengatik. Ahuntz-esneari ere eragin zion egoera horrek, ziur asko. Ondoz ondozko hainbat urtez gora egin ondoren (batez ere, Bizkaian), 2023an behera egin zuen; bereziki, lurralde horretan. Nafarroan ere behera egin zuen, eta Araban bakarrik jarraitu zuen gora egiten.

EAEko esnearen erabilerei buruzko estatistikaren arabera, behi-esnea, batez ere, zentraletara saldu zuten 2023an. Bestetik, hazkuntzarako erabilera leheneratu egin zen, etengabeko jaitsieraren ondoren. Kontsumitzailearekiko zuzeneko salmentak, berriz, igoera handia izan zuen, eta beherantz jarraitu zuen ekoizleen zuzeneko kontsumoak. Ardi-esnearen kasuan, antzekoa izan zen gazta egiteko eta zentraletara saltzeko erabilitako esne kantitatea. 2023an, kuotaren zati bat kendu zion lehenengoak bigarrenari, eta orain dela bost urte hasitako joera baieztatu zen.

Saldutako litro kopurua ez da asko aldatzen normalean, ikusi dugun moduan. Dena den, azpisektorearen gorabeherak hobeto islatzen ditu ustiategien laginketak eta horien batezbesteko ekonomikoen jarraipenak; esaterako, INTIAren ITG sailak (Foru Gobernua) egiten duen jarraipenak. Erakunde horrek, urtero, esnetarako behien eta ardien gaineko datuak ematen ditu, baita haragitarako behi-, ardi- eta ahuntz-aziendaren gainekoak ere. EAEko erakunde baliokideek esnetarako behien gaineko datuak ematen dituzte. Gainera, Aberek, Arabako erakundeak, esnetarako ardien eta haragitarako behien datuak ere ematen ditu.

**171. koadroa** **Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak**

| Kontzeptua | Lurgintza (Gipuzkoa) | | Lorra (Bizkaia) | | Abere (Araba) | | INTIA-ITG (Nafarroa) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| **Datu teknikoak** | | | | | | | | |
| – Lagineko ustiategi kopurua | 27 | 20 | 49 | 48 | 39 | 34 | 34 | 36 |
| – Behi kopurua | 1.511 | 1.271 | 3.646 | 3.475 | 4.670 | 4.548 | 4.906 | 5.099 |
| – Ha. NAE/ustiategi | 28,4 | 33,3 | 34,8 | 34,8 | 76,6 | 72,5 | 65,2 | 58,7 |
| – Behi/ustiategi | 56,0 | 63,6 | 74,4 | 72,4 | 119,7 | 116,7 | 144,3 | 141,6 |
| – Behi/ha. | 2,0 | 1,9 | 2,1 | 2,1 | 1,6 | 1,6 | 2,2 | 2,4 |
| – Ekoizpen- eta bazka-gastuak (euro/ha) | 621,42 | 569,86 | 261,68 | 448,07 | 750,52 | 648,00 | 943,00 | 1.041,00 |
| **Prezioak eta etekinak** | | | | | | | | |
| – Esnearen prezioa (euro/1.000 litro) | 577,00 | 550,54 | 470,00 | 563,99 | 458,00 | 565,00 | 456,9 | 580,3 |
| – Esne-ekoizpena litro/behi | 8.669 | 8.753,9 | 9.016 | 9.046 | 10.280 | 10.494 | 10.287 | 9.788 |

*Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazaritzako eta abeltzaintzako zentro kooperatiboek eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua Elkarte Anonimoak (INTIA, ITG dibisioa) eskainitako estatistikak.*

Adibidez, ustiategi bakoitzeko behi kopuruak aurreko urteetan Araban bakarrik egin zuen gora, baina 2023an behera egin zuen. Aldiz, Nafarroan, aurreko urteetan behera egin ondoren, hazi egin zen 2023an. Antzeko zerbait gertatu zen laginean aintzat hartutako esnetarako behien ustiategi kopuruarekin. Aitzitik, ustiategi bakoitzeko behien ratioa eta ustiategi bakoitzeko hektareen ratioa Lurgintzaren laginean (Gipuzkoakoa) bakarrik hazi ziren urte horretan. Gainera, bi adierazleen kasuan, joera eten zen Araban, Nafarroan eta Gipuzkoan. Hektarea bakoitzeko elikadura-gastuei dagokienez, gora egin zuten Nafarroak eta Bizkaiak; azken horrek, azken urteetako joera hautsi zuen. Beste bi lurraldeetan ere joera-aldaketa izan zen, ordura arte goranzko bidean baitziren. Hektarea bakoitzeko behi kopuruaren ratioak jaisten jarraitu zuen Gipuzkoan. Behi bakoitzeko litro kopuruari dagokionez, bilakaera eta kantitate oso antzekoak zituzten lau lurraldeek, baina 2023an Nafarroan eten egin zen gorakada (2022ra arte lineala izan zen goranzko joera). Esnearen prezioaren ratioa beste lurraldeetan baino urtebete lehenago hasi zen igotzen Gipuzkoan, eta 2023an apaldu egin zen; hala, gainerako lurraldeekin parekatu zen.

Nafarroako esnetarako behien kasuan, behi bakoitzeko urteko diru-sarrerek bost urte behar izan zituzten 3.000 euro ingurutik 3.500 eurora igarotzeko (2016tik 2021era), baina, gero, nahikoa izan ziren bi urte 5.680 eurora igotzeko. Izan ere, momentuz, merkatua prest dago tokiko ekoizleei prezio askoz ere altuagoak ordaintzeko, aurreko hamarkadetan ez bezala, behi bakoitzeko batez besteko litro kopurua 2018az geroztiko baxuena den arren. Bestetik, ustiategien egiturari buruzko beste adierazle batzuek erakusten dutenez, jarduera ustiategi gutxiagotan baina neurri handiagokoetan ari da pilatzen pixkanaka.

**172. koadroa ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak**

| Kontzeptua | ABERE | | INTIA-ITG | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| **Datu tekniko-ekonomikoak** | | | | |
| – Ustiategien laginak | 22 | 20 | 24 | 25 |
| – Eskulana (GLU) ustiategiko | 1,8 | 2,0 | 1,9 | 1,8 |
| – Ardi kopurua ustiategiko | 339 | 358 | 376 | 364 |
| – Azalera Ha. | 85,9 | 82,4 | 23,7 | 24,0 |
| – Esne-ekoizpena (litro/ardi) | -- | -- | 161 | 146 |
| – Esnearen prezioa (euro/1.000 litro) | -- | -- | 1.567,00 | 1.915,00 |
| **Ekoizpena eta emaitzak (euro)** | | | | |
| Produktu gordina | 109.654 | 131.126 | 109.896 | 115.528 |
| - Elikadura-gastuak | 32.125 | 37.523 | 38.491 | 43.824 |
| - Gastu aldakorrak | 10.848 | 12.146 | 9.826 | 10.452 |
| = Marjina gordina | 62.682 | 81.457 | 78.859 | 71.195 |
| + Diru-laguntzak | 35.410 | 18.938 | 17.280 | 9.943 |
| + Beste diru-sarrera batzuk | 2.865 | 5.253 | -- | -- |
| - Gastu finkoak eta langileenak | 49.186 | 62.367 | 42.893 | 43.818 |
| = Marjina garbia | 55.771 | 43.281 | 35.966 | 27.377 |
| **Emaitza unitarioak (euro)** | | | | |
| – Marjina garbia / ardia | 164,52 | 120,90 | 95,77 | 75,14 |
| – Marjina garbia / GLU | 31.869,03 | 21.320,69 | 18.929,47 | 14.878,80 |

*turria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua (INTIA, ITG dibisioa).*

2023an, Nafarroako esnetarako behien kasuan, ustiategi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerek gora egin zuten bigarren urtez, eta are gehiago bizkortu zen hazkunde-erritmoa, aurreko bosturtekoan ere bizia izan zen arren. Azpisektoreak aprobetxatu egin du merkatuak prezio altuagoa onartu izana. Hala, 2023an marjina hobea lortu zuten, kontsumoak eta gastuak ez baitziren horrenbeste igo. Bestetik, dirulaguntzak ere normalizatu egin ziren, 2022an ohi baino altuagoak izan baitziren. Marjina garbiak behera egin zuen bost urtez, goraka hasi zen 2022an eta izugarri igo zen 2023an.

Nafarroako esnetarako ardien kasuan, diru-sarrerak eta gastuak aurreko hamarkadako erritmoaren antzekoan igo ziren; gastuen kasuan, erritmo biziagoan. Hala, marjina murriztu egin zen, aurreko urtean hazi ondoren; izan ere, laguntzek ezohiko igoera izan zuten 2022an, eta horregatik hazi zen marjina, funtsean. Marjina garbiari dirulaguntzak kontuan hartu gabe erreparatuz gero, beherantz jarraitu zuen, hamarkada osoko joerari jarraituz. 2023ko berritasuna, kasu honetan ere, esnearen prezioaren igoera izan zen (% 22,2), hainbat urtetan geldi egon ondoren, baina kostuak are gehiago igo ziren.

Aberek emandako Arabako esnetarako ardien ustiategien laginean ere, egoera nahiko antzekoa zen. Kasu horretan, hobetu egin zen dirulaguntzen aurretiko marjina garbia, baina 2022a urte txarra izan zelako gertatu zen hori, batez ere; konpentsatzeko, laguntza publiko gehiago eman ziren. Gainerakoan, azken hamarkadakoen antzekoak izan ziren

batezbestekoak. Azken hirurtekoan, dirulaguntzarik gabeko marjina garbiak gora egin zuen, bost urtez zenbaki gorriak eskuratzeko arriskuan egon ondoren.

**Haragi-ekoizpena: emaitza ekonomikoak**

Nafarroan, haragitara bideratutako ustiategien kasuan, deigarria da arkumeak gora egin zuela hirugarren urtez (% 40tik gorako igoera metatua 2020tik), aldi luze batez geldi egon ondoren, eta are beheranzko joera apala izan ondoren. Behi-haragiaren balioa, berriz, geldialditik irten eta % 30 igo zen 2021-2023 arteko aldian. Hala ere, dirulaguntzarik gabeko marjina garbia ez zen eremu negatibotik irten, ez haragi batean, ez bestean. Bi kasuetan, emaitza ez zen izan aurreko urtean bezain txarra, baina ardi-haragiaren kasuan hori ez zen nahikoa izan beheranzko joera mozteko. Behi-haragiaren kasuan, berriz, suspertze-zantzuak ikus litezke, 2016az geroztiko zifrarik onena eskuratu baitzuen (negatiboa izan arren).

Negozio honetan, INTIAk emandako aldagai ekonomikoen batezbestekoen oszilazioak askoz ere handiagoak dira. Dena den, elikadura-gastuen aldagaiaren kasuan (aldagai giltzarria da), analisi honetarako hiru bosturtekotan bildutako datuen arabera, ikus daiteke lehenengo fasean geldi zeudela, eta gero asko igo zirela. Patroi hori are nabarmenagoa da behientzako pentsuen eta bazken kasuan. 2013 eta 2019 artean behera egin zuten, baina batez besteko gastua bikoiztu egin da hurrengo laurtekoan. Gainera, 2023an inoiz baino gehiago igo ziren gastu finkoak, eta ardi-aziendaren kasuan baino modu nabarmenagoan, azken horien kasuan igoera lineala izaten jarraitu baitzuten.

Nafarroan, dirulaguntzak gehiago hazi dira ardi-aziendaren kasuan, behi-aziendarenean baino. Dena den, aztertutako aldiko igoerarik handienak izan zituen adierazle horrek 2022an eta 2023an.

Aldea honako hau da: Nafarroako ardi-aziendaren ustiategietan, normalean, urte gehienetan irabaziak izateko balio dute dirulaguntzek; behi-aziendaren kasuan, berriz, amaierako datua negatiboa izaten da ia ekitaldi guztietan. Hala ere, egungo testuinguruan, ardi-ustiategiek baino gaitasun handiagoa dute behi-ustiategiek haragiarekin izandako galerak esnearen irabaziekin konpentsatzeko —esnea ongi kotizatuta mantentzen den artean, behintzat—. 2023an salbuespena gertatu zen, eta ordura arteko benetako irabazi handienak (2012koak) gainditu ziren. Ardi-aziendaren kasuan, amaierako irabaziak 2017-2019 hirurtekoko irabazien antzekoak izan ziren, eta, Gobernuaren laguntzei esker, hirugarren urtez zifra positiboak eskuratzea lortu zuten.

**173. koadroa Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak**

| Kontzeptua | ABERE | | INTIA-ITG | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Haragitarako behiak | | Haragitarako behiak | | Haragitarako ardiak | |
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| **Datu tekniko-ekonomikoak** | | | | | | |
| – Ustiategien laginak | 72 | 65 | 18 | 18 | 23 | 20 |
| – Eskulana (GLU) | 0,9 | 1,0 | 1,0 | 1,2 | 1,3 | 1,3 |
| – Behi/Ardi kopurua ustiategiko | 67 | 55 | 59 | 83 | 757 | 726 |
| – Azalera Ha. | 103,8 | 75,3 | 34,5 | 38,4 | 47,8 | 43,6 |
| – Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko(*) | -- | -- | 223,7 | 215,0 | 19,0 | 15,5 |
| – Txahal/arkume salneurria kiloko | -- | -- | 4,77 | 5,41 | 4,80 | 6,22 |
| **Ekoizpena eta emaitzak (euro)** | | | | | | |
| – Produktu gordina | 53.708 | 45.286 | 79.401 | 121.254 | 72.090 | 77.041 |
| - Elikadura-gastuak | 33.931 | 27.902 | 50.682 | 65.070 | 50.117 | 47.909 |
| - Gastu aldakorrak | 8.161 | 6.890 | 14.889 | 22.165 | 13.382 | 12.576 |
| = Marjina gordina | 10.337 | 10.494 | 29.561 | 53.371 | 30.267 | 10.321 |
| + Diru-laguntzak | 46.026 | 26.326 | 15.731 | 19.352 | 21.676 | 24.942 |
| - Gastu finkoak eta langileenak | 29.967 | 21.415 | 33.729 | 43.716 | 29.526 | 31.176 |
| = Marjina garbia | 29.231 | 14.713 | -4.167 | 9.654 | 741 | 10.321 |
| **Emaitza unitarioak (euro)** | | | | | | |
| – Marjina garbia behia/ardia | 438,78 | 267,50 | -70,93 | 116,89 | 0,98 | 14,22 |
| – Marjina garbia GLU | 31.773 | 15.487 | -4.311 | -4.311 | 679 | 9.737 |

*(*): Haragi kiloak: Behi-haragi kiloak, kanalean. Ardi-aziendaren kasuan, kiloak bizirik.*

*Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).*

Arabako haragitarako behien laginari dagokionez, dirulaguntzen aurreko marjina garbiaren portaera negatiboa da, Nafarroakoaren oso antzekoa. Kasu honetan ere, 2023an aurreko urteko beherakadari buelta ematea lortu zuen, baina ez zuen lortu 2021eko datua berdintzerik. Dena den, aztertutako datu multzoko ohiko batezbestekoen antzekoak izan ziren 2023ko batezbestekoak, 2022an ezohiko gorakadak izan ondoren, bai gastuek, bai diru-sarrerek (dirulaguntzak barne). Horiek dira Nafarroako laginarekiko alderik handienak. Izan ere, Araban ustiategi gehiago daude, Arabako batez besteko ustiategi batek sor dezakeen produktu gordina askoz ere txikiagoa izan arren Nafarroakoa baino (edo, hain zuzen ere, hori konpentsatzeko). Elikadura-gastuak gutxiago igo ziren, eta guztizko diru-sarrerak ez ziren horrenbeste hazi, kostuek isla txikiagoa izan zutelako prezioetan.

**174. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak**

| Kontzeptua | Txerrikumeen ekoizpena(1) | | Ziklo itxia(2) | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| **Ezaugarri tekniko-ekonomikoak** | | | | |
| – Aztertutako ustiategi kopurua | 6 | 6 | 14 | 8 |
| – Urdanga kopurua ustiategiko | 194 | 82 | 477 | 653 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerrikumeak | 24 | 23 | 1 | 0,5 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerri gizenduak | 0,4 | 0,04 | 22 | 22,2 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerriak, guztira | 24 | 23,4 | 23 | 23 |
| – Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg) | 20,2 | 7,1 | 10,1 | 8,6 |
| – Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg) | 115,7 | 120,0 | 112,1 | 111,8 |
| – Saldutako txerrikume + txerri gizendu kopurua | 4697,0 | 1.925,0 | 11.045 | 14.807 |
| – Txerrikumearen batezbesteko salneurria (euro) | 49,99 | 44,03 | 36,63 | 34,30 |
| – Txerri-kiloaren batezbesteko salneurria (euro) | 1,44 | 1,83 | 1,81 | 1,82 |
| – GLU guztira | 3,4 | 0,5 | 3,4 | 4,7 |
| **Emaitza ekonomikoak (euro)** | | | | |
| – Produktu gordina | 256.484 | 95.333 | 1.777.127 | 3.066.372 |
| • Gastu aldakorrak | 211.316 | 58.922 | 1.461.411 | 2.022.431 |
| – Marjina gordina | 45.157 | 36.411 | 315.715 | 1.043.941 |
| • Gastu finkoak | 71.079 | 20.969 | 310.679 | 453.398 |
| – Marjina garbia | -25.912 | 15.441 | 5.036 | 590.543 |

*(1): 2022an 3 ustiategik 21,37 kg-ko pisua zuten txerrikumeak ekoizten zituzten, eta 3 ustiategik titia kendutako 7,46 kg-ko txerrikumeak saltzen zituzten. 2023an bigarren motakoak bilakatu ziren 6ak.*

*(2): Ustiategi horiek saltzen duten % 80 baino gehiago txerri gizendua da.*

*Iturria: Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).*

Bien bitartean, abeltzaintza-sektorean noizean behin egin beharreko bat-bateko egokitzapen eta aldaketen beste adibide bat ikusi zen txerri-aziendaren negozioan; horrek presentzia du Nafarroako Erribera osoan. INTIAk ziklo osoko ustiategiak eta txerrikumeak ekoizten dituzten ustiategiak bereizten ditu —horiek gutxiengoa dira—. Eta, orain arte, bigarren kategoria espezializatu horretan, beste bi azpikategoria bereizten zituen: animalia jaioberriak saltzen zituztenak eta jaiotakoan zuten pisuaren hirukoitza izatera heltzean saltzen zituztenak.

2023ko laginean aztertutako 6 ustiategiek (datozen urteetan ez dute zertan berdinak izan) txerrikume jaioberriak saltzen zituzten, titia kendutakoak. Eta horien jardueraren adierazle batzuk nabarmen jaitsi ziren: ustiategi bakoitzeko txerrama kopurua erdia baino gutxiago zen, eta saldutako txerrikume kopurua ere, erdia baino gutxiago. Ez litzateke harritzekoa izango aldaketa horren arrazoia ekonomikoa izatea. Izan ere, merkatu-hobi espezializatu horren amaierako emaitzak erakusten duenez, positiboa izatera igaro zen. Kiloaren prezioa asko hobetu zen.

Dena den, honakoa izan zen aldaketarik garrantzitsuena: 2023ko laginak kontuan hartutako ziklo itxiko ustiategien kopurua asko murriztu zen: 14 izatetik 8ra igaro ziren. Hortaz, abelburu helduen batezbestekoa hazi egin zen. Dena den, kategoria horretan, kiloaren prezioa ez zen ia aldatu. Saldutako animalia kopurua hazi egin zen, eta kostuen igoerak gainezka egin zuen. Hala, ia marjina garbirik gabeko egoeratik irtetea lortu zuen, eta eskuragarri dauden datuetako onena lortu zuen: 2020ko (aurreko gehienekoa) marjinaren bikoitza. Gainera, 2021 eta 2022ko beherakadari buelta ematea lortu zuen; aurreko hamarkadan, pixkanaka hobera egiteko joera izan zuen kategoria horrek. Hala ere, tarte hartan, etekinaren zifrak oso txikiak izaten ziren beti. Gainera, nabarmendu beharrekoa da azpisektore honetan ez dela inolako laguntza publikorik kontabilizatzen zifra horietara iristeko.

**Abereen hilketa**

Txerri-aziendaren adibideak (haragi mota horrek, normalean, goranzko joera izaten du) ongi erakusten du hildako abereen adierazleak ez duela zertan bat etorri behar abereen hazkuntza-jarduerarekin, Nafarroaren kasuan. Iza ere, duela urte batzuk arte, haragi horren ekoizpena oso garrantzitsua zen hiltegietan, baina nahikoa izan da lekualdatze bat Nafarroako abere-produktu nagusiaren garrantzia kanaleko tona kopuruaren atal honetan isla ez dadin. Hemen, dagoeneko ikusi ditugun espezieez gain, zaldi-haragia gehitzen da. Beste lurralde batzuekin alderatuta, nahiko garrantzi handia du Foru Erkidegoan, eta Estatuko merkatuaren gaineko kuota esanguratsuan. Untxia ere kontabilizatzen jarraitzen dute, nahiz eta gaur egun ez izan gehien kontsumitzen den haragietako bat. Kasu honetan, kontsumo baxuaren arrazoia ez da horrenbeste animalia-espezieekiko sentsibilitatea —zaldi-haragiaren kasuan baliteke hori izatea gora ez egitearen atzean dagoen arrazoia—, untxi-haragiak aurkezpen komertzial berritzaileetarako ematen duen aukera txikia baizik.

**175. koadroa Euskal Herrian hildako aziendaren kanaleko pisua**

*(Tm)*

| Urtea | Behi-esnea | Ardi-esnea | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda | Zaldi-azienda | Hegaztiak | Untxiak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2014 | 19.715 | 4.093 | 44 | 37.706 | 2.655 | 103.667 | 4.423 | 172.303 |
| 2015 | 12.461 | 3.868 | 44 | 34.827 | 3.359 | 103.518 | 4.612 | 162.689 |
| 2016 | 18.029 | 4.071 | 42 | 23.379 | 3.532 | 116.739 | 4.440 | 170.233 |
| 2017 | 17.808 | 3.741 | 63 | 3.318 | 3.765 | 112.612 | 4.105 | 145.412 |
| 2018 | 18.117 | 3.825 | 60 | 3.551 | 3.328 | 125.866 | 4.282 | 159.028 |
| 2019 | 19.438 | 3.575 | 54 | 3.291 | 3.775 | 118.535 | 3.681 | 152.349 |
| 2020 | 22.152 | 3.428 | 50 | 3.305 | 3.828 | 111.515 | 4.477 | 148.755 |
| 2021 | 25.802 | 3.008 | 55 | 3.556 | 3.362 | 110.253 | 4.618 | 150.652 |
| 2022 | 28.155 | 2.885 | 46 | 3.619 | 3.607 | 119.568 | 3.850 | 161.729 |
| 2023 | 27.799 | 2.693 | 59 | 3.565 | 3.897 | 122.155 | 3.947 | 164.115 |
| % Euskal Herria/Espainia 2023 | 4,0 | 2,6 | 0,6 | 0,1 | 47,1 | 7,2 | 10,7 | 2,2 |

*turria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritza. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Gobernua.*

Protagonismo handiena hegaztiek dute. 2018an ia 100.000 tonara iritsi ziren hiltegietan, eta broiler oilaskoa gailendu zen; normalean, hiltegi horiek eurek hazten eta ekoizten dituzte hegaztiak. 2000. urtean, tona kopurua ez zen 35.000ra iristen. Azken bost urteetan gelditu egin da hazkundea, baina baliteke aldi horretako krisiekin lotutako faktore koiunturalek eragitea hori. 2023an hazi egin zen hildako hegaztien pisua, ondoz ondoko bigarren urtez. Dena den, 2023ko hazkundea askoz txikiagoa izan zen aurreko urtekoa baino (% 1,2; eta aurreko urtean % 10,1). Hegazti-haragia bereziki kaltetu zuen pentsuekiko mendekotasunak. Beste abere-espezie batzuei ez zien horrenbeste eragin, pentsuaz gain beste gauza batzuk ere jaten dituztelako, hala nola bazka. Gainera, 2023an gelditu egin zen behi-haragiak aurreko bi urteetan izandako gorakada, nahiz eta hazkunde txiki bat izaten jarraitu (% 3,1). Ardi-haragiak ondoz ondoko bosgarren urtez egin zuen behera (-% 10,7), eta ahuntz-haragiak 2017az geroztiko urte arteko hazkunderik onena izan zuen (% 28,6). Txerri-haragia % 3,1 hazi zen (aurreko biurtekoan baino gutxiago), zaldi-haragia % 5,7 eta untxia % 9,9. Hala, untxiak aurreko urte txarra konpentsatu zuen (urte txarra izan zela eta, prezioak gora egin zuen).

EAEn, aldaketa gutxi izan ziren 2023an. Espezie guztien tona kopuru osoa ez da apenas aldatu hamarkada batean. Hildako hegaztien tona kopuruak behi-aziendaren tona kopurua gainditu zuen 2011n. Geroztik, hegaztiek gora egin dute, eta behi-aziendak behera. 2023an, finkatu egin ziren bi joera horiek. Bigarren urtez, behi-aziendaren jaitsierak beheranzko joera argia izan zuen. Hala, Nafarroako zifra baino txikiagoa eskuratu du dagoeneko hainbat urtetan. Badira alde batzuk Nafarroarekiko. Izan ere, ardi-aziendaren hilketak gora egin zuen apur bat, eta untxiarenak behera —urte horretan gehiago, ia gutxienekora iritsi arte—. Gainera, txerri-aziendaren zifra esanguratsua izan zen, eta zaldi-haragiarena ez.

**31. grafikoa** **Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen araberako bilakaera**

*(Indizea 1990=100)*




*Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritza. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Gobernua.*

# 4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Elikadura-produktuekin batera, egurrak eta basogintzak osagarri garrantzitsuak izaten jarraitzen dute EAEko eta Nafarroako nekazaritza-sektorearentzat: hain zuzen ere, historikoki, baserrietako ekonomiari ekarpen gehigarria egin diote horiek, eta bi lurraldeetan basoa da espazio gehien hartzen duen paisaia mota, alde handiarekin.

Ingurumenarekiko kezka handitzen doan heinean eta belaunaldien arteko txanda falta dela agerikoa bihurtzen ari den heinean, azken urteetan hazten ari dira sektore publikoaren inplikazioa eta sektore pribatuarekiko duen koordinazio estua. EAEko diputazioek eta Nafarroako Gobernuak oreka ekologikoa, paisaiaren oreka eta oreka klimatikoa ziurtatu nahi dituzte epe luzera, baso-masak ongi kudeatzearen bidez. Eta, aldi berean, azpisektore industrialek (adibidez, papergintza, eraikuntza, altzarigintza edo energia-sektorea) soberan dagoen egurra ekonomikoki aprobetxatzeko erabakiak hartu nahi dituzte. 2022an, EAEko egurraren sektoreko behatokiak manufaktura-enpleguaren % 9,6 egotzi zion lehengai horri.

Adibidez, Bizkaian, basoen kudeaketari buruzko legea berritu dute, hainbat hamarkadaren ondoren, eta eukaliptoaren gaineko luzamendu bat aplikatu dute, 2022tik 2025era artekoa. Gipuzkoan, berriz, Fundazio bat sortu dute; jabe pribatuek jo dezakete bertara, horiena baita basoen jabetzaren zatirik handiena. Araban, aldiz, baso gehienak jabetza publikokoak dira, eta Aldundia modu aktiboan koordinatzen da kontzejuekin. Nafarroan sektorearen jarduera handitzeko borondatea erakutsi dute. Izan ere, zuhaitzen urteko hazkundearen heren bat baino ez da aprobetxatzen; eta ratio hori are nabariagoa da EAEn.

Aurreko 3 ekitaldietan, sektoreko adierazleek ezohiko igoerak izan zituzten, hainbat arrazoi medio. Pandemiak eten egin zituen jarduera batzuk, eta gero berrartu egin behar izan ziren. Halaber, banda marroiaren gaixotasunaren ondorioz, basoen kudeaketa aktiboagoa egin behar izan zen. Prezioek ere ezohiko igoerak erregistratu zituzten, makroekonomia inflazionistarekin bat etorriz.

Kantitateei dagokienez, 2023an eten egin zen jarduerаren igoera hori, eta prezioen igoera ere murriztu egin zen (% 5 ingurukoa izan zen, eta, momentuz, aurreko biurtekoko igoerak sendotzeko balio izan zuen).

Aitzitik, Nafarroan herena baino handiagoa izan zen igoera berriz ere, aurreko urtean bezala. Era berean, baimendutako mozketen adierazlearen emaitza ezberdina izan zen Foru Erkidegoan eta EAEn. Azken eremu horretan, normalizatu egin zen adierazlea, 2022a ezohiko urtea izan baitzen; urte hartan, baimendutako mozketak askoz ugariagoak izan ziren, modu puntualean.



LABORAL kutxa

Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera, ekoizpena eurotan % 3,3 jaitsiko da 2022arekin alderatutaan, eta hala ere, aurreko biurtekoan izandako ezohiko aurrerapen ia guztia finkatuko da, urte arteko % 56,1eko eta % 89,1eko igoerak izan baitziren. Produktu nagusian, intsinis pinuan, jaitsiera % -0,4koa baino ez da, 2021ean % 47,2ko gorakada eta 2022an % 128,3koa izanik. Gainerako espezieei dagokienez, beherakada nabarmenagoa izan da (-%24), 2022an % 16,1ekoa izan baitzen, eta 2021ean izandako % 86,5eko gorakada konpentsatzen du. Zenbatekoen zenbatespena ere egin du: -%7,8 jaitsi da, -%5,1 intsignian eta -%27,5 gainerakoetan. Prezioei dagokienez, % 4,9ko gorakada moderatuak daude oro har eta insigniserako, eta % 4,8koa gainerakoetarako.

Urteetan zehar, 2019an pinuaren gaixotasunak eragindako salbuespenezko egoeran izan ezik, moztutako kopuruak konstanteak izan dira, faktore biologikoek edo meteorologikoek aparteko datuak sortzen dituztenean izan ezik, urte horretan eta 2009an, hurrenez hurren. Nolanahi ere, prezioek gorantz proiektatzen jarraitzen dute azpisektorearen bolumen ekonomikoa, eta haren pisua gero eta handiagoa da nekazaritza eta abeltzaintzako multzoan. Kudeaketa modernizatu eta jasangarriaren kostuak altuak dira, eta, oraingoz, merkatuari eragiten diote.

**176. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak**

*(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)*

| Urtea | Eremua | Koniferoak | Hostotsuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| 2021 | Araba | 101.309 | 25.991 | 127.301 |
| | Bizkaia | 957.614 | 204.203 | 1.161.818 |
| | Gipuzkoa | 911.823 | 18.971 | 930.794 |
| | EAE | 1.970.749 | 249.166 | 2.219.913 |
| 2022 | Araba | 123.651 | 19.630 | 143.281 |
| | Bizkaia | 1.043.141 | 189.304 | 1.232.444 |
| | Gipuzkoa | 737.437 | 19.482 | 756.919 |
| | EAE | 1.904.229 | 228.415 | 2.132.644 |
| 2023 | Araba | 121.371 | 8.534 | 129.905 |
| | Bizkaia | 518.677 | 120.150 | 638.827 |
| | Gipuzkoa | 589.002 | 13.032 | 602.034 |
| | EAE | 1.229.050 | 141.716 | 1.370.766 |

*Iturria: Hazi erakunde instrumentala, Eusko Jaurlaritza.*

EAEn, Hazi agentziak lurralde historikoaren eta espeziearen araberako datuak eskaintzen ditu. Hau da, beste modu batera neurtzen ditu datuak, eta ez orain arte aipatu dugun moduan: baimendutako mozketak, metro kubikotan. Lizentzia erregistratzen den urtea eta egurraren amaierako salmenta erregistratzen den urtea ez dira berdinak izaten, eta horrek azaltzen du urte arteko aldakuntzak ezberdinak izatea, batez ere, espezie nagusiaren kasuan: radiata edo insignis pinua. Moztutako zuhaitz guztien hiru laurden dira mota horretako pinuak.

Adierazle honetan, EAEko zuhaitz guztien mozketak eta koniferoen kategoriako zuhaitzen mozketak 2013az geroztiko bolumenik baxuenera iritsi ziren; eta, insignis pinuen mozketak, 2012az geroztiko baxuenera. Hauek izan ziren 2022arekiko jaitsierak: -% 35,7 guztizkoan, -% 38 hostotsuetan, -% 35,5 koniferoetan, -% 35,5 eukaliptoan eta -% 37,1 radiata pinuan. Jaitsieraren zatirik handiena Bizkaian gertatu zen. Lurralde horretan, eten egin zen aurreko bi hamarkadetako goranzko joera argia. Gipuzkoan apur bat txikiagoak izan ziren jaitsierak. Antzeko ibilbidea izan zuten, baina gorabehera gutxiagorekin, eta jaitsierarik nabarmenena 2022aren aurretik gertatu zen, Bizkaian mozketa kopurua oraindik gora egiten ari zen artean. Araban, urte horietan guztietan, jardueraren bolumena askoz ere txikiagoa izan zen, eta urteko beherakada oso txikia izan zen.

Hostotsuen kasuan, Bizkaian eukaliptoen landaketa handiak daudenez, lurralde horri dagokio mozketa-jarduera ia osoa. Kasu honetan ere, azken urteetako datuek gorabeherak erakusten dituzte, baina hamarkada osoan joera beheranzkoa izan dela ikus daiteke. Orain areagotu egin da beherakada, aldi horren hasieran bat-bateko igoera izan ondoren, aipatutako luzamendua dela eta.

**177. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak**

*(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)*

| Espeziea | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|
| – Pinu gorria | 3.584 | 4.806 | 34,1 |
| – Larizio pinua | 92.577 | 64.310 | -30,5 |
| – Pinaster pinua | 41.737 | 29.482 | -29,4 |
| – Halepensis pinua | 80 | 3 | -96,6 |
| – Radiata pinua (insignis) | 1.630.184 | 1.026.170 | -37,1 |
| – Beste konifero batzuk | 136.066 | 104.279 | -23,4 |
| **Koniferoak, guztira** | **1.904.229** | **1.229.050** | **-35,5** |
| – Makala | 4.352 | 778 | -82,1 |
| – Eukaliptoa | 198.864 | 128.354 | -35,5 |
| – *Querqus* | 10.791 | 5.113 | -52,6 |
| – Beste hostotsu batzuk | 14.409 | 7.471 | -48,2 |
| **Hostotsuak, guztira** | **228.415** | **141.716** | **-38,0** |
| **GUZTIRA** | **2.132.644** | **1.370.766** | **-35,7** |

*Iturria: Hazi erakunde instrumentala, Eusko Jaurlaritza.*

Gaur egun, zuhaitzez estalitako azalera nahiko berdin banatuta dago landaketen eta baso naturalaren artean (lehenengoak dira nagusi), eta koniferoen eta hostotsuen artean. Dena den, hostotsuek presentzia handiagoa dute eta lekua irabazten ari dira; horietako batzuk, gainera, bertakoak dira. Aldiz, koniferoak eta insignis pinua lekua galtzen ari dira. Hedadura handiena hartzen duen zuhaitz hostotsu nagusia pagoa da, baina ez du garapen produktibo garrantzitsurik. Aldiz, eukaliptoak du probetxurik handiena, azkar hazten delako.

Azken bi hamarkadetan insignis pinuaren hedadura % 28 txikitu dela erakusten du 2023ko basoen mapak, hegazkinetatik egindako argazkietan oinarritutakoak. Eukaliptoaren hedadura bikoiztu egin da, eta insignisak galdutakoaren heren baten baliokidea hartzen



LABORAL kutxa

du. Gainerako espezie gehienek ere espazioa berreskuratu ahal izan dute, eta basoaren guztizko azalera 2005ekoaren oso antzekoa da.

# 5. ARRANTZA-SEKTOREA

## 5.1 IKUSPEGI OROKORRA

Arrantza-sektoreak pieza giltzarria izaten jarraitzen du EAEko lehen sektorearen barruan, lehen sektoreko ekoizpenaren hamarren bat baitagokio, gutxi gorabehera. Gainera, Euskadiko kostaldeko herrien erreferentzia identitarioa eta soziala da, eta erkidegoko gastronomiaren eta, hortaz, turismoaren ezinbesteko elementu erakargarria. Arrainak, kantitateari dagokionez, presentzia txikiagoa du egungo biztanleriaren elikaduran, neurri batean, erosketa-ohiturak aldatu direlako. Hori dela eta, arrainarekin lotutako sektoreek forma eta kanal berriak bilatzen dituzte, osasunerako horren ona den aberastasun natural horri irteera emateko.

Sektorearen jardueraren pisu ekonomikoaren zatirik handiena alturako atunontzi izoztaileetan oinarritzen da; batez ere, Bermeoko portutik irten eta atunak arrantzatzeko hainbat ozeanotako urruneko puntuetara mugitzen diren horietan. Hain zuzen ere, jarduera hori da EAEri estatu mailako espezializazio eta bolumen handiena ematen diona. Dena den, baxurako arrantzak protagonismo handia izaten jarraitzen du. Izan ere, beste arrazoi batzuez gain, langileen erdiak dagozkio, gutxi gorabehera.

Hori guztia dela eta, baxurako arrantza-jardueraren lehiakortasunari laguntzeko saiakera berezia egiten du sektore publikoak. Horretarako, jasangarriak izan behar dute biomasek, baita baxurako arrantza espezializatuta dagoen espezie oso zehatz horien prezioek eta kotizazioek ere. Bereziki, bi espezieren arrantza-aldiek baldintzatzen dute baxurako kofradien urte osoko plangintza: beste atun-espezie baten, hegaluzearen, eta Kantauriko antxoa preziatuaren arrantza-aldiek.

Duela hamarkada batzuetatik, Europar Batasunaren erabakiei begira bizi dira arrantzaleak, eta haien jarduera asko baldintzatzen dute ezartzen dizkieten debekualdi eta kuotek. Atlantikoan epe luzean arrain-bankuek eskuragarri jarraitzea da, neurri handi batean, murrizketa horien helburua. Izan ere, gehiegizko arrantzak, beste herrialde batzuetako ontzien praktika txarrek eta aldaketa klimatikoak kalteak eragiten dizkie hegaluzeari eta antxoari –gainera, batzuetan, antxoa hegaluzearen harrapakina da kate trofikoan–. Europako politika horiek emaitzak eman dituzte, eta espezieak berreskuratzen ari dira.

2023a izan zen horren guztiaren adibide argia. Hainbat espezieren kasuan, agerian geratu zen azpisektorearen oinarriko sistema osoaren hauskortasuna, baina antxoa protagonista bilakatu zen, haren suspertzea zela eta.

Urtez urte gertatzen diren gorabehera eta ziurgabetasun handien ondorioz, ontzidiaren adierazleek behera egiten dute. Politika zuhurra jarraitzen dute, eta nahiago dute konpontzera mugatu, ontzi kopurua hazi gabe. Eta ontzi horiek azpiegitura eta bideragarritasun hobeak dituzten portuetan pilatzen doaz. EAEko portuetara atxikitako ontzidiarekin lotutako adierazleetan etengabeko beherakada ikusten da, bai alturako ontzien kasuan, bai baxurakoen kasuan. Langile kopuruaren beherakada pixkanakakoa da, eta belaunaldien arteko txanda zaila da. Dena den, beste latitude batzuetako langileak daude.

Adierazleek agerian uzten dute alturako ontzien eta baxurako ontzien batez besteko tamainaren arteko aldea. Baxurako ontzi kopurua 3,5 aldiz handiagoa da, baina guztizkoaren potentzia hirukoitza da alturako ontzidiaren kasuan, eta, tonajea, baxurakoaren boskoitza.

2022an, langile kopurua bezalaxe, murriztu egin ziren potentzia, tonajea eta ontzi kopurua, bi azpisektoreetan. 2023an, aldiz, ontzi kopurua mantendu egin zen bietan, baina bi azpisektoreek izan zituzten aldakuntzak. Baxurako sektorean gehiago murriztu zen enplegua, alturakoan baino. Aldiz, baxurako sektorean apur bat igo zen tonajea, eta alturakoan, berriz, jaitsi. Bestetik, potentzia pixka bat hazi zen alturako sektorean, eta apur bat jaitsi zen baxurakoan. Kapituluaren amaieran aipatuko dugu alturako zer azpisektorek izan zituzten aldaketak. Orokorrean, urte arteko aldakuntzak, azken ekitaldikoa barne, txikiak dira, beheranzko joera jarraituaren barruan.

**178. koadroa  Euskal Herriko ontzidiaren egitura**

| Sektorea | Urtea | Unitate kopurua | Potentzia (ZP) | EGT* | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|---|
| Altura | 2019 | 44 | 146.618 | 53.794 | 1.019 |
| | 2020 | 44 | 147.340 | 55.066 | 950 |
| | 2021 | 44 | 147.340 | 55.066 | 947 |
| | 2022 | 41 | 138.059 | 51.457 | 905 |
| | 2023 | 41 | 138.959 | 49.968 | 885 |
| Baxura | 2019 | 154 | 48.858 | 10.030 | 1.126 |
| | 2020 | 153 | 48.220 | 9.904 | 1.118 |
| | 2021 | 149 | 48.257 | 10.014 | 1.135 |
| | 2022 | 145 | 45.878 | 9.490 | 1.041 |
| | 2023 | 145 | 45.621 | 9.507 | 1.000 |
| Euskal Herria, guztira | 2019 | 198 | 195.477 | 63.824 | 2.145 |
| | 2020 | 196 | 195.560 | 64.969 | 2.068 |
| | 2021 | 193 | 195.597 | 65.080 | 2.082 |
| | 2022 | 186 | 183.937 | 60.947 | 1.946 |
| | 2023 | 186 | 184.580 | 59.475 | 1.885 |

*(*): Erregistro Gordineko Tonak.*
*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

## 5.2 BAXURAKO ARRANTZA

Baxurako arrantzaren adierazleak azkarrago eskuratzen dira, horietan protagonismo handia dutelako portu nagusietako kofradiekin lotutako lonjek. Eta, Eusko Jaurlaritzaren arrantzaren behatokiak, Hazi agentziaren bidez, lonja horiei jartzen die arreta gehien, eta, oro har, azpisektore horri. Alturako arrantza enpresa pribatu batzuek kontrolatzen dute eta, normalean, kontabilitateko ekitaldia ixten denetik urtebete baino gehiago pasatzen denean ematen dituzte datu estatistikoak. Hori dela eta, urtekari hau argitaratu den egunean, ez daude argitaratuta alturako arrantzari dagozkion datuak, hala nola azpisektorearen salmenta-zifrak.

### Baxurako ontzidia

Baxurako ontzidiaren datuekin hasiko gara. Aurreko atalean aipatu dugun moduan, datu horiek kofradiek lan egiten duten portu nagusien arabera banakatu daitezke, eta, hala, epe luzeko bilakaera ikus daiteke. Gipuzkoako eta Bizkaiko arrantzaren egituraren artean aldeak ikusten dira. Bigarren lurralde horretan, ontzidia portu gehiagoren artean banatuta dago, baina urteetan zehar neurri handiko ontzietan pilatu dituzte baliabide gehienak: Bermeo eta Ondarroa. Bereziki lehenengo portua, altura handiko arrantzara bideratuta dago, argi eta garbi, baina baxurako ontzien kuotak erkidegoko handiena izaten jarraitzen du. Dena den, ontzi horiek txikiak dira, orokorrean. Horren erakusle da gainerako adierazleetan Hondarribia eta Getaria askoz aurrerago egotea. Bestetik, Ondarroak freskoko alturako ontzi gehiago ditu, baxurakoak baino, azpisektore hori biltzen duen portua baita. Hala ere, ikusiko dugun moduan, portu horretako baxurako arrantza askoz handiagoa da Bizkaiko gainerako portu guztietakoa baino.

**179. koadroa EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera (2023)**

| Portua | Unitate kopurua | Potentzia (ZP) | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| – Hondarribia | 30 | 13.985 | 3.162 | 282 |
| – Getaria | 27 | 11.585 | 2.515 | 268 |
| – Orio | 5 | 4.110 | 714 | 61 |
| – Pasaia(*) | 16 | 2.180 | 396 | 67 |
| **GIPUZKOA, GUZTIRA(*)** | **78** | **31.860** | **6.787** | **678** |
| – Bermeo | 31 | 7.835 | 1.657 | 157 |
| – Zierbena | 4 | 799 | 162 | 28 |
| – Armintza (Lemoiz) | 5 | 291 | 40 | 15 |
| – Lekeitio | 6 | 1.424 | 211 | 29 |
| – Ondarroa(*) | 10 | 2.064 | 392 | 49 |
| – Santurtzi(*) | 11 | 1.348 | 257 | 44 |
| **BIZKAIA, GUZTIRA(*)** | **67** | **13.761** | **2.719** | **322** |
| **EAE, guztira** | **145** | **45.621** | **9.506** | **1.000** |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, Santurtziko ontzien datuekin elkartu ditugu Bilboko eta Plentziako datuak. Mutrikuko (Gipuzkoa) datuak, berriz, Ondarroakoekin (Bizkaia) elkartu ditugu, gertuen duen portua delako; hortaz, lurralde historiko bakoitzeko guztizkoa aldatu egiten da.*
*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*



LABORAL kutxa

2022an bezala, aldakuntzarik deigarriena Hondarribiko tripulatzaile kopuruaren bat-bateko jaitsiera handia izan zen. Izan ere, adierazle horretan gehien nabarmentzen zen portua zen Hondarribikoa, alde handiarekin. Aurreko urtean baino jaitsiera apur bat handiagoa izan zuen, % 14,3koa. Hala, azken bi urteetan % 25,4ko galera metatu du, eta joera-aldaketa eragin du horrek, aurreko bosturtekoan goranzkoa izan baitzen joera. Bestetik, eskuragarri ditugun datuen arabera, langile kopuru handiena duen bigarren portuak, Getariakoak, 2023an izan zuen hazkunderik nabarmenena: tripulazioa % 9,4 hazi zen. Bermeok eta Ondarroak beheranzko joerarekin jarraitu zuten. Dena den, beherakada progresiboagoa izan zen aipatu dugun Hondarribiko kasuan baino.

Ontzi kopuruari dagokionez, aitzitik, Hondarribia mantendu egin zen eta Bermeok, ontzi bat gutxiagorekin, goranzko joera apal eta jarraitua apurtu zuen hamarkada osoan lehen aldiz. Gertuko beste portu batzuetatik ontziak hartzen joateak eragin zuen gorakada jarraitu hori, esan dugun moduan. Getarian, enpleguaren kasuan bezalaxe, hamarkadako igoerarik handiena gertatu zen, eta 24 unitate izatetik 27 izatera igaro ziren. Potentziari eta tonajeari dagokienez, jaitsierak izan ziren Hondarribian zein Bermeon, baina jaitsiera txikiak izan ziren urteko datuen multzoko gainerakoekin alderatuta. Getarian ere gora egin zuten bi adierazle horiek; azken urteetan gorabeherak izan arren, bi adierazle horiek ongien mantendu dituen portua da Getariakoa.

Bermeoko datuetan ikusten den ontzien batez besteko tamaina ezberdina Bizkaiko hainbat porturen ezaugarria da, eta lotuta dago eremu bakoitzean gailentzen diren arrantza-aparailuekin. Dagoeneko aztertu ditugun adierazleak teknika multzo handiekin lotzen dituen taulan ikus daiteke hori. Garrantzi eta pisu handiena duen teknika inguraketa da; Gipuzkoan nagusi da teknika hori. Eta are pisu handiagoa du antzeko beste teknika batzuk batuz gero, taula honetan egin dugun moduan, estatistika-arrazoiengatik. "Arte xeheak" deritzenetatik eta horiekin lotutakoetatik bereizten dira horiek; Bizkaian pisu handiagoa dute arte xeheek, inguraketak eta harekin lotutakoek baino. Aldiz, Gipuzkoan inguraketaren hamarren bat baino gutxiago dagokie arte xeheei. Hortaz, agerikoa da inguraketak hegaluzearen arrantzarekin duen lotura; hegaluzearen arrantza da Getariako eta Hondarribiko adierazleei bolumen handiena ematen dietenak.

**180. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2023**

| Modalitatea | Unitate kopurua | Potentzia ZP | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| – Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*) | 46 | 28.712 | 6.354 | 592 |
| – Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*) | 27 | 2.123 | 265 | 64 |
| – Tretza | 5 | 1.025 | 168 | 22 |
| **GIPUZKOA, GUZTIRA** | **78** | **31.860** | **6.787** | **678** |
| – Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*) | 15 | 5.154 | 1.067 | 122 |
| – Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*) | 39 | 5.352 | 991 | 136 |
| – Tretza | 13 | 3.255 | 661 | 64 |
| **BIZKAIA, GUZTIRA** | **67** | **13.761** | **2.719** | **322** |
| **EAE, guztira** | **145** | **45.621** | **9.506** | **1.000** |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, inguraketa eta arte xeheak erabiltzen dituzten ontziekin multzokatu ditugu aipatutako modalitate minoritarioetako ontziak. Era berean, Mutrikuko (Gipuzkoa) datuak Ondarroakoekin (Bizkaia) bateratu ditugu, hurbilen duen portuko datuekin. Lurralde historiko bakoitzeko guztizkoei eragiten die horrek.*

*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

### Baxuran lehorreratutako arrantza

2023an normalizatu egin zen euskal ontzidiak antxoaren arrantzan eskuratutako balio ekonomikoa, eta hori izan zen urteko albiste nagusia, zalantzarik gabe. Mendearen lehenengo hamarkadaren amaieran debekualdi bat izan zuen espezie horrek. Gero arrantza eta salmentak hazten joan ziren EAEn, 2017an gehienekora iritsi arte. Ondoren, behera egiten hasi zen, eta 2020an emaitza benetan ezohikoak eskuratu ziren; neurri batean, Covid-19aren pandemiaren hasieraren ondorioz, bat etorri baitzen antxoaren arrantza-aldiaren ohiko datekin.

2021eko kanpaina ere negatiboa izan zen, baina 2022an suspertze-zantzu partzial batzuk ikusten hasi ziren. 2023an, azkenean, serie historikoko normaltasunaren barruan kokatu ziren euskal ontzidiak eskuratutako diru-sarrerak, aipatutako krisiaren aurreko kotetara iritsi ez arren.

Arrain horrekin, euskal kofradiek tamaina txikiaren faktore kritikoa saihestu behar izan dute. Izan ere, kasu askotan, faktore hori zela eta, arrantzatutako antxoa ezin izaten zioten saldu kontserba-sektoreari. Bizkaian pisu handia du kontserba-sektoreak, eta antxoak berak ere bai. Gipuzkoan, berriz, arrainaren prozesatuak gailentzen dira; eraldatuen barruko beste kategoria bat da hori.

Aurreko urteetan, Kantabriako lonjetan eta ekialderago dauden kostaldeko beste eremu batzuetan saldu behar izan zuten antxoa asko. Izan ere, behar adinako tamaina zuten aleak lortzeko, arrantza-ontziek urrunago joan behar izan zuten. Horrek garestitu egin zituen erregai-gastuak, hain zuzen ere, gasolioak gehien garestitu ziren garaian. Euskal kofradietatik kanpoko salmenta horiekin, datuen segidako tarte batean ezohiko datu baxuak kontabilizatu ziren, baina 2023an egonkortu egin zen egoera, salmenta batzuk kanpoan egin baziren ere.

Gainera, Bizkaian hobetu egin zen batez besteko kotizazioa. Gipuzkoan, aitzitik, behera egin zuen batezbestekoak. Bi kasuetan, joera-aldaketa bat ikusten da aurreko urtearekiko. Eta, Gipuzkoaren kasuan, badirudi beheranzko fase berri batean sartu dela, azken hamarkadako goranzko ibilbide oso azkarraren ondoren.

Baina alderik nabarmenena 2023an gertatu zen, arrantza-aldi garrantzitsu batean, hegaluzearenean. 2023an oso datu negatiboa eta ezohikoa izan zuen, kotizazioari dagokionez. Kasu honetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako prezioen urte arteko bilakaera eta epe luzeagoko bilakaera oso antzekoak dira. Gainera, 2022an datuen segidako gehieneko kotizazioak eskuratu ziren, eta 2023an gutxieneko kotizazioetara igaro ziren.

Dena den, multzoko diru-sarreren iturri nagusia izaten jarraitu zuen hegaluzeak. Aurreko urteetako balantzean, argi eta gabi, hegaluzeari esker hobetu ziren datuak.

**32. grafikoa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2023**




*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Kontua oso ezberdina da lurralde batean eta bestean. Bizkaian, antxoaren eta berdelaren diru-sarrerak askoz ere handiagoak izan ziren, hegaluzearenak baino. Gainera, lurralde horren egoera normalagoa izan zen lurralde horretan, 2021eko ezohiko datuekin alderatuta; urte hartan, hegaluzeak diru-sarrera gehiago ekarri zituen, beste espezie batzuek baino.

Gainerako produktuei dagokienez ere urte gorabeheratsua izan zen 2023a. Izan ere, berdelaren kotizazioa jaitsi egin zen, bereziki, Bizkaiko lonjetan: orain dela gutxi arrain horrek "Eusko Label" etiketa eskuratu badu ere, dezente tona gehiago arrantzatu behar izan dituzte, grosso modo, arrain horren diru-sarrerak berdintzeko.

Bien bitartean, txitxarroaren kasuan, arrantzatutako kopurua gutxienekora iritsi zen, eta nolabaiteko kezka dago, kalen agortze posiblea dela eta. Ondorioz, zalantzarik gabe, murriztu egingo dira lurralde bakoitzari esleitutako kuotak.

Sardinaren arrantza ere gutxienekora iritsi da; beste garai batzuetan, berdelak bezala, ordezko baliabidearen funtzioa bete du sardinak. Espezie horiek ordezkoaren funtzioa betetzen dute eta urtearen hasieran arrantzatu ohi dira, tamaina oneko antxoak arrantzatzeko momentu aproposa iristeko itxaron artean.

Antxoak presentzia handiagoa izan ohi duen portuetan, antxoaren denboraldi ona aprobetxatu zuten, hala nola Bermeon eta Ondarroan. Lehenengoaren kasuan, berdela arrantzatzeko baliabideak gutxitu zituzten. Getarian eta Hondarribian ere, 2022arekin alderatuta guztizko diru-sarrerak ez jaisteko balio izan zuen antxoaren suspertzeak. Dena den, hegaluzeak jarraitu zuen portu horietan gailentzen.

Pasaiako kasua berezia da, eta haren osaera ezberdina da inguruko portuekin alderatuta. Izan ere, ez du hainbeste lan egiten arrantza-aldi nagusiekin, eta, gainerakoak ez bezala, legatzean espezializatu izan da. Arrain horrek lehiakortasun handia du. Hori dela eta, datuen arabera, portua gero eta gehiago dibertsifikatzen ari da “gainerako espezieak” kategoriarantz. Osagarri gisa, egonkortasuna erakusten du kategoria horrek, baita beste portu batzuentzat ere, eta maiz ageri da euskal portuetan. Izan ere, legatzaren eta hegaluzearen kasuan bezala, kategoria horren batez besteko prezioen tartea askoz ere altuagoa da beste espezie batzuena baino. 2023an, antxoaren kategoriaz gain, beste espezie batzuen kategoria izan zen diru-sarrerak handitu zituen bakarra.

**181. koadroa Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira**

| Lurraldea | 2022 | | 2023 | | %∆ 23/22 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Tm | (m euro) | Tm | (m euro) | Tm | (m euro) |
| Gipuzkoa | 14.078 | 43.855 | 19.119 | 46.057 | 35,8 | 5,0 |
| Bizkaia | 14.099 | 23.573 | 17.600 | 27.621 | 24,8 | 17,2 |
| EAE | 28.177 | 67.428 | 36.719 | 73.679 | 30,3 | 9,3 |

*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Euskadiko eta Gipuzkoako portuetan, 4 urtez behera egin ondoren, lehen aldiz gora egin zuen tonajeak; eta, balioaren kasuan, bigarren urtez egin zuen gora, 4 urtetan behera egin ondoren. Bizkaian, bigarren urtez hazi zen tonajea, 3 jaitsiera-urteren ostean; eta balioa hirugarren urtez igo zen, 3 urtez behera egin ostean. EAEn, Gipuzkoan eta Bizkaian, tonajeak % 30,3, % 35,8 eta % 24,8 hazi ziren, hurrenez hurren; eta, diru-sarrerak, % 9,3, % 5 eta % 17,2.

Hala, Gipuzkoako guztizko tonajea handiagoa izan zen Bizkaikoa baino, berriz ere, 2022ko ezohiko salbuespenaren ondoren. Aitzitik, balioari dagokionez, Gipuzkoaren abantaila

askoz ere handiagoa da, baina, hirugarren urtez, Bizkaiko balioa igo egin zen, eta Gipuzkoakoa jaitsi. Hortaz, gerturatzen ari dira bi zifrak. Portuen arabera, epe luzeko rankinga nahiko egonkorra da. Tonajean Ondarroa nabarmentzen da, % 45 ingururekin; Getaria da bigarrena, % 25 ingururekin; eta gero beste hiru portu nagusiak, azken urteetan % 10 eta % 15 artean ibili direnak. Balioari dagokionez, egitura ezberdina da. Getaria kokatu zen aurrean, baina Ondarroaren posizioa normalizatu egin zen eta ia berdindu egin zuen, % 30 baino zerbait gutxiagorekin. Biek kuota irabazi zuten, eta gainerakoek, berriz, galdu. Hondarribiak eta Pasaiak behera egiten jarraitu zuten, eta % 20tik behera kokatu ziren. Eta Bermeo hirugarren maila batean kokatu zen, % 10etik behera jaitsita.

Azken portu horren tonajea % 12,4 igo zen, baina balioa % 4,2 jaitsi zen. Getarian % 44 hazi zen tonajea, eta % 10,8 balioa. Hondarribiak % 49,6ko hobekuntza izan zuen pisuan, baina diru-sarrerak % 1,2 baino ez ziren hobetu. Ondarroako portuan 2022an baino % 29,3 gehiago arrantzatu zuten, eta igoera hori guztia hazkunde ekonomikoan islatu zen (% 26,9). Pasaian, aldiz, % 9,6 tona gehiago arrantzatu behar izan zituzten, aurreko urteko salmenta mailara iristeko.

**182. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2023**

*(Tm)*

| Kontzeptua | Guztira | % | Espezie nagusiak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Antxoa | Hegaluzea | Txitxarroa | Legatza[1] | Sardina | Berdela [2] | Beste batzuk[3] |
| – Hondarribia | 5.687,7 | 15,5 | 1.237,4 | 2.614,6 | 4,1 | 7,9 | 30,9 | 1.657,4 | 135,4 |
| – Pasaia | 4.351,3 | 11,9 | 364,9 | 389,0 | 15,0 | 443,3 | 804,5 | 1.102,3 | 1.232,4 |
| – Getaria | 9.080,3 | 24,7 | 2.284,2 | 4.115,0 | 24,3 | 0,2 | 224,6 | 2.262,5 | 169,3 |
| – Ondarroa | 13.362,1 | 45,2 | 5.312,9 | 597,5 | 246,6 | 58,2 | 1.080,6 | 5.238,3 | 827,9 |
| – Lekeitio | 43,4 | 0,1 | 0,0 | 0,6 | 0,0 | 1,3 | 0,0 | 22,8 | 18,6 |
| – Bermeo | 4.190,5 | 14,2 | 1.534,9 | 827,9 | 1,6 | 57,3 | 21,0 | 1.651,9 | 95,9 |
| – Bizkaiko beste batzuk | 4,0 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,0 | 2,7 | 0,0 | 0,1 | 1,1 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 19.119,3 | 52,1 | 3.886,5 | 7.118,6 | 43,4 | 451,4 | 1.060,0 | 5.022,2 | 1.537,0 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 17.599,9 | 47,9 | 6.847,8 | 1.426,0 | 248,3 | 119,5 | 1.101,6 | 6.913,1 | 943,5 |
| EUSKAL HERRIA, GUZTIRA | 36.719,2 | 100,0 | 10.734,4 | 8.544,7 | 291,7 | 571,0 | 2.161,6 | 11.935,4 | 2.480,5 |
| *Gipuzkoako %* | | | 20,3 | 37,2 | 0,2 | 2,4 | 5,5 | 26,3 | 8,0 |
| *Bizkaiko %* | | | 38,9 | 8,1 | 1,4 | 0,7 | 6,3 | 39,3 | 5,4 |
| *Euskal Herriko %* | | | 29,2 | 23,3 | 0,8 | 1,6 | 5,9 | 32,5 | 6,8 |

*(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.*
*(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.*
*(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.*
*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Lehenago azaldu dugun moduan, portu bakoitzean ezberdina da produktuen osaera, eta horrek eragiten ditu alde nabarmen horiek. Bermeoko kasuan, berritasun nabarmena izan zen antxoa, urte horretan beste jauzi bat eman baitzuen; baina berdelaren balioaren

jaitsierak kalte egin zion portuko balantzeari. Lekeition, hirugarren urtez, Eusko Jaurlaritzak erregistratutako amaierako balioak hondarreko zifrak izan zituen. "Gainerako espezieak" kategoria bakarrik mantendu zuen negozio esanguratsu gisa, eta apenas hobetu zuen 2022ko zifra.

Getarian, 4 urtez ezohiko tonajeak erregistratu ondoren, gora egin zuen, antxoa suspertu zelako eta, neurri batean, berdela arrantzatu zutelako. Horrek apur bat konpentsatu zuen hegaluzearen (diru-iturri nagusia) diru-sarreren jaitsiera. Hondarribiko panorama oso antzekoa izan zen.

Ondarroari egin zion mesederik handiena antxoaren suspertzeak, eta 2022ko antzeko diru-sarrerak lortu zituen berdelarekin. Hori berria da, urtetan zehar errentagarritasun eskasa lortu baitzuen arrain horrekin. Ondarroako eta Pasaiako portuetan bakarrik mantendu zen sardinaren nolabaiteko pisu ekonomikoa. Pasaiako portuan, aipatu dugun moduan, azken urteetan legatzarekin izandako zailtasunak konpentsatu zituen "gainerako espezieak" kategoriaren errentagarritasun onak eta egonkorrak; salmenten erdiak baino gehiago zegozkion kategoria horri.

Gipuzkoan, arindu egin zen diru-sarrerek hegaluzearekiko zuten mendekotasuna: aurreko urtean % 62koa izan zen, eta 2023an % 51koa. Aldiz, Bizkaiko portuek antxoarekiko eta berdelarekiko duten mendekotasun-ratioa eskuragarri dauden datuen segidako gehienekora iritsi zen, guztizkoaren bi herenera (% 66,6).

**183. koadroa** **Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2023**

*(m euro)*

| Kontzeptua | Guztira | % | Espezie nagusiak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Antxoa | Hegaluzea | Txitxarroa | Legatza[1] | Sardina | Berdela[2] | Beste batzuk[3] |
| – Hondarribia | 11.808,46 | 16,0 | 1.915,52 | 8.282,53 | 0,94 | 50,08 | 17,17 | 1.392,66 | 149,55 |
| – Pasaia | 13.075,13 | 17,7 | 666,53 | 885,29 | 20,08 | 1.815,56 | 1.095,37 | 1.266,81 | 7.325,48 |
| – Getaria | 21.173,79 | 28,7 | 4.069,43 | 14.251,64 | 29,04 | 1,72 | 171,34 | 2.051,25 | 599,38 |
| – Ondarroa | 20.548,52 | 27,9 | 8.736,14 | 1.997,34 | 429,49 | 295,96 | 1.108,73 | 6.043,63 | 1.937,24 |
| – Lekeitio | 109,82 | 0,1 | 0,00 | 1,60 | 0,03 | 2,93 | 0,00 | 22,36 | 82,90 |
| – Bermeo | 6.940,05 | 9,4 | 1.883,35 | 2.429,03 | 4,83 | 262,33 | 8,41 | 1.711,05 | 641,05 |
| – Bizkaiko beste batzuk | 29,36 | 0,0 | 0,47 | 0,00 | 18,54 | 0,00 | 0,60 | 9,76 | 0,47 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 46.057,37 | 62,5 | 6.651,48 | 23.419,46 | 50,07 | 1.867,35 | 1.283,88 | 4.710,72 | 8.074,41 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 27.627,75 | 37,5 | 10.619,49 | 4.428,42 | 434,36 | 579,76 | 1.117,14 | 7.777,64 | 2.670,94 |
| EUSKAL HERRIA, GUZTIRA | 73.685,12 | 100,0 | 17.270,97 | 27.848,35 | 484,42 | 2.465,01 | 2.401,02 | 12.488,69 | 10.749,45 |
| *Gipuzkoako %* | | | 14,4 | 50,8 | 0,1 | 4,1 | 2,8 | 10,2 | 17,5 |
| *Bizkaiko %* | | | 38,4 | 16,0 | 1,6 | 2,1 | 4,0 | 28,2 | 9,7 |
| *Euskal Herriko %* | | | 23,4 | 37,8 | 0,7 | 3,3 | 3,3 | 16,9 | 14,6 |

*(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.*
*(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.*
*(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.*
*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Euskadi mailan, hegaluzeak diru-sarreren guztizkoan zuen kuota % 48,3tik % 37,8ra igaro zen; aldiz, antxoaren kuota % 9,5etik % 23,4ra igo zen. Berdela (% 16,9) eta gainerako espezieen kategoria (% 14,6) izan ziren hurrengoak; azken horrek barne hartzen du, esaterako, hegalaburra (baxurako kofradia batzuek ere arrantzatzen dute hori). Urteko kontuan oso atzean geratu ziren legatza, sardina eta, bereziki, txitxarroa. Orokorrean, kontzentrazioak eta espezializazioak aurrera egin ohitu dute urtez urte, baina eskaria ziklikoa da eta, noizean behin, Gobernuaren kanpainaren baten ondorioz, baztertuta zegoen produkturen batek pisua berreskura dezake, edo ordezko gisa jo daiteke harengana.

Kotizazioek ere aldakuntza nabarmenak izaten dituzte urtez urte. Horietako batzuk aipatu ditugu dagoeneko; zehazki, hegaluzeak eta berdelak izandako jaitsierak. Hegaluzearen jaitsiera handiagoa izan zen, baina esan liteke ezohikoagoa izan zela 2022ko batez besteko prezioa, 2023an erregistratutako prezio eskasa baino: kiloko ia 1 euro gutxiago, hau da, 3,26 €/kg. Legatza eta gainerako espezieen kategoria maila altuan mantendu ziren, eta ez zuten ia aldaketarik izan; kilogramoko 4,30 euro inguruan kokatu ziren. Gainerako espezieak kiloko 1 eta 2 euro artean mugitu ziren: antxoak gora egin zuen

bigarren urtez, hamarkada batez etengabe behera egin ondoren, eta 1,19 eurotik 1,61 eurora igaro zen. Sardina eta txitxarroa garestitu egin ziren aldi horretan, eta horien eskuragarritasuna murriztu egin zen. Berdelak behera egin zuen berriz ere (gorabeheratsuagoa da epe laburrean), baita espezie guztien batezbestekoak ere. Dena den, ikusteko dago beherakada koiunturala izan ote zen. Gauza bera esan daiteke arrantzaren epe luzeko panoramari buruz, arrantza-aldi nagusiei eragiten dieten ziurgabetasun handiak eta gorabeherak kontuan hartuta.

**184. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera**

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Antxoa** | | | | | |
| – Lehorreratzeak (Tm) | 13.284,9 | 2.584,1 | 3.540,0 | 5.350,0 | 10.734,4 |
| – Batez besteko prezioa (euro/kg) | 1,30 | 1,13 | 0,94 | 1,19 | 1,61 |
| – Balioa (mila euro) | 17.231,40 | 2.917,76 | 3.318,00 | 6.391,97 | 17.270,97 |
| **Hegaluzea** | | | | | |
| – Lehorreratzeak (Tm) | 7.968,7 | 7.924,4 | 8.142,0 | 7.802,3 | 8.544,7 |
| – Batez besteko prezioa (euro/kg) | 3,51 | 3,61 | 3,57 | 4,18 | 3,26 |
| – Balioa (mila euro) | 27.944,38 | 28.618,73 | 29.070,00 | 32.580,23 | 27.847,89 |

*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Hegaluzeak eta antxoak atzerakada eta krisialdi fase handiak izan dituzte, baina suspertzea posible dela erakutsi dute; bereziki, baliabide jasangarri gisa babesteko martxan jarritako politika aktiboei esker. Hegaluzea 8.000 tona inguruko kuota batean geratu zen euskal ontzidiarentzat, eta 2023an antxoak gainditu egin zuen, pisuari dagokionez. Urte askotan lehenengo aldiz gertatu zen hegaluzea merkatzea eta antxoaren balioa handitzea.



LABORAL kutxa

33. grafikoa  Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak







*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*

## 5.3 ALTURAKO ARRANTZA

Alturako arrantzak bolumen ekonomiko handiagoa du, alde handiarekin. Baina alturako arrantzaren gaineko datuen jarraipen estatistikoa ez da baxurako lonjetako egunez eguneko jarraipena bezain berehalakoa. Azpisektoreetako batzuk oso espezializatuta daude, hala nola bakailaoarena (2 ontzi bakarrik). Hori dela eta, adierazle batzuk ezin dira banakatu atunontzi izoztaileen adierazleetatik, estatistika-sekretua dela eta; bi azpisektore horien artean, "altura handia" izeneko multzoa osatzen dute. Tamaina handiko itsasontzi horiek hainbat ozeanotan egiten dute lan, atunaren 5 espezie topatzeko: atunzuria (edo hegaluzea, gertuko latitudeetan ere badagoena), hegalaburra (baxurako arrantzan ere nolabaiteko pisua duena), atun argia, atun moja eta atuntxikia.

Alturako arrantzan, konpainiak eta portuak baxuran baino are gehiago espezializatuta daude azpisektoreen, ontzi motaren eta espeziearen arabera. Hala, Bermeoko portuari atxikita daude 24 atunontzi izoztaile, Pasaiako portuan 2 bakailao-ontzi daude

erregistratuta, eta Ondarroan freskoko alturako 16 ontzi daude. Freskoko alturako arrantzak kapitulu honetan aipatutako espezie gehienak arrantzatzen ditu (legatza, berdela, antxoa, hegaluzea, hegalaburra), eta beste batzuk ere bai, hala nola oilarra, zapoa edo bisigua.

2023an aldaketa txikiren bat erregistratu zen atunontzien tonajean, baina ez kopuruan eta potentzian. 2018an ezohiko inbertsio handia egin zuten, 7 ontzi berri erosi baitzituzten, baina, momentuz, joera horrek ez du jarraipenik izan. Bakailao-ontziek ez zuten aldaketarik izan, eta freskoko alturan 16ko zifra berreskuratu zen, antza denez, ordezkapen baten ondorioz; izan ere, 2022an baja emandako ontziak baino tonaje txikiagoa, baina potentzia handiagoa duen ontzi bat sartu zen kupoan. Gainera, freskoko alturan enpleguak zuen beheranzko joera orokorra eten zen, 10 tripulatzaile berri zenbatu baitziren. Altura handian, bi azpisektoreetako enplegua bateratuta erakusten da, eta etengabe jarraitzen du pixkanakako beheranzko joerak; 2023an 30 arrantzale gutxiago geratzen ziren aktibo. Hortaz, alturako guztizko saldoak 20 langile galdu ditu.

Hala, Ondarroan arindu egin zen azpisektore honetako langile kopuruaren jaitsiera. Hori bat etorri zen baxurako jardueren susperraldiarekin.

**185. koadroa Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2023**

| | Unitate kopurua | Potentzia ZP | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| – Altura handia - atunontzi izoztaileak | 24 | 124.303 | 45.078 | - |
| – Altura handia - bakailao-ontziak | 2 | 5.084 | 1.650 | - |
| – Altura handia, guztira | 26 | 129.387 | 46.728 | 687 |
| – Freskoko altura | 16 | 9.572 | 3.240 | 198 |
| Altura, guztira | 41 | 138.959 | 49.968 | 885 |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, bakailao-ontzien langile kopuruaren datua atunontzi izoztaileen datuarekin bateratu dugu freskoko altura handiari dagokion guztizkoan.*

*Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).*



# 5.ZERBITZUAK

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

Estatuko KPIaren hazkunde-erritmoa % 2,5era jaitsi zen 2023an (aurreko ekitaldian % 5,8koa izan zen), Euskal Herrikoa % 1,8ra eta Foru Erkidegokoa % 1,9ra (2022an % 5,4ko eta % 4,3 hazkundeak, hurrenez hurren).

Zerbitzuen sektorea bere osotasunean aintzat hartuta, 2023an hazkundea % 2,4ra jaitsi zen EAEn, % 2,6ra Nafarroan eta % 3,2ra Estatuan (aurreko ekitaldian, % 5,9, % 5,2 eta % 8ko hazkundeak, hurrenez hurren).

Dena den, txosten honen aurreko edizioetan aipatu izan dugun moduan, kontuan izan behar da sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektorea bere osotasunean aztertzea. Halere, langile kopurua izan zen adierazlerik egonkorrenetako bat. Horrekin lotuta, aipatzekoa da 2023an hirugarren sektoreko okupazio-tasa % 3,4 igo zela EAEn, % 3,1 Nafarroan (% 3,4 Euskal Herri osoan) eta % 3,8 Estatuan.



LABORAL kutxa

# 2. HEZKUNTZA

## 2.1 UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA

2023/2024 ikasturtean, berriz ere, unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioa murriztu egin zen Euskal Herrian (-% 0,3), baina aurreko ikasturtean baino gutxiago (-% 0,8). Hala, 2023/2024 ikasturtean unibertsitatekoak ez diren 476.575 ikasle zeuden Euskal Herrian, aurreko ikasturtean baino 1.615 gutxiago.

Azken urteetako joerari jarraituz, hezkuntzako mailarik baxuenetan jaitsi zen matrikula kopurua. Izan ere, jaiotza-tasa txikitzen ari da etengabe, eta hori ikasgeletan islatzen da, logikoa den moduan.

Gauzak horrela, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa murriztu egin zen (-% 2,6 eta -% 2,4, hurrenez hurren). Aldiz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikula kopurua apur bat hazi zen (+% 1,6), Batxilergokoa egonkor mantendu zen (+% 0,1) eta Heziketa Zikloetako matrikulazioak gorantz jarraitu zuen (+% 5,1). Halaber, lurraldeka aztertuta unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioari dagokionez, Nafarroak eta EAEk bilakaera ezberdina izan zuten. Nafarroan apur bat igo zen matrikula kopurua (+% 0,4), eta EAEko hiru lurralde historikoetan behera egin zuen (-% 0,6).

### Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzako matrikulazioari dagokionez, 2023/2024 ikasturtean 92.834 ikasle matrikulatu ziren Euskal Herrian, aurreko ikasturtean baino 2.459 ikasle gutxiago (-% 2,6). Bi sareen kasuan egin zuen behera matrikulazioak, baina nabarmenagoa izan zen sare pribatuko matrikulazioaren jaitsiera (-% 4,0), sare publikokoa baino (-% 1,5). Ikastetxe publikoek ikasleen bolumen handiagoa jaso zuten (% 57,6).

**186. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza**

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | 2023/2024 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 7.496 | 4.496 | 11.992 | 7.198 | 4.263 | 11.461 |
| Bizkaia | 18.230 | 17.655 | 35.885 | 17.843 | 16.950 | 34.793 |
| Gipuzkoa | 12.981 | 11.712 | 24.693 | 12.855 | 11.218 | 24.073 |
| EAE | 38.707 | 33.863 | 72.570 | 37.896 | 32.431 | 70.327 |
| Nafarroa | 15.614 | 7.109 | 22.723 | 15.619 | 6.888 | 22.507 |
| Euskal Herria | 54.321 | 40.972 | 95.293 | 53.515 | 39.319 | 92.834 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Informazioa lurralde historikoen arabera banakatuta, eta Bizkaiarekin hasita, 34.793 ikasle matrikulatu ziren Haur Hezkuntzan (-% 3,0), bi sareen artean modu uniformean banatuta

(% 51,3 publikoan eta % 48,7 pribatuan). 2023/2024 ikasturtean beherakada handiagoa izan zuen sare pribatuak (-% 4,0), publikoak baino (-% 2,1). Gipuzkoan, 2023/2024 ikasturtean 24.073 ikasle matrikulatu ziren Haur Hezkuntzan, eta patroi bera errepikatu zen: ikasleen errolda txikitu egin zen (-% 2,5), eta beherakada handiagoa izan zen ikastetxe pribatuetan (-% 4,2; eta publikoetan -% 1,0). Ondorioz, sare publikoaren pisu erlatiboa hazi egin zen (% 53,4). Araban 11.461 ikasle matrikulatu ziren, gehienak sare publikoan (% 62,8). Dena den, kasu honetan ere behera egin zuen ikasle kopuruak, bai sare publikoan (-% 4,0), bai pribatuan (-% 5,2). Nafarroari dagokionez, 2023/2024 ikasturtean 22.507 ikasle matrikulatu ziren Haur Hezkuntzan. 10 ikasletik ia 7 ikastetxe publikoetan matrikulatu ziren (% 69,4). Aldaketa bakarra sare pribatuan gertatu zen, eta beheranzko aldaketa izan zen (-% 3,1).

Horren guztiaren ondorioz, 2023/2024 ikasturtean, EAEn 70.327 ikasle zeuden Haur Hezkuntzan matrikulatuta, aurreko ikasturtean baino 2.243 gutxiago. Nafarroako Foru Erkidegoan 22.507 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 216 gutxiago.

**187. koadroa Euskalduntze maila Haur Hezkuntza**

*(%)*

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | | | 2023/2024 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 2,8 | 25,9 | 71,2 | 0,0 | 100 | 2,9 | 25,1 | 71,9 | 0,1 | 100 |
| Bizkaia | 1,2 | 19,5 | 78,4 | 0,9 | 100 | 0,8 | 18,9 | 79,5 | 0,9 | 100 |
| Gipuzkoa | 1,8 | 3,3 | 95,0 | 0,0 | 100 | 1,7 | 2,9 | 95,4 | 0,0 | 100 |
| EAE | 1,6 | 15,0 | 82,9 | 0,5 | 100 | 1,4 | 14,4 | 83,7 | 0,5 | 100 |
| Nafarroa* | 15,2 | 1,3 | 27,8 | 55,7 | 100 | 14,2 | 0,6 | 27,3 | 57,9 | 100 |
| Euskal Herria | 4,9 | 11,8 | 69,7 | 13,6 | 100 | 4,5 | 11,1 | 70,0 | 14,4 | 100 |
| Pribatua | 4,2 | 25,5 | 57,2 | 13,1 | 100 | 3,8 | 24,7 | 58,0 | 13,4 | 100 |
| Publikoa | 5,4 | 1,4 | 79,1 | 14,1 | 100 | 5,0 | 1,1 | 78,8 | 15,1 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*A: Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da.*
*B: Irakaskuntza elebiduna.*
*D: Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da.*
*X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.*
*(*): Nafarroaren kasuan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G deitzen zaio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Ikasleak hizkuntza-ereduaren arabera nola banatu ziren aztertuta, 2023/2024 ikasturtean presentzia irabazi zuen D ereduak (Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da) ikastetxeen mapan; batez ere, EAEn. Hala, Bizkaian D ereduan matrikulatu ziren Haur Hezkuntzako ikasleen % 79,5. Aldiz, B ereduan (Irakaskuntza elebiduna) ikasi zuten ikasleen % 18,9k, eta A ereduak (Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da) eta X ereduak (Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) pisu txikia izan zuten (% 0,8 eta % 0,9, hurrenez hurren). Gipuzkoan gehieneko baliora hurbildu zen D eredua (% 95,4), eta gainerako ereduen ordezkaritza mugatua izan zen. Analisi hori bera Arabara eramanda, ikasleen % 71,9 matrikulatu ziren D ereduan, % 25,1 B ereduan,

% 2,9 A ereduan eta oso gutxi, % 0,1, X ereduan. Nafarroan, berriz, X ereduak protagonismo handiagoa izan zuen, eta Haur Hezkuntzako ikasleen erdiak baino gehiago matrikulatu ziren eredu horretan (% 57,9). % 27,3k D eredua hautatu zuten, % 14,2k A eredua eta, ordezkaritza oso txikiarekin, % 0,6k B eredua.

Gauzak hala, EAEko euskalduntze maila (D eredua gehi B eredua) gehieneko baliora iritsi zen (% 98,1). Nafarroan, aldiz, adierazle hori % 27,9ra jaitsi zen. Hala, Euskal Herri osoko tasa % 81,1ekoa izan zen.

### Lehen Hezkuntza

2023/2024 ikasturtean Euskal Herrian 162.576 ikasle matrikulatu ziren Lehen Hezkuntzan, aurreko ikasturtean baino % 2,4 gutxiago, hau da, ia 4.000 ikasle gutxiago. 2023/2024 ikasturtean antzeko bilakaera izan zuten bi sareetako matrikulazioek (-% 2,1 eta -% 2,7, publikoan eta pribatuan, hurrenez hurren). Dena den, sare publikoak guztizkoaren gainean zuen partaidetza apur bat handiagoa zen (% 55,6).

**188. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza**

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | 2023/2024 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 12.346 | 8.288 | 20.634 | 12.104 | 8.164 | 20.268 |
| Bizkaia | 30.912 | 31.360 | 62.270 | 30.362 | 30.271 | 60.633 |
| Gipuzkoa | 21.036 | 20.077 | 41.113 | 20.358 | 19.462 | 39.820 |
| EAE | 64.294 | 59.725 | 124.019 | 62.824 | 57.897 | 120.721 |
| Nafarroa | 28.028 | 14.477 | 42.505 | 27.537 | 14.318 | 41.855 |
| Euskal Herria | 92.322 | 74.202 | 166.524 | 90.361 | 72.215 | 162.576 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Haur Hezkuntzan bezala, Lehen Hezkuntzan ere aztertutako lurralde guztietan egin zuen behera matrikulazioak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Bizkaiak 60.633 ikaslerekin itxi zuen 2023/2024 ikasturtea (-% 2,6), eta ia berdin banatu ziren bi sareen artean (% 50,1 eta % 49,9, publikoa eta pribatua). Dena den, pribatuak bilakaera okerragoa izan zuen (-% 1,8 publikoak eta -% 3,5 pribatuak). Gipuzkoan 39.820 ikasle matrikulatu ziren Lehen Hezkuntzan, eta pisu apur bat handiagoa izan zuten ikastetxe publikoek, pribatuek baino (% 51,1 eta % 48,9). Hala ere, matrikulazioak bilakaera bera izan zuen bi sareetan (-% 3 ingurukoa). Araban, 20.268 matrikula zenbatu ziren Lehen Hezkuntzan, eta bi sareek egin zuten behera (-% 2,0 sare publikoak eta -% 1,5 sare pribatuak). Halere, sare publikoan ikasle gehiago matrikulatu ziren (% 59,7). Nafarroari dagokionez, 41.855 ikasle matrikulatu ziren irakaskuntza-etapa horretan, eta bilakaera apur bat okerragoa izan zuten ikastetxe publikoek (-% 1,8; eta pribatuek -% 1,1). Nolanahi ere, ikastetxe publikoei zegokien matrikulazioaren zatirik handiena (% 65,8).

**189. koadroa Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza**

(%)

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | | | 2023/2024 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 4,3 | 31,8 | 63,9 | 0,1 | 100 | 4,2 | 31,0 | 64,8 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 3,1 | 21,4 | 73,9 | 1,6 | 100 | 2,8 | 20,7 | 74,9 | 1,5 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,5 | 4,4 | 93,0 | 0,0 | 100 | 2,4 | 3,7 | 93,8 | 0,0 | 100 |
| EAE | 3,1 | 17,5 | 78,6 | 0,8 | 100 | 2,9 | 16,8 | 79,5 | 0,8 | 100 |
| Nafarroa | 18,6 | 0,2 | 26,2 | 55,0 | 100 | 18,4 | 0,2 | 26,1 | 55,2 | 100 |
| Euskal Herria | 7,1 | 13,1 | 65,2 | 14,6 | 100 | 6,9 | 12,6 | 65,7 | 14,8 | 100 |
| Pribatua | 6,8 | 27,0 | 51,8 | 14,4 | 100 | 6,5 | 26,4 | 52,5 | 14,6 | 100 |
| Publikoa | 7,3 | 1,9 | 76,0 | 14,8 | 100 | 7,2 | 1,5 | 76,3 | 15,0 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Euskalduntze-tasari dagokionez, D ereduaren presentziak gora egiten jarraitu zuen EAEn, bereziki, Gipuzkoan: 10 ikasletik 9k (% 93,8) aukeratu zuten hizkuntza-eredu hori. Halaber, Bizkaian eta Araban ere D eredua aukeratu zuen ikasleen zati handi batek (% 74,9 eta % 64,8, hurrenez hurren). Bigarren lekuan B eredua kokatu zen. Nolabaiteko garrantzia izan zuen Araban eta Bizkaian (% 31,0 eta % 20,7), baina Gipuzkoan ez; ordezkaritza eskasa izan zuen azken lurralde horretan (% 3,7). Gainerako ereduei dagokienez, A ereduaren presentzia ia hondarrekoa izan zen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan (% 4,2, % 2,8 eta % 2,4). Aldiz, X eredua Bizkaian bakarrik zegoen, eta are partaidetza txikiagoa izan zuen (% 1,5). Nafarroaren kasuan, X ereduari zegozkion ikasleen erdiak baino zerbait gehiago (% 55,2). Jarraian, D eredua (% 26,1) eta A eredua (% 18,4) kokatu ziren eta, azkenik, ia desagertuta, B eredua (% 0,2).

Gauzak hala, EAEko euskalduntze-tasak oso balio altua eskuratu zuen, % 96,3koa; Nafarroak, aldiz, % 26,3koa. Hala, Euskal Herri osoari zegokion tasa % 78,3koa izan zen.

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), bilakaera positiboa izan zuen 2023/2024 ikasturterako matrikulazioak Euskal Herrian: 120.458 ikasle, aurreko ikasturtean baino 1.901 gehiago (+% 1,6). Azken ikasturtean, matrikulazio publikoa hazi egin zen (+% 2,4), eta ez zuen aldaketarik izan matrikulazio pribatuak (+% 0,8). Ondorioz, partaidetza apur bat handiagoa izan zuen lehenengoak (% 51,6, eta pribatuak % 48,4) irakaskuntza-etapa horretan.

**190. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH**

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | 2023/2024 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 7.152 | 7.015 | 14.167 | 7.452 | 7.176 | 14.628 |
| Bizkaia | 19.948 | 24.033 | 43.981 | 20.554 | 24.099 | 44.653 |
| Gipuzkoa | 15.031 | 15.676 | 30.707 | 14.915 | 15.766 | 30.681 |
| EAE | 42.131 | 46.724 | 88.855 | 42.921 | 47.041 | 89.962 |
| Nafarroa | 18.557 | 11.145 | 29.702 | 19.212 | 11.284 | 30.496 |
| Euskal Herria | 60.688 | 57.869 | 118.557 | 62.133 | 58.325 | 120.458 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurraldekako informazioaren banakapenak erakusten duenez, DBHko matrikulazioak bilakaera ona izan zuen eremu geografiko guztietan, Gipuzkoan izan ezik. Zehazki, Bizkaian 44.653 ikasle matrikulatu ziren 2023/2024 ikasturtean, aurreko urtean baino % 1,5 gehiago, sare publikoak izandako bilakaera onari esker (+% 3,0). Sare pribatuko matrikulazioa, berriz, egonkor mantendu zen (+% 0,3), baina publikoak baino partaidetza handiagoa izan zuen (% 54,0). Gainerako lurraldeetan ez bezala, Gipuzkoan 30.681 ikasle matrikulatu ziren DBHn, aurreko urtean baino apur bat gutxiago (-% 0,1). Sare publikoaren bilakaerak (-% 0,8) eragin zuen jaitsiera hori; ikasleen % 48,6 matrikulatu ziren sare publikoan. Irakaskuntza pribatuak, berriz, hazkunde txikia izan zuen (+% 0,6), baina ez zen nahikoa izan beheranzko joerari buelta emateko. Araban 14.628 ikasle matrikulatu ziren DBHn, eta bi sareetan egin zuen gora matrikulazioak (+% 4,2 publikoan eta +% 2,3 pribatuan). Hala, eskola-mapa oso orekatua izan zen (% 50,9 sare publikoa). Nafarroari dagokionez, azken ikasturtean 30.496 ikasle zenbatu ziren DBHn, horietatik % 63,0 ikastetxe publikoetan. Gainera, ikastetxe publikoetan igoera handiagoa izan zuen matrikula kopuruak (+% 3,5; eta irakaskuntza pribatuan +% 1,2).

Hala, EAEn, 89.962 ikasle matrikulatu ziren DBHn 2023/2024 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 1.107 gehiago. Nafarroan, berriz, 30.496 ikasle zenbatu ziren, 2022/2023 ikasturtean baino 794 ikasle gehiago.

**191. koadroa Euskalduntze maila DBH**

*(%)*

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | | | 2023/2024 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 11,6 | 33,5 | 54,8 | 0,0 | 100 | 11,1 | 33,8 | 55,2 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 5,8 | 26,0 | 66,7 | 1,5 | 100 | 5,4 | 25,5 | 67,4 | 1,6 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,5 | 7,4 | 90,1 | 0,0 | 100 | 2,5 | 5,9 | 91,6 | 0,0 | 100 |
| EAE | 5,6 | 20,8 | 72,9 | 0,8 | 100 | 5,4 | 20,2 | 73,7 | 0,8 | 100 |
| Nafarroa | 7,6 | 0,0 | 23,9 | 68,5 | 100 | 7,4 | 0,0 | 23,9 | 68,6 | 100 |
| Euskal Herria | 6,1 | 15,6 | 60,6 | 17,7 | 100 | 5,9 | 15,1 | 61,1 | 18,0 | 100 |
| Pribatua | 7,8 | 29,1 | 47,0 | 16,0 | 100 | 7,7 | 28,4 | 47,8 | 16,1 | 100 |
| Publikoa | 4,4 | 2,7 | 73,6 | 19,4 | 100 | 4,2 | 2,5 | 73,6 | 19,7 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Hizkuntza-ereduen pisuari dagokionez, D ereduak nagusi izaten jarraitu zuen Bizkaian (% 67,4), Araban (% 55,2) eta, batez ere, Gipuzkoan (% 91,6). B eredua bigarren postuan kokatu zen; % 25,5eko pisu erlatiboa izan zuen Bizkaian, % 33,8koa Araban eta % 5,9koa Gipuzkoan. Bestetik, A ereduak % 11,1eko kuota eskuratu zuen Araban, % 5,4koa Bizkaian eta % 2,5ekoa Gipuzkoan. X ereduak ordezkaritza oso txikia izan zuen Bizkaian (% 1,6), baina ikasleen gehiengoa eredu horretan matrikulatu zen Nafarroan (% 68,6); azken lurralde horretan, D ereduak (% 23,9) eta, neurri txikiagoan, A ereduak (% 7,4) osatu zuten eskoletako mapa.

Horren guztiaren ondorioz, DBHko euskalduntze-tasa % 76,1ekoa izan zen Euskal Herrian: EAEn altuagoa, % 93,9koa, eta Nafarroan baxuagoa, % 23,9koa.

**34. grafikoa** **Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian**

**Haur hezkuntza + Lehen hezkuntza + DBH**




(Indizea 81-82= 100)

**Batxilergoa + Lanbide Heziketa (Oinarrizkoa + Erdi-mailakoa + Goi-mailakoa)**




*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

## Erdi-mailako irakaskuntza

*Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.*

Erdi-mailako irakaskuntzako ikasleei dagokienez (Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailako Lanbide Heziketa eta Goi Mailako Lanbide Heziketa), 2023/2024 ikasturtean berriro hazi zen ikasle kopurua (+% 5,1). Euskal Herrian 59.185 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 2.865 gehiago.

Bi sareetan egin zuen gora matrikulazioak, baina ikastetxe publikoetan handiagoa izan zen hazkundea (+% 6,1 eta +% 3,5) eta guztizkoarekiko partaidetza (% 61,1).

**192. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | 2023/2024 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 3.746 | 2.880 | 6.626 | 3.995 | 2.903 | 6.898 |
| Bizkaia | 10.553 | 10.761 | 21.314 | 11.140 | 11.198 | 22.338 |
| Gipuzkoa | 11.278 | 5.914 | 17.192 | 11.985 | 6.201 | 18.186 |
| EAE | 25.577 | 19.555 | 45.132 | 27.120 | 20.302 | 47.422 |
| Nafarroa | 8.482 | 2.706 | 11.188 | 9.031 | 2.732 | 11.763 |
| Euskal Herria | 34.059 | 22.261 | 56.320 | 36.151 | 23.034 | 59.185 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Analisia EAEra mugatuta, Lanbide Heziketako matrikulazioak hazkunde nabarmena izan zuen (+% 5,1); batez ere, sare publikoaren gorakadak bultzatuta (+% 6,0, eta pribatuak +% 3,5). Gipuzkoan, joera berari jarraituz, 18.186 ikasle matrikulatu ziren Lanbide Heziketan, aurreko urtean baino % 5,8 gehiago. Hazkunde nabarmena izan zuten matrikulazio publikoak (+% 6,3, eta ikasleen % 65,9) zein pribatuak (+% 4,9). Bizkaian, 22.338 ikasle matrikulatu ziren, bi sareen artean modu uniformean banatuta. Dena den, bilakaera apur bat hobea izan zuen arlo publikoak (+% 5,6), pribatuak baino (+% 4,1). Araban 6.898 ikasle zenbatu ziren Lanbide Heziketan, eta bilakaera ezberdinak izan zituzten bi sareek. Sare publikoaren presentzia asko hazi zen (+% 6,6; ikasleen % 57,9), baina sare pribatuak ez zuen ia aldaketarik izan (+% 0,8). Analisi hori bera Nafarroara eramanda, agerikoa da ikastetxe publikoen ordezkaritza nabarmena (% 76,8). Gainera, azken ikasturtean, asko igo zen horien presentzia (+% 6,5 publikoak eta +% 1,0 pribatuak).

Ondorioz, EAEn 2023/24 ikasturtean 47.422 ikasle matrikulatu ziren Lanbide Heziketan, aurreko ikasturtean baino 2.290 gehiago. Bestetik, Nafarroan 11.763 matrikula zenbatu ziren, eta ikasleen errolda 575 handitu zen.



LABORAL kutxa

**193. koadroa Euskalduntze maila**
**Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

*(%)*

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | | | 2023/2024 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B(*) | D | X | Guztira | A | B(*) | D | X | Guztira |
| Araba | 66,9 | 22,6 | 10,5 | 0,0 | 100 | 66,0 | 19,2 | 14,9 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 63,0 | 22,2 | 14,8 | 0,0 | 100 | 62,1 | 20,3 | 17,6 | 0,0 | 100 |
| Gipuzkoa | 41,8 | 17,4 | 40,8 | 0,0 | 100 | 41,4 | 16,2 | 42,4 | 0,0 | 100 |
| EAE | 55,5 | 20,5 | 24,0 | 0,0 | 100 | 54,7 | 18,5 | 26,7 | 0,0 | 100 |
| Nafarroa | 0,0 | 0,0 | 8,2 | 91,8 | 100 | 0,0 | 0,0 | 8,2 | 91,8 | 100 |
| Euskal Herria | 44,5 | 16,4 | 20,9 | 18,2 | 100 | 43,9 | 14,8 | 23,0 | 18,3 | 100 |
| Pribatua | 57,6 | 18,1 | 12,2 | 12,2 | 100 | 56,0 | 18,5 | 13,6 | 11,9 | 100 |
| Publikoa | 35,9 | 15,3 | 26,6 | 22,2 | 100 | 36,1 | 12,5 | 29,0 | 22,3 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*

*(*): Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako, A eta D ereduak baino ez daude legez, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Euskalduntze mailari dagokionez, Lanbide Heziketako egoera ezberdina da gainerako ikasmailekin alderatuta. Araban eta Bizkaian antzekoa izan zen eskola-mapa, eta A eredua nagusitu zen (% 66,0 eta % 62,1, hurrenez hurren). Hurrengoa B eredua (% 19,2 eta % 20,3) izan zen eta, azkenik, D eredua (% 14,9 eta % 17,6). Gipuzkoan, ikasle gehienak A ereduaren (% 41,4) eta D ereduaren (% 42,4) artean banatu ziren, eta % 16,2k B eredua aukeratu zuten. Nafarroan, Lanbide Heziketako 10 ikasletik 9k X ereduan ikasi zuten (% 91,8), eta D ereduak osatu zuen mapa, askoz ere kuota txikiagoarekin (% 8,2).

Gauzak hala, EAEko euskalduntze-tasa ez zen % 50era iritsi (% 45,2), eta Nafarroan ez zen % 10etik igaro (% 8,2). Ondorioz, Euskal Herri osoko tasa % 37,8koa izan zen.

## Batxilergoa

Azkenik, unibertsitatekoak ez diren ikasleen atala ixteko, Batxilergoko matrikulazioaren bilakaera aztertuko dugu. 2023/2024 ikasturtean 41.522 ikasle matrikulatu ziren Euskal Herrian, ia-ia aurreko urteko bolumen bera (+% 0,1; 26 ikasle gehiago). EAEn antzekoa izan zen bilakaeraren patroia. Matrikulazioa % 0,2 hazi zen, sare publikoaren bilakaera onak bultzatuta (+% 1,5). Sare pribatua, berriz, apur bat murriztu zen (-% 1,0), baina ikasle gehien jaso zituen sarea izatean jarraitu zuen (% 51,8). Aitzitik, Nafarroan urte arteko jaitsiera izan zuen Batxilergoko matrikulazioak (-% 0,5), matrikulazio publikoaren beherakadaren ondorioz (-% 1,2 eta guztizkoaren % 59,2). Sare pribatua, berriz, egonkor mantendu zen (+% 0,4).

**194. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa**

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | 2023/2024 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 2.676 | 2.449 | 5.125 | 2.655 | 2.434 | 5.089 |
| Bizkaia | 7.455 | 8.760 | 16.215 | 7.587 | 8.608 | 16.195 |
| Gipuzkoa | 5.386 | 5.904 | 11.290 | 5.513 | 5.907 | 11.420 |
| EAE | 15.517 | 17.113 | 32.630 | 15.755 | 16.949 | 32.704 |
| Nafarroa | 5.287 | 3.579 | 8.866 | 5.224 | 3.594 | 8.818 |
| Euskal Herria | 20.804 | 20.692 | 41.496 | 20.979 | 20.543 | 41.522 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Datuak lurraldearen arabera aztertuta, eta Bizkaiarekin hasita, 2023/24 ikasturtean 16.195 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan (-% 0,1), elkarren aurkako bi joeraren ondorioz: sare pribatuko matrikulazioaren beherakada (-% 1,7; guztizkoaren % 53,2) eta sare publikoaren gorakada (+% 1,8; guztizkoaren % 46,8). Gipuzkoan, ikasle gutxiago jaso zituen sare publikoak (% 48,3), baina aurreko ikasturtean baino balio altuagoak eskuratu zituen (+% 2,4). Aldiz, sare pribatuak ez zuen aldaketarik izan (+% 0,1; % 51,7). Hala, bien artean, ikasleen errolda 11.420 ikaslekoa izan zen. Arabari dagokionez, 5.089 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan. Matrikulazioak behera egin zuen bi sareetan (-% 0,8 eta -% 0,6, publikoan eta pribatuan). Dena den, sare publikoko ikastetxeek jaso zituzten ikasle gehien (% 52,2). Sare publikoak Batxilergoko 10 ikasletik ia 6 jaso zituen Nafarroan (% 59,2), baina aurreko ikasturtean baino gutxiago (-% 1,2). Sare pribatuko matrikulazioa, berriz, apur bat hazi zen (+% 0,4).

Hala, EAEn 32.704 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan, aurreko ikasturtean baino 74 gehiago. Nafarroan, berriz, 8.818 matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 48 gutxiago.

**195. koadroa Euskalduntze maila Batxilergoa**

*(%)*

| Eremua | 2022/2023 ikasturtea | | | | | 2023/2024 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 33,5 | 12,2 | 54,3 | 0,0 | 100 | 32,3 | 12,0 | 55,7 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 29,3 | 5,8 | 63,3 | 1,5 | 100 | 28,7 | 6,5 | 63,2 | 1,6 | 100 |
| Gipuzkoa | 14,1 | 6,4 | 79,5 | 0,0 | 100 | 12,9 | 6,4 | 80,7 | 0,0 | 100 |
| EAE | 24,7 | 7,0 | 67,5 | 0,8 | 100 | 23,7 | 7,3 | 68,2 | 0,8 | 100 |
| Nafarroa | 3,6 | 0,0 | 25,4 | 70,9 | 100 | 3,3 | 0,0 | 24,1 | 72,6 | 100 |
| Euskal Herria | 20,2 | 5,5 | 58,5 | 15,8 | 100 | 19,4 | 5,8 | 58,8 | 16,0 | 100 |
| Pribatua | 29,8 | 9,9 | 44,1 | 16,2 | 100 | 28,6 | 10,7 | 44,4 | 16,4 | 100 |
| Publikoa | 10,7 | 1,2 | 72,8 | 15,3 | 100 | 10,4 | 0,9 | 72,9 | 15,7 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*



LABORAL kutxa

Hizkuntza-mapan sakonduta, eta Batxilergoari dagokionez, EAEn D eredua (% 68,2) gailendu zen gainerako ereduen gainetik. Nafarroan, berriz, X eredua izan zen nagusi (% 72,6). Zehatzago esanda, Gipuzkoan eta Bizkaian D eredua nagusitu zen (ikasleen % 80,7 eta % 63,2, hurrenez hurren). Hurrengoa A eredua izan zen, % 12,9ko eta % 28,7ko kuotarekin, hurrenez hurren. Hortaz, gainerako ereduek ordezkaritza txikia izan zuten. Araban D eredua mantendu zen lehen postuan (% 55,7), baina ikasleen herena A ereduan matrikulatu zen (% 32,3), eta % 12,0 B ereduan.

Horren guztiaren ondorioz, euskalduntze tasa % 75,5ekoa izan zen EAEn eta % 24,1ekoa Nafarroan. Hala, Euskal Herriko euskalduntze tasa % 64,6koa zen.

## 2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

2023/2024 ikasturtean, berriz ere, hazi egin zen Euskal Herriko unibertsitateko ikasleen kopurua (+% 3,9). Izan ere, Euskal Herriko prestakuntza-eskaintza osatzen duten bost unibertsitateetan egin zuen gora matrikulazioak. Hortaz, 70.718 ikasle matrikulatu ziren bi unibertsitate publikoetan (Euskal Herriko Unibertsitatea EHU eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa) eta hiru pribatuetan (Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea).

Unibertsitate bakoitzaren ekarpenari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) matrikulatu ziren ikasleen erdiak baino zerbait gehiago (% 51,5). Jarraian, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa kokatu ziren, antzeko partaidetzekin (% 14,5, % 13,7 eta % 12,0). Eta Mondragon Unibertsitateak osatu zuen prestakuntza-eskaintza, ordezkaritza apur bat txikiagoarekin (% 8,3).

Lurraldearen arabera, Bizkaia izan zen lehenengoa, ikasleen % 40,0 jaso baitzituen. Gipuzkoa (% 25,9) eta Nafarroa (% 24,2) izan ziren hurrengoak eta, azkenik, Araba (% 9,8).

**196. koadroa Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan**

| Unibertsitatea eta lurraldeak | Ikasleak | | Irakasleak | |
|---|---|---|---|---|
| | 22/23 ikasturtea | 23/24 ikasturtea(*) | 22/23 ikasturtea | 23/24 ikasturtea(*) |
| **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **35.002** | **36.427** | **5.834** | **5.933** |
| Araba | 6.840 | 6.960 | 1.045 | 1.071 |
| Bizkaia | 19.323 | 20.369 | 3.312 | 3.393 |
| Gipuzkoa | 8.839 | 9.098 | 1.477 | 1.469 |
| **Nafarroako Unibertsitatea** | **9.527** | **9.674** | **1.104** | **1.123** |
| Nafarroa | 8.508 | 8.627 | 962 | 973 |
| Gipuzkoa | 1.019 | 1.047 | 142 | 150 |
| **Nafarroako Unibertsitate Publikoa** | **8.140** | **8.501** | **1.147** | **1.259** |
| Nafarroa | 8.140 | 8.501 | 1.147 | 1.259 |
| **Deustuko Unibertsitatea** | **9.675** | **10.253** | **2.428** | **2.597** |
| Bizkaia | 7.578 | 7.951 | 2.078 | 2.200 |
| Gipuzkoa | 2.097 | 2.302 | 350 | 397 |
| **Mondragon Unibertsitatea** | **5.702** | **5.863** | **656** | **623** |
| Gipuzkoa | 5.702 | 5.863 | 656 | 623 |
| **Guztira** | **68.046** | **70.718** | **11.169** | **11.535** |
| Araba | 6.840 | 6.960 | 1.045 | 1.071 |
| Bizkaia | 26.901 | 28.320 | 5.390 | 5.593 |
| Gipuzkoa | 17.657 | 18.310 | 2.625 | 2.639 |
| EAE | 51.398 | 53.590 | 9.060 | 9.303 |
| Nafarroa | 16.648 | 17.128 | 2.109 | 2.232 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.*

Irakasle kopuruari dagokionez, 2023/24 ikasturtean % 3,3 hazi zen plantilla, eta 11.535 irakaslera iritsi zen. Unibertsitate guztietan ugaritu ziren irakasleak, Mondragon Unibertsitatean izan ezik; azken horretan, 2022/2023 ikasturtean baino 33 irakasle gutxiago izan zituzten. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitateak 5.933 eta 1.123 irakasle izan zituzten, hurrenez hurren; bilakaera bera izan zuten (+% 1,7). Aldiz, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (+% 9,8) eta Deustuko Unibertsitatean (+% 7,0) handiagoa izan zen hazkundea, eta 1.259 eta 2.597 irakasle izan zituzten, hurrenez hurren.

Jarraian, Euskal Herriko unibertsitateetan ikasleek izandako bilakaeraren xehetasunak aurkezten dira.



LABORAL kutxa

**197. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHUn**

| Lurralde historikoa | 22/23 ikasturtea | 23/24 ikasturtea(*) | % | % Δ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| **Araba** | **6.840** | **6.960** | **100,0** | **1,8** |
| Farmazia Fakultatea | 1.261 | 1.244 | 17,9 | -1,3 |
| Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea | 2.139 | 2.153 | 30,9 | 0,7 |
| Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea | -- | 129 | 1,9 | -- |
| Irakasleen UE | 1.128 | 1.100 | 15,8 | -2,5 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 838 | 859 | 12,3 | 2,5 |
| Gizarte Laneko UE | 529 | 534 | 7,7 | 0,9 |
| Enpresa Zientzien UE | 480 | 474 | 6,8 | -1,3 |
| Jarduera Fiskoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea | 465 | 467 | 6,7 | 0,4 |
| **Bizkaia** | **19.323** | **20.369** | **100,0** | **5,4** |
| Zientziak eta Teknologia Fakultatea | 2.607 | 2.644 | 13,0 | 1,4 |
| Arte Ederren Fakultatea | 1.171 | 1.158 | 5,7 | -1,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 2.539 | 2.517 | 12,4 | -0,9 |
| Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea | 2.390 | 2.358 | 11,6 | -1,3 |
| Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea | 2.349 | 2.101 | 10,3 | -10,6 |
| Ingeniaritza Eskola | 1.744 | 3.024 | 14,8 | 73,4 |
| Enpresa Ikasketen UE | 798 | 802 | 3,9 | 0,5 |
| Erizaintzako UE (Leioa) | 675 | 670 | 3,3 | -0,7 |
| Irakasleen UE | 1.987 | 1.968 | 9,7 | -1,0 |
| Lan Harremanen E. | 544 | 554 | 2,7 | 1,8 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 1.545 | 1.565 | 7,7 | 1,3 |
| Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE | 250 | 273 | 1,3 | 9,2 |
| Nautikako GET | 216 | 233 | 1,1 | 7,9 |
| Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko atala | 508 | 502 | 2,5 | -1,2 |
| **Gipuzkoa** | **8.839** | **9.098** | **100,0** | **2,9** |
| Zientzia Kimikoen Fakultatea | 326 | 335 | 3,7 | 2,8 |
| Zuzenbide Fakultatea | 874 | 872 | 9,6 | -0,2 |
| Informatika Fakultatea | 720 | 763 | 8,4 | 6,0 |
| Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | 1.054 | 1.070 | 11,8 | 1,5 |
| Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea | 500 | 673 | 7,4 | 34,6 |
| Psikologia Fakultatea | 1.025 | 1.032 | 11,3 | 0,7 |
| Arkitekturako GET | 728 | 758 | 8,3 | 4,1 |
| Enpresa Ikasketen UE | 973 | 909 | 10,0 | -6,6 |
| Irakasleen UE | 1.111 | 1.040 | 11,4 | -6,4 |
| Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 298 | 310 | 3,4 | 4,0 |
| Donostiako Unibertsitate Politeknikoa | 1.230 | 1.336 | 14,7 | 8,6 |
| **Guztira** | **35.002** | **36.427** | **100,0** | **4,1** |

*(*): Behin-behineko datuak.*
Iturria: UPV/EHU.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) hasiko dugu unibertsitateen azterketa xehea. 2023/2024 ikasturtea 36.427 ikaslerekin (+% 4,1; 1.425 ikasle gehiago) itxi zuen, hiru campusetan banatuta.

Erreferentziazko campusarekin hasiko gara, hau da, Bizkaiko Campusarekin; EHUko ikasleen % 55,9 jasotzen ditu, eta 2023/2024 ikasturtean hura izan zen hiru campusen

artean hazkunderik handiena izan zuena. Matrikulazioa % 5,4 hazi zen eta 20.369 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 1.046 gehiago.

Campuseko prestakuntza-eskaintza osatzen duten 14 fakultateetatik 7tan egin zuen gora ikasle kopuruak. Zehazki, Ingeniaritzako UE gradu berriak gehitzen ari da, eta ikasleen % 14,8 jaso zituen, hazkunde nabarmena izan ondoren (+% 73,4). Zientzia eta Teknologia Fakultateak hazkunde txikiagoa izan zuen (+% 1,4), baina antzeko pisua (% 13). Eta parte-hartze apur bat txikiagoa (% 7,7) izan zuen Industria Ingeniaritza Teknikoko UEk (+% 1,3). Jarraian, gora egin zuten Meatze Ingeniaritza Teknikoko UEko matrikulek (+% 9,2) eta Nautikako GETeko matrikulek (+% 7,9) ere, % 1ren bueltako partaidetzekin. Era berean, gora egin zuen Lan Harremanen Eskolako eta Enpresa Ikasketen UEko matrikulazioak ere (+% 1,8 eta +% 0,5), % 2,7ko eta % 3,9ko pisu erlatiboekin.

Bestalde, matrikulazioak behera egin zuen honako hauetan, neurri ezberdinetan: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea eta Irakasleen UE (-% 10,6, -% 1,3, -% 0,9 eta -% 1,0). Dena den, horiek antzeko ekarpena egin zioten Bizkaiko campusari (% 10,3, % 11,6, % 12,4 eta % 9,7, hurrenez hurren). Era berean, behera egin zuten honakoek ere: Arte Ederren Fakultatea, Zuzenbide Fakultatea eta Erizaintzako UE (-% 1,1, -% 1,2 eta -% 0,7). Baina horien pisu erlatiboa txikiagoa da (% 5,7, % 2,5 eta % 3,3).

Gipuzkoako campusari dagokionez, hura osatzen duten 11 fakultateen baterako balantzea positiboa izan zen, ikasle kopurua % 2,9 hazi baitzen azken ikasturtean. Guztira 9.098 ikasle jaso zituen Gipuzkoako campusak, hau da, EHUko ikasleen laurdena.

Matrikulazioaren hazkundeak handiagoak izan ziren beherakadak baino. Testuinguru horretan, Medikuntza Fakultateak izan zuen urte arteko hazkunderik handiena (+% 34,6); % 7,4ko pisu erlatiboa du. Gipuzkoako campusean ordezkaritza handiena duten hiru fakultateetan ere gora egin zuen matrikulazioak: Donostiako Unibertsitate Politeknikoa (% 14,7ko partaidetza), Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (% 11,8) eta Psikologia Fakultatea (% 11,3). Dena den, neurri ezberdinetako hazkundeak izan zituzten (+% 8,6, +% 1,5 eta +% 0,7). Era berean, ikasgeletan ikasle gehiagorekin itxi zuten ikasturtea honakoek: Informatika Fakultatea (% 8,4ko partaidetza), Arkitektura GETa (% 8,3), Zientzia Kimikoen Fakultatea (% 3,7) eta Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (% 3,4). Honako hazkunde hauek izan zituzten, hurrenez hurren: +% 6,0, +% 4,1, +% 2,8 eta +% 4,0, hurrenez hurren.

Bestetik, behera egin zuen matrikulazioak Irakasleen UEn (-% 6,4) eta Enpresa Zientzien UEn (-% 6,6); bi kasuetan, % 11 inguruko partaidetzekin. Zuzenbide Fakultatean ere, % 9,6ko pisu erlatiboarekin behera egin zuen ikasle kopuruak apur bat (-% 0,2).



LABORAL kutxa

Azkenik, Arabako campusak osatzen du EHUko eskaintza, 6.960 ikaslerekin (guztizkoaren % 19,1). Urte arteko % 1,8ko hazkundea izan zuen matrikula kopuruak, 8 fakultateetatik 5ek izandako bilakaerari esker.

Gora egin zuen Industria Ingeniaritza Teknikoko UEko matrikulazioak (+% 2,5 eta % 12,3ko kuota). Horrez gain, % 1eko hazkundeak baino txikiagoak izan zituzten Filologia, Geografia eta Historia Fakultateak, Gizarte Laneko UEk eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak; hori bai, horien pisu erlatiboak oso ezberdinak ziren (% 30,9, % 7,7 eta % 6,7, hurrenez hurren). Berrikuntza gisa, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea gehitu zen Arabako campusera, eta 2023/2024 ikasturtean 129 ikasle izan zituen.

Aldiz, behera egin zuen Farmazia Fakultateko (-% 1,3) eta Irakasleen UEko (-% 2,5) ikasle kopuruak, pisu erlatibo handiak izan arren (% 17,9 eta % 15,8). Enpresa Zientzien UEk ere ikasleak galdu zituen (-% 1,3); Arabako campuseko ikasleen % 6,8 jasotzen ditu horrek.

Analisiarekin jarraituz eta Nafarroako Unibertsitateari dagokionez (pribatua da), 2023/24 ikasturtean 9.674 ikasle jaso zituen Nafarroako campusaren (8.627 ikasle) eta Gipuzkoako campusaren (1.047 ikasle) artean.

**198. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 22/23 ikasturtea | 23/24 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| **Nafarroa** | **8.508** | **8.627** | **100,0** | **1,4** |
| Zuzenbidea | 823 | 864 | 10,0 | 5,0 |
| Medikuntza | 1.180 | 1.182 | 13,7 | 0,2 |
| Filosofia eta Letrak | 566 | 576 | 6,7 | 1,8 |
| Komunikazioa | 651 | 652 | 7,6 | 0,2 |
| Hezkuntza eta Psikologia | 957 | 904 | 10,5 | -5,5 |
| Zientziak | 751 | 768 | 8,9 | 2,3 |
| Farmazia eta Nutrizioa | 743 | 776 | 9,0 | 4,4 |
| Arkitektura | 605 | 624 | 7,2 | 3,1 |
| Teologia | 110 | 122 | 1,4 | 10,9 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientziak | 1.354 | 1.362 | 15,8 | 0,6 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 544 | 537 | 6,2 | -1,3 |
| Erizaintza | 224 | 260 | 3,0 | 16,1 |
| **Gipuzkoa** | **1.019** | **1.047** | **100,0** | **2,7** |
| Industria Ingeniaritza | 1.019 | 1.047 | 100,0 | 2,7 |
| **Guztira(2)** | **9.527** | **9.674** | **100,0** | **1,5** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Horiez gain, doktoregoko 1.071 ikasle eta masterreko 598 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.*

Nafarroako campusarekin hasita, matrikulazioa % 1,4 hazi zen, gora egin baitzuen eskaintza osatzen duten fakultate ia guztietako ikasle kopuruak. Hala, Hezkuntza eta Psikologia Fakultateak (-% 5,5) eta Idazkaritza eta Administrazio Fakultateak – ISSA (-% 1,3) bakarrik galdu zituzten ikasleak. Dena den, jaitsiera horiek inpaktu ezberdina izan

zuten, fakultateen pisu espezifikoa dela eta (Nafarroako campuseko ikasleen % 10,5 eta % 6,2, hurrenez hurren).

Aldiz, matrikula kopurua hazi egin zen Nafarroako campuseko 12 fakultateetatik 10etan. Zehazki, ordezkaritza handiena duten hiru fakultateetako matrikulazioa hazi egin zen: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (% 15,8ko pisu erlatiboa), Medikuntza Fakultatea (% 13,7) eta Zuzenbide Fakultatea (% 10,0). Dena den, hazkundeak neurri ezberdinetakoak izan ziren (+% 0,6, +% 0,2 eta +% 5,0). Era berean, gora egin zuen fakultate hauetako matrikula kopuruak: Filosofia eta Letren Fakultatea (+% 1,8), Komunikazioa (+% 0,2), Zientziak (+% 2,3) Farmazia eta Nutrizioa (+% 4,4) eta Arkitektura (+% 3,1). % 6,7, % 7,6, % 8,9, % 9,0 eta % 7,2ko partaidetzak zituzten horiek, hurrenez hurren. Testuinguru horretan, Erizaintza Fakultatearen gorakada (+% 16,1) nabarmendu zen. Hala ere, fakultaterik txikiena da hura, Teologia Fakultatearekin (+% 10,9) batera: ikasleen % 3,0 eta % 1,4 jasotzen dituzte, hurrenez hurren.

Azkenik, Gipuzkoako campusak jasotzen ditu Industria Ingeniaritzako Fakultateari atxikitako ikasleak, eta 2023/2024 ikasturtean 1.047 ikasle matrikulatu ziren bertan, aurreko ikasturtean baino % 2,7 gehiago.

**199. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 22/23 ikasturtea | 23/24 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza Ingeniaritzen GET | 797 | 850 | 10,0 | 6,6 |
| Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET | 2.155 | 2.223 | 26,1 | 3,2 |
| Osasun Zientzien Fakultatea | 1.121 | 1.242 | 14,6 | 10,8 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 1.070 | 1.092 | 12,8 | 2,1 |
| Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea | 2.078 | 2.146 | 25,2 | 3,3 |
| Zientzia Juridikoen Fakultatea | 652 | 672 | 7,9 | 3,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultatea(2) | 231 | 234 | 2,8 | 1,3 |
| Nekazaritza ingeniaritzen/Ekonomia eta Enpresa zientzien GET(3) | 36 | 42 | 0,5 | 16,7 |
| **Guztira(4)** | **8.140** | **8.501** | **100,0** | **4,4** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren eta Zuzenbidearen Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.*
*(3): Datuen Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren Gradu Bikoitzeko ikasleak jasotzen ditu.*
*(4): Horiez gain, masterreko 2.148 ikasle eta doktoregoko 586 ikasle daude Nafarroan.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.*

Nafarroako Unibertsitate Publikoari (UPNA) dagokionez, matrikulak % 4,4 hazi ziren 2023/2024 ikasturtean. Hala, aurreko ikasturtean baino 361 ikasle gehiago izan ziren; guztira, 8.501.

Hazkundeak orokorrak izan ziren eta, testuinguru horretan, matrikulazioak honakoetan izandako bilakaera nabarmendu zen: Nekazaritza ingeniarien/Ekonomia eta Enpresa

zientzien GET (+% 16,7 eta % 0,5eko partaidetza), Osasun Zientzien Fakultatea (+% 10,8 eta % 14,6ko pisua) eta Nekazaritza Ingeniarien GET (+% 6,6 eta % 10,0ko pisua). Bestetik, hazkunde txikiekin baina pisu espezifiko oso handiekin itxi zuten ikasturtea Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GETek (+% 3,2) eta Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak (+% 3,3). Horien artean, ikasleen erdia baino gehiago jaso zuten (% 26,1 eta % 25,2, hurrenez hurren). Halaber, matrikulazioak goranzko bilakaera izan zuen Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (+% 2,1), Zientzia Juridikoen Fakultatean (+% 3,1) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien eta Zientzia Juridikoen Fakultatean (+% 1,3). Horien partaidetzak neurri ezberdinetakoak dira (% 12,8, % 7,9 eta % 2,8).

**200. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 22/23 ikasturtea | 23/24 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| **Bizkaia** | **7.578** | **7.951** | **100,0** | **4,9** |
| Zuzenbide Fakultatea | 953 | 953 | 12,0 | 0,0 |
| Teologia Fakultatea | 71 | 78 | 1,0 | 9,9 |
| Ingeniaritza Fakultatea | 1.363 | 1.499 | 18,9 | 10,0 |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 1.391 | 1.376 | 17,3 | -1,1 |
| EUMBAM (DUri atxikitako zentroa) | 812 | 799 | 10,0 | -1,6 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 913 | 975 | 12,3 | 6,8 |
| Osasun Zientzien Fakultatea | 1.169 | 1.350 | 17,0 | 15,5 |
| Hezkuntza eta Kirol Fakultatea | 906 | 882 | 11,1 | -2,6 |
| Voxel School (DUri atxikitako zentroa) | -- | 39 | 0,5 | -- |
| **Gipuzkoa** | **2.097** | **2.302** | **100,0** | **9,8** |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 483 | 455 | 19,8 | -5,8 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 773 | 746 | 32,4 | -3,5 |
| Zuzenbide Fakultatea | 103 | 123 | 5,3 | 19,4 |
| Ingeniaritza Fakultatea | 36 | 68 | 3,0 | 88,9 |
| Osasun Zientzien Fakultatea | 432 | 614 | 26,7 | 42,1 |
| Hezkuntza eta Kirol Fakultatea | 270 | 296 | 12,9 | 9,6 |
| **Guztira(2)** | **9.675** | **10.253** | **100,0** | **6,0** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Horiez gain, doktoregoko 172 ikasle eta masterreko 1.085 ikasle daude.*
*Iturria: Deustuko Unibertsitatea*

Jarraian, Deustuko Unibertsitateko matrikulazioaren bilakaera aztertuko dugu. 2023/24 ikasturtean matrikulazioa 10.000 ikasletik gorakoa izan zen, % 6,0ko hazkundea izan ondoren.

Bizkaiko campusak jaso zuen ikasleen % 77,5, matrikulazioa % 4,9 hazi ondoren. Ikasle kopuru handiena duten fakultateetako bik izandako bilakaerak eragin zuen, batez ere, hazkunde hori: Ingeniaritza Fakultatea eta Osasun Zientzien Fakultatea. Horiek % 18,9ko eta % 17,0ko partaidetzak dituzte, hurrenez hurren, eta % 10eko eta % 15,5eko hazkundeak izan zituzten. Era berean, gora egin zuten Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (+% 6,8) eta Teologia Fakultateak (+% 9,9) ere, baina igoera horiek ez zioten modu berean eragin guztizkoari, pisu espezifiko ezberdina baitzuten (% 12,3 eta % 1,0,

hurrenez hurren). Horrez gain, Zuzenbide Fakultateak, % 12,0ko partaidetzarekin, mantendu egin zuen matrikulazio maila. Eta unibertsitateari atxikitako ikastegi berri bat batu zen Bizkaiko campusera, Voxel School izenekoa, 39 ikasle berrirekin.

Aldiz, ikasle kopuruak behera egin zuen honako hauetan: Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (-% 1,1), EUMBAM —Bizkaiko campusari atxikitako ikastegia— (-% 1,6) eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (-% 2,6). Dena den, horiek presentzia erlatibo handia izan zuten Bizkaiko campusean (% 17,3, % 10,0 eta % 11,1).

Analisi hori bera Gipuzkoako campusera eramanda, matrikulazioa dezente igo zen 2023/24 ikasturtean (+% 9,8), eta 2.302 ikasle matrikulatu ziren. Ikasturtea aldakuntza positiboarekin amaitu zuten honako hauek: Ingeniaritza Fakultatea, matrikula kopurua berriz ere nabarmen igota (+% 88,9) baina partaidetza txikiarekin (% 3,0); Osasun Zientzien Fakultatea (+% 42,1), %26,7ko partaidetzarekin; Zuzenbide Fakultatea (+% 19,4), % 5,3ko kuotarekin; eta, azkenik, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (+% 9,6), matrikulazioaren % 12,9arekin.

Aldiz, ikasle kopuruak behera egin zuen Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (-% 3,5), campuseko fakultaterik handienean (% 32,4), eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean (-% 5,8), hura ere pisu erlatibo handiarekin (% 19,8).

**201. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 22/23 ikasturtea | 23/24 ikasturtea(*) | % | % Δ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| **Goi Eskola Politeknikoa** | **1.933** | **1.965** | **100,0** | **1,7** |
| Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua | 233 | 237 | 12,1 | 1,7 |
| Industria Elektronikoko Ingeniaritza Gradua | 183 | 181 | 9,2 | -1,1 |
| Informatikako Ingeniaritza Gradua | 182 | 165 | 8,4 | -9,3 |
| Ingeniaritza Mekanikoko Gradua | 399 | 395 | 20,1 | -1,0 |
| Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua | 284 | 271 | 13,8 | -4,6 |
| Energiaren Ingeniaritza | 120 | 123 | 6,3 | 2,5 |
| Ingeniaritza Mekatronikoa | 259 | 300 | 15,3 | 15,8 |
| Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza | 86 | 71 | 3,6 | -17,4 |
| Ingeniaritza Biomedikoa | 147 | 147 | 7,5 | 0,0 |
| Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa | 40 | 75 | 3,8 | 87,5 |
| **Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | **1.325** | **1.424** | **100,0** | **7,5** |
| Haur Hezkuntza Gradua | 347 | 346 | 24,3 | -0,3 |
| Lehen Hezkuntza Gradua | 737 | 819 | 57,5 | 11,1 |
| Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua | 182 | 184 | 12,9 | 1,1 |
| Humanitate Digital Globalak (HDG) | 59 | 75 | 5,3 | 27,1 |
| **Enpresa Zientzien Fakultatea** | **2.030** | **2.045** | **100,0** | **0,7** |
| Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua | 610 | 641 | 31,3 | 5,1 |
| Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua | 1.139 | 1.227 | 60,0 | -2,0 |
| Business Data Analytics Gradua | 168 | 177 | 8,7 | 5,4 |
| **Gastronomia Zientzien Fakultatea** | **414** | **429** | **100,0** | **3,6** |
| Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak | 414 | 429 | 100,0 | 3,6 |
| **Guztira** | **5.702** | **5.863** | **100,0** | **2,8** |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Mondragon Unibertsitatea*

Unibertsitateei buruzko atalarekin amaitzeko, Mondragon Unibertsitateko matrikulazioaren bilakaera aztertuko dugu jarraian. 2023/24 ikasturtean 5.863 ikasle izan zituen, aurreko ikasturtean baino % 2,8 gehiago.

Goi Eskola Politeknikoko ikasle kopurua apur bat igo zen (+% 1,7), bertan eskaintzen diren 10 graduetatik 4tan gora egin zuelako matrikulazioak. Unibertsitateko matrikulen herena dagokio Goi Eskola Politeknikoari. Hala, hazkunderik handiena Ingeniaritza Mekatronikoko Graduak izan zuen (+% 15,8 eta ikasleen % 15,3). Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua (+% 1,7 eta % 12,1) eta Energiaren Ingeniaritza Gradua (+% 2,5 eta % 6,3) izan ziren hurrengoak. Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoko Graduan ere gora egin zuen matrikulazioak (+% 87,5); ia % 4ko partaidetza du gradu horrek. Ingeniaritza Biomedikoko Graduan, berriz, ez zen aldatu ikasleen bolumena, eta guztizkoaren % 7,5 jaso zuten.

Hala, matrikula kopurua jaitsi egin zen honako hauetan: Ingeniaritza Mekanikoko Gradua (-% 1,0), Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza (-% 4,6), Industria Elektronikoko Ingeniaritza (-% 1,1), Ingeniaritza Informatikoa (-% 9,3) eta Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza (-% 17,4). Jaitsiera horiek inpaktu ezberdinak izan zituzten, ordezkaritza heterogeneoa baitute (% 20,1, % 13,8, % 9,2, % 8,4 eta % 3,6).

Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean matrikulazioa nabarmen igo zen (+% 7,5), eta 1.424 ikasle jaso zituen (guztizkoaren % 24,3). Joera orokorra ikasle kopurua handitzekoa izan zen, eta Haur Hezkuntzako Graduan (% 24,3ko pisu erlatiboa) bakarrik murriztu zen ikasle kopurua, apur bat, % 0,3. Hortaz, matrikulazioak hobera egin zuen Lehen Hezkuntzako Graduan (+% 11,1; ikasleen % 57,5), Ikus-entzunezko Komunikazio Graduan (+% 1,1; % 12,9ko pisu espezifikoa) eta Humanitate Digital Globalen Graduan (+% 27,1; matrikulen % 5,3).

Enpresa Zientzien Fakultateak ikasleen herena jaso zuen, eta 2023/2024 ikasturtean egonkor mantendu zen, aurreko ikasturtean baino % 0,7 ikasle gehiagorekin. Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduak jaso zituen ikasle gehien (% 60,0), eta behera egin zuen (-% 2,0). Hala, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan (+% 5,1) eta Business Data Analytics Graduan (+% 5,4) erregistratutako igoerek saihestu zuten ikasturtea balio negatiboekin ixtea. Ikasleen % 31,3 eta % 8,7 dagozkie gradu horiei, hurrenez hurren.

Gastronomia eta Sukaldaritza Arteen Graduak osatzen du Mondragon Unibertsitatearen eskaintza. Aurreko ikasturtearekin alderatuta % 3,6 hazi zen, eta beste 429 ikasle gehitu zizkion unibertsitateko ikasleen guztizkoari.

# 3. GARRAIOA

## 3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

EuskoTren EAEko[1] erreferentziazko operadore multimodala da, eta 2023ko ekitaldia ixtean 47,92 milioi joan-etorri zenbatu zituen; kopuru hori errekor historiko gisa ezarri zen konpainiarentzat.

Mugikortasunaren hazkunde horri lagundu zioten, alde batetik, konpainiaren zerbitzuen erabiltzaileen joan-etorrietarako ohiturak erabat berrezartzeak, eta, bestetik, EuskoTrenen abonamenduak eta garraio-tituluak % 50 murrizteak, garraio publikoaren erabilera bultzatzen lagundu baitute.

**202. koadroa EuskoTrenen adierazle nagusien bilakaera**

| Concepto | 2021 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Bidaiariak (milioitan) | 32,07 | 39,45 | 47,92 | 21,5 |
| – Trenbidea | 19,83 | 24,77 | 29,37 | 18,6 |
| – Tranbia | 7,76 | 9,26 | 12,3 | 32,8 |
| – Autobusa | 4,48 | 5,42 | 6,26 | 15,5 |
| Salgaien bolumena (m Tm) | 69,6 | 68,4 | 22,3 | -67,4 |
| Diru-bilketa (€) | 25.558,30 | 27.560,91 | 21.917,54 | -20,5 |
| Enplegatuak (kop.) | 1.141 | 1.262 | 1.310 | 3,8 |

*Iturria: EuskoTren.*

Informazioa zerbitzu motaren arabera banakatuta, trenbideko garraioaren erabilera bidaiarien % 61,3 da (29,37 milioi), eta % 18,6 hazi zen 2023an. Bilakaera hori autobus-zerbitzuak izandakoaren antzekoa izan zen (+% 15,5), baina askoz ere txikiagoa (% 13,1, 6,26 milioi bidaiari). Azkenik, tranbiak izan zuen urte arteko bilakaerarik handiena erabiltzaileen kopuruari dagokionez (+% 32,8), 12,3 milioi izan baitziren (% 25,7). Emaitza hori mesedegarria izan zen, zerbitzua Salburua auzoraino luzatu zelako.

Aitzitik, garraiatutako salgaien bolumena nabarmen jaitsi zen 2023an (– % 67,4), eta 22.275 tona izatera iritsi zen, neurri handi batean, 2023ko erdialdetik Zumaia eta Zarautz arteko trazadura eteteak baldintzatuta.

Ildo beretik, EuskoTrenen zerbitzuen bilketak 21,92 milioi euro bildu zituen, hau da, 2022an baino % 20,5 gutxiago.

Plantillari dagokionez, azken urteetako goranzko joerari eutsi zaio: 2023an 1.310 langile zeuden, 2022an baino 48 gehiago.

[1] Ezin izan da informazioa osatu Renferen datuekin.

**Bilboko Metroa**

2023an, Bilboko Metroaren bidaiari kopurua % 14,9 hazi zen, eta ia 92,4 milioi bidaiarira iritsi zen. Hala, gehieneko historikoa lortu zuen, aurreko marka, 2019koa, hautsita (91,6 milioi).

Zalantzarik gabe, garraio publikoaren tarifei aplikatutako deskontuak lagungarriak izan ziren urteko balantze ona lortzeko, bidaiari kopuruari dagokionez. Metroa erabili zuten 6 milioi bidaiari hobariaz baliatu zirela kalkulatzen da. Aitzitik, metroak 28 milioi euro gutxiagoko diru-sarrerak izan zituen 2023an, gutxi gorabehera.

**203. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan**

| Urtea | Bidaiariak (m) | %∆ |
|---|---|---|
| 2013 | 87.133 | -0,6 |
| 2014 | 87.397 | 0,3 |
| 2015 | 87.536 | 0,2 |
| 2016 | 87.105 | -0,5 |
| 2017 | 88.172 | 1,2 |
| 2018 | 89.919 | 2,0 |
| 2019 | 91.570 | 1,8 |
| 2020 | 55.987 | -38,9 |
| 2021 | 66.780 | 19,3 |
| 2022 | 80.377 | 20,4 |
| 2023 | 92.381 | 14,9 |

*turria: Bilboko Metroa.*

Gehien erabilitako txartelak Creditrans izaten jarraitu zuen (% 58), eta distantzia handira geratu zen Gizatrans (% 12). Aldi baterako txartelek, berriz, guztizkoaren % 26 bildu zuten. Hobarien inpaktua alde batera utzita, egia da aurreko biurtekoan ere ikusten zela goranzko joera. Pertsonen garraio-ohiturak normaltasunera itzuli ziren, lanarekin, ikasketekin zein aisialdiarekin lotuta. Horri esker, gora egin zuen bidaiarien mugimenduak. Beste urte batez, San Tomas egunean mugitu ziren bidaiari gehien. Egun horretan 387.098 billete baliozkotu ziren: metroaren historiako bigarren erregistrorik onena.

Bilboko Metroaren sarea osatzen duten 42 geltokietan erregistratutako bidaiarien mugimenduari dagokionez, eskariak gora egin zuen arren, nahiko berdin mantendu zen geltokien araberako banaketa. Aurreko ekitaldietan bezala, Zazpikaleak, Santimami eta Abando izan ziren geltoki nagusiak enbor komunean. Bazterretan, berriz, Barakaldo, Gurutzeta eta Areeta nabarmendu ziren. Hala, 2. lineak jaso zituen bidaiarien % 41, enbor komunak % 33 eta 1. lineak % 25.

## 3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepide bidezko garraioari buruzko atalari hasiera emateko, ibilgailuen parkearen bilakaera aztertuko dugu. Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako informazioaren arabera, 2023an 36.075.238 unitate zituen Estatuko ibilgailuen parkeak, aurreko urtean baino % 1,1 gehiago. Euskal Herrian 1.911.485 unitate zenbatu ziren. Kasu honetan ere urte arteko hazkundea izan zen, baina txikiagoa (+% 0,7).

Lurralde historikoen araberako azterketa egiteko, Bizkaiarekin hasiko gara. Euskal Herriko parkearen gaineko % 37,2ko pisu erlatiboa du, eta 2023an apur bat hazi zen haren parke mugikorra, % 0,5. Gipuzkoak eta Nafarroak ia partaidetza bera dute (% 25,6 eta % 25,7), eta horiek ere oso igoera txikiak izan zituzten (+% 0,5 eta +% 1,0). Araban ere txikia izan zen hazkundea (+% 0,7); lurralde horretan, parke mugikorra txikiagoa da (% 11,5).

Ibilgailu mota bakoitzaren pisu erlatiboari dagokionez, ez zen aldaketa handirik izan 2022arekiko. Zehazki, Estatuan, ibilgailuen parkearen zatirik handiena turismoei zegokien, % 70,3ko partaidetzarekin. Aldiz kategoria horrek izan zuen urte arteko aldakuntzarik txikiena (+% 0,5). Kamioiek % 14,3ko partaidetza zuten parkean, eta urte arteko % 1,4ko igoera izan zuten. Aldiz, motozikletek % 11,5eko pisu erlatiboa zuten, eta hazkunde handiagoa izan zuten (+% 3,9). Traktore industrialek, autobusek eta beste ibilgailu batzuek osatu zuten parkea, askoz ere partaidetza txikiagoekin (guztizkoaren % 0,7, % 0,2 eta % 3). Urte arteko bilakaerari dagokionez, autobusek (+% 1,9) baino hazkunde handiagoa izan zuten traktore industrialek eta beste ibilgailu batzuek (+% 3,4 eta +% 3,2).

Lurraldearen arteko banaketa aintzat hartuta, Bizkaiak Euskal Herriko ibilgailuen parkeari egindako ekarpena nabarmendu zen, autobusei (% 49,1), kamioiei (% 33,8) eta turismoei (% 38,5) dagokienez. Aldiz, motozikleten kategorian, Bizkaiak lehia izan zuen Gipuzkoarekin (% 34,9 eta % 34,7, hurrenez hurren). Bestetik, Nafarroa izan zen Euskal Herriko ibilgailuen parkeari traktore industrialen ekarpen handiena egin ziona (% 35,3), eta esanguratsua izan zen Nafarroako kamioien pisu erlatiboa ere (% 30,6). Motozikleten hazkundea (+% 3,4) nabarmendu zen 2023an, baita traktore industrialena ere (+% 2,7). Aldiz, nahiko egonkor mantendu ziren kamioiak (+% 1,1), turismoak (+% 0,1) eta autobusak (-% 0,1). Hala, espero zen moduan, turismoak (% 71,5), kamioiak (% 13,2) eta motozikletak (% 10,5) izan ziren beste urte batez Euskal Herriko parke mugikorreko ibilgailu gehienak.

**204. koadroa Ibilgailuen parkea***

(unitate)

| Eremua | Kamioiak (1) | | Autobusak | | Turismoak | | Motozikletak | | Traktore industrialak | | Beste batzuk (2) | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Araba | 28.697 | 29.068 | 531 | 520 | 160.651 | 161.002 | 18.061 | 18.739 | 1.513 | 1.494 | 9.188 | 9.378 | 218.641 | 220.201 |
| Bizkaia | 84.518 | 85.493 | 2.210 | 2.249 | 526.813 | 526.370 | 67.528 | 70.093 | 3.473 | 3.542 | 21.924 | 22.493 | 706.466 | 710.240 |
| Gipuzkoa | 60.324 | 60.799 | 994 | 961 | 334.396 | 333.822 | 67.881 | 69.769 | 3.419 | 3.613 | 19.598 | 19.925 | 486.612 | 488.889 |
| EAE | 173.539 | 175.360 | 3.735 | 3.730 | 1.021.860 | 1.021.194 | 153.470 | 158.601 | 8.405 | 8.649 | 50.710 | 51.796 | 1.411.719 | 1.419.330 |
| Nafarroa | 76.404 | 77.385 | 846 | 847 | 343.043 | 344.790 | 40.919 | 42.472 | 4.607 | 4.715 | 21.432 | 21.946 | 487.251 | 492.155 |
| Euskal Herria | 249.943 | 252.745 | 4.581 | 4.577 | 1.364.903 | 1.365.984 | 194.389 | 201.073 | 13.012 | 13.364 | 72.142 | 73.742 | 1.898.970 | 1.911.485 |
| Espainia | 5.075.068 | 5.148.231 | 65.377 | 66.638 | 25.222.554 | 25.356.594 | 4.006.804 | 4.162.850 | 245.075 | 253.334 | 1.053.565 | 1.087.591 | 35.668.443 | 36.075.238 |
| Euskal Herria/ Espainia % | 4,9 | 4,9 | 7,0 | 6,9 | 5,4 | 5,4 | 4,9 | 4,8 | 5,3 | 5,3 | 6,8 | 6,8 | 5,3 | 5,3 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*(1): Kamioiak eta furgonetak barne hartzen ditu.*
*(2): Beste ibilgailu batzuk, atoiak eta erdi-atoiak barne hartzen ditu.*
*Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)*

Kamioien, traktore industrialen eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, aurreko biurtekoan ez bezala (behera egin zuten adierazle guztiek), 2023an hazkundeak nagusitu ziren. Hala, Estatuan, 2023ko balantzeak erakusten duenez, gora egin zuten aztertutako kategoria guztietako matrikulazio garbiek.

Euskal Herriko bilakaeraren patroia Estatukoaren antzekoa izan zen, autobusen salbuespenarekin. Autobusek balio negatiboa eskuratu zuten 2023an (-4), Arabako (-11) eta Gipuzkoako (-33) jaitsieren ondorioz. Kamioiek eta traktore industrialek gora egin zuten aztertutako lurralde guztietan. Zehatzago esanda, Bizkaiak eta Nafarroak matrikulazio garbi oso antzekoa izan zuten, 1.000 unitate ingurukoa (1.044 eta 1.089). Aldiz, matrikulazioa zerbait baxuagoa izan zen Gipuzkoan (669) eta Araban (352).

**205. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia***

(unitate)

| Eremua | Kamioiak eta traktore industrialak | | Autobusak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Araba | -253 | 352 | 25 | -11 | -228 | 341 |
| Bizkaia | -185 | 1.044 | 54 | 39 | -131 | 1.083 |
| Gipuzkoa | -72 | 669 | 56 | -33 | -16 | 636 |
| EAE | -510 | 2.065 | 135 | -5 | -375 | 2.060 |
| Nafarroa | 191 | 1.089 | 15 | 1 | 206 | 1.090 |
| Euskal Herria | -319 | 3.154 | 150 | -4 | -169 | 3.150 |
| Espainia | 31.271 | 81.422 | 930 | 1.261 | 32.201 | 82.683 |

*(*): Parkearen urte arteko aldakuntza.*
*Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)*

Informazioan sakonduta eta motorizazio-indizeei dagokienez, 2023an gelditu egin zen 1.000 biztanleko ibilgailuen ratioak aurreko urteetan izandako goranzko joera, eta egonkor mantendu zen aztertutako eremu geografiko guztietan, Estatuan izan ezik. Gauzak hala, Estatua kokatu zen lehen postuan adierazle horretan: 1.000 biztanleko 758 ibilgailu. Nafarroa izan zen hurrengoa, 733rekin, eta, distantzia apur batera, Gipuzkoa (672), Araba (654) eta, azkenik, Bizkaia (615).

Bigarren adierazleari dagokionez, hau da, turismo bakoitzeko biztanle kopuruari dagokionez, ez zen aldaketarik izan 2022an jasotako balioekiko. Hala, Bizkaia eta Gipuzkoa jarri ziren buruan, turismo bakoitzeko 2,2 biztanleko ratioarekin. Arabaren kasuan, adierazle hori baxuagoa izan zen, 2,1ekoa. Aldiz, Estatuan eta Nafarroan are baxuagoa izan zen (1,9).

**206. koadroa Motorizazio-indizeak**

| Eremua | Ibilgailuak/1.000 biztanle | | Biztanleak/Turismoa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Araba | 654 | 654 | 2,1 | 2,1 |
| Bizkaia | 615 | 615 | 2,2 | 2,2 |
| Gipuzkoa | 672 | 672 | 2,2 | 2,2 |
| EAE | 639 | 639 | 2,2 | 2,2 |
| Nafarroa | 734 | 733 | 1,9 | 1,9 |
| Euskal Herria | 661 | 661 | 2,1 | 2,1 |
| Espainia | 751 | 758 | 1,9 | 1,9 |

*turria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta guk geuk egina.*

Merkantzien errepide bidezko garraioa aztertuko dugu orain. Datuek erakusten dutenez, Estatuaren eta EAEren kasuan aldaketa gutxi izan ziren 2022arekiko, baina Nafarroak aurreko urtean baino emaitza txikiagoa eskuratu zuen.

Hortaz, Estatutik hasita, merkantzien trafikoa apur bat hazi zen 2023an (+% 0,9), eskualde barruko garraioak izandako bilakaerari esker (+% 2,2). Gainera, eskualde barruko garraioak zuen pisu erlatiborik handiena (% 69,6). Eskualde arteko garraioak % 30,4ko ordezkaritza zuen, eta haren balioak % 1,9 murriztu ziren 2023an.

EAEren kasuan analisi bera eginda, 2022ko balioekiko jarduera apur bat jaitsi zela ikus daiteke (-% 1,2), behera egin baitzuten eskualde barruko garraioak (guztizkoaren % 43,6 eta -% 1,9) zein eskualde artekoak (% 56,4 eta -% 0,6). Nafarroari dagokionez, 2023ko balantzea negatiboa izan zen (-% 9,5). Izan ere, behera egin zuen eskualde arteko trafikoak (-% 5,4), % 66,3ko ekarpenarekin; baina, batez ere, eskualde barruko trafikoa jaitsi zen, % 16,5 murriztu baitzen 2022arekiko. Horren guztiaren ondorioz, Euskal Herriko merkantzien garraioa % 4,1 murriztu zen, eta bi garraio motek egin zuten behera. Dena den, eskualde arteko garraioak izan zuen jarduerarik handiena (guztizkoaren % 59,6).

**207. koadroa Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.**

*(m Tm)*

| Eremua | EAE | | Nafarroa | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Eskualde barruko garraioa | 39.520 | 38.755 | 17.489 | 14.597 | 57.009 | 53.352 | 851.873 | 870.695 |
| Eskualde arteko garraioa | 50.468 | 50.151 | 30.310 | 28.676 | 80.778 | 78.827 | 387.138 | 379.735 |
| **Guztira** | **89.988** | **88.906** | **47.799** | **43.273** | **137.787** | **132.178** | **1.239.011** | **1.250.430** |

*turria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Estatistika Buletina.*

Errepide bidezko garraioaren gaineko kapituluarekin amaitzeko, EAEko hiriburuetan lan egiten duten hiru konpainien gaineko informazioa aurkeztuko dugu orain: Bilbobus, Dbus eta TUVISA. Atxikitako tauletan ikus daitekeen moduan, ezin izan dugu 2023ko informazioa guztiz osatu, TUVISAren datuak falta baitira. TUVISAren gaineko azken informazioa 2022koa da.

Hala, Bilbobusekin hasita, 2023an ez zen aldaketa esanguratsurik izan konpainiaren datu nagusietan. 46 linea zituen, 2022an baino bat gehiago. Luzera apur bat handitu zen, eta 721,7 km-ra iritsi zen. Aldiz, autobusen parke bera (141) mantendu zen, eta ia langile kopuru bera (626; -1 pertsona).

Dbusen kasuan, ez ziren aldatu linea kopurua (41) eta sarearen luzera (557,5 km), baina ibilgailuen parkeak aurreko urtean baino unitate bat gehiago zuen (141), eta 10 langile gehiago zituen, hau da, 578 langile.

TUVISAri dagokionez, 2022ko datuen arabera, 16 linea zituen, eta sarearen luzera 236,2 kilometrokoa zen. Autobusen kopurua, berriz, 90 unitatekoa zen.

**208. koadroa Hiri-garraioa. Sektorearen oinarrizko datuak.**

| Kontzeptua | Bilbo | | Donostia | | Gasteiz | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Sareko lineak (*) | 45 | 46 | 41 | 41 | 16 | -- |
| Luzera (km) | 720,7 | 721,7 | 557,5 | 557,5 | 236,2 | -- |
| Autobusen parkea | 141 | 141 | 140 | 141 | 90 | -- |
| Plantilla | 627 | 626 | 568 | 578 | -- | -- |

*(*): Eguneko eta gaueko lineak barne hartzen ditu.*
*(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.*
*Iturria: Transportes Colectivos S.A.; Cía. del Tranvía de San Sebastián, S.A.; Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.*

Analisiarekin jarraituz, aipatu beharrekoa da garraio publikoaren tarifek deskontuak izan zituztela, eta horrek mesede egin ziola sektoreari. Hala, nabarmen hazi zen Bilbobusek garraiatuko bidaiari kopurua. 24.077 mila bidaiari garraiatu zituen konpainiak, aurreko

urtean baino % 11,9 gehiago. Egindako kilometro baliagarrien kopurua, berriz, 2022koaren berdina izan zen ia. Dena den, deskontuen inpaktua diru-bilketan ere igarri zen, nabarmen jaitsi baitzen (-% 34,3). Guztira, 5.843 mila euro bildu zituen konpainiak.

Antzeko diagnostikoa Dbusen kasuan. 2023an nabarmen igo zen bidaiari kopurua (+% 16,1), eta 29.599 mila pertsona zenbatu ziren. Konpainiaren errekor historikoa izan zen. Egindako kilometro baliagarriak, berriz, apur bat ugaritu ziren. Aitzitik, bildutako diru kopuruak aurkako bilakaera izan zuen (-% 19,7), eta 12.326 mila euro bildu ziren. Hala, ustiapenaren emaitza -34.380 mila eurokoa izan zen.

**209. koadroa Hiri-garraioaren bilakaera**

| Kontzeptua | Bilbo | | Donostia | | Gasteiz | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Ibilitako km baliagarriak (m) | 6.304 | 6.379 | 6.989 | 7.115 | -- | -- |
| Garraiatutako bidaiariak (m) | 21.521 | 24.077 | 25.503 | 29.599 | -- | -- |
| Diru-bilketa (m euro) | 8.887 | 5.843 | 15.348 | 12.326 | -- | -- |
| Ustiapenaren emaitza (m euro) | -- | --. | -29.508 | -34.380 | -- | -- |
| Tarifak (euro)* | 1,35/0,66 | 1,35/0,66 | 1,85 | 1,85 | -- | -- |

*(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.*
*(*): Hobaria aplikatu gabe*
*Iturria: Transportes Colectivos SA; DBUS; Transportes Urbanos de Vitoria, SA.*

## 3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA

Munduko itsaso bidezko garraioaren analisiari dagokionez, 2022an jarduerak ez zuen aldaketarik izan, baina 2023an hazi egin zen munduko itsaso bidezko garraioa, jarduera garatu zen testuingurua oso konplexua izan arren.

Nazioarteko merkataritzaren % 80 merkantziak itsaso bidez garraiatuta egiten dela kalkulatzen da, eta garraiobide hori arriskuan jarri dute azken urteetako gorabeherek: Ukrainako gerraren ondorioz ibilbideak desbideratu beharra, Panamako kanaleko lehortea edota Itsaso Gorriko blokeoa (militante huthien erasoen ondorioz).

**210. koadroa  Itsaso bidezko munduko merkataritza**

*(M Tm)*

| Merkantziak | 2021 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| Solteko salgai solido nagusiak (1) | 3.276 | 3.221 | 3.382 | 5,0 |
| Petrolio gordina eta produktuak | 2.869 | 3.024 | 3.095 | 2,3 |
| Beste solteko salgai solido batzuk | 2.141 | 2.114 | 2.136 | 1,0 |
| Edukiontzietako kargak | 1.869 | 1.844 | 1.847 | 0,2 |
| Karga orokor konbentzionala | 940 | 935 | 952 | 1,8 |
| Beste solteko salgai likido batzuk (2) | 870 | 889 | 912 | 2,6 |
| **Guztira** | **11.965** | **11.905** | **12.324** | **3,5** |

*(1): Ikatza, burdin-mea, alea.*
*(2): Gas likidotuak eta produktu kimikoak.*
*Iturria: Anave, Clarkson.*

Hala, itsaso bidezko merkataritza % 3,5 hazi zen 2023an, eta 12.324 milioi tonara iritsi zen, hobetu egin baitzen garraiatutako merkantzia mota guztien trafikoa.

Zehatzago esanda, jardueraren banakapenean solteko salgai solidoak nabarmendu ziren, bolumenari zein bilakaerari dagokienez. Izan ere, partidarik handiena izan zen (% 27,4), eta 2023an gehien hazi zena (+% 5). Petrolio gordinaren eta petrolio-produktuen kasuan, garraiatutako bolumena antzekoa izan zen (% 25,1), eta urte arteko hazkundea % 2,3koa. Garrantzi handieneko hirugarren partidak (% 17,3), beste solteko salgai solido batzuenak, % 1eko hazkundea izan zuen haren balioetan. Eta edukiontzietako kargek (% 15) urte arteko hazkunde txikia izan zuten (+% 0,2). Azkenik, karga orokor konbentzionalak eta beste solteko salgai likido batzuek antzeko trafikoa izan zuten, % 7 ingurukoa, eta horiek ere joera nagusiari jarraitu zioten, % 1,8 eta % 2,6 hazi baitziren, hurrenez hurren.

Estatuan, aitzitik, bilakaera negatiboa izan zen. 2023an % 3,5 murriztu zen trafikoa, eta 351.808 mila tona merkantzia garraiatu zituzten itsaso bidez. Hala, inportazioen (% 58,1eko pisu erlatiboa) zein esportazioen (% 28,2ko ekarpena) jarduera % 4 inguru murriztu zen 2023an. Aldiz, kabotajearen ordezkaritza askoz ere txikiagoa zen (% 13,6), eta haren trafikoa ez zen ia aldatu 2022arekiko.

**211. koadroa  Espainiako itsas merkataritza**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|
| Esportazioak | 103.330 | 99.299 | -3,9 |
| Inportazioak | 213.238 | 204.514 | -4,1 |
| Kabotajea | 48.004 | 47.995 | 0,0 |
| **Guztira** | **364.572** | **351.808** | **-3,5** |

*Iturria: Anave, Estatuko Portuak.*

Analisiarekin jarraituz, eta Euskal Herriko bi portu nagusiei dagokienez (Bilboko Portua eta Pasaiako Portua), 2023ko balantzearen arabera, jarduera apur bat hazi zen (+% 0,6)

Datuetan sakonduta eta Bilboko Portuarekin hasita, 2023an 32.932,7 mila tona mugitu ziren han, 2022an baino % 0,1 gehiago, baina 2019ko balioetatik oso urrun oraindik ere. Izan ere, 2019an 35.561 mila tonako trafikoa erregistratu zen. Pasaiako Portuaren kasuan, berriz, trafikoa nabarmen hazi zen 2023an (+% 5,5), eta 3.493,8 mila tona garraiatu zituen. Estatu mailan gehien hazi zen portuetako bat izan zen. Hala, Euskal Herriko erreferentziazko portua izaten jarraitu zuen Bilboko Portuak, eta portuetako jardueraren zatirik handiena jaso zuen (% 90,4).

Bilboko Portuaren bilakaerari dagokionez eta jardueraren banakapenak erakusten duenez, bi partida nagusiek kontrako bilakaera izan zuten 2023an. Hau da, batetik, deskargen trafikoa % 3,4 hazi zen, eta % 68ko pisu erlatiboa izan zuten. Eta, bestetik, kargen jarduera % 6,2 murriztu zen, eta horiek % 31,6ko pisua izan zuten. Hornidurak osatu zuen Bizkaiko portuko trafikoaren osaera. Haren ekarpena askoz ere txikiagoa zen (% 0,4), eta urte arteko % 6,2ko hazkundea izan zuen.

Pasaiako Portuaren kasuan analisi bera eginda, balantzea askoz ere hobea izan zela ikusten da. Partida guztiek, arrantzak izan ezik (-% 2,1), goranzko aldakuntzak izan zituzten. Testuinguru horretan, pisu espezifikorik handieneko partidak, deskargenak (% 64,4), hazkunde nabarmena izan zuen 2022arekiko, % 7,3koa. Bilakaera bera izan zuten kargek (+% 2,4) eta hornidurak (+% 2,7) ere, baina hazkunde txikiagoa izan zuten. Hori bai, horien pisu espezifikoa oso ezberdina izan zen (% 34,3 eta % 0,8, hurrenez hurren).

**212. koadroa Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| Deskargak | 20.416,5 | 21.659,1 | 22.385,0 | 2.211,6 | 2.097,5 | 2.250,8 |
| Kargak | 10.766,1 | 11.107,5 | 10.417,5 | 1.282,7 | 1.170,1 | 1.197,7 |
| Zuzkidura | 116,5 | 122,6 | 130,3 | 23,9 | 25,9 | 26,6 |
| Tokiko trafikoa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Arrantza | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 18,8 | 19,1 | 18,7 |
| **Guztira** | **31.299,0** | **32.889,2** | **32.932,7** | **3.537,0** | **3.312,5** | **3.493,8** |

*turria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

Trafikoaren bilakaera merkantzia motaren arabera aztertuta, eta Bilboko Portuarekin hasita, partida guztien trafikoak gora egin zuen 2023ko ekitaldian, merkantzia orokorraren trafikoak izan ezik. Zehatzago esanda, solteko salgai solidoen trafikoa hazi zen gehien (+% 4,4), eta petrolio-produktuak izan ziren hurrengoak (+% 1,3). Aldiz, beste solteko salgai likido batzuen bilakaera nahiko egonkorra izan zen (+% 0,2), eta gainerako produktuek gora egin zuten (+% 6,2). Hala, merkantziaren araberako banaketa mantendu egin zen 2022arekiko. Lehenengo postuan petrolio-produktuak kokatu ziren, % 43,5eko ekarpenarekin. Nolabaiteko distantziara kokatu ziren merkantzia orokorra (% 25), beste

solteko salgai likido batzuk (% 19,2), solteko salgai solidoak (% 11,9) eta, azkenik, gainerako produktuen partida, askoz ere ordezkaritza txikiagoarekin (% 0,4).

**213. koadroa Merkantzien guztizko trafikoaren osaera**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| Petrolio-produktuak | 12.692,5 | 14.157,7 | 14.334,9 | -- | -- | -- |
| Merkantzia orokorra | 8.766,7 | 8.560,8 | 8.239,2 | 2.389,8 | 2.363,5 | 2.384,3 |
| Solteko salgai solidoak | 4.651,3 | 3.752,9 | 3.918,8 | 1.104,4 | 904,1 | 1.064,3 |
| Beste solteko salgai likido batzuk (*) | 5.072,0 | 6.295,2 | 6.309,5 | -- | -- | -- |
| Gainerakoak | 116,5 | 122,6 | 130,3 | 42,8 | 44,9 | 45,2 |
| **Guztira** | **31.299,0** | **32.889,2** | **32.932,7** | **3.537,0** | **3.312,5** | **3.493,8** |

**): Datua gas naturalaren eta beste solteko salgai batzuen baturari dagokio.*
*turria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

Pasaiako Portuko jarduera, berriz, merkantzia orokorrean eta solteko salgai solidoetan oinarritu zen. Merkantzia orokorraren trafikoa apur bat hazi zen 2023an (+% 0,9). Solteko salgai solidoen kasuan, berriz, nabarmen hazi zen garraiatutako tona kopurua (+% 17,7). Hala, portuetako jardueraren % 68,2 zegokion merkantzia orokorrari, eta % 30,5 solteko salgai solidoei. Gainerako produktuen partidak osatu zuen Gipuzkoak portuko trafikoa, oso ordezkaritza txikiarekin (% 1,3).

**214. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2021 | 2022 | 2023 |
| Inportazioa | 19.646,3 | 21.215,0 | 21.913,6 | 2.184,9 | 1.978,0 | 2.224,6 |
| Esportazioa | 9.649,4 | 9.639,8 | 8.955,8 | 1.282,6 | 1.166,5 | 1.197,6 |
| Kabotajea | 1.886,8 | 1.911,8 | 1.933,2 | 26,8 | 123,1 | 26,3 |
| **Guztira** | **31.182,5** | **32.766,6** | **32.802,7** | **3.494,3** | **3.267,6** | **3.448,5** |

*turria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

Orain kanpoko trafikoa eta kabotajea aztertuko ditugu. Bilboko Portuan, inportazioek pisua irabazi zuten 2023an, % 3,3 hazi baitziren. Esportazioen kasuan, berriz, trafikoa % 7,1 murriztu zen. Kabotajeak % 1,1eko urte arteko hazkundearekin itxi zuen 2023ko ekitaldia. Dena den, jardueraren zatirik handiena inportazioei eta esportazioei zegokien (% 66,8 eta % 27,3, hurrenez hurren), eta kabotajeari % 5,9.

Pasaiako Portuan ere inportazioak izan ziren nagusi. Kanpoko trafikoaren % 64,5 zegokien, eta hazkunde handia izan zuten (+% 12,5). Esportazioek ere gora egin zuten (+% 2,7), eta portuko jardueraren % 34,7 zegokien. Aldiz, kabotajearen ordezkaritza askoz ere txikiagoa zen (% 0,8), eta haren bolumena murriztu egin zen 2023an (-% 78,6).

Kanpoko jardueran sakonduta eta Bilboko Portuari dagokionez, esportazioen atalean beste mineral ez-metaliko batzuk zeuden lehen postuan (guztizkoaren % 9,7), eta gertu kokatu ziren beste petrolio-produktu batzuk, gasolina eta produktu kimikoak, bakoitza % 8 inguruko partaidetzarekin. Eraikuntza-materialak eta produktu siderurgikoak batu behar zaizkie horiei, bakoitza % 6 inguruko ekarpenarekin. 6 partida horiei zegokien esportazioen ia erdia (% 47,1).

Inportazioen kasuan, 2022ko inportazioen mapa errepikatu zen, ia. Dena den, berezitasun bat izan zen: gasolioak bi postu aurreratu zituen eta laugarren postuan kokatu zen 2023an (% 5,4ko pisu erlatiboa). Hala, petrolio gordina kokatu zen inportazioen maparen buruan, alde handiz, % 41,9ko ekarpenarekin. Gas naturala (% 19), produktu siderurgikoak (% 8,1) eta soja-babak (% 4,6) izan ziren hurrengoak. Nabarmentzekoa da, esportazioen kasuan ez bezala, inportazio gehienak 6 produktu horiei zegozkiela (% 82,7).

**215. koadroa Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2023**

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Beste mineral ez-metaliko batzuk | 864,5 | Petrolio gordina | 9.182,1 |
| Beste petrolio-produktu batzuk | 793,6 | Gas naturala | 4.162,0 |
| Gasolina | 756,8 | Produktu siderurgikoak | 1.781,0 |
| Produktu kimikoak | 710,9 | Gasolioa | 1.190,0 |
| Eraikuntza-material landuak | 566,2 | Soja-babak | 1.002,7 |
| Produktu siderurgikoak | 524,7 | Produktu kimikoak | 803,9 |
| Gainerakoak | 4.739,1 | Gainerakoak | 3.792,0 |
| **Guztira** | **8.955,8** | **Guztira** | **21.913,6** |

*turria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Pasaiako Portuko jarduera aztertuta, esportazioen atalean bi produktu nabarmendu ziren, eta jardueraren % 80 zegokien horiei. Batetik, produktu siderurgikoekin lotuta zegoen trafikoaren ia erdia (% 47,5) eta, bestetik, ibilgailuek eta horien piezek ere partaidetza oso esanguratsua zuten (% 37,5). Hala, esportazioen mapa beste mineral ez-metaliko batzuekin (% 7,2), eraikuntza-materialekin (% 3) eta beste mineral eta hondakin metaliko batzuekin (% 2,3) osatu zen ia.

Inportazioei dagokienez, produktu siderurgikoak kokatu ziren lehen postuan berriz ere, % 49ko pisu erlatiboarekin. Bigarren postuan zeuden zerealak eta horien irinak (% 16,6) eta, jarraian, papera eta orea (% 9,1). Pentsuek eta bazkek eta ongarri naturalek eta artifizialek % 5eko partaidetza zuten. “Gainerakoak” partidak, berriz, % 14,5eko ordezkaritza zuen.

**216. koadroa Pasaiako Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2023**

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Produktu siderurgikoak | 568,9 | Produktu siderurgikoak | 1.090,7 |
| Ibilgailuak eta horien piezak | 449,0 | Zerealak eta horien irinak | 370,2 |
| Beste mineral ez-metaliko batzuk | 86,5 | Papera eta orea | 201,4 |
| Eraikuntza-materialak | 36,5 | Pentsua eta bazkak | 123,2 |
| Beste mineral eta hondakin metaliko batzuk | 27,1 | Ongarri naturalak eta artifizialak | 116,0 |
| Gainerakoak | 29,6 | Gainerakoak | 323,1 |
| **Guztira** | **1.197,6** | **Guztira** | **2.224,6** |

*turria: Pasaiako Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Datuetan sakonduta eta herrialdeen araberako kanpo-trafikoari dagokionez, Bizkaiko portuaren kasuan Estatu Batuetako merkatua izan zen nagusia (trafikoaren % 12). Hurrengoak Brasil (% 9), Errusia (% 8), Erresuma Batua (% 7) eta Mexiko (% 6) izan ziren. Portuarekiko harremana indartu zuten herrialdeen artean zeuden Norvegia (petrolioaren eta gasaren inportazioak), Brasil (petrolioaren inportazioa), Nigeria (gasaren inportazioa), Belgika (petrolio-produktuen eta mineralen esportazioak), India (gasolioaren eta produktu siderurgikoen inportazioa) eta Mexiko (petrolioaren inportazioa eta produktu siderurgikoen esportazioa).

**217. koadroa Bilboko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa, 2023**

(m Tm)

| Herrialdea | Deskargak | Kargak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 2.755,29 | 1.211,81 | 3.967,11 |
| Brasil | 2.743,89 | 261,53 | 3.005,42 |
| Errusia | 2.675,93 | 16,86 | 2.692,79 |
| Erresuma Batua | 723,94 | 1.535,61 | 2.259,55 |
| Mexiko | 1.790,18 | 146,24 | 1.936,42 |
| Espainia | 471,33 | 1.461,91 | 1.933,24 |
| Herbehereak | 704,31 | 949,16 | 1.653,47 |
| Belgika | 474,84 | 847,73 | 1.322,56 |
| Irak | 992,81 | 0,36 | 993,17 |
| Nigeria | 964,84 | 9,44 | 974,28 |
| Irlanda | 269,81 | 540,99 | 810,80 |
| Libia | 460,69 | 0,52 | 461,22 |
| Angola | 269,22 | 10,03 | 279,25 |
| Beste batzuk | 7.087,89 | 3.425,55 | 10.513,44 |
| **Guztira** | **22.384,96** | **10.417,75** | **32.802,71** |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Pasaiako Portuaren kasuan, 2023ko merkatu nagusiak Erresuma Batua (% 23,4), Herbehereak (% 15,2), Belgika (% 14,4) eta Suedia (% 9,6) izan ziren. Gainera, lehenengo hirurek eta Alemaniak izan zuten bilakaerarik onena 2022arekiko.



LABORAL kutxa

**218. koadroa Pasaiako Portua. Herrialdeen araberako trafikoa, 2023**

*(m Tm)*

| Herrialdea | Deskargak | Kargak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erresuma Batua | 392,95 | 413,57 | 806,52 |
| Herbehereak | 471,36 | 52,56 | 523,92 |
| Belgika | 233,97 | 262,69 | 496,65 |
| Suedia | 328,69 | 3,10 | 331,79 |
| Alemania | 186,82 | 82,39 | 269,21 |
| AEB | 9,01 | 51,81 | 60,83 |
| Espainia | 31,73 | 0,22 | 31,95 |
| Turkia | 0,00 | 55,34 | 55,34 |
| Finlandia | 84,22 | 7,27 | 91,49 |
| Errusia | 38,91 | 0,00 | 38,91 |
| Egipto | 41,50 | 0,00 | 41,50 |
| Kanada | 0,00 | 62,43 | 62,43 |
| Maroko | 21,79 | 5,98 | 27,76 |
| Beste batzuk | 409,85 | 200,38 | 610,23 |
| **Guztira** | **2.250,79** | **1.197,74** | **3.448,53** |

*turria: Pasaiako Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

35. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan







*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.*

## 3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Aireko garraioari dagokionez, aireko jarduerak hazkunde handia izan zuen 2023an Estatu osoan. Aenaren arabera, inoizko zifrarik altuenekin itxi zuten 2023a Estatuko aireportuek: 283 bidaiari, 2022an baino % 16,2 gehiago eta 2019an baino % 2,9 gehiago.

Halaber, 2023an aireontzien 2.403.918 mugimendu zenbatu ziren Aenaren aireportu-sarean (2022arekiko +% 8,5), eta 1.079.676 tona merkantzia mugitu ziren (2022an baino +% 7,9 gehiago). Hala, merkantziek ere errekor historikoa eskuratu zuten.

**219. koadroa Euskal Herriko aire bidezko garraioa***

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Merkantziak (m) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | % ∆ | Euskal Herria/ Espainia % | Guztira | % ∆ | Euskal Herria/ Espainia % | Guztira | % ∆ | Euskal Herria/ Espainia % |
| 2016 | 64.124 | 1,4 | 3,1 | 5.043,1 | 8,2 | 2,2 | 55.116,9 | 11,9 | 6,9 |
| 2017 | 68.033 | 6,1 | 3,1 | 5.505,5 | 9,2 | 2,2 | 62.445,9 | 13,3 | 6,8 |
| 2018 | 72.563 | 6,7 | 3,2 | 6.105,3 | 10,9 | 2,3 | 63.396,9 | 1,5 | 6,3 |
| 2019 | 74.998 | 3,4 | 3,2 | 6.643,8 | 8,8 | 2,4 | 65.473,1 | 3,3 | 6,1 |
| 2020 | 36.672 | -51,1 | 3,3 | 1.901,7 | -71,4 | 2,5 | 64.719,1 | -1,2 | 8,2 |
| 2021 | 47.473 | 29,5 | 3,1 | 2.977,3 | 56,6 | 2,5 | 73.003,8 | 12,8 | 7,3 |
| 2022 | 69.706 | 46,8 | 3,1 | 5.920,9 | 98,9 | 2,4 | 74.311,6 | 1,8 | 7,4 |
| 2023 | 77.140 | 10,7 | 3,2 | 7.326,5 | 23,7 | 2,6 | 72.448,5 | -2,5 | 6,7 |

*(*): 2023ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Euskal Herrian, lau aireportuetako jardueraren baterako balantzea aintzat hartuta, Estatuko batezbestekoa baino gehiago hazi ziren bidaiarien mugimendua (+% 23,7) eta aireontzien mugimendua (+% 10,7). Merkantziak, berriz, % 2,5 murriztu ziren aurreko urtearekin alderatuta. Honako hauek dira Euskal Herriko lau aireportuak: Loiu (Bilbo), Noain (Iruñea), Hondarribia (Donostia) eta Foronda (Gasteiz). Gauzak hala, 2023an 77.140 eragiketa burutu ziren guztira, ia 7,4 milioi bidaiari garraiatu ziren eta 72.448 tona merkantzia garraiatu ziren. Horren guztiaren ondorioz, aireontzien trafikoa 2019koa baino handiagoa izan zen (+% 2,9), eta bidaiarien bolumena ere bai, are alde handiagoarekin (+% 10,2). Inoizko zifrarik altuenak eskuratu zituzten bi adierazleek.

Azterketarekin aurrera jarraituz eta aireontzien trafikoarekin hasiz, Euskal Herriko lau aireportuetatik hiruk zifra positiboekin amaitu zuten urtea. Euskal Herriko erreferentziazko aireportua Loiukoa da (Euskal Herriko trafiko osoaren % 66,7), eta 2023an % 14,5 hazi zen bertan lanean aritu ziren aireontzien kopurua. Izan ere, barne-trafikoak gora egin zuen (+% 6,7) eta nazioarteko trafikoak hazkunde handia izan zuen (+% 28,1). Gasteizko aireportuak ere, % 18,4ko ekarpenarekin, hazkunde handia erregistratu zuen aireontzien trafikoan (+% 6,3), barne-trafikoaren gorakadari esker (+% 11,8), nazioartekoa (+% 1,3) baino askoz ere gehiago hazi baitzen hura. Donostiako

aireportuak % 8ko ekarpena egin zion trafiko osoari, eta bertan antzeko bilakaera izan zuten barne-trafikoak (+% 10,4) zein kanpokoak (+% 10,2). Hala, guztizko emaitza parametro horien antzekoa izan zen (+% 10,4). Aldiz, Iruñeko aireportua, % 6,9ko partaidetzarekin, joera nagusitik aldendu zen eta jaitsi egin zen aireontzien kopurua (-% 8,8), barne-trafikoak izandako bilakaeraren ondorioz (-% 10,5) —Bartzelonarekiko lotura galdu ondoren—. Nazioarteko jarduerak izandako hobekuntza (+% 9,4) ez zen gai izan galera hura konpentsatzeko.

**220. koadroa Aireportuko aireontzien trafikoa***

*(unitate)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| **Trafikoa, guztira** | **44.919** | **51.448** | **5.869** | **5.352** | **5.577** | **6.155** | **13.347** | **14.185** | **69.712** | **77.140** | **3,1** | **3,2** |
| Barnekoa | 28.505 | 30.425 | 5.359 | 4.794 | 4.581 | 5.057 | 6.337 | 7.086 | 44.782 | 47.362 | 4,2 | 4,1 |
| Nazioartekoa | 16.414 | 21.023 | 510 | 558 | 996 | 1.098 | 7.010 | 7.099 | 24.930 | 29.778 | 2,2 | 2,4 |

*(*): 2023ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Merkantzien mugimenduari dagokionez, Gasteizko aireportuak jarraitu zuen Euskal Herriko aireportu nagusia izaten, trafiko osoaren % 99 baitzegokion. Dena den, horrek ez zuen oztopatu Forondako aireportuak bidaiarien mugimendua sustatzen jarraitzea, eta azken urteetan hegaldi komertzial berriak gehitu ditu. Hala ere, merkantzien mugimenduarekin lotuta, 4 aireportuen baterako balantzea negatiboa izan zen 2023an (-% 2,5), behera egin zuelako Estatuaren barruan (-% 2,6) zein nazioartean (-% 2,5) garraiatutako tona kopuruak.

**221. koadroa Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera***

*(Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| **Trafikoa, guztira** | **672** | **751** | **7,2** | **0,3** | **0,0** | **3** | **73.633** | **71.695** | **74.312** | **72.448** | **7,4** | **6,7** |
| Barnekoa | 281 | 149 | 0,7 | 0,3 | 0,0 | 2,5 | 18.996 | 18.621 | 19.277 | 18.773 | 16,6 | 17,1 |
| Nazioartekoa | 391 | 601 | 6,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 54.637 | 53.074 | 55.034 | 53.675 | 6,2 | 5,5 |

*(*): 2023ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Bidaiarien mugimenduari dagokionez, 2023an urte arteko hazkundeak izan zituzten lau aireportuek, baina intentsitate ezberdinekoak. Loiuko aireportuan 6 milioi bidaiaritik gora izan ziren, aurreko urtean baino dezente gehiago (+% 23,5). Bidaiari kopurua gehiago igo zen nazioarteko bidaietan (+% 40,2), Estatukoetan baino (+% 14,5). Diagnostiko bera

Donostiako aireportuaren kasuan (+% 25,8). Ia 483 mila bidaiari izan zituen 2023an, Estatuko osagaiak (+% 25,6) eta nazioartekoak (+% 75) izandako hazkunde nabarmenari esker. Dena den, barneko trafikora bideratutako aireportua da nagusiki, argi eta garbi. Forondarentzat ere oso ona izan zen ekitaldia, eta bidaiari kopurua asko hazi zen (+% 31,9). Antzeko bilakaera izan zuten nazioarteko bidaiariek (+% 34,6) zein Estatukoek (+% 30,5). Guztira, 310 mila bidaiari garraiatu ziren. Noaingo aireportuan, berriz, aireontzien trafikoak behera egin bazuen ere, % 14,5 hazi zen bidaiarien kopurua bertako hegaldietan, eta 200 mila bidaiarira gerturatu zen. 2023an bilakaera hobea izan zuen nazioarteko atalak (+% 28,6), Estatukoak (+% 14,5) baino. Dena den, azken hori da aireportuko jarduerari eusten diona.

**222. koadroa    Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera***

*(m)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| **Trafikoa, guztira** | **5.130** | **6.336** | **173** | **198** | **384** | **483** | **235** | **310** | **5.921** | **7.327** | **2,4** | **2,6** |
| Barnekoa | 3.316 | 3.796 | 165 | 189 | 379 | 476 | 154 | 201 | 4.015 | 4.661 | 4,9 | 5,0 |
| Nazioartekoa | 1.813 | 2.541 | 7 | 9 | 4 | 7 | 81 | 109 | 1.906 | 2.665 | 1,2 | 1,4 |

*(*): 2023ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

**223. koadroa    Aireportuko trafikoaren hazkundea (2023/2022)***

| Aireportua | Bidaiariak | | Aireontziak | | Merkantziak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mila | % Δ | Unitateak | % Δ | Tm | % Δ |
| Bilbo (Loiu) | 1.207 | 23,5 | 6.529 | 14,5 | 79 | 11,8 |
| Iruñea (Noain) | 25 | 14,5 | -517 | -8,8 | -7 | -96,3 |
| Donostia (Hondarribia) | 99 | 25,8 | 578 | 10,4 | 3 | 0,0 |
| Gasteiz (Foronda) | 75 | 31,9 | 838 | 6,3 | -1.938 | -2,6 |
| **Euskal Herria** | **1.405** | **23,7** | **7.428** | **10,7** | **-1.863** | **-2,5** |

*(*): 2023ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Hala, kapitulu hau ixteko, erreferentziazko 4 aireportuetan 2023an izandako gertakari berri batzuk aurkeztuko ditugu jarraian.

Noainekin hasita, Bartzelonako linea erregularra desagertzeak inpaktu handia izan zuen aireportuaren jardueran. Gainera, kontuan izan behar da Estatuko barne-trafikora bideratutako aireportua dela, hein handi batean. Dena den, aireportuaren jarduera handitzeko, Madrilerako hegaldien maiztasuna handitzea da lehentasuna, instituzioen arabera. Eta, batez ere, Lufthansaren hegaldiak berreskuratu behar dira, Frankfurterakoak, enpresa-interesagatik eta Europako eta Asiako beste herrialde batzuetarako lotura izateko.

Hondarribiari dagokionez, aireportuak zifra historikoekin amaitu zuen 2023a, eta eskaintza historikoarekin: bost operadore (Iberia, Vueling, Volotea, Binter eta British Airways-City Flyer) eta bederatzi norako (Madril, Bartzelona, Sevilla, Valentzia, Malaga, Kanaria Handia, Palma Mallorcakoa, Menorca eta Londres). 2024an Edinburgo batu daiteke, British Airwaysen eskutik.

Bestetik, hegaldi komertzialen aldeko apustua egiten jarraitu zuen Forondako aireportuak, kargan espezializatuta egon arren. Eskaintza dibertsifikatzea du helburu, eta milioi erdi bidaiari lortzea. Binter joan zenetik, Ryanair konpainia bakarrik geratzen da Forondan. Hala ere, Estatuko norakoen eskaintza zabala du (Sevilla, Malaga, Alacant eta Palma Mallorcakoa), baita nazioarteko norakoena ere (Brusela, Milan eta Kolonia). Merkantzien trafikoari dagokionez, Estatuko laugarren postuan zegoen aireportua. Madril, Bartzelona eta Zaragoza bakarrik zituen aurretik. Jarduera-lerro horren aldeko apustua egiten jarraitzen du DHLk. Jakinarazi duenez, 40 milioi euro inbertitzeko asmoa du, hegazkinak konpontzeko hangar bat eraikitzeko. 2027an egongo da martxan. Hala, Gasteizko aireportuan duen presentzia sendotuko du.

Loiuko aireportuak ere inoizko zifrarik altuenak lortu zituen 2023an, oporretako trafikoari eta nazioarteko konexioei eskeri. Udako hilabeteetan, 60 norakotara baino gehiagotara ditu zuzeneko loturak. Hortaz, 2024ari begira, udako sasoitik kanpo ibilbide berriak finkatzea da aireportuaren helburua; eta, aldi berean, eskaintza handitzen jarraitzea.

Nabarmentzekoa da Aenak pizgarrien plan bat onartu duela 32 aireporturentzat, 2023an 3 milioi bidaiari gainditu ez zituzten aireportuei laguntzeko asmoz, eta horien artean daude Gasteizkoa, Donostiako eta Iruñekoa. Plan horren bidez, airelineek ez dute bidaiari bakoitzeko tarifa ordaindu beharko ondoz ondoko hiru urtez, 2023koaz gaindiko bidaiari guztiengatik. 2024rako onartutako tarifen gainean aplikatuko dira pizgarri horiek, eta edozein kasutan ere 2019koak baino baxuagoak izango dira.



LABORAL kutxa

# 4. TURISMOA

## 4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

2023an, berriz ere, hazi egin zen nazioarteko turismo-jarduera. Hala, 2019ko erregistroak baino % 11,2 baxuagoak izan ziren oraindik ere turisten mugimenduak. Guztira, nazioarteko 1.300 milioi iritsiera zenbatu ziren 2023an, eta Europa mantendu zen buruan, nazioarteko turista gehien jaso zituen jomuga izaten jarraitu baitzuen (709,4 milioi, guztizkoaren % 54,6). Asiak eta Pazifikoak 237,2 milioi iritsiera jaso zituzten, eta Amerikak 200,2 milioi: munduko turisten mugimenduen % 18,2 eta % 15,4. Bestetik, Ekialde Ertainak nazioarteko 87 milioi turista jaso zituen 2023an (% 6,7), eta Afrikak 66,3 milioi (% 5,1).

Agertoki hori nahiko ona izan zen turismo-jarduerarako, baina Ekialde Ertainak bakarrik gainditu zuen pandemiaren aurreko maila, alde handiarekin (+% 22). Europa eta Afrika ari dira pixkanaka 2019ko bolumenetara gerturatzen, baina oraindik azpitik daude (-% 4,4 eta -% 3,9). Gauza bera gertatzen da Amerikan, baina, kasu honetan, suspertzea txikiagoa da (-% 8,7). Dena den, suspertzearen azken muturrean Asia eta Pazifikoa daude, hobetzeko marjina are handiagoarekin. 2023ko turisten bolumena % 34,6 baxuagoa izan zen 2019an erregistratutakoa baino.

Eskualdeen arabera aztertuta, Europaren kasuan urte arteko bilakaera ona izan zen kasu guztietan, baina, denboraren ikuspegi zabalagotik, bi suspertze-erritmo ezberdin bereiz daitezke. Hego Europa/Mediterraneoan eta Mendebaldeko Europan, nazioarteko turista kopurua 2019koa baino apur bat handiagoa izan zen (+% 1,5), baina Ipar Europak (-% 2,9) eta, batez ere, Erdialdeko/Ekialdeko Europak (-% 25,5) ez zuten lortu desiratutako suspertzea.

**224. koadroa Nazioarteko turistak**

*Turistak, milioitan*

| Eremua | 2019 | 2022 | 2023 | Kuota 2023 (%) | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.465,0** | **975** | **1.300,0** | **100,0** | **33,4** | -11,2 |
| – Europa | 742,4 | 609,5 | 709,4 | 54,6 | 16,4 | -4,4 |
| – Amerika | 219,3 | 157,2 | 200,2 | 15,4 | 27,4 | -8,7 |
| – Asia eta Pazifikoa | 362,7 | 93,3 | 237,2 | 18,2 | 154,2 | -34,6 |
| – Afrika | 69,0 | 47,0 | 66,3 | 5,1 | 41,2 | -3,9 |
| – Ekialde Ertaina | 71,3 | 67,8 | 87,0 | 6,7 | 28,3 | 22,0 |
| Europa* | | | | | | |
| – Ipar Europa | 82,1 | 67,1 | 79,7 | 6,1 | 18,8 | -2,9 |
| – Mendebaldeko Europa | 205,2 | 182,8 | 208,3 | 16,0 | 14,0 | 1,6 |
| – Erdialdeko/Ekialdeko Europa | 150,9 | 94,1 | 112,4 | 8,6 | 19,5 | -25,5 |
| – Hego Europa/Mediterraneoa | 304,2 | 265,5 | 308,9 | 23,8 | 16,3 | 1,5 |
| – Horietatik EB-27koak | 539,2 | 454,3 | 527,3 | 40,6 | 16,1 | -2,2 |

*(*): 2023ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea*

Europaren hobekuntzaren eragile nagusia Frantzia izan zen, hark jaso baitzituen turista gehien: nazioarteko 100 milioi iritsiera izan zituen. Espainia izan zen hurrengoa, 85 milioirekin. Halaber, honakoek osatu zituzten rankingeko lehen postuak: AEB, nazioarteko 66 milioi turista jasota; Italia, 57 milioirekin; eta Turkia, ia 55 milioirekin.

Datorren ekitaldiko aurreikuspenei dagokienez, mundu mailako jarduera guztiz suspertuko dela erakusten dute adierazle guztiek. Gainera, turismo maila handiena duten eskualdeek 2019ko balioak gainditzea espero da, betiere aparteko gertakari berririk gertatzen ez bada, arrisku geopolitiko berririk sortzen ez bada edo nazioarteko koiuntura ekonomikoa zailtzen ez bada.



LABORAL kutxa

## 4.2 TURISMOA ESPAINIAN

### Eskari turistikoa

Estatuko zein nazioarteko eskari turistikoa hazi egin zen 2023an, eta agerian geratu zen Estatuko turismoaren erakargarritasuna, baita sektorearen suspertzeko gaitasuna ere. Hala, emaitza ekonomiko bikainekin itxi zuen urtea sektoreak. Gainera, urteko datuen arabera turisten joan-etorriak gehiago izan baziren ere —gutxika sendotzen ari den joera bati jarraituz: bidaiatzea kontsumo iraunkorreko beste ondasun batzuen aurretik jartzea—, 2023an gastuak izan zuen hazkunderik handiena.

Excelturren[1] arabera, 2023ko ekitaldian 596 milioi euro sortu zituen turismo-jarduerak, eta % 12,8ko ekarpena egin zion BPGari. Hala, turismo arloko BPGa 2019ko balioak baino % 18,6 handiagoa izan zen, eta Estatuko ekonomiaren hazkundearen motor nagusia izan zen, % 13,1 hazi baitzen; Estatuko ekonomia, berriz, % 2,4 hazi zen.

Hori esanda eta nazioarteko ataletik hasita, 2023an nazioarteko 85.169.049 bidaiari jaso zituen Espainiak, aurreko urtean baino % 18,9 gehiago eta covidaren aurretik baino % 2 gehiago. Merkatu igorle guztiek egin zuten gora, eta, gehienen kasuan, bidaiarien fluxuak urte arteko bi digituko hazkundea izan zuen.

Hala, Erresuma Batua kokatu zen lehen postuan, ia 17,3 milioi bidaiarirekin eta % 20,3ko kuotarekin. Hurrengoa Frantzia izan zen, 11,7 milioi bidaiari baino gehiagorekin eta % 13,8ko pisu erlatiboarekin. Eta hurrengoa Alemania, ia 11 milioirekin, eta ia % 13ko partaidetzarekin. Hiru herrialde horien pisu erlatiboa, guztira, ia % 50ekoa da. Hori dela eta, pisu erabakigarria dute sektoreko jardueran.

Bidaiari gehien bidali zituzten hurrengo herrialdeak Italia, Herrialde Eskandinaviarrak eta Herbehereak izan ziren, bakoitza 4 eta 5 milioi bidaiari arteko bolumenarekin. Dena den, Italia nabarmendu zen, hiruren artetik hazkunderik handiena izan zuelako (+% 20,9, +% 11,8 eta +% 10,1, hurrenez hurren). Hazkundeari dagokionez, AEBk izan zuen bilakaerarik onena; nazioarteko ia 4 milioi turista zegozkion herrialde horri, 2022an baino % 36,9 gehiago.

Covidaren aurreko balioekin (2019) alderatuta, merkatu igorle gehienak suspertu ziren, rankingaren buruan dauden hiru herrialde izan ezik: Erresuma Batua (-% 4,2), Alemania (-% 1,5) eta Herrialde Eskandinaviarrak (-% 13,3).

---

[1] Irabazi-asmorik gabeko elkartea, 30 enpresa garrantzitsuk osatua. Enpresa horiek turismoaren balio-kate osokoak dira, eta azpisektore hauetakoak: aireko, tren bidezko, itsasoko eta lehorreko garraioa; ostatuak; bidaia agentziak eta tour operadoreak; ordaintzeko bitartekoak; autoen alokairua; ospitale turistikoak; eta erreserba-zentralak/GDS.

**225. koadroa** **Espainiara datozen bidaiariak[1], jatorriaren arabera**

| Eremua | 2019 | 2022 | 2023* | Kuota 2023 (%) | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erresuma Batua | 18.012.484 | 15.121.910 | 17.262.287 | 20,3 | 14,2 | -4,2 |
| Frantzia | 11.147.397 | 10.096.040 | 11.768.264 | 13,8 | 16,6 | 5,6 |
| Alemania | 11.158.022 | 9.768.600 | 10.989.659 | 12,9 | 12,5 | -1,5 |
| Italia | 4.534.515 | 4.011.139 | 4.849.748 | 5,7 | 20,9 | 7,0 |
| Herrialde eskandinaviarrak | 5.530.112 | 4.291.225 | 4.795.675 | 5,6 | 11,8 | -13,3 |
| Herbehereak | 3.684.260 | 3.923.089 | 4.320.630 | 5,1 | 10,1 | 17,3 |
| AEB | 3.324.870 | 2.801.476 | 3.835.884 | 4,5 | 36,9 | 15,4 |
| Portugal | 2.428.790 | 2.415.936 | 2.802.774 | 3,3 | 16,0 | 15,4 |
| Belgika | 2.525.887 | 2.513.389 | 2.758.684 | 3,2 | 9,8 | 9,2 |
| Irlanda | 2.177.592 | 2.089.464 | 2.476.105 | 2,9 | 18,5 | 13,7 |
| Suitza | 1.811.865 | 1.654.733 | 2.002.197 | 2,4 | 21,0 | 10,5 |
| Europako gainerako lekuak (Errusia barne) | 7.755.501 | 6.577.302 | 7.895.219 | 9,3 | 20,0 | 1,8 |
| Amerikako gainerakoak | 3.767.277 | 3.557.937 | 4.634.740 | 5,4 | 30,3 | 23,0 |
| Munduko gainerakoak | 5.650.583 | 2.837.042 | 4.777.183 | 5,6 | 68,4 | -15,5 |
| Guztira | 83.509.155 | 71.659.282 | 85.169.049 | 100,0 | 18,9 | 2,0 |

**): 2023ko datuak behin-behinekoak dira.*
*turria: EIN. Herrialdeen arteko bidaiarien mugimenduaren estatistika (Frontur).*

Analisiarekin jarraituz eta eskari turistikoaren bilakaerari dagokionez, 2023an 144,196 miloi bidaiarik hartu zuten ostatu Estatuko ostatu-eskaintza osatzen duten askotariko establezimendu motetan. 111,978 milioi bidaiarik hotel-sarean hartu zuten ostatu (+% 8,8), eta 32,219 milioik gainerako establezimenduetan (+% 6,8). Hazkundeak orokorrak izan ziren, eta aterpetxeetan ostatu hartu zuten bidaiarien kopurua hazi zen gehien (+% 16,3). Dena den, hotelen sarearen hazkundeak (+% 8,8) izan zuen inpaktu erlatiborik handiena, guztizkoan pisu handia duelako (eskariaren % 77,7).

Hala, eskari turistikoa guztiz suspertu dela erakusten dute 2023ko balioek (2019arekiko +% 3). Hotelek (+% 3) zein landa-turismoko ostatuek (2019arekiko +% 4) egin zuten gora, baina horiek oso neurri ezberdina izan zuten merkatuan (111,978 eta 4,599 milioi bidaiari, hurrenez hurren). Kanpinek eta apartamentu turistikoek osatu zuten eskaintza, eta biek gora egin zuten. Lehenengoek ia 10 milioi bidaiari jaso zituzten, eta bigarrenek 13,3 milioi.

Logikoa den moduan, bidaiarien bilakaeraren antzekoa izan zuten gaualdiek ere, baina ñabardurekin. 2023an guztira 484,441 milioi gaualdi zenbatu ziren, aurreko urtean baino % 7,3 gehiago, eta horietatik 346,959 milioi hotelei zegozkien (% 71,6). Hortaz, hotelak ez diren ostatu turistikoetan (apartamentu turistikoak, kanpinak, landa-turismoko ostatuak eta aterpetxeak) igarotako gaualdi kopurua 137 milioitik gorakoa izan zen 2023an. Horiek % 4,7 egin zuten gora, hau da, hotel-sareak baino neurri txikiagoan. Ibilbide gorakorrarekin,

[1] Frontur-ek (Atzerritarren mugimendu turistikoaren estatistika), garraiobideen eta bidaiatzeko motibazioaren arabera, Espainian bizi ez diren eta ostatu mota guztiak erabiltzen dituzten bidaiarien fluxua jasotzen du, honako hauek barne: bigarren etxebizitzak, etxebizitza partikularrak, eta horiez gain, hotel-sareak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak edota kanpinak. Horiek dira kapitulu honetako aztergai nagusia.

apartamentu turistikoak nabarmendu ziren, horien pisu erlatiboarengatik. Eskariaren % 9,2 zegokien, eta guztizko gaualdien % 14,4.

Horren guztiaren ondorioz, batez besteko egonaldia 2022ko ia balio berdinetan mantendu zen. Batez besteko egonaldia luzeagoa izan zen apartamentu turistikoetan (batez beste 5,2 egun) eta kanpinetan (4,7 egun), hoteletan (3,1), landa-ostatuetan (2,7) edo aterpetxeetan (1,8) baino. Dena den, bidaiarien profil ezberdinei erantzuten die eskaintza mota bakoitzak.

**226. koadroa Eskari turistikoaren bilakaera Espainian**

| Eremua | 2019 | 2022 | 2023* | % ∆ 23/22 | % ∆ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Bidaiariak (mila)** | **135.008** | **133.045** | **144.196** | **8,4** | **6,8** |
| – Hotelak | 108.716 | 102.883 | 111.978 | 8,8 | 3,0 |
| – Landa-turismoa | 4.421 | 4.396 | 4.599 | 4,6 | 4,0 |
| – Apartamentu turistikoak | 12.479 | 12.607 | 13.330 | 5,7 | 6,8 |
| – Kanpinak | 8.304 | 9.440 | 9.965 | 5,6 | 20,0 |
| – Aterpetxeak | 1.087 | 3.719 | 4.325 | 16,3 | 297,9 |
| **Gaualdiak (mila)** | **469.813** | **451.625** | **484.441** | **7,3** | **3,1** |
| – Hotelak | 342.996 | 320.366 | 346.959 | 8,3 | 1,2 |
| – Landa-turismoa | -- | 12.070 | 12.532 | 3,8 | -- |
| – Apartamentu turistikoak | 11.726 | 67.685 | 69.882 | 3,2 | 496,0 |
| – Kanpinak | 40.721 | 44.544 | 47.256 | 6,1 | 16,0 |
| – Aterpetxeak | 2.988 | 6.960 | 7.812 | 12,2 | 161,4 |
| **Batez besteko egonaldia** | | | | | |
| – Hotelak | 3,2 | 3,1 | 3,1 | 0,0 | -0,1 |
| – Landa-turismoa | - | 2,7 | 2,7 | 0,0 | -- |
| – Apartamentu turistikoak | 0,9 | 5,2 | 5,2 | -0,1 | 4,3 |
| – Kanpinak | 4,9 | 4,7 | 4,7 | 0,0 | -0,2 |
| – Aterpetxeak | 2,7 | 1,9 | 1,8 | -0,1 | -0,9 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: EIN.*

Logikoa den moduan, urteko aldiak eragina du turismo mailan. Izan ere, sasoiaren araberako jarduera da. Hala, turismo-jardueraren hilez hileko erradiografiak, hotelen jarduera erreferentziatzat hartuta, urteko erdiko hilabeteen garrantzi erlatiboa erakusten du. Gainera, hilabete horietan, bilakaera dinamikoagoa izaten du atzerriko segmentuak. Hala, egutegiko punturik gorenean, hau da, abuztuan, hotelek 6,8 milioi bidaiari atzerritar erregistratu zituzten, eta Estatuko 6,3 milioi bidaiari. Aldiz, urtarrilean, turismo-jarduera gutxieneko hilabetean, Estatuko ia 3 milioi bidaiari eta atzerriko 2,4 milioi bidaiari zenbatu ziren.

36. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2021-2023) Hotel-establezimenduak




*Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

## Eskaintza turistikoa

Eskaintza turistikoaren analisiari dagokionez, sektorearen jarduera suspertu egin zen 2023an, baina adierazle batzuk covidaren aurreko balioak baino baxuagoak ziren oraindik.

Hala, 2023an hazkunde bera izan zuten (+% 2,2) hotel-establezimenduen kopuruak eta hotelak ez diren ostatuen kopuruak. Hotelak ez diren 150.312 establezimenduk eta 14.464 hotelek osatu zuten eskaintza turistikoa. 2019arekin alderatuta, hotel-sarearen dimentsioa ez zen guztiz berreskuratu (-% 2,9), ezta landa-ostatuena ere: 16.828 establezimendu zenbatu ziren, 2019an baino % 2,3 gutxiago. Apartamentu turistikoak, berriz, covidaren aurreko balioetara gerturatu ziren (131.453, -% 0,8). Aitzitik, kanpinek (828, +% 7) eta, batez ere, aterpetxeek (1.203, +% 395,1) alde handiz gainditu zituzten 2019ko erregistroak. Esan beharrekoa da hazteko gaitasuna oso ezberdina dela establezimendu motaren arabera; hortaz, eskuratutako emaitzak ez dira guztiz alderagarriak.

**227. koadroa** **Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)**

| Eremua | 2019 | 2022 | 2023* | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Establezimendu kopurua** | | | | | |
| – Hotelak | 14.897 | 14.148 | 14.464 | 2,2 | -2,9 |
| – Landa-turismoa | 17.217 | 16.520 | 16.828 | 1,9 | -2,3 |
| – Apartamentu turistikoak | 132.539 | 128.656 | 131.453 | 2,2 | -0,8 |
| – Kanpinak | 774 | 805 | 828 | 2,9 | 7,0 |
| – Aterpetxeak | 243 | 1.141 | 1.203 | 5,4 | 395,1 |
| **Eskainitako plaza kopurua** | | | | | |
| – Hotelak | 1.517.583 | 1.488.856 | 1.534.139 | 3,0 | 1,1 |
| – Landa-turismoa | 165.949 | 159.842 | 164.452 | 2,9 | -0,9 |
| – Apartamentu turistikoak | 507.816 | 487.159 | 506.589 | 4,0 | -0,2 |
| – Kanpinak (partzelaka) | 502.002 | 500.646 | 503.102 | 0,5 | 0,2 |
| – Aterpetxeak | 25.537 | 64.174 | 69.277 | 8,0 | 171,3 |
| **Langileak** | | | | | |
| – Hotelak | 219.475 | 209.061 | 228.510 | 9,3 | 4,1 |
| – Landa-turismoa | 25.512 | 24.701 | 25.736 | 4,2 | 0,9 |
| – Apartamentu turistikoak | 28.499 | 28.694 | 30.776 | 7,3 | 8,0 |
| – Kanpinak | 7.233 | 7.815 | 8.273 | 5,9 | 14,4 |
| – Aterpetxeak | 1.840 | 3.729 | 4.085 | 9,5 | 122,0 |

*Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Eskainitako plazei dagokienez, hotelen sareak urte arteko bilakaera hobea (+% 3) izan zuen hotelak ez diren ostatuek baino (+% 2,6; 1,2 milioi plazatik gorako eskaintza). Hotelek 1,5 miloi plaza eskaini zituzten 2023an, eta, hala, guztiz suspertu zen 2019arekiko (+% 1,1).

Hotelak ez diren ostatuei dagokienez, aterpetxeek izan zuten urte arteko aldakuntzarik onena, baita 2019arekiko ere. Dena den, plaza gutxien eskaini zituen kategoria izan zen (69.277). Landa-ostatuek (164.452 plaza), apartamentu turistikoek eta kanpinek (biek 500.000 plaza baino apur bat gehiago) ere handitu egin zuten plazen eskaintza 2023an, baina kanpinek bakarrik gainditu zuten covidaren aurreko eskaintza.

Gauzak hala, enpleguaren atalean ongi ikusten da covidaren aurreko maila guztiz berreskuratu zela. 2023an hazi egin zen ostatu mota guztietako langile kopurua. Hotelen sarean 228.510 langile zeuden, eta, aterpetxeetan, 4.085; azken horietan igo zen gehien langile kopurua (2022arekiko +% 9,3 eta +% 9,5). Halaber, landa-turismoko segmentuak 25.736 langile zituen, apartamentu turistikoek 30.776 langile eta kanpinek 8.273 langile; % 4,2ko, % 7,3ko eta % 5,9ko hazkundeak erregistratu zituzten, hurrenez hurren.

Jarraian, eskaintza turistikoari lotutako bi aldagaietatik abiatuta kalkulatutako ratioak aztertuko ditugu: eskainitako plaza kopurua eta sortutako enplegua dira aldagai horiek. Bi aldagai horiek establezimendu kopuruarekin erlazionatuko ditugu.

Lehenengo ratioak, eskainitako plazak/establezimenduak, kanpinak jartzen ditu lehen postuan: batez beste, 607,6 plaza eskaintzen ditu establezimendu bakoitzak. Hotelen

kasuan, establezimendu bakoitzeko 106,1 plazakoa da ratioa, aterpetxeetan 57,6 plazakoa, landa-ostatuetan 9,8 plazakoa eta, azkenik, apartamentu turistikoetan, 3,9 plazakoa. Ostatu mota bakoitzaren ezaugarriak direla eta, emaitzak ezin dira alderatu, baina ostatuen kategoria bakoitzaren neurriaren gaineko erreferentzia bat eskaintzen dute.

Establezimendu mota bakoitzak enpleguari egiten dion ekarpena neurtzen du hurrengo adierazleak. Batez besteko ratiorik altuena hotelen sareak izan zuen: establezimendu bakoitzeko 15,8 langile. Balio horrek alde handiz gainditzen du gainerako ostatuen ratioa, kanpinen kasuan izan ezik: establezimendu bakoitzeko 10 langile; dena den, kasu honetan, aldi baterakoak izaten dira langile asko.

**228. koadroa Eskaintza turistikoaren bilakaera Espainian**

| Eremua | 2019 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 | % ∆ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Plazak establezimendu bakoitzean** | | | | | |
| – Hotelak | 101,9 | 105,2 | 106,1 | 0,8 | 4,1 |
| – Landa-turismoa | 9,6 | 9,7 | 9,8 | 1,0 | 1,4 |
| – Apartamentu turistikoak | 3,8 | 3,8 | 3,9 | 1,8 | 0,6 |
| – Kanpinak | 648,6 | 622,0 | 607,6 | -2,3 | -6,3 |
| – Aterpetxeak | 105,1 | 56,2 | 57,6 | 2,4 | -45,2 |
| **Enplegua establezimendu bakoitzean** | | | | | |
| – Hotelak | 14,7 | 14,8 | 15,8 | 6,9 | 7,2 |
| – Landa-turismoa | 1,5 | 1,5 | 1,5 | 2,3 | 3,2 |
| – Apartamentu turistikoak | 0,2 | 0,2 | 0,2 | 5,0 | 8,9 |
| – Kanpinak | 9,3 | 9,7 | 10,0 | 2,9 | 6,9 |
| – Aterpetxeak | 7,6 | 3,3 | 3,4 | 3,9 | -55,2 |

*turria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

### Okupazio maila eta prezioen bilakaera

Azkenik, sektoreko jardueraren analisia osatzeko, sektorearen errentagarritasuna baldintzatzen duten bi adierazle aztertuko ditugu: ostatu turistikoen okupazio maila eta prezio-indizea.

Hala, turismo-jardueraren bilakaera onarekin bat etorriz, 2023an gora egin zuten okupazio mailak eta, batez ere, prezioek.

Okupazio mailatik hasita, hotelen sareak izandako hobekuntza nabarmendu zen: 2019ko balioak berreskuratu zituen eta 2022an baino ehuneko 3,5 puntu gehiago eskuratu zituen. Hala, % 58,6ko okupazio maila eskuratu zuten hotelek, gainerako establezimenduek baino askoz handiagoa. Gainerako establezimenduen artetik, kanpinek eskuratu zuten okupazio mailarik altuena, % 43koa, eta landa-ostatuek txikiena, % 20,1ekoa. Dena den, hobera egin zuten guztiek.

Prezioen indizeek, oro har, gora egin zuten. Batetik, hotelak ez diren establezimenduen prezioen homogeneotasuna nabarmendu zen (ez dugu aterpetxeen gaineko daturik), 165 euro ingurukoa; hotel-sarearen prezioa, berriz, baxuagoa izan zen (139,4 euro). Bestetik, 2019arekiko hazkunde handia nabarmendu zen; bi digituko hazkundeak izan zituzten guztiek.

**229. koadroa Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa)**

| Eremua | 2019 | 2022 | 2023 | ∆ 23/22 | ∆ 23/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Okupazio maila plaza kopuruko** | | | | | *(aldea ehuneko puntutan)* |
| – Hotelak | 58,4 | 55,1 | 58,6 | 3,5 | 0,2 |
| – Landa-turismoa | 18,7 | 19,8 | 20,1 | 0,3 | 1,4 |
| – Apartamentu turistikoak | 37,1 | 36,2 | 36,7 | 0,5 | -0,4 |
| – Kanpinak (partzelaka) | 39,7 | 42,3 | 43,0 | 0,7 | 3,3 |
| – Aterpetxeak | 31,0 | 27,9 | 30,0 | 2,1 | -1,0 |
| **Prezio-indizea** | | | | | *(aldea %∆)* |
| – Hotelak | 112,2 | 128,2 | 139,4 | 11,2 | 27,2 |
| – Landa-turismoa | 142,1 | 155,8 | 163,9 | 8,1 | 21,8 |
| – Apartamentu turistikoak | 142,1 | 154,4 | 167,6 | 13,2 | 25,5 |
| – Kanpinak | 150,4 | 158,6 | 166,3 | 7,7 | 15,9 |
| – Aterpetxeak | E.d. | E.d. | E.d. | -- | -- |

*E.d.: ez dago daturik*
*Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

## 4.3 TURISMOA EAEN

### Eskari turistikoa

EAEn ere islatu zen turismo-jardueraren suspertze-joera, kapituluan zehar azaldu duguna.

Analisiarekin hasteko, hotelen sarea hartuko dugu erreferentzia gisa. Bi adierazle nagusiak, hau da, bidaiari kopurua eta gaualdiak, nabarmen handitu ziren 2023an EAEn, eta alde handiz gainditu zituzten 2019ko balioak. EAEko turismo-jarduerak gora egin zuen 2023an, eta, horrez gain, Estatuko jarduerak baino hazkunde handiagoa izan zuen.

2023an EAEn ia 3,7 milioi bidaiari eta 7,2 milioi gaualdi erregistratu ziren; izan ere, bidaiari kopurua % 10,4 hazi zen, eta gaualdi kopurua % 12. Informazio hori bidaiarien segmentuetan banatuta, Estatuko bidaiarien zein atzerriko bidaiarien kopurua hazi egin zen, baina ez erritmo berean.

Bidaiari gehienak Estatukoak izan ziren, % 54,6, 2022an baino apur bat gehiago (+% 3,7). Atzerriko segmentuaren hazkundea dezente handiagoa izan zen (+% 19,7). Diagnostiko bera gaualdien kasuan: Estatuko turismoaren hazkundea txikiagoa izan zen (+% 5,1)

atzerriko turismoarena baino (+% 21,3). Halere, gaualdietan ekarpen txikiagoa egin zuen atzerriko turismoak (% 46,2).

Estatuko datuekin alderatuta, hiru ondorio nagusi eskura daitezke. Lehena, Estatuko bilakaerak EAEko patroi bera izan zuela, baina neurri apalagoan. Bigarrena, segmentu bakoitzaren pisu erlatiboak alderantzizkoak izan zirela; izan ere, atzerrian pisu handiagoa izan zuen atzerriko turismoak. Eta horrek eragina izan dezake hirugarren ondorioan, batez besteko egonaldiarekin lotuta: Estatuko batez besteko egonaldia handiagoa izan zen EAEkoa baino (3,1 egun eta 2 egun).

**230. koadroa Hotelen sareko eskaera turistikoaren bilakaera, EAEn eta Estatuan (2023)**

| Kontzeptua | Bidaiariak | | | Gaualdiak | | | Batez besteko egonaldia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 | 2023 | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 | 2023 |
| **EAE** | **3.687.240** | **10,4** | **15,8** | **7.214.545** | **12,0** | **15,1** | **2,0** |
| Estatuko egoiliarrak | 2.013.945 | 3,7 | 9,6 | 3.883.449 | 5,1 | 8,4 | 2,0 |
| Atzerriko egoiliarrak | 1.673.295 | 19,7 | 24,2 | 3.331.096 | 21,3 | 24,1 | 2,0 |
| **Estatua** | **111.977.965** | **8,8** | **3,0** | **346.958.655** | **8,3** | **1,2** | **3,1** |
| Estatuko egoiliarrak | 54.646.908 | 2,5 | 3,6 | 121.583.412 | 1,3 | 1,7 | 2,2 |
| Atzerriko egoiliarrak | 57.331.057 | 15,7 | 2,4 | 225.375.243 | 12,5 | 0,9 | 3,9 |

*Iturria: Eustat (Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta) eta EIN (Hoteletako okupazioaren galdetegia)*

Bidaiarien jatorriaren analisian sakontzeko, hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak aztertuko ditugu, eta Estatuko bidaiariekin hasiko gara. Madril kokatu zen lehen postuan, % 12ko partaidetzarekin; halere, jomuga EAE zuten bidaiarien fluxua murriztu zuen eskualde bakarra izan zen 2023an. EAE bigarren postuan kokatu zen (% 11), eta egonkor mantendu zen eskualdeko turismoari egin zion ekarpena (+% 0,7). Bidaiarien jatorriko hirugarren eremu geografikoa, berriz, Katalunia izan zen (% 8); gainera, urte arteko % 3,8ko hazkundea izan zuen.

Gainera, honako hauen urte arteko hazkundea nabarmendu zen: Gaztela eta Mantxa (+% 11,9), Valentziako Erkidegoa (+% 11,6) eta Galizia (+% 10,2). Horien pisu erlatiboak % 1 eta % 3 artekoak izan ziren.

Atzerriko segmentuaren bilakaerari dagokionez, 2023an asko hazi zen nazioarteko eskaria (+% 20), eta urte arteko bi digituko hazkundeak izan ziren kasu guztietan, Frantziaren kasuan izan ezik. Frantziako bidaiarien kopuruak gora egin zuen, baina neurri txikiagoan (+% 9,4). Dena den, liderra izaten jarraitu zuen alboko herrialdeak, guztizkoaren gaineko % 10eko partaidetzarekin. Garrantzi handieneko bigarren merkatua, Amerika, gerturatu egin zitzaion, % 18,6ko hazkundea izan ondoren; atzerriko merkatuaren % 8,2 dagokio Amerikari. Alemaniak (% 3,9), Erresuma Batuak (% 3,6) eta Italiak (% 2,6) osatu



LABORAL kutxa

zuten lehen 5 postuen rankinga, eta horiek guztiek urte arteko hazkunde handiak izan zituzten (+% 21,2, +% 17,9 eta +% 31,1).

Bilakaera bera izan zuten gaualdiek eta, hazkunde orokortuen agertoki horretan, hazkunde handiagoa izan zuen atzerriko osagaiak (+% 21,2; eta Estatuko segmentuak +% 4,8). Dena den, Estatuko merkatuaren pisuak handiagoa izaten jarraitu zuen atzerrikoak baino. Hala, Estatukoak izan ziren sarreren eta gaualdien % 55,2. Batez besteko egonaldia, berriz, bi egunekoa izan zen bi segmentuen kasuan.

**231. koadroa Bidaiarien sarrera, gaualdiak eta batezbesteko egonaldia, jatorriaren arabera (EAE 2023)** ***(hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak)***

| Eremua | Bidaiariak | % | %∆ 23/22 | %∆ 23/19 | Gaualdiak | % | %∆ 23/22 | %∆ 23/19 | Batez besteko egonaldia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **4.259.113** | **100,0** | **10,4** | **23,7** | **8.689.200** | **100,0** | **11,5** | **23,7** | **2,0** |
| **Guztira Estatuan** | **2.351.334** | **55,2** | **3,7** | **15,8** | **4.799.660** | **55,2** | **4,8** | **15,8** | **2,0** |
| -Madril | 513.152 | 12,0 | -1,4 | 12,3 | 1.059.474 | 12,2 | 0,7 | 13,7 | 2,1 |
| -EAE | 468.031 | 11,0 | 0,7 | 24,8 | 857.278 | 9,9 | 1,3 | 26,1 | 1,8 |
| -Katalunia | 339.904 | 8,0 | 3,8 | 14,7 | 727.709 | 8,4 | 4,0 | 17,2 | 2,1 |
| -Andaluzia | 162.416 | 3,8 | 8,4 | 19,7 | 374.361 | 4,3 | 7,5 | 14,9 | 2,3 |
| -Gaztela eta Leon | 141.023 | 3,3 | 7,3 | 11,9 | 272.955 | 3,1 | 8,2 | 10,7 | 1,9 |
| -Valentziako Erkidegoa | 128.619 | 3,0 | 11,6 | 13,8 | 299.802 | 3,5 | 12,0 | 12,5 | 2,3 |
| -Galizia | 94.324 | 2,2 | 10,2 | 16,5 | 205.720 | 2,4 | 9,9 | 18,7 | 2,2 |
| -Nafarroa | 91.180 | 2,1 | 3,2 | 25,7 | 151.209 | 1,7 | 5,3 | 28,8 | 1,7 |
| -Aragoi | 83.219 | 2,0 | 7,9 | 2,3 | 163.428 | 1,9 | 10,5 | 1,0 | 2,0 |
| -Asturias | 70.731 | 1,7 | 5,8 | 10,0 | 137.310 | 1,6 | 9,1 | 11,4 | 1,9 |
| -Gaztela eta Mantxa | 57.835 | 1,4 | 11,9 | 14,3 | 131.143 | 1,5 | 11,7 | 5,1 | 2,3 |
| -Beste autonomia-erkidego batzuk | 200.901 | 4,7 | 6,0 | 12,5 | 419.272 | 4,8 | 7,2 | 11,9 | 2,1 |
| **Atzerrikoak guztira** | **1.907.779** | **44,8** | **20,0** | **35,2** | **3.889.540** | **44,8** | **21,2** | **35,3** | **2,0** |
| -Frantzia | 424.498 | 10,0 | 9,4 | 47,2 | 688.510 | 7,9 | 11,0 | 51,7 | 1,6 |
| -Amerika | 350.031 | 8,2 | 18,6 | 34,4 | 807.660 | 9,3 | 20,6 | 37,2 | 2,3 |
| -Alemania | 166.709 | 3,9 | 21,2 | 27,8 | 352.393 | 4,1 | 23,1 | 25,0 | 2,1 |
| -Erresuma Batua | 151.861 | 3,6 | 17,9 | 17,4 | 322.770 | 3,7 | 16,4 | 22,2 | 2,1 |
| -Italia | 111.450 | 2,6 | 31,1 | 35,6 | 230.867 | 2,7 | 28,6 | 29,9 | 2,1 |
| -Portugal | 80.600 | 1,9 | 14,7 | 52,4 | 156.792 | 1,8 | 13,8 | 40,7 | 1,9 |
| -Belgika | 61.724 | 1,4 | 12,8 | 54,5 | 124.665 | 1,4 | 19,7 | 57,2 | 2,0 |
| -EBko gainerakoak (1) | 308.823 | 7,3 | 24,9 | 55,0 | 657.016 | 7,6 | 25,2 | 49,0 | 2,1 |
| -Europako gainerakoak (2) | 92.931 | 2,2 | 12,0 | 17,0 | 194.548 | 2,2 | 7,1 | 15,1 | 2,1 |
| -Munduko gainerakoak | 159.153 | 3,7 | 58,9 | 7,3 | 354.319 | 4,1 | 54,8 | 14,9 | 2,2 |

*(1): EBko gainerakoak Austria, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Kroazia.*
*(2): Europako gainerakoak: EBkoak ez diren Europako herrialdeak.*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Analisiarekin aurrera eginez eta hotel-establezimenduen turismo-jarduerari dagokionez, 2023an EAEn 3.687.240 sarrera eta 7.214.545 gaualdi izan ziren.

Sarreren zein gaualdien kasuan, atzerriko segmentuaren gorakada handia nabarmendu zen; horiek % 19,7 eta % 21,3 hazi ziren, hurrenez hurren. Estatuko merkatuari lotutako sarrerak eta gaualdiak, berriz, % 3,7 eta % 5,1 hazi ziren.

Analisiarekin jarraituz eta lurraldeen araberako eskari turistikoarekin lotuta, EAEren kasuan aipatutako giltzarriak errepikatzen dira, neurri handi batean, baina ñabardurekin. Hotelen jarduerari dagokionez, Araban 503.596 sarrera izan ziren, aurreko urtean baino % 11,2 gehiago. Bizkaian, berriz, 1.688.130 sarrera izan ziren, aurreko urtean baino % 11,5 gehiago. Gipuzkoak, bestetik, 1.495.514 sarrera erregistratu ziren 2023an. Hau da, hazkundea zerbait txikiagoa izan zen (+% 8,8).

Informazioan sakonduta eta bidaiarien jatorriari dagokionez, Arabak Estatuko merkatuarekiko mendekotasun handia duela erakusten dute datuek, hari baitagozkio sarreren eta gaualdien % 70. Gipuzkoan eta Bizkaian orekatuagoa da proportzio hori, baina emaitza ezberdinekin. Bizkaian, Estatuko segmentuaren pisu espezifikoa handiagoa izan zen (sarreren % 55,5 eta gaualdien % 53,7). Gipuzkoan, berriz, pisu handiagoa izan zuen atzerriko osagaiak, bai bidaiari kopuruaren kasuan (% 51,4 eta % 48,6), bai gaualdien kasuan (% 51,5 eta % 48,5).

Gaualdien atalean joera ezberdinak ikusi ziren. Gaualdiek hazkunde nabarmena izan zuten Araban (+% 18,2), eta 998.496 gaualdi zenbatu ziren guztira. Bizkaian 3.233.468 gaualdi izan ziren eta Gipuzkoan 2.982.581; horiek hazkunde txikiagoak izan zituzten (+% 11,8 eta +% 10,3, hurrenez hurren).

**232. koadroa EAEko turismo-eskariaren bilakaera, hoteletan, lurraldearen arabera (2023)**

| Kontzeptua | Bidaiariak | | | Gaualdiak | | | Batez besteko egonaldia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 | 2023 | % Δ 23/22 | % Δ 23/19 | 2023 |
| **Araba** | **503.596** | **11,2** | **21,0** | **998.496** | **18,2** | **26,7** | **1,98** |
| Estatuko egoiliarrak | 349.857 | 10,7 | 18,2 | 699.341 | 15,3 | 23,3 | 2,00 |
| Atzerriko egoiliarrak | 153.739 | 12,6 | 28,0 | 299.155 | 25,7 | 35,4 | 1,95 |
| **Bizkaia** | **1.688.130** | **11,5** | **11,2** | **3.233.468** | **11,8** | **10,1** | **1,92** |
| Estatuko egoiliarrak | 937.583 | 2,9 | 5,5 | 1.737.531 | 2,4 | 2,5 | 1,85 |
| Atzerriko egoiliarrak | 750.547 | 24,6 | 19,3 | 1.495.937 | 25,1 | 20,4 | 1,99 |
| **Gipuzkoa** | **1.495.514** | **8,8** | **19,6** | **2.982.581** | **10,3** | **17,4** | **1,99** |
| Estatuko egoiliarrak | 726.505 | 1,5 | 11,3 | 1.446.577 | 3,9 | 9,6 | 1,99 |
| Atzerriko egoiliarrak | 769.009 | 16,8 | 28,7 | 1.536.004 | 17,0 | 25,8 | 2,00 |
| **EAE** | **3.687.240** | **10,4** | **15,8** | **7.214.545** | **12,0** | **15,1** | **1,96** |
| Estatuko egoiliarrak | 2.013.945 | 3,7 | 9,6 | 3.883.449 | 5,1 | 8,4 | 1,93 |
| Atzerriko egoiliarrak | 1.673.295 | 19,7 | 24,2 | 3.331.096 | 21,3 | 24,1 | 1,99 |

*turria: Eustat.*



LABORAL kutxa

Lurralde bakoitzak EAEko eskari turistikoaren osaeran duen pisuari dagokionez, Arabari zegozkion EAE osoko sarreren eta gaualdien ia % 14, Bizkaiari sarreren % 45,8 eta gaualdien % 44,8, eta Gipuzkoari sarreren % 40,6 eta gaualdien % 41,3.

Urte arteko aldakuntzak ez ziren handiak izan, baina, denboraren ikuspegi zabalago batetik, 2019arekin alderatuta, erreferentziazko bi adierazleen kasuan Gipuzkoaren pisu espezifikoa apur bat hazi zela ikus daiteke, eta Bizkaiarena, berriz, txikitu.

**37. grafikoa Bidaiarien eta gaualdien ekarpena hiru lurralde historikoetan, (%), hotelen sarea**




*Iturria: Eustat.*

Segmentu bakoitzaren ekarpenari dagokionez, EAEko jatorri atzerritarreko merkatuaren zatirik handiena Gipuzkoari eta Bizkaiari zegokien (% 46 eta % 44,9, hurrenez hurren), bai sarrerei dagokienez, bai gaualdiei dagokienez. Arabaren ekarpena % 9 ingurukoa zen. Estatuko merkatuaren kasuan, lurraldeen arteko oreka apur bat handiagoa izan zen: Bizkaiari zegozkion sarreren % 46,6 eta gaualdien % 44,7, Gipuzkoari sarreren % 36,1 eta gaualdien % 37,2, eta Arabari sarreren zein gaualdien % 18.

**38. grafikoa** **Bidaiariak eta gaualdiak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%), hotelen sarea (2023)**




*Iturria: Eustat.*

Jakina den moduan, hotelen jardueraren hilez hileko bilakaera sasoiaren araberakoa da, eta bidaiariak urteko erdiko hilabeteetan pilatzen dira. Jomuga gehienetan izan zuten hazkundea uda-garaian, baina, horrez gain, urteko gainerako hilabeteetan ere bidaiarien presentzia handiagoa izan zen. Hala, urteko hazkundea handiagoa izan zen.

**39. grafikoa** **Bidaiari kopuruaren eta gaualdien hileko bilakaera, hoteletan (EAE, 2021-2023)**




*Iturria: Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (EUSTAT)*

## Eskaintza turistikoa

2023an EAEn 619 establezimenduk osatzen zuten hotelen sarea, 2019an baino 16 gehiagok. Denbora-tarte horretan ugaritu egin ziren 3 izarreko eta gehiagoko hotelak; 152 zenbatu ziren, 24 gehiago. Aldiz, murriztu egin ziren kategoria baxuagokoak: 2019an 476 zeuden eta 2023an 7 gutxiago, 469.

Informazioa lurraldeen arabera banakatuta, Arabako eta Bizkaiko balioak nahiko egonkor mantendu ziren azken 4 urteetan (2019-2023): 71 eta 232 establezimendu (bietan +1). Gipuzkoako hotelen sarea, berriz, indartu egin zen: 14 establezimendu berri zenbatu ziren; izan ere, kategoria altuko 17 hotel gehiago zeuden, eta kategoria baxuagoko 3 gutxiago. Hala, kategoriaren araberako osaera antzekoa izan zen 2023an Araban eta Bizkaian (% 27-28 ziren hiru izar edo gehiagokoak), eta apur bat ezberdina Gipuzkoaren kasuan, kategoria altuko hotelen pisu erlatiboa txikiagoa baitzen (% 21,8).

**233. koadroa** **EAEko eta lurralde historikoetako establezimenduen eta plazen bilakaera**

| Kontzeptua | Establezimendu kopurua | | | | Eskainitako plaza kopurua | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2023 | % | Aldea Kopurua 23/19 | 2019 | 2023 | % | % Δ 23/19 |
| **Araba** | **70** | **71** | | **1** | **1.528.178** | **1.832.366** | | **19,9** |
| – Hiru izar edo gehiago | 18 | 20 | 28,2 | 2 | 945.086 | 922.856 | 50,4 | -2,4 |
| – Izar bat edo bi eta pentsioak | 52 | 51 | 71,8 | -1 | 583.092 | 909.510 | 49,6 | 56,0 |
| **Bizkaia** | **231** | **232** | | **1** | **5.189.032** | **5.769.562** | | **11,2** |
| – Hiru izar edo gehiago | 58 | 63 | 27,2 | 5 | 3.505.711 | 3.921.029 | 68,0 | 11,8 |
| – Izar bat edo bi eta pentsioak | 173 | 170 | 73,3 | -3 | 1.683.321 | 1.848.533 | 32,0 | 9,8 |
| **Gipuzkoa** | **302** | **316** | | **14** | **4.208.405** | **4.883.096** | | **16,0** |
| – Hiru izar edo gehiago | 52 | 69 | 21,8 | 17 | 2.233.848 | 2.838.329 | 58,1 | 27,1 |
| – Izar bat edo bi eta pentsioak | 251 | 248 | 78,5 | -3 | 1.974.557 | 2.044.767 | 41,9 | 3,6 |
| **EAE** | **603** | **619** | | **16** | **10.925.615** | **12.485.024** | | **14,3** |
| – Hiru izar edo gehiago | 128 | 152 | 24,6 | 24 | 6.684.645 | 7.682.214 | 61,5 | 14,9 |
| – Izar bat edo bi eta pentsioak | 476 | 469 | 75,8 | -7 | 4.240.970 | 4.802.810 | 38,5 | 13,2 |

*Oharra: Hotel-establezimenduen urteko totalak hautatutako urtean gutxienez egun batez irekita egon diren establezimenduen kopurua ematen du.*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Eskainitako plaza kopuruari dagokionez, 2023an plaza gehiago eskaini zituzten kategoria altuko hotelek; hori agerikoa izan zen, batez ere, Bizkaian (% 68), baina Gipuzkoan ere gauza bera gertatu zen (% 58,1). Araban (% 50,4), oreka handiagoa zegoen kategorien artean.

2019arekiko bilakaerak erakusten duenez, hotelen sarearen osaera Gipuzkoan aldatu zen gehien. Dena den, eskainitako plaza kopurua hiru lurraldeetan hazi zen nabarmen (+% 19,9

Araban, +% 11,2 Bizkaian eta +% 16,0 Gipuzkoan). Bizkaian eta Gipuzkoan kategoria altuek eragin zuten hazkunde hori, neurri handi batean, baina Araban ez.

Jarraian, EAEko eskaintza turistikoaren analisia zabalduko dugu eta, hotelez gain, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak ere aintzat hartuko ditugu. Hala, horiek 2019 eta 2023 artean izandako bilakaera erakutsiko dugu.

Hotel-sarearen kasuan, aurrez aipatu dugun moduan, EAEn hazi egin zen establezimendu kopurua (2019arekiko +16), baita egunean eskainitako plaza kopurua ere (+% 14,3). Lurraldearen arabera, EAEko egituran Gipuzkoa nabarmendu zen, establezimendu kopuru handiena eta bilakaerarik onena izan zituelako (% 51,5; +% 4,6). Aldiz, egunean eskainitako plaza kopuruari dagokionez, Bizkaiari zegokion ehunekorik handiena (% 46,2; +% 11,2), eta Arabak izan zuen hazkunderik handiena (+% 19,9).

Analisi hori bera landa-ostatuetara eramanda, erreferentziazko bi adierazleek bilakaera apalagoa izan zuten. Lurraldeen araberako banaketan Gipuzkoa nabarmendu zen, hark baitzuen establezimendu (% 45,6; +% 3,9) eta plaza (% 45,9; +% 0,7) kopuru handiena. Eta kasu honetan ere Araba izan zen egunean eskainitako plaza kopurua gehien handitu zuen lurraldea (2019arekiko +% 8,6).

Azkenik, apartamentu turistikoek gora egiten jarraitu zuten, eta horien kopurua zein plazak nabarmen ugaritu ziren Bizkaian (+% 164 eta +% 110,6) eta Gipuzkoan (+% 165,9 eta +% 87,4). Araban ere goranzkoa izan zen joera, baina askoz ere neurri txikiagoan (+% 10,3 eta +% 13,3). Lurralde bakoitzaren ekarpenari dagokionez, apartamentu turistikoen % 83,5 Gipuzkoaren (% 42,9) eta Bizkaiaren (% 40,7) artean banatuta zeuden. Plaza gehien Bizkaian eskaintzen ziren (% 42), jarraian Gipuzkoan (% 35,2) eta, azkenik, Araban (% 22,8).

Logikoa den moduan, establezimenduen batez besteko neurria asko aldatzen da ostatu motaren arabera eta, neurri txikiagoan bada ere, lurraldearen arabera ere bai. Hotelen sarean, establezimendu bakoitzaren batez besteko neurria egunean 70 plaza ingurukoa izan zen Araban eta Bizkaian, eta egunean 42 plazakoa Gipuzkoan. Landa-ostatuek patroi berari jarraitu zioten hiru lurraldeetan, eta batez beste egunean 10 plaza eskaini zituen establezimendu bakoitzak. Apartamentu turistikoei dagokienez, Araban egunean 3,8 plaza eskaini zituen establezimendu bakoitzak, Bizkaian 2,8 plaza eta Gipuzkoan gutxiago, 2,2 plaza.

**234. koadroa EAEko eta lurralde historikoetako eskaintza turistikoaren bilakaera (2019 eta 2023)**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | Landa-ostatuak | | | Apartamentu turistikoak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2023 | % ∆ 23/19 | 2019 | 2023 | % ∆ 23/19 | 2019 | 2023 | % ∆ 23/19 |
| **Araba** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 70 | 71 | 1,4 | 99 | 102 | 3,0 | 253 | 279 | 10,3 |
| Plazak eguneko | 4.187 | 5.020 | 19,9 | 969 | 1.052 | 8,6 | 932 | 1.056 | 13,3 |
| **Bizkaia** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 231 | 232 | 0,4 | 122 | 122 | 0,0 | 261 | 689 | 164,0 |
| Plazak eguneko | 14.217 | 15.807 | 11,2 | 1.237 | 1.240 | 0,2 | 923 | 1.944 | 110,6 |
| **Gipuzkoa** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 302 | 316 | 4,6 | 181 | 188 | 3,9 | 273 | 726 | 165,9 |
| Plazak eguneko | 11.530 | 13.378 | 16,0 | 1.931 | 1.945 | 0,7 | 870 | 1.630 | 87,4 |
| **EAE** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 603 | 619 | 2,7 | 402 | 412 | 2,5 | 787 | 1.694 | 115,2 |
| Plazak eguneko | 29.933 | 34.206 | 14,3 | 4.137 | 4.237 | 2,4 | 2.724 | 4.629 | 69,9 |

*(*): Irekitako establezimenduak. Urteko batez besteko emaitzak*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. Irekitako hotel-establezimenduak**

**40. grafikoa Lurralde bakoitzak EAEn eskainitako plazen guztizkoari egindako ekarpena ostatu motaren arabera, 2019an eta 2023an**




*Iturria: Eustat.*

EAEko askotariko eremu geografikoetako batez besteko egonaldiari dagokionez, datuek erakusten dutenez, 2019ko patroi bera jarraitu zen. Hala, Gipuzkoako barnealdea nabarmendu zen, batez besteko egonaldia 2,4 egunekoa izan baitzen, gainerako lekuetakoa baino luzeagoa. Gasteizko batez besteko egonaldia, berriz, 2,1 egunekoa izan zen, gainerako hiriburuetakoa baino luzeagoa.

Okupazio mailari dagokionez, gora egin zuen Araban (% 54,5; ehuneko +2,9 puntu) eta Gipuzkoan (% 61;1, ehuneko +0,7 puntu). Aldiz, egonkor mantendu zen Bizkaian (% 56). Eremuaren arabera, Donostiaren okupazio maila nabarmendu zen 2023an, % 65,8koa izan

baitzen, gainerakoena baino askoz handiagoa. Hala ere, 2019an baino txikiagoa izan zen (ehuneko -1,5 puntu). Bilbok eta Gipuzkoako kostak eskuratu zituzten bigarren erregistrorik onenak (% 61 inguru). Lehenengoak behera egin zuen, eta bigarrenak gora, baina aldakuntza txikiak izan zituzten (ehuneko -0,4 puntu eta ehuneko +0,7 puntu). Gainerako eremuetan, % 45,1 (Bizkaiko kosta, ehuneko -6,1 puntu) eta % 55,6 (Gasteiz, ehuneko +2,3 puntu) artean eskuratu zuten.

Bilakaerari dagokionez, Arabako gainerako zonaldeetan (% 46,9 eta ehuneko +4,7 puntu) eta Donostiako metropoli eremuan (% 51 eta ehuneko +3,7 puntu) izan zuten bilakaerarik onena 2019ko balioekin alderatuta.

**235. koadroa Hoteletako batez besteko egonaldia eta okupazio maila, zonalde geografikoaren arabera. 2019 eta 2023**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Batez besteko egonaldia | | | Okupazio maila; (plazak) | | |
| | 2019 | 2023 | aldea | 2019 | 2023 | aldea |
| **Araba** | **1,9** | **2,0** | **0,1** | **51,6** | **54,5** | **2,9** |
| Gasteiz | 2,0 | 2,1 | 0,1 | 53,3 | 55,6 | 2,3 |
| Arabar Errioxa | 1,6 | 1,7 | 0,0 | 53,1 | 53,5 | 0,4 |
| Arabako gainerako zonaldeak | 1,8 | 1,7 | 0,0 | 42,2 | 46,9 | 4,7 |
| **Bizkaia** | **1,9** | **1,9** | **0,0** | **56,6** | **56,0** | **-0,6** |
| Bilbo | 1,9 | 1,9 | 0,0 | 61,7 | 61,3 | -0,4 |
| Bilboko metropoli-eremua (*) | 1,8 | 1,8 | -0,1 | 50,9 | 48,6 | -2,3 |
| Bizkaiko kosta | 2,1 | 1,9 | -0,2 | 51,2 | 45,1 | -6,1 |
| Bizkaiko barnealdea | 2,1 | 2,0 | -0,1 | 44,2 | 46,7 | 2,5 |
| **Gipuzkoa** | **2,0** | **2,0** | **0,0** | **60,4** | **61,1** | **0,7** |
| Donostia | 2,1 | 2,0 | 0,0 | 67,3 | 65,8 | -1,5 |
| Donostiako metropoli eremua (*) | 2,0 | 1,9 | -0,1 | 47,3 | 51,0 | 3,7 |
| Gipuzkoako kosta | 1,7 | 1,7 | 0,0 | 60,4 | 61,2 | 0,8 |
| Gipuzkoako barnealdea | 2,6 | 2,4 | -0,1 | 45,9 | 47,0 | 1,1 |

*(*): Hiriburuak ez dira sartzen.*
*Iturria: Eustat.*

Errentagarritasunaren adierazleekin lotuta, 2023an EAEn 108,25 eurokoa izan zen eguneko batez besteko tarifa (ADR), 2022an baino % 9,6 handiagoa eta 2019an baino % 15,8 handiagoa. Gipuzkoak eta Bizkaiak ere EAEren antzeko bilakaera izan zuten. Araban, ordea, urte arteko hazkundea txikiagoa izan zen (+% 3,9); halere, 2019arekiko hazkundea (+% 16,4) gainerako eremuetan izandakoaren antzekoa izan zen. Hala, 2023an, Gipuzkoako batez besteko tarifa 125,22 eurokoa izan zen, Bizkaian 100,7 eurokoa eta Araban 84,31 eurokoa.

Segmentuaren arabera, EAEko batez besteko tarifa 126,10 eurokoa izan zen hiru izar edo gehiagoko kategorian, eta 76,74 eurokoa kategoria baxuagoan. Analisi hori bera hiru lurralde historikoetara eramanda, batez besteko tarifen artean alde handia izan zela ikus daiteke. Batez besteko tarifak oso altuak izan ziren Gipuzkoan (147,47 euro kategoria altuan eta 90,09 euro kategoria baxuan). Aldiz, baxuagoak izan ziren Bizkaian (114,88 euro



LABORAL kutxa

kategoria altuan eta 68,16 euro kategoria baxuan) eta, batez ere, Araban (103,4 euro kategoria altuan eta 63,64 euro kategoria baxuan).

**236. koadroa Eguneko batez besteko tarifa (ADR) EAEko hotel-establezimenduetan, lurralde historikoaren eta kategoriaren arabera, eurotan**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2022 | 2023 | % ∆ 23/22 | % ∆ 23/19 |
| **Araba** | 72,44 | 81,18 | 84,31 | 3,9 | 16,4 |
| Hiru izar edo gehiago | 84 | 99,52 | 103,4 | 3,9 | 23,1 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 52,58 | 57,57 | 63,64 | 10,5 | 21,0 |
| **Bizkaia** | 85,82 | 91,1 | 100,7 | 10,5 | 17,3 |
| Hiru izar edo gehiago | 97,78 | 105,18 | 114,88 | 9,2 | 17,5 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 58,59 | 59,21 | 68,16 | 15,1 | 16,3 |
| **Gipuzkoa** | 109,67 | 113,07 | 125,22 | 10,7 | 14,2 |
| Hiru izar edo gehiago | 134,9 | 135,86 | 147,47 | 8,5 | 9,3 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 77,05 | 79,56 | 90,09 | 13,2 | 16,9 |
| **EAE** | 93,44 | 98,73 | 108,25 | 9,6 | 15,8 |
| Hiru izar edo gehiago | 108,92 | 116,21 | 126,10 | 8,5 | 15,8 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 66,47 | 68,17 | 76,74 | 12,6 | 15,5 |

*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

EAEko turismo-jarduerearen aurreikuspenei dagokienez, 2023an balantzea oso positiboa izan zen, Estatuko eta nazioarteko eskaria normalizatu egin baitziren. 2024rako, kontrako gertakari berririk ezean, sektoreko adierazle nagusiak goranzko ibilbide jarraituan mantentzea espero da.



# 6.FINANTZA SEKTOREA

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

2023 nahiko ekitaldi lasaia izan zen, espero gabeko gertakariz eta ziurgabetasunez betetako hirurteko baten ostean. Hala, emaitza makroekonomikoak positiboak izan ziren; bereziki, enpleguarekin lotutakoak. Arlo horretan, kurba inflazionista makurtzea da erronka, oraindik ere. Txanponaren beste aldean, interes-tasen balioek gora egiten jarraitu zuten, eta balio gorenetan mantendu ziren[1] (% 4,50 Eurogunean eta % 5,25 AEBn), moneta-politika murriztailean oinarritutako estrategiaren baitan, azken bi hamarkadetan ez bezala[2].

Dena den, inflazioak bilakaera ona izan du —espero baino azkarrago eta sakonago egin du behera—, hortaz, EBZ 2024ko udarako interes-tasak murrizten hasiko dela pentsa daiteke, apirilaren 11ko bileran helarazitako balantzearen arabera: *“Gobernu Kontseiluak inflazioaren aurreikuspenei, azpiko inflazioaren dinamikari eta moneta-politikaren transmisioaren intentsitateari buruz egiten duen ebaluazio eguneratuak are gehiago baieztatuko balu inflazioa helburura gerturatzen ari dela modu jarraituan, egokia izango litzateke moneta-politikaren egungo murrizketa maila gutxitzea”.*

**41. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra***




*(*): Eguneko datuen hileko batezbestekoa.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Izan ere, interes-tasen igoeren erritmoa eta maila hainbat agertoki inflazionistaren ondorio dira[3] eta, batez ere, hazkunde ekonomikoaren ondorio. Hazkunde hori, argi eta garbi, handiagoa izan da AEBn (+% 2,5), Eurogunean (+% 0,4) baino, azken horretan herrialde batzuek bilakaera negatiboa izan baitute (Alemania, -% 0,3). Interes-tasak

---

[1] EBZren kasuan irailaren 20az geroztik eta Fed-en kasuan uztailaren 27az geroztik. Gerora ez zen aldaketarik izan.
[2] Erreferentziazko interes-tasek ez zuten horrelako baliorik izan 2008ko urriaren 15az geroztik (Eurogunean) eta 2006ko ekainaren 29az geroztik (AEBn).
[3] 2023ko abenduan % 3,4ko eta % 2,9 hazkundeak, AEBn eta Eurogunean.

igotzeko estrategiak egokitzen joan dira, eta hori erakusten du kanbio-tasa ia parekoa izateak. Hurrengo bi urteetan antzeko mantenduko dela aurreikusten da, hazkunde ekonomikoarekin bat etorriz. Ekonomia aurreratuei eta EAEko ekonomiari dagokienez, 2023ko erregistroak apur bat hobetzea espero da, hazkunde ekonomiko horren ondorioz.

Ziurgabetasuna gutxitzearen ondorioz eta agertoki inflazionistaren aurrean erakutsitako erresilientziaren ondorioz, burtsa-indizeen balioak asko igo ziren: orokorrean, indize guztiek balio positiboekin amaitu zuten urtea, eta bi digituko hazkundeekin. FTSE 100 britainiarra (+% 3,8) izan zen salbuespena, 2022an behera egin ez zuen bakarra izan baitzen.

**237. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

*(puntuak)*

| Urtea | Ibex-35 (Madril) | CAC-40 (Paris) | Dax-Xetra (Frankfurt) | FTSE 100 (Londres) | Dow Jones (New York) | Nikkei (Tokio) | Eurostoxx 50 | Nasdaq Composite |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2021 | 8.713,8 | 7.153,0 | 15.884,9 | 7.384,5 | 36.338,3 | 28.791,7 | 4.298,4 | 15.645,0 |
| 2022 | 8.229,1 | 6.473,8 | 13.923,6 | 7.451,7 | 33.147,3 | 26.094,5 | 3.793,6 | 10.466,5 |
| 2023 | 10.102,1 | 7.543,2 | 16.751,6 | 7.733,2 | 37.689,5 | 33.464,2 | 4.521,7 | 15.011,4 |
| *Urte batetik besterako aldakuntza (%)* | | | | | | | | |
| 2021 | 7,9 | 28,9 | 15,8 | 14,3 | 18,7 | 4,9 | 21,0 | 21,4 |
| 2022 | -5,6 | -9,5 | -12,3 | 0,9 | -8,8 | -9,4 | -11,7 | -33,1 |
| 2023 | 22,8 | 16,5 | 20,3 | 3,8 | 13,7 | 28,2 | 19,2 | 43,4 |

*Oharra: Urte bakoitzeko azken egunean.*
*Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa. Analisi Makroekonomikoaren Zuzendaritza Nagusia.*

Bestetik, kreditu-erakundeen kopuruak behera egiten jarraitu zuen Estatuan (223 erakunde; -4 erakunde), eta egoera hori areagotu egingo da, azkenaldiko erosketa-egitasmoak kontuan hartuta. 2023an gutxitu egin ziren gordailu-erakundeak (185 erakunde, 5 gutxiago), bai atzerrikoak (76 erakunde, 4 gutxiago), bai Estatukoak (109 erakunde, 1 gutxiago), eta horrek eragin zuen urtearen itxierako emaitza. EFC/ECAOLek erakunde bat batu zuten (35 erakunde).

**238. koadroa Kreditu-erakundeak eta EFC**

*(erakunde kopurua)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Erakunde kopurua. Guztira** | **232** | **226** | **228** | **227** | **223** |
| Gordailu-erakundeak | 195 | 191 | 194 | 190 | 185 |
| Espainiako gordailu-entitateak | 114 | 113 | 110 | 110 | 109 |
| EFC/ECAOL | 36 | 34 | 33 | 34 | 35 |

*Oharra: guztizkoarekiko aldea Kreditu Erakunde Ofizialei eta ESIS sistemikoei dagokie.*
*Iturria: Espainiako Bankua.*

Bulego-sareak beheranzko joerarekin jarraitu zuen. Izan ere, oro har, erraz egin daitezkeen eragiketen kasuan, harreman digitalaren (mugikorren bidez edo kutxazaineko zerbitzuen bidez) alde egiten dute finantza-erakundeek (zerbitzu-jarduera guztiek bezalaxe). Hala,

balio handiagoko jarduueretarako uzten dituzte espazio fisikoa eta aurrez aurreko harremana.

Hala, Finantza Inklusiorako Behatokiaren baitako erakundeek bankuko zerbitzuen eskuragarritasuna lurralde osoan izatea[1] eta kolektiborik zaurgarrienei eskaintzea bermatzeko konpromisoa dute. Kolektibo horren barruan, adineko pertsonak eta, orokorrean, kultura digital txikiagoa duten pertsonak biltzen dira.

Ordaintzeko bitartekoen eskaintza orokorra handitu egin zen. Izan ere, banku-bulegoen sarea egonkortu egin zen, kutxazain kopurua murriztu egin zen[2] eta salmenta-puntuko terminalen (TPV) sarea nabarmen hazi zen. Eskaintza horrek eskariari erantzun behar dio. Eskariak, eskudirua erabiltzen jarraitzen badu ere[3], ordaintzeko modu askoren bidez egiten ditu eragiketak, eta gero eta pisu handiagoa dute modalitate birtualek.

Azkenik, badirudi, aurreko urteetan ez bezala, enplegu arloko doiketa amaitu dela. 2009az geroztik lehen aldiz, Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruak gora egin zuen finantza-jardueren arloan. EAEko hazkundea (+% 1,7) txikiagoa izan zen Nafarroakoa (+% 3,3) eta Estatukoa (+% 2,2) baino.

**239. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua**

*(bulego kopurua)*

| Urtea | EAE | Nafarroa | Espainia |
|---|---|---|---|
| 2021 | 1.009 | 410 | 19.015 |
| 2022 | 981 | 406 | 17.648 |
| 2023 | 971 | 403 | 17.603 |
| *2023/2022; %* | *-1,0* | *-0,7* | *-0,3* |
| *2023/ 2008,%* | *-51,2* | *-43,7* | *-61,4* |

*Iturria: Espainiako Bankua.*

[1] Kanal alternatiboen bidezko sarbide-puntuekin (finantza-eragileak, ofibusak, cashback, Correos Cash...). 2021 eta 2022 artean % 1,6 ugaritu ziren puntu horiek. Espainian, 50.672 puntuko sarea dago. Espainiako Bankuak 2023ko abenduan argitaratutako "Bankuko zerbitzuen aurrez aurreko eskuragarritasuna Espainian: jarraipen-txostena, 2023" txostenean jasota.

[2] Espainian 38.203 kutxazain daude martxan (urte arteko tasa: -% 3,1), 4,2 milioi salmenta-puntuko terminal (urte arteko tasa: +% 9,7) eta 97 milioi ordainketa-txartel (urte arteko tasa: +% 2,5) Ordaintzeko bitartekoen gaineko estatistika, 2023ko lehenengo hiruhilekoa. Espainiako Bankua (2024ko otsaila).

[3] "Eskudirua da espainiarrek ordaintzeko gehien erabiltzen duten bitartekoa". Espainiako Bankua (2023ko urtarrila).

**240. koadroa Afiliazioa[1] finantza-jarduеretan**

*(afiliatu kopurua)*

| Urtea | Finantza- eta aseguru-jarduerak | | | Finantza-jarduerak[2] | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Nafarroa | Espainia | EAE | Nafarroa | Espainia |
| 2021 | 12.808 | 3.276 | 312.246 | 7.946 | 2.198 | 188.449 |
| 2022 | 12.658 | 3.172 | 312.214 | 7.946 | 2.171 | 190.528 |
| 2023 | 12.771 | 3.282 | 320.826 | 8.079 | 2.242 | 194.768 |
| *2023/ 2022,%* | *0,9* | *3,5* | *2,8* | *1,7* | *3,3* | *2,2* |
| *2023/ 2009,%* | *-30,3* | *-27,0* | *-17,2* | *-37,3* | *-32,6* | *-31,1* |

*(1) Urte bakoitzeko abenduaren 31n. Erregimen orokorra*

*(2)Aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik*

*Iturria: Gizarte Segurantza.*

# 2. KREDITU-ERAKUNDEAK

## 2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

### Kredituaren bilakaera Estatuan

Interes-tasa altuek (horiek inpaktu ezberdina izan zuten aktiboaren eta pasiboaren posizioetan) eta ekonomiaren geldotzeak baldintzatu zuten 2023ko finantza-jarduera. Hala, kreditu-erakundeek ekitaldiaren amaieran zuten balantzeak erakusten duenez, horien aktiboa ia 3 bilioi eurokoa zen (+% 1,3). Hortaz, 2022an etendako (-% 0,3) hobekuntza-ibilbidea berreskuratu zuten eta, atzera begiratuta, 2019ko erregistroa gainditu zuten (+% 13,6 eta +354.358 milioi euro).

Finantzaketa-baldintzak gogortu egin baziren ere, kredituen partidak (+% 2,3) izandako hobekuntzak eragin zuen aktiboaren bilakaera. Hala, ondoz ondoko hirugarren urtez, kreditu-saldo bizia 2 bilioi eurotik gorakoa izan zen[1], eta handitu egin zen aktiboari egindako ekarpena (% 69,4, ehuneko +0,7 puntu). Hain zuzen ere, partida horren saldoak 2019ko saldoarekiko izandako hazkundea nabarmendu behar da (+% 18,3); izan ere, horren ondorioz, hazi egin zen kreditu-erakundeen aktiboan zuen pisua, 2019arekin alderatuta (% 66,6, ehuneko +2,8 puntu).

Halaber, akzioak ez diren balioen (+% 1,7) eta akzioen eta partaidetzen (+% 4,8) saldoak izandako hobekuntza aipatu behar da. Hala, mantendu edo hobetu egin zuten aktiboari egiten dioten ekarpena (% 12,5 eta % 8,3, hurrenez hurren). Aitzitik, sektorizatu gabeko aktiboen emaitza (-% 8,1) negatiboa izan zen, talde horri lotutako nolabaiteko aldakortasun-profilaren barruan (-% 1,8, -% 6,9 eta +% 13,5 2020an, 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren), eta % 10 inguruko pisu erlatiboa izan zuen.

**241. koadroa Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **2.612.780** | **2.822.182** | **2.937.622** | **2.929.279** | **2.967.138** |
| Kredituak | 1.740.034 | 1.926.930 | 2.101.592 | 2.012.799 | 2.058.594 |
| Akzioak eta partaidetzak ez diren balioak | 316.423 | 345.785 | 315.637 | 365.811 | 372.205 |
| Akzioak eta partaidetzak | 252.012 | 250.781 | 242.290 | 235.027 | 246.379 |
| Sektorizatu gabeko aktiboak | 304.311 | 298.686 | 278.104 | 315.642 | 289.960 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

[1] 2008an erregistratutako baliotik (2.303.674 milioi euro) oso urrun, eta osaera onbideratuta (ez dago eraikuntzaren eta higiezinen sektorera okertuta).

Aztertutako lau segmentuen kreditu-saldoaren bilakaerak erakusten duenez, erregistratutako urte arteko hazkundea (+45.795 milioi euro) hainbat joeraren emaitza izan zen. Horrekin lotuta, beste sektore egoiliar batzuei lotutako kredituak (sektore pribatua, enpresak eta familiak) urte arteko jaitsiera handia izan zuela nabarmendu behar da (-% 3,1 eta -38.208 milioi euro). Hala, 1,18 bilioi euroko saldoa izan zuen, 2019an baino baxuagoa (-% 1,0 eta -12.257 milioi euro). Emaitza horrek erakusten duenez[1], jarduera moteldu egin zen, finantzaketaren kostuaren igoerarekin lotuta. Igoera horrek oztopatu egin zuen partikularren finantzaketa-jardueraren segmentu batzuen suspertze-ibilbidea, adibidez, hipoteken segmentuarena, hamar urte baino gehiagoko desapalankamenduaren ondoren.

**242. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.740.034** | **1.926.930** | **2.101.592** | **2.012.799** | **2.058.594** |
| Kreditu-sistema | 190.494 | 328.166 | 452.347 | 319.260 | 337.538 |
| Administrazio Publikoak | 66.922 | 77.198 | 81.491 | 81.978 | 78.998 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.193.526 | 1.224.440 | 1.223.700 | 1.219.477 | 1.181.269 |
| Beste ez-egoiliar batzuk | 289.092 | 297.126 | 344.053 | 392.083 | 460.788 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Halaber, Administrazio Publikoen zorra murriztu egin zen (-% 3,6), hazi egin baitziren beste sektore ez-egoiliar batzuei lotutako kreditu-saldoa (+% 17,5) eta kreditu-sektoreari lotutako kreditu-saldoa (+% 5,7), 2022ko beherakada handiaren ondoren (-% 29,4). Ondorioz, aktiboaren osagaiek oreka handiagoa eskuratu zuten euren artean: beste sektore egoiliar batzuei zegokien kreditu-saldo biziaren erdia baino gehiago (% 57,4), baina horien pisuaren galera (ehuneko -3,2 puntu) beste sektore ez-egoiliar batzuek (% 22,4, ehuneko +2,9 puntu; hobetze-joera sendotu zuen) eta kreditu-sistemak berak (% 16,4, ehuneko +0,5 puntu) xurgatu zuten.

Bestetik, nabarmentzekoa da beste sektore egoiliar batzuk pisua galtzen joan zirela kreditu-saldo biziaren gainean; batez ere, 2019ko ratioarekin alderatuta (% 68,6, ehuneko -11,2 puntu). Hala, kreditu-erakundeen kasuan, horien kreditu-jardueraren emaitza ez zuten horrenbeste baldintzatu gertuko agenteek, eta aipatutako beste hiru osagaiak baino orekatuagoa izan zen.

## Kredituaren jomuga Estatuan

Finantzaketak azken bi urteetan izandako garestitzea erakusten du beste sektore egoiliar batzuen (familiak eta enpresak) kreditua osatzen duten partiden bilakaerak. Europako Banku Zentralak aurreratutakoaren arabera, finantzaketa egungo balioen antzekoetan

[1] Kreditu Ofizialeko Institutuak (ICO) bermatutako maileguen itzulketa, aparteko laguntza finantzarioko ekintzen barruan.

mantenduko da 2024aren erdialdera arte; data horretatik aurrera, baliteke interes-tasak murrizten hastea.

Hazkunde ekonomikoa eta, batez ere, enpleguaren hazkundea izan arren, beste sektore egoiliar batzuetara bideratutako kreditu-saldo bizia 1,18 bilioi eurokoa izan zen 2023an, hau da, aurreko urtekoa baino baxuagoa (-% 3,1), berriz ere. Hala, agerian geratu zen finantzaketaren garestitzearen inpaktua[1] eta desapalankamendurako joeraren nagusitasuna. Hiru finantzaketa-lerroetan errepikatu zen atzeranzko profila. Eperako beste zordun batzuen sektoreak izandako jaitsiera nabarmendu zen (-% 3,3 eta -34.723 milioi euro), beste mailegu batzuek[2] (-% 0,2) eta merkataritza-kredituak (-% 6,0) izandako jaitsierekin batera. Funtsean, ondoz ondoko bigarren urtez, amortizazio-osagaia gailendu zen emakida berrien gainetik. Ondorioz, posizio global garbia murriztu egin zen 2022arekin alderatuta, eta 2019an baino maila baxuagoan kokatu zen (-12.257 milioi euro).

**243. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.193.526** | **1.224.440** | **1.223.700** | **1.219.477** | **1.181.269** |
| Merkataritza-kreditua | 50.561 | 42.162 | 47.169 | 55.056 | 51.733 |
| Eperako beste zordun batzuk | 1.034.061 | 1.077.559 | 1.070.780 | 1.066.951 | 1.032.228 |
| Beste mailegu batzuk | 108.903 | 104.719 | 105.750 | 97.470 | 97.308 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Zordun horien egitura ez zen nabarmen aldatu aurreko ekitaldiekin alderatuta. Eperako beste zordun batzuek[3] osatu zuten kreditu-erakundeen finantzaketa-jardueraren zatirik handiena (% 87,4, ehuneko -0,1 puntu), eta beste mailegu batzuk (% 8,2, ehuneko +0,2 puntu) eta merkataritza-kreditua (% 4,4, ehuneko -0,1 puntu) izan ziren hurrengoak. Egitura egonkorra da, eta bezero-segmentu bakoitzaren bilakaera erabakigarria da.

Kredituaren jomugaren araberako bilakaerak baieztatzen duenez, behera egin zuen ekoizpen-jarduerei (-% 5,0), etxebizitzak erosi eta birgaitzeari (-% 3,1) eta beste kreditu batzuei (-% 0,7) lotutako kreditu-saldo biziak. Aldiz, gora egin zuen kontsumo iraunkorreko ondasunei lotutako finantzaketaren segmentuan (+% 6,1). Osotasunean begiratuta, ekoizpen-agenteek eta familiek inbertsio-erabakiak murriztu zituztela erakusten du bilakaera horrek. Dena den, ez zen hala gertatu kontsumo iraunkorreko ondasunen

[1] 2022ko uztailaren 27an, Europako Banku Zentralak interes-tasa handitu zuen, hamar urtean lehen aldiz, (% 0tik % 0,5era). Estrategia hori mantendu egin zen, eta beste bederatzi igoera egin ziren 2023ko irailaren 20ra arte (% 4,5).

[2] Kobrantza zalantzagarriko kredituen (-% 3,0) eta ageriko zordunen (-% 1,3) beherakadarekin lotuta. Errentamendu finantzarioak (+% 6,9), berriz, gora egin zuen.

[3] 2017az geroztik, Espainiako Bankuak ez du informazio bereizirik eskaintzen berme erreal batean oinarritzen diren kredituei buruz eta, horien barruan, hipoteka modalitatearen pean sinatutakoei buruz. Aldaketa hori Europar Batasuneko sailkapen-eredurako egokitzapena dela-eta gertatu da (EBZ).

erosketei dagokienez, eragiketa horien kreditu-saldoak gora egin baitzuen, finantzaketa-kostua altua izan arren.

Hala, 2023aren itxieran, apur bat jaitsi zen ekoizpen-jardueretara bideratutako kredituaren ehuneko pisua (% 45,7, ehuneko -0,8 puntu), finkatu egin ziren etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako segmentua (% 43,0, ehuneko +0,2 puntu) eta beste mailegu batzuena (% 6,7, ehuneko +0,2 puntu), eta gora egin zuen kontsumo iraunkorreko ondasunen segmentuak (% 4,7, ehuneko +0,4 puntu).

**244. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.135.590** | **1.174.945** | **1.173.435** | **1.166.763** | **1.126.785** |
| Ekoizpen-jarduerak | 512.107 | 554.073 | 550.342 | 542.154 | 514.953 |
| Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 500.474 | 493.951 | 500.045 | 499.417 | 484.126 |
| Kontsumo iraunkorreko ondasunak | 42.635 | 49.727 | 49.688 | 49.545 | 52.564 |
| Beste kreditu batzuk | 80.375 | 77.194 | 73.360 | 75.647 | 75.142 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

**42. grafikoa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Erakundeen ikuspegitik, kredituak geldotzeak azalpen bikoitza izango luke[1]. Batetik, gogortu egin ziren kreditua eskuratzeko baldintzak, eta finantzaketaren kostua izan zen mailegu-eskaeren murrizketa eragin zuen faktore nagusia (baina ez bakarra), agente guztien kasuan. Bestetik, “2022aren hasieratik lehenengo aldiz, 2024aren hasieran

[1] Bankuko Maileguen Inkesta (2023ko laugarren hiruhilekoa), Europako Banku Zentrala.

enpresentzako eta etxebizitza erosteko maileguen eskariak hazkunde garbi txiki bat izatea espero dute entitateek". Horrek kredituen hazkundea eragingo du 2024an; bereziki, erreferentziazko interes-tasek behera egiten badute, aurreikusi bezala (2024ko ekainerako). Inflazioak behera egiten jarraitzen badu murriztuko dituzte interes-tasak.

### Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

Gordailu-erakundeek 82.294 milioi euroko kreditua (saldo bizia) eman zuten 2023an Euskal Herrian, aurreko urtean baino -% 4,7 gutxiago. Estatuan txikiagoa izan zen urte arteko jaitsiera (-% 3,6) eta, ondorioz, Euskal Herrian emandako kredituak Estatukoaren gainean zuen pisuak behera egin zuen apur bat (% 6,8, ehuneko -0,1 puntu). EAEk (-% 4,9) urte arteko jaitsiera handiagoa izan zuen Nafarroak (-% 3,8) baino, baina bien kasuan egin zuten behera zor-posizioek. EAEko emaitza xeheek erakusten dutenez, kredituak behera egin zuen ekitaldian zehar, eta urte arteko jaitsierak izan zituzten Arabari (-% 5,8), Bizkaiari (-% 5,2) eta Gipuzkoari (-% 4,1) esleitutako saldoek. Hala, EAEko kreditu-jardueraren zatirik handiena Bizkaiari zegokion[1] (% 58,9), eta Gipuzkoa (% 29,9) eta Araba (% 11,2) izan ziren hurrengoak.

[1] Kontuz: ezin da zuzenean lurralde bakoitzeko agenteek emandako kreditu gisa hartu. Izan ere, entitateek lurralde bakoitzari egindako esleipenean oinarritzen da (bulegoen finkapenaren eta jardueraren araberakoa). Egoitzarekin lotura duten faktoreek ere eragina dute. Kredituaren lurraldekako banaketa honetan badirudi Bizkaiak neurriz kanpoko ordezkaritza duela, EAEko BPGari (2023) egiten dion lurralde-ekarpena kontuan izanda (% 51,6); Gipuzkoaren (% 32,9) eta Arabaren (% 15,5), ekarpenak txikiagoak dira. Hala, Bizkaiak pisu handiagoa du BPGan, kredituan baino.

**245. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera**

*(M euro)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 2021 | 1.204 | 7.256 | 8.460 |
| | 2022 | 825 | 7.071 | 7.895 |
| | 2023 | 791 | 6.649 | 7.440 |
| Bizkaia | 2021 | 6.728 | 34.128 | 40.856 |
| | 2022 | 7.017 | 34.281 | 41.297 |
| | 2023 | 6.757 | 32.397 | 39.154 |
| Gipuzkoa | 2021 | 1.505 | 19.432 | 20.937 |
| | 2022 | 1.528 | 19.182 | 20.710 |
| | 2023 | 1.260 | 18.611 | 19.871 |
| EAE | 2021 | 9.437 | 60.816 | 70.253 |
| | 2022 | 9.369 | 60.533 | 69.903 |
| | 2023 | 8.809 | 57.657 | 66.465 |
| Nafarroa | 2021 | 1.028 | 15.249 | 16.278 |
| | 2022 | 901 | 15.552 | 16.453 |
| | 2023 | 820 | 15.009 | 15.829 |
| Euskal Herria | 2021 | 10.466 | 76.065 | 86.531 |
| | 2022 | 10.271 | 76.085 | 86.356 |
| | 2023 | 9.628 | 72.666 | 82.294 |
| Espainia | 2021 | 78.919 | 1.173.435 | 1.252.354 |
| | 2022 | 79.811 | 1.166.763 | 1.246.574 |
| | 2023 | 75.167 | 1.126.785 | 1.201.952 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Aztertutako bi bezero-segmentuek bilakaera bera izan zuten. Hau da, eremu guztietan, behera egin zuten Administrazio Publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen zordun-posizioek. Urte arteko jaitsiera handiagoa izan zuten Administrazio Publikoek (-% 6,0, -% 9,0 eta -% 5,8 EAEn, Nafarroan eta Estatuan), beste sektore egoiliar batzuek baino (-% 4,8, -% 3,5 eta -% 3,4, hurrenez hurren). Emaitza horrek baieztatzen duenez, osagai publikoaren zorra egokitu egin zen, pandemiaren ondorio okerrenei lotutako beharrak behin gaindituta. Aldiz, eskari pribatua ahuldu egin zen, finantzaketa-kostuaren igoeraren ondorioz eta errenta eskuragarria jaitsi izanaren ondorioz. Horrek agerian uzten du bizi-kostuaren igoera.

Beste sektore egoiliar batzuetara (familiak eta enpresak) bideratutako kreditua izan zen zati nagusia, kreditu-saldoaren % 90 inguru baitzegokion aztertutako eremu guztietan, baina ñabardura batzuekin. Hala, haren pisu erlatiboa apur bat txikiagoa zen Euskal Herrian (% 88,3), Estatuan (% 93,7) baino. Gainerakoa Administrazio Publikoei zegokien, batez ere EAEn (% 13,3), eta ez horrenbeste Nafarroan (% 5,2). Eta, gainera, Administrazio Publikoen pisua nabarmen handiagoa zen Bizkaian eta Araban (% 17,3 eta % 10,6), Gipuzkoan baino (% 6,3).



LABORAL kutxa

**43. grafikoa** **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Atxikitako grafikoak baieztatzen duenez, beste sektore egoiliar batzuen segmentuaren desapalankamendu finantzarioko joera gailendu zen; izan ere, segmentu hori zorpetze maila murrizten ari da 2008ko finantza-krisiaz geroztik. Hala, aztertutako eremuren batek une jakin batzuetan urte arteko igoeraren bat erregistratu bazuen ere, egia esan, zorpetze-posizioak murrizteko joera gailendu zen. Joera hori moteldu egin zen 2020an, indarra berreskuratu zuen 2022an (ziurgabetasuna eta espiral inflazionista) eta 2023an gogortu egin zen finantzaketa-kostua, 2007-2008 eta 2000-2011 urteez geroztik ikusi gabeko mailara arte[1]. Hala, eta bizitako ezohiko egoerak gorabehera, sektore pribatuaren egoera finantzarioa hobea izan zen.

### Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

Familientzat oso garrantzitsuak diren bi inbertsio eremutan (etxebizitzak erostea eta birgaitzea, eta autoa erostea) erregistratutako bilakaera aztertuko dugu atal honetan. Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketari buruzko informazioak agerian uzten du kreditu-jarduera moteldu egin zela, aipatu bezala. Izan ere, 2023an amaitu egin zen jarduera horrek 2021ean eta 2022an izandako igoera. Urte horiek ezohikoak izan ziren neurri batean, 2020ko geldialdia xurgatu baitzuten.

Hipoteka berrien sinadura kopurua modu orokorrean jaitsi zen. Urte arteko jaitsiera handiagoa izan zen Estatuan (-% 17,9) eta EAEn (-% 17,1), Nafarroan baino (-% 11,9). Emandako guztizko zenbatekoa antzeko neurrian jaitsi zen (-% 19,5, -% 17,8 eta -% 10,6). Hortaz, sinatutako hipoteken batez besteko zenbatekoa mantendu egin zen 2022arekiko,

[1] % 4tiko gorako erreferentziazko interes-tasak izan ziren aipatutako aldietan.

eta EAEn (158.909 euro) handiagoa izaten jarraitu zuen, Estatuan (142.008 euro) eta Nafarroan (132.416 euro) baino.

**246. koadroa Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa**

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 361.291 | 337.752 | 418.058 | 464.107 | 381.064 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 45.383 | 45.508 | 57.493 | 67.256 | 54.114 |
| *Batez besteko zenbatekoa (€)* | *125.615* | *134.738* | *137.523* | *144.914* | *142.008* |
| **EAE** | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 18.961 | 19.252 | 21.098 | 23.076 | 19.135 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 2.734 | 2.848 | 3.319 | 3.700 | 3.041 |
| *Batez besteko zenbatekoa (€)* | *144.198* | *147.927* | *157.304* | *160.328* | *158.909* |
| **Nafarroa** | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 4.508 | 4.201 | 5.190 | 5.219 | 4.599 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 519 | 488 | 640 | 681 | 609 |
| *Batez besteko zenbatekoa (€)* | *115.217* | *116.280* | *123.380* | *130.508* | *132.416* |

*2023: behin-behineko datuak.*
*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Bilakaera horrek erakusten duenez, finantzaketa-kostuak zenbateko txikiagoko eragiketak murriztu zituen gehienbat (horiek dira eratu ez zirenak), baina mantendu egin ziren gainerakoak (ordaintzeko gaitasuna). Hortaz, ez zen alde nabarmenik izan batez besteko hipotekan. Gainera, kasu guztietan, batez besteko hipoteka nabarmen handiagoa izan zen 2019an baino (+% 13,1, +% 10,2 eta +% 14,9, Estatuan, EAEn eta Nafarroan). Etxebizitzaren prezioak gora egin duela eta lan-merkatuaren egoera hobea dela erakusten du horrek (inbertsiorako gaitasun handiagoa).

Hipoteken kostuaren gorakada dela eta, 2023an, Estatuan sinatutako hamar hipotekatik sei (% 60,0) interes-tasa finkokoak izan ziren. Dena den, ehuneko horrek behera egin zuen 2022arekiko (% 71,0), hipoteka finkoak garestitu egin zirelako[1].

[1] Batez besteko interes-tasa % 3,30era igo zen 2023an (2021ean % 1,91 eta 2022an % 2,04).

**44. grafikoa** **Euriborraren bilakaera(*) (hamabi hilabetera)**

(%)




*(*): Hilabete bakoitzaren itxierako datua da.*
*Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.*

2023an behera egin zuen aldaketa notarialak erregistratu zituzten hipoteken kopuruak[1], 2021eko eta 2022ko igoeraren ondoren. Pandemiatik irteteko zailtasunek eta interes-tasen igoerak baldintzatu zituzten bi ekitaldi horiek, eta hipoteken baldintzak negoziatzeko argudio giltzarriak izan ziren. Horrekin lotuta, azken urtean, 102.765, 4.025 eta 452 hipoteka aldatu ziren Estatuan, EAEn eta Nafarroan. EAEn (+% 19,3) bakarrik egin zuten gora aldaketek (Estatuan eta Nafarroan -% 9,1 eta -% 18,9). Hala, oso agerikoa da kostuaren igoeraren inpaktua. Izan ere, aldaketa notarialak erregistratu zituzten hipoteken kopurua 2019ko (urte normalizatua) datuaren hirukoitza zen oraindik ere.

**247. koadroa** **Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzen gaineko hipotekak**

(Hipoteka kopurua)

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 39.543 | 65.692 | 207.381 | 113.050 | 102.765 |
| EAE | 1.218 | 1.448 | 3.415 | 3.374 | 4.025 |
| Nafarroa | 184 | 215 | 1.024 | 557 | 452 |

*2023: behin-behineko datuak.*
*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Ez ordaintzearen arriskua hipoteka-betearazpena da[2]. 2023an hasitako prozeduren kopurua handiagoa izan zen 2019koa baino. Familiek eta beste agente ekonomiko batzuek hipoteka-maileguaren betebeharrak betetzeko dituzten zailtasunak erakusten ditu horrek. Zehazki, Estatuan, EAEn eta Nafarroan 11.285, 137 eta 55 hipoteka-

[1] Hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldeen borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuaren baldintzetan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira egindako aldaketen alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikatutako diferentziala.

[2] Hipoteka baten karga ezarrita duen ondasun higiezin baten salmenta agintzen duen prozedura exekutiboa, zordunak hipotekan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

betearazpen hasi zituzten, hurrenez hurren. Dena den, zifra horiek nabarmen baxuagoak dira[1] 2021ean eta 2022an (eta aurreko krisialdietan) erregistratutakoak baino, agenteen posizio finantzario garbia hobea delako eta egoera horiek murrizteko ezarritako neurriei[2] esker.

**248. koadroa Hipoteka-betearazpena hasita duten etxebizitza partikularrak**

*(Etxebizitza kopurua)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 7.382 | 9.692 | 15.138 | 14.343 | 11.285 |
| EAE | 72 | 113 | 225 | 183 | 137 |
| Nafarroa | 33 | 56 | 85 | 75 | 55 |

*2023: behin-behineko datuak.*
*Iturria: Hipoteka Betearazpenen Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Bestetik, ibilgailu berrien matrikulazioak hobera egin zuen, atzerapen garbiko hiru ekitaldiren ostean. Hala ere, ahal baino baxuago egoten jarraitzen duela kalkulatzen da. Izan ere, ibilgailuen parkea zahartuta dago (14,2 urte, batez beste; Estatuko erreferentzia) eta turismo elektrikoen tasa (% 12,0) baxuagoa da Europako batezbestekoa (% 21,6) baino. Finantzaketaren kostua dago horren guztiaren atzean. Kontuan izan beharreko faktorea da. Izan ere, horren altu jarraitzen badu, 2024ko balantzea baldintzatuko du, eta aipatutako suspertzea oztopatuko du. Funtsean, ibilgailu berrien matrikulazioak Estatuan (+% 16,7), EAEn (+% 11,2) eta Nafarroan (+% 13,3) izandako urte arteko hobekuntza handia erakusten dute 2023ko zifrek, baina datu horiek 2019 bolumenetatik urrun daude oraindik ere.

Horrekin lotuta, bigarren eskuko ibilgailuen merkatuaren garrantzia nabarmendu behar da. Izan ere, 2023an, bigarren eskuko 2 turismo saldu ziren Estatuan turismo berri bakoitzeko. Ratio hori 2,9 eta 4,0 bigarren eskuko ibilgailukoa izan zen EAEn eta Nafarroan, hurrenez hurren.

**249. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera Turismoak**

*(Unitate kopurua)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 1.258.251 | 851.210 | 859.477 | 813.376 | 949.359 |
| EAE | 39.763 | 30.262 | 24.716 | 21.949 | 24.408 |
| Nafarroa | 11.449 | 8.381 | 7.228 | 6.329 | 7.173 |

*Iturria: Anfac. Geuk egina.*

[1] Eskuragarri dauden datuen arabera, 2014an 44.939 hipoteka-betearazpen hasi zituzten Estatuan, eta 2015ean 39.151. EINek ez du lehenagoko informaziorik argitaratzen.
[2] 2020an eta 2021ean aplikatu ziren hipoteka-luzamenduak. Eta, 2022an, Espainiako Gobernuak 19/2022 Errege Lege Dekretua onartu zuen, ohiko etxebizitzen gaineko hipoteka-maileguen interes-tasen igoera arintzeko Jardunbide Egokien Kodea ezarri zuena. Hiru ildotan jarduten du: familia zaurgarrien tratamendua hobetzea, zaurgarritasun-arriskuan dauden klase ertaineko familientzako jarduketa-esparru berri bat irekitzea eta kredituen amortizazio aurreratua eta interes-tasa aldakorreko hipotekak tasa finkora aldatzea erraztea.



LABORAL kutxa

## Berankortasunaren bilakaera

2023an, kobrantza zalantzagarriko kredituen saldoak behera egin zuen berriz ere (-% 3,7), eta desapalankamendu finantzarioak jarraitu zuen (-% 3,4, guztizko kreditua). Hala, berankortasun-ratioa[1] apur bat murriztu zen, % 3,4ra arte; 2008az (% 3,3) geroztik eskuratutako mailarik baxuena da. Egia esan, finantzaketa-kostuak gora egin bazuen ere, agenteen posizio finantzario hobeak azaltzen du berankortasun-tasak jaisten jarraitzea, baina ñabardura batzuekin.

**250. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Urtea | Kreditu zalantzagarriak | Kreditua guztira | Zalantzagarrien tasa (%) |
|---|---|---|---|
| 2015 | 129.984 | 1.274.653 | 10,2 |
| 2016 | 112.275 | 1.222.511 | 9,2 |
| 2017 | 94.174 | 1.199.079 | 7,9 |
| 2018 | 67.196 | 1.150.228 | 5,8 |
| 2019 | 54.301 | 1.135.590 | 4,8 |
| 2020 | 52.224 | 1.174.945 | 4,4 |
| 2021 | 49.378 | 1.173.435 | 4,2 |
| 2022 | 40.276 | 1.166.763 | 3,5 |
| 2023 | 38.768 | 1.126.785 | 3,4 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Hala, zerbitzu-jardueretako berankortasun-ratioaren jaitsierak (% 3,8, -3 hamarren) konpentsatu egin zuen industrian (% 4,0, +1 hamarren) eta eraikuntzan (% 8,3, +2 hamarren) erregistratutako igoera. Ekoizpen-jardueraren batez besteko balioa (% 4,1) bikoiztu zuen eraikuntzak, baina oso urrun kokatu zen 2013an erregistratutako gehieneko baliotik (% 35,3)[2].

Zerbitzu-sektorearen barruan, ostalaritzaren (% 6,5, -1,5 puntu) eta merkataritza eta konponketen (% 5,8, +2 hamarren) berankortasun-ratioak nabarmendu ziren. Beste zerbitzu batzuk (% 4,0, -2 hamarren), garraioa eta biltegiratzea (% 4,2, +2 hamarren) eta higiezinen agentziak (% 3,0, -7 hamarren) izan ziren hurrengoak. Horiek askotariko bilakaerak izan zituzten, batzuen ratioak gora egin baitzuen, eta beste batzuenak behera.

Familien kasuan apur bat igo zen zalantzagarrien ratioa (% 2,9, +1 hamarren), baina % 3tik behera egoten jarraitu zuen, batez ere etxebizitzak erostearekin eta birgaitzearekin lotuta

---

[1] Ordaindu gabeko edo kobrantza zalantzagarriko kredituen ehunekoa, emandako finantzaketa osoari dagokionez.
[2] Sektore honek kalte handia jasan zuen 2008ko krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboen balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.). Hori dela eta, hobetzen joan behar izan du gehieneko erregistro horretatik.

(% 2,4), segmentu horretan igoera erregistratu arren (+3 hamarren). Erregistrorik handiena beste kreditu eta mailegu batzuena izan zen (% 5,1), zalantzagarrien ratioak behera egin zuen arren (-4 hamarren); segmentu horrek barne hartzen ditu kontsumorako eta beste helburu batzuetarako kredituak.

Hala, kobrantza zalantzagarriko kreditu-saldoak beheranzko joerarekin jarraitu zuen (-% 3,7). Izan ere, ekoizpen-jardueretan erregistratutako jaitsierak (-% 8,4) konpentsatu egin zuen familien gorakada (+% 2,6). Dena den, kobrantza zalantzagarriko kredituaren erdia baino gehiago ekoizpen-jarduerei zegokien (% 54,5) —batez ere, zerbitzuei (% 36,4), urte arteko jaitsiera izan arren (-% 10,8)—, eta gora egin zuen familien ekarpenak (% 44,8, ehuneko +2,8 puntu).

**251. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(Guztizkoaren gaineko % zalantzagarriak)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzagarrien ratioa, guztira** | **4,8** | **4,4** | **4,2** | **3,5** | **3,4** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **5,5** | **5,1** | **4,8** | **4,3** | **4,1** |
| – Nekazaritza eta arrantza | 6,0 | 5,5 | 5,2 | 4,9 | 5,4 |
| – Industria | 5,6 | 4,9 | 4,5 | 3,9 | 4,0 |
| – Eraikuntza | 12,0 | 9,2 | 8,4 | 8,1 | 8,3 |
| – Zerbitzuak | 5,1 | 4,8 | 4,6 | 4,1 | 3,8 |
| – *Higiezinak* | *5,2* | *4,9* | *4,1* | *3,7* | *3,0* |
| – *Finantzak (ez banka)* | *0,2* | *0,3* | *0,4* | *0,3* | *0,4* |
| – *Merkataritza eta konponketak* | *8,5* | *7,0* | *6,4* | *5,6* | *5,8* |
| – *Garraioa eta biltegiratzea* | *4,8* | *4,3* | *5,0* | *4,0* | *4,2* |
| – *Ostalaritza* | *5,8* | *5,4* | *7,7* | *8,0* | *6,5* |
| – *Beste zerbitzu batzuk* | *5,3* | *5,8* | *5,1* | *4,2* | *4,0* |
| **Beste helburu batzuk / familiak** | **4,1** | **3,9** | **3,6** | **2,8** | **2,9** |
| – Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 3,3 | 3,0 | 2,8 | 2,1 | 2,4 |
| – Beste batzuk | 8,0 | 7,8 | 7,5 | 5,5 | 5,1 |
| **Gainerakoak** | **6,0** | **3,8** | **5,2** | **2,3** | **1,9** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

**252. koadroa** **Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **54.301** | **52.224** | **49.378** | **40.276** | **38.768** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **28.302** | **27.986** | **26.508** | **23.075** | **21.145** |
| – Nekazaritza eta arrantza | 1.275 | 1.217 | 1.170 | 1.097 | 1.115 |
| – Industria | 5.473 | 5.168 | 4.749 | 4.126 | 3.973 |
| – Eraikuntza | 2.914 | 2.408 | 2.143 | 2.029 | 1.942 |
| – Zerbitzuak | 18.640 | 19.192 | 18.446 | 15.822 | 14.114 |
| – *Higiezinak* | *4.559* | *4.023* | *3.340* | *2.768* | *2.050* |
| – *Finantzak (ez banka)* | *136* | *185* | *217* | *195* | *283* |
| – *Merkataritza eta konponketak* | *6.366* | *5.829* | *5.245* | *4.660* | *4.577* |
| – *Garraioa eta biltegiratzea* | *1.432* | *1.513* | *1.876* | *1.365* | *1.351* |
| – *Ostalaritza* | *1.545* | *1.885* | *2.523* | *2.411* | *1.852* |
| – *Beste zerbitzu batzuk* | *4.601* | *5.757* | *5.244* | *4.422* | *4.002* |
| **Beste helburu batzuk / familiak** | **25.337** | **23.805** | **22.356** | **16.938** | **17.386** |
| – Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 16.374 | 14.789 | 13.915 | 10.723 | 11.467 |
| – Beste batzuk | 8.963 | 9.016 | 8.441 | 6.215 | 5.919 |
| **Gainerakoak** | **662** | **433** | **514** | **263** | **237** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## 2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

### Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

2022-2023 biurtekoko bilakaeraren faktore giltzarrietako bat erreferentziazko interes-tasen igoera (Europako Banku Zentrala) izan zen. Horrek eragin ezberdina izan zuen aktiboaren eta pasiboaren posizioen gainean[1]. Horren ondorioz, eta pasiboaren ordainsari baxua kontuan hartuta —beste faktore batzuen artean, hala nola zuhurtziazko aurrezpena, ziurgabetasunaren aurrean— kreditu-erakundeetako gordailuen saldoa[2] mantendu egin zen, eta 2,1 bilioi euroan finkatu zen.

Bezero-segmentuaren arabera, bilakaera ezberdina izan zen. Kreditu-sistemako gordailuen beherakada (-% 40,6) nabarmendu zen, guztizkoaren bilakaera baldintzatu baitzuen. Aldiz, Administrazio Publikoak (+% 0,5) eta beste sektore egoiliar batzuk (% 0,0) mantendu egin ziren, eta gora egin zuen beste sektore ez-egoiliar batzuen segmentuak

[1] Erreferentziazko interes-tasen igoerak pasiboaren ordainsarietan izan zuen eragin txikia azaltzen duten argudio batzuk: 1) Pasiboaren ordainsariaren igoerak inpaktu ia automatikoa du marjina finantzarioan eta entitateen kontuetan, baina kredituen gaineko inpaktua epe luzeagokoa da (gainera, kasu gehienetan, Euriborrarekin lotuta daude); 2) Sistema osoaren gehiegizko likideziak ez die bide eman bezeroak erakartzeko estrategiei (ordainsaria hobetzea); 3) Eskariari (kreditua) aurre egiteko adina baliabide, eskaria nahiko baxua baita Europako beste merkatu batzuekin alderatuta; eta 4) Lehiakortasun falta?, 10 entitate (edo talde) daude Estatuan.

[2] Ez dago aurrezkiaren neurri osorik (gordailuak, inbertsio-funtsak, balioak...).

(+% 28,5). Hala, beste sektore egoiliar batzuek osatu zuten gordailuen zatirik handiena (% 67,9), eta beste sektore ez-egoiliar batzuen ekarpenak osatu zuen (% 20,8, ehuneko +4,6 puntu). Horien igoerak konpentsatu egin zuen kreditu-sisteman erregistratutako jaitsiera (% 6,8, ehuneko -4,6 puntu).

**253. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, eragileen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.848.536** | **2.059.571** | **2.177.660** | **2.122.526** | **2.122.928** |
| – Kreditu-sistema | 253.978 | 369.741 | 409.433 | 241.691 | 143.641 |
| – Administrazio Publikoak | 69.445 | 80.754 | 96.988 | 96.028 | 96.545 |
| – Beste sektore egoiliar batzuk | 1.259.938 | 1.369.548 | 1.425.055 | 1.441.212 | 1.441.390 |
| – Beste ez-egoiliar batzuk | 265.174 | 239.526 | 246.183 | 343.595 | 441.352 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen guztizko saldoaren urte arteko bilakaera neutroa izan zen, eta horrek eten egin zuen aurreko hiru urteetako hobekuntza-joera. Segmentuen araberako bilakaerak baieztatzen duenez, ordainsaria hobetu egin zen. Hala erakusten du ageriko edo aurrezkiaren partidaren beherakadak (-% 7,7). Eperako posizioek (+81,2) eta beste batzuek (+% 27,6), berriz, gora egin zuten. Hala, posizio gehienak agerikoak edo aurrezki erakoak ziren (% 82,9). Ratio hori are gehiago murriztu liteke, ordainsaria (eperakoa) erakargarriagoa balitz.

**254. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.259.938** | **1.369.548** | **1.425.055** | **1.441.212** | **1.441.390** |
| – Agerikoa edo aurrezkia | 1.021.213 | 1.164.411 | 1.264.798 | 1.293.722 | 1.194.511 |
| – Eperakoa | 196.656 | 160.440 | 117.220 | 109.395 | 198.269 |
| – Beste batzuk | 42.069 | 44.697 | 43.037 | 38.095 | 48.609 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

Euskal Herrirako eskuragarri dagoen informazioak gordailu-erakundeek kudeatzen dituzten gordailuei egiten die erreferentzia[1]. 2023an, Euskal Herriak zein Estatuak[2] inoizko erregistrorik handienak izaten jarraitu zuten: 118.398 eta 1.509.637 milioi euro, hurrenez hurren. Urte arteko bilakaera, berriz, nahiko laua izan zen (-% 0,4 Euskal Herrian eta +% 0,2 Estatuan). Hala, Euskal Herriak mantendu egin zuen Estatuaren gaineko ekarpena (% 7,8).

[1] Kreditu-erakundeen azpitaldea, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek osatua.
[2] Aurreko atalean, gordailuen bilakaerak kreditu-erakundeei egiten die erreferentzia (% 0,0), eta horregatik da ezberdina Estatuari dagokion emaitza.

Euskal Herrian erregistratutako beherakada txikia (-% 0,4) EAEren (-% 1,4) eraginez gertatu zen. Izan ere, Nafarroan gora egin zuen gordailuen saldoak (+% 4,0). 96.298 eta 22.099 milioi euroko balantzea izan zuten, hurrenez hurren. Lurralde historikoen arabera, guztiek izan zuten urte arteko jaitsiera (-% 1,8, -% 1,2 eta -% 1,5, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan). Hortaz, mantendu egin zen guztien ekarpena (% 53,4, % 32,2 eta % 14,4, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak, hurrenez hurren).

Gordailuen zatirik handiena beste sektore egoiliar batzuei zegokien (% 90 baino gehiago). Administrazio Publikoek, berriz, pisu txikiagoa izan zuten. Hortaz, segmenturik garrantzitsuena sektore pribatua izan zen. Zehazki, haren saldoa apur bat hobetu zen Nafarroan (+% 0,9) eta Estatuan (+% 0,2), baina behera egin zuen EAEn (-% 1,7) eta hura osatzen duten lurraldeetan (-% 0,6, -% 2,1 eta -% 1,5 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren).

Azkenik, atxikitako grafikoak sektore pribatuko gordailuen urte arteko bilakaera jasotzen du. Grafikoan ikus daitekeenez, hobekuntza-ibilbidea partekatua da, eta 2015az geroztik ia etenik gabea. Ekitaldi hura inflexio-puntua izan zen enplegua eta jarduera ekonomikoa berreskuratzeari dagokienez, 2008an hasitako krisiaren ondoren.

**255. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailuak.**

*(M euro)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 2021 | 2.375 | 11.442 | 13.817 |
| | 2022 | 2.572 | 11.553 | 14.125 |
| | 2023 | 2.381 | 11.482 | 13.864 |
| Bizkaia | 2021 | 6.212 | 44.917 | 51.130 |
| | 2022 | 6.531 | 45.531 | 52.062 |
| | 2023 | 6.865 | 44.591 | 51.456 |
| Gipuzkoa | 2021 | 757 | 30.456 | 31.213 |
| | 2022 | 736 | 30.722 | 31.457 |
| | 2023 | 708 | 30.270 | 30.979 |
| EAE | 2021 | 9.345 | 86.815 | 96.160 |
| | 2022 | 9.839 | 87.806 | 97.644 |
| | 2023 | 9.955 | 86.343 | 96.298 |
| Nafarroa | 2021 | 990 | 19.684 | 20.674 |
| | 2022 | 711 | 20.543 | 21.253 |
| | 2023 | 1.367 | 20.733 | 22.099 |
| Euskal Herria | 2021 | 10.335 | 106.499 | 116.834 |
| | 2022 | 10.549 | 108.349 | 118.898 |
| | 2023 | 11.322 | 107.076 | 118.398 |
| Espainia | 2021 | 96.329 | 1.390.015 | 1.486.344 |
| | 2022 | 95.644 | 1.410.799 | 1.506.442 |
| | 2023 | 96.123 | 1.413.514 | 1.509.637 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

**45. grafikoa** **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Aurrezkiaren beste adierazle batzuk

Informazioa osatzeko, errenta gordin erabilgarriak, aurrezki gordinak eta familien aurrezki-tasak[1] Estatuan[2] izandako bilakaera aurkeztuko dugu. 2023an, errenta gordin erabilgarriaren gaineko aurrezki gordinaren tasa % 11,7koa izan zen, azken bost urteetako hirugarren ratiorik altuena. 2020an eta 2021ean (% 17,4 eta % 13,8) bakarrik gainditu zen tasa hori, pertsonen mugikortasunerako murrizketen ondorioz, pandemia zela eta.

Elkarren aurkako faktoreen eragina laburtuko luke emaitza horrek. Batetik, 2023an jarduera ekonomikoak berraktibatzen jarraitu zuen eta, suspertzea aurreko ekitaldietan baino apalagoa izan arren, enplegu maila historikoak ahalbidetu zituen. Bestetik, nolabaiteko ziurgabetasuna mantendu zen, prezio altuei lotuta —prezio altuek baldintzatu egiten dute familien kontsumorako eta inbertsiorako marjina—. Horrez gain, finantzaketarako baldintzak gogortu egin ziren. Horrek atzeratu (eta geldiarazi) egin ditzake inbertsio-eragiketak, eta mesede egiten dio aurreikuspenezko aurrezkiari.

[1] Familiei buruzko eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeei buruzko informazioa hartzen du barne.
[2] Informazio hori ez dago eskuragarri EAEren eta Nafarroaren kasuan, baina horien egoera islatzen duela uste dugu.

**256. koadroa** **Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| Errenta gordin erabilgarria | 781.358 | 764.760 | 799.333 | 832.166 | 923.560 |
| Aurrezki gordina | 64.070 | 133.428 | 109.975 | 63.379 | 108.139 |
| *Aurrezki-tasa (%)* | *8,2* | *17,4* | *13,8* | *7,6* | *11,7* |

*Iturria: EIN. Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.*

### Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

Atxikitako grafikoak ongi islatzen du azken bi urteetan moneta-politikak izandako aldaketa: pandemiatik irteteak eragindako desorekek eta Errusiak Ukrainan egindako inbasioarekin lotutako ezegonkortasunak ezohiko egoera inflazionistari eman zioten bide, eta, ondorioz, erreferentziazko interes-tasak igo behar izan ziren; moneta-autoritate ia guztiek erabili zuten estrategia hori. Hala, urtebete baino zerbait gehiagoan (2022ko uztailaren 27tik 2023ko irailaren 20ra), Europako Banku Zentralak hamar aldiz igo zituen interes-tasak; une honetan % 4,5ekoak dira.

Agertoki berri horrek familien eta sozietate ez-finantzarioen eragiketa berriei aplikatutako interes-tasetan izandako inpaktua laburtzen du atxikitako taulak: hala, maileguen eta kredituen osagaiaren gainean izandako eragin azkarra ikusten da, horiek igoera handiak izan baitzituzten 2022an eta 2023an. Aldiz, eragina askoz ere geldoagoa izan zen aurrezki-posizioetan, eta horiek ez ziren hobetu 2023ra arte.

**46. grafikoa** **Euriborraren bilakaera[1] (hamabi hilabetera)**

*(%)*




*(1) Hileko datuen batezbestekoa*
*Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.*

**257. koadroa Kreditu-erakundeak. Familietarako[2] eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)[1]**

(%)

| | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| FAMILIETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK[2] | | | | | |
| – Etxebizitza[3] | 1,69 | 1,51 | 1,38 | 2,96 | 3,80 |
| – Kontsumoa[3][4] | 6,66 | 6,32 | 6,10 | 7,13 | 7,69 |
| – Beste helburu batzuk[3] | 3,04 | 2,77 | 2,44 | 4,78 | 5,68 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK. | | | | | |
| – Zorpekoak | 1,56 | 1,44 | 1,55 | 2,68 | 4,79 |
| – 250.000 €-ra arteko kredituak[3] | 1,87 | 1,87 | 1,69 | 3,53 | 5,14 |
| – 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak[3] | 1,40 | 1,51 | 1,29 | 3,36 | 4,98 |
| – 1.000.000 € baino gehiagoko kredituak[3] | 1,23 | 1,37 | 1,04 | 3,26 | 4,98 |
| FAMILIEN GORDAILUAK[2] | | | | | |
| – Agerikoak | 0,03 | 0,01 | 0,02 | 0,04 | 0,15 |
| – Eperakoak[3] | 0,04 | 0,02 | 0,06 | 0,72 | 2,58 |
| – 1 urte arte | 0,02 | 0,01 | 0,01 | 0,51 | 2,60 |
| – 2 baino gehiago | 0,18 | 0,15 | 0,03 | 1,05 | 1,25 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK | | | | | |
| – Agerikoak | 0,07 | 0,01 | 0,03 | 0,11 | 0,69 |
| – Eperakoak[3] | 0,38 | 0,01 | 0,45 | 1,60 | 3,52 |
| – 1 urte arte | 0,36 | 0,01 | 0,45 | 1,60 | 3,56 |
| – 2 baino gehiago | 0,92 | 0,13 | 0,55 | 0,79 | 0,36 |

*(1) TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, komisiorik gabeko UTB.*
*(2) Familiak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.*
*(3) Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.*
*(4) 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

# 3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

Interes-tasen igoerak[1] eta horiek nahiko maila altuetan mantendu izanak bultzatu egin zuen Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ibilgailuetan[2] inbertitzea. Hala, horien ondarea inoizko baliorik altuenetara iritsi zen (373.388 milioi euro) eta urte arteko igoera nabarmena izan zuen (+% 12,5), 2022an erregistratutako jaitsieratik (-% 7,2) suspertuz.

Igoera hori Inbertsio Funtsei lotutako ondarearen bolumenaren hazkundean oinarritu zen. 353.260 milioi eurokoa izan zen bolumen hori (+% 13,4, urte arteko tasa). Aldi berean, inbertsio libreko IKE-ek (+% 29,0) eta IKE-en IKE-ek (+% 7,2) izandako hobekuntzak ere izan zuen eragina; bi horiek 5.023 eta 795 milioi euro batu zituzten hurrenez hurren. Hiru elementu horiek konpentsatu egin zuten Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateei lotutako ondareak erregistratutako jaitsiera (-% 9,8); bigarren urtez egin zuen behera (2022an -% 44,3), 2021eko lege-aldaketaren[3] ondorioz.

**258. koadroa Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua**

| Kontzeptua | Ondarea (M euro) | | Erakunde kopurua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Inbertsio-funtsak (IF) | 311.466 | 353.260 | 1.484 | 1.496 |
| Inbertsio-sozietateak (SICAV) | 15.864 | 14.311 | 1.091 | 450 |
| Inbertsio libreko IKE[1] (ILIKE) | 3.894 | 5.023 | 92 | 124 |
| Inbertsio libreko IKE-en IKE[1] | 741 | 795 | 8 | 7 |
| **Guztira** | **331.966** | **373.388** | **2.675** | **2.077** |

*(1) Inbertsio libreko IKEak bi motatakoak izan daitezke, aktiboetan modu zuzenean (inbertsio libreko IKEak) edo inbertsio libreko beste IKE batzuen bidez (inbertsio libreko IKE-en IKEak) inbertitzen duten kontuan hartuta. Funts edo sozietate erakoak izan daitezke bi motak.*

*Iturria: CNMV.*

Bestetik, inbertsio kolektiboko erakundeen kopurua 2.077koa izan zen, 2022an baino 598 gutxiagokoa (-% 22,4). 2008az geroztik, metatutako galera % 67,3koa da; urte horretan erregistratu zuten gehieneko balioa: 6.354 erakunde (-4.277). Galera hori SICAVei (2008arekiko -% 86,6) eta Inbertsio Funtsei (-% 49,2) dagokie. Dena den, azken horiek urte arteko igoera txiki bat izan dute (2022arekiko +% 0,8). SICAVek, ordea, ez dute halakorik izan, eta urte bakar batean[4] erdira murriztu da erakunde horien kopurua (1.091tik 450era).

---

[1] 2023an Europako Banku Zentralak bost aldiz igo zituen interes-tasak —2022an aplikatutako lau igoerei batu zitzaizkien horiek—, eta % 4,50ean kokatu ziren (2023ko iraila). Interes-tasak ez dira aldatu 2024ko ekainera arte, EBZk interes-tasak % 4,25era jaistea erabaki duen arte.

[2] Eta beste finantza-produktu batzuetan, bereziki, zor publikoaren eta eperako gordailuen produktuetan.

[3] Iruzur fiskalaren aurkako prebentzio-neurriei eta borrokari buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legearen bidezko arau-aldaketa honek ezartzen duenez, akziodunek gutxienez 2.500 euroko partaidetza izan behar dute eta gutxienez 100 partaide izan behar dira (aurrez ere bazegoen baldintza hori) aurreko zerga-erregimenaz baliatzen jarraitu ahal izateko; erregimen horren arabera, % 1eko zerga ordaintzen zuten sozietateen gaineko zergan.

[4] Baja gehienak 2023ko lehenengo seihilekoan gertatu ziren. Izan ere, 11/2021 Legeak erregistroa ezeztatzeko ezarritako epea ekainaren 30ean amaitu zen. Hala, 2022aren hasieran aipatutako legea indarrean sartu zenetik, 1.831 erakundek eman dute baja.

Hala, Estatuan erregistratutako IKE-en jardueraren zatirik handiena Inbertsio Funtsei zegokien (guztizko ondarearen % 94,6 eta erakunde kopuruaren % 72,0). Gainera, horien ekarpena handitu egin zen 2022arekiko (ehuneko +0,8 puntu eta ehuneko +16,6 puntu), SICAVen kalterako (% 3,8 eta % 21,7, hurrenez hurren). SICAVek galera txikiagoa izan zuten erakunde kopuruan (ehuneko -19,1 puntu), ondarean baino (ehuneko -0,9 puntu). Inbertsio libreko IKE-ek (ondarearen % 1,3 eta erakunde kopuruaren % 6,0) eta inbertsio libreko IKE-en IKE-ek (% 0,2 eta % 0,3) osatu zuten banaketa hori, biak ere ekarpen oso txikiarekin.

Erregistratutako bilakaerak—IKEren ondarearen hazkundea eta erakunde kopuruaren murrizketa— jardueraren birdimentsionatzea erakusten du. Hala, batez besteko ondareak gora egin zuen, 179,8 milioi eurora iritsi arte. Orain arte erregistratutako zifrarik altuena izan zen, eta 100 milioi euroko muga gainditu zuen ondoz ondoko bigarren urtez. Aurreko urteko erregistroa (124,1 M €) hobetu zuen, eta 200 milioi euroko mugara bideratu zen. Dena den, IKE-en batez besteko ondarea ezberdina izan zen kontzeptu motaren arabera. Inbertsio Funtsen (236,1 M €) eta IKE-en IKE-en (113,5 M €) batez besteko ondarea nabarmendu zen, bi kasuetan 100 milioi eurotik gorakoa izan baitzen. Aldiz, batez besteko ondare txikiagoa zuten inbertsio libreko IKE-ek (40,5 M €) eta SICAVek (31,8 M €).

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da 2024rako aurreikuspenak positiboak direla, oro har (CNMV): *"interes-tasak mantentzea (gutxienez, udara arte[1]) eta familien aurrezki-tasa pixkanaka haztea faktore lagungarriak izan daitezke IKE-en partaidetzetako inbertsioa handitzeko. Dena den, kontuan hartu behar dira mundu mailako hainbat arrisku garrantzitsu (batez ere, geopolitikoak, aktiboen balorazioen zuzenketarekin lotutakoak edo interes-tasa altuen eraginarekin lotutakoak) eta horiek segmentu honetan izan dezaketen inpaktua. Izan ere, aktiboen prezioak murrizteaz gain, arriskuarekiko beldurra eragin dezakete eragileen artean, eta inbertsio-bolumenak murriztu litezke".*

### HIF eta SICAVen ondarearen banaketa

Inbertsio Funtsen ondarea 353.260 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino handiagoa (+% 13,4). Izan ere, inbertsioen zorroa[2] hobetu egin zen (+% 15,2) eta horrek konpentsatu egin zituen diruzaintza-segmentuak (-% 11,1) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiaren segmentuak (-% 18,2) izandako galerak. Modu horretan, inbertsioen zorroaren ekarpena indartu egin zen, eta hari zegokion Inbertsio Funtsen ondarearen zatirik handiena (guztizkoaren % 94,9; ehuneko +1,4 puntu 2022arekiko). Aldiz, pisua galdu zuten diruzaintzaren segmentuak (% 4,7; ehuneko -1,3 puntu) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiaren segmentuak (% 0,4; ehuneko -0,1 puntu).

---

[1] Iragarrita zegoen moduan, EBZk (2024ko ekainak 6) apur bat murriztu ditu interes-tasak (% 4,50etik % 4,25era), baina oraindik ere altu mantentzen dira, *"inflazioa epe ertainean % 2ko helburura jaistea ziurtatzeko".*

[2] Balioa asko igo zen —batez besteko errentagarritasun haztatuta % 7,6koa izan zen 2023an—, eta baliabide berriak sartu ziren, 18.000 miloi eurokoak.

Inbertsio Funtsen inbertsioen zorroa, batez ere, kanpoko segmentura bideratuta zegoen (zorro osoaren % 76,3), eta haren ondarearen bolumena 255.835 milioi eurokoa zen (+% 10,1). Barne-zorroari lotutako ondarea (guztizkoaren % 23,7) 79.510 milioi eurokoa zen (+% 35,4) eta gainerako hondarra inbertsio zalantzagarriei zegokien (7 M €). Inbertsio Funtsen zorroko elementu nagusia zorraren balio adierazgarriak izan ziren; horiek, guztira (barruko zorroa eta kanpoko zorroa) 194.035 batu zituzten. Inbertsio kolektiboko erakundeak (86.408 M €) eta ondare-tresnak (52.681 M €) izan ziren hurrengoak. Eta, saldo txikiagoarekin, kreditu-erakundeetako gordailuak (1.883 M €), eratorriak (278 M €) eta beste batzuen segmentua (63 M €).

**259. koadroa Inbertsio-funtsen eta -sozietateen ondare-banaketa**

*(M euro; balio efektiboa)*

| Kontzeptua | Inbertsio-funtsak(1) | | | Inbertsio-sozietateak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
| **Ondarea** | **311.466** | **353.260** | **13,4** | **15.864** | **14.311** | **-9,8** |
| **Finantza-inbertsioen zorroa(2)** | **291.188** | **335.352** | **15,2** | **12.350** | **13.503** | **9,3** |
| Barne-zorroa | 58.740 | 79.510 | 35,4 | 2.584 | 2.231 | -13,6 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 42.044 | 60.888 | 44,8 | 774 | 858 | 10,9 |
| Ondare-tresnak | 6.113 | 6.586 | 7,7 | 820 | 870 | 6,2 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 9.928 | 10.152 | 2,3 | 950 | 457 | -51,9 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 432 | 1.686 | 290,5 | 1 | 14 | 889,8 |
| Eratorriak | 159 | 134 | -15,8 | -1 | 0 | -99,7 |
| Beste batzuk | 64 | 62 | -2,5 | 39 | 32 | -19,7 |
| Kanpo-zorroa | 232.444 | 255.835 | 10,1 | 9.764 | 11.271 | 15,4 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 110.174 | 133.146 | 20,9 | 1.807 | 2.370 | 31,2 |
| Ondare-tresnak | 41.321 | 46.093 | 11,5 | 3.605 | 4.397 | 22,0 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 80.593 | 76.255 | -5,4 | 4.326 | 4.478 | 3,5 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 0 | 197 | - | 0 | 10 | - |
| Eratorriak | 356 | 143 | -59,8 | 8 | -1 | -111,9 |
| Beste batzuk | 0 | 0 | -51,0 | 17 | 17 | -3,7 |
| Zalantzazko inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa | 4 | 7 | 75,0 | 3 | 1 | -69,7 |
| **Diruzaintza** | **18.515** | **16.467** | **-11,1** | **2.963** | **869** | **-70,7** |
| **Zordun/hartzekodun garbiak** | **1.763** | **1.442** | **-18,2** | **551** | **-61** | **-111,0** |

*(1): Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF). Helburuko bereziko konpartimentuen datuak guztizkoetan sartuta daude, baina ez dute bokaziorik. Hori dela eta, bokazioen batura ez dator bat guztizkoekin.*
*(2): Interesak txertatuta daude epigrafe guztietan.*

*Iturria: CNMV.*

Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateen (SICAV) kasuan, ondarean balioak behera egin zuen (-% 9,8), diruzaintza-posizioetan (-% 70,7) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbian (-% 111,0) izandako jaitsieren ondorioz. Finantza-inbertsioen zorroak gora egin zuen (+% 9,3), batez ere, aktiboen balioa handitu egin zelako, interes-tasa altuen ondorioz. Dena den, igoera horrek ez zituen konpentsatu aurrez aipatutako bi jaitsierak. Azkenik, inbertsioen zorroaren xehetasunei dagokienez, gora egin zuen kanpo-zorroak (+% 15,4) —jarduera-segmentu nagusia (% 83,5)—. Aldiz, behera egin zuen barne-zorroak (-% 13,6), inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea erdira jaitsi zelako.

Oro har, SICAVen zorroaren (barnekoa eta kanpokoa) osagai nagusia ondare-tresnek osatu zuten (5.267 milioi euro). Hurrengoak inbertsio kolektiboko erakundeak (4.935 M €) eta zorraren balio adierazgarriak (3.228 M €) izan ziren. Aldiz, ondarearen bolumen txikiagoa izan zuten kreditu-erakundeek (24 M €), eratorriek (-1 M €) eta beste batzuen taldeak (48 M €).

**HIFen tipologia**

Inbertsio Funtsen jarduera, nagusiki, errenta finkoko eta errenta aldakorreko produktuen bidez kanalizatzen da. Zehazki, Inbertsio Funtsen ondarearen bi heren errenta finkoko eta errenta aldakorreko produktuei zegozkien (% 44,1 eta % 23,1, hurrenez hurren). Funts kopuruaren banaketa, berriz, orekatuagoa izan zen (% 28,3 eta % 36,4) eta, bien artean, Inbertsio Funtsen parte-hartzaileen hiru laurden osatzen zituzten (% 41,7 eta % 33,9, errenta finkoak eta aldakorrak). Gainerako figurek —monetarioak, globalak eta beste funts batzuk— osatu zuten Inbertsio Funtsen egitura, baina horien ekarpena askoz ere txikiagoa izan zen aztertutako aldagaietako bakoitzean.

Bilakaerari dagokionez, hobera egin zuten ondareak eta funts kopuruak (+% 13,4 eta +% 1,8, hurrenez hurren), eta apur bat behera egin zuen parte-hartzaile kopuruak (-% 0,6), baina Inbertsio Funtsen tipologiak argitzen du emaitza hori. Hala, ia figura guztien ondarea hazi zen, funts globalena izan ezik (-% 6,7). Aldiz, errenta finkoko produktuen (+% 18,6), errenta aldakorreko produktuen (+% 6,0) eta funts monetarioen (+% 100,5) ondarearen hazkundea nabarmendu zen —nahiz eta azken horien saldoa nahiko hondarrekoa zen (10.501 milioi euro)—.

Funts-kopuruak ere hobera egin zuen aintzat hartutako osagai gehienetan; errenta aldakorreko funtsen kasuan baino ez zuen behera egin (-6 funts). Ugaritu egin ziren, ordea, errenta finkoko funtsak (+23 funts), beste funts batzuk (+13 funts) eta funts monetarioak (+1 funts). Bestetik, parte-hartzaile kopurua[1] apur bat jaitsi zen (-% 0,6), errenta aldakorreko funtsek eta funts globalek izandako jaitsieraren ondorioz (-% 4,7 eta -% 3,1). Errenta finkoko funtsek (+% 0,6), monetarioek (+% 71,2) eta beste funts batzuek (+% 6,6) hobera egin zuten, baina ez zen nahikoa izan aurrez aipatutako jaitsierak guztiz konpentsatzeko.

Azkenik, aipatu beharrekoa da errenta finkoko jardueraren zatirik handiena "euro" osagaira bideratuta dagoela, 262 funtsekin, 4.675.178 parte-hartzailerekin eta 109.988 milioi euroko ondarearekin. Aldiz, errenta aldakorreko jarduera, nagusiki, "nazioartea" osagaian zentratzen da, 346 funts, 4.082.653 parte-hartzaile eta 51.100 milioi euroko bolumena duen ondarearekin.

---

[1] Mantentzen dituen kontratuen kopurua adina aldiz zenbatzen da partaide bakoitza.

**260. koadroa** **Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa[1,2], zorroaren osaeraren arabera**

| Kontzeptua | Funts kopurua | | Parte-hartzaile kopurua | | Ondarea (M €) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 | 2022 | 2023 |
| Monetarioa[2] | 2 | 3 | 120.118 | 205.670 | 5.237 | 10.501 |
| Errenta finkoa (euroa)[2] | 228 | 262 | 4.346.790 | 4.675.178 | 83.034 | 109.988 |
| Errenta finkoa (nazioartekoa) | 63 | 56 | 1.072.364 | 952.586 | 10.290 | 11.380 |
| Errenta finko mistoa (euro) | 64 | 61 | 411.701 | 349.711 | 10.254 | 10.097 |
| Errenta finko mistoa (nazioartekoa) | 107 | 106 | 804.478 | 698.886 | 27.592 | 24.156 |
| Errenta aldakor mistoa (euro) | 29 | 25 | 24.521 | 17.207 | 933 | 864 |
| Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa) | 177 | 172 | 672.197 | 617.340 | 23.315 | 23.050 |
| Errenta aldakorra (euro) | 86 | 82 | 836.711 | 706.942 | 7.226 | 6.704 |
| Errenta aldakorra (nazioartekoa) | 339 | 346 | 4.156.864 | 4.082.653 | 45.589 | 51.100 |
| Kudeaketa pasiboa[2] | 93 | 107 | 596.475 | 720.965 | 15.935 | 26.519 |
| Errendimendu finko bermatua | 49 | 58 | 141.717 | 178.170 | 5.455 | 7.565 |
| Errendimendu aldakor bermatua | 101 | 97 | 208.838 | 180.364 | 6.298 | 5.595 |
| Berme partziala | 1 | 1 | 350 | 301 | 9 | 7 |
| Itzulketa absolutua | 54 | 48 | 658.722 | 631.707 | 6.582 | 6.256 |
| Globalak | 291 | 291 | 2.067.594 | 2.002.961 | 63.717 | 59.479 |
| Bokaziorik gabe | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **HIF, guztira** | **1.684** | **1.715** | **16.119.440** | **16.020.641** | **311.466** | **353.260** |

*(1): Erreferentziazko datan isileko egoera zuten funts-banaketak.*

*(2): 2019ko bigarren hiruhilekoaz geroztik, 1/2019 Zirkularrak ezarritako definizio berrietara egokitzen dira bokazioak. "Monetario" kategoriak Merkatu Monetarioko Funtsen (FMM) lau mota hartzen ditu barne, aipatutako zirkularrak definitzen dituenak; gaur egun, "Likidazio-balio aldakorreko merkatu monetarioko funts estandarra" motako funtsak bakarrik daude erregistratuta. "Errenta Finkoa Euro" kategoriak barne hartzen ditu Errenta Finkoa Euro berria eta Epe Motzerako Errenta Finkoa Euro; eta "Kudeaketa Pasiboko IKE" kategoriak barne hartzen ditu indize bati erantzuten dioten IKEak eta bermatu gabeko errentagarritasun-helburuak dituzten IKEak.*

*Iturria: CNMV.*

**47. grafikoa** **Higigarrietako Inbertsio Funtsen lau taldeak bereizten dituzten hiru aldagaien urte arteko bilakaera**

*(urte arteko aldakuntza-tasa , 2023/2022)*




*Iturria: CNMV. Geuk egina.*

# 4. BURTSA-MERKATUA

Burtsa-jarduerak hazkunde handiarekin amaitu zuen 2023a. Burtsako indizeen balioa asko hazi zen mundu mailan eta, modu horretan, 2022ko beherakadatik suspertu ziren. Europako merkatua (Eurostoxx 50) % 19,2 hazi zen. Indize nazional batzuek erregistro hori hobetu zuten, esaterako IBEX-35 indizeak (+% 22,8) —batez ere, bankuen sektorearen jardueraren ondorioz—. Alemaniako Dax-Xetra indizeak (+% 20,3) eta Frantziako CAC-40 indizeak (+% 16,5) Europako batez besteko errentagarritasunaren antzekoa izan zuten, eta Britainia Handiko FTSE 100 indizeak, berriz, txikiagoa (+% 3,8).

Nazioarteko merkatuetan ere hobera egin zuen jarduerak. Hala, Dow Jones (+% 13,7) eta Nikkei (+% 28,2) indizeen gorakada nabarmendu zen, baita Nasdaq Composite (+% 43,4) indizearena ere; sektore teknologikoko balio nagusiak biltzen ditu azken horrek.

**261. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

*(puntuak)*

| Urtea | Ibex-35 (Madril) | CAC-40 (Paris) | Dax-Xetra (Frankfurt) | FTSE 100 (Londres) | Dow Jones (New York) | Nikkei (Tokio) | Eurostoxx 50 | Nasdaq Composite |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2021 | 8.713,8 | 7.153,0 | 15.884,9 | 7.384,5 | 36.338,3 | 28.791,7 | 4.298,4 | 15.645,0 |
| 2022 | 8.229,1 | 6.473,8 | 13.923,6 | 7.451,7 | 33.147,3 | 26.094,5 | 3.793,6 | 10.466,5 |
| 2023 | 10.102,1 | 7.543,2 | 16.751,6 | 7.733,2 | 37.689,5 | 33.464,2 | 4.521,7 | 15.011,4 |
| *Urte batetik besterako aldakuntza (%)* | | | | | | | | |
| 2021 | 7,9 | 28,9 | 15,8 | 14,3 | 18,7 | 4,9 | 21,0 | 21,4 |
| 2022 | -5,6 | -9,5 | -12,3 | 0,9 | -8,8 | -9,4 | -11,7 | -33,1 |
| 2023 | 22,8 | 16,5 | 20,3 | 3,8 | 13,7 | 28,2 | 19,2 | 43,4 |

*Oharra: Urte bakoitzeko azken egunean.*
*Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa. Analisi Makroekonomikoaren Zuzendaritza Nagusia.*

**48. grafikoa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

*(100 oinarria = 2022/12/30)*




*Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa. Analisi Makroekonomikoaren Zuzendaritza Nagusia.*

Ekitaldian zehar erregistratutako bilakaerak baieztatu egiten du hobekuntza-ibilbidea. Burtsako indize nagusiek goranzko joera argia izan zuten, eta 2023aren amaieran eskuratu zituzten erregistrorik onenak. *"Interes-tasen igoeren zikloaren amaiera argiago ikusteak eta inflazioak espero baino beherakada handiagoa izateak, antza denez, lagundu egin du inbertitzaileek kotizatutako akzioekiko jarrera positiboa izaten"* (Espainiako Burtsak eta Merkatuak, BME). Dena den, bi gertaeraren inpaktua nabarmendu behar da: martxoan porrot egin zuen Silicon Valley Bankek, eta urrian indartu egin zen Israelgo gerra-gatazka. Gertaera horiek atzeratu egin zuten munduko burtsen hobekuntza-profila.

## 4.1 IKUSPEGI OROKORRA

### Lehen mailako eta jaulkipeneko merkatuak

Estatuko merkatuari buruzko informazioak erakusten duenez, 2023an egindako jaulkipen garbiek eta salmenta-eskaintza publikoek 103.307 milioi euroko bolumena izan zuten. Hala, urte arteko hazkunde nabarmena izan zuten (+% 178,8), eta 2021ean erregistratutako balioen antzekoetara itzuli ziren. Errenta aldakorreko lehen mailako merkatuaren suspertzea akzioak ez diren baloreen bidez bideratu zen; horiek 113.086 milioi euroko bolumena izan zuten. Aldiz, akzio kotizatuen eta ez-kotizatuen taldeak emaitza negatiboa izan zuen, 9.779 milioi eurokoa. Halaber, finantza-erakundeen segmentuak (+60.949 milioi euro) eta Administrazio Publikoek (+5.116) akzioak ez diren baloreetan negoziatutako bolumenaren hazkundea nabarmendu zen. Aldiz, behera egin zuten kapitala zabaltzearen partidak (-1.230) eta salmenta-eskaintza publikoen partidak (-395).

**262. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak**

*(M euro)*

| | 2021 | 2022 | 2023 | ∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| **Akzioak ez diren baloreak(*)** | **90.672** | **45.205** | **113.086** | **67.880** |
| – Finantza-erakundeak | 12.740 | -26622 | 34.327 | 60.949 |
| Finantza-erakunde monetarioak | 30.827 | -11044 | 43.840 | 54.884 |
| Bestelako finantza-bitartekariak | -18087 | -15578 | -9512 | 6.065 |
| – Administrazio Publikoak | 64.904 | 78.289 | 83.405 | 5.116 |
| Administrazio zentrala | 61.199 | 79.342 | 81.799 | 2.457 |
| Autonomia-erkidegoak | 3.905 | -832 | 1.656 | 2.487 |
| Tokiko udalbatzak | -200 | -221 | -50 | 171 |
| – Sozietate ez-finantzarioak | 13.028 | -6.462 | -4.646 | 1.816 |
| **Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak** | **14.398** | **-8.154** | **-9.779** | **-1.625** |
| – Kapitala zabaltzea. Funtsen ekarpena | 12.675 | -8.622 | -9.851 | -1.230 |
| Finantza-erakundeak | 7.318 | -3.962 | -6.494 | -2.531 |
| Sozietate ez-finantzarioak | 6.761 | -4.728 | -3.310 | 1.418 |
| – Salmenta-eskaintza publikoak | 1.723 | 468 | 72 | -395 |
| **Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoa, guztira** | **105.070** | **37.051** | **103.307** | **66.256** |

*(*): Finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balio nominalak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

### Bigarren mailako merkatuak: Burtsak

Akzioetan negoziatutako bolumena 301.249 milioi eurokoa izan zen, urte arteko jaitsierarekin (-% 16,8), azken ekitaldietan akzioen negoziazioak izandako beheranzko joerari jarraituz. Hala, 2015az geroztik, % 68,6koa da metatutako galera. Hori azaltzen duten arrazoien artean, honako hau aipatzen da: *"negoziazioa hainbat zentroren artean banatu izana. Lehiakideen bultzadaren parte da, Europako araudiak bultzatuta, baina negoziatutako bolumenak barne-sistemetara eta dark pooletara bideratzea eragin du horrek. Horri, gainera, zerga-esparruaren*[1] *inpaktua gehitu behar zaio, horrek erakargarritasuna kentzen baitie Espainian kotizatzen diren baloreei, zergaren mende ez dauden beste merkatu batzuen aurrean"* (Espainiako Burtsak eta Merkatuak, BME).

Jarduera-sektore guztietan egin zuen behera akzioetan negoziatutako bolumenak. Komunikazio-sektoreak (-% 25,5), sektore elektrikoek (-% 14,2) eta eraikuntzak (-% 13,3) izandako jaitsiera nabarmendu zen. Bankuen sektoreak (-% 4,1), berriz, jaitsiera txikiagoa izan zuen; erregistratutako negoziazioaren funtsezko zatia da bankuena (guztizkoaren % 31,4).

**263. koadroa Burtsa-merkatua Negoziatutako bolumenen balio efektiboa(akzioak)**

*(M euro)*

| | 2021 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| **Akzioak (SIBE, Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema)** | **377.661** | **362.122** | **301.249** | **-16,8** |
| Bankuak | 89.661 | 98.736 | 94.717 | -4,1 |
| Elektrikoak | 65.043 | 59.325 | 50.877 | -14,2 |
| Eraikuntza | 19.662 | 20.639 | 17.901 | -13,3 |
| Komunikazioa | 28.448 | 37.600 | 28.000 | -25,5 |
| Gainerakoak | 174.848 | 145.821 | 109.753 | -24,7 |
| **Gainerako akzioak** | **480** | **480** | **480** | **0,0** |
| Madrilgo burtsa | 360 | 360 | 360 | 0,0 |
| Bartzelonako burtsa | 120 | 120 | 120 | 0,0 |
| Bilboko burtsa | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| Valentziako burtsa | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| **Akzioak, guztira** | **378.141** | **362.602** | **301.729** | **-16,8** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Espainiako burtsa-merkatuaren aldakortasuna murriztu egin zen 2023ko ekitaldian zehar, eta VIBEX indizeren emaitza (% 14,7) baxuagoa izan zen 2022an (% 21,3) baino. Dena den, nabarmentzekoa da martxoan gora egin zuela aldakortasunak, AEBko (Silicon Valley Bank) eta Suitzako (Credit Suisse) banku-sektoreko shockaren ondorioz. Aldakortasun hori, ordea, murrizten joan zen, eta abenduan izan zuen mailarik baxuena (% 11,9).

[1] Transakzio Finantzarioen gaineko Zerga, Estatuan indarrean. Zerga honek transakzioaren zenbatekoaren % 0,2ko zerga ezartzen dio Espainiako konpainien akzioen erosketa garbiari, akzio horiek kotizatzeko onartuta badaude eta mila milioi eurotik gorako kapitalizazioa badute.

**49. grafikoa VIBEXen aldakortasun-indizea**




*(*): Kotizatutako aldakortasun inplizituaren bilakaera islatzen du VIBEX® indizeak, MEFF merkatuko IBEX 35® indizearen gaineko aukeretan, 30 eguneko denbora-tarte konstante batean.*

*Iturria: Espainiako Burtsak eta Merkatuak (BME)*

## Bigarren mailako merkatuak: Errenta Finkoa

Errenta finkoko merkatua hobetu egin zen (+% 8,1), eta 85.487 milioi eurora iritsi zen, zor publikoaren errentagarritasun altuaren ondorioz. Erreferentziazko interes-tasen igoerak[1] bultzatu zuen errentagarritasun altu hori. Hobekuntza hori bonu eta obligazio ez-bereizien bidez kanalizatu zen (+% 13,1); horiek 76.621 milioi euro batu zituzten (guztizkoaren % 89,6). Aldiz, behera egin zuten Altxorraren Letrek (-% 22,1) eta bonu eta obligazio bereiziek (-% 20,2).

[1] Horiek ez zuten proportzio bereko eragina izan pasiboaren ordainsarian. Hortaz, zor publikoan inbertitzea aukera erakargarriagoa bilakatu zen partikularrentzat. Espainiako Bankuaren arabera, 2023aren amaieran familiek (saldo nominala) 24.428 milioi euro zituzten Altxorraren Letretan. Zifra hori 1.826 milioi eurokoa zen 2022an. Hala, letren edukitzaile nagusiak bilakatu ziren (guztizkoaren % 34,1).

### 264. koadroa Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra (1)

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| **CADE sistema - ARCO sistema (2)** | **89.851** | **79.075** | **85.487** | **8,1** |
| – Bonu eta obligazio ez-bereiziak | 71.441 | 67.766 | 76.621 | 13,1 |
| – Bonu eta obligazio bereiziak | 4.872 | 2.830 | 2.259 | -20,2 |
| – Altxorraren Letrak | 13.539 | 8.480 | 6.608 | -22,1 |

*(1): Eskurako, eperako eta berrerosteko eragiketa-negoziazioen eguneroko zifren batez bestekoa. 2017az geroztik, araudi-aldaketa dela-eta, errenta finko pribatuko merkatuek ez dituzte argitaratu negoziazioaren gehiengoaren datuak (sistemako erabiltzaileen arteko salerosketa zuzenak).*

*(2): 2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistemaren kudeaketa Espainiako Burtsa eta Merkatuen Taldearen esku geratu zen, ARCO izenarekin, eta Europako T2S sistemarekin homologatu zen.*

*Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.*

Eratorrien merkatuan (MEFF) 29.264 mila kontratu negoziatu ziren, 2022an baino % 8,8 gutxiago, eta 2010ean (66.645 mila kontratu) erregistratutako jardueraren erdia baino gutxiago. Hortaz, merkatu horrek erakargarritasuna galdu duela baieztatu zen. Aldakortasunaren jaitsierak baldintzatu zuen beherakada hori. Hala, IBEX-35 indizearen gaineko gerokoek izandako jaitsiera nabarmendu zen (-% 15,3) —Espainiako eratorrien merkatuko produktu nagusia—, baita IBEXaren gaineko aukerek (-% 58,4) eta akzioen gaineko aukerek (-% 14,6) izandako jaitsiera ere. Akzioen gaineko gerokoek baino ez zuten hobera egin (+% 9,4).

### 265. koadroa Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua*

*(mila kontratu)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | 2023 | %∆ 23/22 |
|---|---|---|---|---|
| **Geroko finantzarioak, guztira** | **16.607** | **15.759** | **15.894** | **0,9** |
| – Indizeen gaineko gerokoak (IBEX) | 5.261 | 5.446 | 4.615 | -15,3 |
| – Akzioen gaineko gerokoak | 11.346 | 10.314 | 11.279 | 9,4 |
| **Aukera finantzarioak, guztira** | **15.555** | **16.337** | **13.370** | **-18,2** |
| – Indizeen gaineko aukerak (IBEX) | 1.489 | 1.344 | 559 | -58,4 |
| – Akzioen gaineko aukerak | 14.066 | 14.993 | 12.811 | -14,6 |
| **MEFF, guztira** | **32.162** | **32.097** | **29.264** | **-8,8** |

*(*): Egindako eragiketak*

*Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak)*

## 4.2 BILBOKO BURTSA

Bilboko Burtsaren indize orokorraren balioa asko hazi zen 2023an, eta 1.594,01 punturekin itxi zuen urtea (urte arteko tasa, +% 21,6), munduko indize nagusien emaitzen ildo beretik. Urtean zehar erregistratutako bilakaerak baieztatzen duenez, hobekuntza finkatu egin zen, eta ziurgabetasunez betetako hirurtekoa gainditu zen (2020tik 2022ra artekoa).

Abenduan eskuratu zen ekitaldiko hileko daturik onena; kapitalizaziorik txikiena, berriz, urrian (1.423,51 puntu) eta maiatzean (1.439,33) erregistratu zen.

**266. koadroa Bilboko Burtsaren Indize Orokorra. Azken balioa, maximoa eta minimoa**

| Urtea | Azkena | Maximoa | Minimoa |
|---|---|---|---|
| 2016 | 1.489,50 | 1.542,97 | 1.283,77 |
| 2017 | 1.577,50 | 1.748,99 | 1.479,05 |
| 2018 | 1.330,08 | 1.337,44 | 1.323,12 |
| 2019 | 1.485,36 | 1.488,93 | 1.481,62 |
| 2020 | 1.291,18 | 1.298,11 | 1.290,87 |
| 2021 | 1.397,35 | 1.399,37 | 1.390,08 |
| 2022 | 1.310,47 | 1.321,07 | 1.309,51 |
| 2023 | 1.594,01 | 1.599,68 | 1.593,18 |

*Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.*
*Iturria: Bilboko Burtsa.*

**50. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra Bilboko burtsa**




*Iturria: Bilboko Burtsa.*

Azkenik, Burtsa arteko Lotura Sistemaren bidez akzioetan erregistratutako kontratazioaren bolumena 52.282 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino baxuagoa (-% 19,5), aipatutako beheranzko joera argiari jarraituz (2015ean 182.570 milioi euro). Hala, Bilboko burtsan erregistratutako kontratazioa azken urteetako baxuena izan zen; % 72,7ko galera metatua zuen 2011rekiko (189.937 milioi euro).

**51. grafikoa** **Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak***

*(M euro)*




*(*): Erosketak + salmentak.*
*Iturria: Bilboko Burtsa.*